

HERODOTO
Historiak II

V. LIBURUA

1. Dariok Megabazoren agindupean European utzitako persiarrek, berriz, Darioren menpeko izan nahi ez zuten perinthoarrak -peoniarrengandik jipoi gogorra jasotakoak lehenago ere- menperatu zituzten Helespontoko beste ezein baino lehen. Izan ere, Strymon aldeko peoniarrei beren jainkoaren orakulu batek perinthoarren aurka joateko agindu zielarik eta perinthoarrok aurrez aurre kanpaturik zituztela beraien izena oihukatuz deitzen bazieten eraso egiteko, baina horrela ez bazieten deitzen ez erasotzeko, peoniarrek horixe egin zuten, hain zuzen ere.

Perinthoarrak euren aldirian kanpatuta aurrez aurre zituztela, hiru buruz buruko borrokaldi jazo ziren hantxe, perinthoarren erronka-oihuari erantzunez; eta halaxe eraso zioten elkarri, gizonak gizonari, zaldiak zaldiri eta txakurrak txakurrari. Perinthoarrekin borrokaldi haietariko bitan garaipena lortu eta Peana¹ pozez beterik abesteari ekin ziotenean, peoniarrei iruditu zitzaien huraxe zela orakuluak iragarritakoa, eta zera esan bide zioten elkarri, hurrean: "Oraintxe dago betetzen seguraski guri iragarritakoa, oraintxe dugu aukera". Beraz, Peana abestu zuten perinthoarrei eraso egin eta garaipen handia lortu zuten peoniarrek, etsai gutxi baino ez zutelarik bizirik utzi.

2. Horixe gertatu zitzaien behin perinthoarrei, bada, peoniarren aldetik; eta oraingoan, askatasunaren alde gizon kementsuen gisa jardun zuten perinthoar hauei kopuruaren indarrez garaitu zitzaizkien Megabazoren persiarrak. Perintho konkistatu ondoren, Megabazok Thrazian barna gidatu zuen bere armada, lurralde horretako hiri zein herri guztiak erregeren menpe jarritz. Horixe zelako, izan ere, Dariorengandik hartu zuen mandatura, Thrazia konkistatzea.

3. Thraziarrek, indiarren ondoren, munduan den herririk handiena osatzen dute; eta buruzagi bakar baten menpe baleude, edo arau amankomunen menpe, herri guztien artean askogatik indartsuena eta gaindiezina litzatekeelakoan nago. Baina ez dutenez horretarako biderik ez modurik, ahulak dira horrexegatik. Izen asko dituzte, bakoitzaren lurraldearen arabera, baina denak dira antzekoak orokorki beren ohituretan, getak eta trausoak, eta krestoniarrak baino iparrerago bizi direnak izan ezik.

4. Beren burua hilezkortzat duten getei dagokienez, azaldua dut zer egiten duten; trausoek, gainerako guztian beste thraziarren ohitura berberak dituztenek, honako hauxe egiten dute euretariko baten jaiotza edo heriotza gertatzean: haur bat jaiotzean, jaioberriaren senideak haren inguruan jezartzen dira eta jaiotzaz gerora jasan beharko dituen zoritxarren sail osoa deitoratzen, gizakumeen nahigabeak oro gogora ekarriz; defuntua, ostera, txantxa eta poz algaraz ehorzten dute, hainbat zoritxarretatik aske geratu eta zorientasun osora iritsi dela uste izanik.

5. Krestoniarrak baino iparrerago bizi direnek, ordea, honelaxe jokutzen dute: gizon bakoitzak emazte bat baino gehiago duenez, hura hiltzen denean lehia bizia gertatzen da alargunen artean, eta norgehiagoka gogorra berauen ahaideen artean, ea emazteotatik senarraren maiteena zein izan den frogatzeko; eta ohore hori lortu duenari, gizonezko zein emakumezkoengandik laudorioak jaso ondoren, lepoa moztan dio hilobiaren gainean beraren senide hurbilenak, eta, lepo egin ondoren, senarrarekin batera ehorzten dute.

Gainerako emazteek, bitartean, nahigabe sakona adierazten dute, beraientzat desohore handientzat daukaten gertakizun horren aurrean.

6. Hona hemen gainerako thraziarren ohitura: beren seme-alabak atzerrira saldu ohi dituzte eta ez dute hartzen neskasoen ardurarik, hauei gogoak ematen dien gizonekin sexu-harremanak izaten uzten baitie; baina beren emazteak, aldiz, oso hurretik zaintzen dituzte eta diru askoren truke erosi ohi dituzte emazteok gurasoengandik. Tatuajea eramatea goi-jatorriaren ezaugarritzat daukate, eta tatuajerik eza, ostera, jatorri apalekoen ezaugarritzat. Lanik ez egitea dute gauzarik ohoregarrientzat eta lurra lantzen duena, berriz, mesprezagarrientzat; gerratik eta arpilaketatik bizitzea, ohore handientzat.

7. Hauexek dira haien azturarik aipagarrienak. Ares, Dionyso eta Artemis beste jainkorik ez dute gurtzen. Baina euren printzeek, gainerako herritarrek ez bezala, Hermes gurtzen dute jainko guztien gainetik eta jainko horregatik bakarrik egiten dute zin, beraiek Hermesengandikoak direla aitortuz.

8. Haietariko aberatsen hiletak era honetara burutzen dira: gorpua hiru egunean zehar egoten da agerian, eta, mota guztietako eskaingaiak sakrifikatu ondoren, oturuntza egiten dute, hileta-erostak eginez lehenbizi; gero, gorpua errautsi edo eta ehortzi ondoren eta tumulu bat eraiki ondoren, era guztietako lehiaketak burutzen dituzte, sekulako sariak banatzen direlarik buruz buruko borroka bereziagatik. Halakoxeak dira, bada, thraziarren hiletak.

9. Lurralde horren iparraldeari dagokionez, inork ere ezin du zehaztu ziurtasunez nortzuk diren han bizi diren lagunak, baina Istro zeharkatzen baduzu, amaigabeko lurralde mortua besterik ez duzu aurkituko. Hauxe da jakin ahal izan dudana bakarra, Istroz harago bizi direnek sigynak izena dutela eta janzkera medotarrez

janzten direla; haien zaldiek bost hatz luzerarainoko ilaje trinkoa dutela gorputz osoan, txikiak eta mustur-motzak direla eta gainean inor eramateko ezgai, baina orga-uztarrian oso azkarrak; hortik lurralde honetakoak orgaz bidaiatzea².

Herri honen mugak, diotenez, Adriatikoko enetoen ingururaino iristen dira. Beraiek Mediatik etorriak direla diote. Nik ezin dut ulertu nola izan daitezkeen medotar jatorrizko etorkinak, baina dena gerta zitekeen mende luzeetan zehar. Edozein modutan ere, Masaliaren goiko aldean bizi direnek kinkilariei deitzen diete sigynak, eta zyproarrek azkonari deitzen diote horrela.

10. Thraziarrek diotenez, Istroren handiko aldea erlez bete-beterik aurkitzen da eta horrexegatik ez da haraino iristerik. Dena dela, traziarrek dioten horri ez deritzot nik sinesgarria, zeren animalia horiek oso hozperak baitira; nire iritziz, berriz, neguaren hotza dateke ipar lurralde horietan ezin bizi izatearen arrazoia. Hauxe da, bada, lurralde honi buruz esaten dena; eta lurralde horren itsasaldea da, hain zuzen ere, Megabazo persiarren menara ekartzen ari zena.

11. Dariok, Helesponto zeharkatu eta Sardesera heldu bezain laster, Miletoko Histieok egindako zerbitzua eta Koes mytilenetarraren aholkua gogoratu zituen eta Sardesera etorerrarazi zien beraiek nahi zuten saria aukera zezaten. Orduan, Histieok, Miletoko tiranoa zenez, ez zuen eskatu beste tiraniarik, baizik eta edonoen lurraldeko Mirzino, bertan hiri bat eraikitzeko asmoz. Horixe izan zen, beraz, Histieok hautatu zuena; Koesek, berriz, tiranoa barik hiritar soila zenez, Mytileneko tirano izatea eskatu zuen.

12. Bi gizonok, beren gurariak lortu ondoren, beraiek aukeraturiko lekuetara abiatu ziren; bitartean Dariori zera otu zitzaion, bera lekuko suertatu zen gertaera baten eraginez: peoniarrek hartu eta Europatik Asiara eramanez zitzala agintzea Megabazori. Baziren bi peoniar, Pigres eta Mastyes, beren lurraldeko buruzagi izan nahi zutenak eta Dario Asiara itzuli zenean Sardesera jo zutenak, arreba bat ere, liraina bezain ederra, beraiekin eramanez. Astiz itxaron zuten Dario lydiarren aldiriko entzutegian eseri zen arte eta hauxe egin zuten orduan: beraien arreba hura ahalik eta apaindura dotoreenez jantzi eta uretan bidali zuten, potina buruan eta zaldi bat besotik trailan zuela eta lihoa iruten bide batez. Emakumea aurretik igarotzean, Darioren arreba erakarri zuen; haren jokamoldea ez baitzen ez persiarren, ez lydiarren, ezta Asiako beste inongo emakumeren jokamoldeen gisakoa. Erregeren arreba piztu zenez, bada, honek bere goardietariko batzuei agindu zien emakume hura zaldiarekin zer egitera zihoan behatzeko. Goardiek atzetik jarraitu zioten, beraz; eta emakumeak, ibaira heldu zenean, zaldiari ura eman zion, eta gero, potina urez bete ondoren, joandako leku beretik itzuli zen, potina buruan, zaldia besotik trailan eta gorua eskuan zuela.

13. Dariok orduan, bere zelatariengandik entzundakoaz eta berberak ikusitakoaz txundituta, emakume hura bere aurrera ekar zezatela agindu zuen. Emakumea ekarri zutenean, han agertu ziren haren nebak ere, hura guztia zelatatzen zeudenak leku hartatik hurbil, eta emakumea zein herritakoa zen galdetzean Dariok, mutilek erantzun zuten peoniarrek zirela eta emakume hura arreba zutela. "Baina

nortzuk dira peoniarrek, zein lurraldetan bizi dira, eta zein asmoz etorri zarete Sardesera?" - ihardetsi zuen erregek. Haiek, orduan, beraren esanera jartzera etorri zirela adierazi zioten, Peonia Strymon ibaiaren ondoan aurkitzen zela, Strymon Helespontotik urruti ez zegoela eta peoniarrek Troiatik etorritako kolono teukroen jatorrikoak zirela. Hauxe guztia azaldu zuten haiek, eta erregek galdetu zien ea lurralde hartako emakume guztiak hain beharginak ote ziren. Eta horri baietz erantzun zioten bete-betean, halaxe zela; izan ere, horixe adieraztearren prestatu zuten hura guztia.

14. Orduan Dariok letra batzuk idatzi zizkion Megabazori, Thrazian armadaren buru jarritakoari, peoniarrek beraien etxeetatik hartu eta bere aurrera ekar zitzala aginduz, gizonetakoak euren seme-alaba eta emazteekin batera. Berehalaxe irten zen zaldizko bat mezu horrekin Helespontorantz, hau zeharkatu eta Megabazoren eskuetan jarri zuen gutuna. Honek gutuna irakurri, gidari traziar batzuk hartu eta Peoniarantz zuzendu zuen bere armada.

15. Peoniarrek, orduan, persiarrek aurka zetozkiela jakin bezain laster, elkarrengana bildu eta itsasaldera abiatu ziren, persiarrek handixek erasoko zitelakoan. Peoniarrek prest zeuden, beraz, Megabazoren armadari aurre egiteko; persiarrek, ordea, peoniarrek beraien indarrak bildu eta itsasaldeko bidea zaintzen zeudela jakin zutenean, gidariak zituztenez, barnealdeko bideetatik igo eta peoniarrek ustekabean harrapatu zituzten, defendatzailerik gabe utzitako hiriei oldartzean; eta defentsarik gabe aurkitu zituztenez, erraz-erraz eskuratu zituzten hiriok. Peoniarrek orduan, beren hiriak hartuak zirela jakitean, berehalaxe barreiatu eta bakoitza bere bizilekura abiatu ziren, persiarren menpe jarritz. Halaxe hartu zituzten euren etxeetatik eta Asiara eraman peoniarren artetik siriopeoniarrek, peoplak eta Prasiade lakurainoko lurraldeetako bizilagunak.

16. Ostera, Pangeo mendi inguruetakoak, hala nola doberear, agrianiar eta odomantoak, eta Prasiade lakukoak eurak ere ez zituen inoiz meneratu Megabazok, nahiz eta saiatu bai egin zela lakuko biztanleak meneratzen; ondoren azalduko dudako moduko bizilekuak dituzte horiek: lakuaren erdian zutoin altu batzuetan oinarrituriko plataforma bat dago, pasabide estu bat besterik ez duelarik lehorretik bertara iristeko. Plataformari eusten dioten zutoinak herri osoak auzolanaren bidez antzina batean eraikiak izan ziren, baina geroago honako arauaren arabera eraikiak izan dira: zutoinak Orbelo deritzon menditik ekartzen dituzte eta gizon bakoitzak ezkontzen duen emakume bakoitzeko hiru ipintzen dira; eta bakoitzak emazte asko izan ohi ditu.

Hona hemen nolakoak diren bizitetzeak: plataforma hartan bakoitzak bere etxola du bizilekutzat, eta plataformaren zoladuran sabaizulo bat lakura jaisteko. Haur txikiak sokatxo batez lotzen dituzte hankatik, laban egin eta uretara jaus ez daitezzen.

Zaldi eta zamabereei arrainkia ematen diete pentsutzat, hain arrain asko baitago han, non sabaizuloa ireki eta soka batez lotutako otarre huts bat lakura sartzen duenak arrainez beterik aterako duen denbora asko iragan orduko. Bi arrain mota dituzte han, paprakak eta tilonak deritzenak.

17. Horrela ba, harrapaturiko peoniarak Asiara eramane zituzten. Megabazok orduan, peoniarak menperatu eta gero, zazpi persiarrez osaturiko ordezkari bat bidali zuen Mazedoniara, beraren ondoren prestigio handienekoak armadan; Amintasengana bidali zituen, Dario erregerentzat lurra eta ura galdatzera. Izan ere, Prasiade lakutik oso bide laburra dago Mazedoniara: lehenengo eta behin, lakutik hurbil, Alexandrok gerorantz zilarrezko talentu bat egunero ateratzen zuen meatzea

aurkitzen da, eta meatzea igaro ondoren, Dysoro deritzon mendia zeharkatzea baino ez dago Mazedoniara heltzeko.

18. Bidalitako persiar horiek Amyntasengana heldu eta haren aurrera aurkeztu zirenean, Dario erregerentzat lurra eta ura galdatu zioten. Honek, eskatutakoari baiezkota eman eta gonbidatu gisa hartu zituelarik, afari eder bat antolatu zuen persiarrentzat eta abegikortasun osoa eskaini zien. Janaldiaren ondoren, edanean zeudela, hauxe esan zioten persiarrek: "Mazedondar abegitsu hori, persiarron artean ohitura dugu, oturuntza oparo bat eman ondoren, ohaideak eta zilegizko emazteak ere gizonen ondoan jezartzea. Zuk ere, bada, hain harrera ona egin eta hain abegitsu hartu gaituzunez eta Dario erregeri lurra eta ura emateari baietz esan diozunez, gure ohiturari jarraitu behar zenioke". Eta horri zera erantzun zion Amyntasek: "Persiarrok, gure artean ez da halako ohiturarik, baizik eta gizonezkoak andrazkoengandik aparte egotekoa; baina zuok, agintzen duzuenok, hori ere eskatzen baduzue, bete dadila zuen nahia".

Hori esan eta emakumeei deitzeko agindu zuen Amyntasek; emakumeak deiari erantzunez etorri eta persiarren aurrez aurre jezarri ziren. Persiarrak orduan, emakume ederrak aurrean ikusiz, Amyntasengana zuzendu ziren, jokabide hark ez zuela zentzurik esanez; emakumeak etorri eta, beraien aldamenean jezarri beharrean, begien tormenturako aurrez aurre jezartzea baino hobe izango zutela emakumeok ez balira etorri ere egin. Amyntasek orduan, bere gogoz kontra, haien aldamenean jezartzeko esan zien; eta emakumeek esana egin bezain laster, persiarrak, ordurako ardoaren ardoz mozkortuta, bularretan ukituka eta baten bat agian laztandu nahian ere hasi zitzaizkien.

19. Hau guztia ikusten zegoen Amyntas, berriz, jasangaitza zitzaion arren, eramankor ageri zen, persiarrei beldur handia zielako; baina Alexandrok, Amyntasen semeak, guztiorren lekuko hura ere eta hain gaztea eta txarrik ezagutu gabea izanik,

ezin izan zuen gehiago jasan eta haxe esan zion Amyntasi haserre biziz: "Aita, har ezazu kontuan zure adina eta utz gaitzazu eta hartu atsedena, edaten jarraitu gabe; neu geratuko naiz hemen, gure gonbidatuei behar duten guztia emateko". Alexandrok ekintza gogorren baten asmoa zerabilela atera zuen Amyntasek berba haietatik, eta "Seme", -esan zion- "suminez beterik hagoenez, nik hemendik alde egin eta ekintza gogorren bat burutu nahi duala antzematen diat hitzetatik; nik haxe erregutzen diat, aldiz, hondamendia gerta ez dakigun: jende horren kontra ezer gogorrik ez dezaala burutu, baizik eta haiek egiten dutena pazientziaz jasan; eta nik alde egiteari buruz, hire aholkuari kasu egitera noa".

20. Amyntasek erregu horren ondoren alde egin zuenean, berriz, haxe esan zien Alexandrok persiarrei: "Jaunak, emakume hauek zeuon esanera daude erabat, dela guztiokin, dela horietariko batzuekin larrua jo gura baduzue. Horri buruz zeuok erabaki; baina oheratzeko ordua ere gainean duzue honezkero, eta mozkor-mozkor zaudetela ikusten dudanez, utz iezaiezue emakume hauei, hala bederitzozue, bainu bat hartzera joan daitezen, eta har itzazue gero, bainatu ondoren". Hori esan eta persiarrak ados azaldu zirelarik, emakumeak handik atera eta ginezeora bidali zituen; gero, emakumeak bezainbeste mutil bizargabe hautatu zituen Alexandrok, emakume-jantziak jarri eta sastagaiak eman zizkien, eta, horrela gelara sarraraziz, ondoko haxe esan zien persiarrei: "Persiarrok, zuen gogobeteko oturuntza eskaini dizuegula uste dut; geneukan guztia eta horrezaz gain aurkitu ahal izan dugun

guztia ekarri dizuegu aurrera; eta dugun gauzarik preziatuena oparitu nahi dizuegu orain, geure amak eta arrebak alegia, benetan merezi dituzuen ohore guztiak har ditzazuen gure aldetik, eta bidali zaituzten erregeri ere bide batez konta diezaiozuen zein abegitsu hartu zaituzten, mahaian nahiz ohean, Mazedoniako gobernari heleniar batek". Hori esanez, persiar bakoitzaren aldamenean emakume moxorroturiko mazedondar bat jezarrarazi zuen Alexandrok; eta persiarrak zirrika hasi zitzaizkienean, mazedondarrek garbitu egin zituzten.

21. Halakoxe patuz galdu ziren, bada, haiek eta beren segizio osoa; zeren orgak ere ekarri zituzten, eta zerbitzariak eta gainerako gauza pila; hori guztia suntsitu zuten beraz mazedondarrek, mandatari guztiekin batera. Harrezkero, ez horren luzarora, gizon haiei buruzko ikerketa zehatz bat ireki zuten persiarrek, baina Alexandrok ikerketa hura geldiarazten jakin zuen, diru-kopuru handi bat eta Gygea zeritzon bere arreba oparitzuz; opariok Bubares persiarrari egin zizkion, desagertuen ikerketa zuzentzen zuenari. Horrelaxe geratu zen ikertu gabe eta isilean, beraz, gizon haien heriotza.

22. Bestalde, Perdikasen oinordeko horiek heleniarrak direna beraiek aitortzen duten bezala, nik neuk jakin ahal izan dut eta hurrengo kapituluetan probatuko dut; halaxe zela erabaki zuten joko olinpikoen ardura duten Helenodikek³ beraiek ere, gainera. Izan ere, Alexandrok lehiaketan parte hartzea erabaki eta horretara jaitsi zen batean, lehiakide heleniarrek kanpoan utzi nahi izan zuten, lehiaketa hura atzerritarrentzat barik heleniarrentzat zela argudiatuz; baina Alexandrok argostarra

zela frogatu zuenean, heleniarra zela ebatzi zuten, eta, estadioko norgehiagokan jardunez, lehenengoarekin batera helmugaratu zen. Halaxe gertatu ziren, bada, gauzok, gutxi gorabehera.

23. Megabazo, bitartean, Helespontora iritsi zen peoniarrek zekartzala, eta, Helesponto zeharkatuz, Sardesera heldu zen. Orduan, Miletoko Histieok zubia zaintzearen Darioengandik saritzat lortu zuen leku hura ordurako gotortzen ziharduenez (leku haren izena Myrzino zen, Strymon ibaiertzean) eta Megabazok horren berri izan zuelarik, haxe esan zion Dario, peoniarrekin Sardesera heldu bezain laster: "Jauna, zer da egin duzuna? Heleniar abil bezain maltzur bati eman diozu hiri bat Thrazian eraikitze baimena, untiak egiteko baso ugari dagoen tokian eta arraunak egiteko ohol ugari, eta zilarrezko meatzeak, baita heleniar zein atzerritar bizilagun ugari ere, zeinek, gidaritzat buruzagi bat aurkitzen badute, hark agintzen diena egingo baitute gau eta egun. Galaraz iezaiozu, bada, gizon horri egiten dagoena, barne-gerra batekin aurki ez zaitez; horrelakorik gerta ez dadin, berba leunez ekar dezakezu; eta, eskuan duzunean, lagun hori ez dadila sekula ere heleniarren artera itzul".

24. Berba horiekin aise konbentzitu zuen Dario, Megabazok etorkizuna zuzen aurreikusten zuelakoan. Ondoko mezu hau igorri zuen bada, berehalaxe, Myrzinora. "Histieo, haxe diotsu Dario errege: pentsatzen jarrita, ez dut aurkitzen zu bezain lagun jatorrik niretzat eta neure gauzetarako; hitzek barik, ekintzek erakutsi didate horrela dela. Zatoz, bada, erreparurik gabe niregana, buruan ditudan egitasmo handien berri eman

nahi dizut eta". Berba horiei fede emanik, eta harro-harro, gainera, erregeren aholkulari bihurtu ahal izateaz, Histieo Sardesera etorri zen; eta berba hauexek esan zizkion heldu berriari Dariok: "Hona hemen zertarako deitu dizudan, Histieo: Szytiatik itzuli bezain laster, eta zu nire aurretik alde egina zinela, ezer ere ez dut desiratu hain berehala zu ikustea eta zurekin hitz egitea baino, badakidalako, jakin, lagun zentzunduna eta prestua dela mundu honetako altxorrik handiena, eta zuregan gauza biak ikusi ahal izan ditudala aitor dezakedalako nire interesei dagokienez. Orain, bada, hona etortzeaz ondo jokatu duzula ikusiz, proposamen haxe egiten dizut: utz ezazu Mileto, eta Thrazian eraiki berri duzun hiri hori, eta zatoz nirekin Susara, han dudan guztia zurea ere izan dadin eta nire mahaikide eta aholkulari izan zaitezen".

25. Halaxe hitz egin zuen Dariok; Eta aitaren aldetiko anaia zuen Artaphrenes izendatu ondoren Sardesko gobernadore, Susarantz abiatu zen, Histieo berarekin eramanez. Bestalde, Otanes izendatu zuen kostaldeko gudarosteen jeneral; Otanes honen aita izan zen, Sisamnes, Kambysesek lepoa moztu eta burutik behatzera larrutzea agindu zuena, diruagatik bidegabeko sententzia bat eman zuelako; eta erauzitako larrua zerrendatan ebaki eta Sisamnesek epaia emateko jarlekutzat erabili zuen tronua forratzea agindu zuen; hori egin ondoren, Kambysesek lepo egin eta larrututako Sisamnes horren semea izendatu zuen haren lekuan epaile, kontuan har zezala ohartaraziz zein epai-tronutan epaitzen zuen.

26. Aulki hartan jezartzen zen Otanes hura gertatu zen, beraz, Megabazoren ondorengo buruzagitza; eta berak menperatu zuen Byzanzio eta Khalzedonia, hala nola Troaden aurkitzen den Antandro, eta Lamponio; eta lesboarregandik lortutako untziez baliatuz, Lemno eta Imbro ere eskuratu zituen, garai hartan oraindik pelasgiarrak bizi ziren uharteak, alegia.

27. Lemnoarrei dagokienez, ongi borrokatu eta ongi defendatu zuten beren burua, baina azkenean suntsituak izan ziren, eta bizirik geratu zirenei persiarrek Lykareto ezarri zieten gobernadore, Samoko errege izandako Meandrio delako haren anaia. Lykareto hau Lemnon gobernatzen ari zela zendu zen... Horren guztiaren xedea honako hauxe baitzen: herri guztiak esklabotu eta menpean jartzea, dela szythiarren aurkako gerrari itzuri omen zitzaizkiotelako, dela Darioren armadari zirikatu omen ziotelako Szythiatik itzultzerakoan.

28. Hauxe guztia burutu zuen, beraz, Otanesez bere buruzagitza denboran. Geroago, zorigaitzak une labur batez baretu orduko, berriro ere hantxe agertu zitzaizkien ezbeharrak joniarreri, Naxo eta Miletoen eskutik. Izan ere, Naxo gainerako uharteak baino gehiago zen aberastasunean eta Mileto ere bere zoriaren erpinean zegoen garai beretsuan, Joniako bitxia izateraino. Hala ere, gertakari hauen aurretik, barne-istilu oso larriak izan zituzten bi belaunalditan zehar, paroarrek lortu zuten arte haien arteko bakea; zeren miletoarrek heleniar guztien artetik paroarrak hautatu baitzituzten bitartekaritzat.

29. Hona hemen nola egin zituzten bakeak paroarrek: hauen arteko hiritar prestuenak Miletora iritsi zirelarik eta hango bizilagunak zein miseria gorritan bizi ziren jabetu, lurralde hartan zehar ibili gurako zutela adierazi zuten. Horretan zebiltzala, Miletoko lurralde osoa ikuskatzen, landa-lurren hondamendi hartan ongi landutako lurren bat aurkitzen zuten bakoitzean, lur horren jabearen izena anotatzen zuten. Azkenez, lurralde osoan zehar ibili eta gero halako jabe gutxi batzuk baino aurkitu ez zituztenez, hirira heldu bezain laster herria batzarrera deitu eta ongi landuriko lur haien jabeak izendatu zituzten hiria zuzentzeko

gobernari; zeren horiexek izan zitezkeen, zioten, arazo publikoez beraienez bezain taxuz arduratzeko gai; eta gizon horiexei obeditzeko agindu zieten ordurarte liskarretan zebiltzan gainerako miletoarrei.

30. Halaxe ekarri zieten bakea, beraz, paroarrek miletoarrei. Baina orain hiri horietatik hasi zitzaizkien zorigaitzak joniarrei: herri-gobernuak gizon aberats batzuk Naxotik erbesteratu zituelarik, hauek Miletoara jo zuten. Mileton orduan gobernatzen zuena Aristagoras zen, hain zuzen, Molpagorasen semea, Dariok berarekin Susan zeukan Histieo Lysagorasenaren suhi eta lehengusu, aldi berean; izatez Histieo baitzen Miletoako tiranoa, nahiz eta une hartan, lehenago berarekin abegi-lokarriak izandako naxoar haiek etorri zirenean, Susan zegoela gertatu.

Miletoara etorri ziren naxoarren, bada, ea laguntza armaturen bat eman ote liezaiekeen galdetu zioten Aristagorasi, beren herrira itzul ahal zitezen. Aristagorasek, naxoar haiek beraren bitartez aberriratzuz gero, bera izan zitekeela pentsatuz hango gobernari, eta Histieorekin zuten aspaldiko adiskidantzaren aitzakiaz, proposamen hau egin zien: "Nik neurez ezin eman ahal izango dizuet zuen hiria gobernatzen duten naxoarren gogoz kontra aberriratzeko behar duzuen laguntza armatua; bai baitakit naxoarren zortzi mila hoplita eta gerrauntzi asko dituztela; baina ahalegin guztia egingo dut, hala ere, arazoari konponbidea emateko. Hona hemen nire plana. Artaphrenes laguna dut; eta jakin ezazue Artaphrenes, Asiako itsasalde osoa gudaroste handi batekin eta gerrauntzi ugariarekin bere agindupean duena, Hystaspesen seme eta Dario erregeren anaia dela; gizon horrexek lortuko digu, nik uste, nahi dugun guztia". Hori entzunez, naxoarren Aristagorasen eskuetan utzi zuten arazoa, hark ahal bezala konpon zezan, eta opariak eta

armadaren kostua agintzeko baimena ere eman zioten, beraien bizkar hartuz gastuok; Naxora iristerakoan, hango herritarrek beraien aginduak oro beteko zituztela eta gainerako uharteetakoek ere gauza bera egingo zutela uste baitzuten uste osoz. Izan ere, Zyklade uharte horietarik bat bera ere ez baitzegoen oraindik Darioren menpe.

31. Joan zen, bada, Aristagoras Sardesera eta esan zion Artaphrenesi Naxo ez zela egiatan uharte handia tamainuz, baina gainerakoan lurralde ederra bezain emankorra zela, eta Joniaren ondoan zegoena, aberastasun ugari eta esklabo asko zituelarik, gainera. "Bidal ezazu, beraz, zure armada lurralde horren kontra, handik erbesteratu dituzten gizon horiek bertara itzularaziz. Eta horrela egiten baduzu, diru-kopuru handi bat izango duzu nire aldetik, armadaren kostuetarakoaz gain; bidezkoa baita, izan ere, ekimen horren aitzindariok geure bizkar hartzea gastu horiek; horrela, gainera, uharte bat baino gehiago jarri ahal izango duzu erregeren menpe, Naxo bera eta horren eskupean dauden Paro, Andro eta Zykladeak deritzoten gainerakoak. Uharteok abiapuntutzat hartuz, erraz-erraz izango duzu Eubeari, Zypro baino txikiago ez den eta konkistatzeko oso erraza den uharte eder eta aberats horri, eraso egitea. Aski dira ehun gerrauntzi guztiok konkistatzeko". Eta hauxe erantzun zion orduan Artaphrenesek: "Proposatzen dizkidazun egitasmoak erregeren interesen aldekoak dira eta zure iradokizun guztiok zuzenak, gerrauntzien kopuruarena izan ezik; ehun ez baina berrehun untzi izango dituzu prest udaberrirako. Baina erregeren oniritzia ere beharko da horretarako".

32. Aristagoras, horrelakoak entzun eta gero, pozez gainezka itzuli zen Miletora. Artaphrenesek, berriaz, Aristagorasek esanikoen berri ematera bi mezulari bidali zituelarik Susara eta Dariok berak ere planari oniritzia eman ziola, berrehun triere

antolatu zituen, hala nola persiarrez eta berauen aliatuez osaturiko konpainia handi bat, eta Megabates izendatu zuen guztion buruzagi, Akhemeniden jatorriko persiar bat, beraren eta Darioren lehengusua; horrexen alabarekin berbatu zen gerorantz, kontatzen dutena egia baldin bada, Pausanias lazedemondarra, Kleombrotoren semea, Heladeko tirano bilakatzeko zuen gurariak eraginda. Eta Artaphrenesek, Megabates jeneral izendatu ondoren, Aristagorasenganantz bidali zuen armada hura.

33. Megabatesek orduan, Aristagoras, armada joniarra eta naxoarrak hartuz Mileton, Helespontora zihoalako egin zuen, baina Khio parera heldu zenean, Kaukasan ainguratu zituen itsasuntziak, iparraizearen laguntzaz handik Naxora oldartzeko asmotan. Baina naxoarrak espedizio honen pean suntsitzea ez zenez patua, ondoren kontatuko dudana gertatu zen. Megabates itsasuntzietan goardian zeudenak ikuskatzen ari zela, Myndoko untzi batean goardia egiten inor ere ez egotea suertatu zen; Megabatesek orduan, gertatutakoaz oso haserre, untzi hartako kapitainaren bila joateko agindu zien bere goardiei (Szylax zuen izena) eta untiaren argizulo batetik erdi esekita utz zezatela, burua kanpoko aldean eta gorputza barruan zuela loturik. Szylax horrela lotuta zegoela, norbaitek Aristagorasi jakinarazi zion beraren adiskide myndoarra Megabatesek nola lotu eta laidoztatzen zuen. Aristagorasek persiarrarengana jo zuen, orduan, Szylaxen alde erreguz, baina bere eskariei kasurik ere ez zenez egin, joan eta berak askatu zuen gizona. Megabates haserre biziak hartu zuen hura jakitean eta bortizki zuzendu zitzaion Aristagorasi, baina honek hauxe esan zion: "Baina zuk, zer zerikusi duzu zuk arazo horiekin? Ez al zaitu bidali Artaphrenesek neure esana egin eta neuk agintzen

dizudan lekura nabigatzeko? Zer dela-eta sartzen duzu sudurra denetan?" Horrelaxe egin zuen berba Aristagorasek. Megabatesek ordea, amorruaren amorruz, iluntze aldera zenbait gizon bidali zituen txalupaz Naxora, beraien kontra paraturik zegoen guztiaren berri ematera.

34. Izan ere, naxoarren ez zuten susmatzen, inondik ere, espedizio hura beraien aurkakoa zenik. Baina egiaz jabetu bezain laster, baserrietan zuten guztia ekarri zuten aurki harresien barrura eta janariz zein edariz hornitu ziren gerta zitekeen setioari aurre egiteko, eta harresiak eurak ere gotortu egin zituzten. Prestaketa guztiak egin zituzten, beraz, gainera zetozkien gerrarako; eta etsaiek, beren gerrauntziekin Khiotik Naxora iritsi zirenean, gotorturiko hiri baten aurka egin zuten eraso eta lau hiletan zehar setiatu zituzten. Orduan, persiarrek zekarten diru guztia eta Aristagorasek berak ere bere poltsikotik asko gastatu zutenean, eta setiorako oraindik gehiago behar zenez, naxoar erbesteratuentzako gotorleku bat eraiki zuten eta porrot eginda itzuli ziren kontinentera.

35. Aristagorasek ez zeukan modurik Artaphrenesi agindutakoa betetzeko; izan ere, armamentu gastuei buruzko eskabideen presioaz gain, oso kezkatuak zegoen armadaren porrot hartatik eta Megabatesen etsaigotik etor zekiokkeenaz, eta Miletoren gaineko agintea kenduko ziotenaren beldur ere bazen. Beldur hauen guztion eraginez, Aristagorasek jarkitzea erabaki zuen; zeren hain zuzen ere orduantxe iritsi baitzen, baita, Histieok Susatik bidalitako mezularia, buruan tatuajeduna, erregeri jarki zekiola adieraziz Aristagorasi. Alabaina, Histieok Aristagorasi jarki zedila adierazi nahi ziolarik, ez zuen aurkitu hori egiteko beste erarik, bideak oro zainduta zeuden-eta, bere esklabo leialenari burua garbi moztarazi eta mezua bertan tatuatzea baino, eta ilea berriz hazi bezain laster Miletora bidali zuen, agindu bakar honexekin: Miletora heltzen zenean ilea arrasean

moztarazi eta kaskoa azter ziezaiola eskatzea Aristagorasi. Han tatuaturiko zeinuek matxinada adierazi nahi zuten, lehen esan dudan bezala. Histieok horrela jokatu bazuen, Susan derrigorrez egonarazteaz zeharo arnegaturik zegoelako izan zen; eta errebolta gertatuz gero, itsasaldera bidaliko zuten itxaropen handiak zituelako, baina Miletok bakean irauten zuen bitartean, oster, ez zela inoiz itzuli ahal izango uste zuelako.

36. Asmo horrexekin bidali zuen, beraz, Histieok bere mezularia, eta Aristagorasi gauza guztiok erabat eta aldi berean etorri beharra suertatu zen. Bere jarraitzaileekin deliberatu zuen, hala bere iritzi pertsonala, nola Histieorengandik etorri zitzaiona ezagutaraziz. Eta gainerako guztiak ere zentzu berean azaldu ziren, erreboltaren alde; Hekateo historialaria izan zen persiarren erregeren aurka gerra ez egitea aholkatu zuena hasiera batean, Darioren menpe zeuden herri guztiak eta haren indarra gogara ekarriz. Baina ez zituen konbentzitu, zera aholkatu zien bigarren hitzartze batean, egin zezaketen planik onena itsasoaren hegemonia lortzea zela. Horretarako, jarraitu zuen esaten, bide bat besterik ez zuen ikusten: bazekien ongi Miletoren indarra mugatua zena, baina Kreso lydiarrak sagaraturiko altxorra eskuratuz gero Brankidatarren tenplutik, itsasoaren jabe egitea lortuko zuten itxaropen handia zeukan, eta horrela, gainera, altxor hartaz baliatzeaz gain, etsaiek ez zuten izango hura arpilatzerik. Altxorra oso handia zen, izan ere, nire historia hauen lehenengo partean azaldu dudanez. Beraz, proposamen hark ez zuen izan arrakastarik, baina, hala ere, matxinatzea eta haietariko bat Myunterantz itsasoratzea erabaki zuten, Naxotik itzuli ondoren han aurkitzen zen untziteriaren bila, eta han untzietan ziren jeneralak atxilotzen saiatzea.

37. Jatragoras bidali zuten horretara eta amarru bidez atzeman zituen Mylasako Oliato Ibanolisena, Termerako Histieo

Tymnesena, Dariok Mytilene oparitu zion Koes Erxandrorena, Zymeko Aristagoras Heraklidesena, eta beste asko ere bai. Horrela, horren guztiaren ondoren, Aristagoras ageriro matxinatu zen, jakina, Darioren aurka asmatu ahal zuen guztia eginez. Eta lehenengo eta behin, tirania abolitzen zuelakoa eginez, Mileton isonomia⁴ ezarri zuen, miletoarrek gogoz jarrai ziezaioten erreboltara. Eta gauza bera egin zuen geroago gainontzeko Jonian ere; tirano batzuk erbesteratu egin zituen, eta Naxoren aurka itsasoraturiko untzietan atzeman zituen tiranoei dagokienez, berauen jatorrizko hiriekin adiskidetu nahian, bakoitza bere jaioterrira bidali zuen besterik gabe.

38. Hortaz, mytilenetarrek Koes berenganatu bezain laster, harresitik kanpora atera eta harrika hil zuten. Zymetarrek, oster, berena erbesteratu egin zuten; eta gauza bera egin zuten gainerako gehienek. Tiranoen eraispena burutu zen horrela, beraz, hirietan. Miletoko Aristagorasek, tiranoak eraitsi eta gero, hiri bakoitzean estrateg⁵ bat jartzeko eskatu zien denei, eta jarraian Lazedemonera abiatu zen berbera mandatari gisa, triere batean; izan ere, aliatu sendoren bat aurkitzeko beharrezana zeukan.

39. Spartan ez zuen dagoeneko erreinatzen Anaxandrides Leonenak, jadanik zendua, baizik Kleomenes Anaxandridesenak; eta hori ez zen iritsi erregetzara bere giza balioengatik, baizik eta jaiotza eskubidez. Izan ere, Anaxandridesek bere arrebaren alaba hartu zuen emaztetzat, eta oso gustura zegoen beronekin, nahiz eta seme-alabarik ez izan. Hori horrela, eforoek deitu eta hauxe esan zioten: "Zu zeure buruaz arduratzen ez bazara ere, guk ezin diogu utzi galtzen Eurysthenesen etxeari. Beraz, orain duzun emazteak umerik ematen ez dizunez, bidal ezazu hura eta ezkon zaitez beste batekin; horrela egiten baduzu, poztuko dituzu spartarrak". Baina

Anaxandridesek erantzun zien ez zuela ez bata ez bestea egingo, eta haiek ez zutela behar bezala aholkatzen, zeukan emaztea, berari ezelako hutsik egin gabea, zapuztu eta etxera beste bat ekartzeko eskatzean; horretan ez zuela amorerik emango".

40. Horren aurrean, eforoek eta zaharrek auzia aztertu eta proposamen haxe egin zioten Anaxandridesi: "Duzun emaztea benetan ere atsegin duzula dakusagunez, egizu ondoko haxe eta etzazu esan ezetzik, spartarrek zure kasuaz beste neurriren bat har ez dezaten; ez dizugu eskatuko, bada, duzun emazte hori zapuztea, aitzitik emaiou orain ematen diozun guztia, baina ezkon zaitez, hura utzi gabe, umeak eman ahal dizkizun beste emakume batekin". Hitz horiexek esan zizkieten gutxi gorabehera eta Anaxandrides ados azaldu zen, harrezkero bi emazte izan zituelarik eta bi etxetan bizi zelarik, beraz, Spartan zeharo ez-ohiko dena.

41. Handik gutxira, bigarren emaztea Kleomenes hartaz erditu zen, hain zuzen. Horrela, spartarrei erregetzarako oinordekoa eman zien emakume hark; baina hara non, ordurarte antzu zen lehenengo emaztea ere haurdun geratu zen garai hartantxe. Eta benetan ere haurdun zegoen arren, bigarren emaztearen senitartekoak, haurdunaldiaz ohartzean, zirika hasi zitzaizkion, haurdunaren plantak egiten zebilela-eta, gero haurra erditzen zuelakoa egiteko asmoz. Jende haren ahakarraren aurrean, eta erditze unea iristear, eforoek erturrenaren inguruan jezarri ziren, hain zen handia sinesgogortasuna, erditzearen lekuko izateko.

Eta emakume hura, Dorieo mundura horrela ekarri eta gero, Leonidasez erditu zen lehenengo eta Kleombrotoz jarraian; nahiz eta batzuek diotenez, Kleombroto eta Leonidas bikiak ziren. Kleomenesen ama izandako bigarren emazteari dagokionez (Prinetades Demarmenorenaren alaba zen hura), ez zuen beste haurrik izan.

42. Horiek horrela, Kleomenes ez zegoen bere senean, baizik eta, diotenez, ero samar; Dorieo, ostera, bere adinkide guztien artean gailena zen, eta erregetza berak lortuko zuela uste zuen bete-betean, bere giza balioagatik. Hain uste osoan zegoen, non, Anaxandrides zendutakoan lazedemonдарrek beren legearen arabera Kleomenes seme nagusia izendatu zutenean errege, Dorieo haserre biziak hartu zuen eta, Kleomenesen erregetzaren meneko izateari desohore iritzi ziolarik, spartarrei laguntalde bat eskatu eta kolonia bat sortzera eramán zituen, Delphosko orakuluari kontsultatu ere egin gabe zein lurraldetan sortu kolonia hori, eta ohiko arauetariko bat ere kontuan hartu gabe; haserrearen haserrez, beraz, Libyarantz zuzendu zituen untxiak, theratar batzuk zituela gidari. Libyara heldu zenean, hango inguru ederrenean gelditu zen, Zinype ibaiertzean. Baina handik bi urtera Libyako makek eta karthagoarrek kanpora bota zituzten eta Peloponesora itzuli ziren.

43. Han, Antikhares zeritzan Eleongo gizon batek, Laioren orakuluetan oinarrituz, Siziliako Heraklea koloniza zezala aholkatu zion, Heraklese berak konkistatu omen zuelako Eryx lurralde osoa, Antikharesen esanetan, eta lurralde hura Heraklesen ondorengoena zelako, beraz. Hori entzun eta gero, Dorieok Delphosera jo zuen, joateko asmoa zeukan lurralde hura eskuratuko zuenentz galdetzerá; eta Pythiak baietz erantzun zion, eskuratuko zuela. Dorieok, orduan, Libyara eramán zuen laguntaldea hartu eta Italia inguratu zuen kostaz.

44. Hain zuzen ere une hartantxe ari ziren prestatzen sybaristarrak, sybaristarrek berek diotenez, Krotonen aurkako gudua Telys erregea buru zutela, eta krotondarrek, izuak hartuta, Dorieoarengana jo zuten laguntza eskatzera, eta eskariak baiezkó aurkitu zuen; beraz, Dorieo haiekin batera joan zen Sybarisen aurka eta hiri hori hartzen lagundu zien. Haxe da behintzat sybaristarrek Dorieoz eta beronen lagunez kontatzen duten historia; krotondarren arabera, osterá, ezein atzerritarrek ere ez zien lagundu sybaristarren aurkako guduan, Kalias, jamiden familiako azti elearrak salbu; eta horrek ondoko arrazoi honegatik lagundu omen

zien: Sybarisko tirano zen Telysengandik ihes egin eta beraiengana jo zuelako,
alegia, Krotonen kontrako garaipena lortzeko sakrifizio bat burutzen ziharduela,

aldeko zantzuak lortu ez zituelako. Horixe diote, bada, krotondarrek.

45. Eta hurrengo froga hauek dakartzate, hurrenez hurren, batzuok eta besteok: sybaristarrek temenos bat eta tenplu bat erakusten dituzte Krathis ibaiaren uharka lehorraren ondoan, Dorieok Krathia izenez Athenearen ohoretan eraikitakoak, diote, beraien hiria hartzen esku hartu ondoren; are gehiago, Dorieoren heriotzean aurkitzen dute frogarik sendoena, orakuluak aholkatu zionaz harago ihardutearren galdu baitzen; zeren, orakuluak adierazten ziona egitera mugatu balitz eta orakuluaz gaindi joan ez balitz, Erix lurraldea konkistatu eta menpean mantendu baitzukeen, eta orduan ez zatekeen galduko ez bera ez bere gudarostea. Baina krotondarrek, euren aldetik, Kalias elearrari oparitan emandako lursail ugari direla diote Krotongo lurraldean (lursail horietan Kaliasen ondorengoak bizi dira nire garai honetan ere), baina bat ere ez Dorieo eta bere ondorengoei opariturikorik. Gainera -diote-, Sybarisen aurkako gerran Dorieok lagundu balie, Kaliasi emandako saria baino askoz sari handiagoa jasoko zukeen. Horiexek dira, bada, parte bakoitzak dakartzan frogak; bertsio biotarik sinesgarritasun gehien damaiogunari atxiki gakizkioke.

46. Dorieorekin batera, beste spartarrak batzuk ere egin ziren itsasora, kolonia eraikitzen laguntzera, hala nola, Thesalo, Parebates, Zeleas eta Euryleon, zeinek, espedizio guztiarekin Sizilian lehorreratu ondoren, heriotza aurkitu zuten gudaldi batean, pheniziarrak eta egestarrak garaitu zitzaizkienean. Porrot hartatik bizirik atera zen bakarra Euryleon izan zen, gudarostetik geratzen zirenak bildu, Minoa izeneko selinuntearren kolonia eskuratu eta hauek Pithagoras tiranoarengandik askatzea lortu zuena. Hala ere, handik lasterrera, eta gizon hura boteretik eraitsi ondoren, Euryleon bera saiatu zen Selinunteko tirano izaten, eta erreinatu ere egin zuen, baina ez luzaro; selinuntearrek jarki eta hil egin baitzuten, Zeus Agoraoren aldarera jo zuen arren babes bila.

47. Dorieoren beste lagun bat, harekin batera hil zena halaber, Philipo krotondarra izan zen, Butazidesen semea, Sybarisko Telysen alabetariko batekin berbatzeagatik Krotondik erbesteratu zutena; baina ezkontza hura burutzerik izan ez zuenez, Zyrenera joan zen untziz. Geroago, hiri hura utzi eta Dorieori jarraitu zion bere jabetzako triere batean eta bere poltsikotik ordainduz gudariei; Philipo hau Joko Olympikoetan garaile izan zen, eta bere garaiko heleniarrik lardenena. Bere edertasun horregatik, beste inork ere lortu ez zituen ohoreak jaso zituen egestarrengandik: haren hilobiaren gainean heroiei dagokien tenplete bat jarri zuten, eta medeapen opariak eskaintzen dizkiote.

48. Halaxe hil zen, bada, Dorieo; Kleomenesen meneko izateari amore eman bazion eta Spartan geratu bazen, aldiz, Lazedemongo errege izango zen; izan ere, Kleomenesek ez zuen luzaro erreinatu eta oinordekorik utzi gabe hil zen; izena Gorgo zuen alaba bat besterik ez zuen utzi.

49. Harira etorritik, Kleomenes boterean zegoela iritsi zen Spartara Aristagoras, Miletoko tiranoa⁶; eta harekin elkarriketatu zenean, lazedemondarrek kontatzen dutenez, lur osoa, hala nola itsaso osoa eta ibaiak oro azaltzen zituen mapa bat grabaturik zuen brontzezko xafla bat zeraman. Eta elkarriketan sartuz, hauxe esan zion Aristagorasek Kleomenesi: "Ez harritu, Kleomenes, honaino etortzeko izan dudan arduraz, honako hauxe baita gaur egungo egoera: joniarren seme-alabak gizakume aske izan beharrean jopu izatea lotsari eta samintasun handia da, gu geuretzat lehenbizi, bai, baina baita zeuontzat ere, Heladeren aintzindari zaretenontzat, beste guztientzat baino gehiago. Kinka honetan, bada, aska itzazue joputzatik, Heladeko jainkoenarren, zeuon odol bereko dituzuen joniarrak. Eta hori lortzea erraza da zuentzat, zeren barbaroak ez baitira gizon adoretuak, baina zuek, aldiz, gerra kontuan gailenak zarete zeuon adoreagatik. Eta borrokatzeko erari dagokionez, uztai-geziak eta azkonak dituzte armatzat; eta borrokara anaxyridak⁷ zangoetan eta durbantea buruan dutela joaten dira, harrapatzeko errazak direlarik horrela. Gainera, kontinente horretako⁸ bizilagunek munduko beste guztiak batera baino aberastasun handiagoak dituzte, urrea batez ere, baina baita zilarra, kobrea, jantzi gainloratuak, zamariak eta esklaboak ere; hori guztia eskuratzeko, benetan gura izatea besterik ez duzu behar.

Eta horiek bizi diren lurraldeak elkarren ondoan daude, orain adieraziko dizudan bezala: hor joniarrak daude, eta hor lydiarrak, lur emankorrean bizi eta diru ugariren jabe direnak". Herriok aipatu ahala, metalezko xaflan grabaturik zeraman lurraren mapan adierazten zuen haien kokapena. "Lydiarrekin muga eginez -jarraitu zuen berbaz Aristagorasek-, hortxe dituzu phrygiarrak ekialdera, nik ezagutzen ditudan herrietatik ganadutan eta nekazari-ekoizketan aberatsenak. Phrygiarrengandik hurbil, kapadoziarrak dituzu, guk syriarrak deitzen diegunak. Horiekin muga eginez, berriz, ziliziarrak, hor dakusazun itsasoraino -hortxe ikus dezakezu Zypro uhartea ere- hedatzen direnak; herri horrek erregeri ordaintzen dion urteko zerga bostehun talentukoa da. Ziliziar horien ondoan, horra hor armeniarrak, hauek ere ganadu ugari dutenak, eta armeniarren ondoren matienoak, lurralde horrexetan bizi direnak. Azken horiekin muga eginez, Zisia ikus dezakezu; (eta hor bertan, Khoaspes ibai horren ondoan, Susa ospetsua datza, errege handia bizi dena eta haren altxorren ganbarak aurkitzen direna); hiri hori hartzen baduzu, ez duzu izango beldurrik Zeusekin berarekin lehiazeko aberastasun kontuan.

Zer beharrian duzu, beraz, garrantzi handirik gabeko lurralde ez horren handi ez aberatsen aurka diharduzun gerran jarduteko, zeuon pareko indarra duten meseniarren aurka, kasu, edo urrearen edo zilarraren arrastorik ere ez duten arkadiarren eta argostarren aurka, ondasun horien edukitza izanik borrokatzen

hiltzeraino edozein gizakume bultzatzen duena? Zeren, Asia osoa erraz eskuratzeko aukera izanik, nahiago izango al duzu beste hori?". Horixe esan zuen Aristagorasek

eta beste hau erantzun Kleomenesek: "Miletoar arrotz, bi egun barru arte atzeratuko dut erantzuna".

50. Horraino besterik ez ziren iritsi ordukoz; baina erantzunerako eguna heldu eta geratutako lekuan bildu zirenean, Joniako itsasotik erregerena zenbat egunetako bidea ote zegoen galdetu zion Kleomenesek Aristagorasi. Honek, orduraino spartarrarrak zuhurtasunez eta trebeziaz liluratzen jakin bazuen ere, une hartan labankada egin zuen; zeren, spartarrarrak Asian barna eramanez nahi izatekotan egia egin ez zukeenean esan behar, hiru hilabeteko bidea zegoela esanez erantzun baitzuen. Eta orduan Kleomenesek hitza ahoan zuela utzi zuen Aristagoras, bideari buruz ekitera zihoakionean, eta honako hauxe esan zion: "Miletoar arrotz, zoaz Spartatik eguzkia sartu orduko; izan ere, lazedemoniarrek inola ere ezin onar dezaketenean plana proposatzen baituzu, itsasotik hiru hiletako bideetara eramanez nahirik haiek".

51. Horrela hitz egin ondoren, Kleomenes bere etxera joan zen; baina Aristagoras, olibondo-erramu bat eskuan hartu⁹ eta Kleomenesenera abiatu zen, eta, etxe barrura arrenkari gisa sartu ondoren, umeari kanpora agindu eta entzun ziezaiola eskatu zion, arren, Kleomenesi (honen ondoan beronen oinordeko bakarra, Gorgo zeritzon alaba aurkitzen baitzen, garai hartan zortzi-bederatzi urte izango zituena). Kleomenesek, ordea, nahi zuena esan zezala eskatu zion, umea han egotearen ardurarik gabe. Orduan, bada, Aristagoras hamar talentu agintzen hasi zitzaion, bere eskariei kasu egitearren. Kleomenes ezetzera zegoenez, gehiago eta gehiago aginduz joan zitzaion eta, berrogeita hamar talentu agindu zizkionean, neskatoak hots egin zuen: "Aita, hemendik alde egiten ez baduzu, atzerritar honek erosi egingo zaitu azkenean". Kleomenesek, orduan, umearen ateraldi hark grazia egin ziolarik, beste gela batera egin zuen alde, eta Aristagorasek behin-betiko utzi behar izan zuen Sparta, erregeren hirira doan bideari buruzko beste zertzeladarik azaltzeko aukerarik gabe.

52. Hona hemen bide horri buruzko zertzeladak: errege-postaleku¹⁰ eta ostatu ederrak dira bide osoan zehar, eta ibilbidea oro lurralde habitatu eta seguruetatik doa. Lydia eta Phrygian zehar, hain zuzen, hogeit postalekuraino dira, laurogeita hamalau parasanga t'erdiren tartean. Phrygia igaro eta batera, Halys ibaia aurkitzen da, eta ibai hori zeharkatzeko ezinbestekoa da bi bazterrak lotzen dituzten ateetatik igarotzea, goarnizio sendo bat ere badelarik bertan. Kapadoziara igaro eta lurralde hori zeharkatzera doanak hogeita zortzi postaleku ditu Ziliziko mugetaraino, ehun eta lau parasangatan zehar. Eta azken honen mugetan, berriz, bi ate zeharkatu eta beste horrenbeste goarnizioren aurretik igaro beharko du.

Inguru hori iragan ondoren Zilizian zehar doanak hiru postaleku ditu hamabost parasanga t'erdiko tartean. Euphrates izena duen eta txalupaz igaro daitekeen ibaiak egiten du Zilizia eta Armeniaren arteko muga. Armenian, ostatu har daitekeen hamabost postaleku dira berrogeita sei parasanga t'erditan zehar, tarte horretan goarnizio bat aurkitzen delarik. Armeniatik Matienako lurraldera doanak hogeita hamalau postaleku ditu ehun eta hogeita hamazazpi parasangatan. Lurralde hori, nahitaez zeharkatu beharrekoak diren lau ibaiak gurutzatzen dute, txalupaz iragan daitezkeenak: lehenengoa Tigris da, eta bigarrenak eta hirugarrenak izen bera dute, Zabato, nahiz eta ibai bera ez izan eta leku beretik ez etorri, horietariko lehena Armeniatik baitator eta bestea, oster, matienoen lurraldetik. Laugarren ibaiak Gyndes du izena, behinola Zyrok hirurehun eta hirurogei ubidetan banatu zuena. Armeniako lurralde horretatik matienoen lurraldearen barna sartzen denak (hogeita hama)lau¹¹ postaleku aurkituko ditu, ehun eta hogeita hamazazpi parasangatan. Eta leku horretatik

Zisiako lurraldera iristen denak hamaika postaleku ditu, berrogeita bi parasanga t'erditan, txalupaz iragangarria den Khoaspes ibairano, beronen ondoan datzalarik Susa hiria. Aipatu ditudan postalekuak, guztira, ehun eta hamaika dira. Beraz, Sardestik Susara doan bidaiariak beste horrenbeste ostatu izango ditu atseden hartzeko.

53. Orain, beraz, errege-bidearen parasanga neurketa zuzena baldin bada eta parasanga bakoitzak hogeita hamar estadio neurtzen badu (eta hori horrela da), Sardestik "Memnonen jauregiak" deritzon errege-hiriraino, laurhun eta berrogeita hamar parasanga daudenez, hamahiru mila eta bostehun estadio dira. Beraz, egunero ehun eta berrogeita hamar estadio ibiliz gero, laurogeita hamar egun behar dira, ez gehiago ez gutxiago, bidaia burutzeko.

54. Horrela ba, Aristagoras Miletokoak egia esan zion Kleomenes lazedemondarrari hiru hilabeteko bidea zegoela esan zionean erregerena. Baina norbaitek kalkulu zehatzagoak nahi baditu, xehetasun bat eransten dut nik: aurreko horri Ephesotik Sardeserako bidea gehitu behar zaiola. Horrela, zera diot nik: Heleniar itsasotik Susara (haxe baita "Memnonen Hiria" deritzotena) hamalau mila eta berrogei estadio direla guztira, zeren Ephesotik Sardesera bostehun eta berrogei estadio baitira. Hiru hilabeteko bideari, beraz, hiru egun gehiago ezarri behar zaizkio.

55. Aristagoras, berriz, Spartatik egotzi zutenean, Athenasera joan zen, tiranoengandik jarraian azalduko dudan eran aske geratu zen hirira. Aristogitonek eta Harmodiok, familia gephyrar baten jatorrikoak, Pisistratoren seme eta Hippias tiranoaren anaia zen Hiparkho erail zutenean (honek gertatuko zitzaion patuaren irudipen argi bat izan zuen arren ametsetan), athenastarrek beste lau urtetan jarraitu zuten lehen baino bigunagoa ez baina gogorragoa gertatu zen tiraniaren menpe.

56. Hara zein izan zen Hiparkhok ametsetan izandako irudipena: Panatheneen bezperako gauean, garaiera handiko gizon dotore bat ikusten zuela aldamenean iruditut zitzaien Hiparkhori, bertso misteriotso hauek zuzendu zizkiona:

Jasan ezak, lehoi, jasangaitza eroapenez pairatzea;

bidegabekeria dagien orok ordaindu behar dik eta ordaina.

Eguna egin zueneko, Hiparkhok amets-interpretatzaileei azaldu zien hura, baina handik lasterrera, ametsetako irudipenaz ahaztuta, heriotza aurkituko zuen prozesio burura abiatu zen.

57. Gephyrarrek, Hiparkhoren erahileen familia, Eretrian dute jatorria, beraiek diotenez; baina neronek jakin izan dudanez, pheniziarrek ziren, gaur egun Beozia deritzon lurraldera Kadmorekin iritsitako pheniziarrek hain zuzen, eta herrialde horretan Tanagrako zatia egokitu zitzaien zozketan eta hantxe geratu ziren bizitzen. Argostarrek egotzi zituzten handik lehenbizi kadmearrak, eta gephyrarrei dagokienez, beoziarrek kanporatu zituzten geroago eta Athenasera jo zuten. Athenastarrek, berriz, hiritartzat onartu zituzten baldintza batzuen pean, zenbait debeku ezarri baitzieten, ez asko, hemen aipatzerik merezi ez dutenak.

58. Kadmorekin etorritako pheniziar haiek (eta euren artean gephyrarrak) aipatu herrialdean finkatzean, beste ezagutza batzuen artean, alfabetoa ekarri zuten Heladera, ordurarte heleniarrentzat ezezaguna zena, uste dudanez. Hasiera batean, pheniziarrek egun ere erabiltzen duten alfabeto bera zen; baina gero, denbora igaro ahala, hotsen aldaketaz batera, grafiak ere aldatuz joan ziren. Garai hartan pheniziar haien inguruan bizi ziren heleniarrak, lurralde gehientsuenetan, joniarrak ziren, eta hauexek izan ziren pheniziarrek erakutsitako alfabetoko letrak berenganatu eta forma-aldaketa ttiki batzuez erabili zituztenak; eta letroz baliatzean, "karaktere pheniziarrek" deitu zieten, eta zuzena zen horrela deitzea, pheniziarrek

ekarri baitzituzten Heladera. Era berean, joniarrak "larruak" deitzen diete aspalditik papiro-orriei, zeren antzina, papiro nahikorik ez zenez, ahuntzen eta ardien larrua erabiltzen baitzuten; eta gaur egun ere, atzeritar askok idazten du horrelako larruetan.

59. Hain zuten ere, nik neronek ikusi ditut karaktere kadmearrak, halako hiruoineko batzuetan zizelatuta, Thebasko Apolo Ismenoarraren tenpluan, Beozian, eta karaktere gehienak letra joniarren antzekoak dira. Hiruoineko batean, inskripzio haxe dago:

Amphitryonek sagaratu ninduen, teleboengandiko harrapakinetik.

Gertaera hori Laioren garaikoa izan liteke, Laio hura Labdakoren seme, Polydororen iloba eta Kadmoren birloba zelarik.

60. Bigarren hiruoineko batek haxe dio bertso hexametroz:

Szeo boxealariak sagaratu ninduen bere garaipenaren ondoren, zuretzako edergarri bikaintzat, Apolo gezilari trebe hori.

Szeo hori Edipo Laiorenaren garaian bizi zen Hipokoonteren semea izan zitekeen, hura izan baldin bazen egiaz eskaintzailea, eta ez Hipokoonteren semearen izen berbera zukeen besteren bat.

61. Hirugarren hiruoinekoak haxe dio, bertso hexametroz honek ere:

Laodamasek errege zela sagaratu ninduen tripodea naiz ni, zuretzako edergarri bikaintzat, Apolo, tinu oneko gezilari hori.

Laodamas Eteoklesena errege zela egotzi zituzten argostarrek kadmearrak, hain zuen ere, eta azken hauek enkheleen herrialdera jo zuten. Gephyrarrak, beren aldetik, zeuden lekuan geratu ziren orduan, baina beoziarrek Athenaserantz atzera eragin zieten geroago; eta hantxe dituzte Athenasen, ukan ere, gainerako athenastarrek parte hartzea zeharo debekaturik duten kulturako zenbait tenplu; beste santutegien aldean zeremonia desberdinak dituzten tenpluen artean, Demeter Akhearraren¹² tenplua eta misterioak dituzte konkretuki.

62. Azaldu dut, beraz, Hiparkhok ametsetan izan zuen irudipena eta zein izan zen gephyrarren, Hiparkho horren erahileen, jatorria; baina aurrera jo behar dut eta goian kontatzen hasi naizen historia berrartu, hots, athenastarrak beren tiranoengandik nola askatu ziren.

Hipias tirano zela eta Hiparkhoren erahilketagatik gero eta suminduago ageri zela athenastarren kontra, alkmeonidak, Pisistratidek erbestarazitako jatorri athenastarreko familia, Athenasera indarrez itzuli eta hura askatzen saiatu ziren behin, gainerako erbesteratu athenastarrekin batera, baina ez zuten izan arrakastarik beren itzulera saio horretan, baizik eta, Peoniaren iparraldean dagoen Lipsydrion hiria gotortu ondoren, porrot gogorra jasan zuten Athenasera itzuli eta hiri horren askatasuna lortzeko saio hartan. Orduan, alkmeonidek, Pisistratiden aurka jarduteko amarru guztiak erabili nahirik, gaur egun Delphosen dagoen baina garai hartan oraindik existitzen ez zen santutegia eraikitzeke kontratua lortu zuten Anfiktioniakoengandik. Gainera, diruz ondo zebiltzanez eta aspaldiko entzute handiko familiakoak zirenez, proiektuan aurreikusitakoa baino luxu handiagoz eraiki zuten santutegia, eta toba-harriz eraikitzea aurreikusirik bazegoen ere, Paroko marmolez burutu zuten aurreko fatxada.

63. Bada, athenastarrek diotenez, gizon horiek, Delphosen egon zirenean, Pythia limurtu bide zuten diruaren truke, spartarrak orakulua kontsultatzeraz zihoazen guztietan (dela bakoitza bere izenean, dela mandatu ofizialez), Athenas askatzea agin ziezaien. Lazedemondarrek orduan, orakulutik beti erantzun berbera jasotzen zuten, Ankhimolio, Asterren semea eta ospe handiko hiritarra, bidali zuten gudaroste batekin Pisistratidak Athenastik egoztera, nahiz eta haiekin abegi-lokarri ezin estuagoak izan; begirune gehiago baitzioten jainkoen borondateari gizakumeenari baino. Eta gudaroste hura itsasoz bidali zuten, gerrauntzietan. Horrela, Ankhimoliok

Phaleroko portura jo zuen eta hantxe lehorreratu zuen gudarostea; baina Pisistratidek, euren aldetik, plan horren berri aurretiaz izan zutelarik, thesaliarren gona jo zuten laguntza eske, gerra-itun bat zutelako berauekin. Eskari horri erantzunez, thesaliarrek mila zaldizko bidaltzea erabaki zuten, Kondeako Zineas erregea bera buru zutelarik. Aliatu horiek lortu ondoren, hurrengo neurri hauek hartu zituzten Pisistratidek: Phaleroko lautadako zuhaitzak ebakitzeko agindu zuten, zona hura guztia zaldieriaren mugimenduetarako garbi gera zedin, eta zaldieria abiarazi zuten, ondoren, etsaien gudarostearen kontra; zaldizkoak gogor oldartu eta lazedemondar ugari suntsitu zituzten, Ankhimolio bera ere tartean, eta bizirik geratu zirenei untzietara itzularazi zieten. Horrelaxe amaitu zen Lazedemondik iritsi zen lehen espedizioa; eta hantxe aurkitzen da, Atikako Alopekasen, Zynosargesen kokaturik dagoen Heraklesen santutegiaren ondoan, Ankhimolioren hilobia.

64. Handik lasterrera, lazedemondarrek gudaroste haziago bat antolatu eta bidali zuten Athenasen aurka, Kleomenes erregea, Anaxandridesen semea, jarri zuten buruzagi, eta gudarostea ez zuten bidali oraingoan itsasoz, lehorrez baizik; erasotzaileok Atikara oldartu zirenean, zaldieria thesaliarra etorri zitzaientz gainera, baina laster itzuri ziren ihesean, berrogei gizon baino gehiago galduz; bizirik geratu zirenek Thesaliara egin zuten hanka, ahal izan zuten bide laburrenetik. Kleomenes hiriaren aurrera iritsi zenean, Pelargiar harresian aterbetu ziren tiranoak setiatu zituen, askatasuna gura zuten athenastarren laguntzaz.

65. Eta seguraski lazedemondarrek ez zuten lortuko inola ere Pisistratidak menperatzerik (zeren ez baitzuten taxuzko setiorik egiteko asmorik, eta Pisistratideek, bestalde, janari eta urez ongi horniturik zeuden), baizik eta, egun batzuetako setioa ezarri ondoren, berriro itzuliko ziren Spartara. Baina hara non gertatu zen ustekabeko jazoera bat, bando batarentzat zorigaitzoko eta beste bandoaren garaipenerako erabakior bihurtu zena,

hots: Pisistratiden seme-alabak harrapatu zituztela, herrialdetik kanpora leku segurura ezkutuan zeramatzatenean. Ezbehar horren aurrean, tiranoen egitasmo guztiak gainbehera erori ziren, athenastarrek ezarri zizkieten baldintzetara makurtu behar izan baitzuten beraien seme-alabak berreskuratzearren, hots, bost egunen buruan Atikatik alde egitera. Besterik gabe, beraz, Skamandro ibai bazterrean dagoen Sigeorantz abiatu ziren, Athenasen hogeita hamasei urte luzetan gobernatu ondoren; zeren haiek ere Pylotik etorriak eta Neleoren jatorrikoak baitziren, hain zuzen, etorkinak izan arren Athenasko errege antzina izandako Kodro eta Melantho familien arbaso berberak zituztelako. Eta jatorri horrexegatik ezarri zion Hipokratesek bere semeari Pisistrato izena, Nestorren seme Pisistratoren oroitzapenez, alegia.

Halaxe askatu ziren athenastarrak beren tiranoengandik; baina aurrera jarraitu aurretik, beraien askatasun horren unetik hasi eta Jonia Darioren aurka jarki baino lehen eta Miletoko Aristagoras laguntza eske Athenasera etorri baino lehen burutu nahiz jasan zituzten gertaera aipagarri guztiak kontatuko ditut ondoren.

66. Athenas, ordurarte boteretsua zena, are boteretsuago bihurtu zen bere tiranoengandik libratu zenean; eta hiri hartan bi gizon nabarmentzen ziren, Klisthenes alkmeonida (diotenez, Pythia limurtu omen zuena, hain zuzen) eta Isagoras Tisandrorena, etxe oneko gizona berau, nahiz eta ezin dudan zehaztu zein leinutakoa (haren ahaideek Zeus Kariarrari eskaintzen dizkiote, ordea, sakrifizioak). Bi gizonok elkarren lehian jardun zuten boterea eskuratzeko, eta Klisthenesek, galtzera zihoala ikusiz, herriaren partaidetzara jo zuen. Jarraian, athenastarrak hamar tributan banatu zituen, ordurainoko lau tribuen ordeztu, eta ez zien deitu Jonen semeen izenez (Geleonte, Egikoreo, Argadeo eta Hoples), baizik beste heroi batzuen izenak ezarri zizkien, denak bertakoak, Aias izan ezik; heroi hori, atzerrikoa izan arren, Athenasen auzo eta aliatu gisa sartu zuen.

67. Horretan Klisthenesek, nire aburuz, bere amaren aldeko aitona Klisthenes, Sizyongo tiranoa, imitatzen zuen. Izan ere, Klisthenes hark, argostarrek gerran ibili ondoren, Homeroren poemetan oinarrituriko bertso txapelketak debekatu zituen ezer baino lehen Zision, bertsootan argostarrak eta Argos goraipatzen direlako behin eta berriz; are gehiago, Sizyongo agoran bertan Adrasto Talaorenaren izenean sagaraturiko heroi-tenplete bat zegoelarik (eta hantxe dago gaur egun ere), heroi hori argostarra zela-eta lurralde hartatik kanpora jaurtitzeko garra sortu zitzaion Klisthenesi. Delphosera jo zuen, orduan, ea Adrasto kanpora zezakeen galdetzeraz Pythiari; baina Pythiak zera ihardetsi zion: "Adrasto sizyondarren errege da, eta zu, ordea, harrikatzea merezi duzuna¹³". Jainkoak ez zionez onartzen, bada, berak nahi zuen hura burutzerik, herrira itzuli eta beste plan bat asmatzen hasi zen, Adrastok berak handik alde egin zezan; eta irtenbidea aurkitu zuela uste izan zuenean, Beoziako Thebasera mandatariak bidali zituen, Melanipo Astakorenaren gorpuzkinak Sizyonera aldatu nahi zituela esanez; eta thebastarrek baiezkota eman zioten. Melaniporen gorpuzkinak Sizyonera lekualdarazi ondoren, Klisthenesek temenos bat dedikatu zion prytaneoan bertan eta estatua bat jaso zion hantxe, hiriko lekurik inportanteenean. Klisthenesek Melaniporen gorpuzkinak Sizyonera lekualdatu bazituen (zeren hau ere azaldu beharrekoa baita), bere aburuz Adrastoren areriorik handiena zelako ekarri zituen, haren anaia Mezisteo eta Tydeo suhia hil zituelako. Eta aipatu temenosa dedikatu ondoren, Adrastoren omenezko sakrifizio eta jaiak oro kendu eta Melanipori esleitu zizkion. Jakina, sizyondarrek ospe eta arrandi handiz ohoratzen zuten Adrasto, lurralde hura Polyborena izan baitzen eta Adrasto Polyboren iloba zen amaren aldetik; eta Polybo hura semerik utzi gabe hil zenez, Adrastori eman zion boterea. Hori horrela, sizyondarrek Adrastoren omenez egiten zituzten ospakizunen artean, haren zorigaitzen oroitzarrea burutzen zuten koru

tragikoen bidez, eta ez zuten Dionyso gurtzen, baizik Adrasto. Klisthenesek, bere aldetik, koruak Dionysori esleitu zizkion eta gainerako errituala Melanipori.

68. Neurri horiexek hartu zituen, beraz, Adrastori buruz. Doriarren tribuei dagokienez, sizyondarrek eta argostarrek tribu berberak izan ez zitzen, beste izen berri batzuk ezarri zizkien. Eta horretan, bereziki, adarjotze galanta egin zien sizyondarrei; zeren orduan zituzten izenen ordezt, "txerria" eta "astoa" izenak ezarri baitzizkien lehengo atzizkiak eurak mantenduz, bere tribuaren salbuespen bakarraz; honi, izan ere, bere agintea aipatzen zuen izen bat jarri zion. Orduz geroztik, beraren tribukoek arkhelaoak¹⁴ izena hartu zuten, eta besteek, ordea, Hyatak, Oneatak eta Khreatak, hurrenez hurren. Hauxek izan ziren sizyondarrek Klisthenesen gobernupean, eta haren heriotzaz geroztik ere beste hirurogei urtean zehar, beren tribuak izendatzeko erabili zituzten tribu-izenak. Azkenean, ordea, auzia berrartu eta tribuon izenak aldatzea erabaki zuten, Hyleak, Pamphiliak eta Dymanatak jarritz, eta tribu horiei laugarren bat gehitzea eta Egialearrak deitzea, Egialeo Adrastorenaren omenez.

69. Horiexek izan ziren, beraz, Klisthenes sizyondarrak hartu zituen neurriak. Eta Klisthenes athenastarrak ere, sizyondar haren iloba zenak amaren aldetik eta haren omenez izen bera zuenak, bere izenkidea imitatzen zuelakoan nago ni, joniarrak mesprezatzean eta bere herriko tribuak eta joniarrenak berberak izan ez zitezen ahalegintzean. Izatez, athenastar herria (orduraino erabat baztertua) beraren alderdira erakarri zuen hartan, tribuen izenak aldarazi egin zituen eta haien kopurua gehitu; horrela, hamar filarko¹⁵ ezarri zituen lauren ordezt eta, halaber, hamar taldetan banaturiko demosak¹⁶ esleitu zizkien tribuoi; eta herria bere alde zuelarik, bere aurkariak baino askoz indartsuago bihurtu zen.

70. Isagorasek orduan, bere burua galtzaile ikusirik, honako erabaki hau hartu zuen arazoari irtenbidea aurkitzeko: Kleomenes lazedemondarrari deitu zion laguntza eske, Pisistratiden setioaz geroztik abegi-lokarriak baitzituen berarekin; bazen Kleomenes salatzen zuenik, alajaina, Aristagorasen emaztearekin harremanak izateaz. Horrela ba, Kleomenesek mandatari bat bidali zuen lehenbizi Athenasera Klisthenesen desterrua exigituz, baita berak "sakrilegoak" deitzen zien beste athenastar askorena ere; eta hori Isagorasen instrukzioei jarraituz adierazten zuen mezulariaren bidez, zeren alkmeonidei eta berauen jarraitzaileei orduan aipagai zen erahilketaren errua leporatzen baitzieten, Isagorasek eta bere lagunek arazo horretan zerikusirik ez zuten bitartean.

71. Hona hemen nondik zetorren zenbait athenastarri "sakrilegoak" deitzea. Bazen behin Athenasen Zylon delako bat, Joko Olympikoetan garaile atera zen bat. Morroi hori tiraniaz liluratu zen eta, bere adin bereko jende baten laguntzaz, akropoliaz jabetzen saiatu zen; baina hori lortzerik ez zuenez izan, jainkosaren imajinaren babesera jo zuen. Une hartan Athenas gobernatzen zuten naukraro-buruzagiek lortu zuten haiek handik ateratzea, zigorren bat bai baina heriotza ez zitzaizela ezarriko aginduz; hil egin zituzten hala ere, eta erahilketa horrexen errua egozten zieten, hain zuzen, alkmeonidei. Hori Pisistratoren aurretik gertatu zen.

72. Kleomenesek mandatariok bidaliz Klisthenesen eta "sakrilegoen" desterrua exigitu zuenean, Klisthenesek bere kabuz alde egitea erabaki zuen, baina hala ere, hantxe agertu zen handik lasterrera Kleomenes Athenasen aurrean, gudaroste urriarekin bazen ere, eta, helduaz batera, zazpiehun familia athenastar egotzi zituen, Isagorasek izendatu zizkion guztiak, alegia. Hori egin ondoren, Kontseilua¹⁷ deuseztu eta magistraturak Isagorasen aldeko hirurehun eskuetan uztea nahi izan zuen. Baina Kontseiluak horretara makurtu nahi ez eta obeditzeari uko egiten zionez, Kleomenes, Isagoras eta azken honen aldekoek akropolia hartu zuten. Orduan, gainerako athenastar guztiek Kontseiluarekin bat egin zuten eta egun bitan eduki zituzten setiatuta; hala ere, setiatuen artean zeuden lazedemondarrak

hirugarren egunean irten ziren lurraldetik, tregoa bat medio. Horrela bete zen Kleomenesek jasotako iragarpena. Izan ere, akropolira igo zenean -hartaz jabetzeko asmotan, jakina-, jainkosaren sagraria jo zuen hari otoitz egitera; baina sazerdotesa bere tronutik jaiki zen eta, Kleomenes atetik sartu orduko, haxe esan zion: "Lazedemondar atzeritar hori, egizu atzera eta ez zaitez tenpluan sar, ez baita jainkoen borondatea doriarrik hona sartzea". "Baina, emakume -ihardetsi zion hark-, ni ez naiz doriarra, akhearra baizik". Eta halaxe, hitz profetikoa aintzakotzat hartu gabe, bere asmoa burutzen saiatu zen eta handik egotzia izan zen, lehen esan bezala, lazedemondarrekin batera. Beste setiatuei dagokienez, athenastarrek giltzaperatu egin zituzten heriotza-sententziapean, eta haien artean Timesitheo delphostarra, zeinen indarraz eta adoreaz asko bai asko konta nezakeen.

73. Horrela espetxeratu zituzten haiek, beraz, eta heriotza ezarri; jarraian, athenastarrek Klisthenesi eta Kleomenesek atzerriraturiko zazpiehun familiei itzularazi zieten eta Sardesera mandatariak bidali zituzten persiarrekin itun bat egiteko asmoz; bai baitzekiten lazedemondarrak eta Kleomenes beraiekiko gerra egoeran zeudela. Mandatariak Sardesera heldu eta esan zitzaiena transmititu zutenean, Sardesko gobernadore zen Artaphrenesek, Hystaspesen semeak, ea nortzuk ziren eta munduko zein aldetan bizi ziren galdetu zien, persiarren aliatu bihurtu nahi izateko. Mandatariek horri buruz informatu zutenean, zera esan zien hitz gutxitan, athenastarrek Dario erregeri lurra eta ura ematen bazien, bera prest zegoela eurekin itun bat egiteko, baina hori egin ezean, handik alde egiteko agintzen ziela. Mandatariek, orduan, ituna egiteko irrikitan, eskatzen zitzaiena onartzen zutela erantzun zioten beren kabuz. Jakina, beraien herrira itzultzerakoan, mandatariok hitz gogorak entzun behar izan zituzten.

74. Kleomenesek, bitartean, athenastarrek larriki iraindu zutelakoan hitzez eta egitez, Peloponeso osoko armada bat antolatu zuen, zertarako zen zehazki adierazi gabe, hots, athenastar herriaz bere buruz mendeku hartzeko eta Isagoras despotatzat

ezartzeko, azken hau ere berarekin batera egotzi baitzuten akropolitik. Horrela, Kleomenesek gudaroste indartsu batekin inbaditu zuen Eleusisko lurraldea, beoziarrek, elkarrekin atondutako plan baten arabera, Enoe eta Hisias, Atika mugaldeetako herribarrutiak¹⁸ hartzen zituzten bitartean, eta khalzistarrek, beste muturretik eraso eginez, Atikako zenbait lurralde arpilatzen zutelarik. Athenastarrek, orduan, bi frontetik erasotzen zietela ikusirik, gerorako utzi zituzten beoziar eta khalzistarren kontrako neurriak eta Eleusisen zeuden peloponesoarren aurka bildu zituzten indarrak.

75. Baina gudarosteak aurrez aurre zeudenean borrokarako prest, korinthoarrak izan ziren, lehenbizi, zuzentasunaren arabera ez zihardutela jabetuz, iritziz aldatu eta handik alde egitea erabaki zutenak; eta gauza bera egin zuen jarraian Demarato Aristonenak, hura ere Spartako errege eta Lazedemondik armadaren buru etorria Kleomenesekin batera, beronekin une hartara arte iritzi desberdintasunik izan ez bazuen ere. Hain zuzen, diferentzia haiek zirela-eta promulgatu zen Spartan lege bat, armada gerrara zihoanean bi erregeak ezin joan zitezkeela gudarostearekin ebatzi zuena, zeren orduraino biak batera joaten baitziren; era berean, erregeetariko bata zeregin hartatik kanpo geratzen zen bitartean, Tyndaridetariko bat ere etxean geratuko zela ebatzi zen; izan ere, intzidente haren aurretik, biei egiten baitzieten dei¹⁹ eta biak joaten ziren kanpainetara. Beraz, Eleusisen, gainerako aliatuek ere, errege lazedemondarren artean adostasunik ez zela eta korinthoarrak beren lekutik alde egin zutela ikustean, beraiek ere gauza bera egin zuten.

76. Hauxe zen laugarren aldia, bada, doriarrek beren gudarosteekin Atikara zetozena. Birritan etorri ziren inbaditzaile gisa, eta beste birritan athenastar herriari laguntzera; lehenengo, Megaran kolonia bat bide batez ezarri zutenean izan zen (espedizio horri "Kodroren garaikoa" dei dakioke zuzenki, berak erreinatzen baitzuen orduan Athenasen); bigarren eta hirugarren etorraldia, Pisistratidak egozteko Spartatik abiatu zirenean izan zen, eta laugarrena hauxe zen, Kleomenes peloponesoarren buru zela iritsi zenean Eleusis lurraldera. Beraz, hauxe zen doriarrek Athenas inbaditzen zuten laugarren aldia.

77. Espedizio hori ez ospe ez ohorerik gabe sakabanatu zenean, athenastarrek khalzistarren aurka abiatu ziren lehenbizi, mendeku hartzera. Beoziarrek, beren aldetik, Euriporengana jo zuten khalzistarrentzako laguntza eske. Athenastarrek, orduan, beoziarrek zetozela ikusirik, berauei eraso egitea erabaki zuten khalzistarrei baino lehen. Beoziarrekin borrokan sarturik, bada, athenastarrek garaipen garbia lortu zuten, etsaietariko asko hil eta zazpiehun bahi hartuz. Eta egun hartan bertan itsasoratu ziren athenastarrak Eubearantz khalzistarrei eraso egitera, horiek ere garaitu eta lau mila kleruko²⁰ utzi zituzten hilda zaldi-hazleen lurraldean (horrelaxe deitzen baitzioten Khalzisko jende aberatsari). Bahi hartu zituztenak, berriz, hankak burdinaz lotu eta bahi beoziarrekin batera eduki zituzten preso; baina handik lasterrera libre utzi zituzten, haietariko bakoitzeko bi mina ordaintzearen truke. Eta presoak lotzeko erabilitako kateak akropoliko altuenetik eseki zituzten; katea horiek nire garaian ere hantxe ikus zitezkeen, mediarraren suteak erdi kiskalitako hormetatik esekirik, mendebaldera begira dagoen tenpluaren aurrez aurre. Era berean, erreskatearen hamarrena brontzezko koadriga bat eraikitzeke erabili zuten; eta hantxe aurkitzen da, akropoliko propileoetara sartu eta batera ezkerretara, inskripzio hauxe duelarik zizelatuta:

Athenastar semeek gudu-borrokan

beoziar eta khalzistarrak zituzten meneratu,

espetxe iluneko kateapean handikeria zapuztu;

eta haien jareinsariaren hamarren,

behor hauek eskaini zizkioten Palasi oparitan.

78. Athenastarrak potentzia ahaltsu bilakatu ziren, beraz. Eta bistako da -ez kasu isolatu bategatik, baizik arau orokor gisa- eskubide politikoen berdintasuna²¹ ondasun preziatua dela; ikustea besterik ez dago athenastarrak, tiraniaren pean zeudenean, ez zirela ezein auzoko baino gehiago gerra kontuan, baina tiranoengandik askatzea lortu zutenean, ordea, guztien artean gailen bihurtu ziren. Horrek erakusten du, argi eta garbi, azpiraturik zeuden bitartean edozertarako nagi zirela, ugazabarentzako ahaleginetan dihardutenen moduan, baina aske bihurtu zirenean, oster, bakoitzak berearen alde egiteko lehia bizia agertzen zutela.

79. Horixe guztia burutu zuten, bada, athenastarrek. Gertaera horien ondoren, thebastarrek jainkoari aholku eskatzeko ordezkariak bidali zituzten, athenastarrez mendekatu nahian. Pythiak, berriz, beraien indarrekin ez zutela izango mendekatzetik esan zien; arazoa "leku berbatsura" eraman behar zutela eta ondoren "hurkoengana jo". Horrela, aholku-hartzaileak itzultzerakoan, batzarrera deitu eta orakuluaren erantzuna aurkeztu zuten; eta thebastarrek mandatarien ahotik "hurkoengana jo behar zutela" entzutean, ondoko hauxe esan zuten hura entzun zutenean: "Gure hurkoenak ez al dira, bada, tanagrar, koronear eta thespiarrak?; baina horiek beti borrokatzen dute gure ondoan eta gurekin batera jasaten gerrako zoriak; zertarako jo orduan horiengana? Baina kontuz gero, ea iragarpenak hori ez duen adierazi nahi".

80. Gogoeta horiek egiten zeudela, azkenean batek asmatu eta hauxe esan zuen: "Uste dut ulertzen dudala zer esan nahi digun orakuluak. Thebe eta Egina, diotenez, Asoporen alabak ziren; biak ahizpak izanik, jainkoaren orakuluak eginarrengana jotzea agintzen digula deritzot, mendeku hartzen lagun diezaguten". Eta hori baino interpretazio hoberik ez zenez hautematen itxura batean, ordezkaritza bat igorri zuten aurki, eta, orakuluaren erantzunean oinarrituz, eurak zituztenez hurkoenak, laguntza eman diezaietela eskatu zien eginarrei. Eginarrek, orduan, eskabide horren aurrean, eazidak²² eraman zitatzela laguntzaile erantzun zieten.

81. Thebastarrak, bada, eaziden laguntza horren uste onean sartu zirelarik gerran eta athenastarrengandik jipoi gogorra jaso zutelarik, eginarrengana berriro ordezkariak bidali eta eazidak itzuli zizkieten, horien ordezkariak eskatuz. Eta thebastarren eskabide horren aurrean, eginarrek, beren oparotasunaz harro eta athenastarrenganako aspaldiko etsaigoa gogoan, aurretiazko heraldorik gabe eraso zieten athenastarrei; hauek beoziarrekin arazoturik zebiltzala, gerrauntziekin Atikarantz itsasoratu ziren eta Phalero arpilatu, hala nola gainerako kostaldeko herri-barruti ugari, kalte handiak eginez, beraien ekintza horiekin, athenastarrei.

82. Hona hemen nola sortu zen eginarrek athenastarrenganako zuten aspaldiko etsaigoa. Epidauroko lurak ez zuen ematen fruiturik. Hortaz, ondiko horri buruzko galdaketa aurkeztu zuten Delphosen; eta Pythiak zera aholkatu zien: Damia eta Auxesiaren imajinak eraiki zitatzela eta, horiek eraikiz gero, zori hobea izango zutela. Epidauroarrek beste galdera bat ere egin zioten, ea imajinok brontzezkoak edo marmolezkoak egin behar zituzten, alegia; baina Pythiak ez material bata ez bestea erabiltzeko, baizik landaturiko olibondoaren zura. Hori horrela, epidauroarrek olibondoren bat ebakitzeko baimena eskatu zieten athenastarrei, hangoxe olibondoak izango zirelakoan sakratuenak; are gehiago, ziotenez, garai hartan ez omen zegoen olibondorik Athenasez beste inongo lurraldetan. Athenastarrek baietz esan zieten, emango zietela baimena, baina baldintza batekin: Athenas Poliade eta Erekhtheori urtero eskaintzariak egiten bazizkieten. Epidauroarrak baldintza horietara makurtu zirenez, beren eskaria lortu zuten eta olibondo horien zurez egindako imajinak eraiki zituzten; eta beraien lur hark aurrerantzean

fruitua ematen zienez, athenastarrei emandako hitza ere fin betetzen zuten.

83. Garai hartan eginarrak, ordurarte bezala, epidauroarren meneko ziren oraindik, eta menekotasun horren adierazpen bat, beste batzuen artean, Epidauroa joatea zen, euren artean sorturiko auzietan karguei erantzun eta demandak aurkezteko; gerora, berriz, itsasuntziak egiten hasi ziren eta, handigurari amore emanez, epidauroarrendik banandu egin ziren. Orduan, elkarrekiko etsaigo egoera hartan, Epidauroko lurraldea arpilatzeari ekin zioten, itsasoaren jabe baitziren, eta Damia eta Auxesiaren imajina haiek ere lapurtu zituzten, Ea deritzon leku batera eraman eta hantxe eraikiz, beren lurraldeko barnealdean, hiriburutik hogei estadiora gutxi gorabehera. Jainkosak leku hartan ipini ondoren, haien faborea lortzen saiatu ziren sakrifizioen bidez eta emakume destaina-esaleen²³ koruen bidez, hamar gizon koruzaintzaile izendatuz, gainera, jainkosa bakoitzaren zerbitzutan; alafede, koru haiek ez zituzten destainok gizonezkon kontra zuzentzen, baizik eta herriko emakumeen kontra. Epidauroarrek ere errito berberak zituzten, eiki; eta zenbait errito sekretu ere badituzte.

84. Imajina horien lapurretaren ondoren, epidauroarrek athenastarrekin zuten konpromezua betetzeari utzi zioten. Athenastarrek, orduan, beren haserrea helarazi zieten Epidaurokoei; hauek, ordean, argi eta garbi erakutsi zieten ez zutela beren hitza jan: imajinak herrian eduki zituzten bitartean, zehatz-mehatz bete zutela beren konpromezua, baina orain, imajinak lapurtu zizkietenez, ez zela zuzena eskaintzariak eramaten jarrai zezaten, baizik eta -hala adierazi zieten- imajinon jabe egindako eginarrei eskatu beharko lizkietetela. Hitz horiek entzunik, athenastarrek mandatariak bidali zituzten Eginara, imajinak erreklamatzera; baina eginarrek zera erantzun zieten, berek ez zutela jakin nahi ezer athenastarrekin.

85. Bada, athenastarrek erreklamazioa egin ondoren -hauxe da beraiek diotena-, triere bakar bat bidali zuten, bertan zenbait

hiritar zihoala herriaren izenean, eta, behin Eginan, imajina haiek idulkietatik erauzten saiatu ziren, handik hartu eta eramateko, Atikako zuraz eginak zirela argudiatuz. Baina era horretara ezin izan zutenez imajinez jabetzerik lortu, sokaz lotu zituzten eta herrestan eramaten saiatu; baina hara non, haiek herrestatzen zihardutela, trumoi-hotsa entzun zen bat-batean, eta trumoiarekin batera lurrikara; fenomeno horien eraginez, imajinak herrestatzen ziharduen triereko jendeak burua galdu omen zuen zeharo, eta, eroaldiak jota, lagunak etsaitzat hartu eta elkar hiltzen hasi ziren, guztietatik bat bakarrik geratu zen arte, Phalerora itzuli zen bakar huraxe.

86. Halaxe gertatu bide ziren gauzak, athenastarren esanetan; baina eginarrek diotenez, athenastarrak ez ziren lehorreratu untzi bakar batez (zeren, nahiz eta beraiek untzirik ez izan -diote-, untzi bakar baten edo bakar batzuen kontra erraz defenda zitezkeen), baizik eta gerrauntzi andana batekin oldartu omen zitzaizkien uhartera eta, beraz, itsasoan borrokatu beharrean, bidea ematea erabaki zuten. Dena den, bada puntu bat sekula ere ez dakitena argi eta garbi zehazten: beraiek itsas borrokarako ahulagoak zirelakoan eman ote zioten bidea athenastarrei, ala aurretiaz pentsaturiko plan bat, gero gauzatu ere egin zutena, buruan zutelako. Athenastarrak, orduan -eginarren esanetan-, inor ere ez zitzaenez aurka etorri, untzietatik lehorreratu eta imajinak zeuden lekura abiatu ziren; baina idulkietatik erauzterik lortzen ez zutenez, soka amarratu eta herrestan eramateari ekin zioten, harik eta bi imajinok (dioten honi nik neuk ez diot ematen federik, baina besteren batek eman diezaioke) gauza berbera egin zuten: biak belauniko jarri zitzaizkien eta orduz geroztik jarrera hartantxe jarraitzen dute²⁴. Hauxe egin omen zuten, laburki, athenastarrek; eta beraiei dagokienez, diote eginarrek, athenastarrak eraso egitera zetozkiela jakin zutenean, argostarrei abisatu zieten. Horrela, athenastarrak Eginan lehorreraturik zeudenean,

argostarrak azaldu ziren -Epidaurotik ezkutuki uharteratuak- eginarrei laguntzera, eta ustekabeen harrapaturiko athenastarrei eraso egin eta untzietara atzera egitea eragotzi zieten; orduantxe izan omen zen athenastarrek trumoi-hotsa entzun eta lurrikara somatu zuten unea.

87. Hauxe da, azken batez, argostarren eta eginarren bertsioa, eta honako honetan bat datoz athenastarrak ere: joandako guztietatik bat bakarra izan zela Athenasera bizirik itzuli zena; baina, argostarren bertsioaren arabera, beraiek izan ziren gudaroste atikarra suntsitu zutenak, gizon bakar hura bizirik utziz, eta athenastarren bertsioaren arabera, ostera, dibinitateak egin zuen hura; nahiz eta dena den, athenastarrek diotenez, gizon bakar hura ere ez omen zen bizirik gelditu azkenean, baizik oraintxe azalduko dudan moduan galdu.

Dirudienez, Athenasera itzultzean, hondamenaren berri eman zuen; baina Eginaren aurkako espedizioan parte hartu zutenen emazteak horren berri izatean, den-denetarik bera bakarrik salbatzea oso gaitzi zitzaien, eta, haren inguruan bildurik, beren jantzien fibulez zitzaka hasi zitzaizkion, bakoitzak "non dago nire senarra" galdetu ahala.

88. Gisa horretan garbitu zuten, bada, gizona; eta jasandako hondamendia bera baino are izugarriagoa iruditu zitzaien athenastarrei beraien emakumeen ekintza hura. Ezin omen izan zuten haiek zigortzeko beste modurik aurkitu, zeramaten jantziaren ordeztatu jantzi joniarra ezartzea baino; izan ere, ordurarte, emakume athenastarrek soineko doriarra jantzen baitzuten, Korinthokoaren oso antzekoa; horren ordeztatu, bada, lihozko tunika ezarri zen, aurrerantzean fibula beharrik ez zezaten. Izatez, egia esan behar bada, soineko horren jatorria ez zen joniarra, kariarra baino; zeren eta antzina emakumeek Helade osoan erabiltzen zuten soinekoa gaur egun doriarra deitzen diogun horixe baitzen.

Argostar eta eginarrei dagokienez, gertaera horien ondoren hurrengo hauxe lege egitea erabaki zuten, gainera: bi herriotan erabiliko ziren fibulek ordurarteko tamainua gutxienez bikoitz zezatela aurrerantzean, eta haien jainkosen tenpluan emakumeek horrelako fibulak sagara zitzatela batik bat; gainera, Atikako ezer ez zezatela ekarri tenplura, ezta zeramikazko ontzirik ere, baizik eta, aurrerantzean, bertan egindako edalontzietatik edan beharko zutela han tenpluan.

89. Hitz batez, Argosko eta Eginako emakumeek, athenastarrenaganako etsaigoarengatik, ordurarteko fibulak baino handiagoak eraman zituzten ordudunik, eta nire garai honetan ere halakoxeak daramatzate oraindik; azaldu dudan modu horretan sortu zen, bada, eginarren ezinikusia athenastarrekiko. Garai hartan, bada, thebastarren deiaren aurrean, aurki azaldu ziren eginarrak prest, imajinekin gertaturikoa gogoan zutela, beoziarrei laguntza emateko. Are gehiago, Atikako kostaldea suntsitsen ziharduten, eta athenastarrak haien kontra joateko prestatzen ari zirenean, Delphosko orakulua iritsi zitzaien hauei, hogeita hamar urte itxaron zezatela aholkatuz, eta eginarrek egindako irainaren hogeita hamargarren urtean Eakori temenos bat dedikatu ondoren, abia zitezela Eginaren kontra, orduan bai lortuko zutela-eta beraien asmoa; ostera, erasoari behingoan ekinez gero, bitarte horretan hondamendi ugari jasango zituztela (baita besteei eragin ere), azken batean etsaia suntsitsea lortu arren. Athenastarrek orakulu horren berri izan bezain laster, gaur egun agoran eraikita aurkitzen den temenosa dedikatu zioten Eakori; hala ere, ez ziren makurtu, eginarren aldetik jasandako irain haien aurrean, hogeita hamar urtetan geldi egoteko abisuari jaramon egitera.

90. Baina mendekatzeko prestatzen ari zirenean, lazedemondarrek bultzatutako maniobra batek eragotzi zien asmotan zutena gauzatzea. Izan ere, alkmeonidek Pythiarekin eta azken honek

beraien eta Pisistratiden kalterako burutu zuten azpijokoaren berri izan zutenean lazedemondarrek, bi motiboz mindurik sentitu ziren: beraiekin abegi-lokarriak zituzten lagunak erbesteratzearen eta athenastarrek horren ordainez batere eskerronik erakutsi ez zietelako. Horrez gain, zenbait orakuluk ere bultzatu zituen ekintzara, alegia, athenastarrek irain ugari eta larriak jasanaraziko zizkietela zioten orakuluek²⁵; orakulu horien edukinaren berririk ez baitzuten izan ordurarte, Kleomenesek Spartara eraman zituen arte. Kleomenesek, bere aldetik, Athenasko akropolian bereganatu zituen orakuluok, lehenago Pisistratiden esku egon baitziren, baina hauek, erbesteratuak izan zirenean, tenpluan laga zituzten eta Kleomenesek berreskuratu.

91. Orduan, bada, lazedemondarrek orakulu horiez jabetu zirelarik eta athenastarrak gero eta boteretsuagoak zirela ikusiz (eta ez zeudela prest inola ere beren esanak egiteko), zera hauteman zuten: Atikako jendea, askea izanez, beraiek bezalako potentzia bilakatuko zela, baina tiraniaren azpian egonez, orde, ahula eta men egitera emana izango zela; horretaz guztiaz oharturik, bada, Hipias Pisistratorenari dei egin zioten Helespontoko Sigeotik, Pisistroarrak errefuxiatuta zeuden lekutik, etor zedin.

Hipias dei horretara etorri zitzaientean, spartarrarrek, halaber, aliatu zituzten gainerakoei ere dei egin zieten eta honela mintzatu: "Aliatu zaituztegun jaunok, aitortzen dugu, aitortu, gure aldetik ez dugula zuzen jokatu; zeren, orakulu faltsuek horretara bultzatuta, gurekin abegi-lokarri ezin estuagoez loturik zeuden eta Athenasen menekotasuna agintzen ziguten lagunak atzerriratu baikenituen, eta hori egin ondoren, gainera, eskergaiztoko herri baten eskuetan utzi baikenuen hiria; izan ere, guri esker bere burua aske ikusi eta jaso zuenean, modurik ahalkegarrienez egotzi gintuzten, geu eta gure errege, eta orain, ospeak eta handigurak zirikatuta,

gero eta boteretsuago bihurtzen ari zaigu, oraintsu haren auzoek, beoziarrek eta khalzistarrek, ondo baino hobeto igarri ahal izan dutenez, eta, aurki, deskuidatzen den edozeinek ere igarri ahal izango duenez. Hitz batez, jokatu genuen moduan jokatzear huts galanta egin genuenez, orain gauzak bere lekura ekartzen saiatu nahi dugu, zuon laguntzaz. Horixe besterik ez da izan, hain zuzen, aurrean duzuen Hippias hona ekartzeko arrazoia eta zuei ere zeuon hirietatik etorraztearen arrazoia, ea elkarrekin asmatutako estrategiaz eta elkarrekin antolatutako espedizioaren bidez Athenasera berreramaten eta geuk kendu geniona berrematen diogun".

92. Horixe izan zen lazedemondarrek esan zutena, baina aliatu gehienek hoztasunez hartu zituzten hitzok. Horrela, besteak isilik zeudela, honako era honetan mintzatu zen Sokles korinthoarra: "Beraz, ortzia lurraren beheko aldean izango dugula, eta lurra airean, ortziaren gainean; eta gizakiak ere itsasoan biziko direla, eta arrainak, aldiz, lehen gizakiak bizi ziren lekuan; hain zuzen ere zuok, lazedemondarrok, ageri baitzarete prest isokraziak²⁶ eraitsi eta hirietara tiraniak berrekartzeko, tiraniak, gizakien artean dagoen gauzarik bidegabeko eta odolzaleena. Zeren benetan ere horri baderitzozue bidezkoa, hirietan tiranoek gobernatzeari, has zaitezte zeuok eta jar ezazue tirano bat zuenean, eta horrelaxe bakarrik ezarri ahal izango diguzue gainerakoei; baina egiatan, zuek ez dakizuenek tiranoak zer diren eta kontu handiz zabiltzatenez, gainera, horrelakorik Spartara irits ez dadin, ez dizue axola aliatuei zer gertatuko. Aldiz, jakingo bazenute baina, gu bezala, tirania zer den, orain duzuen baino ezagutza handiagoaz mintzatuko zinatekete gaiari buruz.

Izan ere, korinthoarren zuten erregimen politikoa oligarkia zen, hain zuzen, eta oligarkia hori osatzen zutenek, bakkhistarrak delakoek, gobernatzen zuten hiria eta antolatzen zuten beren artean zein zeinekin ezkondu. Horrela ba, klan horretako kideetariko batek, Anfionek, Labda zeritzon alaba herren bat izan zuen. Bakkhistar batek ere ez zuenez harekin ezkondu nahi, Eetion

Ekhekratesenak -izatez Petra herri-barrutikoa, nahiz eta jatorriz lapitha, Zeneoren oinordekoa- hartu zuen emaztetzat. Eetionek ez zuenez lortzen seme-alabarik, ez emakume harengandik ez beste ezeinengandik, Delphosera abiatu zen, ea oinordekorik izango ote zuen galdetzera. Eta sartu orduko, honako bertso hauek zuzendu zizkion Pythiak:

Eetion, estimagarria bai, baina inork ere estimurik ez diona.

Haurdun duzu Labda eta erdituko da harkaitzaz, despotei burutik behera erori eta Korinthon justizia eginen duen harkaitzaz.

Eetioni orakuluak iragarri zion profezia haren berri izan zuten zelanbait bakkhistarrek; bazen lehenago ere Korinthori zuzenduriko iragarpen bat, Eetioni iragarritakoaren antzekoa, haiek ezin interpretatu izan zutena, honako hauxe alegia:

Ernalduta dago haitzartean arranoa, askoren belauna uzokurtuko duen lehoi izugarri anker batez erditzeaz.

Erne, bada, erne, Pirene ederraren eta Korintho labartsuaren inguruetan bizi zaren korinthoar.

Orakulu horixe zen, beraz, bakkhistarrei arestian iragarri zitzaiena eta oraindik deszifratu gabe zeukaten; baina une hartan, Eetioni iragarritakoaren berri izan zutenean, lehenengo iragarpen hark Eetioni iragarritakoaz bateratasuna zuela ulertu zuten bat-batean. Baina esanahia ulertu arren, isilean gorde zuten, Eetioni sortuko zitzaion oinordekoa desagertarazteko asmoz. Eta emakumea erditu bezain laster, beretariko hamar gizon bidali zituzten Eetion bizi zen herri-barrutira, jaioberria hil zezaten.

Morroi horiek Petrara iritsi zirenean, Eetionen etxaldean sartu eta seina ikusteko gogoia erakutsi zuten; Labdak, berriz, bisitarien

asmoari antzeman gabe eta aitarekiko gizalegez eskatzen zutelakoan, haurra ekarri eta haietariko baten besoetan jarri zuen. Morroi haiek erabakia harturik omen zuten aurretiaz, bidean zetoze, haurra hartzen zuen lehenak lurraren kontra lehertuko zuela.

Baina orduan, Labdak seina ekarri eta haien eskuetan utzi zuenean, mentura miragarritz, besoetan hartu zuenari irribarre egin zion, eta gizonak hori ikusterakoan sentitu zuen errukiak ez zion utzi haurra hiltzen, baizik eta, hunkiturik, bere alboko lagunari pasatu zion, eta horrek beste hirugarren bati. Eta halaxe pasatu zen haurra eskurik esku, hamargarrenganaino heldu arte, haietariko batek ere ez baitzuen hura hiltzeko bihotzik. Beraz, haurra amari bihurtu eta etxe barrutik irten egin ziren, baina hantxe gelditu ziren atalondoan elkarri erruak leporatuz, batez ere haurra lehenbizi hartu zuenari, ebatzitako moduan jokatu ez zuelako, azkenean, handik lasterrera, berriro sartu eta denek esku hartuz hiltzea erabaki zuten arte.

Baina halabeharra zen Eetionen oinordekoa Korinthoko zorigaitzen iturri izatea. Labda ate atzean belarria ipinita zegoen, dena entzuten; eta iritziz aldatu eta umea hiltzera berriro sartuko ziren beldurrez, hartu haurra eta bere ustez nekezen asma zitekeen lekuan ezkutatu zuen -morko batean-, zeren haiek itzuli eta bila hasiz gero, den-dena arakatuko zutela uste baitzuen; eta halaxe gertatu zen, gertatu ere. Etxean sartu eta haurraren bila hasi ziren, baina inon ez zenez ageri, alde egitea erabaki zuten eta agindu zitzaien guztia bete zutela esatea igortzaileei. Beraz, alde egin eta horixe esan zuten.

Bitartean, Eetionen semea haziz joan zen denborarekin, eta arrisku hartatik ihes egin zuen moduagatik, morkoan sartuta, Zypselo izena ezarri zioten. Bada, Zypselo gizon egin eta aholku hartzera joanda Delphosen aurkitzen zenean, zentzu

bikoitzeko orakulua hartu zuen, eta hari fede emanez, Korinthora oldartu eta hiri horren jabe egin zen. Hona hemen orakulua:

Zorionsua etxera etorri zaidan gizakumea,
Zypselo, Eetionen semea, Korintho ospetsuko errege,
bai bera eta bere semeak; ez, ordea, bere semeen semeak.

Horixe izan zen, bada, orakuluaren erantzuna. Baina Zypselo, tirania eskuratu ondoren, hona nolako gizon bihurtu zen hura: korinthoasko erbesteratu egin zituen, beste askori ondasunak kendu zizkien, eta oraindik askoz gehiagori bizia.

Zypselok hogeita hamar urtetan gobernatu zuen eta bizitza zoritsua gertatu zitzaion azkenera arte, seme zuen Periandrok jarraitu ziolarik tiranian. Hori horrela, Periandro bere aita baino bigunago azaldu zen hasiera batean, baina mezularien bidez Thrasybulorekin, Miletoko tiranoarekin, harremanetan hasi bezain laster, Zypselo bera baino askoz ankerrago bihurtu zen. Hara non, heraldo bat bidali zuen Thrasybulori galdetzera ea zein neurri motarekin lor zezakeen boterean finkatu eta hiria gobernatzen asmatzea. Orduan Thrasybulok hiritik kanpo eraman zuen Periandroren mandataria, soro batera, eta, galsoroan zehar zebiltzala Korinthotik egindako bidaiaren kariaz behin eta berriz galdekatzen zuen bitartean, besteen gainetik gailentzen zen galbururen bat ikusten zuen bakoitzean, moztu eta lurrera jaurtitzen zuen, galsoroaren arlorik mardul eta oparoena zeharo suntsitu arte gisa horretan; horrela, soroan zehar ibili ondoren, aholku bat bera ere eman gabe bidali zuen heraldoa.

Heraldoa Korinthora itzultzean, Periandro irrikitan zegoen aholkua entzuteko; baina hark erantzun zion Thrasybulok ez ziola aholku bat ere eman, eta "harrituta nago halako

gizon batengana, beraren ondasunak suntsitzen dituen zoro batengana, bidali nauzulako" esanez, Thrasybulo zer egiten ikusi zuen kontatu zion zehatz-mehatz. Baina Periandrok ongi ulertu zuen Thrasybuloren portaera, eta, burua gailenen ageri zuten hiritarrak garbitzea aholkatzen ziola hautemanez, ordutik aurrera oso ankerki hartu zituen hiritarrak. Eta Zypselok burutu gabe utzitako erbesteratze edo erailketak, Periandrok burutu zituen; pentsa, egun bakar batean Korinthoko emakume guztiak biluzarazi zituen, Melisa bere emaztea jabaltzearren²⁷.

Izan ere, thesprotiarren lurraldean dagoen Akeronte ibaiertzera mezulariak bidali zituelarik, hildakoei dei egiten zaien leku hartan bere emazteari galdetzera beronen adiskide min batek gordailutzan utzi zion diruari buruz, Melisaren agerkariak adierazi zion ez ziola ezer esango diruaz, ezta diru hori non gordeta zegoen ere, hotz omen zelako eta biluzik, zeren senarrak berarekin batera lurperatu zituen jantziek ez baitzioten balio, errautsiak ez izatearren; eta zioena egia zela frogatzeko, Periandrok ogiak labe hotzean sartu zituela adierazi zuen.

Periandrori mezu hori jakinarazi ziotenean (eta mezuaren frogatzat adierazitakoa sinesgarritzat hartuz, zeren sexu harremana izan baitzuen Melisarekin, hau gorpu zela), mezua jaso bezain laster, pregoia jo zuen Korinthoko emakume guztiak Heraren tenplura joan zitezen. Haiek, normala denez, beren arropa ederrenez jantzirik joan ziren, jaialdi batera bailihoazen; eta Periandrok, tartean kokaturiko goardiez baliatuz, denak biluzarazi zituen -emakume aske zein mirabe, salbuespenik gabe-, eta jarraian haien jantziak hobi batean sartu eta errausteko agindu zuen, Melisari otoitz bat zuzentzen zion bitartean. Hori egin ondoren, beste mezulari batzuk bidali zizkion, eta Melisaren agerkariak oraingoan bai adierazi ziola arrotzak gordailutzan utzitako dirua non zegoen. Horrexetan dautza, bada -jabetu ongi, lazedemondarrok-, tirania eta tiraniaren ekintzak. Gu, korinthoarrok, harri

eta zur geratu ginen, hasiera-hasieratik, Hipiasi etorrazazi zeniotela ikustean, baina orain are harrituago gaude zuen hitzen aurrean; zera eskatzen dizuegu, beraz, Heladeko jainkoen izenean, etzazuela tiraniarik ezar hirietan. Ez duzuela atzera eginen eta zuzenbide ororen aurka saiatuko zaretela Hipias berrezartzen? Jakin ezazue, orduan, korinthoarrak ez daudela horrekin ados".

93. Horixe esan zuen Soklesek, Korinthoko ordezkaritzaren bozeramaileak; Hipiasek, orduan, Soklesek deituriko jainko beraiek lekukotzat jarritz, zera erantzun zion, korinthoarrak eurak izango zirela egiatan, beste inor baino gehiago, Pisistratiden falta nabarituko zutenak, athenastarrendik ezbeharrak jasan beharko zituzten halabeharrezko egunak iristen zitzaiezkienean. Hipiasek gisa horretan erantzun zion, bera zelako, izan ere, orakuluak hoberen eta sakonen ezagutzen zituen gizona; ordurarte isilik egon ziren gainerako aliatuei dagokienez, Soklesi askatasun osoz mintzatzen entzun ondoren, guztiak eta bakoitzak hots egin eta korinthoarraren iritziarekin bat agertu ziren, zera eskatuz zin-zinez lazedemondarrei, ez ziezaiotela erasorik egin ezein hiri heleniarren erregimenari.

94. Horrela, beraz, egitasmo hura etenda geratu zen. Bitartean, Hipiasek Spartatik alde egin zuenean, Mazedoniako Amyntasek Anthemunte eskaini zion, baita thesaliarrek ere Jolko. Baina hark eskaintza bioi ezetza eman eta Sigeora itzuli zen berriro, Pisistratok mytilenatarrei lantza-puntaz kendutako lekua eta, hartaz jabetu ondoren, Hegesistrato bere semea tiranotzat ezarri ziona -emakume argostar batengandik izan zuen sasikoa, berau-, zeinek borroka ugariren bidez baino ez baitzuen kontserbatu Pisistratorengandik harturiko ondare hori. Izan ere, mytilenatarrek eta athenastarrek elkarrekin guduan jardun zuten luzaroan, haiek Akhileio hiria eta hauek Sigeo hartuz erasopuntutzat; mytilenatarrek lurralde haren jabetza erreklamatzeko zuten,

baina athenastarrek ez zuten horrelakorik onartzen, baizik eta argumentuz frogatzen, aitzitik, eoliarrek ez zutela Iliongo lurraldeaz beraiek baino, edo Menelaori Helenaren bahiketa mendekatzen lagundu zioten gainerako heleniarrek baino eskubide gehiago.

95. Gerra hartako borrokaldietan gertaturiko zertzelada askoren artean, Alzeo poetarena dago, zeinek, athenastarrak irabazle atera ziren borrokaldi batean, borrokari itzuri eta ihesari eman baitzion, baina athenastarrak haren armez jabetu eta Sigeoko Athenearen tenpluaren horman esekita utzi zituzten. Eta Alzeok jazoera horri buruzko poema bat egin zuen eta Mytilenera bidali, bere lagun bati, Melanipori, gertatu zitzaion zorigaitzaren berri emanez.

Baina mytilenetarren eta athenastarren arteko armistizioa lortu zuena Periandro, Zypseloren semea, izan zen; honako hau jarritz armistizioaren baldintzatzat: parte bakoitzak une hartan bere esku zuena kontserbatzea. Horrelaxe igaro zen Sigeo athenastarren eskuetara.

96. Bitartean, Hippias, Lazedemondik Asiara joan ondoren, bazter guztiak nahasten zebilen, athenastarrak Artaphrenesen aurrean kalumniatzen eta Athenas haren eskuetan eta Dariorenean eror zedin ahalegin guztiak egiten. Hori zen, beraz, Hippiasen taktika; eta athenastarrek horren berri izatean, Sardesera mezulariak bidali zituzten, Athenastik atzerriratuei persiarrek federik eman ez ziezaieten. Baina Artaphrenesek Hippiasen itzulera onartzea exigitu zien, arrisku gabe bizi nahi bazuten. Athenastarrak, ordea, ultimatum hori onartzeari uko egin zioten, jakina; eta horri uko egiteak persiarren etsai ageriro bihurtzea esan nahi zuen.

97. Bada, jarrera hori hartu eta persiarren etsaigoa piztu zuten une hartan heldu zen Athenasera, hain zuzen, Spartatik Kleomenes

lazedemondarrak egotzitako Aristagoras Miletokoa; Athenas baitzen, izan ere, gainerako Heladen hiririk boteretsuena. Herria²⁸ aurrean zuelarik, Aristagorasek Spartan esandakoa bera errepikatu zuen Asiako aberastasunei eta persiarren gerra egiteko moduari buruz, ez ezkuturik ez lantzarik ez zeramatenenez, erraz harrapatzekoak zirela nabarmenduz. Argudio horiexek erabili zituen, hitz batez, beste hau ere erantsiz, hots, miletoarrak Athenastik joandako kolonoak zirela eta haienean babesa aurkitzea itxaron zitekeela, boteretsu ere bazirelako; eta, eskaria halakoa izanez, ez zuen utzi promesa bat ere egin gabe, azkenean haiek konbentzitzea lortu zuen arte. Badirudi, zinez, errazagoa dela jende asko limurtzea bat bakarra baino, zeren Aristagorasek ez baitzuen lortu Kleomenes lazedemondar bakar hura limurtzerik, eta bai, oster, hogeita hamar mila athenastar²⁹.

Athenastarrek, beraz, limurturik, bozketa egin eta hogeitaz gerrauntzi bidaltzea erabaki zuten joniarren laguntzera, Melanthio izendatuz almirante, herikideen artean prestigio handia zuena maila guztietan; eta gerrauntzi hauek izan ziren zorigaitzen hasiera, bai heleniarrentzat baita atzerritarrentzat.

98. Bere aldetik, Aristagorasek aurrea hartu zien eta, Miletora iritsi zelarik, joniarren inolako abantailarik ekarriko ez zien plan bat asmatu zuen (ez baitzen hori, izan ere, planaren helburua, baizik Dario erregea zirikatzea): morroi bat bidali zuen Phrygiara, Megabazok Strymon ibaiertzetik gatibu eramanez eta Phrygiako lurralde barruan, hantxe, herrixka batean, bizi ziren peoniarrengana. Hauengana heldu zenean, ondoko hauxe esan zien gizon hark: "Peoniarrok, Aristagorasek bidali nau, Miletoko tiranoak, aske izan zaitezten plan bat proposatzera, baldin haren oharrei kasu egitea onartzen baduzue. Jonia osoa dago une honetan erregeren kontra matxinatuta eta hauxe duzue, beraz, zeuen herrira bizirik eta onik itzultzeko aukera; irits zaitezte itsasora zeuen kontura, eta gainerakoak geu arduratuko gara".

Peoniarrek pozez beterik entzun zuten proposamen hori eta itsasorantz abiatu ziren, ume eta andreekin batera, nahiz eta haietariko batzuk bertan geratu ziren, txarrena pentsatuz. Itsasora iritsi ondoren, handik Khiorantz abiatu ziren. Hona iritsiak zirelarik, ordea, persiarren zaldizko-talde handi bat etorri zitzaien atzetik bila. Ez zituztenez lehorrean harrapatu, persiarrek mezulariak bidali zituzten Khiora, peoniarrei itzul zitezen agintzera. Baina hauek ez zuten horrelakorik onartu, aitzitik, khiotarrek beren uhartetik Lesbora eramán zituzten, lesboarrek beren aldetik Doriskora, eta hemendik Peoniaraino, azkenez, lehorreko ibilbidez iritsi ahal izan ziren.

99. Aristagorasek bitartean, athenastarrak beren hogeí untziekin heldu zirenean, bidean batu zitzaizkien eretriarren bost triererekin batera -hauek espedizioan esku hartzen bazuten, ez zen athenastarrenganako adeitasunez, baizik miletoarrei beraiei zor zieten mesede baten ordainez (izan ere, arestian miletoarrek laguntza eman baitzieten eretriarrei khalzistarren kontrako gerran, samoarrek beren aldetik khalzistarrei eretriar eta miletoarren kontra lagundu zieten une berean)-, horiek, beraz, eta gainerako aliatuak bildu zirenean, Aristagorasek, diot, Sardesen aurkako espedizioa agindu zuen. Bera, alabaina, ez zen joan gudarostearekin, baizik Mileton geratu zen, beste batzuk izendatuz miletoarren buruzagi, horien artean bere anaia bera, Kharopino, eta Hermophanto zeritzon beste hiritar bat.

100. Flota horrekin iritsi ziren, bada, joniarrak Ephesora, eta untziak Ephesiako Koreson utzi ondoren, barrurantz abiatu ziren armada handi batekin, zenbait ephesoar hartuz gidaritzat. Kaustrio ibaibideari jarraituz eta Tmolo zeharkatu ondoren, azkenean Sardesera heldu ziren eta erresistentziarik gabe hartu zuten hiria;

hiri osoa, akropolia izan ezik (zeren hau Artaphrenesek berak defendatzen baitzuen destakamentu trinko batekin).

101. Baina hona hemen zerk eragotzi zien hiri hura arpilatzea. Sardesko etxe gehienak kanaberaz eginak ziren, eta adreiluz eraikitakoek ere kanaberazko teilatuak zituzten; bada, soldadu batek etxe horietariko bati su eman ziolarik, sua etxerik etxe zabaldu zen, hiri osoa hartuz. Hiria su eta gar, lydiarrek eta hiriaren beheko aldean bizi ziren persiarrek oro, beren buruak alde guztietatik inguraturik ikusiz (zeren, sutea aldiriak suntsitzen ari zenez, ez baitzeukaten hiritik ihes egiteko biderik), agorarantz eta Paktolo ibaiertzerantz jo zuten tropelean; ibai hau Tmolotik jaisten da lydiarrei urre-pipitak utziz, eta agoraren erdigunea zeharkatuz, Hermo ibaira jotzen du gero, eta azken honek itsasora; bada, Paktolo horren ertzean eta agoran bildu ziren lydiar eta persiarrak beren burua defendatu beharrean aurkitu ziren. Joniarrak, orduan, arerioen zati bat bere burua defendatzera zihoala eta errefortzu ugari hurbiltzen ari zela ikusiz, beldurtu egin ziren eta Tmolo deritzon mendirantz atzeratu, eta handik, gauez, beren untzietarantz abiatu ziren.

102. Halaxe hartu zuen suak Sardes, eta han, halaber, Zybebe³⁰, bertako jainkosari dedikaturiko tenplua ere erre zen; eta horren erretzearen aitzakiaz emango zieten su geroago mediarrek Heladeko tenpluei.

Bitartean, Halys ibaiak hemendiko probintzietan zeuden persiarrak, gertatzen zenaren berri izatean, indarrak bildu eta lydiarrei laguntza ematera mugitu ziren. Baina Sardesen hain zuzen joniarrak aurkitu ez zuten, haien arrastoei jarraitu eta

Epheson atzeman zituzten. Joniarrek beren aldetik aurre egin zieten, baina porrot latza jasan zuten. Gainera, persiarrek haietariko asko hil zituzten, eta entzute handiko beste batzuen artean Eualzides, eretriarren jenerala, Joko Handietan garaipenaren ereinotzak jasotakoa eta Simonides zeotarrak oso goraipatua; borrokaldi hartatik ihes egitea lortu zutenak, berriz, hirietatik barreiatu ziren.

103. Gisa horretan jardun zuten borrokan, orduan, alderdi biek. Hala ere, athenastarrek behingoan laga zuten bertan behera joniarren kausa eta, Aristagorasek mezularien bidez behin eta berriz laguntza eskatu arren, ezezkoa eman zieten; joniarrak, hala eta guzti, athenastarren laguntza militarrik gabe ere, ez zioten utzi, ez, erregeren aurka borroka egiteko prestakuntzari, hain baitzen larria dagoeneko Dariori egindakoa. Helespontorantz itsasoratu ziren, bada, bai Byzanziori baita inguruko beste hiriei ere beren kausaren alde lerrokaraziz, eta jarraian, Helespontotik aurrera eginez, Karia gehieneko laguntza militarra bermatzea lortu zuten; zeren Kauno bera ere, ordurarte haien aliatu izan gura ez zuena, kausa joniarrari lotu baitzitzaion orduan, Sardesi su eman eta gero.

104. Amathuntekoak izan ezik, zyproar guztiak ere borondatez lerrokatu zitzaizkien; horiek ere orain azalduko dudan moduan matxinatuak baitziren mediarren aurka.

Gorgo, Salaminako erregek anaia txikiago bat zeukan, Onesilo -Khersisen seme, Siromoren iloba eta Euelthonen birloba-. Gizon honek aspalditik ziharduen Gorgo zirikatzen erregeren kontra matxina zedin, baina une hartan, joniarrak ere matxinatu zirela jakitean, tema handiagoz saiatu zen horretan; baina ez zuenez lortzen Gorgo konbentzitzerik, hau Salaminako

hiritik noiz irtengo zain geratu zen, eta orduan, bere alderdikoek laguntzaz, hiriko ateak itxi eta kanpoan utzi zuten. Gorgo, hiria kendu ziotelarik, mediarrengana joan zen babes bila, eta Onesilo Salaminaren kargu egin zen eta ziproar guztiak limurtu zituen berarekin matxina zitezen. Eta guztiak limurtzea lortu zuen, Amathuntekoak izan ezik, eta hauei, bere esanera makurtu nahi ez zutenoi, hirira aurkeztu zitzaaien eta setioa ezarri.

105. Onelisok, beraz, Amathunte setiatzen ziharduen. Bitartean, athenastarrek eta joniarrak Sardes hartu eta su eman ziotela jakinarazi ziotenean Dario erregeri, eta Aristagoras Miletokoa izan zela koalizioaren buru eta azpijokoaren eragile, horren berri izatean, diotenez, hasiera batean ez zuen esan hitzik joniarrez, bai baitzekien, ondo jakin ere, ez zirela zigorrik gabe geratuko, baizik athenastarrak nor ziren galdetu omen zuen; eta jakinean jarri ondoren, bere uztia eskatu omen zuen eta, hura eskuan hartu eta gezi bat ipiniz, zerurantz apuntatu eta gora jaurtiki, deiadar eginez: "Oi Zeus³¹, utz iezadazu athenastarrez mendekatzen!", eta, berbok esan ondoren, bere zerbitzarietarik bati agindu bide zion hiru bider errepika ziezaiola, jatekoa aurrera ekartzen zioten bakoitzean, "Jauna, gogora itzazu athenastarrak".

106. Agindu hori eman ondoren, Histieo Miletokoari deitu zion bere aurrera, Dariok aspalditik atxikirik zeukana, eta haxe esan zion: "Jarri naute jakinean, Histieo, zure ordezkioak, Miletoko gobernuaren kargu utzi zenuen morroi horrek, azpilanean jardun izan duela nire kontra: zeren handiko kontinenteko jendea aurkatu baitit, eta joniarrak ere -ordainduko didate horiek, bai horixe, egin didatena- limurtu baititu etorri berriekin bat egitera, eta Sardes harrapatu didate. Zer, ongi al deritzozu gertatutako guzti horri? Nola gertatu izan da horrelakorik, zure aholkurik gabe? Kontuz ibil zaitez, ea gero azkenean zeure buruz deitoratu behar duzun".

"Maiestate -erantzun zion horri Histieok-, zer dio Berorrek? Neu izan naitekeela Berorri kalteren bat, handia nahiz txikia, egin diezaion plan bat buru nezakeena? Zer dela-eta egin nezakeen horrelakorik? Zeren faltan nagoelako? Neure esku dago Berorrek duen guztia, eta Berorren erabaki guztien jakinaren gainean egotearen ohorea dut. Alabaina, nire loktenenteak benetan ere Berorrek dioen horretan jardun badu, egon ziur bere kabuz baino ez duela egin. Dena den, niri dagokidanez, erabat sinesgaitza zait miletoarrek, eta nire loktenenteak batik bat, Berorren interesen kontrako matxinadan dihardutela dioen informea. Baina egia baldin bada horrelako zerbait egiten dabiltzala eta Berorren informea, Maiestate, egiazkoak badira, pentsa beza Berorrek zer lortu duen, ni itsasaldetik urrunduz. Dirudienez, joniarrak, neronek haien begibistatik alde egitean, aspalditik asmotan zutena burutu dute; zeren ni Jonian izan banintz, hiri bat bera ere ez baitzen mugituko. Utz biezat Berorrek orain, bada, lehenbailehen Joniara abiatzen, lurralde hartan lehengo bakea ezar dezadan eta konplot hori guztia ehundu duen Miletoko gobernariorde hori Berorren eskuetan jar dezadan. Eta egiteko hori Berorren gogoaren arabera burutu bezain laster, zin dagit, errege-etxeko jainkoen izenean, ez dudala erantziko Joniara soinean eramango dudana tunika, harik eta Sardinia, inon den uharterik handiena, Berorren zergaduru bihurtu arte".

107. Histieok hori guztia iruzurrez zioen, jakina, baina Dariok sinestu egin zion eta abiatzen utzi, hitz emandako hura bete ondoren, Susara, bere aurrera, itzul zedila aginduz.

108. Bitartean, Sardesen gertaturikoaren berria Erregearenera heldu eta Dariok, uztaiarena burutu ondoren, Histieorekin solasaldi hura izan eta azken hau erregeren baimenaz

itsasoratu zen artean, denbora horretan guztian honako hauexek gertatu ziren. Onesilo salaminarra amathuntearrak setiatzen ari zelarik, Artybio persiarra gerrauntzietan gudaroste persiar handi baten buru Zyprora iristear zela abisatu zioten; informazio hori jaso bezain laster, Onesilok heraldoak bidali zituen Joniako hiri ezberdinetara, eta haiek, deliberazio labur baten ondoren, untziteria ugarirekin etorri zitzaizkion. Horrela, joniarrak dagoeneko Zypron zeudela, persiarrek Ziliziatik uharteratu ziren beren untzietan eta lehorrez abiatu ziren Salaminaren kontra. Baina pheniziarrek ere, beren aldetik, "Zyproko Giltzak" deritzon lurmuturretik hartu eta bazetozen beren untziekin.

109. Halako maniobraren aurrean, Zyproko tiranoek jeneral joniarrei batzarrera deitu eta hauxe esan zieten: "Joniarrak horiek, guk zyproarrok aukeran jartzen dizuegu zein etsairekin borrokatu, dela persiarrekin, dela pheniziarrekin. Beraz, persiarrekin lehorreko borrokaldia nahiago baduzue, zuen untzietatik lehorreratu egin beharko zenukete, guk untzietara igon eta pheniziarrei aurre egiteko; baina azken hauekin borrokatzea nahiago baduzue ere, hartzen duzuen erabakia hartzen duzuela, zeuon ahalean dagoen guztia egitea dagokizue, bai Jonia baita Zypro aske izan daitezen".

"Liga joniarrak -erantzun zioten horri joniarrek- itsasoa zaintzeko bidali gaitu eta ez gure untziak zyproarrei utzi eta persiarren kontra lehorrez ekiteko. Beraz, gure esku utzi diguten horretan saiatuko gara gu kemenez; zuok, berriz, zeuon adore guztia erakutsi beharko duzue, mediarren uztarpean jasandakoa jasan ondoren".

110. Hitz horiekin erantzun zieten, bada, joniarrek. Handik gutxira, persiarrak Salaminako lautadara heldu zirenean,

zyproarren buruzagiak borrokarako kokatu ziren, tropa zyproarren zati handiena armada etsaiaren zati handienaren aurrez aurre kokatuz, gudari persiarren³² aurrez aurre salaminar eta solostarren elite bikainena kokatzen zuten bitartean. Onesilo, bere aldetik, Artybio, persiarren jeneralaren aurrez aurre jarri zen beren-beregi.

111. Gainera, Artybioren zaldia hoplitei bi hankatan zutika erasotzen hezia zegoen. Horren jakitun, Onesilok, jatorriz Kariako ezkutari bat zuenez gai militarretan aditua eta kemen handikoa gainera, zera esan zion beroni: "Jakitun nago Artybioren zaldia zutika erasotzen hezia dela eta ostikoz zein haginka garbitzen duela erasora datorkion etsaia. Hausnar ezazu arazoa, bada, eta esaidazu berehala zeini erasotzea nahiago duzun, aukera aurkezterakoan, zaldiari ala Artybiori berari".

"Maiestate -erantzun zion zerbitzariak-, prest nauzu ni gauza bata zein bestea egiteko, edo bi gauzotariko bat, edo zuk agintzen duzun edozein gauza. Baina esango dizut, halere, zure mailarekin egokiago datorrena nire aburuz. Errege batek edo buruzagi batek beste errege edo buruzagi batekin neurtu behar dituela indarrak deritzot nik (zeren buruzagi bat eraisten baduzu, horrek ospea emango baitizu, eta bera baldin bada, oster, zurekin amaitzen duena -ez bedi horrelakorik gerta-, gaitzerdi halako etsai duin baten eskuetan heriotza aurkitzea), guri menpekooi, aldiz, beste menpeko batzuekin dagokigu indarrak neurtzea, eta kasu honetan zaldi batekin; etzazula beldur txikienik ere zaldi horren amarruez, neuk agintzen dizut-eta abere hori ez zaiola inoiz gehiago zutika jarkiko ezein laguni".

112. Horiexek izan ziren haren berbak; eta, handik lasterrera, borrokan trabatu ziren gudarosteak lehorrez eta itsasoz. Bada, itsasoz, joniarrak egun hartan bikain portatu ziren,

samoarrak nabarmendu zirelarik bereziki, eta pheniziarrei garaitu zitzaizkien. Bitartean, lehorrez, gudarosteak aurkatu zirenean, buruz buru borrokatu zuten. Eta jeneral biei dagokienez, hona hemen zer gertatu zen: Artybio bere zaldiaren gainean Onesilori erasora zetorkiolarik, honek, aurretiaz ezkutariarekin hitz egindakoaren arabera, erasoan zuen Artybio kolpatu zuen; eta zaldi hark aurreko hankak jaso zituenean Onesiloren ezkutuaren kontra, kariarrak ezpatakada bortitz batez atzeko hankak trenkatu zizkion.

113. Horrela, hantxe bertan jausi zen lurrera Artybio, persiarren jenerala, bere zaldiarekin batera; baina gainerakoek borrokan zihardutela, Stesenor, Kurioko tiranoa (hortaz, hiri horretako bizilagunak Argostiko kolonoak omen dira) arerioengana pasatu zen, berarekin zihoan gudutalde ugariarekin batera. Kuriotarren desertzio horren ondoren, Salaminako gerra-gurdiak ere gauza bera egin zuten; eta persiarrek, desertzio horiei esker, zyproarrak menperatzea lortu zuten, hauen gudarosteak ihesari eman behar izan ziolarik. Hildako asko utzi zituzten, eta horien artean Onesilo Khersisena, Zyproko errebolta gauzatu zuena, hala nola Aristozipro, Philozyporen seme eta solostarren erregea (Philozipro hori izan zen Solon athenastarrak, Zyprora iristean, beste ezein tirano baino gehiago goraipatu zuena bere bertsoetan).

114. Onesilori dagokionez, amathuntearrak setiatu zituenez, hauek lepoa moztu zioten, Amatunthera eraman eta hango ateetan eseki; eta burua hantxe esekita zegoela, barrua hutsik, erlakumea bertara sartu eta eztiորrazez bete zuen. Jazoera horren aurrean, amathuntearrek buruari buruz orakuluari kontsultatu ziotelarik, handik jaitsi eta lurra emateko aholkatu zien, eta gainera heroiori dagozkion opariak eskaini ziezaizkiotela urtero Onesilori, hala eginez gero, beraien onerako izango zela-eta.

115. Halaxe egin zuten amathuntarrek, eta neuk ere ezagutu dut hori. Bestalde, Zyproko uretan borrokatu zuten joniarrei dagokienez, Onesiloren kausa galdua zela eta uharteko hiri guztiak, Salamina salbu, setiatuak zeudela jakitean (Salamina bizilagunek hiria Gorgo, lehengo monarkaren esku utzi baitzuten), gertatutako horren berri izan bezain laster, Joniarantz zuzendu zituzten untiak. Zyproko hirietatik setioari luzaroen eutsi ziona Solos izan zen, hain zuzen, eta leku hau bost hilabeteren buruan baizik ez zuten hartu persiarrek, harresien inguru osoa minatu ondoren.

116. Horrela ba, zyproarrak, urtebetez aske izan ondoren, berriro ere jopu bihurtu ziren. Bitartean, Darioren alaba batekin ezkonduarik zegoen Daurises, hala nola Hymeas eta Otanes, Darioren alabekin ezkonduko jeneral persiarrak halaber, Sardesen kontrako espedizioan parte hartu zuten joniarren atzetik joan ziren, untzietarantz atzera eraginez; eta borrokaldi horretan garaile, jeneralok hiriak euren artean banatu eta arpilatzeari ekin zioten.

117. Daurises Helespontoko hirien kontra abiatu zen eta Dardano hartu zuen, Abydo, Perkota, Lampsako eta Pesoz ere jabetu zelarik, egunean hiri bat hartuz. Hala ere, Pesotik Pario hirirantz zihoanean, kariarrak joniarrekin bat egin eta persiarren aurka matxinatu zirela jakin zuen. Beraz, Helesponto utzi eta Kariaren aurka zuzendu zuen armada.

118. Baina suertatu zen kariarrek mugimendu horren berri izatea Daurises heldu aurretik; eta, horren jakinean, kariarrak "Zutabe Zurieta" deritzon leku batean bildu ziren, Idriade lurraldean jaio eta Meandorra jotzen duen Marsyas ibaiaren ertzean.

Hantxe bildu eta iritzi ugari eta desberdinak azaldu zituzten, baina, neure iritzirako, Zindyako Pixodaro Mausolorenak azaldu zuena izan zen burutsuena (Pixodaro hori Syenesis, ziliziarren erregeren alaba batekin ezkondurik zegoen); hauxe zen Pixodaroren proposamena, hots, kariarrek Meandro zeharka zezatela eta posizio horretan -ibaia atzean zutela- koka zitezela borrokarako, horrela, atzerantz ihes egitea ezinezko izanez eta hantxe tinko eustera beharturik, berez zuten suhartasuna areagotu zezaten. Alabaina, ez zen izan proposamen hori azkenean nagusitu zena, baizik eta persiarrak izan zitezela, eta ez beraiek, Meandro ibaia atzean edukiko zutenak, zeren horrela, jakina, persiarrek ihesari eman eta borrokan garaituak izanez gero, ez zutela izango irtenbiderik eta errekara eroriko zirela.

119. Aurki agertu ziren persiarrak, bada, eta Meandro zeharkatu, eta orduantxe irten zitzaizkien borrokara kariarrak, Marsyas ibaiertzean, borrokaldi gogorrean jardun zutelarik denbora luzez, nahiz eta azkenean garaituak izan ziren, etsaia kopuruz nagusi izatearren. Hortaz, persiarren aldetik bi mila gizon inguru erori ziren, eta kariarren aldetik hamar mila inguru.

Handik bizirik ihes egin ahal izan zuten kariarrak Zeus Stratioren santutegian aterbetu ziren, Labraundan, jainkoari sagaraturiko platanondo-baso mardulean. (Kariarrak dira hain zuzen ere, guk dakigula, Zeus Strati³³ sakrifizioak eskaintzen dizkioten bakarrak). Horrela ba, bizirik irtendakoak leku hartan aterbetu ondoren, ea salbatzeko modurik onena zein zitekeen eztabaidatzen ari ziren, persiarren eskuetara errenditu ala Asiatik alde egitea behin-betiko.

120. Baina delibero horietan zihardutela, milostarrak eta berauen aliatuak etorri zitzaizkien laguntzera. Kariarrek orduan, lehengo egitasmoak bertan behera utziz, berriz ere gerrari ekitea

erabaki zuten. Horrela, persiarrek erasora jauzi zitzaizkienean, aurre egin zieten, nahiz eta borrokaldi hartan lehenagokoan baino porrot handiagoa jasan; gudaroste hartako asko eta asko erori ziren, baina milostarrek izan zituzten galera handienak.

121. Hala ere, handik gutxira, ausiabantza hura gainditu eta berriro ekin zioten gerrari kariarrek; izan ere, persiarrak haien hiriei erasotzera etortzeko prestatzen ari zirela jakitean, segada bat ezarri zieten Pedasara bidean, eta segada horretan, gauean, erori ziren persiarrak eta berauen jeneralak, Daurises, Amorges eta Sisimakas, garbitu zituzten; eta Myrso Gygesena ere haiekin batera jausi zen. Segada hura zuzendu zuen buruzagia Mylasako Heraklides, Ibanolisen semea, izan zen.

122. Halaxe suntsitu ziren, bada, haiek. Hymeas, bere aldetik, Sardesen aurkako espedizioan parte hartu zuten joniarren atzetik oldartu zirenetariko beste jeneral bat, Propontiderantz abiatu zen eta Zio Mysiakoaz jabetu zen; baina, hiri hori eskuratu ondoren, Daurises Helespontotik alde egin eta kariarren aurka zihoala jakin zuenean, Propontide utzi eta Helespontorantz zuzendu zituen bere tropak, Iliongo lurraldean bizi diren eoliar guztiak menperatuz, baita gergitheak ere, antzinako teukroetatik geratzen diren azkenak. Hala ere, herri horiek konkistatzen ziharduenean, Himaies bera ere hil egin zen Troaden, gaixotasun batek jota.

123. Beraz, halaxe hil zen hura; bitartean, Artaphrenes, Sardesko gobernadoreak eta Otanes, hirugarren jeneralak, Joniaren eta honen mugan dagoen Eoliaren aurka joateko agindua hartu zuten. Orduan, bada, Jonian Klazomenas hartu zuten, eta Eolian Zyme.

124. Hiri horiek erori zirenean, Aristagoras Miletokoa (kemen handikoa ez zena, argi erakutsi zuenez), bera izan arren

Joniako erreboltaren eragile eta istilu haien guztien sustatzaile, gauzak nola zihoazen ikusirik, ihesean pentsatzen hasi zen; gainera, benetan ere ezinezko zeritzon Dario erregeri gehiago egitea; hori horrela, bere jarraitzaileei batzarrera deitu zien eta, badaezpada ere, Miletotik atzerriratu beharra gertatuz gero, babesteko lekuren bat izatea oso komenigarri litzatekeela azaldu zielarik, handik Sardiniara kolonia bat sortzera joateko aukera planteatu zien, edota edonoen lurraldean dagoen Myrzinora, Histieok bere zerbitzuen truke Dariorengandik jaso eta gero gotortu zuen lekua. Horixe planteatu zuen, bada, Aristagorasek.

125. Ordea, Hegesandroren seme zen Hekateo historialariaren aburuz, leku biotariko batera ere ez zukeen joan behar, baizik eta gotorleku bat eraiki Lero uhartean eta hantxe iraun lasai, Miletotik egozten bazuten; zeren egonleku horretatik abiatuz hirira itzultzen saia baitzitekeen gerora.

126. Hauxe izan zen, bada, Hekateoren aholkua, baina Aristagorasek berak askoz ideia hobeaz zeritzon Myrzinora erretiratzeari. Horrela, beraz, Miletoko gobernua Pythagorasek eskuetan utzi zuen, herikideen artean ospe handiko gizona, eta bera, jarraitu nahi izan zioten guztiekin batera, Thraziarantz itsasoratu eta xedetzat hartutako lurraldeaz jabetu zen; baina, egonleku horretatik egindako espedizio batean, thraziarren eskuetan galdu ziren, bai bera eta bere gudarostea, hango hiri bat setiatzen ziharduten bitartean, bertako bizilagunak prest azaldu zitzaizkien arren, tregoa bat medio, hiri hartatik alde egiteko.

VI. LIBURUA

1. Halaxe hil zen, beraz, Aristagoras, joniarren erreboltaren eragilea. Bitartean, Histieo, Miletoko tiranoa, Sardesera aurkeztu zen Darioren baimenarekin. Susatik hona iristerakoan, zera galdetu zion Artaphrenes, Sardesko gobernadoreak, ea zer motiboz matxinatu ote ziren joniarrak, beraren ustez. Histieok ez zekiela erantzun zion eta gertaturikoez harritzen zelakoa egin zuen, azken jazoeren berririk ez bailuen. Baina Artaphrenesek, Histieo itxurak egiten zebilela ikusiz, hauxe esan zion, erreboltaren benetako arrazoiaren jakitun: "Entzun ondo, Histieo, arazo honen sustarra: sandalia hori zeuk josi, eta Aristagorasek jantzi"³⁴.
2. Berba horiexek esan zituen Artaphrenesek erreboltari buruz. Eta Histieo, Artaphrenesek egia ezagutzen ote zuen susmoak asaldatuta, itsasorantz abiatu zen gau hartan bertan, Dariori egindako iruzurra burutuz horrela; zeren Sardinia, munduko uharterik handiena konkistatuko zuela prometatutako arren, joniarren aitzinean jartzen ahalegindu baitzen Darioren aurkako gerran. Orduan Khiora jo zuen, baina khiotarrek atxilotu egin zuten, berenean albaramenduren bat eragitera zetorrelakoan Dariok bidalita. Haatik, arazo guztiaren berri izan zutenean, hots, erregeren etsai zela, khiotarrek aske utzi zuten.
3. Orduan, jakina, joniarrak galdetu zioten ea zer dela-eta izan zuen horrenbeste irrika Aristagorasi Darioren aurka jarki zedin agintzeko eta joniarrei halako hondamena ekartzeko, baina Histieok ez zien inola ere azaldu egiazko arrazoia³⁵, baizik eta zera adierazi: Dario erregek pheniziarrek deportatu eta Joniara lekualdatzeko, baita joniarrei ere Pheniziara lekualdarazteko, erabakia hartua zuela, eta horixe izan zela agindu hura bidaltzearen arrazoia. Histieoren asmoa joniarrei beldurra sartzea zen, zeren erregek ez baitzuen sekula ere halako egitasmorik azaldu.
4. Jarraian, Histieok, Atarneoko seme zen Hermipo delako baten bidez, Sardesen aurkitzen ziren persiarrei gutunak igorri zizkien, haiek aurretiaz berarekin berba eginak baitziren matxinadaren aukeraz. Hermipok, ordea, gutunok, jaso behar zituztenei eman beharrean, Artaphrenesi eraman zizkion eskura. Honek, orduan, gertatzen zen guztiaren jakinean jarri ondoren, Histieok igorritako gutun haiek jaso behar zituztenei eramateko agindu zion Hermipori, eta persiar haiek Histieori erantzun ziezaiotenaren berri ere emateko gero. Konplota agerian geratu zelarik, Artaphrenesek persiar mordoa exekutatu zuen.
5. Horrela ba, Sardesen halako asaldura gertatzen zen bitartean, Histieok, zuen itxaropen hura zapuzturik ikusita, Miletora eraman zezatela eskatu zien khiotarrei. Baina miletoarrek, Aristagorasez libratu izanaz pozarren, ez zuten batere gogorik beste tirano bat onartzeko beren lurraldean, are gutxiago orain, askatasunaz gozatu ondoren. Dena den, Histieo Miletora nahitaez itzultzen saiatu zenez gauaren babesera, miletoar batek eraso egin eta izterrean zauritu zuen. Horrela, bere aberritik egotzia, Khiora itzuli zen: eta, ez zuenez lortzen khiotarrak konbentzitzerik untxiak utz ziezaizkioten, handik Mytilenera igaro eta lesboarrak limurtu zituen horretara. Haiek hiru triere hornitu zituzten eta Byzanziorantz itsasoratu ziren Histieorekin; eta hantxe jarritz operazio basea, Pontotik zetozen untxiak oro harrapatzeari ekin zioten, tripulazioa Histieoren esana egiteko prest agertu ezean.

6. Gauza horiexek egiten zituzten, bada, Histieok eta mytilenearrek. Artean, iristear zen untziteria eta lehorreko armada ugaria Miletori berari eraso egitera, persiar jeneralek beren indarrak bildu eta gudaroste bakar bat osatu baitzuten Miletoren kontra joateko, gainerako hiriak albo batera utziz. Flota hartan sutsuen ageri zirenak pheniziarrek ziren, hain zuzen; eta haiekin batera zyproar menperatu berrien gudari talde bat ere bazetorren, hala nola Ziliziako eta Egyptoko taldeak.

7. Horiek Miletori eta gainerako Joniari erasotzera zetoze, joniarrak, horren berri izatean, Panjoniara bidali zituzten beren ordezkariak. Hauek, leku horretara iritsi eta egoera aztertu zutenean, persiarrei aurre egiteko lehorreko gudarosterik ez mobilizatzea erabaki zuten (baizik miletoarrek beraiek defenda zitzatela beren harresiak) eta untziteria hornitzea unti bat bera ere kanpoan utzi gabe, eta, jarraian, Laden bil zedila ahalik lasterren, Miletoren alde itsasoz saiatzeko. Lade hau Mileto hiriaren aurrez aurre dagoen uhartetxo bat da.

8. Handik lasterrera, untziteria hornitu ondoren, hara abiatu ziren joniarrak, baita Lesbon bizi diren Eoliarrak ere haiekin batera. Eta hona hemen nola kokatu ziren borrokarako: ekialdeko lerroa miletoarrek eurek osatzen zuten, beren laurogei gerrauntziekin; haien ondoan prienetarrak zeuden hamabi untzirekin, eta Myuntekoak hirurekin; azken hauen ondoan, teotarrak zeuden hamazazpi untzirekin, eta teotarren ondoan khiotarrak ehun untzirekin; azken hauen aldamenean erythrearrak eta phozearrak lerrokatu ziren, lehenengoek zortzi unti eta biharrenek hiru zekartzatelarik; phozearren ondoan lesboarrak zeuden hirurogeita hamar untzirekin; azkenez, mendebaldeko lerroa

samoarrek osatzen zuten hirurogei gerrauntzirekin. Untziteria horren kopurua, bada, hirurehun eta berrogeita hamahiru trieretara iristen zen guztira.

9. Horixe zen, beraz, joniarren untziteria, barbaroen untziak seiehunera iristen ziren bitartean. Azken hauek, beren aldetik, Mileto ingurura heldu zirenean, eta lehorreko tropa guztiak ere bertan zirelarik, jeneral persiarrek une hartan -gerrauntzi joniarren kopurua ikustean- haiek garaitzerik lortuko ez zuten beldur izan ziren eta, beraz, itsasoaren nagusitasunik gabe Miletoz jabetzerik lortu ez eta hortik Darioren errepresaliaren bat etor lekiekeen beldur. Gogoetok eginez, Miletoko Aristagorasek beraien karguetatik egotzi ondoren mediarrenean babesa aurkitu zuten tirano joaniarrei deitu zieten, hauek ere hantxe baitzeuden Miletoren kontrako espedizioan, eta, diodan bezala tiranook bilduz, hauxe esan zieten: "Joniarrok, kinka honetan argi eta garbi erakutsi beharra daukazue erregerenganako leialtasuna; egin ezazue ahalegin guztia, bada, zuotariko bakoitzak bere herkiderei aliatuen koaliziotik aldenarazten. Jakinaraz iezaiozue, eta horrela agindu, ez zaiela ezelako zigorrik ezarriko matxinatzearen, ez zaiela su emango ez beraien santutegi ez etxaldee, eta ez direla egongo lehen zeuden baino behartuago. Aldiz, proposamenok bazterrera utzi eta borrokari eusten badiote esanak esan, mehatxa itzazue, bai, eta azal iezaizkiezue zehatz-mehatz buru gainera eroriko zaizkien hondamendiak, eta garaituak izan ondoren esklabo bihurtuko ditugula, seme-alabak irenduko dizkiegula, neskasoak Baktrara deportatuko ditugula eta haien lurak beste batzuei emango dizkiegula".

10. Horixe izan zen jeneral persiarrek esan zutena. Eta tirano joniarrek beren mezulariak bidali zituzten, gauez, bakoitzak bere herkiderei proposamena helaraziz. Hala ere, eskaintza horiek

jaso zituzten joniarrei dagokienez, beren zentzugabeko xedeari eutsi zioten, traizio hura burutzeari uko eginez; zeren joniaretariko bakoitzak proposamen hura berari soilik egiten zitzaiola uste baitzuen.

11. Horixe izan zen, bada, persiarrak Miletora iritsi orduko gertatu zena; handik gutxira, Laden bildurik ziren joniarrak zenbait batzar egin zuten eta, bertan zeudenen aurrean hitza hartu bide zutenen artean, Dionysio jeneral phozearrak honako hauxe esan zuen: "Gure zortea, joniarrak, labanaren aho gainean dago: aske ala esklabo izatea jokatzeko dugu, eta, azken kasu honetan, esklabo ihesletzat hartuak izatea; bada, kinka honetan zenbait neke jasateko prest bazaudete, une batez gaizki izango duzue bai, baina gero zuen etsaiei gainditzea eta askatasuna eskuratzea lortuko duzue; aitzitik, alferkerian eta indisziplinan jarduten baduzue, ez dizuet, arean ere, jarki izatearren erregek ezarriko dizuen zigorretik libra zaitezketen esperantzarik ematen. Egidazue kasu, beraz, eta jar zaitezte nire aginduetara; eta zera agintzen dizuet nik, jainkoak inpartzial mantentzen badira, etsaiak ez direla aterako borrokara, edo, ateratzen badira ere, porrot latza jasango dutela".

12. Joniarrak, hori entzutean, Dionysioren agindupean jarri ziren. Honek untziak itsaso zabalera lerrokatzen zituen egunero, eta, arraunlariak untzi batzuk besteen artetik maniobratzen trebatu eta untzi barruan soldaduak armaz borrokatzera ekandu ondoren, untziok hantxe uzten zituen, itsasoan ainguraturik, egunean zehar, joniarrei egun osoan lan eginaraziz. Horrela, astebetean obeditu zioten eta hark agintzen ziena bete; baina zortzigarren egunean, joniarrak, halako nekeak jasatera eginak ez zirenez, eta ariketa haien eta eguzkiaren gogorraz abaildurik, elkarren artean marmar hasi ziren honelatsu: "Zein jainkoren

kontra egin ote dugu bekatu, honelako nekeak jasan ditzagun? Ero garbiak izan ginen behintzat, eta ez geunden geure senean, hiru unti petral baino ez dituen phozear berritsu honen esanera jarri ginenean; zeren gure kargu egin denetik, gehiegikeria gupidagabez hilduratzen baikaitu, guretariko asko gaixotu eta beste asko gaixotzeaz aurkitzeraino. Lazeria honekin jarraitu baino hobe dugu, geure onerako, beste edozein gauza pairatzea, baita atean dugun dena-delako esklabotza bera ere, oraingoaren biktima izan beharrean. Tira, ez dezagun aurrerantzean horren esanik egin!"

Halakoxe marmarioan zebiltzan, eta une hartatik aurrera inork ere ez zion obeditu nahi, aitzitik, kanpadendak ipini zituzten uhartean, lehorreko gudarostea bailitzan, eta hantxe gozatu zuten gerizpeaz, untzietara igotzeaz eta maniobrak egiteaz uko eginez.

13. Joniarren jarrera horretaz ohartzean, jeneral samoarrek Eazes Sylosontorenak persiarren aginduz ekarri zien proposamen hura -koalizio joniarra laga zezatela-birpentsatu egin zuten eta onartzeko erabakia hartu; orduan, beraz, joniarren aldeko indisziplina handia ikusita erabaki zuten samoarrek proposamen hura onartzea, baina, gainera, benetan ere ezinezko iruditzen zitzaielako erregeren botereaz gainditzea; bai baitzekiten ongi baino hobeto, aurrean ainguraturik zuten Darioren flota hura gaindituta ere, beste bost bider handiagoa etorriko zitzaielako aurka. Horrela ba, joniarrak beren egitekoa betetzeaz uko egiten ziotela ikusi bezain laster, aitzakia bat aurkitu zuten, beren tenpluak eta etxaldeak salbatzeko bidean jartzeaz pozik. Aipatzekoa da samoarrek proposamena onartu zioten Eazes hura Sylosonte Eazesenaren semea zela eta Samoko tiranoa izateagatik kendu ziotela boterea, gainerako tirano joniarrak bezala, Aristagoras Miletokoaren eraginez.

14. Orduan, bada, pheniziarrek borrokari hasiera emateko itsasoratu zirenean, joniarek ere beren untziak itsaso zabalera lerrokatu zituzten, haiei aurre egiteko. Eta elkarrengana hurbildu eta borrokari ekin zioten une hartatik aurrera, nik neuk ezin dut zehazki deskribatu joniaretatik zeintzuk portatu ziren koldarki eta zeintzuk adoretzu itsas borrokaldi hartan; zeren haiek guztiek salatzen baitute elkar. Baina, diotenez, orduantxe izan zen samoarrek belak jaso eta, Eazesekin hitzarturikoaren arabera, lerrotik irten eta Samorantz abiatu ziren unea, untzi guztiak, hamaika izan ezik; azken untzi hauetako kapitainek beren lekuetan iraun baitzuten borrokan, beraien almiranteei desobedituz; eta hain zuzen ere haien ekintzaren goratzarrez, samoar herriak beraien izenak eta gurasoenak estela batean grabatu zituen, eta hantxe dago estela hiriko enparantzan, haien adorearen oroimenez. Bitartean, lesboarrek, beren auzokoek ihesari eman ziotela ikusirik, samoarrek bezala egin zuten; eta joniar gehienek ere gauza bera, bata bestearen atzetik.

15. Itsas borrokaldi hartan beren lekuetan iraun zutenen artean, khiotarrek izan zuten zoririk latzena, beraiek burutu baitzituzten ekintza loriatsuenak, aldeztu aurretik prestatutako koldarkeriarik gabe. Lehen esan bezala, khiotarrek ehun untzi ekarri zituzten, eta hiritarrengandik hautaturiko berrogei itsasgudari untzi bakoitzean. Horrela, aliatu gehienak desertatzen ikustean, doilorkeria iritzi zioten beraiek ere gauza bera egiteari, eta, nahiz eta bakarrik utzi zituzten, borrokan jarraitu zuten aliatu gutxi batzuen laguntzaz, etsaien lerroetan zehar maniobratuz, harik eta, arerioaren untzi mordoa suntsitu ondoren, beren untzi gehienak galdu arte.

16. Orduan, geratzen zitzaizkien untzi urriekin, khiotarrek beren aberrirantz alde egin zuten handik, baina untziak kalte handiz matxuraturik zituztenez eta atzetik jazarriz zetozkielarik, Mykalean

gorde ziren. Hantxe utzi zituzten hondartzaratuta beren untxiak eta handik oinez abiatu ziren etxerantz kontinentean zehar. Baina hara non, bidean zehar Ephesiara iritsi zirenean (lurralde honetara gauez heldu ziren eta, gainera, emakumeak Thesmophoriak³⁶ ospatzen zeuden unean), ephesoarrak, khiotarrei gertaturikoaz oraindik ezer jakin gabe, talde armatu hark beren lurraldea inbaditu zuelakoan eta beraien emakumeen bila zetorren lapur talde bat zelakoan, emakumeak sorostera joan ziren tropelean eta khiotarrak garbitu zituzten.

17. Halakoxe patua izan zuten haiek, beraz; bitartean, Dionysio phozearra, joniarren borroka galdua zela ikusirik, etsaiei hiru untxi harrapatu eta itsasora egin zen, baina ez Phozearantz -bai baitzekien, ondo jakin ere, hiri hura esklabo hartuko zutela, gainerako Jonia bezala-, baizik eta, zituen untxiekin eta denborarik galdu gabe, Pheniziarantz joan zen; eta ur haietan zenbait gaulo³⁷ hondoratu eta harrapakin ugaria lortu ondoren, Siziliarantz abiatu zen; hantxe antolatu zuen pirateriarako basea, karthagotarren eta tyrreniarren lepotik, baina ez, ordea, heleniarren lepotik.

18. Itsas borrokaldian joniarrak bentzutu ondoren, persiarrek lehorrez eta itsasoz setiatu zuten Mileto, harresiak minatu zituzten, eta era guztietako teknika militarrek erabiliz, hiriaz goitik behera jabetu ziren, bertako bizilagunak esklabo hartuz eta orakuluak Miletori buruz iragarritakoa burutuz, horrela, Aristagorasen erreboltatik seigarren urtera.

19. Izan ere, behin, argostarrak beren hiriaren salbamenari buruz Delphosen orakuluari galdetzen zeudelarik, zentzu zabalagoko orakulu bat jaso zuten, zeren, iragarpenak argostarrak eurak aipatzen bazituen ere, bazen miletoarrei buruzko orakulu erantsi bat. Argostarrei zegokiena geroago aipatuko dut, nire narrazioaren parte horretara heltzen naizenean; baina orduan han bertan ez zeuden miletoarrei buruzko orakuluaren hitzak honako hauek izan ziren:

Eta egun hartan, Mileto, doilorkeria gaiztoen eragile hori, askorentzat sekulako harrapakin bihurtuko zara eta orrits, ileluze askoren oinak garbituko dituzte zueneko andereek eta gure Didymako santutegiaz jabetuko dira beste batzuk.

Bada, horiexek guztiok jazo zitzaizkien orduan miletoarrei: persiar ileluzeek gizonik gehienak erahil eta emakume eta umeak haien esklabo hartu zituzten, eta Didymako santutegia, hala tenplua nola orakuluaren egoitza, arpilatu egin zuten eta erre. Santutegi hartako altxorrez mintzatu natzaizue lehenago, nire historiaren beste zenbait pasartetan.

20. Jarraian, bizirik gelditu ziren miletoarrak Susara eraman zituzten. Dariok ez zien minik eman ordea, eta Erythre deritzon itsas bazterrean jarri zituen, Ampe hirian, zeinen inguruetan jotzen baitu itsasora Tigris ibaiak. Miletoko lurraldeari dagokionez, persiarrek hiria bera eta aldiriak kontserbatu zituzten, baita lautada ere, eta goierrien jabetza Pedasako kariarrei eman zieten.

21. Egiatan, miletoarrek persiarren eskutik jasan behar izan zituzten zoritxarren aurrean, sybaritek -beren hiria galdu ondoren, Laon eta Szidron bizi zirenek- ez zieten erakutsi zor zieten eskerrona; izan ere, Sybaris krotondarren eskuetan erori zenean, adineko miletoar guztiek moztu zuten ilea larru-arras eta dolu zorrotza ezarri zieten beren buruei (izatez, bi hiri horiexek izan dira, guk dakigunez, elkarren artean adiskidetasun lokarri estuenak izan dituztenak).

Oso bestelakoa izan zen, aldiz, athenastarren portaera. Hauek, izan ere, era askotara adierazi zuten Mileto hartua izateaz sentitzen zuten atsekabe handia, eta hona hemen horren adibide bat: Phrinikok idatzitako "Miletoren erorketa" drama taularatu zutenean, negar bizian hasi zen teatro osoa, eta poetari mila drakmako isuna ezarri zioten zorigaitz nazional bat horrela gogoraraztearren, eta, gainera, guztiz debekatu zuten antzezlan hura aurrerantzean antzeztea³⁸.

22. Mileto, beraz, miletoarrik gabe geratu zen. Artean, samoar aberatsei ez zitzairen batere gustatu beren jeneralek mediarrekin egindako tratua; beraz, itsas borrokaldia amaitu bezain laster, egoera aztertu zuten eta, Eazes tiranoa uhartera iritsi baino lehen, itsasoratu eta kolonia bat eraikitza joatea erabaki zuten, nahiago baitzuten hori, bertan geratu eta mediarren eta Eazesen uztarpean bizitzea baino. Zeren egun haietan, hain zuzen, Siziliako Zankle³⁹ hirian bizi ziren bizilagunak Joniara mezulariak bidaltzen ari baitziren, joniarrei Kaleaktera⁴⁰ etortzeko gonbidatuz, bertan hiri joniar bat eraiki nahi zutelako (Kaleakte deritzon leku hau sikulotarren lurraldean aurkitzen da, Tyrrenia aldera dagoen Siziliako kostan). Hortaz, samoarrak izan ziren zankletarren gonbitari erantzun eta harako bidean jarri ziren joniar bakarrak; eta hauekin batera joan ziren, baita, ihes egitea lortu zuten miletoarrak.

23. Eta hona hemen zer gertatu zen espedizio hartan: Siziliara zihoazela, samoarrak lokro epizephyriarren lurraldean aurkitzen ziren, zankletarrak, Szytha zeritzon erregea buru zutela, sikulotarren hiri bat setiatzen ari ziren bitartean, hiri hori konkistatzeko asmoz. Horren berri izatean, Anaxilao, Rhegioko tiranoa, zankletarrekin zenbait gorabehera zituena, samoarrekin harremanetan jarri eta hauek konbentzitzen saiatu zen, bidaiaren xedetzat zuten Kaleakte utzi eta une hartan defendatzaile gabe aurkitzen zen Zankle eskura zezaten. Eta samoarrek haren esanari kasu egin eta Zanklez jabetu ziren; orduan zankletarrak, hiria hartu zutelak jakitean, hura sorostera etorri ziren eta Hipokrates, Gelako tiranoaren laguntza eskatu zuten, azken hau aliatu baitzuten. Alabaina, Hipokrates sorostera etorri zitzaizenean bere tropekin, morroi honek, Zankleko Szytha erregek bere hiria bertan beheara utzi zuela alegatuz, hura eta haren anaia Pythogenes katean jarri eta Inyx hirira bidali zituen; bestalde,

samoarrekin solasaldi batzuen ondoren, hauen eskuetan jarri zituen azkenean, doilorki, gainerako zankletarrak. Zerbitzu horien truke, samoarrek Hipokrates harekin zera hitzartu zuten, hirian ziren ondasun eta esklabo guztien erdiaren jabe izango zela eta soroetan zegoen guztia jasoko zuela. Morroi horrek, gainera, esklabotzat hartu zituen zankletar gehienak katean jarri eta Zankleko hirurehun hiritar entzutetsuenak samoarren eskuetan utzi zituen, hil zitzaten; hala ere, samoarrek hori ez egitea erabaki zuten.

24. Szytha, Zankleko monarkak Inyxetik Himerara ihes egitea lortu zuen eta azken hiri honetatik Asiara abiatu zen eta Dario erregerenera igo; Dariok, hain zuzen, Heladetik inoiz berarenera jo zuten guztietatik zintzoena iritzi zion; izan ere, erregeren baimenaz Siziliara joan eta uharte horretatik berriro itzuli zitzaion gortera, eta hantxe hil zen, Persian, urte asko eta ondasun ugariarekin.

Bitartean, mediarrengandik ihes egitea lortu zuten samoar haiek Zanklez jabetu ziren, sekulako hiri polita berau, batere nekerik gabe.

25. Miletoren kontrako itsas borrokaldiaren ondoren, pheniziarrek, persiarren aginduz, Eazes Sylosontorena Samora aberriratu zuten, eskertzeko zioten guztiarengatik eta buruturiko zerbitzu handiengatik; eta itsas borrokaldi hartan euren untziekin desertatzearen, Darioi jarki zitzaizkion guztietatik samoarrak izan ziren beren hiria eta santutegiak erre ez zizkieten bakarrak. Mileto hartu bezain laster, persiarrak Kariaz ere jabetu ziren, hiri batzuk borondatez meneratu eta beste batzuk indarrez hartu behar izan zituztelarik.

26. Halaxe gertatu zen, bada, hori guztia. Artean, Miletoko Histieo Byzanzio inguruan zebilen, Pontotik zetozen merkataluntzi joniarrak harrapatzen, Mileton gertatuaren berri izan

zuenean. Orduan, Helesponton zituen arazoak Abydoko Bisaltes Apolophanesenaren esku utzi eta Khiorantz itsasoratu zen lesboarrekin batera, baina itsas goarnizio kiotarrak ez zuenez han onartzen, "Arekak" deritzoten Khioko lurraldeko badian egin zien eraso. Goarnizioko asko hil zituen han, eta, lesboarren laguntzaz, gainerako khiotarrak ere garaitu zituen Histieok (hain galera handiak izan baitzituzten haiek itsas borrokaldiaren ondorioz), eta Polikhna, Khioko herria, hautatu zuen operazio basetzat.

27. Eta agian ondoriozta daiteke, hiri edo nazio baten gainera zorigaitz handiak gertatzear direnean, zantzuak izaten dituztela alde zaureratik; zeren, ezbehar haiek jasan aurretik, khiotarrek zantzu nabarmenak izan baitzituzten. Izan ere, behin, ehun mutil gaztez osaturiko koru bat Delphosera bidali zutelarik, bi besterik ez zitzaizkien itzuli, gainerako hamazortziak ustekabeko izurrite batek jota galdu baitziren; are gehiago, sasoi hartan bertan -itsas borrokaldia baino lehenxeago-, uharteko hiriburuan letrak ikasten ziharduten ume batzuei teilatua gainera erori eta, han ziren ehun eta hogeitik, bakar bat besterik ez zen geratu bizirik. Bada, horiexek zantzuok aurreratu zizkien dibinitateak, eta handik gutxira gertatu zen, hain zuzen, hiria belaunikarazi zuen itsas borrokaldia; eta itsas borrokaldiaren ostean Histieo etorri zitzairen lesboarrekin, eta, khiotarrak halako egoera larrian aurkituz, erraz asko lortu zuen, bai, uhartetarrak menperatzea.

28. Hemendik Thasoren aurka jo zuen Histieok, joniar eta eoliar gudaroste trinko batekin. Baina, Thaso setiatzen ziharduela, pheniziarrek gainerako Joniari eraso egiteko Miletotik itsasoratzen ari zirela jakin zuen. Horren berri izatean, Thaso arpilatu gabe utzi eta Lesbora abiatu zen arrapaladan bere gudaroste guztiarekin. Baina hortik kontinentera iragan zen,

gudarostea goseak baitzegoen, Atarneoko garia eta baita, bide batez, Kaiko lautadakoa ere biltzera. Baina, hain suertez ere, inguru horietan Harpago persiarra zebilen armada hazi batekin, eta, Histieo lehorreratu berriari eraso eginez, Histieo bera gatibu hartu eta gudarostearen zatirik handiena suntsitu egin zuen.

29. Hona hemen nola hartu zuten gatibu Histieo. Heleniarrek persiarrekin Atarneo eskualdeko Malenen izan zuten borrokaldi hartan, soldaduek luzaroan borrokatu zuten oinka, baina azkenean zaldieria sartu zitzaien erasora heleniarrei. Beraz, zalditeria izan zen azken batean garaipena lortu zuena, eta heleniarrak ihesean zihoazela, Histieok, egozgarri zitzaion traizioagatik erregek heriotza ezarriko ez zion esperantzan, honako haxe asmatu zuen bizia salbatu nahian: ihesean zihoala soldadu persiar batek atzeman zuenean eta geziz zeharkatzera zihoakionean, persieraz hots egin zion Miletoko Histieo zela adieraziz.

30. Bada, gatibu hartu ostean Dario erregeren aurrera zainpean eraman balute, ziur naiz Histieok ez zukeela ezelako kalterik izango, baizik eta erregek delitua barkatu egingo ziokeela; baina izatez -hain zuzen ere horixe eragoztearren eta, barkatua izan ondoren, erregerenean pribilegio egoerara bihur ez zedin-, Histieo Sardesera zainpean heldu zenean, Artaphrenes Sardesko gobernadoreak eta Harpago atzemaileak haren gorputza orduantxe bertan paldoan jar zezatela agindu zuten, eta burua baltsamatu eta Dario erregeren gortera eraman zezatela, Susara. Dariok horren berri izan zuenean, gogor egin zien exekuzio horren eragileei, beraren aurrera bizirik eraman ez zutelako; eta Histieoren burua garbitu eta behar bezala beztitu ondoren, bai berari baita Persiari zerbitzu handiak egin zizkien gizon bati dagokion modura lurra eman ziezaiotela agindu zuen.

31. Horixe gertatu zen, beraz, Histieorekin. Hurrengo urtean, Mileto inguruan negua igaro zuen itsas armada persiarra

berriro itsasoratu eta erraz eskuratu zituen kontinente ondoko uharteak, Khio, Lesbo eta Tenedo. Eta uharte batez jabetzen zirenean, barbaroek sarekada bat egiten zuten bertako bizilagunak harrapatzeko. Hara zelan egiten dituzten sarekadok: soldaduek, elkarri eskutik oratuz, kordoi bat osatzen dute ipar kostaldetik hego kostaldera eta, jarraian, uharte osoa korritzen dute bertako bizilagunak ehizatuz.

Halaber, kontinenteko hiri joaniarrez ere erraztasun beraz jabetu ziren, baina bizilagunak harrapatzeko sarekadarik egin gabe; ezinezkoa zelako, izan ere, hori egitea han.

32. Orduan jeneral persiarrek ez zituzten bete gabe utzi, ez, joniarrei beraien aurrean kanpaturik zeuden hartan egindako mehatxuak; hiriez jabetu bezain laster, mutil gazte lerdenenak hautatu eta irendu egiten zituzten, gizontasuna galdu eta eunuko bihurtaraziz; bestalde, neskasorik ederrenak erregerenera deportatzen zituzten; gauza horiexek egin zituzten, eta hiriei ere su eman zieten, gainera, baita haien tenpluei ere.

Halaxe bihurtu ziren joniarrak esklabo hirugarren aldiz; lehen aldiz lydiarren azpian eta bi aldiz jarraian, ordukoa barne, persiarrenean.

33. Bitartean, untziteriak Jonia utzi eta itsasartera sartzean ezkerretara diren enparau guztiak menperatu zituen, eskuinetara zeudenak persiarrek beraiek menpean hartuak baitzituzten jada lehorreko operazio baten bidez. Hona hemen Helespontoko europar itsasaldean kokaturik dauden herrialdeak: Khersoneso, non hiri ugari dagoen, Perintho, Thraziako hiri gotortuak, Selymbria eta Byzanzio. Hortaz, byzanzarrak eta, aurreko itsasaldean, khalzedondarrak ez ziren geratu pheniziar untziteriaren

erasoaren zain, baizik beren aberria utzi eta Ponto Euxinon barna abiatu ziren, eta Masambria hirian gelditu zirelarik. Pheniziarrek, beren aldetik, goian aipaturiko herrialdeak erre eta gero, Prokoneso eta Artazeren kontra jo zuten, eta hirioi ere su eman ondoren, Khersonesorantz abiatu ziren, han lehenagoko lehorreratzean arpilatu gabe utzi zituzten hiri guztiak suntsitzera. Zyzikoren aurka, ordea, ez zuten erasorik egin; izan ere, hango bizilagunak pheniziarrek bertaratu aurretik jarri baitziren erregeren menpe, Megabazoren seme eta Daszylionko gobernadore zen Ebaresekin egindako akordio baten bidez.

34. Horrela, Kardia salbu, gainerako hiri guztiak konkistatu zituzten pheniziarrek. Ordurarte, hiri horietako tirania Simonen seme eta Stesagoraren iloba zen Miltiadesek izan zuen, zeren arestian Miltiadesek, Zypseloren semeak, honako era honetara eskuratu baitzuen kargu hori. Khersoneso honetan jatorri thraziarreko dolonkoak bizi ziren. Hauek, bada, apsinthioek gerran estu hartuta, gerra horretaz orakuluari galdetzera bidali zituzten beren erregeak. Eta zera erantzun zien Pythiak, santutegitik irteterakoan abegi egiten zien lehenengoa eraman zezatela beraien herriko buruzagi izan zedin. Dolonkoak, orduan, Bide Sakratuan barna abiatu ziren eta Phozide eta Beozia zeharkatu zituzten; baina inork ere ez zituenetz etxean hartzen, Athenaserantz desbideratu ziren.

35. Athenasen garai hartan Pisistratok zuen botere absolutua, baina Miltiades Zypselorenak ere eragin handia zuen; hau, izan ere, koadrigarako zaldiak hazten zituen familia batekoa zen, Eako eta Eginarengandiko jatorrikoa, nahiz eta arbaso hurbilenak Athenasen jaioak zituen (Phileo Aiasena izan zen athenastar hiritartasuna lortu zuen familia horretako lehena). Miltiades hura bere etxeko atarian jezarrita zegoen dolonkoak ikusi zituenean handik pasatzen, herrialdekoa ez zen arropariatz jantzirik eta lantzaz armaturik, eta, hurbiltzeko zeinua eginez, ostatua eskaini zien, abegi adeitsua eginez. Dolonkoek, gonbitea onartu eta haren abegiaz gozatu ondoren, zehatz-mehatz azaldu zioten orakuluaren erantzuna, eta jarrai ziezaiola eskatu zioten, arren, jainkoaren aginduari. Miltiadesek entzun bezain laster izan zuen atsegin proposamen hura, Pisistratoren erregimena gustuko ez izan eta handik alde egin nahi zuelako. Behingoa abiatu zen Delphosera, ea dolonkoek eskatzen ziotena egin behar ote zukeen galdetzera orakuluari.

36. Orduan, Pythiak berak ere horretara animatu zuelarik, Miltiades Zypselorena, lehenago bere koadrigarekin Joko Olympikoetan garaipena lorturikoa, espedizioan parte hartu gura zuten athenastar guztiak bildu eta dolonkoekin itsasoratu zen, lurraldearen jabetza hartuz; eta hara eraman zutenek beren tirano izendatu zuten.

Eta orduan egin zuen lehenengo gauza Khersonesoko istmoan murru bat eraikitzea izan zen, Kardiako hiritik Paktyakora, apsinthioek lurralde hura inbaditu eta bertako ondasunak arpila ez zitzaten. Istmoak hogeita hamasei estadio ditu doi-doi, eta istmo horretatik laurehun eta hogeit hamar estadioko luzera du Khersoneso osoak itsasora.

37. Hortaz, Khersonesoko zintzurrean⁴¹ murru bat eraiki eta horrela apsinthioak geldiarazi ondoren, Miltiadesek gerra deklaratu zien lurralde hartako lehenak lampsakoarrak izan ziren, baina hauek segada bat jarri zioten eta gatibu hartu. Baina Melziadesek ordurako Kreso lydiarraren adiskidetasuna bereganaturik zuen, eta honek, gertatutakoaren berri izatean, lampsakoarrei mezulariak bidali zizkien Miltiades aske uzteko ohartaraziz;

"osterantzean -mehatxatu zituen- pinondo bat bezala erauziko zaituztet".

Hortaz gogoetan zebiltzala, lampsakoarrek ez zuten asmatzen Kresok zuzendu zien mehatxuaren esangura, hots, pinondo bat bezala erauziko zituela, harik eta aitona zahar batek benetako esangura ulertu eta zera adierazi zien arte, zuhaitz guztietatik pinondoa dela, moztu ondoren, aldaskak sortzen ez zaizkion eta bertan behara galtzen den zuhaitz bakarra. Beraz, Kresoren beldur, lampsakoarrek Miltiades aske laga zuten, handik alde egiten utziz.

38. Halaxe salbatu zen Miltiades, bada, Krasori esker; baina handik gutxira oinordekorik utzi gabe hil zen eta, beraz, ama bereko anaia zuen Zimonen semea, Stesagorasi, utzi zizkion kargua eta ondasunak. Haren heriotzaren ostean, hiri baten fundatzailearen oroimenez egin ohi denez, khersonesoarrek sakrifizioak eskaintzen dizkiote, zaldi lehiaketak eta lehiaketa atletikoak ere antolatzen direlarik, lampsakoarrei parte hartzen utzi gabe.

Baina hara non, lampsakoar horien kontra gerran zebilela, Stesagoras bera ere hil egin zen, eta umerik utzi gabe hil zen, prytaneoan zegoela morroi batek (berak zioenez desertorea, baina izatez etsaia zenak, eta nahikoa beroa gainera) buruan aizkorakada bat eman zionean.

39. Stesagoras bera ere azaldutako moduan hil zenean, Pisistratidek Zimonen seme eta Stesagoras zenduaren anaia zen Miltiades bidali zuten Khersonesora triere batean, lurraldearen kargu egitera; izan ere, Pisistratidek begirune handia baitzioten Miltiades horri Athenasen, euren aita Zimonen heriotzarekin zerikusirik izan ez balute bezala (beste kapitulu batean azalduko ditut heriotza horren zertzeladak). Khersonesora iristerakoan, Miltiades bere egoitzaren barruan gelditu zen, bere anaia Stesagorasegatik dolu egin nahi zuela-eta. Hori jakitean, Khersoneso osoko agintariak beren hiriak utzi eta elkarrekin bildu ziren doluminak ematera komitean joateko harengana, baina hark giltzaperatu eragin zituen. Bestalde, bostehun mertzenarioren zerbitzuak erosi zituen, Khersonesoren kontrola eskuratuz horrela, eta Hegesipyle, Oloro errege thraziarraren alabarekin ezkondu zen, gainera⁴².

40. Bada, Miltiades Simonena Khersonesora heldu berri zela, arrisku berriez mahatxaturik aurkitu zen, lehen gertatu zitzaizkionak baino are larriagoez, gainera; zeren, azaltzera noan gertakariak baino hiru urte lehenago, szythiarrengandik ihes egin behar izan baitzuen. Izan ere, szythiar nomadak, Dario erregek egin zien probokazioari erantzunez, elkarrengana bildu eta Khersonesoko parte honetara iritsi ziren. Haien erasoari itxaron gabe, Miltiadesek handik ihes egin zuen, szythiarrak itzuli ondoren dolonkoek berriro ekarri zuten arte. Hori guztia, esan bezala, orain Miltiadesek aurrean zituen gertakariak baino hiru urte lehenago gertatu zen.

41. Orain, bada, pheniziarrek Tenedon aurkitzen zirela jakitean, Miltiadesek, eskura zituen ondasunez bost triere bete ondoren, Athenaserantz jo zuen itsasoz. Kardiatik abiatu zenez, Melas golkotik iragan zen eta, Khersoneso zeharkatzean, pheniziarrek jauzi zitzaizkien abordajera. Orduan, Miltiadesek berak Imbron gordetzea lortu zuen bost untzietarik laurekin, baina pheniziarrek bosgarrena jazarri eta harrapatu zuten.

Untzi honen buru, hain zuzen ere, Metiokho izatea gertatu zen, Miltiadesen semeetarik nagusia, Olororen alabarengandik barik beste emakume batengandik izan zuena. Pheniziarrek untziarekin batera harrapatu zuten hura ere eta, Miltiadesen seme zela jakin zutenean, erregeren aurrera eraman zuten, horregatik sari handia irabaziko zutelakoan, zeren, jakina denez, joniarren batzarraldi hartan szythiarren proposamenari jarraitzearen aldeko azaldu baitzen irmo, txalupa-zubia suntsitu eta beraien untziekin aberrira itzul zitezela eskatu zietenean. Hala ere Dariok, pheniziarrek Metiokho Miltiadesena ekarri ziotenean, ez zion hari ezer txarrik egin,

baizik eta ondasunez bete; izan ere, etxe bat eta ondarea eman zizkion, hala nola persiar arrazako emazte bat, zeinengandik eskubide osoko persiartzat hartuak izan ziren seme-alabak izan zituen. Miltiades, bere aldetik, Imbrotik Athenasera ailegatu zen.

42. Urte horretan zehar⁴³ persiarrek ez zuten burutu operazio berririk joniarren aurkako ordurarteko erasoez gain, aitzitik, joniarrei mesede handia egin zieten zenbait neurri hartu zituzten urte hartan: Susako gobernadore Artaphrenesek hirietako ordezkariak deitu zien eta beraien artean itunak eginarazi, elkarren arteko gorabeherak legearen arabera konpon zituzten, arpilaketa eta lapurreta bazterrera utziz. Itun horietara behartu ondoren, haien lurak parasangatan neurrarazi zituen -halaxe deitzen diote persiarrek hogeita hamar estadiori dagokionari⁴⁴- eta sistema horren arabera burutu ondoren neurketa, hiri bakoitzari zegozkion zergak finkatu zituen, zergok halaxe iraun dutelarik etengabe orduz geroztik, nire egunetaraino ere, Artaphrenesek finkatu zituen modu berean; zerga-zamaren zenbatekoa ordurarte ordaintzen zutena bera izan zen. Eta neurriok haien arteko bakerako izan ziren.

43. Baina udaberria heltzean, Mardonio, Gobryasen semea -gainerako jeneralak erregeren aginduz errelebatuak izan baitziren-, lehorreko armada oso handi batekin eta untziteria ugariarekin jaitsi zen itsasaldera (Mardonio hori gaztea zen eta Darioren alaba batekin, Artozostrarekin, ezkondu berria).

Armada horren buruan Mardonio Ziliziarra heldu zenean, berbera ere untziratu eta itsasora egin zen gainerako untziteriarekin, lehorreko tropak beste ofizial batzuen agindupean zihoazen bitartean Helespontorantz. Asiako kostaldea itzulinguratuz, Mardonio Joniara

aurkeztu zen eta han -Zazpi Persiarren batzar hartan Otanes jenerala Persian erregimen demokratikoa ezartzearen alde azaldu zela sinestu nahi ez duten heleniarrak erabat harrituko dituen zerbait esango dut orain- tirano joanar guztiak kendu zituen kargutik eta demokraziak jarri zituen hirietan Mardonio hark. Hori egin ondoren, joan ahalean abiatu zen Helespontorantz. Han gerrauntzi-kopuru handi bat eta lehorreko armada ugaria bildu ondoren, persiarrek Helesponto zeharkatu zuten beren untzietan eta Europan barna abiatu ziren, Eretria eta Athenas jomugatzat hartuz.

44. Izatez, hiri horiek espedizio haren aitzakia besterik ez ziren; baina egiatan ahalik eta hiri heleniar gehien konkistatzea zutenez xedetzat, lehenbizi thasoarrak menperatu zituzten flotaren bidez -haiek eskurik ere ez zietelarik jarki-, lehorreko indarren bidez Mazedonia eransten zuten bitartean esklaboturik zituzten herrien zerrendara, zeren Mazedoniaz hemendiko⁴⁵ herri guztiak baitzituzten menpean hartuak ordurako.

Jarraian, Thasotik kontinentera⁴⁶ joz eta honen kostaldea inguratuz, aurrera egin zuten Akanthorantz, eta gero, Akanthotik abiatuz, Athos gainditu nahi izan zuten itsasoz. Baina lurmuturra inguratzen ari zirela, iparraldeko zirimola bortitz eta gaindiezin batek harrapatu eta sekulako kalteak eragin zizkien, untziteria gehiena Athosen kontra jaurtiz. Diotenez, hirurehun untzi joan ziren hondora eta hogeita mila gizon baino gehiago galdu. Izan ere, Athosko kostalde horiek itsas piztiez beterik daudenez, batzuk piztia horien biktima galdu ziren eta beste batzuk arroken kontra triskaturik; eta igeri ez zekitenak ez jakite horrexek galdu zituen, eta beste batzuk, azkenez, hotzak.

45. Horixe izan zen, beraz, flota haren azkena; bitartean, Mardonio eta lehorreko armada Mazedonian kanpaturik aurkitzen zenean, Thraziako brygoek egin zieten eraso, gaeuz, soldadu asko hil eta Mardonio bera ere zauritu egin zutelarik. Herri

horrek ere zuen lortu, alabaina, persiarren uztaipetik ihes egiterik; zeren Mardoniok ez baitzuen lurralde haietatik alde egin, haiek menpean hartu arte. Hala ere, haiek menperatu eta gero, gudarosteen erretiratzea agindu zuen, brygoek armadari egin zioten kalte larria eta Athosen flotari gertaturiko hondamen negargarria ikusirik. Espedizio hau, bada, zorigabeko kanpaina baten ostean, Asiara itzuli zen.

46. Gertaera horien ondorengo urtean⁴⁷, Dariok mezulari batzuk bidali zizkien lehenengo eta behin thasoarrei, matxinatzeko asmotan zebiltzan salaketa jaso ondoren auzokoengandik, harresia eraitsi eta untziak Abderara eraman zitzatela aginduz. Izan ere, thasoarrek, Histieo Miletokoak ezarri zien setioaren ondorioz eta zituzten diru-sarrera handiez baliatuz, irabaziok gerrauntziak egiteko eta harresi sendoagoez inguratzeko erabiltzen ziharduten. Diru-sarrera horiei dagokienez, kontinentetik eta meatzetatik zetozkien; konkretuki, Skaptesyaleko urre-meatzetatik lauorgeri talentu ateratzen zituzten normalean, eta Thasokoetatik beretatik ere, hori baino gutxiago izan arren, nahikoa ateratzen zuten thasoarrek -nekazal produktuengatik zergarik ordaindu beharrik ez zuten thasoar haiek-, kontinentetik eta meatzetatik urtero berrehun talentu (baita hirurehun ere, errendimendua hoberena zenean) lortzeraino.

47. Nik neuk ikusi ditut meategiok, eta horien artean bereziki bitxiak ziren Tasorekin uhartea kolonizatzen etorri ziren pheniziarrek aurkitu zituztenak (uharteak Taso pheniziar haren oroimenez dauka, hain zuzen ere, gaur egungo izena). Pheniziarren garaiko meategi hori Enyra eta Zenyra deritzen bi lekuon artean datza, Thason, Samothraziaren aurrez aurre, eta

prospekzioengatik janda geratu den mendi handi bat da. Horixe da meatzeoi buruz dagoena.

48. Thasoarrei dagokienez, erregeren aginduaren aurrean, harresiak eraitsi eta beraien untzi guztiak Abderara eraman behar izan zituzten.

Horren ondoren, Dariok heleniarren asmoak haztatu nahi izan zituen, ea beraren aurka borrokatzeko ala menpean jartzeko prest ote ziren. Beraz, zenbait heraldo bidali zituen Heladeko lurralde bakoitzera, erregeren izenean lurra eta ura galda zezaten. Heraldorioriek, bada, Heladera bidali zituen, eta beste batzuk, aldi berean, zerga ordaintzen zioten itsasaldeko hirietara bidali zituen, gerrauntziak eta zaldi-garraiorako gabarrak egiteko aginduarekin.

49. Hiriok, horrela, zeregin horiei ekin zieten; eta beste heraldoak Heladera iristerakoan ere, kontinenteko herri asko makurtu zitzaizkion persiarraren eskabideari; eta beste horrenbeste egin zuten agindu horrekin zetozen heraldoen bisita izan zuten uhartetar guztiek ere. Hortaz, Dariori lurra eta ura eman zioten uhartetarren artean eginarrak zeuden konkretuki. Azken hauen jarrera horren aurrean, athenastarrek behingoan erreakzionatu zuten, eginarrek beraiei zieten gorrotoagatik eta Persiarraren laguntzaz Athenasi eraso egiteagatik eman zutelakoan baiezkoa; eta, aitzakia horretaz baliatzeaz pozik, behin eta berriro bidaiatu zuten Spartara, beraien jarrerarekin Heladeri traizioa egiteaz salatzeraz eginarrak.

50. Salaketa horren aurrean, garai hartan Spartako errege zen Kleomenes, Anaxandridesen semea, Eginara abiatu zen, auzi hartan zerikusi gehien zuten eginarrak atzematera. Baina horretara zihoanean, batzuek aurre egin zioten, beren artean Krio Polykritorenak, handik eginar bat bera ere ez zuela besterik gabe eramango esanez; "zeren zuk -esan zion-,

ez baitaukazu egiten duzuna egiteko Estatu spartarraren oniritzirik, baizik eta athenastarrek erosita etorri zara hona, osterantzean beste monarka ere etorriko baitzen errudunak atzematera". Izatez, Demaratoren gutun batek irakatsirik esan zituen berbok Kriok. Eginatik horrela alde egitera beharturik, ea izena zelan zuen galdetu zion Kleomenesek Kriori; eta honek bere izena garbiro adierazi ziolarik, hauxe esan zion Kleomenesek: "Entzun, bada, arito⁴⁸, brontzezta itzak behingoan hire adarrok, ondiko larria datorkik-eta".

51. Bitartean, Spartan geratu zen Demarato, Aristonen semea, Kleomenesek gaizki esaka zebilen garai hartan. Demarato hori ere Spartako errege zen, izan, baina garrantzi gutxiagoko etxekoa, eta ez beste ezergatik garrantzi gutxiagokoa (zeren etxe biak baitzetozen arbaso berberagandik), baizik eta Eurysthenesen etxea ohore gehiagokoa zelako primutasun eskubidez.

52. Izan ere, lazedemondarrek -dioten horretan ezein poetarekin bat ez badatoz ere⁴⁹-, beraiek egun bizi diren lurralde horretara Aristodemok berak ekarri zituela diote, hura errege zela (Aristodemo hori Aristomakhoren seme, Kleodeoren iloba eta Hyloren birloba zen), eta ez Aristodemoren semeek. Handik ez horren denbora luzera, Argea zeritzon Aristodemoren emaztea erditu zen (emakume hau, diotenez, Tisamenoren seme, Thersandroren iloba eta Polynizesen birloba zen Autesionen alaba omen zen, hain zuzen); emakume hori, bada, bikiez erditu zen eta Aristodemok ere iraun zuen bizirik umeak ikusi arte, baina handik gutxira gaixotasun batek jota hil zen. Orduan, garai hartako lazedemondarrek, beren legearen arabera, seme nagusia izendatzea erabaki zuten errege. Ez zekiten, ordea, bietariko zein hautatu, bien aurpegikera eta gorpuzkera ere hain berdinak izanik; eta ebatzi ezin horretan -edo agian ebazten hasi aurretik-, amari galdetu zioten. Baina emakumeak esan zien berak ere ezin zituela bereizi. Amak hori esan bazuen, ez zen egiaz bereizten ez zituelako, ondo baino hobeto bereizten baitzituen, baizik eta, ahal zela, biak errege izatea nahi zuelako.

Lazedemondarrak zer erabaki ez zekitela aurkitzen zirelarik, mezulariak bidali omen zituzten Delphosera, arazo hori nola konpon zezaketen galdetzera orakuluari. Eta Pythiak agindu omen zien ume biak har zitzatela erregetzat, baina lehen semea ohoratuz lehentasunez. Horixe izan zen azken batean Pythiak erantzun ziena, baina haiek, anaia nagusia bereizte-kontuan lehen bezala zeudela, Panites zeritzon Meseniar batek aholkatu zituen; eta hauxe izan zen Panites hark lazedemondarrei eman zien aholkua, hots, zain zezatela ama, ea bietariko zein garbitzen eta elikatzen zuen lehenengo; eta beti ordena berean egiten bazuen, hortxe izango zutela jakin nahi eta gura zutenaren erantzuna; aldiz, ama bera ere zalantzan bazebilen eta ezein ordena jakini jarraitu gabe, orduan ziurtzat jo zezaketela hark ere ez zekiela gainerakoak baino gehiago, eta beste sistemaren batera jo beharko zutela.

Spartarrarrak, orduan, meseniararren aholkuei jarraituz, Aristodemoren umeen ama zaintzen hasi ziren berehalaxe eta zera ikusi zuten (amak ez baitzekien zer arrazoiz zaintzen zuten), jaten ematerakoan eta bainatzerakoan, primuarenganako lehentasuna erakusten zuela hutsik gabe. Beraz, amak lehentasuna ematen zion ume huraxe hartuz primutzat, herri-hautzaindegi batean hazi zuten; honi Eurysthenes izena ipini zioten, eta besteari Prokles. Diotenez, gizon egin zirenean, eta anaiak baziren ere, elkarrekiko aurkakotasun biziak izan zituzten bizitza osoan zehar, eta beren ondorengoek ere jarrera berarekin iraun dute.

53. Lazedemondarrak dira horrelako istorioak kontatzen dituzten heleniar bakarrak. Baina orain nik heleniarrek orokorrean kontatzen dutena idatziko dut hemen, hots, heleniarrek, jainkoarena alde batera utzita⁵⁰, Perseo Danaerenarenganaino iritsi arte egiten duten garai horretako errege doriarren azalpena zuzena dela, baita errege horiek heleniarrak ziren baiezpena ere, zeren garai hartako erregeok heleniartzat hartzen baitziren

jada. Eta Perseorenganaino esan dut, horren aurretikorik aipatu gabe, ezein aita hilkorren izenik ez zaiolako eransten Perseoren izenari, esaterako Heraklesi Amphitryonena eransten zaion moduan; horrexegatik azaldu naiz egokiro "Perseorenganaino" esan dudanean; bestalde, Danae, Akrisoren alabarengandik atzera jo eta belaunaldi bakoitzeko arbasoak hurrenez hurren zerrendatuz gero, doriarren buruzagiak Egyptoko seme direla ageriko litzateke.

54. Horra hor, beraz, kondaira heleniarraren arabera, Perseoren genealogia; ostera, kondaira persiarraren arabera, Perseo bera izan omen zen, jatorriz asyriarra izanik, heleniar herritartasuna bereganatu zuena, baina haren arbasoak ez omen ziren heleniarrak; eta Akrisioren arbasoei dagokienez, ez omen zuten -diote haiek- inolako senidetasunik Perseorekin, baizik eta, heleniarrak berek diotenez, egyptoarrak ziren.

55. Eta aski bedi esandakoaz gai horri buruz. Halaber, dagoeneko beste batzuk ere honetaz mintzatu direnez, alde batera uztera noa zein zioz eta zein egitandiei esker lortu zuten egyptoar jatorridun haiek doriarren errege izatea; besteek ukitu ez dutena da, ordea, nik hemen nabarmenduko dudana.

56. Zentzu honetan, ondoko pribilegio hauek eman dizkiete spartarrarrek beren erregeei: bi apaizgo, Zeus lazedemondarra eta Zeus zerutarrarena; honez gain, beraiek nahi duten edozein herriri gerra deklaratzeko ahalmena, hori egitea ezein spartarrarrek ezin eragotz diezaiekeelarik, sakrilegioan erori nahi ez badu. Gerrara doazenean, erregeok aurrerengo joango dira eta erretiratzen azkenak izango; eta kanpainan diren bitartean, eliteko ehun gudari izango dituzte goardia pertsonaltzat; halaber, espedizioan dihardutenean, nahi adina abelburu dituzte berentzat, eta sakrifikatzen diren biktima guztien larruak eta solomoak jaso ohi dituzte.

57. Horiexek dira gerra denborako pribilegioak, eta bake denborakoei dagokienez, ondoren azalduko ditudan hauek dira. Edozein sakrifizio publiko egiterakoan, erregeak dira oturuntzarako esertzen diren lehenak eta beraiei zerbitzatzen diete lehenbizi, gainerako mahaikideei baino bi bider gehiago zerbitzaten dietelarik, biei, plater guztietan; gainera, beraiei dagozkie libazioen hasikinak, hala nola sakrifikaturiko abereen larruak. Ilberri guztietan eta hilaren hasierako zazpigarrenetan, orbainik gabeko biktima bana ematen diete, herriaren kontura, Apoloren tenplurako, hala nola medimno⁵¹ bat garagar-irin eta lakoniar pinterdi bat ardo; eta ohorezko lekuak gordetzen zaizkie lehiaketa atletiko guztietan. Halaber, haien esku dago beraiek nahi dituzten hiritarrak proxenos⁵² kargurako izendatzea, eta monarka bakoitzak bi Pythio izenda ditzake (Pythioak Delphosko orakuluari aholku eskatzeko mandatariak dira, eta erregeekin batera jaten dute herriaren kontura).

Erregeak otordu ofizialetara⁵³ ez doazenean, bi kenike garagar-irin eta kotila⁵⁴ bat ardo eramaten zaie etxera, eta otordura doazenean, berriz, gauza bakoitzaren errazio bikoitza ematen zaie; eta begiramen bera hartu ohi dute edozein herritarrek oturuntzara gonbidatzen dituenean ere. Bestalde, erregeak eurak dira orakuluaren erantzunak gordetzeko ardura dutenak, Pythioak ere orakuluon jakitun direlarik.

Erregeek honako kasu hauetan soilik dute epaitzeko ahalmena: etxeko ondasun guztiak heredatzen dituen neskasoarekin ezkontzea zeini dagokion erabakitzean, baldin haren aitak aurretiaz emana ez badu ezkontitza, eta herri-bideei dagozkienetan. Halaber, baten batek haur bat adoptatu nahi badu, erregeen aurrean egin behar du. Bi erregeek hartzen dute parte hogeita zortzi kidez osaturik dagoen Zaharren Kontseiluaren⁵⁵ batzarraldietan; baina bertaratzen ez baldin badira, erregeon ahaide hurbilen diren zaharrek izan ohi dituzte errege pribilegioak, zeren bi boto baitituzte, gehi berauei dagokien hirugarren bat.

58. Horiexek dira Estatu spartarrak bere erregeei ematen dizkien pribilegioak, bizirik dauden bitartean; eta hiltzen direnean, berriz, honako beste ohore hauek. Zaldizko batzuek barreiatzen dute berria Lakonia osoan zehar, hirian emakume taldeak hara eta hona dabiltzan bitartean, pertz-hotsa ateratzen. Eta hori egiten den bitartean, derrigorrezko da etxe bakoitzeko bi pertsona libre, gizonezko bat eta emakumezko bat, doluz janzte; eta horrela egin ezean, zigor gogorrak jasan ditzakete.

Izatez, erregeak hiltzen zaizkienean, Asiako atzerritarren artean dagoen arau bera dute lazedemondarrek ere; zeren atzerritar horiek gehienok ohitura berbera baitute beren erregea hiltzerakoan. Izan ere, lazedemondarrei erregea hiltzen zaienean, ezinbestekoa da hiletara, spartarrarez gain, perieko-kopuru jakin bat etortzea Lazedemon osotik.

Horrela, leku jakin batean milaka batzuk lagun bildu ondoren, perieko, hilota⁵⁶ eta spartarrak eurak, gizonezko zein emakumezkoak, bekoki kolpeka hasten dira lehia biziz eta aieneka, errege hil berria zalantzarik gabe onena izan dela errepikatuz behin eta berriro. Bestalde, erregeren bat borroka zelaian hiltzen bada, haren gizairudi bat modelatzen dute eta ederki tapizaturiko hilkutxa batean hilobiratzen. Ehorzketa bukatu ondoren, hamar egunean zehar ez da zabaltzen merkaturik, ez hautes-batzarrik egiten, baizik eta egun horietan dolu egiten da.

59. Beste zertzelada honetan ere bat datoz spartarrak eta persiarrak: erregea hiltzean beste monarka batek hartzen duenean boterea, subirano berriak erregearekiko edo Estatuarekiko zorrak barkatzen dizkie spartar guztiei; horrela, persiarren artean, gainera, tronura iristen den erregeak aske uzten ditu hiri guztiak oraindik ordaindu gabe duten zergatik.

60. Era berean, lazedemondarrek ondoko berezitasun honetan datoz bat egyptoarrekin: heraldo, xirulajole eta sukaldariek beren gurasoengandik heredatzen dituzte lanbideok

Spartan, eta horrela xirularia beste xirulari baten semea da, sukaldaria beste sukaldari batena eta heraldoa beste heraldo baten semea (eta ez diote postu hori kenduko ahots ederra izateagatik lanbide horretan saia

daitezkeenak, baizik eta heraldoen semeek beren aiten lanbidea izanen dute). Horretan datza, bada, nioen berezitasuna.

61. Garai hartan, bada, Kleomenes Eginan zebilen bitartean Heladeko interes komunak defendatzen, Demaratok hartaz gaizki esaka ziharduen, ez eginarren ardura berezirik zeukalako, baizik eta hari zion gorrotoz eta inbidiaz. Kleomenesek, orduan, Eginatik itzultzerakoan, Demarato tronutik kentzea erabaki zuen, eta orain azalduko dudan gorabehera batean oinarritu zen haren kontra ekiteko.

Aristonek, Spartako errege zenak, birritan ezkonduarik egon arren, ez zeukan seme-alabarik. Eta, ez zuenez onartzen horren errua berarena izan zitekeela, hirugarren emakume batekin ezkondu zen; eta hara nola ezkondu zen. Aristonek lagun spartar bat zeukan, beste ezein herkide baino gehiago estimatzen zuena. Bada, lagun horrek emaztetzat zuen emakumea Spartako emakumerik ederrena zen askozaz, nahiz eta, orduan ederrena izan arren, umetan erabat itsutsia izan zen.

Horrela, neskatxa hura familia aberats bateko alaba zelarik baina politasun urrikoa, beraren inudeak, hain itsusia zela eta haren gurasoek ere beren alabaren itsustasun hori zoritxartxat zutela ikusiz, arrazoi horiek guztiok eraginda, beraz, honako plan hau asmatu zuen: egunero-egunero Helenaren santutegira eramaten zuen (santutegi hau Therapne izena duen lekuan aurkitzen da, Pheboren santutegiaren gainaldean), eta, hona ekartzen zuen bakoitzean, inudeak haurra imajinaren aurrean ipini eta itsustasun hartatik libra zezala, arren, eskatzen zion jainkosari. Eta horra hor, kontatzen dutenez, inudea santutegitik zetorren egun batean, emakume bat agertu zitzaion eta ea besoetan zer zeraman galdetu zion hitzetik hortzera, eta hark haurtxoa zeramala erantzun. "Erakutsidazu, bada", diotso emakumeak. "Ezin dut baina -erantzuten dio inudeak- beronen gurasoek inori ez erakusteko esan didate eta". Eta emakumeak berriro: "Halere, erakutsi egin behar didazu haurtxo hori". Orduan inudeak, ezezagun hark haurra ikusteko benetako gogoa zuela ikusiz,

erakutsi egin zion azkenean haurtxoa; emakumeak, orduan, neskatxoaren burua laztandu zuen eta Spartako emakumerik ederrena izango zela gehitu zuen. Egun hartatik aurrera, hain zuzen, haurra fisonomiaz aldatzen hasi omen zen; eta, ezkontzeko adinera heldu zenean, Ageto, Alzidesen semea, ezkondu zen berarekin.

62. Baina, itxura denez, gure Ariston garbi maitemindu zen emakume hartaz; eta honako trikimailu hau asmatu zuen: opari bat egingo ziola agindu zion bere lagunari, emakume haren gizonari, berak zituen ondasun guztietatik hark aukera zezana, baina Agetok ere trukean beste horrenbeste egitekotan. Eta Agetok, bere emazteaz beldurrik gabe -Aristonek ere emaztea zuela ikusiz-, baiezkoa eman zion; eta biek bietara zin eginez berretsi zuten tratua. Jarraian, Agetok ondasunetatik hautatu zion objektua -dena delakoa- eman zion Aristonek, eta beronek trukean bere oparia eskatzerakoan hari, zer eta bere lagunaren emaztea nahi zuela. Agetok ihardetsi zion beste edozein gauza onartzen ziola, horixe soilik izan ezik; hala ere, beraren zinak eta lagunaren amarru maltzurak behartuta, emaztea eramaten utzi behar izan zion Aristoni.

63. Beraz, halaxe ezkondu zen Ariston hirugarren emaztearekin, bigarrena zapuztu ondoren. Eta, zegokion baino lehenago -hau da, hamar hilabeteak⁵⁷ iragan baino lehen-, emakume hori aipatutako Demaratoz erditu zen. Ariston eforoekin batzarturik zegoen bere zerbitzari batek nobedadea jakinarazi zionean. Hark, orduan, bere ezkontzaren dataz ondo gogoratzen zenez, hilak atzamarrez kontatu eta "Ez da izango nirea!" hots egin zuen birao bat erantsiz. Eforoek hura entzun bai, baina une

hartan ez zioten eman garrantzirik. Umea haziz zihoan eta Aristoni damu zitzaion esandakoa, sein hura, Demarato, berea zela pentsatzen baitzuen egiaz. Demarato⁵⁸ izenari dagokionez, hona hemen zergatik jarri zion: hura jaio aurretik, Spartako herri osoak desiratu zuelako Aristonek, Spartan ordurarte izandako errege guztietarik ospe handiena omen zuenak, seme bat izan zezan. Arrazoi horrexegatik ezarri zioten seinari Demarato izena.

64. Handik denboragarrenera, Ariston zendu eta Demarato iritsi zen tronura. Baina patuak, dirudienez, jazoera hura jende guztiak jakin eta Demaratok tronua gal zezan nahi zuen, honako honegatik. Izan ere, Kleomenes biziki etsaitu zitzaion lehenago ere Demaratori, honek bere gudarostea Eleusistik erretiratu zuenean, baina etsaitasun hori areagotu egin zen oraingoan, Kleomenes Eginara joan zenean mediarren aldekoak zigortzera.

65. Beraz, mendeku hartzeko gogoz, Kleomenesek tratu bat egin zuen Demaratoren familia berekoa zen Leutykhides, Menaresen seme eta Agisen ilobarekin, hots, Demaratoren ordezkari tronuan jartzearen truke, eginarren aurkako neurrietan lagunduko ziola.

Izan ere, Leutykhides Demaratoren etsai amorratu bihurturik zegoen, honako zio honegatik: Leutykhidesek Perkalori emana zion ezkontitza -azken hau Khilonen alaba zen, eta Kilhon bera Demarmenoren semea-, baina Demaratok ezkontza hori ezinezko bihurtu zion, zeren emaztegaia bahitzean aurreratu egin baitzitzaion eta berak hartu emaztetzat. Horrexek eragin zuen Leutykhidesek Demaratori zion gorrotoa; eta hortik Leutykhidesek une hartan, Kleomenesek zirikatuta, Demarato ageriro salatzea, azken honek ez zuela legezkotasunik spartarren errege izateko argudiatuz, Aristonen semea ez zelako; eta salaketa hori egin ondoren, haren kontrako

kereila aurkeztu zuen, Aristonek harako hartan esan zuena oinarritzat hartuz, alegia, zerbitzariak semearen jaiotza iragartzean, hilabeteak zenbatu eta birao jaurtiz, ume hura ez zela berea baieztatu zuela. Baieztapen hori oinarritzat hartuz, bada, Demarato ez zela Aristonen seme, ezta ere, beraz, Spartako legezko errege demonstratu nahi zuen Leutykhidesez, eta aipaturiko une hartan batzarrean zeuden eta Aristonen berbak entzuteko aukera izan zuten eforoak ekarri zituen lekukotzat.

66. Azkenez, auzi hark eztabaida biziak sortzen zituenenez, spartarrarrek Delphosko orakulari galdetzea erabaki zuten ea Demarato Aristonen semea zen ala ez. Auzia Pythiarengana eramatea Kleomenesen proposamena izan zen, zeren honek, kasu horretarako hain zuzen, Delphosen eragin nabarmen-nabarmena zuen pertsona baten laguntza bilatu baitzuen, Kobon Aristophantorenaren laguntza, alegia, eta Kobonek Perialo profetisa limurtu zuen Kleomenesen gustuko erantzuna eman zezan. Hortaz, aholku-eskatzaileek galdera formulatu ziotenean, Pythiak irizpen hau eman zuen, hots, Demarato ez zela Aristonen semea. Hala ere, handik denboragarrenera iruzurra agerian geratu zen, eta Kobon Delphostik erbesteratu eta Perialo profetisari kargua kendu zioten.

67. Halaxe gertatu ziren jazoerok, beraz, Demarato tronutik kentzeari dagokionez, eta Demarato geroago Spartatik mediarrengana atzerriratu zen, ondoren azalduko dudan irainagatik. Tronutik kendu eta gero, hautatu zuten magistratura karguan ari zen Demarato. Horrela, Gymnopediak⁵⁹ burutzen ari zirela eta Demarato bertan ikusle, ordurako beronen ordeztan zuten Leutykhidesez, haren lepotik barre eta burla egitearren, zerbitzari bat bidali zion ea errege izan eta gero magistraturan zer moduz moldatzen zen galdetzeraz. Galdera hark minduta, Demaratok zera ihardetsi zion, berak kargu bion esperientzia zuela, eta Leutykhidesez ez ordea, baina dena den -erantsi zuen-, galdera hura zorigaitz itzelen iturri zatekeela, edota zorion

itzelen iturri, lazedemondarrentzat. Hori esan eta burua estalita⁶⁰ irten zen antzokitik etxerantz, eta han, dagozkion prestaketak aurki eginez, idi bat inmolaratu zion Zeusi, eta, sakrifizioa burutu ondoren, bere amari deitu zion.

68. Ama etorri zenean, Demaratok erraien puska bat eskuetan jarri zion eta erregu bat zuzendu honako hitz hauekin: "Ama, jainko guztien izenean eta Zeus Herzeorenean⁶¹ bereziki, zeinen aldarea hemen dakusazun, egia esaidazu, arren, esaidazu argi eta garbi nire aita nor den. Zeren eztabaida horietan zera esaten izan baitu Leutykhidesek, zure lehenengo gizonarengandik haurdun zeundela etorri zinela Aristonenera; baina badira istorio laidagarriagoa kontatzen dutenak ere, hots, morroi batekin izan zenituela harremanak -mandazainarekin halatan ere- eta haren seme naizela ni. Jainkoenarren erregutzen dizut, bada, egia esan diezadazula; zeren haiek diotenetariko zerbait egin baduzu, ez zara izan, alafede, horrelakorik egin duen lehen emakumea, baizik eta emakume asko eta askoren bidea jarraitu duzu; bestalde, Spartan zabal-zabal diotsute Aristonek ez zuela hazi emankorrik, ezen bestela haren lehenagoko emazteek ere izanen zituzketela haurrak".

69. Berba horiexek esan zituen Demaratok eta honako beste hauekin erantzun zion amak: "Seme, egia esateko arren eskatzen didazunez, egia osoa esanen dizut. Aristonek bere etxera eraman ninduenean, ezkondu eta hirugarren gauean, agerkari bat hurreratu zitzaidan, Aristonen erretratu bizia, eta nirekin oheratu ondoren, zeramatzatan koroak ipini zizkidan buru gainean. Handik gutxira, agerkaria desagertua zelarik, Ariston sartu zen. Hark, koroak buruan nituela ikusi ninduelarik, ea nork

eman zizkidan galdetu zidan. Berak eman zizkidala erantzun nion nik, baina hark ezetz. Nik, orduan, zin eginez berretsi nituen nire hitzak, eta ez zuela ondo jokatzeko esan nion hitzok ukatzean; zeren -esan nion- lehenxeago bera etorri eta nirekin oheratu baitzen eta koroak eman. Nire hitzak zin eginez berresten nituela ikusirik, gertatutakoa naturaz gaindiko zerbait zela ondorioztatu zuen. Eta, izatez, ez soilik frogatu zen koroa haiek patioan atalondoa dagoen eta "Astrabakoren tenpletea" deritzon tenpletekoak zirela, baizik eta, gainera, agerkari hura heroia berbera zela baieztatu zuten azkiek. Horrela ba, seme, orain badakizu jakin gura duzun guztia: alegia, edo heroi horren semea zara -eta orduan Astrabako heroia duzu aita-, edota Ariston duzu aita; zeren gau hartantxe sortu zintudan nik. Eta zure etsaiek eraso egiteko darabilten argudio nagusiari dagokionez (hots, Aristonek berak, zure jaiotzaren berri izatean, lekuko askoren aurrean bere seme ez zinela esatea, hamar hilabeteko epea oraindik ez zelako bete), zure aitak gaiari buruzko ezjakintasunez besterik ez zuen hura adierazi. Izan ere, emakumeak bederatzi hilabeterekin zein zazpirekin ere erditzen dira, ezen ez baitute guztiek hamar hilabeteko haurdunaldia izaten; eta nik, seme, zazpi hilabetegarrenean ekarri zintudan mundura. Gainera, Aristonek berak onartu zuen, handik gutxira, ahapaldi hura ezjakintasunez bota zuela. Ez iezaiozu federik eman, bada, zure jaiotzari buruzko beste ezein istoriori, haxe entzun duzuna baita egia zehatz eta mehatzena. Eta izango ahal dituzte seme-alabak mandazainekin Leutykhidesen beraren emazteak eta kalumnia hori zabaltzen dabilzatenen emazteek!".

70. Horixe esan zuen amak, beraz. Demarato, orduan, nahi zuenari buruzko informazioa jaso ondoren, osterarako hornidurak egin eta Eliderantz abiatu zen, orakuluari galdetzeraz Delphosera zihoan aitzakiaz. Lazedemondarrak, ordea, ihes egitera zihoala susmatuz, haren atzetik atera ziren; baina Demaratok aurea hartu zien nolabait eta Elidetik Zazynthora igaro zen; lazedemondarrek ere beste horrenbeste egin eta hura harrapatzea lortu zuten, eta jarraigoa kendu zioten. Hala ere, zazynthoarren hura estraditatzeari ezezkia eman ziotenez, handik Asiara igaro zen jarraian eta Dario erregerenera jo zuen babes eske, eta honek eskuzabaltasun osoz hartu zuen, lurak eta hiriak ere emanez. Halaxe iritsi zen Asiara, gorabehera guztion ondoren, Demarato, eta honek behin baino gehiagotan eman zien ospea lazedemondarrei bere egitandien eta aholku zuhurren bidez, eta behinola, gainera, Joko Olympikoetan garaipen bat eskaini zien bere koadrigarekin, ordurarte Spartan errege izandakoen artean horrelakorik lortu zuen bakarra.

71. Demarato tronutik egotzi ondoren, Leutykhides Menaresenak jarraitu zion erregetzan, eta seme bat izan zuen, Zeuxidemo, zenbait spartarrek Zynisko⁶² deitua. Zeuxidemo hori ez zen iritsi Spartako errege izatera; izan ere, Leutykhides bera baino lehenago hil zen hura, Arkidemo seme bakarra utziz. Zeuxidemo horrela galdu ondoren, Leutykhides bigarrenez ezkondu zen, Menioren arreba eta Diaktoridesen alaba zen Eurydamarekin, eta honengandik ez zuen izan semerik, baina bai alaba bat -Lampito-, eta honexekin ezkondu zen Arkidemo Zeuxidemorena, Leutykhidesek bere alabaren ezkontitza eman ondoren.

72. Baina Leutykhides bera ere ez zen zahartu Spartan, baizik eta ondoren azalduko dudana zigor mota hau jaso zuen Demaratorekiko portaeragatik. Lazedemongo gudarosteen buruan ziharduen Thesaliaren aurkako kanpaina batean, eta, herrialde hura guztia menpean hartzeko aukera zuenean, diru-kopuru handi baten truke erostera zetozeinei baiezkia eman zien; hala ere, eskua poltsan zuela harrapatu zuten kanpamenduan bertan, diruz beterik zegoen mahukaren gainean jezarrita zegoela, eta, epaimahai baten aurrera eraman zutelarik, honek Spartatik erbesteratu egin zuen eta haren etxea eraisteko agindu. Orduan Tegeara atzerriratu zen eta hiri horrexetan zendu.

73. Hori guztia, jakina, askoz geroago gertatu zen. Artean, lehengo harira itzuliz, Demaratoren aurkako konplota nahierara garatu zitzaionez, Kleomenesek Leutykhides laguntzat hartu

eta eginarren kontra itzuli zen denborarik galdu gabe, herra sakona baitzien beraingandik jasandako laidoagatik. Oraingoan bi erregeak zetozkienez erasora, eginarrek hobeki iritzi zioten ez jarkitzeari, eta haiek, ondarez eta leinuz gailenen ziren hamar eginar aukeratu zituzten (eta horien artean Krio Polykritorena eta Kasambo Aristokratesena, herrian itzal gehien zuten bi hiritarrak, hain zuzen) eta beraiekin eraman zituzten; eta eraman ere Atikara eraman zituzten eta eginarren etsairik amorratuena ziren athenastarren zainpean utzi.

74. Handik gutxira, Demaratoren kontrako Kleomenesen azpijokoak ageriko bihurtu zirenean, hau spartarraren beldur izan zen eta Thesaliara ihes egin zuen ezkutuan. Gero, handik Arkadiara jo zuen eta han errebolta bat antolatzen saiatu zen, arkadiarrak Spartaren aurka bilduz. Eta era askotara zin eragin zien, eragin ere, berak agindu ziezaien edozein lekutara jarraituko ziotela duda-mударik gabe, baina bereziki Nonakris hirira eraman nahi zituen arkadiar buruzagiok, Stygeko⁶³ ura alatu zin egitera; izan ere, hiri horretan omen da, arkadiarrek diotenez, Stygeko ura, honexetan datzana gutxi gorabehera: harkaitz bati darion ur-xirrista, horma zirkular batez inguraturik dagoen urmaelean ttantaka erortzen dena. Nonakris, iturburu hori aurkitzen den lekua, Pheneotik hurbil dagoen Arkadiako hiri bat da.

75. Lazedemondarrak bestalde, Kleomenesen azpijokoaren berri izatean, larritu egin ziren eta lehen zituen eskubide berekin itzultzen utzi zioten Spartara. Baina itzuli bezain laster, lehenago ere guztiz bere senean egon ez eta, orain eroaldiak eman zion; ezen aurrean zuen edozein spartarrari aurpegian makilaka hasten zitzaion. Burugabekeria horien aurrean, eta sena galdua zuela ikusirik, haren senitartekoez zepoan lotu zuten. Horrela zegoela katean,

zaintzaileetariko bat bakarrik geratu zen une batean, sastagaia eskatu zion; zaintzaileak ezetz hasiera batean, baina Kleomenes gero egingo zionaz mehatxuka hasi zitzaion, eta azkenean gizonak (hilota bat besterik ezpaitzen) eman egin zion sastagaia. Orduan Kleomenesek altzairua hartu eta bere burua zauritzeari ekin zion bernetatik gora: bere haragiak zerratan zirtzikatuz joan zen, bernetatik izterretara eta izterretatik aldaka eta mehaketara, harik eta sabelera iritsi eta hau zati-zati egin zuen arte. Heleniar gehienek diotenez, Demaratoren auzian Pythia erantzun hura ematera limurtzearren izan omen zuen Kleomenesek azken hori; athenastarren aburuz, oster, Eleusis inbaditzerakoan jainkosen⁶⁴ jaureslekua arpilatzearen; eta argostarren arabera, berriz, beraien heroia zen Argoren santutegian borrokaldiaren ondoren aterbetu ziren argostarrak handik ateratzea lortu zuenean, ezpataz jo zituelako eta, oihan sakratuarekiko erabateko gutxiespenez, leku hura erre egin zuelako.

76. Izan ere, Kleomenes Delphosko orakuluari aholku eskatzen zegoen batean, Argos har zezala erantzun zion. Spartarraren buruan Erasino ibaira heldu zenean - Stymphalis aintziratik datorren ibaia, diotenez (bertsio honen arabera, aintzira horretako ura leize ikustezin batera doa eta Argolidan azaleratzen da, eta alde horretatik aurrerako ibaibideari Erasino deitzen diote argostarrek)-, Kleomenes ibai horretara heldu zenean, diot, sakrifizio bat eskaini zion; eta ibai hori ibiz iragateari buruzko zantzuak erabat kontrakoak azaldu zirenez, Erasino hori miretsi egiten zuela adierazi zuen beronen aberriko jendea ez saltzearren, baina, edozein modutan ere, argostarrak ez zirela libratuko. Jarraian, atzera egiteko agindu eta

Thyreara gidatu zuen bere gudarostea, eta hor zezen bat sakrifikatu ondoren itsasoari, Tirynto eta Naupliako lurraldeetarantz untziratu zituen tropak.

77. Argostarrak, horren berri izatean, itsasaldera etorri ziren beren lurraldea defendatzera; eta Tirynthoaldera iritsi zirenean, Sepea deritzon lekura hain zuzen, hantxe kanpatu ziren lazedemondarren aurrez aurre, gudaroste bien artean leku zabalik utzi gabe. Horrela kokaturik, argostarrek ez zeukaten aurrez aurre borrokatzeko beldurrik, baizik eta amarruren batean erortzekoa; ezen, izatez, horixe baitzen Pythiak, bai beraiei eta baita miletoarrei, adierazi nahi izan ziena honako orakulu honetan:

Baina emeak, garaipena lortu ostean, harra egotzi

eta argostarren artean lor dezanean ospea,

argostar emakume askok urratuko du masaila.

Eta haxe esango da orduan, menderen mendetan:

"horra hor azkonez menperatu eta hila,

eraztun hirukoiztun suge izugarria⁶⁵."

Zirkunstantzia horiek guztiok batera beldurra sortzen zuten, jakina, argostarren artean. Horregatik, egoera hartan, beren etsaien heraldoaz baliatzea erabaki zuten, honako era honetara jokatzuz: heraldo spartarrak lazedemondarrei aginduren bat oihukatzen zien bakoitzean, argostarrek ere gauza bera egiten zuten.

78. Baina Kleomenes horretaz ohartu zenean, hots, argostarrek heraldo spartarraren deialdiei jarraitzen zietela hitzez hitz, zera agindu zien bere gizona, heraldoak gosarirako deia egiterakoan armak eskuan hartu eta argostarrei eraso egin ziezaietela. Eta lazedemondarrek horixe egin zuten zehatz-mehatz: argostarrak heraldoaren hotsari jarraituz gosaltzen ari ziren bitartean, eraso egin eta haietariko asko hil zituzten, eta ihesean Argosi sagaraturiko oihan sakratuan aterbetu zen gehiengoa setiaturik eta zainpean zeukaten.

79. Orduan Kleomenesek honako hau egin zuen: berarekin zituen iheslari batzuen informazioaz baliatuz, heraldo bat bidali zuen eremu sakratuan aterbeturik zeuden argostarrei beren izenez deitu eta handik irten zitezen gonbidatzera, haien eros-saria hartua zuela eta babeslekua utz zezatela proposatuz (hortaz, gatibu bakoitzaren truke ordaindu beharreko ordain-saria bi minatan dago peloponesoarren artean). Eta argostarrei banan-banan deituz, berrogeita hamarna inguruko taldetan irten ahala, denak hiltzea agindu zuen. Antza denez, leku sakratuan zeudenak ez ziren ohartu gertatzen zenaz, zeren baso hura hostotsua zenez, barruan zeudenek ezin baitzuten ikusi kanpora joandakoei zer egiten zieten, harik eta, azkenean, haietariko batek zuhaitz gainera igo eta zer gertatzen zen hauteman zuen arte. Ordutik aurrera ez zen inor gehiago irten, jakina, nahiz eta kanpotik deika jarraitu.

80. Eta orduantxe agindu zien Kleomenesek hilota guztiei oihan sakratuaren inguruan sastrakak pilatzeko eta, agindu hori bete ondoren, leku hari su emateko. Su eta gar zegoenean, oihan hura zein jainkorena zen galdetu zion iheslarietariko bati; "Argosena", erantzun zion honek. Eta Kleomenesek hori entzutean hasperen sakona egin eta haxe esan zuen: "Apolo, orakuluen jainko hori, erabat engainatu nauzu, alafede, Argos hartzea lortuko nuela iragartzean!; zeren orakulu hura oraintxe betetzen ari delakoan bainago".

81. Jarraian, gudarosterik gehiena Spartara itzul zedila agindu zuen, eta bera, mila gudariz osaturiko tropen elitearekin, Heraren tenplura abiatu zen sakrifizio bat eskaintzera. Baina bera pertsonalki zihoanean sakrifizioa aldare gainean burutzera, apaizak ez zion utzi, atzerritar bati ez zegokiola-eta leku hartan sakrifiziorik eskaintzea. Orduan Kleomenesek apaiz hura aldaretik eraman eta zigorrez astin zezatela agindu zien hilotei⁶⁶, eta jarraian hark berak eskaini zuen sakrifizioa; eta hori egin ondoren, Spartara itzuli zen.

82. Itzultzean, berriz, Argos hartu ez izanaz salatu zuten etsaiek eforoen aurrean, hiria erraz-erraz har zezakeenean diruz erosi zutelako. Baina Kleomenesek azaldu zien -nik ezin dut baieztatu gezurretan ari zen ala egia zioen, baina hauxe izan zen azaldu zuena, dena dela- Argos santutegiaz jabetu eta gero, jainkoaren iragarpena konplutua zela uste izan zuela; eta horrexegatik iritzi ziola desegoki hiriari eraso egitea, behintzat harik eta sakrifizio bat eskaini arte, ea jainkoak hura lagatzen ala eragozten zion jakiteko. Eta zantzuon bila joan zelarik Heraren tenplura, sugarraldi bat irten zela diz-diz imajinaren bularretik eta horrelaxe ulertu zuela berak egia osoa, hots, ez zuela lortuko Argos hartzerik. Zeren sugarraldia imajinaren burutik irten balitz, zioen, hiri osoa hartuko zukeela, baina bularretik irten zenez, lortua zuela dagoeneko jainkoak gertatzea nahi zuen guztia. Azalpen horiek sinesgarri eta arrazoizkotzat hartu zituzten spartarrek, eta etsaien salaketez errugabetzat jo zuen gehiengoak.

83. Bitartean, Argos hain hutsik geratu zen gizonezko hiritarrez, non esklaboak jabetu baitziren erabat gobernuaz, hala magistraturaz nola exekutiboaz, harik eta gerran hildakoen semeak gizon egin ziren arte. Orduan azken hauek berreskuratu zuten Argosen kontrola eta hiritik kanpora egotzi zituzten esklaboak, zeinek, egotzita aurkitzean, Tiryntoz jabetu ziren borrokaldi baten ondoren. Geroztik, aldi batez bederen, bakea izan zuten elkarrekin, harik eta esklaboei Kleandro delako bat bildu zitzaizen arte, Arkadiako Phigalea jatorritzat zuen iragarle bat; eta honexek limurtu zituen esklabook beren nagusiei eraso egitera. Hori dela-eta, luzaroan jardun zuten gerran alderdi biek, azkenean argostarrek garaipena lortu zuten arte ozta-ozta.

84. Beraz, sakrilegio horiexei eratzikitzen diete argostarrek Kleomenesen eromena eta heriotza izugarria; baina spartarrarrek eurek zera diote, berriz, Kleomenesen eromena eragin zuena ez zela izan ezein dibinitate, baizik eta, szythiarrekin izan zuen harremanaren ondorioz, ardozale porrokatu bihurtu zela eta hortik etorri zitzaiola ero bihurtzea.

Izan ere, szythiar nomadek, beren herrialdearen aurka Dariok egindako kanpainaren ondoren hartaz mendeku hartzeko

gogoz, mandatariak bidali zituzten Spartara itun bat negoziatu eta akordio batera iristeko, zeinen arabera, szythiarrak berak Media inbaditzen saiatzen ziren bitartean Phasis ibarbidetik, spartarrei Ephesotik abiatuz barneratzea eskatzen baitzieten, gero indar guztiak biltzeko leku jakin batean. Bada, szythiarrak proposamen horrekin etorri zirenean -hala diote lazedemondarrek-, Kleomenesek harreman estuegiak izan zituen haiekin, eta neurritz kanpoko adiskidetasun hartan ikasi omen zien ardo hutsa edaten; eta hortik gertatu zitzaion ero bihurtzea, spartarren aburuz. Orduz geroztik -beraiek diotenez-, ardo hutsa⁶⁷ edan nahi dutenean, "tragoska szythiarra" deitzen diote. Horra hor, beraz, Kleomenesen azkenari buruzko spartarren bertsioa; hala ere, nire iritziz, Demaratori egin zionagatik pairatu zuen Kleomenesek zigor hura.

85. Eginarrek Kleomenesen heriotzaren berri izan zutenean, Spartara mandatariak bidali zituzten, Athenasen atxiloturik aurkitzen ziren bahituez Leutykhidesi galdatzera. Lazedemondarrek, orduan, epaimahaia bildu ondoren, onartu egin zuten Leutykhidesek irain larria egin ziela eginarrei, eta hura eginarroiei entregatzea ebatzi zuten, Athenasen atxiloturik aurkitzen zirenen truke hartu eta Eginara eraman zezaten.

Baina eginarrak Leutykhides eramatera zihoazenean, Spartan entzute handia zuen Theasides, Leoprepesen semeak honako hau esan zien: "Zer asmo duzue, eginarrok? Spartarren errege eramane nahi al duzue, beronen herikideek entregatu dizuela-eta? Spartarrek suminaldi batean hori ebatzi badute ere, kontuz ibil zaitezte, ea gero haiek ebatzitakoa burutzeak zeuon uhartearen erabateko suntsipena dakarkizuen azkenean". Hitz horiek entzutean, hura eramateari jaregin eta honako akordiora iritsi ziren: Leutykhidesek

Athenasera lagunduko ziela eta beraien aberkideak itzularaziko zizkiela.

86. Baina Leutykhidesek, Athenasera iristerakoan, han gordailuan utzitako bahiak eskatu zizkienean, athenastarrek bahiok entregatu nahi ez eta aitzakiak jartzen hasi zitzaizkion, bi errege izan zirela argudiatuz bahiak beraien esku utzi zituztenak eta ez zeritzela bidezkoa haiek erregetariko bati bakarrik itzultzea; eta athenastarrek ez zizkiotela itzuli nahi ikusirik, Leutykhidesek hauxe esan zien: "Athenastarrok, dituzuen bi aukeretatik gura duzuen egin dezakezue; alegia, bahiak itzuli eta zuzentasunaren arabera jokatu, ala ez itzuli eta bidegabeki jardun; baina nik, hala ere, gordailuan emandako zerbaiti buruz hain zuzen ere, Spartan gertatu zen istorio bat kontatu nahi dizuet. spartarrarren artean kontatzen denez, duela bi belaunaldi inguru, Glauko, Epizydesen semea, bizi zen gure hiriburuan. Gizon hori koalitate bikainenez horniturik omen zegoen arlo guztietan, baina batez ere bere zintzotasuna omen zen garai hartan Spartan bizi zirenen artean gehien nabarmentzen zena. Baina garaia iritsi zitzaionean, honako hau gertatu omen zitzaion gizon horri: miletoar bat etorri zen Spartara berarekin elkarriketatzera eta proposamen hauxe egin zion: "Glauko, Miletokoa naiz izatez, eta zure zintzotasunaz baliatzera etorri natzaizu. Ezen, Heladeko bazter guztietan eta Jonian bertan ere zure zintzotasuna asko aipatzen denez gero, zera bururatu zitzaidan, Jonia etengabeko arriskupean dagoela uneoro -Peleponeso arriskuotatik kanpo aurkitzen den bitartean- eta ez ohi direla beti lagun berberak aberastasunak dituztenak. Burutapen horiek aintzat harturik, bada, eta arazoari buruz gogoetak egin ondoren, nire ondasun guztietarik erdia dirutu eta zure eskuetan jartzea erabaki dut, zure eskuetan utziz leku onean izango dudala uste izanik uste osoz. Onar ezazu, bada, arren, diru hau eta har itzazu eta gorde ondo ezaugarri hauek⁶⁸; eta

ezaugarri berberak dituen batek diru hori eskatzen dizunean, emaiizu berari".

Horixe esan zion, beraz, Miletotik etorri berri zen atzerritar hark, eta Glaukok onartu egin zion, hitzarturikoaren arabera, beraren esku uzten zuen dirua. Handik denboragarrenera, dirua utzi zion gizon haren semeak azaldu ziren Spartan, eta, Glaukorekin hizketatu ondoren eta ezaugarriak erakusten zizkiotelarik, diru hura eskatu zioten. Baina honako estakuru honen bidez libratu zen haiez: "Bada, ez dut gogoratzen gauza hori, eta esaten didazuen ezerk ere ez dit gogorarazten, gainera, horrelakorik. Orain, gogora ekartzea lortzen baldin badut, zuzentasun hertsienari lotuko natzaio; hots, diru hori hartu badut, oso-osorik itzultzeko prest nauzue, baina horrelakorik inoiz hartu ez baldin badut, Heladeko legeetara joko dut zuen kontra. Beraz, hemendik laugarren hilabetera emanen dizuet eman beharreko erantzuna".

Horrela, miletoarrek nahigabeturik alde egin zuten handik, dirua galdutzat emanez, Glauko Delphosera zihoan bitartean orakuluari aholku eskatzera. Eta diru hartaz zin eginez jabe zitekeen galdetzean jainkoari, Pythiak bertso hauexek bota zizkion:

Glauko, Epizidesen seme: onuragarri duzu, argiro, laburrera,
dionzun moduan zin egin eta diru horren jabetza lortzea.

Egin zin, bada, berbako gizona ere Heriok berdin baitarama.

Baina zinak, oi, seme izengabea du, besorik ez hankarik
[gabea,

baina azkar bai azkar jazartzen eta harrapatzen duena

[zinauslea,

eta berau eta beronen ondorengoa eta etxe osoa suntsitzen

[duena.

Hobeto doakio, ostera, berbako gizonaren ondorengoari,

[luzera.

Hitzok entzutean, lehen esandakoengatik barka eskatu zion Glaukok jainkoari. Baina Pythiak erantzun zion maila bereko

delitua zela bidegabekeria bat jainkoak onets zezan saiatzea eta bidegabekeria hori burutzea. Glaukok, azkenez, atzerritar miletoarrei deitu eta dirua itzuli zien.

Eta entzun orain, athenastarrok, zergatik hasi natzaizuen istorio hau kontatzen: egun ez da geratzen Glaukoren ondorengo bat bera ere, ezta Glaukoren izenik daraman ahaidetik ere; haren leinua zeharo ezabaturik geratu da Spartan. Beraz, gordailuan emandako gauza bati dagokionez, hura galdatzerakoan berehala itzultzea besterik ez pentsatzea komeni da".

Berba horiek esan ondoren, athenastarrek ez ziotenez entzun nahi hala eta guzti ere, Leutykhidesez handik alde egin zuen.

87. Eginarrek, beren aldetik, thebastarrei eder egitearren athenastarrei arestian egindako laidoaz erantzun aurretik⁶⁹, hona hemen zer egin zuten. Athenastarrekin mindurik zeudelarik eta irainduak sentitzen zirenez, mendeku hartzea erabaki zuten; eta athenastarrek lau urtez behingo jaialdi bat Sunion ospatzen zeudela aprobetxatuz, Athenasko hiritar printzipalez beterik zegoen teoroen untzia⁷⁰ harrapatu zuten segada baten bidez, eta hiritarrok atxilotu eta giltzaperatu egin zituzten.

88. Athenastarrek, orduan, eginarrengandik laido hura jasotzean, era guztietako neurriak hartzea erabaki zuten, denbora apurrik ere galdu gabe, haien kontra. Eta bazen Eginan entzute handiko hiritar bat, Nikodromo, Knethoren semea, bere herikideek arestian uhartetik egotzi zutelako minduta zegoena, eta athenastarrak eginarrei jipoi ederra ematera zetoze la jakin zuenean, Egina entregatzea hitzartu zuen haiekin, horretan saiatuko zen eguna zehaztuz, athenastarrak laguntzera etorriko zitzaizkion eguna, alegia. Handik gutxira, athenastarrekin hitzarturikoaren arabera, "Hiri Zaharra" deritzotenaz jabetu zen; baina athenastarrak ez ziren agertu sasoiz.

89. Izan ere, garai hartan ez zituzten nahikoa gerrauntzi eginarrekin borrokan sartzeko, eta, untziak maileguz hartzeko

korinthoarrekin tratuan zebiltzan bitartean, plan hura gainbehera etorri zen. Korinthoarrei dagokienez, garai hartan athenastarrekin harreman oso adiskidetsuak zituzten eta, azken hauen eskabidearen aurrean, hogeitun urte eman zizkieten, untziko hamar drakma jasoz trukean; zeren, legearen arabera, ezin zizkieten eman dohainik. Horrela, athenastarrek, untzi horiek hartu eta berenei gehituz, guztira hirurogeita hamar gerrauntzi hornitu zituzten eta Eginarantz itsasoratu ziren; baina hitzartutako egunaren biharamunean iritsi ziren.

90. Nikodromok, bere aldetik, athenastarrak sasoiz ez zetozeela ikusirik, untziratu eta Eginatik ihes egin zuen; eta berarekin batera beste eginar batzuek ere ihes egin zuten, Sunion finkatzen utzi zitetarik guztioi athenastarrek. Aterbetu horiek, leku hura operazio-basetzat hartuz, beren uharteko aberkideak harrapatzen eta arpilatzen jardun zuten.

91. Baina hori geroago gertatu zen. Eginar aberatsek, artean, herriak beraien aurka, Nikodromo buru izanik, antolatu zuen albaramendua menperatu zuten, eta, matxinatuak atxilotu ondoren, harresietatik kanpora atera zituzten hiltzeko. Eta erahilketa horretan, gainera, sakrilegio bat egin zuten, zeina, eginahalak egin arren ere, ezingo zuten aurrerantzean garbitzerik lortu beren sakrifizioen bidez, baizik eta uhartetik egotziak izango ziren, jainkosa beraiekin baretu baino azkoz lehenago. Izan ere, bizirik harrapaturiko herri-alderdiko zazpiehun kide zeramatzatenean harresietatik kanpo hiltzera, hauetariko batakarrietatik askatzea lortu zuen eta Demeter Thesmoforoaren⁷¹ tenpluaren atarian aterbetu zen, ateetako zirgiloek gogor oratuz; orduan, indarrez tiraka handik erauzterik lortzen ez zutenez, eskuak moztu zizkioten eta halaxe eraman, gizon haren eskuak hantxe geratu zirelarik zirgiloek oratuta.

92. Horixe egin zuten, bada, eginarrek beren herriedeekin; athenastarrak iritsi zirenean, hirurogeita hamar untzirekin egin zieten aurre itsasoan, baina itsas borroka horretan garaituak izatean, lehengo beraiei eskatu zieten laguntza: argostarrei. Baina

hara non, honako honetan argostarrak ez zitzaizkien etorri laguntzera, mindurik baitzeuden Eginako zenbait untzik -Kleomenesek derrigorrez errekiatuak- Argolideko itsasaldera jo eta lazedemondarrekin batera bertan lehorreratu zirelako; erasoaldi hartan Sizyongo untzietan lehorreraturiko tropek ere hartu zuten parte, hain zuzen; eta hori dela-eta, argostarrek herri horietariko bakoitzari ehun talentuko kalte-ordaina, bostehuna talentu, ezarri zioten. Hortaz, sizyondarrek aitortu zuten bai beren errua, eta kalte-ordainetik salbuetsirik geratu ziren ehun talenturen truke, baina eginarrak, oster, hori onartzera ukatu ez ezik, nahikoa harro azaldu ziren. Eta arrazoi horrexegatik ez zitzairen etorri oraingoan, laguntza eskabidea gorabehera, argostar bat bera ere herriak bidalia; bai etorri zitzaizkiela, ordea, mila bat boluntario, eta beren buruan Eurybates, pentathlon⁷² egindako gizon bat. Horietariko gehienak ez ziren itzuli beren aberrira, athenastarren eskuetan hil baitziren Eginan. Eurybates bera ere, boluntario burua, buruz buruko borrokan hiru gizon eraitsi ondoren, laugarren etsaiaren eskuetan, Dezeliako Sophanesen eskuetan hain zuzen, erori zen.

93. Bitartean, eginarrek athenastarren aurka egin zuten eraso gerrauntzietan, eta, azken hauen borroka larriak anabasan zirelarik, lau gerrauntzi athenastarrez jabetu ziren, tripulazio eta guzti.

94. Horrela beraz, athenastarren eta eginarren artean gerra egoera zen nagusi. Bien bitartean, Persiarrak aurrera jarraitzen zuen bere planekin, zeren zerbitzariak aldioro errepikatzen baitziren "gogora itzazu athenastarrak" eta Pisistratidak ere hantxe aldamenean baitzituen Athenasen kontra ekinean, baina gainera Dariok berak ere, aitzakia hartaz baliatuz⁷³, lurra eta ura eman ez zioten heleniarrak menpean hartu gura zituen. Beraz, Mardoniok bere espedizioan porrot egin zuenez, hura agintetik errelebatu eta beste jeneral batzuk izendatu zituen Eretria

eta Athenasi erasotzeko, konkretuki Datis, jatorriz mediarra, eta erregeren beraren iloba zen Artaphrenes, Artaphrenesen semea; eta mandatu hauxe eman zien, Athenas eta Eretria esklabo egin eta esklabook bere aurrera ekar zitzatela.

95. Aipatu ditudan jeneral horiek erregeren aurretik mandatu harekin abiatu eta lehorreko armada handi eta ongi hornituarekin Ziliziara, Aleiango lautadara, heldu zirenean, herrialde bakoitzari eskatu zitzaion gerrauntziteria guztia joan zitzaien bilduz, hantxe kanpaturik zeuden bitartean; eta zaldi-garraiorako untziak ere etorri zitzaizkien, Dariok aurreko urtean zergapeko herriei prestatzeko agindutakoak. Horrela, zaldiak untziotan sartu, lehorreko armada untziratu eta Joniarantz itsasoratu ziren seiehun triererekin. Baina Ziliziatik Helesponto eta Thraziarantz ez ziren joan Asiako kontinenteko itsasbazterretik, baizik Samotik abiatu eta, Ikariako kosta bazterretik joanez, uharteen artetik nabigatu zuten, izan ere, hala uste nik behintzat, beldur itzela baitzioten Athos itsasoz inguratzeari, aurreko urtean handik bueltan zetoze la izan zuten galera izugarriagatik; gainera, oraindik konkistatu gabeko Naxok ere behartzen zituen horretara.

96. Ikariako itsasoa iragan ondoren Naxora hurbildu eta bertan lehorreratzean (zeren persiarrek, esan bezala, lehenengo eta behin uharte horri eraso egitea pentsaturik baitzuten), naxoarren, lehenagoko espedizioa gogoan zutela, mendietarantz ihes egin zuten, jarkitzeko asmorik gabe. Persiarrek, orduan, harrapatu ahal izan zituzten naxoarren guztiak esklabo egin zituzten, eta hala tenpluei nola hiriari su eman; eta hori egin ondoren, gainerako uharteei eraso egitera itsasoratu ziren.

97. Persiarrek operazio horretan ziharduten bitartean, deloarren ere beren uhartea utzi eta Tenorantz alde egin zuten. Hala ere, flota Deloratzera zihoanean, Datisek, bere untzian

aurrera etorri, ez zuen eman baimenik untiak Delon aingura zitezen, baizik Rhenea aurrean aingura bota zezatela agindu zuen; eta deloarrak non aurkitzen ziren jakin ondoren, heraldo bat bidali zien hurrengo mezu honekin: "Zer dela-eta egin duzue ihes, izaera sakratuko jendeok, nitaz funtsik gabeko susmoak hartuz? Bada, nire aldetik badut horrenbeste zentzu, eta erregeren aldetik ere agindu hori daukat, bi jainkoak⁷⁴ jaio ziren lurraldeari ezelako kalterik ez egiteko; ez lurraldeari berari, ez lurralde horretan bizi zaretenoi. Itzul zaitezte, bada, oraintxe bertan zuen etxeetara eta jarrai ezazue uharte honetan bizitzen". Mezu horixe bidali zien heraldoaren bidez Datisek deloarrei, eta jarraian hirurehun talentuko intsentsua⁷⁵ pilatzeko eta aldarearen gainean erretzeko agindua eman zuen.

98. Hori egin eta segituan, Datis bere gudarosteekin itsasoratu zen, Eretriari eraso egitera lehenbizi, soldadu joniar eta eoliarrak ere berarekin eramanez. Datis uhartetik itsasoratu bezain laster, Delo lurrikara batek astindu zuen, zona hartan gertaturiko lehen eta azken seismoa izan zelarik, bertakoek diotenez, gaur egun arte behintzat. Eta antza denez, fenomeno horren bidez, gertatzear ziren ondikoak iragartzen zizkien dibinitateak gizakiei. Ezen Dario Hystaspesenaren garaian, Xerxes Dariorenean eta Artoxerxes Xerxesenean, hiru belaunaldi jarrai horietan zehar, Darioren aurretiko hogeita belaunaldietan zehar baino ondiko gehiago jasan baitzituen Heladek; batzuk, persiarren eskutik jasan zituen, eta beste batzuk, berriz, norgehiagoka ziharduten bertako buruzagien euren eskutik. Beraz, ez zen izan, ez, harritzekoa, ordurarte lurrikararik ezagutu gabeko Delo seismo batek astintzea. Gainera, uharte horri buruzko orakulu batean honako haxe zegoen idatzita:

Lurrikaraz astinduko dut Delo bera

lurrikararik ez dagokion arren berez.

Hortaz, hiru errege horien izenei dagokienez, Dariok "Ahaltsua", Xerxesek "Gerraria" eta Artoxerxesek "Gerrari

Handia" esan nahi dute grekoz; eta halaxe dei diezaiekete heleniarrek, zuzen asko, beren hizkuntzan.

99. Delotik abiatu ondoren, barbaroek uharteetan lehorreratu eta tropak erreklutatzen zituzten, bertakoen semeak bahi hartuz. Baina uhartearteko beren bidaia horretan Karystora porturatu zirenean, karystoarrak ukatu egin zirenez bahiak entregatzera eta auzoko hirien kontra (hots, Athenasen eta Eretriaren kontra) beraiekin joatera, jarrera horren aurrean, setiatu egin zituzten eta lurraldea arpilatu, harik eta karystoarrek ere persiarron gogora makurtu behar izan zuten arte.

100. Eretriarrek, gerrauntziak beren aurka zetoze jakitean, athenastarregana jo zuten laguntza eske. Hauek ez zioten laguntza ukatu, aitzitik, Kalzisko zaldi-hazleen lurraldeak okupatzen zituzten lau mila kleruko jarri zituzten haien eskura, Eretriaren defentsarako. Baina badirudi eretriarren euren artean ez zegoela erabateko erabakirik, zeren, athenastarrei deitu arren, bi egitasmo oso desberdin baitzituzten buruan: batzuek, hiria utzi eta Eubeako goierrietara abiatzeko asmoa zuten, eta besteek, aldiz, Persiarrarengandik zenbait abantaila lortuko zutelakoan berentzat, traizioa burutzeko prest zeuden.

Bi egitasmoon berri izatean, Eskhines Nothonenak, Eretriako gizon printzipalenetarikoa berau, euren arteko desakordio horren informazio zehatza eman zien uharteratutako athenastarrei, eta beraien aberrira itzul zitezela eskatu zien, gainerakoekin honda ez zitezen. Athenastarrek, orduan, Eskhinesen gomendioari jarraitu zioten.

101. Horrela, Oropora iragan eta onik itzuli ziren; bitartean, persiarrak iritsi ziren beren flotarekin eta Tamynas, Khareas eta Egilea parean ainguratu zituzten untziak, Eretriako lurraldean;

eta zona horretan ainguraturik, zaldiak berehala atera eta arerioari eraso egiteko prestaketak burutu zituzten. Alabaina, eretiarrek ez zeukaten borrokara irteteko asmorik, baizik beren ahalean harresiak barrutik defendatzekoa, zeren eta hiria ez lagatzearen iritzia atera baitzen nagusi. Harresiaren kontrako eraso bortitz bat gertatu zen orduan, eta asko erori ziren alderdi batean zein bestean sei egunean zehar; halaz ere, zazpigarren egunean, Euphorbok eta Philagrok, bata Alzimakhoren semea eta bestea Zyneasena, hiria persiarrei entregatu zieten. Hauek, berriz, hirian sartu bezain laster tenpluak arpilatu eta erretzeari ekin zioten, Sardesen erretako santutegien mendekuz, eta bertako bizilagunak esklabo hartu zituzten jarraian, Dariok agindutakoaren arabera.

102. Eretria menperatu eta egun gutxi batzuetako atsedena hartu ondoren, persiarrak Atikarantz itsasoratu ziren oldar handiz, eretiarrekin egindako gauza bera egingo zutela pentsatuz athenastarrekin ere. Eta Marathon zenez zaldieria erabiltzeko gunerik aproposena eta Eretriatik hurren zegoena, haraxe eraman zituen Hipias Pisistratorenak.

103. Athenastarrek horren berri izan zutenean, Marathonera abiatu ziren beraiek ere. Hamar estratego zeramatzaten buruan, eta beren artean Miltiades, zeinen aitak -Zimon Stesagorassenak- Athenastik atzerriratu behar izan baitzuen, Pisistrato, Hipokratesen semearengandik ihes. Erbestean zela, Joko Olympikoetako garaipena lortu zuen bere koadrigarekin, eta, garaipen hori lortzean, ama bereko anaia zuen Miltiades hark lorturiko golardoa bera jaso zuen. Hurrengo Joko Olympikoetan ere behor berekin lortu zuen garaipena, baina Pisistrato irabazle hauta zezaten utzi zuen, eta honi garaipena lagatzearen, bere aberrira itzultzeko akordioa hitzartu zuen Pisistrato horrekin. Baina hara non,

beste Joko Olympiko batzuetan ere behor berekin garaile atera ondoren, Pisistratoren semeen eskuetan aurkitu zuen heriotza, Pisistrato bera jada zendua zela; gauez erahil zuten, prytaneo inguruan, horretarako erositako zenbait morroik segada jarri ziotelarik. Zimon hiriaren irteeran dago hilobiratuta, Zele deritzoten aldiria zeharkatzen duen bidearen handiko aldean; eta hilobi horren aurrez aurre daude lurperatuta, baita, Joko Olympikoetan hiru aldiz irabazi zuten behorrak ere. Beste behor batzuek ere, Euagoras lakoniarrarenak, lortua zuten egitandi berdina, baina horiez gain beste ezeinek ere ez du gainditu horrelakorik.

Harira etorritz, garai hartan Stesagoras, Zimonen seme nagusia, Khersoneson bizi zen, aitagandiko osaba zuen Miltiadesen etxean; eta seme gaztea, berriz (honek ere Miltiades zuen izena, Khersonesoren kolonizatzailer izandako Miltiadesen oroimenez), Athenasen bizi zen, Zimon beraren etxean.

104. Miltiades hori zen, bada, ordurako Khersonesotik itzulita, athenastarren estrategotariko bat, heriotzetik birritan ihes egin ondoren. Izan ere, batetik, Imbroraino jazarri zioten pheniziarrek gogo handia zuten hura harrapatu eta erregeren aurrera eramateko; baina, gainera, haiengandik ihes egitea lortu eta bere burua salbutzat zuenean, hain zuzen ere orduantxe oldartu zitzaizkion bere arerioak eta epaimahai baten aurrera eraman zuten, Khersoneson tiraniaz ihardun zuela salatuz. Arerio horiengandik ere ihes egitea lortu zuen hala ere, eta, kargutatik aske, athenastarren estratego izendatu zuten, herriak berak hautatuta.

105. Eta estrategoek egin zuten lehenengo gauza, oraindik hirian zeudela, Spartara heraldo bat bidaltzea izan zen, Philipides hain zuzen, izatez hiritar athenastarra eta lanbidez

posta-gizona⁷⁶. Bada, Philipidesek berak aitortu zuenez eta athenastarrei jakinarazi zenez, Parthenio menditik gertu, Tegeako iparraldean, Pan irten zitzaion bidera. Jainkoak oihuka deitu omen zion beraren izenez eta athenastarrei honako hau esateko agindua eman: ea zer dela-eta ez ziren berataz arean ere arduratzen, berak haienganako zuen begikotasuna kontuan hartu gabe eta behin baino gehiagotan sorotsi zituen arren, eta aurrerantzean ere sorotsiko. Istorio hori egiazkotzat hartuz eta gertakarien garapen zoritsua ikusirik, athenastarrek santutegi bat eraiki zuten Akropoliaren barrenean Panen ohoretan, eta, jainkoaren mezua aintzakotzat hartuz, urteroko sakrifizioen bidez eta zuzi-lasterketa bat eginez eskatzen diote babesa.

106. Orain, bada, Philipides, une hartan estrategoez mezulari bidali eta Pan bera agertu zitzaioa adierazi zuen gizon hura, Athenastik irten eta egun batera iritsi zen Spartara⁷⁷. Eta magistratuen aurrean aurkeztutakoan, hauxe esan zuen: "Lazedemondarrok, athenastarrek zera eskatzen dizuete, arren, laguntza eman diezaiezu eta ez dezazuela permiti Heladeko hiri zaharrenetariko bat barbaroen uztarpean eror dadin; izan ere, Eretria esklabo da jada, eta Helade ere ahulago aurkitzen da, beraz, halako hiri garrantzitsua galdu ondoren". Heraldok, hitz batez, esateko agindu ziotena esan zien. Lazedemondarrek, orduan, athenastarrak sorostea erabaki zuten, baina ezinezkoa zitzaien hori berehalaxe egitea, zeren ez baitzuten nahi araua hausterik; izan ere, hilaren bederatzigarrenean zeuden, eta ez ziren abiatuko espedizio batera -zioten- hilaren bederatzian, ilbete izan baino lehen.

107. Beraz, lazedemondarrek ilbete izan arte itxaron zuten. Barbaroei dagokienez, Hipias Pisistratorenak gidatu zituen Marathonera, eta honek honako irudipen hau izan zuen ametsetan, bezpera gauean: bere amarekin berarekin izan zuela sexu-harremana iruditu zitzaion Hipiasi. Amets horretan oinarrituz, bere jaioterrian zahartzaroan hilko zela ondorioztatu zuen, Athenasera itzultzea eta

boterea berreskuratzea lortu ondoren. Horra, beraz, ametsetan izandako irudipen hartan oinarrituz atera zuen ondorioa; baina anartean, gida gisa jardunez, Eglea deritzon eta styarren jabetzakoa den uhartean lehorrerarazi zituen Eretrian harrapaturiko esklaboak, eta jarraian, untziak Marathonera heldu ahala, bertan aingura zitzatela agindu zuen eta, barbaroak lehorreratuak zirenean, zein lerrotan kokatu behar zuten adierazi zien.

Baina hara non, zeregin horietan zebilela, usin egiteko gogoak eman eta ohi zuen baino bortitzago egin zuen eztul. Zaharra ere bai eta, hortzik gehienak loka zituenez, hortzetariko bat bota zuen ttuarekin. Hortza haretara erori zen eta Hippiasek buru-belarri ekin zion hortz bila; baina hura aurkitzerik lortzen ez zuenez, hasperen egin eta hauxe esan zien aldamenean zituenei: "Lur hau ez da gurea eta ezingo dugu menperatu; ezen nire hortzak hartu baitu jada neuri zegokidan lurraren jabetza".

108. Beraz, Hippiasek bere irudipena jada betea zela ondorioztatu zuen gertaera hartatik.

Athenastarrak, beren aldetik, Heraklesi sagaraturiko gunee batean lerrokaturik zeuden, platearrak beren gudaroste guztiekin aurkeztu zitzaizkienean laguntzera.

Izan ere, platearrak athenastarren babespean jarriak baitziren, eta azken hauek, gainera, neke ugari jasan beharra izan zuten jadanik haien alde. Hona hemen zelan jarri ziren athenastarren babespean: thebastarrak oldartu zitzaizkienean, orduan lurralde hartan aurkitzen ziren Kleomenes Anaxandridestarraren eta lazedemondarren babespean jartzen saiatu ziren platearrak hasiera batean. Baina haiek ezezkoa eman zieten, honako hau esanez: "Gu urrunegi bizi gara, ordea, eta eskain geniezazuekeen laguntzak gutxirako balio liezazueke, zeren guretariko inork jakin ere egin orduko hartuko baitzaituztete menpean. Athenastarren babespean jartzea gomendatzen dizuegu, auzoak baitituzue eta zuok ongi asko defendatzeko gai". Lazedemondarrek gomendio hori egiten bazuten, ez zen horrenbeste

platearrenaganako begikotasunez, baizik eta athenastarrak arazotan sar zitezen nahi zutelako beoziarren aurka jardun behar izatean. Beraz, horixe izan zen lazedemondarrek platearrei eman zieten aholkua, eta azken hauek ez zuten hartu aholku hori zaku zulatuan; aitzitik, athenastarrek Hamabi Jainko-Jainkosei sakrifizio bat eskaintzen zieten batean, haiek arrenkari jarraz aldare gainean eseri eta athenastarren babespean jarri ziren. Thebastarrek horren berri izatean, espedizio bat paratu zuten platearren aurka, eta athenastarrak azken hauek sorostera joan ziren; hala ere, borrokan sartzeaz zirenean, korinthoarren eragotzi zieten, zeren, une hartan hantxe suertatu zirelarik eta alderdi biek bitartekaritzat onartu zituztelarik, korinthoarren lurralde hartako mugak finkatu baitzituzten, zera jarraz baldintzatuz, hots, liga beoziarrean parte hartu nahi ez zutenei beoziarrek bakean uztea. Ebazpen hori eman ondoren, korinthoarren alde egin zuten; baina athenastarrak etxera bidean zihoazela, beoziarrek eraso egin zieten eta, ondorengo borrokaldian, erasotzaileak garaituak izan ziren. Orduan athenastarrek hedatu egin zituzten korinthoarren platearrei ezarritako mugak, eta, hedapen horretan, Asopon bertan kokatu zuten Thebasen eta Platea eta Hysiasoko lurraldearen arteko muga. Beraz, platearrak goian azaldu dudan moduan jarri zirela athenastarren babespean, eta une hartan platearren Marathona etorri zitzaizkiela laguntza ematera.

109. Bitartean, estratego athenastarren aburuak ez zetozen bat: batzuk erasora irtetearen kontrakoak ziren (gutxiegi zirelako, beren ustez, mediarren armadari aurre egiteko), eta beste batzuk, ordea, haien artean Miltiades, irtetearen aldekoak. Iritziak banaturik zeudenez eta desegokiena nagusi ateratzera zihoanez, Miltiadesek orduan hamaikagarrenaren bitorita jo zuen, hots, polemako⁷⁸ kargurako zozketaz hautaturiko athenastarrarengana -izan ere, antzina, estrategoei ematen zieten erabaki ahalmen bera ematen zioten polemakoari athenastarrek-, une hartan Aphidnasko Kalimakho hain zuzen; eta gizon honengana hurreratuz, honako hauxe esan zion: "Kalimakho, zeure esku dago une honetan Athenas

esklabotzan hondatzea ala aske jarraitzea, eta Harmodio eta Aristogitonena euren baino ospe handiagoa zeureganatzea sekula eta betiko. Izan ere, inoiz aurkitu izan diren kinkarik larrienean aurkitzen baitira athenastarrak: mediarren aurrean nola edo hala makurtzen badira, argi dago zein zorte izango duten Hipiasen menpean gertatzerakoan; aitzitik, hiri honek garaipena lortzen badu, Heladeko hirietan lehena bihur daiteke. Eta oraintxe esango dizut zelan gauza daitekeen hori eta zergatik dagokizun zeuri hain zuzen ere arazo horri buruzko auzia ebaztea. Gu estrategook hamar gara eta gure iritziak banaturik daude, batzuek borrokara irtetearen alde, eta besteak, aldiz, kontra. Orain ba, borrokara irteten ez bagara, fakzio garrantzitsu bat sortuko den beldur naiz, athenastarren fedea kordokatu eta haiek mediarren besoetara bultzatuko dituen; aitzitik, halako izurria zenbait athenastarren barnean erne aurretik borrokara irteten bagara, eta jainkoek inpartzial badiraute, borrokaldian garaipena lortzeko aukeran gara. Bada, hori guztia zeuri dagokizu hain zuzen, eta zeure esku dago; zeren, nire iritziari atxikitzen bazatzaizkio, zure aberriak askatasuna izango du eta zure hiria Heladeko lehena bihurtuko da; aitzitik, borrokara irtetearen kontra dauden iritzira makurtzen bazara, aipatu dizkizudan lorpenen orde zeharo alderantzizkoak gertatzearen errudun izango zara".

110. Berba horiekin Miltiadesek bere aldera ekarri zuen Kalimakho; eta, polemakoaren baiezkotokiari esker, borrokara irtetea erabaki zen. Jarraian, borrokaren aldeko estrategoei, prytania⁷⁹ eguna tokatzen zitzaionean, Miltiadesen eskuetan uzten zuten; eta, nahiz eta honek onartu egiten zien, prytania hori berari tokatu arte borrokara ez irtetea erabaki zuen.

111. Azkenean txanda iritsi zitzaionean, athenastarrak ondoko era honetara lerrokatu ziren borrokarako: eskuineko hegalararen buruan Kalimakho polemakoa aurkitzen zen (izan ere, garai hartan athenastarren artean horrela ohitzen baitzen, polemakoak

eskuineko hegala hartzea bere kargu); buruzagi honen ondoren, tribuak zeuden kokaturik, berauen zenbakien arabera bata bestearen ondoren lerrokaturik; eta azkenez platearrak zeuden ezkerreko hegalean lerrokatuta. Horregatik, borroka horretan parte hartu zutelako, heraldoak biei opa ohi die oparotasuna, hala athenastarrei nola platearrei, athenastarrek lau urtero ospatzen dituzten jaialdietan sakrifizioak eskaintzean.

Orain, berriz, athenastarrek Marathonen izan zuten lerrokatze hartan, honako zertzelada hau gertatu zen: beren frontea eta mediarrena berdintsuak izanik hedaduraz, gudarostearen erdialdea lerro gutxiz osaturik zegoen eta puntu ahulena zen, eta bi hegalak, oster, oso trinkoak.

112. Borrokarako lerrokaturik eta zantzuak aldekoak zirela ikusirik, athenastarrak, aurrera egiteko agindua hartu bezain laster, aurrerantz korrika abiatu eta persiarrei oldartu zitzaizkien. Bi gudarosteon arteko tarteari dagokionez, ez zen zortzi estadio baino gutxiagokoa.

Persiarrak beren aldetik, etsaia erasora korrika zetorkiela ikusiz, oldarraldiari aurre egiteko prestatu ziren, athenastarrak, hain gutxi izanik eta zaldieririk ez arkularirik gabe horrela erasora korrika abiatzeko, ero bihurtu zirela eta erabateko porrota jasoko zutela pentsatuz. Horixe uste zuten, behintzat, barbaroek; baina athenastarrek, etsaiaren aurka lerro trinkoan eraso eginez, adore miresgarritz borrokatu zuten. Izan ere, beraiek izan ziren, guk dakigunez, etsaiari korrika eraso zioten lehen heleniarrak, baita mediarren gerra-janzkerari eta jantzi horiekin hornitutako gizonei aurrez aurre begiratzera ausartu ziren lehenak, ezen, ordurarte, mediarren izena entzute hutsak ere izutu egiten baitzituen heleniarrak.

113. Denbora luzez jardun zuten Marathongo borrokaldi hartan; frontearen erdialdean, non persiarrak berak eta sakak zeuden lerrokaturik, barbaroak garaitu zitzaizkien athenastarrei

eta, hauen formazioa hautsi ondoren, lehorrean barna jazartu zieten; bi hegaletan, ordea, athenastarrak eta platearrak atera ziren garaile. Eta garaile ateratzean, garaitutako barbaroei ihes egiten utzi eta bi hegalak batera bildu zituzten beren erdialdeko lerroak hautsi zituztenei eraso egiteko, eta halaxe lortu zuten athenastarrek garaipena. Orduan, ihesi zihoazen persiarrei jazarri eta haien lerroak bakandu zituzten, eta itsasertzera heldu zirenean, su eske hasi ziren eta gerrauntziez jabetzeko ahaleginetan.

114. Egitandi hartan, Kalimakho polemarkoa hil zen, kemen adoretsuz jardun ondoren, baita estrategotariko bat ere, Stesilao, Thrasyloaren semea; eta hantxe hil zen, baita, Zynegiro⁸⁰, Euphorionen semea, eskua aizkorakada batez moztu zizkiotenean, untzi baten popako maskaroiari oratzen zegoela; eta hantxe, entzute handiko beste athenastar asko ere.

115. Era horretara eskuratu zituzten, bada, athenastarrek zazpi untzi; baina gainerako untzietan itsasertza utzi eta itsaso zabalera jo zuten persiarrek, eta, Eretrian harrapaturiko esklaboak utzi zituzten uhartetik hartu ondoren, Sunio muturra itzulinguratu zuten, athenastarren hiriburura berauek baino lehenago iristeko asmoz. Barbaroek maniobra hori Alkmeondarren iradokizunez egin ote zuten salaketa zurrumurrua zabaltzeko Athenasen, hain zuzen, alkmeonidok ezkutua jasoz egingo zieten zeinu bat hitzartu omen zutela-eta persiarrekin, hauek jada untzietan aurkitzen zirela.

116. Persiarrek, beraz, Sunio itzulinguratu zuten; bien bitartean, athenastarrak ahalik eta arinen etorri ziren hiriburua sorostera eta barbaroak aurkeztu baino lehenago iristea lortu zuten (eta hortaz, Heraklesen santutegi batetik, Marathongotik, etorri berri zirenok, Heraklesen beste santutegi batean, Zynosargeskoan, kanpatu ziren). Eta barbaroak beren untzietan Phalero parera hurreratu zirenean, zeren garai hartan leku horixe baitzen athenastarren portua, hantxe

ainguratu zituzten untziak, baina handik lasterrera Asiarantz itsasoratu ziren.

117. Marathongo borrokaldi horretan, sei mila eta laurehun inguru barbarok eta ehun eta laurogeita hamabi soldadu athenastarrek galdu zuten bizia. Horiexek izan ziren guztira alde bateko eta besteko eroriak. Eta borrokan ari ziren bitartean, honako jazoera miragarri hau gertatu zen: athenastar batek -Epizelo, Kuphagorasek semeak- aurkaketa hartan kemen adoretsuz borrokan ziharduela eta bere gorputzeko ezein aldetan zauririk jaso gabe, ikusmena galdu zuela; eta orduz geroztik itsu jarraitu zuen bere bizitza osoan. Eta beraren zorigaiztoari buruz istorio hau kontatzen omen zuela entzun dut: hoplita erraldoi bat zetorkiola iruditu omen zitzaioela, haren bizarrak ezkutu osoa estaltzen zuelarik; baina agerkari hark beraren albotik iragan eta beraren aldamenean zegoen soldadua hil omen zuela. Hauxe da, beraz, nik entzunaren arabera, Epizelok kontatzen zuena.

118. Bitartean, Datis Asiarantz zihoan flotarekin eta, Mykonora iristean, irudipen bat izan zuen ametsetan. Izatez, ez da zehazten zertan zetzan irudipena, baina eguna argitu bezain laster untziak arakatzeko agindua eman zuen eta, untzi pheniziar batean urrebitseztaturiko Apoloren imajina bat aurkitzean, ea non ebatsi zuten jakin gura izan zuen, eta zein tenplutakoa zen jakinarazi ziotenean, Delora abiatu zen berbera bere untzian; eta deloarrak ordurako beren uhartera itzuliak zirenez, imajina hura santutegian utzi zuen eta Thebasko lurraldean aurkitzen den Deliora eraman zezatela agindu zien deloarrei (herri hori kostaldean dago, Khalzisen aurrez aurre). Agindu hori eman eta berehala berriksasoratu zen Datis, baina deloarrak ez zuten eraman estatua hura, baizik eta thebastarrak eurak izan ziren handik hogeitaz urtera orakulu baten aginduz etorri eta imajina Deliora eraman zutenak.

119. Datis eta Artaphrenes beren untzietan Asiaratu zirenean, esklabo harturiko eretriar haiek Susaraino eraman zituzten. Eretriarrak gatibu egin aurretik, Dario erregek gorroto handia zien, beraiek izan zirelako guduari ekin zioten lehenak; baina bere aurrera ekarrita ikusi zituenean eta bere menpe, ez zien kalte txikienik ere egin, baizik Arderika deritzon bere jabetzako eremu batean jarri zituen, Zisian; leku hori Susatik berrehun eta hamar estadiora dago eta hiru gai mota ekoizten dituen putzutik berrogei estadiora.

Izan ere, putzu horretatik asfaltoa, gatza eta olio atera dira, modu honetara: baldearen orde zahagi erdi bat eratxikirik daraman birabarki baten bidez ateratzen dira; horrekin irabiatzen eta ateratzen dute hondoko gaia, eta zisterna batera isurtzen jarraian, eta hortik, oraindik likido dela, beste depositu batera, zeinetatik hiru bide jarraitzen dituen: asfaltoa eta gatza behingoan sendartzen dira, eta olioari dagokionez, beltza da eta usain gogorra du, eta persiarrek radinaze⁸¹ deitzen diote. Hantxe lekutu zituen, bada, Dario erregek eretriarrak, eta leku horretan bertan jarraitzen zuten oraindik nire garaian ere, beren jatorrizko hizkuntza kontserbatuz.

120. Horixe izan zen, beraz, eretriarren zoria. Bitartean, ilbetearen ondoren, bi mila soldadu lazedemondar iritsi ziren Athenasera, sasoz hartzeko hain ahalegin handian, non Spartatik irten eta bi egunen buruan iritsi baitziren Athenasera. Eta borrokaldia burutu eta gero heldu baziren ere, mediarrak ikusteko gogoaz azaldu zuten; horrela, Marathonera joan eta hantxe ikusi zituzten gorpuak. Jarraian,

athenastarrei zorionak eman ondoren egitandi hura burutzearren, beren aberrira itzuli ziren.

121. Harritzen nauena, berriz -eta nik ezin dut halako esamesik sinetsi-, zera da, alkmeonidek inoiz persiarrekin elkar hartu eta ezkutua jasoz haiei zeinu egitea, Athenas barbaroen eta Hiplasen uztarpera ekartzeko asmoz; zeren familia horretakoek argi asko erakutsi baitute -Kalias, Pheniporen seme eta Hiponikoren aita bezainbeste edo gehiago-tiraniari dioten erabateko arbuioa. Izan ere, Kalias izan zen Estatuak enkantean jarritako Pisistratoren ondasunak erosten ausartu zen athenastar bakarra, hura Athenastik erbesteratu zutenean; eta haren kontrako beste ekintza asko ere asmatu zuena, gainera, inolako errukirik gabe.

122. ⁸⁴(Kalias honek mundu guztiaren oroitzapena merezi du arrazoi askorengatik. Lehenik eta behin, goian aipatu dudanagatik, hots, bere aberriaren askatasuna suharki defendatu zuelako; baina baita Joko Olympikoetan lortu zituen garaipenengatik ere, zaldi lasterketan garaile izan baitzen eta koadriga lasterketan bigarren, eta lehenago ere Joko Pythikoetan garaile, Helade osoaren aho-mihietan ibili zirelarik haren diru eralki izugarriak.

Gainera, hark argi eta garbi erakutsi zuen zer gizon mota zen, azkenez, zituen hiru alabekin; izan ere, ezkontzeko adinera heldu zirenean, dote ezin oparoagoa eman zien eta beraien nahierara ezkondu zituen, athenastar guztien artetik bakoitzak berak senartzat hautaturiko gizonarekin.)

123. Eta alkmeonidek ere ia Kaliasen beste arbuiatzen zituzten tiranoak. Hortik ni horrenbeste harritzea eta haiek ezkutua jasoz zeinu egin zutela dioten salaketa ez onartzea, nortzuek eta haiek hain zuzen ere, denbora guztian erbestean bizi behar izan zutenak tiranoengandik ihesi, eta Pisistratidei tirania utziarazi zieten azpilanen eragile izan zirenak. Neure iritzirako, berriz, beraiek izan ziren Athenasen askatzaileak, Harmodio eta Aristogiton eurak baino neurri handiagoan; azken hauek, izan ere,

Hiparkho erailtzean, gainerako Pisistratidak sumindu egin zituzten eta ez zuten lagundu inola ere tiraniarekin bukatzen; eta alkmeonidek, ordea, baldin eta berauek izan baziren, lehenago azaldu dudan bezala, Pythia limurtu zutenak lazedemonдарrei Athenas aska zezatela agin ziezaien, bai askatu zutela dudarik gabe hiria.

124. Baten batek esan lezake, hala ere, herri athenastarrarekin dena delakoagatik mindurik zeudelako traizionatu zutela agian beren aberria. Baina, izatez, Athenasen bertan ez zegoen beste familiarik haiek baino beso luzeagoa zukeenik edo ohore gehiago jaso zuenik. Beraz, sen onak ez digu uzten sinesten hain zuzen ere beraiek ziratekeenik ezkutua jaso eta halako asmoarekin zeinu egin zutenak. Zeren zeinua bai egin zela, egin, ezkutua jasoz, eta hori ezin da bazterrera utzi; halaxe gertatu baitzen; baina esandakoaz gain, nik ezin dut zehaztu nor izan zen zeinu hura egin zuena.

125. Izatez, alkmeonidak antzinatik gailendu ziren Athenasen, baina Alkmeonez geroztik, eta jarraian Megaklesez geroztik, iritsi ziren gailurrera. Izan ere, Alkmeon, Megaklesen semea, Kresoren aginduz Delphosko orakuluari aholku eskatzera Sardestik etorritako lydiarren esanetara jarri zen eta arta handiz lagundu zituen; eta Alkmeonek egiten zizkion mesede horien berri izan zuenean Kresok orakuluetara etorritako lydiarren ahotik, Sardesera gonbitea bidali zion, eta hara aurkeztu zenean, eramandaldi batez eramane zezakeen urrea oparitu. Opari haren aurrean, Alkmeonek honela jokatu zuen: tunika luze bat jantzi zuen, barrenean plegu zabal batekin, aurkitu ahal izan zituen ur-bota zabalenak jantzi zituen halaber, eta adierazi zioten altxor ganbarara sartu zen. Han, urre-hautsaren meta baten gainera jauzi

egin eta botek har zezaketen urre guztiaz hankak goitik behera bete ondoren, tunikaren plegua ere bete-bete egin zuen, ilea urre-hautsez blaitu zuen eta, ahoan ere ahal zen guztia sartuz, altxor ganbaratik botak ozta-ozta herrestan zeramatzala irten zen, gizonaren figurarik gabe, zeren masailak urrez puztuta eta gorputz osoa urrez lepo baitzuen.

Kresok horrela ikusi zuenean, ezin eutsi izan zion barreari, eta ez soilik urre hura guztia, baizik beste erregalu batzuk ere egin zizkion, ez eskasagoak. Horrelaxe lortu zuen familia hark dirutza hain handia, eta hortik Alkmeon koadriga jabe bihurtzea eta Joko Olympikoetan garaile ateratzea ere.

126. Gerorantz -belaunaldi bat geroago-, Klisthenesek, Sizyongo tiranoak, etxe horren garrantzia hain punturaino igo zuen, non ordurarte zuena baino ospe askoz handiagoa iritsi baitzuen Heladen. Izan ere, Klisthenesek -Aristonymoren seme, Myronen iloba eta Andreasen birloba- alaba bat zuen Agarista zeritzona. Honentzat heleniar guztien artetik gailenenaren bila zebilen, ezkontitza emateko. Eta hara non, Joko Olympikoak burutzen ari zirela -beraren koadrigarekin garaipena lortu zuen hartan-, Klisthenesek bando bat atera zuen, beraren suhi bihurtzeko duin zela uste zukeen edozein heleniar Sizyonera aurkez zedila aldarrikatuz, hirurogei egunen buruan edo lehenago ere, zeren egun horretatik urtebeteren barruan ospatzea gura zuelako ezkontza. Orduan, bere buruaz eta aberriaz harro sentitzen ziren heleniarrak oro hasi ziren senargaitzat aurkezten. Horretarako berariaz estadio bat ere eraiki zuen Klisthenesk, palestra eta guzti, bertaratu nahi zutenentzat.

127. Horrela ba, Italiatik Smindyrides Sybariskoa, Hipokratesen semea -bere apetetan azken muturreraino iritsi zen

gizona (eta garai hartan Sybaris erpinean zegoen)-, eta Damaso siristarra Amyrisena (zeini "Jakintsua" deitzen zioten) etorri ziren.

Horiek Italiatik etorri ziren, beraz, eta Joniar Golkotik Anphimnesto epidamnoarra, Epistrophoren semea; hori Joniar Golkotik aurkeztu zen. Eta etoliar bat ere aurkeztu zen, Titormoren anaia (Titormo ospetsu hura, indarrean parekorik ez zuena Heladen eta gizakiengandik alde egin zuena Etoliako bazterrik ezkutuenera), Males zeritzona.

Peloponesotik Leozedes aurkeztu zen, Argosko tirano izandako Phidonen semea (Phidon haxe izan zen peloponesoarren artean pisu eta neurrien sistema finkatu zuena eta, zalantzarik gabe, Helade osoko pertsonarik harroputzena, Joko Olympikoen mahaiburuan zeuden elearrak kendu eta berak pertsonalki antolatzeraino lehiaketa); eta gizon horren semeaz gain, Amianto Lykurgorena, jaiotzaz Trapezunteko arkadiarra, jaiotzaz Peo hiriko azaniarra zen Laphanes Euphorionena -zeinek, Arkadian kontaten dutenez, Dioskuroak hartu zituen bere etxean, eta ordutik aurrera mundu guztiari ematen baitzion ostatu-, baita Onomasto deitzen zioten elear bat ere, Ageoren semea. Horiexek izan ziren, beraz, Peloponesotik bertatik aurkeztu ziren ezkongaiak.

Athenastik Megakles etorri zen, Alkmeonen semea (Kresorenera joan zen Alkmeonena, hain zuzen), eta berarekin batera Hipoklides, Tisandroren semea, Athenasko hiritarrik aberats eta txairoena. Eretriatik, garai hartan oparotasun joridun lurraldea, Lysanias etorri zen, Eubeatik aurkeztu zen bakarra.

Thesaliatik Diaktorides Kranongoa aurkeztu zen, skopaden familiako kidea; eta molosoen herrialdetik, Alkon.

128. Horra hor, bada, aurkeztu ziren ezkongaien zerrenda. Izendaturiko epean iritsi zirenean, Klisthenesek, beste ezer baino

lehen, haietariko bakoitzaren aberriaz eta jatorriaz informazioa bilatzeari ekin zion; gero, bere aldamenean izan zituen urtebetez, bakoitzaren balioa, apetak, heziera eta adiurrea probatzeko, dela banango solasaldietan dela taldeko bileretan jardunez, eta haietariko gazteenak gimnasia ariketetara eramaten zituen; baina arreta handienaz mahaian probatu zituen; horixe guztiori egin zuen, bada, ezkongaiok aldamenean izan zituen bitartean, eta, gainera, eskuzabaltasun eta arrandiaz hartu zituen. Bada, atseginen zitzaizkion ezkongaiak Athenastik aurkeztutako biak ziren, eta biotatik Hipoklides Tisandrorena zuen gogokoen, bai beronen giza balioengatik, baita Korinthoko Zypselotarren senitartekoa zelako arbasoei dagokienez.

129. Ezkontza ospakizunetarako jarritako eguna eta Klisthenesek ezkongai guztien artetik senartzat izendatu behar zuena izendatzeko ordua heldu zenean, ehun idi sakrifikatu zituen eta oturuntza bat eskaini zien senargaiei beraiei eta Sizyongo herritar guztiei. Bazkalostean, senargaiek musikaz eta jendaurreko bokantzaz jardun zuten. Bazkalondoa aurrera zihoala, Hipoklidesek, zeinen azkartasunak beste guztiena askogatik gaingitzen zuen, dantza-musika jo zezala eskatu zion xirulariari, eta honek eskabidearen arabera jotzerakoan, hura dantzan hasi zen.

Dirudienez, Hipoklides bera oso gustura zebilen bere dantzaz gozatzen, baina Klisthenes goganbehartzen hasi zen ikuskizun haren aurrean. Jarraian, atsedentxo baten ondoren, Hipoklidesek mahai bat ekar zezala agindu zion norbaiti, eta, mahaia ekarri zutenean, lehenbizi zilipurdi lakoniar batzuk egin zituen haren gainean, gero jatorri atikarreko beste zenbait ere, eta hirugarrenik, burua mahai gainean jarrita, pantomima batzuk egin zituen hankekin. Lehen bi dantzen ondoren, Klisthenesek

bazterrera utzi zuen jada Hipoklides hura bere suhi izatearen ideia, dantza hartako arinkeriarengatik, baina ez zuen esan ezer, harekin sesiorik ez zuelako gura; baina hankekin pantomimak egiten ikusi zuenean, ezin eutsi izan zion gehiago eta hauxe esan zion: "Oso ondo, Tisandroren seme, baina hire dantza horiekin pikutara bidali duk ezkontza". Hipoklidesek, ordea, zera erantzun zion: "Hipoklidesi bost axola"; orduz geroztik atsotitz bihurtu dena.

130. Klisthenesek, orduan, isil zitezela agindu eta honelaxe hitz egin zien gonbidatu guztiei: "Nire alabaren senargaiok, nik gorespenak besterik ez ditut zuontzat denontzat, eta, ahal balitz, guztion gustua egitea litzaidake laket, zuetariko bat bakarra hautatu eta besteak baztertu beharrik gabe. Baina, ezinezko zaidanez neska bakarraren etorkizuna zuen guztion gustua eginez erabakitzea, ezkontza honetatik at geratuko zaretenoi zilarrezko talentu bana emanen dizuet, nire alabarekin ezkontzera aurkeztearren eta zuen aberritik kanpo egon izatearren; eta Agariste nire alabaren ezkontitza, azkenez, Megakles, Alkmeonen semeari damaiot, athenastarren legearen arabera". Megaklesek, orduan, ezkontitza onartzen zuela adierazi zuen eta ezkontza berretsia geratu zen Klisthenesen aldetik.

131. Horixe guztia gertatu zen senargaien hautaketa hartan, eta halaxe zabaldu zen Heladen zehar alkmeoniden entzutea.

Ezkontza horren fruituz Klisthenes jaio zen, tribuak eta erregimen demokratikoa ezarri zuena Athenasen, eta izen hori amagandiko aitona zuenaren (Sizyongo tiranoaren) oroimenez ipini zioten. Klisthenesek gain, Megaklesek Hipokrates ere izan zuen, zeina beste Megakles baten eta bigarren Agariste baten aita izan zen (hau ere Klisthenesen alabaren oroimenez Agariste). Azken hau Xanthipo Aripnorenarekin ezkondu zen, eta, haurdun zegoen bitartean, irudipen bat izan zuen ametsetan: lehoi batez erditzen zela iruditu zitzaion, eta handik egun gutxitara seme bat eman zion Xanthipori: Perikles.

132. Marathongo hondamendi persiarraren ondoren, Miltiadesen ospea, lehenago ere handia bazen athenastarren artean, orain handiagotu egin zen.

Orduan hirurogeita hamar unti eskatu zizkien athenastarrei, hala nola tropak eta dirua, baina zein herrialderen aurka joateko asmoa zuen esan gabe; haxe besterik ez zien esan, jarraitzen baldin bazioten, oso aberats egingo zituela; zeren hain herrialde oparora eroango zituela, non zakukada urreak ekarriko baitzituzten bertatik erraz-erraz; argumentu horiekin eskatu zituen untiak; eta athenastarrek, agindu horiez liluraturik, eman egin zizkioten.

133. Miltiades gudarostearen buruan jarri eta Paroren aurka itsasoratu zen, paroarrak berak izan zirela argudiatuz lehenbizi eraso egin zutenak, triere batekin etorri zirenean Persiarrarekin batera Marathonen aurka. Hori, jakina, aitzakia besterik ez zen, eta paroarrei zien herra zegoen sakonean, jatorriz Parokoa zen Lysagorasek, Tisiasen semeak, Hydarnes persiarraren aurrean kalumniatu zuelako.

Untziekin jomugara iritsi zenean, harresi barrutian bildutako paroarrak setiatu zituen bere armadarekin eta heraldo bat bidali zien ehun talentu exigitzera, ezpabere handik ez zituztela tropak erretiratuko eta haiek suntsitu arte. Paroarrak, ordea, ez zuten une batez ere planteatu Miltiadesi diru asko ez gutxi ematerik, baizik eta hiria defendatzeko modua aztertzeari ekin zioten, eta, hartu zituzten beste neurri batzuen artean, harresiak lehendik zuen altuera bikoiztea erabaki zuten, gauaren babesera, ahulenak zituen guneeetan.

134. Hortaz, puntu horretaraino heleniar guztiak bat datoz, baina hortik aurrera paroarrak beren bertsioa ematen dute, hurrengo haxe, ondoren gertatu ziren jazoerez.

Miltiades zer egin ez zekiela aurkitzen omen zen, paroar nazionalitateko emakume gatibu batekin, Timo zeritzona eta Lurpeko

Jainkosen⁸³ tenpluan zerbitzaria zena, mintzatu zenean; emakume hau Miltiadesen aurrera aurkeztu zen eta hauxe aholkatu zion, Paro hartzeko hain gogo bizia bazuen, berak ziotsonari kasu egitea zeukala. Jarraian, gatibuak zenbait aholku eman zion eta Miltiades, orduan, hiriaren aurrez aurre dagoen muino gainera joan zen; eta, ateak ireki ezin zituenez, jauzi batez iragan zuen Demeter Thesmofororen santutegiko hesia; ondoren, tenplu barrura sartu zen han zerbait egitera, dela objektu sakraturen bat lekuz aldatu, dela beste zerbait. Jada atarian aurkitzen zela, izuikara bortitz batek astindu zion bat-batean gorputz osoa, eta, arrapaladan zetorrenean lehengo bidetik bueltan, horma gainetik itsumustuan jauzi egitean izterra trokatu omen zuen; beste zenbaiten arabera, belaunean hartu zuen kolpea.

135. Horrela, osasunez gaizki zela, Miltiadesek itzulerako bidea hartu zuen bere flotarekin, athenastarrentzako dirurik gabe eta Paro konkistatu gabe; hogeita sei egunean zehar hiria setiatu eta uhartea arpilatu besterik ez eginik. Paroarrek, beren aldetik, Timo, Jainkosen tenpluko zerbitzariak Miltiadesi zenbait informazio eman ziola jakin zutenean, setiotik aske geratu bezain laster, aholku-hartzaileak bidali zituzten Delphosera, egin zuenagatik emakume hari zigorra ezarri nahi baitzioten, zera galdetzeraz orakuluari, hots, ea Jainkosaren tenpluko zerbitzariari heriotza ezarriko zioten beren aberria nola konkistatu adieraztearren etsaiei eta gizonezkoentzat sekretuak diren erritoak ezagutaraztearren Miltiadesi. Baina Pythiak ezetz esan zien, Timo ez zela izan eta gertatutakoaren erantzule, baizik, patuak nahi zuenez Miltiadesek azken ondikoa jasatea, agerkari gisa agertu zitzaiola hari, hondamendira eraman zezan.

136. Horixe esan zien, bada, Pythiak paroarrei; bitartean, Parotik itzultzean, athenastar askoren aho-mihietan zebilen Miltiadesen izena, kritika horietan Xanthipo Aripbronena nabarmentzen

zelarik, honek athenastarrak engainatzeaz salatu baitzuen herriaren aurrean⁸⁴ eta heriotza-zigorra eskatu harentzat. Nahiz eta Miltiades herriaren aurrera etorri, ez zuen berak bere burua defendatu (ez baitzegoen, egon ere, hori egiteko moduan, izterreko gangrena harekin), baizik beraren lagunak izan ziren hura defendatzeko ardura hartu zutenak, Miltiades bera ohatila batean epaimahaiaren aurrean etzanda zegoen bitartean; Marathonen burututako borrokaldia eta Lemnoren konkista ekarri zituzten gogora, uharte hura hartu eta pelasgiarrak zigortu ondoren, Lemno athenastarrei entregatu ziela nabarmenduz. Herria, orduan, haren alde makurtu zen, heriotza-zigorraz askatuz, baina berrogeita hamar talentuko isuna ezarri zion, egindako huts hargatik. Handik lasterrera, izterreko gangrena haren zolduraz, Miltiades hil egin zen eta beronen semeak, Zimonek, ordaindu zituen berrogeita hamar talentuak.

137. Miltiadesek, Zimonen semeak, era honetara eskuratu zuen, berriz, Lemno. Dena hasi zen athenastarrek pelasgiarrak egotzi zituztenean Atikatik; egiatan, nik ezin zehaz dezaket hori zuzentasunez ala bidegabeki egin zuten, baizik horri buruz kontatzen dutena azaldu bakarrik. Batetik Hekateok, Hegesandroren semeak, hura zuzengabekeria izan zela esanez kontatzen du kasua bere Historian. Haren arabera, athenastarrek Hymeso barreneko lur haiek ikusi zituztenean -pelasgiarrei beren beregi athenastarrek berek emandakoak, antzina Akropolia inguratzen zuen murraren ordainetan hantxe bizi zitezen-, lehenago antzuak eta baliogabeak izandako lur haiek orain emankorki landuak zirela ikustean athenastarrek, horien inbidia izan omen zuten eta eskualde hura berreskuratzeko gogoak piztu; eta hortik athenastarrek haiek egozteak, beste ezein motiborik gabe.

Alabaina, athenastarren euren arabera, arrazoi osoz egotzi omen zituzten. Izan ere -diote-, pelasgiarrek, Hymeso barrenean bizi zirelarik, athenastarrak eurak laidotzeko abiapuntutzat erabiltzen omen zuten leku hura, era honetantxe: Athenasko neskatoak "Bederatzi Turrustadun Iturrira" joaten omen ziren uretan

-garai hartan ez baitzegoen oraindik miraberik, ez Athenasen ez gainerako Heladen- eta, neskatoak hara joaten ziren bakoitzean, pelasgiarrek gaizki hartzen omen zituzten, ozarkeria lotsagabez. Baina ez bide ziren horretara mugatu, baizik eta azkenean estatu-kolpe bat antolatzen atzeman omen zituzten. Orduan beraiek -diote athenastarrek-pelasgiarrek baino gizalege handiagoz jokatu zuten, zeren, haiek suntsitzeko eskubide osoa zuten arren (konplot bat antolatzen harrapatu zituzten eta), ez zuten horrelakorik egin, baizik herrialdetik kanporatzera behartu soil-soilik. Horrelaxe utzi zuten pelasgiarrek Atika eta, beste leku batzuen artean, Lemno hartu zuten bizilekutzat. Esan bezala, lehen bertsioa Hekateorena da, eta bigarren hau athenastarrena.

138. Bada, garai honetan Lemnon bizi ziren pelasgiarrok, athenastarrez mendekatzeko gogoz zeudenez eta hauen ospakizunak zehazki ezagutzen zituztenez, zenbait pentekonteretan etorri eta emakume athenastarrei segada jarri zieten, Artemisen ohorezko jai bat ospatzen ari zirela Brauronen. Horrela, emakumeetariko gehienak leku hartatik bahituz, Lemnora itzuli ziren emakumeekin eta han ohelaguntzat hartu zituzten. Emakume horiek haurrak ekarri ahala, Atikako hizkera eta Athenasko ohiturak erakusten zizkieten beren seme-alabei. Eta umeok ez zuten nahi harremanik emakume pelasgiarren seme-alabekin, eta azken hauek beretarikoren bati erasoren bat egiterakoan, denak batera joaten zitzaizkion sorostera, elkarri laguntza emanaz horrela; are gehiago, ume horiek pelasgiarren seme-alabei aginduak emateko eskubidearekin sentitzen ziren eta hauei erraz gailentzen zitzaizkien.

Pelasgiarrek horretaz ohartu zirelarik, arazoaz eztabaidatzera bildu ziren eta halako kezka sakon hau sortu zitzaien auzia aztertzerakoan, hots, ea ume haiengandik zer espero zezaketen etorkizunean, denborarekin gizon egindakoan, dagoeneko beren

zilegizko emazteen seme-alaben aurka egiteko horrela elkar hartzen zutenean eta umetatik hasita aginduak ematen saiatzen zirenean. Pelasgiarrek, orduan, emakume atikarrekin izandako umeak hiltzea erabaki zuten. Eta egin ere halaxe egin zuten, amak ere erahilez umeekin batera. Krimen horregatik, eta arestian, Thoasen garaian, emakumeek burutu zutenagatik beren senarrak asasinatzean, krimen higuingarri guztiei "lemniak" deitzeko ohitura hedatu zen Heladen.

139. Beren seme-alabak eta emazteak ere asasinatu ondoren, lurak ez zien fruiturik ematen pelasgiarrei, eta ez emakumeak ezta saldoak ziren lehen bezain ugalkor. Orduan, gose eta antzutasun haren aurrean, Delphosera mezulariak bidaltzea erabaki zuten, jasaten ari ziren lazeria haien kontrako irtenbideren batez galdetzeraz. Eta Pythiak zera erantzun zien, athenastarrei berauek eska ziezaizkieten kalteordainak oro eman beharko zizkietela. Ondorioz, pelasgiarrek Athenasera abiatu ziren, egindako kalte guztiagatik ordaintzeko prest zeudela adieraziz.

Athenastarrek, beren aldetik, diban bat ipini zuten prytaneoan, apaindura ederrenez hornitua, eta aldamenean mahai bat, era guztietako jangaiez betea, honako hau esanez: "Entrega egiguzue zuen lurraldea modu horretantxe". Eta pelasgiarrek orduan, aski ongi jakinez beren proposamen hau bete ezina izango zela -zeren Atika Lemnotik urruti baitago hegoaldera-, honela erantzun zieten: "Iparraizearen laguntzaz zuenetik gurera untziren bat irits dadinean egun bakar batean, orduantxe entregatuko dizuegu".

140. Horixe besterik ez zen gertatu orduan. Baina handik urte asko eta askotara, Helespontoko Khersonesoa athenastarren menpera etorri zenean, Miltiades, Zimonen semea, Khersonesoko

Eleuntetik Lemnora igaro zen untzi batean haize etesioen⁸⁵ laguntzaz, eta, euren ustez sekula ere beteko ez zen orakulu hura gogoraraziz pelasgiarrei, uhartetik alde egin zezatela ohartarazi zien. Orduan, hephestiarrek haren agindua bete zuten; baina Myrinakoak, ordea -Khersoneso Atikarena zela onartu gura ez eta-, setiatu egin zituzten, haiek ere azkenean Miltiadesen borondatera makurtu beharra izan zuten arte. Horra, bada, Lemnoz nola jabetu ziren athenastarrak, eta konkretuki Miltiades.

VII. LIBURUA

1. Marathonen egindako borrokaldiari buruzko berria errege Dario Hystaspesenaren belarrietara heldu zenean, athenastarrek Sardesen kontra eginiko erasoagatik haiekin jada haserre zen monarka oraindik askoz gehiago haserretu zen eta Heladeren kontra espedizio bat bidaltzeko gogo bizia sortu zitzaion. Denborarik galdu gabe, bada, mezulariak bidali zituen hiri ezberdinetara tropak prestatzeko aginduarekin, herri bakoitzari lehenago baino gerrauntzi, zaldi, janari eta garraiuntzi gehiago ekartzeko galdutuz.

Neurriok bor-bor jarri zuten hiru urtez Asia guztia, Heladeren kontra joateko gizonik onenak erreklutatzen eta horretarako behar ziren prestakizun guztiak egiten buru-belarri lanean. Halatan, laugarren urtean, Kambysesek esklabo egindako egyptoarrak persiarren aurka jaiki ziren. Horregatik Dariori herri biok batera erasotzeko gogo zorrotza piztu zitzaion.

2. Baina Dario Egipto eta Athenasen aurkako prestakizunak egiten ari zen bitartean, kalapita gogorra sortu zen haren semeen artean gorengo agintaritza zela-eta, haiek ziotenez, Persiako legearen arabera, Erregek gerran sartu aurretik bere erreinurako oinorde bat izendatu behar zuelako. Dariok errege izan baino lehenago hiru seme izan zituen bere lehenengo emaztearekin, Gobryasen alabarekin, eta errege izan ondoren beste lau, Atosa Zyroren alabarekin; lehenengo semeetatik Artobazanes zen zaharrena eta bigarren semeetatik Xerxes; eta ama ezberdinenak zirenez, oinordekotza lortzeko lehian hasi ziren. Artobazanesek Darion haur guztietatik zaharrena bera zela eta zaharrena agintera heltzea nonahi onarturiko ohitura zela zerabilen bere erreklamazioa oinarritzeko; Xerxesek, ordea, bera Atosa Zyroren alabaren seme zela eta persiarren askatasuna lortu zuena Zyro zela.

3. Ez zuen Dariok oraindik horretaz bere erabakia ezagutzera eman, aldi hartan Susara Demarato Aristonena etortzea gertatu zenean, Spartako tronua galdu eta Lazedemondik bere borondatez atzerriraturik.

Darioren semeen arteko liskarraren berri izanik, gizon honek, historiak berari buruz dioenez, Xerxes ikustera joan eta zera aholkatu omen zion: zerabiltzan arrazoiez gain, honako hau alegatzeko, alegia, bera Dario jada errege eta Persiako agintari nagusi zen garaian sortua zela, Artobazanes, ordea, Dario oraindik menpeko soil zela jaioa zen bitartean; eta ez zela ez arrazoizko ez bidezko, beraz, bera ez zen beste inor erregetzaren jabe izatea, Spartan ere -gehitzen zuen Demaratok bere aholkuan- horixe zen eta betidaniko ohitura: monarkak tronuratu aurretiko semeak baldin balitu eta, geroago, errege dela, beste semeren bat balu, azken hau izan ohi zen erregetzaren oinorde. Eta, Xerxesek Demaratoren aholkuari jarrai jokatu zuelarik, Dariok hark arrazoi zuela ikusi eta oinordeko izendatu zuen. Baina, ene ikusirako, aholku hura bete gabe ere Xerxes errege izatera hel zatekeen, Atosak botere guztia bereganaturik zuelako.

4. Xerxes erregegai izendatu ondoren, Dario espedizioan joateko prestatu zen. Baina egitate hauetatik eta Egiptoko erreboltatik urtebetera Dario heriotzak jo zuen, prestakizunetan zebilela, erregetzan guztira hogeita hamasei urte egin ondoren; ez zuen, beraz, egiptoarren errebolta zapaltzerik ez athenastarrak zigortzerik izan.

Dario hilda, errege-boterea haren seme Xerxesek hartu zuen.

5. Horiek horrela, Xerxesek hasiera batean ez zuen Heladeren kontra joateko inolako interesik, baizik eta Egiptoren

aurkako armada eratzen zebilen soil-soilik. Baina Mardonio Gobryasenak -Xerxesen lehengusua berau, Darioren arrebaren semea zelako-, beti erregearekin zebilena eta harengan eragin handiena zuen persiarra izanik, bere mintzaldia honelaxe arrazoituz hitz egin zion erregeri: "Jauna, onartezina da, ezer bada, athenastarrak beren gaiztakerien zigorra jaso gabe gelditzea, persiarroi egin dizkiguten txakurkeria guztiak egin eta gero. Egia da orain eskuartean duzuna egin behar duzula, baina Egyptoko errebolta ito ondoren gida ezazu zeure armada Athenasen kontra, gizonen artean ondo merezitako ospea izan dezazun eta hemendik aurrera mundu guztia zure erresuma inbaditzetik begira dadin".

Mardoniok argudio hori mendekuarren zerabilen, baina horri honako arrazoi hau gehitzen zion: Europa lurralde oso eder eta emankorra zela, edozertariko frutarbolak ematen zituena, hilkor guztien artean Erregea bakarrik zelarik lurralde bikain haren jabe izateko duin.

6. Mardoniok abentura gose zelako eta Heladeko gobernari izan nahi zuelako zioen hori. Eta azkenean lortu egin zuen eta konbentzitu egin zuen Xerxes berak esandakoa egin zezan, beste gauza batzuk ere gertatu zirelako Xerxes konbentzitzen lagundu ziotenak. Lehenik, Thesaliatik aleuastarrek bidaliriko mezulariak etorri ziren interes handiaz erregeri Heladen esku hartzeko eskatzera (aleuastarrak Thesaliako erregeak ziren); eta bigarrenik, Pisistratoren familiako kide batzuk Susara etorri eta aleuastarren eskari bera egin zioten eta, gainera, Xerxesi haiek baino gehiago eskainiz.

Hauekin Onomakrito ere etorri zen, Museoren orakuluak bildu zituen athenastar igarle bat, Pisistratidak beronekin lehenago izandako haserrearen ondoren adiskideturik zeudelarik. Izan ere, Onomakrito hori Hiparkho Pisistratorenak atzerriratu

zuen Athenastik, Hermioneko Lasok Museoren orakuluen tartean Lemno inguruko uharteak itsasoan desagertuko zirela zioen igarkizun bat jartzen harrapatu zuelako. Horixe zela-eta atzerriratu zuen Hiparkhok, ordurarte lagun minak izan ziren arren. Orduan, bada, Pisistratidekin etorri zen Susara; eta Erregerekin egon zen guztian Pisistratidek haren gorespen handiak egin zituzten eta bera orakuluak errezitatzen hasten zen. Orakuluotan persiarrentzako hondamendirik agertuz gero, horretaz ez zuen ezer esaten eta beraien aldekoenak aukeratu eta errezitatzen zituen, persiar batek Helespontoren gainean zubi bat luzatuko zuela esanez eta espedizioa nola burutuko zen zehaztuz.

Horrela, Onomakrito bere orakuluez eta Pisistratidak eta aleuastarrak beren aholkuez Xerxesengan eragina izaten ahalegindu ziren.

7. Azkenean Helade erasotzea erabaki zuenean, Xerxes lehenbizi erreboltarien aurka joan zen, Dario hil eta urtebetera hain zuzen. Errebelamendua zapaldu eta Darioren garaietakoa baino esklabotza latzagoaren pean jarri zuen Egipto; eta hura gobernatzea bere anaia Akhemenes Dariorenaren ardurapean utzi zuen. Akhemenes gero, Egiptoko gobernari zela, Inaro Psametikhorenak hil zuen.

8. Egipto konkistatu ondoren, Athenasen kontrako espedizioa eskuartean hartzera zihoala, Xerxek Persiako pertsonaia printzipalak bilarazi zituen, haien iritziak jaso eta guztiei bere asmo eta nahiak azaltzeko. Bildu zirenean, honelaxe mintzatu zitzairen Xerxes: "Persiarrok, hau ez da nik neuk hona ekarri eta agintzen dizuedan legea, neuk ere hartu eta bete behar dudana baizik. Gure zaharragoei entzuna diedan bezala,

Zyrok Astyages boteretik eraitsi eta mediarrei daukagun inperioa kendu genienetik sekula ere ez dugu orain arte bake-politikarik jarraitu, aitzitik, jainkoen nahia horixe denez, abantailatsu irteten gara burutzen ditugun gerra ekintza ugarietan. Zentzu honetan ez dut aipatu beharrik ere Zyrok, Kambyesek eta Dario nire aitak menperatu eta gure erresumari erantsi zizkioten nazioen kontua, hori guztia ondo dakizue-eta. Baina niri dagokidanez, tronu honetara igo nintzenetik, aginte-postu honetan neure aurretik izan ditudanak baino gutxiago ez izatekotan eta persiarrentzat haiek baino botere gutxiago ez irabazteko pentsamenduetan ibili naiz; eta neure pentsamenduotan konbentzitzera heldu naiz ospe handiagoa ez ezik, orain daukaguna baino herrialde txikiagoa eta txarragoa barik, emankorragoa erdiets dezakegula; eta bide batez mendekua eta irainen ordaina ere bai. Horrexegatik bilarazi zaituztet orain: neure asmoen berri denoi emateko.

Helespontoaren gainean zubi bat hedatu eta Europan barrena Heladera neure armada eramanez nahi dut, athenastarrak zigortu ahal ditzadan haiek persiarrei eta nire aitari egindako oker guztiengatik. Ikusi zenuten Dario nire aita morroi horiei erasotzera zihola. Baina orain hilda dago eta ezin izan ditu zigortu; horregatik nik, haren izenean eta persiar guztienean, ez dut bakerik izango Athenas hartu eta sutan kiskali arte, hango jendeak nire aitari eta niri, guk horretarako inolako biderik eman gabe, egin diguten okerragatik; lehenengo Sardesera etorri ziren Miletoko Aristagorasekin -gure esklaboa berau!- eta su eman zieten leku sakratu eta tenpluei; gero denok dakizue, nonbait, zer egin ziguten Datis eta Artaphrenes jeneral zirela haien kostetara iritsi ginenean.

Arrazoi horiexengatik erabaki dut haiei erasotzea; gainera, pentsatzen jartzen naizenean, ikusten dut ekintza horrek abantaila hauexek guztiak dituela guretzat: jende horiek eta Pelope phrygiarraren herrialdean bizi diren horien auzokideak menperatzen baditugu, persiar lurraldearen mugak Zeusen ortzia izatea erdietsiko dugu, eguzkiak ez baitu gure mugetan beste naziorik ikusiko; zuen laguntzaz guztiak bat izatea lortuko dut, Europa guztia zeharkatu ondoren. Ditudan informeen arabera, behin aipatu ditudan herriak garaitu eta gure bidetik kendu eta gero, ez da munduan geratzen hiririk ez herririk, guri guduzelaian aurre egiteko gauza denik. Horretara, hala guri oker asko egindakoek nola errugabeek esklabo-uztarria jasan beharko dute.

Zuei dagokizuenetz, hauxe eginda poztuko nauzue bizikien: etortzeko ordua adierazten dizuedanean, zuetariko bakoitzak edozertarako prest etorri beharko du; eta armadarik hornituena dakarrenari gure artean preziatuentzat ditugun opariak emango dizkiot. Horixe guztia da, beraz, egin behar duzuen; baina inork pentsa ez dezan nik neure iritzia besterik ez diodala jaramonik egiten, zuen aurrean uzten dut gaia eta bere iritzia eman nahi duenari agertzeko eskatzen diot". Hori esanda, bere mintzaldia bukatu zuen.

9. Haren ondoren Mardoniok hitz egin zuen esanez: "Jauna, zeu zaitugu egundaino izan diren persiar guztien artean ezezik, izango direnen artean ere bikainena, zeren, zeure hitz guztietan zehatz eta azertuz mintzatzez gain, European bizi diren joniarrak ez baitiezu -horretarako inolako eskubiderik ez dute eta- guri burla egiten utziko. Izan ere, lotsagarria litzateke persiarroi inolako okerrik egin ez diguten sakak, indiarak, ethiopiarak, asyriarrak eta beste herri boteretsu asko menperatu eta esklabo egin baldin baditugu geure inperioa hedatu nahi hutsagatik, lotsagarri litzateke, diot, heleniarrak, guk horretaratu gabe erasoka hasi zaizkigunak, ez zigortzea.

Zeren beldur izan gaitezke? Haiek tropa ugari biltzearen edo aberastasun handien jabe izatearen beldur apika? Badakigu nola borrokatzen duten, badakigu haien aberastasuna urria dena. Azpiratu ditugu eta menpean ditugu haien ondorengoak, geure lurraldean bizi eta joniar, eoliar eta doriar deritzenak. Gainera nire neure eskarmentutik mintzo naiz, zeren, zure aitaren aginduei jarrai, morroi horien aurka joandakoa bainaiz: Mazedoniaraino egin nuen aurrera eta gutxi falta izan zitzaidan Athenasera bertara heltzeko ere, inor aurrera etorri gabe nire aurka borrokatzera. Edonola ere, ditudan berrien arabera, heleniarrek, harroputz eta tentel hutsak baitira, liskarretan hasteko ohitura dute, burugabeki hastekoa, ukan ere: elkarri gerra deklaritzen diotenean, guduzelai garbien eta leunena aukeratzen dute eta haraxe jaisten dira borrokatzera, eta hartara garaileek galera handiekin irteten dira, eta galtzaileei buruz zertarako ezer esan, suntsiturik geratzen baitira, jakina. Jende horiek, hizkuntza beraz mintzatzen direnez, beren ika-mikak heraldo eta mezularien bidez ebatzi behar lituzkete, edo beste edonola, guduzelaira baino lehenago. Eta gerrara jo beharra erabat ezinbesteko izanez gero, alde biak praktikan azpigaragaitz gertatzeko moduko toki bat bilatu beharko lukete eta beren indarrak han neurtu. Orain bada, heleniarrek hain desegokiro jokatzten duten arren, nik Mazedoniaraino aurrera egin nuenean, ez zitzaien horrelakorik egiterik, hau da, borrokatzerik otu. Horregatik, errege, nork egingo dizu zuri gerra, Asiako jendetzak eta haien untzi guztiak atzean dituzula ageri zaitezenean? Nik uste dut Heladen ez dagoela horrenbesteko ausardiarik, baina ni oker banengo eta haiek ausarkeriaz borrokara

baletozkigu, laster konturatuko lirateke munduko gudaririk onenak garela. Azken batean, ez dezagun utz ezer saialdirik egin gabe, berez ez da ezer lortzen eta, aitzitik, gizakiek saialdien bidez erdietsi ohi dute erdiesten duten guztia⁸⁶."

10. Xerxesen helburua hain trebeki ñabardu ondoren, Mardonioek bere mintzaldia bukatutzat eman zuen.

Orduan, beste persiarrak azaldukoaren kontrako iritzirik ematen ausartu gabe isilik zeudela ikusirik, Artabano Hystaspesenak, Xerxesen osaba aitaren aldetik, bere senidetasun horrek ausardia emanda, honako hau esan zuen:

"Errege, bata bestetik diferenteak diren iritzia azaltzen ez badira, ez dago hautabiderik onena aukeratzerik, azaldutakoarekin geratu beharra baizik; iritzi-kontrastea dagoenean, ordea, badago aukeratzerik -urregorri puruarekin gertatzen den bezalaxe: bera bakarrik dagoela ezin dugu bereizi, baina beste kalitate batekoarekin batera igurtzen dugunean berehala bereizten dugu zein den hobea-. Nik lehenago ere Dariori, zuk aita eta nik osaba genuenari, szythiarrak, bere lurralde guztian hiri bakar bat ere ez duen herria, ez erasotzeko aholkatu nion. Baina hark, szythiar nomadak menperatzeko esperantzaz, ez zidan kasurik egin eta espedizio bat antolatu zuen, eta bere armadako soldadu adoretso asko galduta itzuli zen. Orain zu, errege, szythiarrak berak baino gizon askoz ausartagoak, hala itsasoz nola lehorrez gudari bikaintzat dauden gizonak erasotzekotan ari zara. Horregatik, bidezko da zure egitasmoak daukan arriskua azal diezazudan.

Helespontoren gainean zubi bat eraiki behar duzula diozu, eta European barna armada bat gidatu behar duzula Heladeraino. Baina hondamendirik ere gerta daiteke lehorrean edo itsasoan, edo bietan ere, horiek adoretso fama baitute eta izan ere horrelakoxeak direla atera baitateke, kontuan hartuz gero athenastarrak, eurak bakarrik, izan zirela Datis eta Artaphrenes buru Atikara heldu zen armada boteretsua suntsitu zutenak. Jo dezagun,

edonola ere, ez direla alde bietan garaile ateratzen; baina gure untziei eraso eta itsas borrokaldian nagusitu ondoren Helespontorantz abiatu eta zubia jo eta eraisten baldin badute, orduan hortxe datza, errege, arriskua.

Nik neuk beldur horiek ez ditut sortzetiko argikusmenaren jabe naizelako, behin ia-ia gertatu zitzaigun hondamendiarengatik baizik, harako hartan zure aitak, Thraziako Bospororen gainean zubi bat eraikitzeke eta Istro ibaiaren gainean ere gauza bera egiteke agindu ondoren, szythiarrak erasotzeko zubiok iragan zituenean. Kanpaina hartan, szythiarrak, edozertariko argudioak erabiliz, Istroko zubien zaintza leporatu zitzaien joniarrei pasabidea suntsitzeko eskatu eta eskatu ibili ziren. Eta Histieo Miletoko tiranoak, ezezkoa eman beharrean, beste tiranoen iritziari jaramon egin izan balio, gauza ziurra da persiarren boterea suntsitua zatekeela. Eta, hala ere, ikaragarria da Erregeren izangoa erabat gizon bakar baten eskuetan egon zela entzute hutsa ere!

Horregatik, inola ere ez zaitez sar horrelako arriskuan, horren beharrian txikienik ere ez dago eta, eta egidazu jaramon: oraingoz desegin ezazu elkarte hau eta, egoki deritzozunean, pentsa berriro zeuk zeutara kontu honetan eta, zeure ustez egokien den agindua eman orduan. Izan ere, ni neu ondorio honetara heldu naiz: auzi bat sakon-sakonetik planteatzeak onura handiak dakartzala, zeren, okerrren bat agertzea gertaturik ere, harturiko erabakia egokia izaten baita, ezustekoren bat izanik erabaki hori aldrebesten duena. Bere erabakiak arintasunez hartzen dituenak, ordea, ustekabeko arrakasta lortzen du, baldin zortea alde badu, baina haren erabakia okerra da hala ere.

Hauteman dezakezu arruntengandik gehiegi nabarmentzen diren izakiak jainkoak bere tximistez errausten dituela, beraiek hau direla eta bestea direla esanez fanfarroikerietan ibiltzen utzi gabe; txikiek, oster, ez dute haren sumina pizten. Halaber, hauteman dezakezu bere geziak eraikinik handien eta zuhaitzik garaien gainera jaurtikitzen dituela zeru gainetik, jainkoak irtenegia den oro eraisteko joera baitu. Horregatik, arrazoi beragatik, armada jendetsu bat hain jendetsua ez den beste batek jo eta deusez dezake: jainkoak, bekaitzak eraginda, bere trumoez armada batean izua edo noraeza sortarazten duenean, armada hori orduan deusezturik gertatzen da, lotsagarriro deusezturik, haren ugaritasuna kontuan hartuta. Izan ere, jainkoak bera ez den inori ere ez dio harropuzkeriaz agertzen uzten.

Hitz batez, presa edo arinkeria porrotaren aita da edozertariko arazoetan eta errakuntzetatik kalte larriak etortzen dira; kontuz ibiltzearen pean oster, hainbat abantaila errotzen dira, lehen ikusian han daudela erakusten ez badute ere, epe luzera, oster, hantxe hautematen dira-eta.

Hauxe da azken batean, maiestate, nik aholkatzen dizudana. Eta zuk, Gobryasen seme, ez esan horrelako tontakeriarik heleniarrei buruz, ez dituzte zure irain horiek merezi-eta. Zuk, izan ere, erregea bera kanpainan sartzera bultzatzeko kalumniatzen baituzu heleniarrak; eta nire ustez horixe da horretan erakusten duzun berotasun guztiaren arrazoi. Bada, ez dadila horrelakorik gerta! Kalumnia oso gaitzesgarria da; kalumnian bi bidegabekeriazko errudun daude eta biktima bakar bat. Izan ere, kalumniatzen duena bidegabekeriazko errudun da, aurrean ez daukana akusatzen duelako, eta alde aurretik behar bezala informatu gabe hari jaramon egiten diona ere bidegabekeriaz errudun da. Solasaldian ez dagoena, beraz, birritan iraindurik gertatzen da: solaskide batek kalumniatu egiten du eta besteak gaizkiletzat hartu.

Orain, benetan zeharo beharrezko baldin bada jende horiei eraso egitea, ongi: errege gera bedi persiar lurraldean eta guk biok joka ditzagun nork geure semeen bizia. Aukera itzazu nahi dituzun gizonak, har itzazu nahi dituzun adina eta zuzen itzazu zuk zeuk espedizioa. Erregeren interesak aurrera ateratzen badira, zuk diozun moduan, nire semeak eta eurekin batera ni neu ere hil gaitzatela; baina gauzak nik auresaten dudan moduan gertatzen badira, zeure semeak eta eurekin batera zuk

zeuk, bizirik itzuliko zarela suposatuz, jasan dezazuela horixe bera. Baina baldintzok onartzera ez bazaude eta, hala ere, azkenean Heladeren kontra armada bat eroaten baduzu, ziur nago hemen gure aberrian geratzen den edonork entzungo duela Mardonio -bai zu zeu-, persiarrei egundoko hondamendia ekarri ondoren, txakur eta txorien janari dela athenastarren edo lazedemondarren herrialdeko edozein bazterretan (lehenago bidean izan ez bazara), erregeak erasotzea nahi duzun gizonen adorearen eskarmentua ukan eta gero".

11. Horra hor Artabanok esan zuena. Baina Xerxesek, haserre bizian, honelaxe erantzun zion: "Artabano, nire aitaren anaia haiz; horrexek libratuko hau hitz ergelongatik merezi duan zigorra jasotzetik. Baina erakutsi duan koldarkeria eta ahuleziarengatik laido hauxe ezarriko diat: ez haiz gerraratuko nirekin heleniarren kontra, baizik eta emakumeekin geratuko haiz hementxe, zure laguntzarik gabe egia bihurtuko baititiak azalduriko plan guztiak. Ez nadila izan Darioren seme, Hystaspesen iloba eta Arsames, Ariaramnes, Teispes, Zyro, Kambyses, Teispes eta Akhemenesen ondorengo, baldin athenastarrak zigortzen ez baditut. Ziur zekiat nik, jakin ere, guk bake-politikaz jokatzeko badugu ere, haiek, aitzitik, guk bezala ihardun barik, dudarik gabe eraso egingo diotela gure herriari, lehenago ukan ziaten portaera kontuan hartu behar bada, Sardesi su eman eta Asia inbaditu baitzieten. Alde bioi gertatzen zaiguk ezinezko, bada, gerrari uko egitea; inizatiba hartu ala eraso jaso, hortxe datzak auzia. Asia osoa heleniarren menpera erortzea ala Europa guztia persiarren eskutara pasatzea; daukagun liskarrean ez zagok erdiko biderik. Ordua diagu jada, azken batean, guk, lehenbizi eraso jaso dugunok, mendekua hartzeko, morroi horiek erasotzean jasango dudan arriskua egiaztatzeko aukera ukan dezadan bide batez; bai, Pelope phrygiarrak, nork eta nire arbasoen esklabo hark, menperatu zituen horiei -gaur egun ere oraindik jendeok eta beren herrialdeak⁸⁷ konkistatzailearen izena eramateraino menperatu ere- eraso egitean jasango dudan arrisku ikaragarri hori".

12. Honaxeraino luzatu zen eztabaida. Baina geroxeago gautu egin zuen eta Artabanoren iritzia zela-eta kezkatzen hasi zen Xerxes eta, burkoarekin kontsultatu zuelarik, irmoki konbentzitu zen ez zitzaiola komeni Helade erasotzea. Behin bigarren erabaki hau hartu zuenean, harriaren pare geratu zen lo. Baina hara non, persiarrek diotenez, gauean zehar honako ikuskizun haxe ukan zuen. Xerxesek gizon luze eta galant bat ikusi uste izan zuen honako hau ziotsola: "Orduan, persiar gizaseme, iritziz aldatu zarela eta ez duzula zeure armada Heladeren aurka eroango, tropak biltzeko agindua emana duzun arren, ezta? Benetan ere ez duzu ongi jokatzeko zeure planak aldatzean eta zeure gorteko inork ere ez dizu hori barkatuko. Begira, egunez ekintzan sartzeko aukera egin zenuenez, jarrai bide horrixe". Agerturikoak hitz hauek esan zituen, Xerxesek hegaz aldentzen ikusi uste izan zuen.

13. Hala ere, eguna zabaltzean aipaturiko ametsa inola ere aintzat hartu gabe, bezperan bilarazitako persiarrei deitu eta esan zien: "Persiarrok, desenkusa nazazue bat-batean iritziz aldatu naizelako, baina oraindik ez naiz heldutasun osobetera iritsi eta, bestalde, planak gauzatzera bultzaka eta zirika izan ditudanak lipar batez ere ez zitzaizkidan paretik aldentzen. Egia da Artabanoren aburua entzutean nire gazte-garra kolpez gainezkatu zitzaidala, pertsona urtetsu bati behar bezain gizabidetsua izan ez zen tankeraz aurre egiteraino gainezkatu ere. Baina orain aitortzen dut izan dudana errakuntza eta haren aholkuari jarraitzea noa. Beraz, iritziz aldatu ondoren Helade erasotzerik pentsatzen ez dudanez gero, bertan behera utz ditzakezue prestakizunak." Hitzok entzutean persiarrak, pozez beterik, ahozpeztu egin ziren erregeren aurrean.

14. Baina, gaua heltzean, berriro ere agerkari bera aurkeztu zitzaion Xerxesi ziotsola: "Orduan, Darioren seme horrek, persiarren aurrean espedizioari argi eta garbi uko egin eta nire hitzei inolako jaramonik ez diezula egiten, inortxo ez den

baten ezpainetatik entzun bazenitu bezala, ezta? Bada, oso kontuan ukan honako hau: espedizioa berehala abiarazten ez baduzu, oraintxe esango dizudana gertatuko zaizu: epe laburrean handi eta boteretsu egin zaren moduan, halaxe laster batean inor ez izatera helduko zara berriro".

15. Ikuspenak zeharo izututa, Xerxesek ohetik jauzi egin eta mezulari bat bidaltzen dio Artabanori, etortzeko esanez. Eta hura heldu bezain laster, erregek zera diotso: "Artabano, hasiera batean bururik gabe eta arintasunez jokatu nian, eskaini hidan aholku zuhurrari kasurik egin gabe laidogarriri tratatu hindudan-eta. Baina handik lasterrera damutu egin ninduan eta heuk iradokitakoa egin behar nuela konturatu ninduan. Baina hara non, neure gurarien kontra, hire aholkua betetzerik ez dudan, zeren, neure jarrera berraztertu eta iritziz aldatzearen, fantasma bat agertzen baitzaidak behin eta berriz, nik horrela jokatzearen oso kontra dagoena; une honetantxe agertu zaidak azken aldiz eta hemen ibili zaidak mehatxu astunak eginez aldendu den arte. Hitz batean, hori bidaltzen duena kosta ahala kosta Heladeren kontrako espedizio bat antolatzea nahi duen jainko bat baldin bada, heuri ere fantasma berori aurkeztuko zaik hegaz, neuri helarazi dizkidan agindu berberak emateko. Eta uste diat horrelaxe gertatuko dela, baldin nire errege-jantzi eta enparauak hartu eta soinean dituala nire tronuan jezartzen bahaiz eta gero nire ohean etzaten".

16. Horixe esan zion Xerxesek. Baina Artabanok, hasieran, berak ez zuela agindu hori beteko erantzun zion, errege-tronuan jezartzeko duin ez zela-eta; halere, azkenerako, presiopean aurkitu zelarik, bete egin zuen agindurikoa, baina lehenago hauxe esan zion Xerxesi: "Nire iritziz, errege, irizmen bete-betekoari eta aholku zuhurrak proposatzen dituenari entzuteko joerari, biei estimu berbera zor zaie eta zu koalitate bion jabe zaitugu, endredamakila sorta bat delarik zu errakuntzara bultzatzen zaituena, haize-zartailuak itsasoa zartatzean bezalaxe: ezen horrek ere, gizakiontzat munduko elementurik onurakorrena den itsasoa zartatzean, ez omen baitio honi beronen benetako izaera berean irauten uzten.

Niri esan zenizkidan gaizkiak entzuteak ez zidan honako hau egiaztatzeak bezainbateko minik eman, alegia, persiarrei proposaturiko planak bi izanik -bata persiarren neurrigabetasuna bultzatera zihoana eta bestea, ordea, horri galga jartzearen aldekoa, eta daukana baino gehiago eskuratzeko desira etengabea gizakiarengan errotzea kaltegarritzat jotzen duena-, proposaturiko planak aipatu ditudanak ziren arren, zuk bai zuretzat eta bai persiarrentzat arriskugarriena aukeratu zenuela.

Edonola ere, orain, hautabiderik onena aukeratu ondoren, diozu, heleniarren kontrako espedizioari uko egitearren, jainkoren batek bidalitako amets bat aurkezten zaizula behin eta berriz eta ez dizula uzten egitasmoari itzuri egiten. Baina fenomeno horiek, ene seme, ez dira, ez eta hurrik eman ere, supernaturalak. Noizean behin gizakioi oldarka ibiltzen zaizkigun ametsak, neuk, zu baino urte askoz zaharragoa naizen honek, oraintxe esango dizudana besterik ez dira: lantzean behin gertatzen zaizkigun ametsetan ikusten dena, eskuarki, norberak egunez dituen kezkei erantzuten dien zerbait da. Eta guk, joan diren egunetan, kanpaina horren inguruan jira-biraka ibili besterik ez dugu egin.

Baina hori nik susmatzen dudana barik, zer supernaturalen baten eskuharmenaren ondorio baldin bada, zuk zeuk azaldu duzu, labur, zein den aterabidea: zehazki, ikuspena neuri ere ager dakidala -zeuri bezala- eta ager diezazkidala bere aginduak. Orain, fantasma alde edo molde agertu behar bazait, ez da behartuago sentituko hori egitera soinean neure jantziak barik zureak daramatzadalako edo gaua nire ohean barik zurean iragaten dudalako. Zeren, bidezko denez, ametsetan agertzen zaizun dena delako izaki hori, ni ikustean, ez da eroriko, soinean zure errege-jantzi eta enparaduak ditudalako, ni zutzat hartzeko inozokeria barkagaitzean. Behingoz

eta betiko jakin behar duguna honako hau da, ea niri inolako kasurik ez didan egiten eta bera agertzeko bezain duintzat ez nauen hartzen (zure jantziak zein nireak eraman), zuri, ordea, agertzen jarraitzen zaizun bitartean. Eta zuri bisitak egiten segitzen badu, ni neu bederen horien supernaturaltasuna aitortzera beharturik aurkituko nintzateke. Baina, azken batean, hartu duzun erabakia hori baldin bada eta atzera egiterik ez baduzu eta nik zure ohean etzan behar badut, konforme; zure aginduak zehatz-mehatz beteko ditut eta espero dezagun ikuspena niri ere agertzea. Baina harik eta hori gertatu arte, oraintxe bezalaxe pentsatzen jarraituko dut."

17. Horixe da, zehazki, Artabanok esan zuena, eta Xerxesen aginduak bete zituen haren baieztapenak ustel aterako zirela frogatu ahal izango zuen esperantzaz. Jantzi zituen, bada, Xerxesen jantziak eta errege-tronuan jezarri zen, eta gero ohera joan zen. Baina, lozorroan zegoela, Xerxesi agerturiko agerkari bera hurbildu zitzaion eta, haren gainean zetzala, hauxe esan zion: "Zeu zara, orduan, erregeren interesak zaintzeko aitzakiaz denen gainetik Xerxesek Helade ez erasotzea lortu nahi duena, ezta? Baina ez zara merezi duzun eskarmentua hartu gabe geratuko, bai etorkizunean eta bai une honetantxe ere, patuaren nahiari kontra egiten saiatzen bazara. Xerxesek, berriz, badaki zer gertatuko zaion, esanik egiten ez badit, nik neuk agertu nion eta".

18. Artabanok, hitz batean, agerkariak horrelaxe mehatxatzen zuela pentsatu zuen, baita burdina gori batzuez begiak erreko zizkiola ere. Orduan alarau egin zuen, jauzi batez ohetik jaiki eta Xerxesen ondora joan eta jezarri zen, eta zehatz-mehatz kontatu zion izandako ametsa; eta ondoren hauxe esan zion: "Errege, nazio boteretsu asko etsai makalagoen aurrean lur jotzen ikusitakoa naizenez, ekintza guztietan zeure gazte-suak eraginda joka zenezan ekidin nahi nuen, zeren ongi baitakit zein kaltegarri den helburu askoren atzetik irrikaz ibiltzea, honetan gogoratzten dudalarik nola bukatu zen Zyroren masageten aurkako kanpaina, baita Kambyesek ethiopiarren aurka egin zuena ere; bestalde Dariorekin izan nintzen szythiarren aurka egin zuen espedizioan. Horiek kontuan hartuta, uste nuen ezen, bake-politikaz jokatz gero, mundu guztiarengandik zorionak hartuko zenituela. Baina xede supernatural baten aurrez aurre aurkitzen garenez eta, dirudienez, heleniarrak jainkoengandiko hondamendiak jo behar dituenaz gero, nik atzera egiten dut esandakoetan eta iritziz aldatzen naiz. Zuk, beraz, jakinaraz persiarrei jainkoak bidaltzen dizkigun seinaleak eta, gerra-prestakizunei dagokienez, zeuk lehenbizi esandakoak betetzeko agindua eman, eta zeruak bere oniritzia damaigunez, zuk zeuk ahalegin handiz jardun ezazu inolako axolagabekeriarik ez egiteko."

Horiek esanda, beren ikuspenak liluratuta sentitu ziren biak eta egunsentiarekin batera Xerxesek persiarrei gorabehera horiek guztiak jakinarazi zizkien eta, bestalde, Artabanok, hasieran espedizioaren aurka garbi agertu zen bakarra izan arren, une haietan interes handia agertu zuen kanpainarekiko.

19. Handik lasterrera, Xerxesek espedizioa egitea erabakita zeukanean, beste ikuspen bat izan zuen ametsetan. Azziek, amets hori entzunda, mundu guztiarekikoa zela esan zuten, hau da, mundu guztiko gizakiak beraien esklabo izango zirela esan nahi zuela. Ametsa, izan, honako hau izan zen: Xerxesek olio-zurtoin batez koroaturik ikusi zuen bere burua, bertatik jaiotzen ziren adarrak mundu guztian zehar hedatzen zirela; geroago, ordea, desagertu egin zen bere burua inguratzen zuen koroa.

Azziek aipaturiko interpretazioa eman zutenean, bilarazitako persiar guztiak denborarik galdu gabe nor bere herrialdera joan ziren eta eginahalak egin zituzten aginduak ongi betetzeko, nork beretzat eskuratu nahi zituelako agindutako sariak. Horrelaxe bildu zuen Xerxesek bere armada: kontinenteko alde guztiak miatu eta soldadu joateko jendea bilatuz.

20. Jardun ere, Egiptoko birkonkistatik lau urte osoz jardun zuen Xerxesek bere armada eta harentzat behar zen guztia prestatzen; azkenez, bosgarren urtean tropa ugariz hornituta kanpaina jarri zen. Izan ere, guk dakigunez, espedizio militar guztietatik hauxe izan zen garrantzitsuena; Dariok szythiarren kontra zuzendu zuenak, honekin konparaturik, ezereza dirudi, eta gauza bera esan behar da szythiarren espedizioaz ere (zimeriarren atzetik Media inbaditu eta Goi Asia guztia okupatu zutenean, honexek eraman zuelarik gero Dario szythiarrak zigortzen saiatzera), baita -tradizioz jasotako datuen arabera- atreidek Ilionen kontra egindakoaz ere, edo mysiar eta teukroenaz ere (Troia gerra baino lehenagokoa), hauek, Bosporotik Europara iragan ondoren, Joniako itsasoraino jaitsi eta, Hegoaldetik, Peneo ibairaino heldu zirelarik.

21. Espedizio horiek guztiok eta horiez gain egin ziren beste batzuk ere ez ziren Xerxesenaren mailara heldu, oso berezia izan baitzen honena. Izan ere, Asiako zein nazio ez zuen errege honek bere buruzagitzapean bildu Heladeren aurka? Zein ubide, ibai urtsuak salbu, ez zen agortu tropen premiei erantzutean? Izan ere, herri batzuek untziak jartzen zituzten; beste batzuek infanteria osatzen zuten; beste batzuei zaldieria hornitzeko eskatu zitzaien; beste batzuei, soldaduez gain, zaldiak garraiatzeko untziak ekartzeko; beste batzuei zubiak eraikitzeko gerrauntziak ekartzeko, eta beste batzuei janariak eta untziak ekartzeko.

22. Beste alde batetik, lehenengo espedizionarioek Athos inguratzean izandako hondamendiagatik, arazoari irtenbidea aurkitzeko neurriak hartzen ari ziren alde horretan. Halatan, persiarrek untzi-base bat zuten triere untziekin Eleunten, Khersoneson, eta armada osatzen zuten nazio guztietako tropak -alditik aldira txandakatzen zirenak- handixek abiatzen ziren zigorkadapean kanal bat industeko (indusketan Athos aldeko jendeak ere parte hartzen zuen), lanak zuzentzen zituztenak bi persiar, Bubares Megabazorena eta Artakhees Arteorena, zirelarik.

Athos, izatez, mendigune garai eta entzutetsu bat da, itsasoan barna sartzen dena eta bizilagunak dituen. Mendigunea bukatu eta kontinentearekin lotzen den tokia penintsula antzeko bat da hamabi estadio inguruko⁸⁸ istmo bat daukana; alde hori lautada bat da, muino apalekin, Akanthoko itsasotik Toronez handik

dagoenera hedatzen dena. Aipaturiko istmoan, hau da, Athos amaitzen den tokian, Sane dago, heleniar hiri bat; eta Saneren hegoaldera Athosko mendigune-mendigunean dauden hiriak -garai haietan persiarrek uhartetar bihurtu nahi zituenak, izaera kontinentala galaraziz- hauexek dira: Dio, Olophyxo, Akrothoo, Thyso eta Kleonas.

23. Horiexek dira Athosen kokaturik dauden hiriak. Eta indusketari dagokionez, barbaroek, lursailak nazioka banatu ondoren, honako hauxe egin zuten. Sane hiritik pasatzen zen lerro zuzen bat marratu zuten kordelez eta, kanalak nahikoa sakonera hartu zuenean, batzuek, kanalaren alde sakonenetan zihardutenek, indusketan jarraitu zuten; beste batzuek, bitartean, lurra atera ahala goraxeago, aldaminu batzuen gainean zegoen beste langile talde bati pasatzen zioten, eta hartzen zutenak gauza bera egiten zuten lurra beste langile batzuei pasaz, goiko hegaletan kokaturik zeuden langileengana heldu arte, hauek obratik nahiko harago eraman eta han botatzen zutelarik.

Orain bada, indusketako hormak erortzeak lan bikoitza ekarri zien langile guztiei -pheniziarrei izan ezik-, zuloaren hegalarri hondoari adinako zabalera eman ziotenez, ezinbesteko baitzen ezbehar hori gertatzea. Pheniziarrek, oster, obra honetan ere beren egiteko guztietan argi uzten duten trebetasun bera erakutsi zuten; zozketaz zein gune zulatu behar zuten erabaki zenean, lanean hasi eta kanalaren hegalei kanalak berak eduki behar zuenaren halako bi eman zioten zabaleran, eta, obran aurrera egin ahala zabalera estutuz zihoazela, hondora heltzean indusketako guneak besteenak zuen zabalera bera zuen.

Leku horretan bada zelai bat ere eta bertan langileek merkatu bat eta lonja bat zuten; gainera, Asiatik galirin ugari heltzen zitzairen alditik aldira hutsik gabe.

24. Orain bada, asuntza aztertuz atera ditudan konklusioen arabera, Xerxesek kanal horren indusketa harrokeriaz agindu zuen, bere boterea arrandiaz erakutsi eta leku hartan bere oroigarria utzi nahi zuelako. Edonola ere, persiarrek beren untiak istmoan zehar narratzeko esfortzu handirik gabe eraman zezaketen arren, erregeak itsasotik itsasora kanala industeko agindu zuen, eta ez edonolakoa, bi triere elkarren parean arraunean joateko moduko zabalerakoa baizik.

Bestalde, kanala industen lanean ibili ziren langile berek Strymon ibaiaren alde biak zubien bidez batzeko agindua ere hartu zuten.

25. Horiexek izan ziren, adierazi dudan moduan, erregeak aginduta hartu zituzten neurriak. Bitartean, beste hauek egiteko ere agindu zuen: zubi-eraiketan erabiltzeko papiro eta espartzuzko kableak prestatzeko (pheniziar eta egiptotarren ardurapean utzi zuen lan hau) eta armadarentzat janari biltzeak instalatzeko, heleniarren kontra zihoazen ez tropek, ezta zamariek ere, goserik pasa ez zezaten. Biltzeak instalatzeko lekuri egokienak zeintzuk ziren jakin ondoren, haietara instalatzeko agindu zuen, eta Asiako alde guztietatik kokagune horietara janariak bidaliz joan ziren kargauntzi eta gabarretan. Orain bada, batzuek Leukakte izeneko Thraziako leku batera garraiatu zituzten hornidurak, eta beste batzuek Tyrodizara, Perinthoko toki bat berau; beste batzuek Doriskora; batzuek Strymon ibiartzeko Eionera, eta beste batzuek Mazedoniara.

26. Talde horiek agindutako eginkizunak burutzen zituzten bitartean, lehorreko armada guztia, jada bilduta, Sardeserantz zihoan aurrera Xerxesekin, Kapadoziako Kritalatik abiatu ondoren, huraxe baitzen Xerxesekin lehorrez aurrera egin behar zuten indar guztiak biltzeko jarrita zegoen tokia. Esan behar ezin zehaz dezakedala -hori erabakitzeko lehian sartu zirenentz ere ez baitakit- zein gobernadorek jaso zituen, bere tropak ongien horniturik aurkeztearren, erregeak aginduak zituen opariak. Halys ibaia zeharkatu ondoren, espedizionarioak Phrygian barna sartu eta Zelenasera heldu ziren, bi ibaiaren iturburuak dauden tokia berau, alegia, Meandro ibaiaren eta Meandro baino emari gutxiagokoa ez den eta Zelenasko agoran bertan jaio eta Meandorra doan Katarraktes izeneko

beste batenak. Leku honetan, halaber, Marsyas silenoaren larrua dago esekita, phrygiarren artean dabilen tradizio baten arabera, Apolo izan zelarik hura larrutu ondoren han eseki zuena⁸⁹.

27. Hiri horretan Pythio lydiarra, Atysen semea, zegoen erregeren zain, eta eskuzabaltasun handiz egin zien harrera Xerxesi eta honen armadari, eta kanpainarako dirua eman nahi ziola ere agertu zion. Pythioren diru-eskaintza ikusirik, Xerxesekek bere jarraigoko persiarrei Pythio hura nor zen eta halako eskaintza egin ahal izateko zenbateko aberastasunaren jabe zen galdetu zien. "Errege -erantzun zioten-, horixe da zure Aita Dariori urregorritzko platanoa eta mahatsondoa oparitu zizkiona eta, guk dakigun heinean, egun ere zure ondoren munduko gizonik aberatsena da".

28. Azken baieztapenok harrituta, Xerxesekek berak galdetu zion Pythiori zenbateko aberastasunak zeuzkan. "Errege -erantzun zion hark-, ez dizut ezer ezkutatuko, ezta zenbat daukadan ez dakidala esan ere; oso aitzitik, badakit eta neure ondasunen zerrenda zehatz bat emango dizut, zeren, Heleniar itsasorantz zentozela jakin nuenean, neure aberastasunen jakinaren gainean jarri nintzen, hain zuzen ere zuri kanpainarako dirua emateko gogoz. Eta, kontuak eginda, bi mila zilarrezko talentu ditudala ateratzen zait eta urregorritzko lau milioi darikora heltzeko zazpi mila estaterra falta zaidala⁹⁰. Eta diru horiek eskaini nahi dizkizut, nik neuk neure esklabo eta etxaldeekin bizitzeko lain badaukat-eta.

29. Horixe esan zuen Pythiok. Eta Xerxesekek, hark esandakoek lausengaturik, zera erantzun zion: "Lydiar adiskide hori, Persia utzi nuenetik ez dut inor aurkitu, zeu izan ezik, nire armadari abegi-oparirik eskaini dionik edo bere kabuz nire kanpaina diruz laguntzeko prest etorri zaidanik. Zuk, oster, nire tropak eskuzabaltasunez

hartu ez ezik, dirutza handiak eskaintzen dizkidazu. Bada, neuk ere ordainez sari hauexek ematen dizkizut: nirekin elkartuko zaituzten abegi-lokarrien jabe deklaritzen zaitut eta lau milioiraino hornituko ditut zure estaterak, kopuru horretarako falta zaizkizun zazpi milak neure dirutik ipinita, nire ekarpenari esker kopuru biribila ukan dezazun. Bestalde, gorde zeuretzat zeurez eskuratzen jakin duzuna eta saia zaitez beti ere orain zaren bezalakoxea izaten, zeren, hori egiten baduzu, ez baitzara damutuko ez orain ez gero".

30. Hitzok esan eta egia bihurtu ondoren, Xerxesek aurrera jarraitu zuen. Orduan, Anaua izeneko Phrygiako hiri baten eta gatza ateratzen duten laku baten ingurutik iragan eta Kolosasera, Phrygiako hiri inportante bat berau, heldu zen. (Han Lyko ibaiak -Meandrorra doana hau ere- leize batean behera egiten du eta desagertu egiten da handik bost bat estadiora berriro agertzeko).

Kolasastik abiatuta, Phrygia eta Lydia arteko muga dagoen Zydrarara heldu zen, Kresok eraikitako estela bat daukan hirira, inskripzio baten bidez mugaldeak seinalatzen dituen.

31. Lydian sartzean, Phrygiatik datorren bidea bitan banantzen da, ezkerrekoak Kariara eta eskuinekak Sardesera daramatelarik. Bada, azken hau hartuta, nahitaez Meandro ibaia zeharkatu behar da eta Kalatebo hiriaren ingurutik iragan, tamariz

uraz eta gariaz ezti artifiziala egiten dakiten artisauak dituen hiria berau. Xerxesek bidean aurrera zihoala platanondo bat aurkitu zuen eta oso eder iritzirik urrezko apainduria bat ipini zion eta "Hilezin" baten zainpean jarri zuen⁹¹, eta biharamunean lydiarren hiriburura heldu zen.

32. Sardesera iristean, lehenbizi, Heladera heraldoak bidali zituen lurra eta ura galdatzeko eta erregerentzat oturuntzak presta zitzaten agintzeko. Bi herrialdetara soilik ez zituen Xerxesek lurra galdatuz mezulariak bidali, Athenasera eta Lazedemonera, baina beste guztietara bidali zituen. Lurra eta ura galdatuz mezulariak bigarrenez bidaltzeko zuen zioa hauxe zen: erabat konbentziturik zegoen lehenengo aldiz Darioren mezulariei bi erregalo horiek eman ez zizkieten nazioek oraingoan bai emango zituztela izuak eraginda. Horregatik, mezulariak bidali zituen kontu hori behin-betiko garbitzeko.

33. Gero Xerxes Abydorantz abiatzeko prestatu zen.

Bitartean, egiteko horren ardura zutenak, Helespontoren gainean zubiak hedatzen ari ziren Asiako aldetik Europakora. Helespontoko Khersoneson, Sesto eta Madyto hirien artean, tontor malkartsu bat dago itsasora sartzen dena, Abydoren aurre-aurrean (hantxe harrapatu zuten geroago -ez asko geroago- athenastarrek, Xanthipo Ariphronena buru zutelarik, Artayktes persiarra, Sestoko gobernadore zena, eta ohol batera josi zuten bizirik, emakumeak eramaten baitzituen Protesilaoren Eleunteko santutegira, etengabe donausten jardunez).

34. Orduan bada, Abydon hasita, eginkizun hori zuten taldeek bi zubi eraiki zituzten aipaturiko tontorrerantz: pheniziarrek hedatu zuten bata espartzuzko kableez baliatuz eta egyptoarren bestea papirozko kableez. (Abydotik beste aldera, egon, zazpi estadio daude). Baina zubi bikoitza jada hedaturik zegoela, ekaitz gogor bat jo zuen eta kable guztiak hautsi eta untziak sakabanatu zituen.

35. Hori jakitean, Xerxes haserre bizian jarri zen eta Helespontori hirurehun zigorkada emateko eta eskuburdina pareta uretara botatzeko agindu zuen. Eta, entzuna dudanez, bi borrotero ere bidali zituen Helesponto estigmatizatzeke. Edonola ere, hau bai egin zuen, bere gizonei zigortzean hitz arrotz eta zentzugabeko hauexek esateko agindu zien: "Korronte madarikatu hori! Gure ugazabak zigor hau ematen dizu, berak zuri inolako minik eman gabe, zuk berari kalte handia egin diozulako. Zuk nahi ala nahi ez, Xerxes erregea zure gainetik iragango da, alafede! Arrazoi osoz, inork ere ez du zure ohorez sakrifizioerik eskaintzen, izan ere, ibai zikin eta gazi bat besterik ez zara eta".

Xerxesek, diodan bezala, itsasoari zigor horiexek emateko agindu zuen eta, horrez gain, Helesponto gainean zubiak eraikitzen zuzendari ihardunikoei lepoa mozteko.

36. Eta eskergaiztoko eginkizun hori betetzeko arduradunek beren eginbeharra betetzen zuten artean, beste ingeniari batzuk zubiak hedatzen hasi ziren, eta honelaxe egin zuten. Pentekontereak eta triereak (hirurehun eta hirurogei Ponto Euxino aldeko zubiari eusteko eta hirurehun eta hamalau besteari eusteko) Pontoarekiko zeharka eta Helespontoko korrontearen norabidean lerrokaturik atrakatu ondoren korronteak kableak teinka-teinka eduki zitzaizkion, aingura erraldoi batzuk bota zituzten uretara: lehenengo zubikoek Ponto aldera, itsaso horretatik jotzen duten haizeengatik, beste zubikoek, aldiz, mendebaldera -Egeotik hur dagoen aldera- bota zituzten artean, Zephyro eta Noto haizeengatik. Gainera, pentekontereen eta triereen artean nabigazioerako bitarteak utzi zituzten bi lekutan, nahi zuenak utzi txikiez Pontora sartzeko edo handik irteteko modua ukan zezan.

Hau egin ondoren, lehorretik kableak luzatu zituzten, egurrezko dibidietan bidez atezatu zituztelarik, baina oraingoan kable-motak banan erabili beharrean, zubi bakoitzerako bi ezpartuzko

eta lau papirozko erabili zituzten (lodieraz eta emendioz berdinak ziren, baina espartzuzko sokak nahikoa pisutsuagoak ziren: ukondo bakoitzak talentu bateko pisua zuen).

Zubien armazoa bukatu, untziek osaturiko zubien zabaleraren neurriko enborrak ebaki, kontu handiz kableen gainean ipini zirrikiturik utzi gabe eta, jarraian, zeharrazteaz tinkatu zuten mihiztadura. Hori egin ondoren, egurrezko xaflaz estaldu zuten, kontu handiz doitu eta lurrez estaldu guztia. Azkenez, lurra zapaldu-zapaldu egin zuten eta alde bietan oholesi bat jarri zuten plataformatik itsasoa ikustean zamaririk (ezta zaldirik ere) izu ez zedin.

37. Zubiak eraiki eta Athos inguruko obrak amaitu ondoren (hau da, uhaietako moilak -olatuei aurre egin eta indusketaren ahoak basaz betetzea ekiditeko kanaleko sarbideetan eraikiak- eta kanala bera erabat bukatu zeuden berria iristean), prest zegoen jada armada, negua igaro eta udaberria heltzean⁹², Sardestik Abydora joateko.

Tropak jada martxan jarriak zirela, bat-batean eguzkia desagertu egin zen, zeruan izan ohi duen lekua utziz, hodeirik egon ez arren eta eguraldia oso ona izan arren, eta egun argitan gautu egin zuen. Xerxesek ikusi eta arretaz segitu zuen fenomeno honek kezka betetik utzi zuen errege, eta, horregatik, azkiei galdetu zien ea zer esan nahi ote zuen gauza harrigarri hark. Haiek, orduan, esan zioten jainkoak heleniar hirien eklipsea iragartzen zuela, hori esplikatzeke eguzkia heleniarrentzako sinbolo profetikoa zela esanez, persiarrentzat, ordea, ilargia zen artean. Azalpen hori entzutean oso pozik geratu zen Xerxes eta berriro martxan jartzeko agindu zuen.

38. Xerxes bere tropen buru Sardestik irtetera zihoala, Pythio lydiarra, zeruan jazotako gauza harrigarriak beldurturik eta erregek luzaturiko mesedeek adoreturik, erregerengana joan

eta esan zion: "Jauna, zuk mesede bat egitea nahi nuke, zuretzat ezer gutxi suposatzen duena eta niretzat, ordea, oso garrantzitsua dena".

Xerxesek, lydiarrak eskatu zuena ezik beste edozer eskatuko ziola uste izanik, egingo ziola esan zion eta azaltzeko eskaera. Orduan, Pythiok erantzun hori entzutean, konfiantza guztiaz esan zion: "Jauna, bada, bost seme ditut eta hain zuzen ere bostak doaz Heladera zeurekin daramatzazun espedizionarioen artean. Erruki zakizkit, bada, jauna, urtetsu bainago, eta nire semeetako bat, bat bakarrik, zaharrena, salbuets ezazu, otoi, bere eginbehar militarretatik, ni eta nire ondasunak zaintzeko gera dadin; beste laurak eramatzazu zerorrekin eta ailedi zu zeure helburu guztiak beteta itzultzea aberrira".

39. Xerxes biziki haserretu zen eta honelaxe ihardetsi zion: "Koldar adoregabeori! Ni neu ere Heladeren aurka noanean, gainera neure semeak, anaiak, senideak eta lagunak neurekin daramatzadanean, zuk, neure esklabo bat zaren eta zeure familia guztiarekin, zeure emaztea eta guzti, lagundu behar ninduzukeen horrek, zeure semearengan pentsatzeko ausardia al duzu? Begira; oso kontuan hartu haxe: gizakien umorea beren belarrien menpe dago, proposamen asegarriak entzunez gero pertsona pozez betetzen delarik, baina, haren belarrietara zentzugabekeriak helduz gero, sumindu egiten da. Bada, ezingo duzu harrokeriaz esaten ibili nirekin adeitsu jokatu zenuenean eta gero atentzio berriak eskaini zenizkidanean, errege bat baino eskuzabalago izan zinela. Baina, arrunt lotsagabeki portatu zarenez gero, zigorra jasoko duzu, merezi duzuna baino txikiagoa izango den arren: elkartzen gaituzten abegi-lokarriek salbatuko zaituztete zu eta zure lau seme; batek bakarrik ordainduko du bere biziaz zure hutsegitea: etxerako geratzea nahi izan duzun harek".

Hori erantzun ondoren, eginkizun hori betetzeko arduradunei haxe agindu zien: Pythioren seme nagusia topa, ezpatakada

batez erditik bi egin eta, jarraian, erdi bata bidearen eskuinaldean eta bestea ezkerraldean jar zezatela, armadak haren gorpuzkinen artean desfila zezan.

40. Halaxe egin zuten borroeroek eta gero armadak handixek desfilatu zuen. Aurretik bagaieria eta zamariak zihoazen eta haien atzetik herri ezberdinen erabateko nahasi-mahasiak osaturiko tropak ageri ziren. Gizonik erdiak desfilatu ondoren, bitarte bat egiten zen tropen artean eta gudaroste horiek ez ziren nahasten erregeren eskoltarekin. Abangoardia guztia hain zuzen ere eliteko mila soldadu persiarrek osatzen zuten; hurren, mila lantzari ageri ziren (hauek ere elitekoak) lantza-puntak behera begira zituztela, eta gero hamar zaldi sakratu⁹³ zetozen, "nesea zaldiak" zeritzenak, tresnadura oso dotorez hornituak. Hona hemen zergatik deitzen zaien "nesea zaldiak": Median Neseo izeneko lautada handi bat dago eta altuera handiko zaldi horiek lautada hartantxe hazten dira.

Aipatu ditudan hamar zaldien ondoren, Zeusi⁹⁴ kontsakraturiko zalgurdia zetorren, zortzi zaldi zurik zeramatena, eta zaldien atzean auriga bat hedeak eskuan zituela (ezein gizonek ez baitu zalgurdi horretara igoterik). Gurdi horren atzean Xerxes bera zihoan zaldi nesearek zeramaten zalgurdi batean, eta haren ondoan auriga bat, Patiramphes izenekoa, Otanen persiarraren semea zena.

41. Honelaxe irten zen Xerxes Sardestik (hala ere, gogoan zuenean zalgurditik harmamaxa⁹⁵ batera pasatzen zen). Xerxesen atzetik mila lantzari zihoazen -persiarrik adoretuen eta aitonsemeenak- beren zikak ohi duten bezala⁹⁶ zeramatzatela; hurren, zaldieriako eskoadroi bat ageri zen, eliteko mila persiarrek osatua, eta zaldieriaren atzetik hamar mila gizon, gainerako persiarren

artetik aukeratuak, infanteriako indarra berau. Beretako milak beren lantzen beheko muturrean burdinazko puntak barik, urrezko mingranak zeramatzaten, eta beste guztiak inguratzen zituzten erabat; hauek ingurutariko beste bederatzi milek, aldiz, zilarrezko mingranak zeramatzaten. Beren lantzen puntak behera begira zeramatzatenek ere mingranak zeuzkaten, eta Xerxesengandik hurbilen zihoazenek metal bereko sagarrak zeramatzaten.

Oinezko hamar mila soldaduen atzetik hamar mila persiar zaldizko ageri ziren. Zaldieriaren ondoren bi estadioko hutsarte zetorren berriro eta, azkenez, gainerako tropa zihoan nahas-mahas.

42. Lydiatik armada Kaiko ibairantz eta Mysiako lurralderantz abiatu zen eta Kaikotik aurrera Kanes mendia ezkerretara utzi eta, Atarneo eskualdetik, Karene hirira jo zuen. Hiri hori igarota, Thebeko lautada zeharkatu zuten, Atramytio eta Antandro hirien ingurutik iraganez, azken aipatua pelasgiarren hiria delarik.

Geroago Ida mendigunera heldu ziren eta ezkerretara jo zuten Ilion aldera. Baina bat-batean, armada Idapean gaua igarotzen zegoela, trumoi eta tximistaz aseturiko ekaitz handia egin zuen eta hildako piloa eragin zuen hantxe bertan.

43. Armada Skamandro ibaira heldu zenean (Sardestik abiatuz geroztik aurkitu zuten lehenengo ibaia berau, tropak eta zamariak asetu aurretik emari guztia agortu zitzaiona), Xerxes, bada, ibai honetara heldu zenean, Priamoren Pergamora igo zen hura bisitatzeko gogoz. Bisita egin eta zehaztasun guztien berri jaso ondoren, Athenea Iliaderen omenez mila behi sakrifikatzeko agindu zuen eta aztiekin heroiei libazioak eskaini zizkieten. (Eta esan behar da, zeremonia horiek zirela-eta, gauez izu-giroa nagusitu zela kanpamenduko gizonen artean).

Egunsentian, armadak leku hartatik alde egin zuen eta, aurrera egin ahala, ezkerretara Rheteo, Ophryneo eta Dardano

hiriak (azken hau, Abydorekin mugakide hain zuzen ere) eta eskuinetara gergithe teukroak utzi zituen.

44. Abydora iritsi zirenean, Xerxesek bere armada guztia ikusi nahi izan zuen. Eta alde hartan -muino baten gainean- alde zurretik horrexetarako beren-beregi marmol zurizko tribuna bat instalatu zitzaionez gero (lan hori abydoarrek egin zuten erregek aurretik emandako agindua betez), Xerxes han jezarri zenean, itsasertzerantz so egin zuen eta bere lehorreko indarrak eta untziak ikusteko aukera izan zuen, eta ikuskizun hark untzi-borrokalde simulatu bat ikusteko gogo sortarazi zion. Gudu simulatu hori egin zenean, Sidongo pheniziarrak garaile atera zirelarik, Xerxes oso pozik geratu zen bai untzien arteko gudu-ariketaz beraz eta bai untzidiaren portaeraz ere.

45. Helesponto guztia untziz josita eta abydoarren hondartza eta lautada guztiak soldaduz gainezka ikustean, une hartan Xerxes zoriontsu sentitu zen, baina, berehala, negarrari eman zion.

46. Erregeren erreakzioaz konturatu zenean Artabano, haren osaba aitaren aldetik (hasieran bere iritzia argi agertuz, Heladeren aurkako espedizoa ez antolatzeke aholkatu ziona), pertsonaia honek, diot, Xerxesek negarrari eman ziola ohartzean, haxe esan zion: "Errege, nolako aldea dagoen zure oraingo jarreraren eta duela instant bat izan duzunaren artean! Lehenbizi zoriontsu sentitu zara eta une honetan negarra dariola zaude". "Gertatu ere -erantzun zuen Xerxesek- itzela gertatu zaidak: bat-batean tristura nagusitu duk nire baitan gizaki ororen bizitza zein laburra den pentsatzean, kontuan izanez gero ehun urte barru jendetza horretatik inortxo ere ez dela geratuko".

Orduan Artabanok badiotso: "Hori baino zoritxar gaiztoagorik jasan beharra izaten dugu bizitzan zehar. Izan ere, gurea bezalako bizitzaldi labur batean, ez hor ikusten dituzunen artean, ezta mundu guztian ere, ez dago gizakumerik, behin bakarrik ez ezik, hainbat alditan ere bizirik irauteko baino hilda egoteko gurari biziagoa ez izateko bezainbat zoriontsua denik, zeren gertatzen zaizkigun ezbeharrek eta erasotzen dizkiguten gaixotasunek guk geure bizitzari, hain laburra izan arren, luze iriztea eragiten dute-eta. Horrela, bizitzea neketsu bihurtzen denean, heriotza ihesbide oso gogoko gertatzen zaio gizakiari, eta jainkoak, aldiz, bizitzaren gozotasuna dastatzen uzten badigu ere, bere jarraz argi uzten du zein izakera bekaiztia duen".

47. Orduan Xerxesek haxe erantzun zion: "Hara, Artabano, utz diezaiozun giza bizitzari buruz gogoetak egiteari -izatez, heuk dioan modukoa bada ere- eta ez dezagun lazerietan pentsa eskuartean perspektiba argitsuak ditugunean. Esaidak, hala ere, garbi asko honako hau: ametsetan izan huen ikuspena hain argia izan ez balitz, hasieran heukan iritziari eutsiko al hioke nik Helade erasotzea ekiditen saiaturaz, ala iritziz aldatu hintzatekeen? Tira, esaidak egi-egia!"

Artabanok orduan honelaxe erantzun zion: "Maiestate, ailedi azkenerako erabat betetzea, guk biok nahi dugun moduan, ametsetan agertu zitzaiguna! Ni neu, hala ere, beldur naiz eta ez nago bat ere seguru, batez ere beste gauza batzuen artean bi eragozpen oso astun daudela ikusten dudanean, zure kanpainarako arrisku handia suposatzen dutenak".

48. Hau entzunda, Xerxesek haxe diotso: "Gizon arraioa! Zein dituk hire ustez nire kanpainarako hain arrisku handikoak diren eragozpen bi horiek? Lehorreko armadari kopuruagatik edo akatsen bat aurkitzen al diok? Heleniarren indarrak gureak baino asko handiagoak izango direla uste al duk? Edo gure untzidia haiena baino eskasagoa dela? Edo gauza biok kezkatzen al haute aldi berean? Gure indarrak argi eta garbi txikiagoak direla uste baldin baduk, indar berriak bil daitezke berehala".

49. Orduan Artabanok haxe erantzun zion: "Errege, sen komuna daukan inork ez lioke aitzakiarik aurkituko horko armada horri, ez da untziteriaren ahalmenari ere; are, jende

gehiago bilduz gero, nik diodazen eragozpen biak oraindik arrisku askoz handiagoa izango dira zure kanpainarako. Zeren, eragozpen bi horiek itsasoa eta lehorra dira-eta.

Izan ere, nire kalkuluen arabera, itsaso guztian ere ez dago, ekaitza joz gero, bildu duzun untziteria hartzeko eta zure untzien segurtasuna bermatzeko gauza den portu bat bera ere eta, beste alde batetik, kostaz kosta zeharkatuz joango zaren lurlean zehar ez da horrelako portu bakar bat egongo, asko baizik. Horregatik, fondo emanda egoteko portu egokirik izango ez duzunez gero, kontuan izan patuaren gorabeherak direla gizakiak menpean hartzen dituztenak eta ez gizakiek patuaren gorabeherak menperatzen dituztenak.

Eta orain, eragozpen bata azaldu ondoren, besteaz mintzatzera noakizu. Lehorra zure kanpainarako benetako arrisku duzu honexegatik hara: okerrik gertatzen ez bazaizu ere, zenbat eta aurrerago joan arriskugarriago gertatuko zaizu; eta gero eta urrunago joateko bultzada izango duzu, gizakiak ez baitira garaitzaz inoiz asetzen. Zure aurkako jarkierarik inork ere ez duela suposatzen ere, segurtatzen dizut zure konkisten hedapen hazkorrak, denborarekin, gosea ekarriko digula. Gizona, azken batean, aparteko baliokoa izango litzateke, baldin, izan daitezkeen arrisku guztiak aztertu ondoren, arazoei aurre egitean zuhurra eta jokatzeko orduan erabakitsua balitz".

50. Xerxesek honelaxe erantzun zion: "Artabano, zalantzarik gabe oso zuzen planteatzen dituk eragozpen horiek guztiak; baina ez hadi beldur edozeren aurrean eta etzak araka edozein arazo zehaztasun berberaz. Zeren, datozkigun egoera guztien aurrean xehetasun guztiak aztertzen saiatuko bahintz, inoiz ez huke ezer egingo. Hobe duk arrisku guztiei konfiantzaz aurre egitea, aldeztariko arrisku guztien beldur izan eta aldioro ezer egin gabe geratzea baino.

Gainera, azalduko edozein plan utzezinki kritikatzeko baduk irtenbiderik eman gabe, ziur egon hire ikuspuntuarekin ados egon ez denaren errakuntza berean erortzen haizela. Izan ere, kasua antzekoa duk erabat. Bestalde, gizakume izanik, nola jakin lezakek inork ezer utzezinki? Nire iritziz, hori ezinezkoa duk. Horregatik, arrakasta

jokatzeko prest eta erabakitsu daudenen alde egoten duk eskuarki, eta ez, ordea, edozeren aurrean beti azterketan eta zalantza-balantzan ibiltzen direnen alde. Baduk modurik ikusteko nolako indarra eta boterea hartu duen persiarren inperioak. Bada, nire aurretiko errege goraipagarriek hik legez pentsatu izan balute edo, horrela pentsatu gabe ere, hi bezalako aholkulariak izan balituzte, ez hukeen Persia gaur dagoen tontorrera igoa ikusiko; baina, nagusitasun honetara hainbat arriskuri aurre eginda jaso zitean aberria, lorpen handiak, erdietsi ere, arrisku handiak gaindituta erdiesten baitituk. Horretan, gu, haien parekoak izateko, espedizio hau urtesasoi onenean burutzen ari gaituk, eta Europa guztia meneratu ondoren, gosearekin inon ere topo egin gabe eta beste oker edo ezbeharrik izan gabe itzuliko gaituk geure aberrira; gure espediziorako hazkurri franko zaramaagu eta, gainera, inbadituz goazen eskualde eta herrietako gariaz jabetuz joango gaituk, nomaden aurka barik, nekazari jendearen aurka goazak eta".

51. "Jauna -diotso Artabanok jarraian- inolako beldurrik izatea onartzen ez duzunez gero, utz iezadazu aholku bat ematen bederen, jokoan gauza asko daudenean gaian sakonago jo behar izaten da-eta. Zyro Kambysesen semeak hiri joniar guztiak menperatu eta zergadun bihurtu zituen, Athenas salbu. Nire aholkua, beraz, (horiek gabe ere gure etsaiei nagusi gakizkieke eta) hauxe da hara: ez itzazu eraman morroi horiek euren arbasoen kontra, horiek baldin badatoz, markatik kanpoko bilaukeria erakutsi beharko dutelako, beren metropolia esklabotzara eramanez, edo nobletasun apartekoa, beren askatasunaren aldeko borrokan lagunduz. Honi buruz, esan behar haien bilaukeriak abantaila inportanterik ez digula

emango; haien nobletasuna, ordea, konpromezu handia izan daiteke zure tropentzat. Hitz batean, gogora ezazu esaera zahar hain esanguratsu hura: "hasieran ez da antzematen azken bateko bilakaera"™.

52. Adierazpenok entzunda, Xerxesek zera erantzun zion: "Artabano, adierazi dituan iritzi guztietatik azken hau duk, hain zuzen ere, makurrena; alegia, joniarrak etsaiengana pasa daitezen beldur izatea, zeren haien fideltasunaren froga hautsezina baitiagu (horren lekuko hi heu eta szythiarren espedizioan Dariorekin joan zituan guztiak dituk), beren eskuetan izan baitzitean armada persiar guztia salbu atera edo betiko gal zedin, eta haiek prestutasun eta zintzotasuna erakutsi baitziate, inolako ezbeharririk sortu gabe. Baina hortik aparte, kontuan izanik gurekin etortzean beren haur eta andreak, baita beren ondasunak ere, geure menpeko lurretan utzi dituztela, ez zagok arrazoirik aurka jaikiko zaizkigula uste izateko. Horregatik, ez izan gertagarri horren beldur ere; aitzitik egon hadi horretaz lasai eta har ezak nire interesak eta nire erresuma zaintzeko ardura, zeren, persiar guztien artean, heuri, ez beste inori, uzten baitiat neure zetroa zaintzeko ardura".

53. Hau esanda, Artabano Susara bidali zuen eta gero Xerxesek persiar printzipalenak bilarazi zituen eta aurrera etorri zitzaizkionean haxe esan zien: "Persiarrok, honako hau eskatzeko bilarazi zaituztet: joka ezazue adoretz eta ez zikinez bete persiarren iraganeko balentriak, inportanteak eta goraipagarriak izan ziren-eta; eginahalak eginik jokatu behar dugu bai norberak eta bai denok batera, erdietsi nahi dugun helburua guztion ardurakoa dugu-eta.

Bestalde, kanpainan buru-belarri sartuta joka dezazuen galdatzeko daukadan arrazoia haxe da: jakin izan dudanez jende adoretsoaren aurka borrokatzera goaz eta azpiratzen baditugu, munduan ez da izango guri aurre egiteko gauza datekeen beste armadarik. Oraingoz, bada, zeharka dezagun itsasoa, Persia zaintzen duten jainkoei otoitz egin ondoren".

54. Egun hartan persiarrak itsasartea zeharkatzeko prestatu ziren eta, biharamunean, eguzkia agertzeko zain egon ziren -fenomeno hau ikusi nahi baitzuten-, bitartean zubien gainean orotariko usaingo zozko gaiak errez eta ibilbidea mirto-hostoz estalduz. Eguzkia agertzean, Xerxesek libazio bat egin zuen urrezko kopa batean eta, eguzkiari begira, Europako azken mugaldeen iritsi baino lehen hura menperatzea galarazteko moduko ezbeharririk gerta ez zekion eskatu zion. Eta otoitza bukatu zuenean, Helespontora jaurtiki zuen kopa, baita urrezko kratera bat eta persiar ezpata bat ere (akinákês zeritzon arma honi). Zehatz ez dakidana ea gauza horiek eguzkiari egindako opari gisa jaurtiki zituen ala, Helespontoa zigortzeko agindu izanaz damaturik, itsasoari irain-ordaintzat eskaintzen zizkion.

55. Xerxesek errito horiek bukatu zituenean, zubi batetik -Ponto aldekotik- infanteriak eta zaldieria guztiak zeharkatu zuten itsasartea eta Egeo aldekotik zamariak eta morroiteriak. Aitzinean hamar mila persiarrak zihoazen, buruan koroekin guztiak, eta haien atzetik orotariko herrietako jendea nahas-mahas. Egun hartan horiexek iragan ziren, hurrengoan, aldiz, lehenbizi iragan zirenak zaldizkoak eta lantza-puntak behera begira zeramatzaten gudarosteak (horiek ere koroak zeramatzaten buruan). Jarraian, zaldi eta zalgurdi sakratuak iragan ziren; gero Xerxes bera, baita lantzariak eta mila zaldizkoak ere; hauen atzetik, azkenez, armadako gainerakoak. Eta, aldi berean, untziak aingurak altxatu eta beste alderantz abiatu ziren. Hala ere, beste hau ere entzuna dut, erregek azken zeharkatu zuela itsasartea.

56. Europara iragan zenean, Xerxes armada nola zigorpean pasatzen zen so egon zen; haren tropek zazpi egun eta zazpi gautan zeharkatu zuten itsasartea, etenik txikienik ere egin gabe. Orduantxe -Xerxesek Helespontoa jada zeharkatua

zuenean- esan zuen harriduraz hango herritar batek: "Zeus! Zergatik suntsitu nahi duzu Helade, persiar baten itxura eta Zeus barik Xerxes izentzat harturik hain zuzen, eta zeure buruzagitzapean mundu guztia daramazularik, hori guztia gabe ere egin zenezake eta?".

57. Zeharkatua zuten jada guztiek itsasartea eta abian jartzera zihoazela gauza harrigarri bat, interpretaerraza izan arren Xerxesek aintzat hartu ere ez zuena, ikustea gertatu zitzaien: behor bat erbi batez erditu zen. Mirariak, izan ere, interpretazio erraza zuen: Xerxes harrokeria izugarriaz eta erabat handizki zihoan Heladeren aurkako espedizio haren buruan, baina galdu-gordean itzuliko zen abiapuntura bizia salbatzeko.

Egia esan, Sardesen zegoela ere beste mirari bat ikusi ahal izan zuen erregek: mando batek mandakume bat egin zuen, bietariko ernaltze-organoak zituen: arrarenak eta emearenak (arrarenak emearenen gainean zeuzkan).

58. Mirari horiei jaramonik egin gabe, Xerxesek aurrera egin zuen lehorreko armadarekin. Untziteriak, aldiz, Helespontoko urak utzi eta itsasertzari lehorreko indarren alderantzizko norabidean jarraitu zion, mendebalderantz baitzihoan, Sarpedoniar lurmuturrera heltzeko eta han zain egoteko, aginduta zeukan moduan.

Bitartean, lehorrez aurrera eginez, armadak Khersoneso zeharkatu zuen iparrekialdeko norabidean, eskuinaldean Athamasen alaba Heleren hilobia⁹⁷ eta ezkerraldean Kardia hiria utziz, eta hain zuzen ere Agora deritzon hiri baten erdialdetik iragan zen. Handik aurrera, Melas izenaz ezgutzen duten golkoa inguratu zuen eta Melas Ibaia zeharkatu, beraren ur-emaria tropen premiei erantzun aurretik agortu zelarik; ibai hori -aipatu dudana golkoari ere izena eman diona- iragan ondoren, armadak mendebalderantz egin zuen, Eno hiri eoliarraren eta Stentoride lakuaren inguruetatik igaroz, Doriskoraino.

59. Dorisko Thraziako kostaldeko eskualde bat da, lautada zabal bat duena, bertan zehar ibai emaritsu bat doalarik: Hebro ibaia.

Lautada horretan erregeren gotorleku bat eraiki zen (goterleku horixe da hain zuten ere Dorisko izena hartzen duena) eta Dariok szythiarren kontra espedizioa eroan zuen garaitik soldaduak kantonatu ziren bertan, erregeren aginduz. Xerxesek pentsatu zuen huraxe zela leku egokia tropen errekontua antolatu eta egiteko eta halaxe egin zuen. Horretan, untzidi-buruek agindua eman zuten untzi guztiek, Doriskora heltzean, gotorlekutik hur zegoen hondartzara jo zezaten, hortxe direlarik Sale (samothraziar hiri bat) eta Zone, eta azken honen ertzean Serreo lurmutur ospetsua⁹⁸ (alde hau antzina zikonena zen). Hondartza horrexetara heldu ziren untziak; eta, lehorrera atera ondoren, sikatzen utzi zituzten. Bitartean, Doriskon, Xerxesek bere indarren errekontua egiten hasteko agindu eman zuen.

60. Honetan, ezin dut zehatz esan zenbat lagun zekarren herri bakoitzak (inork ez baitu honi buruzko informaziorik ematen), baina gauza ziurra da lehorreko armada guztira milioi bat zazpiehun mila gizonak osatzen zutela. Eta beraien errekontua honelaxe egin zen: leku batean hamar mila bildu zituzten, ahalik gehien pilatuz, eta gero guztiak barruan hartzen zituen zirkulu bat marratu zuten. Hori egin ondoren, hamar mila gizonok handik atera eta, zirkuluaren marrari jarraiki, gizonaren zilborrerainoko hesi bat eraiki zuten. Lana bukaturik, beste hamar mila lagun ekarri zituzten hesi barrura, horrexetara ihardunez gizon guztien errekontua egin arte. Eta zenbat ziren jakin ondoren, nazioka lerrokatuta jarri zituzten.

61. Honako herri hauexek ziren partaide kanpainan. Lehenengo persiarrak, honelaxe jantzita eta hornituta: buruan feldro malguzko txanoak zeramatzaten eta soinean kolore ikusgarritzko tunikak, mangak eta korazak zituztenak, arrainen ezkatzen antzeko burdinazko laminaz estalduak; hanketan anaxyridak zeramatzaten eta, metalezkoak barik, mimenezko ezkutuak, eta berauen azpian esekita geziontzia. Halaber, lantza laburrak, kanaberazko arku handiak eta geziak eta, gainera, eskuineko izterraren ondoan sastagaiak zeramatzaten gerrikotik zintzilik. Otanes, Amestris Xerxesen emaztearen aita, zuten buruzagi. Persiar hauei antzina heleniarrek zepheoarrak deitzen zieten baina berek beren buruari arteoak⁹⁹ esaten zioten eta haien auzoek ere bai. Hala ere, Perseo, Danae eta Zeusen semea, Zepheo Belorenaren gortera heldu zenean, erregeren alaba zen Andromedarekin ezkondu eta seme bat izan zuen eta izena Perses ipini zion, eta, handik alde egitean, herrialde hartantxe utzi zuen, Zepheok semerik ez zeukan-eta. Bada, pertsonaia horrexen oroitzapenez hartu zuten persiarrak izen hori.

62. Mediarrek, berriz, berdina jantzita zihoazen kanpainara, janzkera hori jatorriz mediarrena baita, eta ez persiarrena.

Mediarrek Tigranes Akhemenida zeramaten buruzagi. Eta antzina arioak¹⁰⁰ esaten zien mundu guztiak; baina Medea kolkidarra Athenastik haien herrialdera heldu zenean, haiek ere izena aldatu zuten. Horixe da beren leinu-izenaz mediarrek berek kontatzen dutena.

Espedizioan zihoazen zisiarrak oro har persiarrak bezalako jantzi eta armak zeramatzaten, baina feldrozko txanoen ordeztatik zeramatzaten buruan. Ziziarren buru Anaphes, Otanesen semea, zihoan. Hyrkaniarrak persiarrak bezala armaturik zihoazen eta buruzagi Megapano zeramaten, gero Babylongo gobernadore izango zena.

63. Espedizionari asiarrak brontzezko kaskoak zeramatzaten buruan, deskribaeraz ez den teknika arrotz baten arabera kordatuak; ezkutu, lantza eta sastagaiak ere bazeramatzaten, egiptoarren antz-antzekoak, baita zurmailuak ere burdinazko iltzeak sartuta eta lihozko bularrekoak. Heleniarrek jende hauei asiarrak deitzen zieten, baina barbaroek asiarrak esaten diete. [Horien artean khaldearrak ere bazeuden]. Otaspes zuten buru, Artakheesen semea.

64. Espedizioan zihoazen baktrarrak mediarren txanoen modukoak zeramatzaten buruan eta kanaberaz egindako arkuak, euren herrialdean tipikoak direnak, eta lantza laburrak aldean.

Sakek, berriz, -herri szythiar batekoak beraiek- puntan bukatzen ziren durbante zurrin batzuk zeramatzaten buruan, anaxyridak jantzita zihoazen eta beren herrialdeko tipikoak diren arkuak, sastagaiak eta sagaris¹⁰¹ deritzeten aizkorak zeramatzaten aldean. Szythiar amyrgiarrak ziren arren, sakak esaten zieten, persiarrak szythiar guztiei deitzen baitiete sakak.

Baktrarren eta saken buru Hystaspes zihoan, Darioren eta Atosa Zyrorenaren semea.

65. Indiarrak soinean kotoiz egindako jantziak zituztela zihoazen eta kanaberaz egindako arkuak eta geziak zeramatzaten, baina hauek burdinazko puntadunak ziren. Horrelaxe jantzi eta armatuta zihoazen, bada, indiarrak eta, taldea eginik, Pharnazathres Artabatesenaren agindupean jarrita.

66. Arioek mediar arkuak zeramatzaten eta gainerako jantzi eta armak baktrarrenak bezalakoak ziren. Sisamnes Hydarnesena ageri zen beraien buru.

Partho, khorasmiar, sogdianar, gandariar eta dadikei dagokienez, baktrarrak bezala horniturik zihoazen espedizioan. Eta beraien buruzagi hauexek zihoazen: parthoen eta khorasmiarren buru, Artabazo Pharnazesena; sogdianarren buru, Azanes Arteorena, eta gandariarren eta dadiken buru, Artyphio Artabanorena.

67. Espedizionario kaspiarrek larruzko zamarraz jantzita zihoazen eta kanaberazko arkuak, beren herrialdeko tipikoak, eta alfanjeak zeramatzaten. Horrelaxe ekipaturik zihoazen kaspiarrek, Ariomardo Artyphioren anaia buru zutela.

Sarangak beren jantzi tindatuek bereizten zituzten; gainera, belaunetarainoko botak zeramatzaten, baita mediarrek bezalako arku eta lantzak ere. Sarangen buru Pherendates Megabazorena ageri zen.

Pakthikarrek, larruzko zamarraz jantzita, beren herrialdean tipikoak diren arkuak eta sastagaiak zeramatzaten aldean. Artayntes, Ithamitresen semea, zuten buru.

68. Utio, myko eta parikanioak pakthikarrek bezala ekipaturik zihoazen. Eta beraien buruzagiak hauexek ziren: utiar eta mykoarren buruzagi, Arsamenes, Darioren semea, eta parikanioen buru, Siromitres Eobazorena.

69. Arabiarrek mantu zabalak zeramatzaten gerrian estututa, eta, eskuin eskuan, alderantzizko kurbaturako arku handiak.

Ethiopiarrek, berriz, pantera eta lehoi larruz jantzita zihoazen eta arku handiak zeramatzaten -lau ukalondotik beherakoak ez zirenak-, palmadarrez egindakoak, gezi txikiak adosten zitzaizkienak; geziok kanaberazkoak ziren, puntan, burdina barik, harri zorrotz bat dutenak, beren zigiluak zizelatzeko ere erabiltzen zutena. Gainera, lantza berezi batzuk zeramatzaten, puntan gazela-adar zorrotz bat zutenak, baita zurmailuak ere, iltzeak sartuta zituztenak. Gainera, borrokan hasteko gorputz erdia igeltsuz eta beste erdia minioz igurtzi eta mazkiltzen dute.

Arabiarren eta Egiptoko hegoaldean bizi diren ethiopiarren buruzagi Arsames, Darioren eta Artystone Zyrorenaren semea ageri zen (ama Darioren emazte kutunena zen, erregek haren irudia mailuz landuriko urrezko estatua batean ateratzeko agintzeraino).

70. Horrela, bada, Egyptoko hegoaldean bizi diren egyptoarren eta arabiarren buru Arsames zihoan. Ekialdeko ethiopiarrek, aldiz, indiarrekin batera zihoazen (herri biok baitziren espedizioan); hauek ez dira beste ethiopiarrengandik bereizten ezein fisonomi ezaugarritan; haien bereiztasun bakarra hizkuntza eta adatsean datza, ekialdeko ethiopiarrek ile leuna baitute, Libyakoek, ordea, munduko ilerik kizkurrena duten artean. Asiako ethiopiar hauek indiarrek bezala jantzirik eta armaturik zihoazen oro har; baina buruan zaldien buruei kenduriko larruak zeramatzaten, belarriak eta zurda eta guzti; zurdak gandortzat balio zieten eta zaldi-belarriak tente-tente zeramatzaten. Gainera, metalezko ezkutuz barik, kurrika-larruz babesten ziren.

71. Libyarrak larruzko jantziak zihoazen eta sutan zorrozturiko azkonak zerabiltzaten. Masages Oarizorena zuten buruzagi.

72. Espedizionario paphlagoniarrek kasko kordatuak zeramatzaten buruan; ezkutu txikiak, tamainu ertaineko lantzak, baita azkonak eta sastagaiak ere, eta oinetan beren herrialdeko bota tipikoak jantzita zihoazen, hankerdia heltzen zitzaizkienak.

Espedizionario ligureak, hala nola matienoak, maryandoak eta syriarrak, paphlagoniarrek bezalako jantzi eta armak zeramatzaten. Syriar horiei kapadoziarrak esaten diete persiarrek.

Orain bada, paphlagoniarren eta matienoen buru Doto Megasidresena ageri zen, maryandinoen, ligureen eta syriarren buru Gobryas, Dario eta Artystoneren semea, zihoan artean.

73. Phrygiarrek paphlagoniarren oso antzeko jantzi eta armak zeramatzaten (txikiak ziren aldeak). Aipatzekoa da phrygiarrek brigeak izena hartu zutela, mazedondarrek diotenez, Europan izan ziren denbora guztian, hemen mazedondarren auzoak izan zirelarik,

baina, Asiara emigratu zutenean, lurraldez aldatzean izenez ere aldatu egin ziren, phrygiarrak deitzera igaroz.

Armeniarrek, berriz, phrygiarrak bezala ekipaturik zihoazen, hauen kolonoak baitira.

Herri biotako indarren buru Artokhmes zihoan, Darioren alaba batekin ezkondua.

74. Lydiarrek heleniarren oso antzeko armak zeramatzaten. Esan behar, antzina, lydiarrak izenez meiondarrak zirela, baina Lydo Atysenaren oroitzapenez, leinu-izena aldatu eta oraingoa hartu zuten.

Mysiarrek, aldiz, beren herrialdeko kasko tipikoak zeramatzaten buruan, ezkutu txikiak eskuetan eta sutan zorrozturiko azkonak. Jende horiek Lydiako kolonoak dira eta, Olympo mendia dela-eta, olympiarrak deitzen diete.

Lydiarren eta mysiarren buru Artaphrenes zihoan, Marathonen kontrako erasoan Datisekin joan zen Artaphrenesen semea.

75. Espedizionari thraziarrak azeri-larruak zeramatzaten buruan, tunikaz jantzirik zihoazen eta kolore bizietako mantu zabalak zeramatzaten gainean, eta oinetakotzat oreinkume-larruzko botak, belaunetarainokoak; gainera azkonak, peltak¹⁰² eta sastagai motzak zeramatzaten. Asiara iragan zirenean thraziar hauei bithyniarrak deitu zieten, nahiz eta, beraiek esandakoaren arabera, lehenago izenez strymondarrak baziren ere, Strymon ibaiaren ondoan bizi zirelako. Berek diotenez, teukroek eta mysiarrek jaurtiki zituzten beren lurretatik.

Asiako thraziar hauen buru Basazes Artabanorena zihoan.

76. [Pisidiarrak] ondu gabeko idi-larruzko ezkutu txikiak zeramatzaten, gudari bakoitzak lyziarrek egindako jabalina pare bat zeraman aldean eta buruan brontzezko kaskoak (kaskoei itsatsita idi-belarri eta adarrak eta haien gainean gangarra) eta hankak purpura-koloreko bendaz bildurik zeuzkaten. Horien herrian Aresen¹⁰³ orakulu bat daukate.

77. Kabele meiondarrak, lasoniarrak deritzenak, ziliziarrak bezalako jantzi eta armak zeramatzaten; jantzi hauek narrazio honetan ziliziarrengana heltzen naizenean deskribatuko ditut.

Milyadekoek lantza laburrak zeramatzaten eta jantziak fibulez lotuta. Haietako batzuek, gainera, arku lyziarrak zeramatzaten eta onduriko larruez egindako kasketa buruan.

Guztion buru Badres, Hystanesen semea, zihoan.

78. Moskhoek egurrezko kasketak zeramatzaten buruan eta ezkutuak besoan, baita lantza txiki batzuk ere, baina punta luzedunak.

Espedizionari tibarenoak, makroiak eta mosynekoak moskhoak bezala ekipaturik zihoazen.

Hauek guztiak honako buru hauexek zeramatzaten: moskho eta tibarenoen buru, Ariomardo zihoan, Dario eta Parmysen semea, ama Smerdis Zyrorenaren alaba zelarik; makroien eta mosynekoen buru, Artayktes Kerasmisena, Helesponton Sestoko gobernardore zena.

79. Mareek beren herrian tipikoak diren kasko kordatuak zituzten buruan; gainera, larruzko ezkutu txikiak eta azkonak zeramatzaten aldean.

Kolkhoek burua babesteko egurrezko kaskoak zituzten eta ondu gabeko idi-larruzko ezkutu txikiak, lantza laburrak eta, azkenez, aihotzak zeramatzaten.

Mareen eta kolkhoen buru Pharandates Teaspisena zihoan.

Alarodio eta saspirear espedizionariak, berriz, kolkhoak bezala zihoazen armaturik. Masistio, Siromitresen semea, zeramaten buru.

80. Erythre itsasotik armadara bildu ziren herri uhartetarrek (hain zuzen ere, "desterratuak" deritzenak erregek konfinatu ohi dituen uharteetatik etorritakoak ziren) mediarren antz-antzeko jantzi eta armak zeramatzaten.

Uhartetarron buru Mardontes Bageorena zihoan, gertakariotatik urtebetera Mykalen jeneral izan eta hilik gertatu zena borrokaldian.

81. Horiexek ziren kanpainan lehorreko gudarosteak, infanteria osatzen zutenak, alegia. Bada, hauen buru aipatu ditudanak ziren eta berak izan ziren gudarosteok eratu eta euren errekontua egin zutenak eta armada-kiliarkak eta miriarkak izendatu zituztenak (eta hauek gero hekatonarkak eta dekarkak¹⁰⁴ izendatu zituzten). Gainera, beste ofizial batzuk ziren zenbait unitateren eta talde etnikoren buru.

Gudaroste horien buruak, berriz diot, aipatu ditudan pertsonaiak ziren.

82. Hala ere, horien guztion buru, baita infanteria osoaren buru ere, hauexek ziren: Mardonio Gobryasena eta Tritantekhmes Artabanorena (Heladeren kontrako espediziorik ez antolatzearen aldeko izan zenaren semea, alegia), Smerdomenes Otanesena (azken biok, Darioren anaia biren semeak ziren eta, beraz, Xerxesen lehengusuak), Masistes, Dario eta Atosaren semea, Gergis Ariazorena eta Megabyxo Zopyrorena.

83. Horiexek ziren infanteriako gudaroste guztien jeneralburuak, Hamar Milena izan ezik. Eliteko tropak ziren hamar mila persiar horien buru Hydarnes, Hydarnesen semea, zihoan. Eta soldadu persiar horiei "Hilezinak" zeritzen, honexegatik hara: haietariko bat hil edo gaixotu eta kopurua murriztuz gero, ordezkoa hautatzen zitzaion eta, horretara, hamar milako kopuruak ez zuen ez gora ez behera egiten.

Persiarrek, bestalde, jantzi dotoreenak zeramatzaten eta gudaririk onenak ziren. Esan dut nolako jantziak eta armak zeramatzaten, baina ageri zituzten urrezko objektu ugariak ziren haien bereizgarri printzipala. Gainera, harmamaxak zeramatzaten, eta haietan beren ohaideak eta morroiteria ugaria eta ezin hobeto ekipatua. Beraien hornidura beste soldaduena ez bezalakoa zen eta huraxe eramateko bestetarako ez ziren gamelu eta zamariek garraiatzen zuten.

84. Aipatu ditudan herri horiek zaldia erabili ohi dituzte, baina guztiek ez zekarten zaldieria; hauexek bakarrik ziren zekartenak: lehenik eta behin persiarrak, beren infanteriako indarrak bezala ekipaturik zihoazelarik zaldunok ere (haietako batzuek, alabaina, buruan brontzezko eta burdina forjatuzko kasko moduko batzuk zeramatzaten).

85. Badira, izan, sagartioak deritzen nomada batzuk (hizkuntzaz eta arrazaz persiarrak dira, erdipersiarra eta erdipakthikarra den janzkeraz ibiltzen badira ere), mila zaldizko zekartzatenak. Jende horiek, sastagaiak salbu, ez dute burdinazko ez brontzezko armarik erabiltzen, baina larru kordatuzko zerrendez egindako lakio batzuk erabiltzen dituzte eta lakioen eraginkortasunak konfiantza ematen die borrokaratzean. Morroi horiek erabiltzen duten taktika hauxe da: beren etsaien parera heltzen direnean, mutur bietan lakioa duen lakioa jaurtikitzen dute eta aparatzen duten guztia, gizona zein zaldia, narras eramaten dute berengana, harrapaturikoak beren soka horietan galtzen direlarik. Horixe da persiarrekin batera jarri zituzten morroi horiek erabiltzen duten taktika.

86. Gero zaldizko mediarrek zeuden, beren infanteriako soldaduak bezalako janzkeraz, baita zisiarrak ere. Indiarrek ere beren infanteriako gudarosteek zeramatzaten jantzi eta arma berdinak zituzten aldean; gainera, zelaz hornituriko zaldien gainean eta zaldiek eta basasto indiarrek tiraturiko gurdietan zihoazen. Baktrarrak beren infanteriako indiarrek bezala zihoazen ekipaturik, eta sakak ere bai.

Libyarrak ere beren infanteriako soldaduak bezala armaturik zihoazen, eta guztiak zalgurdietan. Besteak bezalaxe, kaspiarrak eta parikanioak ere beren infanteriako soldaduak bezala jantzi eta horniturik zihoazen. Arabiarrek ere beren infanteriako gudarosteek bezalako jantzi eta armak zeramatzaten, eta gamelu gainean zihoazen, animalia horiek abiaduran ez dietelarik zaldiei ezer zor.

87. Herri horiexek ziren zaldieriako indarrak zekartzaten bakarrik, laurogei mila zaldi inguru guztira, gameluak eta gurdia kontatu gabe. Esan beharra dago, gainera, zaldieriako indar guztiak eskoadroika banatu zituztela, arabiarrek izan ezik, hauek

erretagoardian baitzihoazen; izan ere, zaldiek gameluak aldamenean ikusi ere ezin dituztenez, hauek atzerengo zihoazen, zaldieria izu ez zedin.

88. Zaldieriaren buru Harmamithres eta Titheo zihoazen, Datisen semeak, berauekin batera buru zen hirugarrena, Pharnukhes, gaixotasun batek jota Sardesen geratu baitzen.

Izan ere, armada Sardestik irtetean, zorigaiztoko ezbehar bat izan zuen Pharnukhesek; zaldigainean zihoala, txakur bat iragan zitzaion arrapaladan hankartetik zaldiari eta, etortzen ikusi ez zuenez, izutu eta gora-goraka hasita hankaz gora bota zuen Pharnukhes lurrera; jaustean odola bota zuen ahotik eta gaixotasun hori tisi bilakatu zitzaion. Eta, zaldiari dagokionez, Pharnukhesen morroiak, unerik ere galdu gabe, haren aginduak zehatz-mehatz bete zituzten: ugazaba hankaz gora bota zuen tokira eraman eta hantxe bertan moztu zizkieten hankak belaunetatik. Horrelaxe izan zuten Pharnukhes agintetik kendu beharra.

89. Triereen kopurua, bestalde, mila berrehun eta zazpikoa zen eta indar horiek zekartzaten herriak hauexek ziren. Pheniziarrek hirurehun zekartzaten Palestinako syriarrekin batera, eta honelaxe ekipaturik zihoazen: buruan heleniarren antz-antzeko kasketak zituzten, eta lihozko bularrekoak, ertz irtenik gabeko ezkutuak eta azkonak zeramatzaten. Aipaturiko pheniziarrok hain zuzen, beraiek diotenez, antzina Erythre itsasertzean bizi ziren eta handik Syriara pasa ziren, bertako kostaldean geldituz (Syriako alde horri eta Egyptoraino hedatzen den zonalde horri Palestina deritzo).

Egyptoarren berrehun untzi zekartzaten. Gizonek mailadun kaskoak zituzten buruan eta ezkutu konkaboak, ertz irten-irtenak zituztenak, abordajeetarako lantza bereziak eta gudu-aizkora handiak zeramatzaten. Beraietako gehienak korazak zeramatzaten eta aihotz handiak ere bai.

90. Horrelaxe armaturik zihoazen egyptoarrak.

Zyproarren, berriz, ehun eta berrogeita hamar untzi zekartzaten eta honelaxe ekipaturik zihoazen: haien erregeek¹⁰⁵

buruan mitrak zituzten eta besteez, osteraz, kithonak¹⁰⁶, gainerako guztian heleniarrak bezala zihoazelarik. Eta, ziproarrek berez esandakoaren arabera, honako herrialde hauetako guztietako talde etnikoak dituzte beren artean: Salamina eta Athenaskoak, Arkadia, Zythno, Phenizia eta Ethiopiakoak.

91. Ziliziarrek ehun untzi zekartzaten. Hauek ere beren herrialdean tipikoak diren kaskoak zituzten buruan; metalezko ezkutuak barik, ondu gabeko idi-larruz egindako adargak zeramatzaten, eta artilezko tunikaz jantzita zihoazen. Gudariok, gainera, azkona bina eta egiptoarren aihotzen antz-antzekoak ziren ezpata bana zeramatzaten. Ziliziarrei antzina hypakheoak¹⁰⁷ zeritzen, baina Zilix, Agenor pheniziarren semearen oroitzapenez oraingoxe izena hartu zuten.

Pamphyliarrek, heleniarren antzeko armaz horniturik, berrogeita hamar untzi zekartzaten. Herri honetako kideak, heleniarrek Troiatik itzultzean sakabanatu beharra izan zutenean, Amphilokho eta Kalkanterekin joan ziren soldaduen ondorengoak dira.

92. Lyziarrek berrogeita hamar untzi zekartzaten. Korazak eta grebak zituzten aldean eta zuhandorrezko arkuak, luma gabeko geziak eta azkonak zeramatzaten; gainera, sorbaldetatik zintzilik, ahuntz-larruak zeramatzaten eta buruan lumazko koroan amaituriko feldrozko txanoak; sastagaiak eta zimitarrak ere bazeramatzaten.

Esan beharra dago jatorriz Kretakoak ziren lyziarrei termilak zeritzela, baina Athenasko Lyko Pandionenaren oroitzapenez oraingo izena hartu zuten.

93. Asiako doriarrek, jatorriz Peloponesokoak zirenek eta heleniar motako armaz horniturik zihoazenez, hogeita hamar untzi zekartzaten.

Kariarrek, zimitarrak eta sastagaiak ere eramanez oro har heleniarrak bezala armaturik, hirurogeita hamar untzi zekartzaten. (Liburu honen hasieran esan dut nola zeritzon lehenago herri honi).

94. Heleniarrak bezala ekipaturik zihoazen joniarrak ehun untzi zeramatzaten. Esan behar dut, bidenabar, Peloponeson -Danao eta Xutho hara heldu baino lehen- gaur egun Akhaia deritzon aldean izan ziren denbora guztian, joniarrei, heleniarrek diotenez, pelasgiar egialeok zeritzela eta, geroago, Jon Xuthorenaren oroitzapenez, joniar deitzera heldu zirela.

95. Uhartetarrak heleniarrak bezala horniturik zihoazen eta hamazazpi untzi zekartzaten (talde etniko hau ere herri pelasgiar bat zen, baina geroago joniar deitu zitzaizen, Dodekapolisko joniarrak, jatorriz Athenaskoek, horretarako izan zuten arrazoi beragatik).

Heleniarrak bezala ekipaturik zihoazen eoliarrak hirurogei untzi zekartzaten eta hauei, heleniarrek diotenez, antzina pelasgiarrak zeritzen.

Helespontoarrek, abydoarrek izan ezik (hauek erregeren agindua hartua baitzuten zubiak zaintzen geratzeko), Pontotik zetozen beste guztiek, diot, ehun untzi zekartzaten eta heleniarrak bezala ekipaturik zihoazen (alde horretako jendeak, izatez, kolono joniar eta doriarren ondorengoak dira).

96. Untzi guztietan soldadu persiar, mediar eta sakak zihoazen. Bestalde, itsas armadara untzirik arinenak zekartzatenak pheniziarrek ziren, eta hauen artean onenak Sidongoak.

Indar guztion buru, lehorreko gudarosteetan jazotzen zen bezala, herri bakoitzeko buruak zeuden; haien izenak, hala ere, ez ditut liburu honetan aipatzen, beronen helbururako hori egin beharrik ez daukadalako, kontuan izanik herri ezberdinetako buruak ez zirela bereziki nabarmendu beharrekoak eta talde etniko bakoitzean zenbat hiri hainbat buru zegoela. Gainera, armadan ez ziren sartu agintedun izateko, beste espedizionari guztiak bezala menpeko gisa baizik, eta lehenago adierazi dut nortzuk ziren aginte gorena zuten jeneral persiarrak eta zein persiar zihoan herri bakoitzaren buruzagi.

97. Untzidiko almiranteak hauek ziren: Ariabignes, Darioren semea; Prexaspes, Aspathinesen semea; Megabazo, Megabatesen semea eta Akhemenes, Darioren semea.

Untzi-indar joniar eta kariarren buru Ariabignes, Darioren eta Gobryasen alabaren semea zihoan; untzi egyptoarren buru, Akhemenes, Xerxesen anaia aita-ama berengandikoa; eta untziteriako gainerako indarren buru beste almirante biak. (Triekontereak, pentekontereak, zerkuroak¹⁰⁸ eta zaldiak garraiatzeko gabarra handiak, bat eginda, baziren, dudarik gabe, hiru mila untzi).

98. Bestalde, untziteriako pertsonaiarik ospetsuenak -almiranteen ondoren, hori bai- hauexek ziren: Sidongo Tetramnesto Anysorena, Tyroko Maten Siromorena, Aradoko Merbalo Agbalorena, Ziliziako Syenesis Oromedonterena, Lyziako Zybernisko Kosikasena, Gorgo Khersisena eta Timonax Timagorasena, azken biok zyproarrak, eta Histieo Tymnesena, Pigres Hyseldomorena eta Damasithymo Kandaulesena, azken hirurok kariarrak.

99. Ongi, ez ditut jarraian beste ofizialak aipatuko, horretarako beharrik ez dut ikusten eta. Baina Artemisia aipatu nahi dut, Heladeren aurkako espedizioan esku hartu zuen eta aparteko mirespenaz dakusadan emakume bat, hark berak betetzen baitzituen tirani eginkizunak (senarra hil egin baitzitzaion semea oraindik gazteegia zela) eta kanpainan ezerk ere hartara behartu gabe esku hartu zuen, bere ausartziak eta adoreak bultzatuta.

Esan dudan bezala, Artemisia zuen izena eta Lygdamisen alaba zen, jatorriz aitaren aldetik halikarnasoarra eta amarenetik kretarra zelarik. Halikarnaso, Kos, Nisyro eta Kalydnan agintzen zuen eta bost untzi zekartzan. Untziok hain zuzen untziteria guztian ere osperik handienekoak ziren -Sidongoen ondoren, hori bai- eta Xerxesen aliatu guztien artean bera izan zen erregeri aholkurik zuhurrenak eman zizkiona. Halaber, zehaztu nahi dut Artemisiak, esan dudan moduan, agintzen zuen hirietako populazioa doriarra zela oso-osorik, halikarnasoarrak jatorriz Trezengoak baitira, gainerakoak Epidaurokoak diren artean.

100. Azkenera heldu gara, bada, eta hementxe amaitzen da itsas armadaren deskribaketa.

Bitartean, armadaren errekontua eta antolaketa egin ondoren, Xerxesek lerroen ikuskaketa egitera joan nahi izan zuen. Eta horrelaxe egin zuen berehala: zalgurdi baten gainean, talde etniko ezberdinen aurretik pasa zen informazioa galdatuz, bere idazkariak, anartean, dena apuntatzen zutelarik, harik eta mutur batetik bestera hala zaldieriako nola infanteriako tropa guztiak ikuskatu arte. Ikuskaketa bukatu zuenean, untziak itsasoratu egin ziren eta errege, zihoan gurditik, Sidongo untzi batera iragan zen, urrezko palio baten pean eseri zen eta beste untzi guztien branka aldetik iragan zen, bakoitzari banan-banan galderak eginez, lehorreko armadari bezala, eta erantzunak jaso zitzaaten arduratuz.

Untzi-kapitainek beren untziak itsaso zabalera zuzendu zituzten eta han aingurak bota, lerro bakar bat eratuz, itsasertzetik lau bat pletzora¹⁰⁹, untziek lehorrari branka emanda ipini ondoren eta barruko soldaduak betileetaraino armaturik jarri ondoren, borrokan hasiera balihoaz bezala. Xerxesek, bada, untzi-branken eta itsasertzaren artean nabigatuz pasa zuen errebista.

101. Untzi batetik untziteria ikuskatu ondoren, Xerxesek, lehorreratu zenean, Demarato Aristonenaren bila joan zitezen agindu zuen -Heladeren kontrako espedizio honetan baitzihoan- eta, hurbiltzeko esan ondoren, galdetu zion: "Demarato, gauza bat jakin nahi dut eta zuri galdetzeko gogoia daukat une honetan. Zu heleniarra zara eta, gainera, zu zeugandik eta nire aurrean izandako beste heleniarrengandik aditurik dudanez, Heladeko kaxkarren eta ahulena ez den hiri batekoa. Argi iezadazu, horregatik, orain, ea heleniarrak nire erasoari jarkitzen ausartuko direnentz. Zeren, ene aburuz, heleniarrak eta Mendebaldean bizi diren herri guztiak elkarrengana bilduz gero ere, ez dira nire erasoari eusteko moduko etsaiak, beren artean ongi koordinaturik jokatu ezean batik bat".

Horixe galdetu zion Xerxesek. Demaratok, berriz, hauxe erantzun zion: Jauna, egi-egia esan behar dizut ala lausengatu egin behar zaitut?". Erregek, orduan, egia esateko agindu zion, ez zuela-eta horregatik bere begikotasuna galduko.

102. Hori entzunda, Demaratok hauxe diotso: "Errege, egi-egia esateko agintzen duzunez, egunen batean gezurra esatearren errudun idoro ez nazazun, esango dizut Heladek pobrezia lagun banaezin izan duela betidanik, baina herri honetan giza bikaintasunak¹¹⁰ ere erroak bota dituela -argi jokatura eta lege sendoen bidez erdietsi delarik hori-, eta bikaintasun horrekiko zintzo jokatzek bere burua pobreziatik eta despotismotik defendatzeko modua eskaintzen diola. Horregatik, goraipamena besterik ez dut lurralde haietan bizi diren heleniar guztientzat, baina hurren esango ditudan hitzak ez diet haiei guztiei aplikatuko, lazedemonдарrei soilik baizik: jakin behar duzu, batik bat, ez dituztela inoiz ere zure baldintzak onartuko, heleniarrentzat morrontza suposatzen dute-eta; baina, gainera, ziur egon gudukelaian aurre egitera jalgiko zaizkizula, beste heleniar guztiek zure baldintzak oso-
osorik onartzen badituzte ere. Eta ez galdetu zenbat izan beharko duten jarrera bori hartzen ausartzeko, zeren, beren armada osatzen dutenak mila izatea gertatuz gero, mila horiek borrokatuko dira zure aurka, eta gauza bera egingo dute gutxiago izanda zein gehiago izanda ere."

103. Hitzok entzutean, Xerxes barrezka hasi zen eta esan zuen: "Demarato, zer diozu? Mila gizonen nirea bezalako armada boteretsuaren aurka borrokatuko dutela? Baina, esaidazu: zu zeu, diozunez, jende horien errege izan zara. Prest egongo al zinateke oraintxe berton zeure burua hamar gizonekin neurtzeko? Are, zuen hiritar guztiak zuk diozun bezalakoak badira, haien errege zaren horrek, zeuen legeen arabera, bi bider etsai gehiagori aurre egin behar diezu, zeren, haietako bakoitza nire armadako hamar gizon adina bada, espero dut zu hogeia adina bederen bazaratekeela, esan duzuna egia izan dadin nahi baduzu.

Orain bada, zu zeu eta nire aurrera etorri ohi diren heleniarrak, dituzuen bezalako koalitater pertsonal eta fisikoak edukita, horrelako harropuzkeriatan bazabiltzate, kontuz gero baiezpen hori fanfarroikeria garbia gerta ez dadin. Zeren..., utz iezadazu auzia logika hertsiaz begiratzen! Nola egin diezaiekete aurka honelako armada boteretsu bati mila, hamar mila, are berrogeita hamar mila gizonen, guztiek baldin badute askatasun berdina eta pertsona bakar baten agindupean ez baldin badaude? Bada, lazedemonдарrak bost mila direla jota ere, zalantzarik ez dago mila baino gehiago garela haietako bakoitzaren aurka. Gure jokamoldeaz balihardute, hots, guztiak pertsona bakar baten agindupean, baliteke haiek, ugazabaren beldurrez, beren naturatik gorako adorea ere erakustea eta, askoz gutxiago izan arren, zigorkaden pean, kopuruz askoz indartsuagoa den etsaiaren aurka jotzera beharturik aurkitzea; libertinajearen pean jardunez gero, ordea, ezingo dute ez bata ez bestea egin.

Gainera, ni neu konbentziturik nago, indarrez paretsu izanda ere, heleniarrak nekez neurtu ahal izango liratekeela persiarrekin soilik ere. Aitzitik; gure artean bai aurkitzen dela, eta ez beste inorengan, zuk diozun kemen hori (nahiz eta gure artean ere ez sarritan -aitortu behar da-, nahikoa gutxitan baizik): nire goardiako persiarren artean badira hiru heleniarrekin batera neurtzeko prest daudenak. Zuk hainbeste zentzugabekeria, horiek ezagutzen ez dituzulako esan dituzu"

104. "Jauna, -erantzun zuen Demaratok hura entzunda- hasieratik jakin dut, egia esanez gero, nire hitzak ez zitzaizkizula gozo jarriko; baina, egi-egia esatera behartu nauzunez gero, halaxe egin dut spartarren izakerari buruz. Eta hori, zuk badakizula, ondo jakin ere, nolako begikotasuna diedan nik orain neure kargutik

bota eta arbasoengandik hartu nituen onurabide guztiak kendu zizkidaten eta aberririk gabeko erbestetu bihurtu nauten horiei; zuen aitak, ordea, hartu egin ninduen eta gero bizirauteko modua eta etxe bat luzatu zizkidan. Ez da arrazoizko, bada, burutsu samar denak eskaintzen zaizkion harrera-erakutsiei muzin egitea, sakonki estimatu beharrean.

Nik ez diot hamar gizoni, ezta biri ere, aurre egiteko gauza naizenik, eta, nigan balego, ez nuke bakar batekin ere borrokatu nahi. Baina derrigorra balitz edo merezi duen xede batekin hartaratuko banindu, batik bat hiru heleniar adina badirela dioten horietako batekin borrokatuko nuke gustuen. Lazedomondarrei ere gauza bera gertatzen zaie: Buruz buruko borroketan ez dira inor baino gutxiago, eta eraketa trinkoan, ordea, munduko gudaririk onenak ditugu. Zeren, aske izan arren, ez baitira erabat aske, haien norakoa ugazaba goren batek, legeak, artezen duelako, beren baitan beldur handiagoa diotelarik hari, zeure menpekoek zeuri dizutena baino ere. Bete ere, beti betetzen dituzte haren aginduak, eta beti agintzen die gauza bera: ezergatik ere ez die guduzelaitik ihes egiten uzten, nor bere postuan iraun behar dutelarik garaitzeko ala hiltzeko.

Orain bada, diotsudanari astakeria baderitzozu, konforme, baina aurrerantzean neure iritziak gordetzera joko dut (oraingoan ere, hitz egin badut, horretaratu nauzulako izan da). Hala ere, errege jauna, hobe guztia badoakizu zeuk nahi duzun bezalaxe."

105. Horixe izan zen, esateko, Demaratok ihardetsi ziona. Xerxesek, berriz, barrez hartu zuen hark esandakoa eta ez zuen haserre modurik erakutsi, eta erretiratzeko agindu zion, adiskidetsu.

Demaratorekin izandako elkarriketaren ondoren, arestian aipatu dudan Doriskoko gobernadore Maskames, Megadosten semea, izendatu zuen (aurretik Dariok izendaturikoa kargutik kendu ondoren), eta, bere tropen buru, Thrazia zeharkatu zuen Heladerantz.

106. Doriskon, bada, Maskames utzi zuen, hain nabarmenki ongi portatu zen pertsonaia, non berau baitzen, Xerxesek berak edo Dariok izendaturiko guztien artean, erregek erregaloak bidaltzen zizkion bakarra -urtero bidaltzen zizkiolarik-, Artoxerxes Xerxesena ere Maskamesen ondorengoekin gauza bera egiten segitu zuelarik. Kontagai dugun kanpainaren aurretik ere, jarriak ziren gobernadoreak Thrazian eta Helesponto guztiko hirietan ere; bada, Doriskokoa salbu, guztiak -bai Thraziakoak eta bai Helespontokoak- jaurtiki zituzten kanpora heleniarrek Xerxesen espedizioaz geroztik; Doriskokoa, ordea, inork ere ezin izan du egundaino kanporatu, horretan maiz saiatu arren. Horrexegatik bidaltzen zaizkio erregaloak garaian garaiko Persiako erregeren aginduz.

107. Xerxesek, izan ere, ez zuen kuraiostzat jo heleniarrek kanporaturiko gobernari bat bera ere, Boges Eiongo gobernaria salbu. Pertsonaia honi ez zion goraipamenik ukatzen eta gainera hainbat ohore egin zien aita hil ondoren Persian bizirik iraun zuten Bogesen semeei, aitak, izan ere, goraipamen handiak bereganatzeko moduko jokabidea izan baitzuen: athenastarrek -Zimon Miltiadesena zehazki- setiaturik zeukatela, eta tregoa bat bitarteko plaza utzi eta Asiara itzultzeko aukera zuelarik, ihesbideari uko egin zion, erregek koldarki salbatu zela pentsa zezan beldur, eta azkeneraino borrokatu zen. Eta plazan ahora eramateko ezertxo ere geratzen ez zenean, sute handi bat egiteko agindu zuen eta bere seme-alabak, emaztea eta ohaideak eta morroiak lepamoztu eta sutara jaurtiki zituen. Gero, harresi gainetik, hirian zegoen urre eta zilar guztia Strymon ibaian barreiatu zuen; eta ondoren bere burua ere sutara bota zuen. Horregatik, Boges justizia osoz goraipatzen dute, egun ere, persiarrek.

108. Anartean, Doriskotik aurreraka jarraitu zuen Xerxesek Heladerantz, bidean hurrenez hurren topatzen zituen herriak bere armadaren lerroak ugariagotzera behartzen zituelarik. Izan ere, lehenago adierazi dudan moduan, Thesaliaraino alde guzti

hura meneratua zuten eta zerga ordaintzen zion erregeri, Megabazok eta, geroago, Mardoniok azpiratu baitzuten.

Doriskotik aurrera eginez, Xerxes lehenbizi Samothraziako gotorlekuetatik iragan zen, euren artean mendebalderen dagoena Mesambria deritzon hiri delarik. Beronekin mugakide Stryme dago, thasoarrena den hiri bat eta bien artetik Liso ibaia doa, orduan Xerxesen tropak urez hornitzeko aski izan ez eta agortu egin zena.

Izenari dagokienez, berriz, antzina alde honi Galaika zeritzon, egun, aldiz, Briantika deritzon artean (hala ere, egia esateko, alde hau ere zikonena da).

109. Liso ibaiaren urik gabeko arroa zeharkatu ondoren, Xerxes Maronea, Dizea eta Abdera hiri heleniarren inguruetatik iragan zen. Diodan bezala, herrion eta han hurbil dauden laku entzutetsu batzuen ondotik igaroa zen, lakuok hauexek direlarik: Ismaris bata, Maronea eta Stryme bitartean dagoena, eta Bistonide bestea, Dizeatik hur dagoena eta bi ibairen urak hartzen dituen: Trauo eta Kompsatorenak. Abderako partean Xerxes ez zen iragan ezein laku entzutetsuren ingurutik -han ez baitago lakurik-, baina bai itsasora doan ibai batetik, Nesto ibaitik. Parajeok gainditu ondoren, thasoarrek kontinentean dituzten hirien inguruetatik iragan zen eta beraietako baten lurretan -hiri horrek Pistyro du izena- laku bat dago, perimetroan hogeita hamar bat estadio dituen eta arrain ugari daukana eta ur oso gazia (zamariak beste animaliarik ez zuten han eradan eta zeharo agorturik utzi zuten). Xerxes, berriz diot, kostaldean dauden eta heleniarrak diren hiri horiek eskuinean utzita igaro zen aldamenetik.

110. Bestalde, aurrera joz zeharkatu zituen herri thraziarrak hauexek izan ziren: petoak, zikonak, bisioniarrak, sapeoak,

derseak, edonoak eta satrak. Alde honetako jendeari dagokionez, kostaldean bizi zirenak espedizionarioei batu zitzaizkien itsas armadan sartuz, lehortarrak, ordea, -zerrendatu berri ditudanak- satrak kenduta beste guztiak lehorreko armadan sartu behar izan zituzten.

111. Satrak, izan, guk dakigunez bederen, ez dira sekula inoren meneko izan; aitzitik, nire garaian ere, independentzia osoan bizi dira, zuhaitzi hostotsuz beteriko mendi garaietan baitute bizilekua eta, gainera, gudari bikainak baitira.

Beraiek dira Dionysoren¹¹¹ orakulua dutenak (orakulu hori haien mendien goien-goienean dago), besoarren klana delarik santutegian erantzunak interpretatzen dituenak, diktatu, ordea, Delphosen bezala, profetisa batek diktatzen baditu ere, haragoko arazorik gabe¹¹².

112. Aipatu dudan aldea iragan ondoren, pieriarren gotorlekuetatik, batari Phagres eta besteari Pergamo deritzenetatik, igaro zen Xerxes. Aurrera zihoala, berriz diot, aipaturiko plazen ondo-ondotik iragan zen, eskuinera Pangeo utziz, mendigune zabal eta garai bat berau, urre eta zilar meatzeak dituenak, pieriarrek, odomantoeak eta batez ere satrek ustiatzen dituztenak.

113. Pangeotik apur bat iparralderago bizi diren peoniarren, doberearren eta peopliarren lurraldea atzean utzi ondoren, Xerxesek mendebalderantz egin zuen, Strymon ibaiondora iritsi arte, Eyon hirira zehazki, bertako gobernari -orduan oraindik bizi baitzen- kapitulu asko ez dela aipatu dudan Boges zelarik.

Pangeo mendiko alde honen izena, izatez, Philide da; mendabaldera Strymonera doan Angites ibairaino hedatzen da, hegoaldera, aldiz, Strymonera bertarainoko guztia hartzen duen artean, ibai horri aztiekin medeapen opari bat eskaini ziotelarik, zenbait zaldi zuri leparamoztuz.

114. Ibaiaren ohorez errito magiko horiek eta beste asko egin ondoren, persiarrek aurrera egin zuten "Bederatzi Bide"-n,

edoniarren lurretan, Strymon ibaiaren gainean hedaturik aurkitu zituzten zubietatik zehar.

Eta toki hari "Bederatzi Bide" zeritzola jakitean, alde hartako familietako beste hainbeste neska eta mutil ehortzi zituzten bizirik bertan. (Pertsonak bizirik ehorztea persiar ohitura da, zeren entzuna dut Amestris, Xerxesen emazteak ere, lurpean bizi omen den jainkoaren omenez -bere bizitzaldi luzeagatik eskerrona agertzeko- goi mailako familietako zazpi neska eta mutil persiar ehorzteko agindu zuela.

115. Strymondik mendebalderantz eginez, armada hurren Argilo ondotik igaro zen, kostaldean dagoen hiri heleniar bat berau (alde honi, baita lur barrurantz hedatzen denari ere, Bisaltia deritzo).

Gero, Posidonen tenpluaren ondoko golkoa ezkerretara zuela, Xerxesek Syleo deritzon lautada zeharkatu zuen eta, Stagiho hiri heleniarraren ondotik iraganez, Akanthora heldu zen eta herri horietako guztietako eta Pangeo mendiaren ingurutako jendea bere gudarosteetan sartu zuen (arestian zerrendatu ditudanak bezalaxe); kostaldeko herrietakoak itsas armadan sartu zituen eta lehortarrak lehorreko gudarosteen artean.

Thraziarrek, hain zuzen ere, Xerxes bere tropen buru zela iragan zen bide horretako lurrak ez dituzte ez goldatzen ez ereiten eta, nire garaian ere, harenganako benerezio handia erakusten dute.

116. Izan ere, Akanthora heldu zenean, Xerxesek hango biztanleak abegi-lokarridun izendatu zituen, soineko mediarrek oparitu zizkien eta mila laudorioz handietsi, kanpainaren alde erakutsi zuten adorea ikusirik eta kanala industen arduraz eta lantsu jokatu zutela jakinik.

117. Xerxes Akanthon zegoen, gaixotasun batek jota indusketako lanak zuzendu zituen, Artakhees, hil zenean. Erregeren estimua zuen pertsonaia zen, Akhemeniden klanekoa (Persiako gizonik garaiena zen -lau hatz falta baitzitzaizkion luzeran bost erret ukalondo betetzeko¹¹³- eta munduko ahotsik indartsuena zeukan); horregatik Xerxesek, tristuraz deseginda, sekulako hiletak egiteko eta handikiro ehorzteko agindu zuen (armada guztiak lan egin zuen hil-tumulua eraikitzen). Eta akanthoarren, orakulu bati esana eginez, opariak eskaintzen dizkiote Artakhees hari eta bere izenaz hots egiten diote, heroi bati bezalaxe.

Xerxes, bada, jota utzi zuen Artakheesen heriotzak.

118. Beste alde batetik, tropak ostatatu eta Xerxesi oturuntzez txera egiten zieten heleniarrak erabateko miserian gelditzen ziren, praktikan kale gorrian aurkitzen zirelarik; esate baterako, thasoarren Xerxesen tropak ostatatu eta abegi egin zienean kontinentean zeuzkaten hiriengatik, Antipatro Orgeorenak, beren herikideen artean gorengoak adinako itzala zuen gizona berau, kontuok ateratzeko aukeratu zutelarik, oturuntzako gastuak lauhun zilarrezko talenturaino heldu zirela¹¹⁴ egiaztatu zien.

119. Eta gainerako hirietan ere harrera antolatzeke arduradunek oso antzeke kontuak aurkeztu zituzten. Izan ere, persiarrek oturantza antolatzeke oso aurretiaz agintzen zuten eta hiriekin kontu horri garrantzi handia ematen ziotenez gero, prestakizunak honelaxe gutxi gorabehera egiten ziren: lehenik, toki guztietara mezulari zihoazen heraldoengandik berria jaso bezain laster, hiritarrek elkarren artean banatzen zuten alea eta guztiek zenbait hilabetez ekiten zioten galirina eta garagarririna egiteari; gainera txahalik onenak erosten zituzten kosta ala kosta -gizentzeke normalean- eta, tropei harrera ona egiteke, lehorreke eta uretako hegaztiak hazten zituzten eskorta eta urmaeletan; azkenez, edalontziak eta kraterak urrez eta zilarrez egiteke agintzen zuten, baita beste ontzi eta tresna guztiak ere (tresneria hori erregerentzat eta hark mahaikide zituenentzat ziren, armadako gainerako jendeari jatekoa besterik ez zieten eman behar eta).

Tropak heltzen zireneko, denda bat izaten zen behar den moduan muntaturik, eskuarki Xerxesek berak erabiltzen zuena gauzez lo egiteko, gainerako guztiek kanpoan lo egiten zuten artean. Eta afalorduan, anfitrioiak, eskuarki, estu eta larri ibiltzen ziren, gonbidatuek, ase-ase eginda, hantxe igarotzen baitzuten gaua, biharamunean ez zutelarik alde egiten, aurretik denda jaso eta hango gauza guztiak, bat bera ere utzi gabe, eramane gabe; den-denak eramane zituzten.

120. Orduantxe hain zuzen ere egin zuen Abderako Megakreontek ohar zuhur bat, bere aberkideei haxe aholkatu baitzien, alegia, beraiek eta beraien andreak beren santutegietara joan zitezten guzti-guztiak eta han, arrenkari gisan ahozpezturik, aurrerantzean etor zekizkiekeen lazeriaik erdiak aldentzeko eska ziezaieten jainkoei eta, iraganari dagokionez, eskerron sakona erakuts ziezaieten Xerxesek ez zuelako bi otordu egiteko ohiturarik; zeren Abderatarrei afaria bezalatsuko bazkaria prestatzeko agindu izan balitzaie, bi aukera zeukaketen: Xerxesen zain ez gelditzea, edo, geratuz gero, erarik miserableenean sakailatuak izatea.

121. Hitz batean esanda, bada, hiri guztiek, zituzten zailtasun guztiekin ere, bete egiten zuten agintzen zitzaiena.

Bitartean, Xerxesek itsas armadari Akanthotik bere kontura aurrera egiten utzi zion, untziburuei Termen itxaroteko agindu ondoren (Therme Thermeoko golkoan dago, golkoari izena ematen diona hiri horixe delarik), biderik laburrena hiri horrexetatik pasatzen zela jakin baitzuen.

Doriskotik Akanthora armada, joan, honelaxe eraturik joan zen: Xerxesek hiru zutabetan banatu zituen bere lehor-indar guztiak eta zutabeotako bat kostan zehar, untziteriaren parez, joan zedin ebatzi zuen (armadaren zati honen buru, zehazki, Mardonio eta Masistes zihoazen). Armadaren hiru zutabeetatik beste bat lur barrutik zihoan, buru Tritantekhmes eta Gergis zituztelarik.

Azkenez, hirugarren zutabea, Xerxes bera zihoana, beste bien bitartetik zihoan, Smerdomenes eta Megabyxo buru zituelarik.

122. Orain bada, Xerxesen aginduz itsas armada itsasoratu zenean, bidean Athosen dagoen kanala zeharkatu zuen -Asa, Píloro, Singo eta Sarte hiriak dauden golkoraino hedatzen dena- eta, jarraian, hiri horietan ere tropak bildu ondoren, Thermeoko golkorantz abiatu zen. Orduan Ampelo lurmuturra inguratu zuen, Toroneko lurretan, eta honako hiri heleniar hauen ingurutik iragan zen -beraietan untziak eta tropak bilduz-: Torone, Galepso, Sermyle, Mezyberna eta Olyntho ingurutik. Alde honi, izenez, Sithonia deritzo.

123. Anpelo lurmuturretik Xerxesen itsas armadak Kanastrongo lurmuturrerantz egin zuen artez, hain zuzen ere Palene aldean itsasora gehien sartzen den puntua berau, eta jarraian untziak eta tropak bildu zituen Potidea, Aphytis, Neapolis, Ege, Therambo, Szione, Mende eta Sane hirietan (horiexek dira, izan ere, gaur egun Palene deritzon eta antzina Phlegra zeritzon aldean dauden hiriak).

Alde honetan ere kostaz kosta nabigatu zuen untzidiak, ezarri zitzaion helmugarantz branka emanda, Palene aldean eta Thermeoko golkoaren inguruan zeuden hirietan ere tropak bilduz, hirion izenak hauexek direlarik: Lipaxo, Kombrea, Lisas, Gigono, Kampsa, Smila eta Enea. (Hiriok dauden eskualdeari egun ere Krosea deritzo).

Eneatik, eman dudan zerrendako azken hiritik, untziteria Thermeoko golko-golkoan eta Mygdonia aldeko uretan sartu zen

eta Thermera -bere itsasaldiaren helmugara- iritsi zen, baita Sindo eta Khalestra hirietara ere, Mygdonia eta Botia aldean arteko mugamarra egiten duen Axio ibaiaren ondoan daudenetara, bertako kostaldea -lur zerrenda estu bat- Ikhnas eta Pela hirietako lurra delarik.

124. Horrela, bada, untzidia alderdi horretantxe ainguratu -Axio ibaiaren, Therme hiriaren eta puntu bion arteko herrien inguruetan- eta monarkaren zain geratu zen.

Xerxes bere aldetik, lehorreko gudarosteekin batera, Akanthotik dagoen bide kontinental laburrenetik zetorren aurrerantz, Thermera iristeko asmoz; beraz, Peonia eta Krestonia zeharkatu zituen, krestoniar lurraldean jaio, Mygdoniako herrialdean behera jaitsi eta Axio ibaiaren ondoko padurara jotzen duen Ekhidoro ibairantz.

125. Eta Xerxes inguru horretatik zihoala, haren armadan hazkurriak zeramatzaten gameluei erasan zieten lehoi talde batzuek; lehoiak beren gordelekuetatik gauez jaisten ziren, baina ez zitzaizkien oldartzen, ez, beste ezein zamariri ez gizakiri, baizik eta gameluak sarraskitzen zituzten soil-soilik. Eta nik harriduraz beterik galdetzen diot neure buruari zer dela-eta izan zitekeen lehoi haiek gainerako harrapakinak baketan utzi eta gameluei erasatea hain zuzen ere, ordurarte inoiz ikusi ez zituzten animaliak, ezta ere haien haragia dastatu.

126. Inguru horietan lehoi ugari da, hala nola basazezenak¹¹⁵ ere, azken hauen adar izugarriak direlarik Heladera inportatzen direnak. Abderako lurraldea zeharkatzen duen Nesto ibaiak eta Akarnania zeharkatzen duen Akhelook mugatzen dute lehoi horien bizilekua, zeren ez baituzu ikusiko lehoi bakar bat ere Eki Europa osoan Nestoren ekialdera, ezta ere gainerako kontinentean Akhelooen mendebaldera; bi ibai horien artean dagoen zonan baizik ez dira aurkitzen.

127. Thermera heldu zenean, hantxe kanpatzeko agindu zion Xerxesek bere armadari. Eta horrela kanpatuta hedaturiko gudaroste horiek Therme hiritik eta Mygdoniatik hasi eta Botia eta Mazedonideren arteko muga diren eta beren emariak uharka berean batzen dituzten Lydias eta Haliakmon ibaietaraino doan kostalde osoa okupatzen zuten. Horrela ba, barbaroek inguru horietan kanpatu zuten, eta, aipatu ditudan ibaietatik, krestoniarren lurraldetik datorren Ekhidoro izan zen armadaren premiei erantzuteko nahikoa ur ez eduki eta agortuta geratu zen ibai bakarra.

128. Bitartean Xerxesi, Thesaliako mendietan garai-garaienak diren Olympo eta Osa gailurrak ikustean Thermetik, eta mendi bion artean Peneo ibaia jaisten den mehaka estu bat zela jakin zuenean eta handik Thesaliarako bide bat zegoela, itsasora irten eta Peneoren bokalea ikusteko gogoia sartu zitzaion, Goi Mazedonia zeharkatu eta Gono hiriaren inguruetatik perrhebiarren herrialdera jotzen duen mendi-bidetik aurrera jarraitzea pentsaturik zeukalako; horixe zela esan baitzioten bide seguruenak. Gogoia ukan eta bete: untzi sidondar batera igo ondoren, halako gauzaren bat egin gura zuen bakoitzean hartu ohi zuen untzira, gainerako untziei ere itsasoratzeko seinalea emateko agindu zuen, lehorreko armada bertan utziz. Heldu nahi zuen lekura iritsi eta Peneoren bokalea ikusi zuenean, Xerxes harri eta zur geratu zen, hain punturaino ezen bidaia hartan zeramatzan gidariei deitarazi eta zera galdetu omen zien, ea ibai hura desbideratzerik ez zegokeen itsasora beste alde batetik jo zezan.

129. Hain zuzen ere, diotenez, Thesalia laku bat omen zen antzina, eta, izatez, mendi oso garaiez inguraturik dago erabat.

Ekialdeko mugan Pelio eta Osa ditu, bi mendion barrenak bat egiten dutelarik; iparraldean Olympo du mugatzat, mendebaldean Pindo eta hegoalderantz Othrys: eta aipaturiko mendi guztion artean dagoen lurraldea da Thesalia, sakonune bat alegia.

Hortaz, lurralde horretara ibai ugari isurtzen ditu urak, honako bost hauek direlarik garrantzitsuenak: Peneo, Apidano, Onokhono, Enipeo eta Pamiso, zeinak Thesalia inguruko mendietan jaio eta lautada horretara jaisten baitira bakoitza bere izenarekin, baina gero mehaka bakar batetik (eta oso estua, gainera) jotzen dute itsasora, aldezturik uharka bakar batera bildu ondoren guztiak. Eta ibaibide denok bat egitean, ibai-biltoki horretatik behera hain zuzen, Peneok ezartzen du bere izena beste izen guztien gainetik. Diotenez, antzina, itsasora bide ematen duen mehaka hori oraindik existitzen ez zenean, aipatu ditudan ibaiok -eta ibai horiez gain Bebetar lakuak-, gaur egungo izenak ez zituzten arren, ez omen zuten, ez, gaur egun baino emari gutxiago, eta ur horiek guztiok Thesalia urpeturik omen zeukaten. Horretaz thesaliarrek eurek diote -baiezpen egiantzekoa dena- Posidon izan zela Peneo ibaia jaisten den mehaka ireki zuena. Eta egiatan, lurrikarak eragiten dituen Posidon dela uste dutenek, eta lurrikara horiek eragindako pitzadurak dibinitate haren eskutik datozela, arrazoi osoz esan dezakete, hango mehaka hura ikustean, Posidonek irekia dela, zeren, ene aburuz, mendiarte hartako pitzadura lurrikara baten ondorioa baita.

130. Ea Peneok itsasora beste irtenbideren bat ote zeukan galdetzean Xerxesek, gidariek, inguru hura oso ongi ezagutzen eta, zera erantzun zioten: "Maiestate, ibai horrek ez du beste irteerarik itsasora: dakusazun horixe da bakarra, Thesalia osoa mendiz inguratuta baitago".

"Thesaliarrak -erantsi omen zuen Xerxesek- oso zuhurak dira. Horixe zen, antza denez, haiek nahikoa aurretiaz ekidin nahi izan zuten arriskua, beren jarrera birpentsatu zutenean; beste arrazoi batzuen artean honexegatik, aurki, bizilekutzat duten lurralde hori oso-oso erraz eta azkar konkista daitekeelako: aski litzateke ibaia haien lurraldera bihurtaraztea, presa baten bidez mehatatik atzerantz itzularaziz -orain duen uharka horretatik desbideratuz-, Thesalia osoa, bere mendiak salbu, urpean geratzeko". Horixe esan zuen monarkak Aleuasen umeez hitz eginez, thesaliar hauexek izan baitziren errendatu zitzaizkion lehen heleniarrak; eta Xerxesek uste zuen herri osoaren izenean eskaintzen ziotela atxikimendua.

Berbok esan ondoren, eta bazter hura ikustea amaitutzat joz, Thermerantz bueltatzeko agindua eman zuen.

131. Halatan, Pieria aldean geratu zen zenbait egunetan; zeren tropen herena Mazedoniako mendizerrako zuhaitzak ebakitzen ari baitzen, armada osoa perreboen lurraldera zona hartatik iritsi ahal zedin. Horretan zirela, erregek Heladera lurra galdatzera bidalitako heraldoak iritsi ziren, zenbaitzuk esku-hutsik eta beste zenbaitzuk lurra eta urarekin.

132. Erregalia horiek eman zizkiotenen artean honako herriok zeuden: thesaliarrak, dolopearrak, enieneak, perreboak, lokroak, magnesiarak, melidetarrak, Pthiotideko akhearrak, thebastarrak, baita gainerako beoziarak ere, thespiarak eta platearrak salbu. Eta horien guztion kontra egin zuten zin barbaroaren aurka gerran sartu ziren heleniarrek, honako berba hauekin: egoera Heladeren alde bihurtzerakoan, derrigortuak izan gabe Persiarrari errendatu zitzaizkion heleniar herri guztiek beren ondasunen hamarrena eskaini beharko ziotela Delphosko jainkoari. Horiexek izan ziren, bada, heleniarrek esan zituzten zin-berbak.

133. Eta Xerxesek Athenasera eta Spartara heraldorik ez bazuen bidali lurra galdatzera, honako honengatik izan zen: urte batzuk

lehenago, Dariok misio horrekin berarekin bidali zizkienean bere heraldoak, athenastarrek baratror¹¹⁶ eta spartarrek putzu batera jaurtiki zituzten halako eskakizunarekin zetozkienak, handik atera zezatela esanez, eta erregeri eraman, lurra eta ura. Arrazoi horregatik Xerxesek haiengana heraldorik ez bidaltzea bere eskakizuna planteatzera. Horretan, nik ezin esan dezaket zehazki athenastarrei zein zorigaizto gertatu zitzairen heraldoei halako pagua ematearren, ez bada lurraldea eta hiria arpilatu zizkietela; hala ere, nik uste dudanez, hori ez zen gertatu arrazoi hargatik.

134. Dena dela, Talthybio, Agamenonen heraldoaren suminak bai jo zituela lazedemondarrak. Izan ere, bada Spartan Talthybiori sagaraturiko santutegi bat, eta santutegi horretan talthybidak deritzen ondorengoak dira oraindik gaur egun ere, Spartak igortzen dituen mandatu guztiak burutzeko eskubidea ematen zaienak. Bada, intzidente harez geroztik, spartarrek ez zuten lortzen beren sakrifizioetan aldeko zantzurik; eta egoera horrek luze zirauen Spartan. Hortik lazedemondarrak, zorigaizto horren kariaz kezkatu, batzarrean¹¹⁷ behin eta berriro biltzea eta bando bat ere plazaratzea ea lazedemondarren bat Spartagatik bere bizia emateko prest ote zegoen jakiteko. Eta orduan Sperthias Aneristorena eta Bulis Nikolaorena, etxe oneko spartarrak eta ekonomi maila garaikoak biak, boluntario aurkeztu ziren Darioren heraldoak Spartan erailak izana beren biziaz ordaintzeko prest Xerxesen aurrean. Beraz, spartarrek gizonok mediarrengana bidali zituzten, besterik gabe hilko zituztelakoan.

135. Benetan miresgarria gizon haien ausartzia eta berba egiteko tankera, jarraian azalduko dudanez. Izan ere, Susara zihoazela, Hydarnesen aurrera aurkeztu ziren (Hydarnes hori Asia kostaldeko gudarosteak agindupean zeuzkan jenerala zen, eta persiarra jatorriz). Gizon horrek, alabaina, txera ezin hobea egin zien, abegi-opari eta

guzti, eta honako hau galdetu zien: "Lazedemondarrok, zer dela-eta egiten diozue uko erregeren lagunak izateari? Neuri eta nire posizioari begiratzea baino ez duzue, urrunago joan gabe, erregek balioko gizonak zein ondo saritzen dituen egiaztatzeke. Bada, haren aginduetara jarriko bazinete, gauza bera gertatuko litzateke zuekin ere, hark balioko gizontzat baitzaituzte: zuotariko bakoitza Heladeko lurralde baten gobernari bihurtuko litzateke, alegia, erregeren emakidaz". Eta hona hemen haiek horri erantzun ziotenena: "Hydarnes, damaiguzun aholku hori ez da inpartziala, zeren egiaren alderdi bataren ezagueraz baina beste alderdiaren ignorantziaz egiten baitiguzu proposamena: oso ondo dakizu zertan datzan morrontza, baina oraindik ez duzu sekula ere dastatu askatasuna, eta ez dakizu gozoa den ala ez. Egiaz, hura dastatu bazenu, ez soilik lantzaz, baizik eta aizkoraz ere haren alde borrokatzea aholkatuko zeniguke". Horra hor Hydarnesi eman zioten erantzuna.

136. Geroago, Susara igo eta monarkaren aurrera aurkeztean, goardiek erregeren aurrean ahozpeztara behartu nahi izan zituztenean agindu zorrotzez, ezergatik ere ez zutela hori egingo esan zuten -zaindarien muturrez aurrera lurrera jaurti zituztenean ere-, ez zeukatela-eta gizon baten aurrean ahozpej jartzeko ohiturarik eta, gainera, horretara ez zirela etorri ihardukiz.

Jarraian, agindu hari uko egin ondoren, honako hitzok bota zituzten honelatsuko berbakeraz: "Mediarren errege hori, lazedemondarrek Spartan erahildako heraldoen ordezkari bidali gaituzte, haien heriotza ordain dezagun". Adierazpen horiek eta guzti ere, Xerxes bihotz zabaltasunez agertu zitzairen, berak ez zituela lazedemondarrak imitatuko esanez; zeren haiek, gizakien artean indarrean diren arauak hautsiz, heraldoak erail bazituzten, bera ez zela eroriko haiei egozten zien krimen berean, eta ez zeukala asmorik, beraiei heriotza errepresaliaz ezarriz, lazedemondarrak delitu hartatik jaregiteko.

137. Spartarrek hartu zuten neurri hari esker baretu zen, behin-behinekoz bederen, Talthybioren sumina, nahiz eta Sperthias eta Bulis Spartara salbu itzuli. Halere, lazedemondarren euren esanetan, handik denboragarrenera berriro piztu zen sumin hori, peloponesoarren eta athenastarren arteko gerran. Eta, neure iritzirako, horrek bai baduela nonbait naturaz gaingiko izaera. Izan ere, Talthybioren suminak mandatari batzuk jotzea, eta medeapen bat lortu arte ez baretzea, justiziaz exigi zitekeena zen; baina Talthybioren suminagatik erregerenera igo ziren lagun haien semeak jotzeak -hots, Nikolao Bulisena eta Aneristo Sperthiasena, azken hau, alegia, tirythoarrak babeslekutzat hartu zuten Haliea eskuratu zuena soldaduz beteriko zamauntzi batean lehorreratuz-, horrek bai erakusten duela argi eta garbi, nire aburuz, gertaera haren naturaz gaingiko izaera.

Izan ere, haiek biak mandatu ofizial bat betetzera lazedemondarrek Asiara igorri zituztelarik, Sitalzes thraziarren erregeak (Teresen semeak) eta Nymphodoro abderarrak (Pytheasen semeak) saldu egin zituzten eta Bisantheren inguruan erori ziren gatibu, Helesponton, eta handik Atikara ekarri zituzten, athenastarren eskuetan heriotza aurkituz. Eta Aristetas korinthoarrak ere (Adimantoren semeak) haiekin batera aurkituko zuen heriotza.

Baina hori guztia erregeren kanpaina baino askoz geroago gertatu zen-eta, lot nakion berriro lehengo hariari.

138. Erregeren espedizioaren ageriko xedea Athenas zen arren, Helade osoaren aurka zihoan egiatan. Hala ere, heleniarrak, horren berri askoz lehenagotik zuten arren, ez ziren sentitzen denak neurri berean ukituta. Horrela, Persiarrari lurra eta ura eman zizkietenek barbaroarengandiko inolako kalterik gabe libratuko zirela uste zuten; oster, amore eman ez zutenak hezurretarainoko izuak hartuta zeuden, Heladen ez zegoelako inbaditzaileari aurre egiteko beste gerrauntzi, eta jendeak ez zuelako nahi, gainera, gerran sartzerik, baizik eta mediarrekin ituntzearen aldekoak ziren garbiki.

139. Une honetara heldurik, gehienek ongi hartuko ez duten iritzi bat adierazi beharrear aurkitzen naiz; baina, hala eta guzti ere, izatez egia deritzodanez, ezin dut esan gabe utzi.

Athenastarrek, gainera zetorkien arriskuak izututa, beren aberria ebakuatu izan balute, edo, hura ebakuatu barik, bertan geratu eta Xerxesi errendatu balitzaizkio, inortxo ere ez zen izango kapaz erregeri itsasoz aurre egiteko. Horrela, Xerxesi itsasoz inor jarki ez balitzaio, lehorrean honako hau gertatu zatekeen, ezbairik gabe: nahiz eta peloponesoarren Isthmoan zehar nahi adina defentsa-gotorleku eraiki, aliatuek lazedemondarrak bertan behera utziko zituzten nahitanahiez (ez borondatez, baizik eta derrigorrez, barbaroaren itsas armadak haien hiriak bata bestearen ondoren hartuko zituelako) eta haiek bakar-bakarrik aurkituko ziren; eta beren gudarosteekin soilik, egitandiak agitandi, heroi gisa erortzea besterik ez zitzaien geratuko.

Bada, halakoxe zoria izango zuten, edota, horretaraino heldu aurretik, gainerako heleniar guztiak mediarren aldera lerrokatzen zirela ikustean, Xerxesekin paktu egingo zuket. Beraz, batera zein bestera izan, Helade persiarren eskuetan eroriko zen, zeren ez baitakusat zertarako ziratekeen Isthmoan zehar eraikitako gotorlekuak, errege itsasoaren jaun eta jabe izanik. Hortaz, hitz batez, athenastarrak Heladeren salbatzaile izan zirela erranen balu norbaitek, ez luke horretan gezurrik erranen, zeren, aukera bata ala bestearen aurrean¹¹⁸, balantzaren orratzak haiek hautaturiko aldera makurtzea besterik ez zeukan. Eta Heladeren askatasunaren aldeko erabakia hartzean, beraiek izan ziren, hain zuzen ere, mediarren kausa besarkatu ez zuten gainerako herri heleniar guztien abertzaletasuna iratzarri zutenak, eta -jainkoen laguntzarekin, jakina- errege kanpora bota zutenak.

Eta ez zituzten makurtu Helade uztera, ezta ere, Delphostik iristen eta izuz betetzen zituzten orakulu ikaragarriek, baizik eta beren aberrian iraun zuten tinko eta beren lurraldearen inbaditzaileari jarkitzeko ausardia izan zuten.

140. Izan ere, athenastarrek Delphosera bidaliak zituzten mezulariak, hango orakuluari aholku eskatzera. Eta, eremu sakratuan errituzko zeremonia guztiak burutu ondoren, aholku-eskatzailleak megaronean sartu eta bertan eseri zirenean, Aristonize izeneko Pythiak honako iragarpen hau bota zien¹¹⁹:

Nolatan zaudete, gaixo errukarriok, hor geldirik?

Egizu ihes, munduaren muturreraino, bai, ihes, zeure etxeok eta hiri biribileko bastioi gailenok dauden lekuan utziz!

Ez diraute eta beren lekuan ez buruak, ez soinak, ez soinadarrek, dela oinak zein eskuak, enborraren arrastorik ere geratzen ez delarik¹²⁰.

Aitzitik, egoera deitoragarrian datza oro: suak, eta erasora syriar gerragurdian gidari datorren Ares amorratuak, suntsitzen dute den-dena.

Beste gotorleku anitz ere hondatuko ditu, ez bakarrik zurea, eta jainkoen tenplu asko egingo dizkio sugar suntsitzaileari opari, une honetan jainkoen imajinak izerdi patsetan eta izuz dardaraz gora-goraka barruan bide dituzten tenpluak, zeren eta odol beltza baita euron pinakuluei dariena, ekidinezinezko kalamitateak iragarritz. Alde, bada, biok leku santu honetatik, eta zorigaitzen aurrean izan dezazuela adore.

141. Hitz horiek entzutean, aholku-eskatzaille athenastarrak lur jota geratu ziren. Iragarri berri zitzazkien ondiko haiengatik zeharo etsita zeudelarik, bada, entzute handienetako hiritarra zen Timon Androbulorenak zera aholkatu zien: olibondo adarrak hartu eta santutegira itzul zitezela, orakuluari kontsulta berri bat egitera arrenkari gisan. Athenastarrek halaxe egin zuten, hitz hauekin zuzenduz jainkoarengana: "Jauna, olibondo adar hauekin zure aurrera gatozenez gero, emaiguzu, arren, gure aberriari buruzko iragarpen leunago bat; osterantzean ez dugu alde egingo zure tenplu honetatik: berton geratuko gara hil arte".

Berba horien aurrean, profetisak bigarren iragarpen hau diktatu zien:

Ezin baretu Palasek Zeus Olympoarra, tenore anitzez eta antze zuhurrez erreguak zuzentzen dizkion arren.

Altzairua bezain aldagaitza izango den erantzun berri bat emanen dizut, hala ere.

Begira, Zekropeko lurren eta Zitherongo haran altsuaren artean dagoen guztia har dezatenean, Zeus begirada zorrotzekoak oholezko murru bat emango dio Tritogeniari¹²¹, zeu eta zure seme-alabak salbatuko zaituzten gotorlekua, bakarra baina hartuezina.

Dena den, zu -entzun hau ondo- ez zaitez geldi auzoko kontinentetik datorren zaldieriaren eta lehorreko armada uholdearen zain, laxo; aitzitik, egizu atzera, emaezu bizkar; eginen diezu aurre egunen batean, egon ziur.

Oi, Salamina jainkotiarra! Zeuk suntsituko dituzu-eta emakumeen fruituak, dela Demeter zabaltzean, dela biltzean¹²²!

142. Erantzun hori lehenbizikoa baino bigunagotzat jo zutenez -eta halaxe zen, izan ere-, aholku-eskatzailleek idatzira jaso zuten eta Athenasera bueltako bidea hartu. Baina mezulariek hara itzultzean herriari³⁸ orakuluaren berri eman ziotenean, iragarpen hura deszifratu nahian emandako beste interpretazio askoren artean, honako hauek izan ziren gehien aurkatu zirenak: zaharretariko batzuek zioten jainkoaren erantzunak akropolisia salbatuko zela esan nahi zuela, beren ustez, zeren eta Athenasko akropolisia, antzina, oholesi batez babesturik baitzegoen, eta oholesi horixe omen zen oholezko murruak adierazi nahi zuena. Beste batzuek, ordea, jainkoa itsasuntziez ari zela uste zuten eta herkideei untziok ekipa zitzaten eskatzen zien, beste ezertaz arduratu gabe. Halere, oholezko murruak itsasuntziak zirela uste zutenak Pythiak esandako azken bi bertsoek uzten zituzten nahasita, hots:

Oi, Salamina jainkotiarra! Zeuk suntsituko dituzu-eta emakumeen fruituak, dela Demeter zabaltzean, dela biltzean!

Bertso horiek zirela-eta, oholezko murrak itsasuntziak zirela uste zutenen interpretazioa ilun geratzen zen; izan ere, iragarpen-interpretarien irakurketaren arabera, itsas borrokara ateraz gero, erremediorik gabe garaituak ziratekeen Salaminako uretan.

143. Halatan, bazen athenastarren artean hiritar bat, gailenen artean nabarmentzen hasi berria, izenez Themistokles zeritzona, nahiz eta goitizenez "Neoklesena" esaten zioten. Bada, iragarpen-interpretarien irakurketa ez zela erabat zuzena zioen hark: bertso haiek egiatan athenastarrei buruzkoak baziren -zioen-, orakulua ez zatekeen horren biguna, baizik eta "Oi Salamina zoritxarrekoa!" edo esango zuen, "Oi Salamina jainkotiarra!" esan beharrean, bizilagunak benetan ere hango uretan galtzekoak izatekotan; beraz, zuzenki interpretaturik, jainkoak emandako iragarpena etsaiei buruzkoa bide zen, eta ez athenastarrei buruzkoa; eta horregatik, untzietan borrokatzeko presta zitezela aholkatzen zien bere herkideei, horretaz zihoalako, bere ustez, oholezko murrarena.

Themistoklesen argibide horren aurrean, athenastarrek irakurketa hura iragarpen-interpretariena baino hobegarriagozat jo zuten, azken hauek itsas borrokarako prestakizunen aurkakoak eta, azken finean, ahalik erresistentzia gutxien egitearen aldekoak zirelarik: Atika utzi eta beste edozein lekutan finkatzea proposatzen baitzuten.

144. Goian aipatutakoa baino lehenago, Themistoklesen beste proposamen bat ere hobetsi zuten bere garaian; athenastarrek, herri-altxorrean Lauriogo meatzetatik etorritako diru askotzak zirela-eta, diru horiek denen artean banatzera zihoazenean bakoitzak hamarna drakma jasoz, banaketa hura bazterrera uztera konbentzitu zituen Themistoklesek athenastarrak, eta zeukaten diru horrekin berrehun untzi egin zitzatela gerrarako (eginarrekin zuten gatazkaz ari zela). Horrela, gerra-egoera hura izan zen, azken batean, Helade salbatu zuena, athenastarrak itsasgizon izatera behartzean. Untzi haiek ez

ziren erabili, izatez, eraiki zituzten helbururako, baina, behin eraikiak, hantxe izan zituen Heladek behar den unean erabiltzeko. Beraz, athenastarrek bazituzten jada untzi horiek lehenagotik, baina orain, dena dela, beste batzuk gehiago egin behar izan zituzten. Horrela ba, orakulu hura jaso ondoren, egoera aztertu eta jainkoaren aginduari makurtuz, erabaki haxe hartu zuten: soldadu guztiak untziratu eta, horretarako prest ziren heleniarrekin batera, barbaroa Heladeren kontra egitera zihoan erasoari aurre egitea.

145. Horiexek, bada, athenastarrek jaso zituzten orakuluak.

Bitartean, Heladerentzat asmo onenak zituzten heleniarrak leku jakin batean bildu eta beren iritziak azaldu zituzten, bakoitzak berea, zintzotasun osoz. Ondoren, denen artean egoera aztertu eta zera erabaki zuten lehenik eta behin: elkarren arteko liskar eta gerrei bukaera ematea; izan ere, baziren une hartan zenbait laterriren arteko gatazkak, baina, zalantzarik gabe, athenastarren eta eginarren artekoa zen garrantzitsuen.

Jarraian, Xerxes bere gudarosteekin Sardesen zela jakitean, Asiara zelatariak bidaltzea erabaki zuten monarkaren asmoez informazioa jasotzera, baita Argosera zenbait mezulari bidaltzea ere, Persiarraren kontrako itun militar bat adosteko, eta beste mezulari batzuk Siziliara -Gelon Dinomenesen gortera- eta Zerzyrara, Heladerentzat laguntza eskatzera, hala nola Kretara, heleniar munduak fronte komun bat osa zezan, ahal zen neurrian bederen, eta, heleniarrak oro berdinki mehatxatzen zituzten arrisku izugarriak gogora ekarriz, helendar guztiak bil zitezen helburu bera buruan zutela. Aipatzekoa da Gelonen boterea, ziotenez behintzat, itzela zela, beste ezein herri heleniarrena baino askoz handiagoa.

146. Neurriok onartu ondoren, beren arteko gorabeherak amaitutzat jo zituzten, eta lehenik eta behin hartu zuten erabakia Asiara hiru zelatari bidaltzea izan zen. Sardesera iritsitakoan, erregeren armadari buruzko informazioa jaso zuten bai, baina,

harrapatu egin zituzten eta, lehorreko armadako jeneralen galdeketa jasan ondoren, exekutatzera eramane zituzten, heriotza-zigorra ezarri baitzieten. Alabaina, horren berri izatean, Xerxesek ez zuen ontzat jo jeneralen erabakia eta bere goardietariko batzuk bidali zituen, zelatariok, bizirik aurkituz gero, bere aurrera ekartzeko aginduarekin. Bizirik aurkitu zituzten oraindik eta erregeren aurrera eramane; eta honek, zelatariak zertara etorri ziren jakitean, lehorreko gudaroste guzti-guztiak, zaldieria barne, haiei erakustera laguntzeko agindu zien bere goardiei, eta gudarosteok ikuskatzeaz asetzen zirenean, beraiek nahi zuten herrialdera joaten utz ziezaietela, kalterik gabe.

147. Eta, agindu horiek ematean, honako arrazonamendu hau erantsi zuen: zelatariak exekutatuz gero, heleniarrek ezingo zuten jakin, aurretiaz, bere gudarosteak kalkulu guztiez goitikoak zirela, eta, bestalde, hiru gizoni heriotza ezartzeak ez zekarkion etsaiari kalte handirik; oster, gizon haiek Heladera itzuliz gero -erantsi zuen-, heleniarrek, haien informeen bidez erregeren boterearen handiaz kargutzean, espedizioa bertaratu aurretik entregatuko omen zioten beren askatasun bitxi hura, eta beraiek ez omen zuketen izango horrela heleniarron kontra joatearen nekea hartu beharrik.

Xerxesen ebatzi hau, alta, hark berak beste behin hartu zuen ebatziaren antz-antzekoa zen: Abydon aurkitzen zela, gariz betetako untzi batzuk ikusi zituen Helesponto zeharkatzen Egina eta Peloponesorantz. Jakina, untzi etsaiak zirela jakin bezain laster, erregeren hurbilekoak, untziok harrapatzeko agindua emateko prest, erregerengan jarrita zeuzkaten begiak, haren aginduen zain. Xerxesek, ordea, zein norabide zeramaten galdetu zien. "Zure etsaienganako norabidea, Jauna -erantzun zioten haiek-, gariz beterik". Monarkak, orduan, honela ihardesten die: "Eta ez al doaz, bada, gure untziak ere horko horien norabide berean eta beste gauza batzuen

artean garia daramatela? Beraz, zer kalte egiten digute jende horiek, guretzat izango diren hazkurriak eramanez?"

148. Halaxe itzuli ziren, beraz, zelatariak Europara, hura guztia ikusi eta bueltatzeko baimena izan zutenean.

Zelatariak bidali ondoren, Persiarraren kontra itunez bilduriko heleniarrek Argosera mandatariak igorri zituzten. Eta, argostarren esanetan, honako hauxe izan zen beren aberrian gertatu zena. Berek hasiera batetik omen zekiten barbaroak Heladeren aurka zituen asmoen berri, eta horregatik, horren jakinean egonik eta heleniarrek beraingana joko zutela aurreikusiz Persiarrari aurre egiteko laguntza eske, Delphosera bidali omen zituzten mezulariak aholku bila, zein jokabide zitzaiekeen onuragarrien galde ziezaioten jainkoari; zeren, oraindino duela gutxi, sei mila aberkide hil baitzizkieten lazedemondarrek, Kleomenes Anaxandridesenak konkretuki, eta hortik Delphosera aholku-eskatzaileak bidaltzea, beren esanetan. Eta haien galderari honako berbokin erantzun zion Pythiak:

Auzoek gorroto, baina jainko hilezkorrek maite zaituzten

[herria,

iraun ezazu barnean ernai, eskuan tinko atxikiz azkona,

eta manten ezazu babesturik burua; buruak salbatuko

[baitu soina¹²⁴.

Horra hor, bada, Pythiak alde zaurretik egin zien iragarpena. Eta orain, mandatariak Argosera iristean, Kontseiluaren¹²⁵ egoitzara aurkeztu ziren eta mandatuak transmititu. Orduan, eskabide horri erantzunez, Kontseiluko kideek zera erantzun zieten: argostarrak prest zeudela eskatutakoa egiteko, lazedemondarrekin hogeita hamar urterako bake-itun bat adosteko baldintzarekin, eta koalizioko gudaroste guztien erdia beren agindupean izatekotan. Ezen eskubide zorrotzez¹²⁶ -zieten- beraiei baitzegokien dudarik gabe aginte gorena, baina, hala ere, erdiaren buru izatearekin konformatzen ziren.

149. Horra hor, argostarren esanetan, Kontseiluak erantzun ziena nahiz eta orakuluak heleniarrekin aliatzea debekatu, zeren eta, orakuluari zioten beldur eta guzti, hogeita hamar urteko tregoa hura adosteko irrikitzen baitzeuden, epe horretan beren semeek gizon egiteko denbora izan zezaten; bestela, tregoarik gabe eta, lehen jasandako guztiaz gain, orain persiarren eskutik beste hondamendi bat jasanez gero, lazedemondarren hegemoniaren pean betiko geratuko ote ziren kezka bizia zutelako.

Kontseiluak planteaturiko baldintzon aurrean, mandatarien artean ziren spartarrak honako hau erantzun zieten: tregoari zegokionez, aurkeztuko ziotela proposamena batzarrari, baina buruzagigoari zegokionez, ordea, zekartzaten aginduen arabera erantzuteko moduan zeudela eta erantzuna hauxe zela, hots, beraiek bi monarka zituztela eta argostarrek bat bakarrik; beraz, ezin zela buruzagitza gabe utzi Spartako bi erregetariko bata ere, baina, hortik aparte, ez zegokeela eragozpenik argostar monarkak ere beren bi erregeen bezainbesteko erabakimena ukan zezan.

Jarrera horren aurrean -diote argostarrek- beraiek ezin izan zuten onartu spartarraren harrokeria hura eta nahiago izan zuten barbaroen agintepean egon behar izatea lazedemondarrei ezertan amore ematea baino, eta horrexegatik exigitu omen zieten mandatariari Argosko lurraldeetatik eguzkia sartu baino lehen alde egin zezatela, bestela etsaitzat hartuko zituztela-eta.

150. Horixe da gai horri buruz argostarrek eurek diotena; baina bada beste bertsio bat ere Heladen zabal, zeinen arabera Xerxesek, Heladeren aurkako kanpainari hasiera eman aurretik, heraldo bat bidali zuen Argosera eta honako hauxe esan omen zuen bertara iristean: "Argostarrok, Xerxes erregeak mezu hau igortzen dizue: "gure ustez, aitatzat Perseo (Danaeren semea) eta amatzat Andromeda (Zepheoren alaba) dituen Perses da gure arbasoa. Horren arabera, zuen ondorengoak ginateke eta, beraz, ez da

arrazoizkoa gu geure arbasoen kontra gerrara joatea, ezta zuek ere, beste batzuei laguntzearren, gure etsai bilakatzera.

Zuek neutral mantentzea da arrazoizkoena, zeuon herrialdea utzi gabe, zeren, nik espero bezala ateratzen bada dena, inor baino gehiago estimatuko baitzaituztet".

Diotenez, mezu hori entzutean, argostarrek oso kontuan hartu omen zuten, eta une hartan ez zuten ezer eskaini ez exigitu, baina heleniarrak laguntza eske joan zitzaizkienean, bazekitenez lazedemondarrek ez zutena amorerik emango buruzagitza erdibanatze kontuan, horixe exigitu zuten hain zuzen ere, neutral mantentzeko aitzakia izateko.

151. Eta, zenbait heleniarren esanetan, negoziazio horiekin loturik dago, halaber, urte asko geroago gertatu zen pasadizo bat, honako hauxe hain zuzen: hain zortez ere Susan, Memnonen hirian, aurkitzen zirelarik (nahiz eta hara bestelako helburuz joanda) zenbait mandatari athenastar -konkretuki Kalias Hiponikorena eta beronekin zeudenak-, argostarrek ere beren aldetik mandatariak bidali omen zituzten Susara, Artoxerxes Xerxesenari zera galdetzeraz: ea Xerxesek Argosekin egindako adiskidetasun-itunak oraindik indarrean zirauen ala monarkak dagoeneko areriotzat jotzen ote zituen. Artoxerxes erregeak, orduan, itunak erabat indarrean jarraitzen zuela adierazi omen zien eta Argos zuela, beste ezein baino lehen, aliatu hoberentzat.

152. Dena dela, ezin dut baieztatu ziurtasun osoz Xerxesek Argosera heraldorik bidali zuen halako mezuarekin, ezta ere mandatari argostarrak Susara igo ziren Artoxerxesi adiskidetasun-itunaz galdetzeraz, baina, dena den, nik ez dut horretaz Argostarrek eurek dutenaz bestelako iritzirik. Nik dakidan bakarra hauxe da: gizaseme guztiek beren zorigaitzak leku jakin batean bildurik utziko balituzte auzokoenekin trukatzeko, haietako bakoitzak eta guztiek, besteen zorigaitzei erreparatzean, aski pozik berreramango lituzketela beraiek aurkezturikoak. Beraz, argostarren jokabidea ere ez zen izan laidogarriena. Eta nik, batzuek eta besteek

kontatzen dutena azaldu beharra badaukat ere, horrek ez du esan nahi hori guztiori hitzez hitz sinestu beharra daukadanik (eta baiezen hori nire obra osoari aplikatzekoa da), zeren bada esaten duenik argostarrak eurak izan zirela, izatez, Persiarrarengana laguntza eske jo zutenak Heladeri eraso ziezaion; izan ere, lazedemondarren eskutik jasandako hondamendia jasan ondoren, edozertarako prest zeudekeelako egoera hura gainditzearen.

153. Honarte argostarrei buruz esateko nuena.

Bitartean, Sizilian ziren jada Gelonekin elkarrizketatzera aliatuek bidalitako beste mandatari batzuk, eta euron artean Syagro, ordezkari lazedemondarra.

Hortaz, Gelaren kolonizatzaileetarik bat, Gelon delakoaren arbaso bat, Triopiotik hurbil dagoen Telos uhartekoa zen jatorriz, zeren Rhodastik Antiphemorekin joandako linoarrek Gela eraiki zutenean, hantxe baitzegoen hura. Eta, handik denboragarrenera, haren ondorengoak Lurpeko Jainkosen hierofante¹²⁷ izatera iritsi ziren eta kargu horretan iraun zuten geroztik, haren arbaso batek, Telinsek, honako era honetara eskuratu zuen kargu hori: gerra zibil batean garaituak izan ziren Gelako hiritar batzuek Maktoria egin zuten ihes, Gelako iparraldean dagoen hiria berau. Halatan, haiek aberriratzea lortu zuen Telinsek, horretarako soldadu bat bera ere erabili gabe, aipaturiko jainkosen kultuari dagozkion objektuez baliatuz soil-soilik. Ezin dut zehaztu nondik hartu zituen edota berak berenez erdietsi ote zituen, baina hark objektu horien boterean jarri zuen konfiantza eta erbesteratuak aberriratzea lortu zuen baldintza batekin, hots, hauen ondorengoek Jainkosen hierofante karguan jardungo zutela. Dena dela, lortu izan ditudan informazioon aurrean, Telinsek halako egitandi bat burutu ahal izateak harritzen nau ni oraindik gehiago, zeren halakoak egitea ez baitago, nik uste dudanez bederen, edozeinen eskumenean, baizik eta aldarte adoretua eta nortasun handia dutenen esku; eta, Siziliako bizilagunek diotenez, Telines oso bestelakoa omen zen, izaeraz emagizona eta nahikoa herabea, alegia.

154. Halaxe eskuratu zuen, bada, Telinsek, pribilegio hura.

Gelan tirano zazpi urtean zehar izandako Kleandro Pantaresena hiltzean (Sabylo izeneko Gelako batek hil zuen), Hipokrates, Kleandroren anaiak, hartu zuen boterea. Hipokratesen tiranaldian, Gelon, Telines hierofantearen ondorengoa, Hipokratesen goardia zen beste askoren artean (hantxe zen Enesidemo Patekorena ere). Halere, haren balioaz karguturik, zaldieria guztiaren jeneralburu izendatu zuten handik denbora gutxira, eta Hipokratesek, Syrakusa eta beste hiri barbaro askoez gain, Kalipolis, Naxo, Zankle eta Leontinos setiatu zituen, Gelonek aparteko gerlaria zela erakutsi zuen operazio militar horietan. Nabarmenezkoa da, aipatu ditudan hiri horietatik guztietatik, Syrakusa salbuespen delarik, ezein ere ez zela libratu Hipokratesen uztarpetik. Korinthoarrak eta zerzyrarrak izan ziren, hain zuzen ere, syrakusarrak salbatu zituztenak, azken hauek Eloro ibaiertzean buruturiko borrokaldi batean garaituak izan ondoren; eta salbatu, alde bien arteko armistizio hau lortuz salbatu zituzten, hots, syrakusarrek Hipokratesi Kamarina entregatuko zioten, lehenago Kamarina syrakusarrena baitzen.

155. Hipokratesi berari ere, bere anaia Kleandro bezainbat urte tirano izan ondoren, heriotza iritsi zitzaionean Hyble hiri ondoan sikulotarren kontrako espedizio batean, une horretan Gelonek Hipokratesen semeei, Euklides eta Kleandrori, laguntzen zielakoa egin zuen (izan ere, Gelako hiritarrek ez baitzuten jarraitu nahi morroi soilak izaten), baina azkenean, Gelakoei borrokaldi batean garaitu ondoren, bere eskuetan hartu zuen boterea, berau Hipokratesen semeek kenduz.

Gertaera zoritsu honen ondoren, gamoroak zeritzoten syrakusarrak hiritik at egotzi zituztelarik herriak eta haien esklaboek (hauei zylyrioak¹²⁸ deitzen zieten), Gelonek Kasmena hiritik Syrakusara itzuli zituen, hiri honetaz ere jabetuz bide batez; zeren

Gelon erasotzera zihoakionean, Syrakusako herriak, haren menpean baldintzarik gabe jarritz, hiria entregatu baitzion.

156. Syrakusaz jabetu ondoren, Gelonek arreta gutxixeago eskaintzen zion Gelako politikari, honen gobernua Hieron anaien esku utziz, eta bera Syrakusaren posizioa finkatzen ahalegindu zen, Syrakusak dena esan nahi baitzuen berarentzat. Hiri hori, orduan, azkar hazi eta joritu zen, Gelonek lehenik eta behin Kamarinako biztanleak oro lekualdatu baitzituen Syrakusara, hiritartasuna emanez, eta Kamarina hiria errausteko agindu zuen; eta, geroago, Kamarinako bizilagunekin egindako gauza bera egin zuen Gelako hiritarren erdia baino gehiagorekin. Siziliako megararrei dagokienez (setioa ezarri eta errendatzea onartu zutenak), haietariko aberatsak, haren kontrako gerraren eragileak izateagatik heriotza ezarriko ziela pentsatzen bazuten ere, Syrakusara lekualdatu zituen hiritartasuna emanez eurei ere; oster, herri xehea osatzen zuten megararrak, gerra haren erantzule ez zirenak eta kalterik ez zutela jasango uste zutenak, Syrakusara lekualdatu zituen, halaber, eta saldu egin zituen Siziliatik at eraman zitzaten baldintzarekin. Eta bereizketa bera egin zuen Siziliako eubearrekin ere. Horrelaxe jokatu zuen hark kasu bietan, herri xehea gizarte-talde oso desatsegintzat hartuz.

157. Halaxe iritsi zen, bada, Gelon, tirano boteretsu izatera. Eta orain, heleniarren mandatariak Syrakusara aurkeztu eta Gelonekin elkarrizketatzean, honako hauxe diotsote: "Lazedemondarrek, [athenastarrek]¹²⁹ eta beren aliatuek bidali gaituzte zuregana, barbaroaren kontra borrokatzeko laguntza eske,

zeren jakinean egongo zara, dudarik gabe, Helade inbaditzeko asmotan dabilela: hots, persiar bat, Helespontoren gainean zubiak ezarri ondoren, Asiatik espedizio bat gauzatzear dagoela Heladeren kontra, ekialde parteko gudaroste guztien buruan. Athenasen aurka datorrela aitzakiatzat jarritz, Helade osoa menpean hartzea da bere benetako asmoa. Zu, bada, hain boteretsua zarenez eta Sizilian gobernatzean mundu heleniarraren zati bat, eta ez nonbait txikerrena, dagokizunez, zatoz Heladeren askatasuna nahi dutenak sorostera, eta lagun iezaiezu ekintza horretan. Izan ere, Helade osoa horretan elkartuz gero, gudaroste-kopuru garrantzitsu bat bil daiteke eta inbaditzaileei aurre egiteko moduan aurkituko gara; ordea, gure aldekoek huts ematen baldin badute, laguntzera etortzeari uko egiten badiote eta mundu heleniarrean jende zindo gutxi baldin bada, orduan Helade osoa dago hondatzeko arriskuan. Zeren ez ezazu pentsa Persiarrak guduzelaian garaitzen eta menpeko hartzen bagaitu zuenera ere etorri gabe geratuko denik; aitzitik, har itzazu neurriak hori gerta dadin baino lehen: guri laguntzera bazatoz, zeure interesak babesten ariko zara. Gainera, zehatz-mehatz antolaturiko plan baten emaitzak azken zoritsua ekarri ohi du eskuarki".

158. Horixe esan zioten mandatariek, eta Gelonek, sutsu berba eginez, honela erantzun: "Heleniarrak, ausartu egin zarete niregana jotzen, zeuongan bakarrik pentsatuz, barbaroaren aurka zuekin alia nadin eskatzera. Eta zuok zer? Karthagotarrekin gerran nenbilen hartan armada barbaro bati borrokatzeko laguntza eskatu nizuenean, zer? Dorieo Anaxandridesena egestarrek erailtzea mendekatzeko deitu nizuenean, zer? Eta hain etekin eta irabazi mardulak ematen dizkizuten merkatalguneak askatzeko lankidetzak eskatu nizuenean? Zuek ez zineten etorri soros-indarrekin,

ezta nireganako begiruneagatik Dorieoren erailketa mendekatzera ere; horrela, zuen esku egon balitz, lur hauek guztiok herri barbaroen pean jarraituko lukete egun. Baina izatez, egia da, gure egoerak onerantz egin du, neurri ezin hobean egin du onerantz. Eta oraintxe gogoratu zarete zuek, gerraren hotsa zeuen lurraldeetaraino ate-joka etorri zaizuenean, hain zuzen ere, Gelonez! Bada, zuen aldetik orduan mesprezua besterik aurkitu ez nuen arren, ez nago zuek imitatzen; aitzitik, prest naukazue laguntzeko berrehun triere emanez, hala nola hogeita mila hoplita, bi mila zaldizko, bi mila gezilari, bi mila habailari eta bi mila gizonen zaldieria arina; gainera, garia hornitzeko ere prest nago heleniar armada guztiari, harik eta gerra bukatu arte. Baina hori guztia baldintza honekin, heleniar gudarosteen buruzagi ni neu izatea barbaroaren aurka; bestela, ezezkoa emango diot ni neu joateari zein beste ezein laguntza bidaltzeari".

159. Proposamen hura entzutean, Syagrok ezin izan zion eutsi eta honako berba hauek esan zituen: "Alajaina, bai benetan biziki deitoratuko lukeela Agamemnon, Peloperen ondorengoak, spartarrei zeinek eta Gelonek eta syrakusar batzuek buruzagitza kendu dietela jakinen balu egunen batean! Bazter ezazu urruti, bada, agintea utziko dizugun uste hori. Begira, heleniarrei laguntzeko asmorik baldin baduzu, jakin ezazu lazedemondarren agindupean egongo zarela; baina, dena delakoagatik laido garri erizten badiozu aginduak hartzeari, ez ezazu eman laguntzarik eta kitto".

160. Adierazpen horiek entzutean Gelonek, Syagroren hitzon atzean zegoen haserreaz kargututa, azken proposamen hau egin zien: "Spartarra arrotz adiskidea, gizonari mesprezuzko berbak zuzentzen zaizkionean, hira piztu ohi diote; alabaina, zure berba horietan jaurti dituzun irainak gorabehera, ez duzu lortu nire erantzunean gizalegea bazterrera dezadan. Baina zuek buruzagitza hartzeko horren interes handia erakusten duzuenez gero, arrazoizko da, baita, nik zuek baino are interes gehiago agertzea, zuena baino armada

handiagoa eta gerrauntzi-kopuru haziagoa baitut agindupean. Hala ere, nire asmoa hain onartezintzat hartu duzuenez, jaistera goaz hasiera bateko exigentzia: zuek lehorreko indarren buruan bazoazte, nik flotaren agintea izan dezadala, eta, aldiz, zuek untziteriaren buruan egon nahi baduzue, nik lehorreko armadaren buruzagitza gura dut. Eta baldintza horiekin kontentatzea duzue, edo, osterantzean, gurelako aliaturik gabe alde egitea hemendik".

161. Horra, labur esanda, Gelonen proposamenak. Baina orduan mandatari athenastar bat izan zen lazedemondarrari aurea hartu eta honelatsu erantzun ziona: "Syrakusako errege hori, Heladek zuregana bidali bagaitu ez da jeneralen premian dagoelako, baizik eta tropen premian. Zuk, berriz, esan eta esan diharduzu soldaduak barik kapitainak bidaliko dituzula Heladera, jeneralburu izatea delako zure nahikunderik gorena. Hortaz, heleniar gudaroste guztien buruan joatea exigitu duzunean lehenxeago, gu, athenastarrok, isilik egon gara, ongi baikenekien mandatari lakoniarrek ondo baino hobeto jakingo zuela gure herri bion eskubideak defendatzen. Baina, aginte gorena hartzeari amore eman behar izatean, orain flotarena exigitzen duzunez, zure asmo horrek honako arazoa dakarkigu: nahiz eta lakoniarrek flotaren buruan jar zaitezten onartu, guk ez dugula horrelakorik toleratuko, zeren flotaren buruzagitza, jakin ezazu, baldin eta lazedemondarrek eurek hartu nahi ez badute, geuri baitagokigu eta ez beste inori. Beraz, gai horri dagokionean, berek hartu nahi badute, ez gara horren kontra aterako, baina ez dugu onartuko untziteriaren buruan beste inor jar dadin, zeren, bestela, alfer-alferrik bailitzaiguke Heladeko itsas armadarik handiena edukitzea, guk, athenastar izanik, syrakusar batzuei utziko bagenie buruzagitza, Heladeko herririk zaharrena izanik, garen moduan, eta lurraldez aldatu ez garen heleniar bakarrak, gainera. Are gehiago, Homero poeta epikoak esan zuenez, Ilionera joan ziren guztietatik geure aberkide¹³⁰ bat izan zen gudaroste bat borroka-lerroan eratzen gerrari trebeena. Beraz, ez diezagula inork aurpegira bota egin dugun moduan berba egitea".

162. "Athenastar arrotz adiskidea -ihardetsi zion orduan Gelonek-, antza denez zuek badituzue jeneralak, baina berauen meneko soldaduak faltako zaizkizue. Horrela ba, ezertan amorerik eman gabe eduki gura duzuenez den-dena, bada garaia zuenera abia zaitezten eta Heladeri jakinarazi, berandu baino lehen, berarentzat urteak galdu berri duela udaberria".

Ahapaldi horren esangurari buruz, honako hauxe esan gura du, argi eta garbi: urte-sasoitan nagusiena udaberria den bezala, bere tropak ere halaxe ziratekeela heleniar gudarosteetan. Beraz, berarekin aliantzarik gabe, udaberria galdua duen urtearekin alderatzen zuen Gelonek Helade.

163. Negoiazio horiek Gelonekin izan ondoren, mandatari heleniarrek etxerako bidea hartu zuten. Geloni dagokionez, gertaeron aurrean heleniarrak barbaroari garai ez zekizkion beldurrez, baina irain jasanezina iritziz bera, Siziliako tirano izanik, lazedemondarren aginduetara Peloponesora joateari, azken aukera hori bazterrera utzi eta beste erabaki hau hartu zuen: Persiarrak Helesponto zeharkatu zuela jakin bezain laster, Kadmo Szytharena, jatorriz Kos uhartekoa, bidali zuen Delphosera hiru pentekontererekin, dirutza handiak eta adiskidetasun proposamenak eramanez, ea gerra zeinen alde gertatzen zen hurretik ikusi eta, baldin eta barbaroa ateratzen bazen garaile, honi dirua eta lurra eta ura entrega ziezaizkion Gelonen menpeko lurraldeen izenean; aldiz, heleniarrak gertatuz gero garaile, Kadmok etxera bueltatzeko agindua zuen.

164. Esan behar da Kadmo honek, aipagai ditugun gertaeron aurretik, tinko erroturiko tirania jarauntsi zuela bere aitarengandik Kos uhartean, baina, halere, bere ekimen soilez eta inolako mehatxuk eragin gabe, zuzentasuna maite izateagatik besterik ez, boterea Kosko herriaren eskuetan utzi zuen eta Siziliara abiatu, eta hemen, Zankle

hiria eskuratu ondoren samoarren laguntzaz (hiriak ordurako Mesene izena zeukan Zankleren ordezt), hiri horretan lekutu zen. Beraz, Siziliara horrela

iritsitako Kadmo hauxe bidaltzen du orain Gelonek, honek bai baitaki -behin baino gehiagotan egiaztatu ahal izan du eta- hura zenbateraino den zuzentasun zale; eta Kadmoren zuzentasun erakutsietan ez da izango txikiena bidaia honetan egingo duena: nahiz eta bere esku ukan Gelonek utzitako dirutza guztiak eta horien jabe egiteko aukera osoa izan, ez du horrelakorik egingo; aitzitik, heleniarrak itsas borrokan nagusitu eta Xerxesek etxerako bidea hartu ondoren, berak ere beste horrenbeste egingo du, diru haiekin guztiekin Siziliara itzuliz.

165. Baina bada gertakarien beste bertsio bat ere, siziliarrena euren, alegia: lazedemondarren agindupean jardun behar arren ere, Gelon joan omen zatekeen heleniarrei laguntzera, baldin Himerako Terilo Kriniporenak (bere hiritik Theron Enesidemorenak, Agrigentoko erregeak, egotzi zuenak) ez balu sartu Siziliara, data beraietan hain zortez, hirurehun mila gizoneko armada bat, pheniziar, libyar, iberiar, liguar, elisyar, sardiniar eta zyrnoarrez osatua eta buruan karthagoarren errege Amilkas Anonena zekarrena; Amilkas hau abegi-lokarriengatik erakarri zuen Teronek bere alde, baina batez ere Rhegioko tirano zen Anaxilao Kretinesenaren bitartekaritza erabakiorra medio, zeren honek bere semeak utzi baitzizkion bahi Amilkasi Siziliara etor zedin bere aitaginarreba mendekatzera (Anaxilao, izan ere, Zydipe izeneko Teriloren alabarekin ezkontuta baitzegoen). Horra hor, bada, Gelon heleniarrei laguntzera joan ezinaren eta dirua Delphosera bidaltzearen arrazoia.

166. Gainera, beste zertzelada hau ere eransten dute, hots, Gelonen eta Teronen garaipena Amilkas karthagoarraren aurka eta heleniarrak Salaminan Persiarraren aurka lorturikoa egun berean gertatu zirela¹³¹.

Eta beste hau ere entzun dut, alegia, Amilkas hura, aitaren aldetik karthagotar baina amaren aldetik syrakusarra, eta Karthagoko

erregetza bere balio pertsonalagatik eskuratu zuena, desagertu egin zela borrokaldian, borrokan sartu eta garaitua izateko zorian aurkitzen zen unean; eta, izatez, ez zen gehiago agertu, ez bizirik ez hilda, guduzelaiko inguruetan; nahiz eta Gelonek inguruok zehatz-mehatz arakatzeko agindu, hura aurkitzeko asmoz.

167. Aldiz, karthagoarren euren artean honako bertsio hau da zabal, eta badu egiantza: barbaroek egunsentitik hasi eta iluntzeraino borrokatu omen ziren heleniarren aurka Sizilian (halakoxe iraupena izan omen zuen borrokaldi hark), eta bitarte horretan Amilkas bere kanpamenduan bide zegoen sakrifizioak eskaintzen eta sutzar handi batean abere osoak inmolatzen; eta bere tropak ihesari ematen ziotela ikustean, bere burua sutara bota omen zuen. Eta halaxe desagertu zen, beraz, suak errauts bihurtuta.

Baina, dela pheniziarrek dioten moduan desagertu edota beste moduren batean, kontua da Amilkasi sakrifizioak eskaintzen dizkiotela eta hilobi-monumentuak eraiki dizkiotela, gainera, haren kolonietako hiri guztietan, garrantzitsuena Karthagon bertan aurkitzen delarik.

Eta aski bedi Sizilian gertaturikoari buruz.

168. Zerzyrarrei dagokienez, hona hemen mandatariei eman zieten erantzuna eta ondorengo jarrera; izan ere, Siziliara joan ziren mandatari berak saiatu ziren zerzyrarren laguntza lortzen ere, Gelonen aurrean erabilitako argumentu berdinak erabiliz. Baietz esan zieten zerzyrarrek behingoan, bidaliko zizkietela laguntza tropak, ezingo zutela-eta axolagabeki jasan Heladeren suntsipena; ezen hura eroriz gero, beraiek ere egun hartan bertan esklabo bihurtzea besterik ez zezaketela itxaron eta, inolako zalantzarik gabe; horrexegatik beren indar guztiekin laguntzera joan beharra -erantsi zuten.

Horixe izan zen, bada, haien itxurazko baietza; baina, laguntzera joateko ordua heldu zenean, iritiz aldatu ziren: hirurogei untzi ekipatu ondoren, ia itsasoratu bezain laster, Peloponesoko kostaldean geratu ziren eta lazedemondarren lurraldean, Pylo eta Tenaro parean, ainguratu zituzten beren untziak, zain -haiek ere- gerra zeinen alde gertatzen zen ikusi arte, zeren ez baitzuten uste heleniarrek garaipena lor zezaketenik; aitzitik, Persiarra jotzen zuten erabateko garaile eta Helade osoaren jaun eta jabe. Horregatik, haien jarrera hark alde zaurretik pentsaturiko plan bati erantzuten zion, alta, Persiarrari ondoko hau esan ahal izateko: "Maiestate, gerra honetan heleniarrak gure laguntza lortzen saiatu ziren arren, guk -ez horren botere kaskarra dugunok eta, beraz, untzi-kopurua ere, kaskarrena barik, haziena eman genieziaiekeelarik (athenastarren ondoren, noski)- ez genuen nahi izan zure aurka jarki, ezta zure gustuko ez den ezer egin ere".

Argudio horrekin zera espero zuten zerzyrarrek, besteek baino zori hobea izango zutela, eta gertatu ere halaxe gertatuko zatekeen, nire ustez. Eta heleniarrei begira ere bazuten aitzakia bat, gero erabiltzea egokitu zitzaiena. Heleniarrek laguntzera ez etortzea aurpegiratzean, hirurogei triere zituztela prest erantzun zieten, baina haize etesioek ez ziotela utzi Malea igarotzen; eta hortik Salaminara ez iristea, ezen ez baitzen adore faltagatik itsas borrokan esku hartu ez izana. Horrelaxe itzuri zitzaizkien zerzyrarrak heleniarrei.

169. Azkenez, Kretakoek, horren ardura hartu zuten mandatariak laguntza eske joan zitzaizkienean, honako hau egin zuten: guztiak ados jarrita, Delphosera aholku-eskatzaileak igorri zituzten, ea Helade sorostea onuragarri gertatuko ote zitzaien galdetzeraino jainkoari. Eta Pythiak zera erantzun: "Inozook! Ez al duzue nahikoa eskarmentu Menelao sorostearren Minosen suminak igorri zizkizuen zoritxarrekin? Ezen eurek ez zizueten lagundu Minosen beraren heriotza mendekatzen Kamikon hil zenean, eta zuek bai lagundu zenietela, ordea, barbaro batek burutu zuen spartar emakumearen bahiketa mendekatzen¹³²". Erantzun hau jakinarazi zitzaizkienean, kretarrek laguntzarik ez ematea erabaki zuten.

170. Izan ere, kontatzen dutenez, Minos Sikaniaraino heldu zenean Dedaloren bila (gaur egun Sizilia deritzon uhartera), hantxe

hil omen zuten bortizki. Handik denboragarrenera, jainko baten eskabidez, Kretako guztiek, Polikhna eta Presokoak izan ezik, flota boteretsu batekin Sikaniaratu eta bost urte luzez setiatu zuten Kamiko hiria, nire garaian Agrigentokoek populatua; halere, azkenean, hiria ezin hartu eta setioa ere ezin luzatuz (goseak hondatzen baitzituen), lurralde hura utzi eta etxerako bidea hartu zuten. Baina bidean zetoze, Japygia parean aurkitzen zirenean, ekaitz izugarri batek ustekabea hartu eta lehorrera jaurtiki zituen. Untziak hondatuta geratu zirenez eta Kretara itzultzeko inolako aukerarik ez zutenez ikusten, Hyria¹³³ hiria eraiki zuten eta bertan geratu bizitzen; horrela, kretarrak izatetik Japygiako mesapiar izatera, eta uhartetarrak izatetik herri kontinental izatera pasatu ziren.

Hyriatik abiatuz, beste hiri batzuk kolonizatuz joan ziren, askoz geroago tarentoarren suntsitu gura izan zituztenak, baina porrot galanta jaso, hain punturainokoa ezen huraxe izan baitzen, ezbairik gabe, heleniar munduan gertatu diren sarraskietarik handiena, guk dakigula behintzat, eta sarraski horrek, tarentoarreni euren ezirik, Rhegioko biztanleei ere ekarri zizkien ondorioak, azken hauek Mizytho Kherorenak beharturik joan baitziren tarentoarren laguntzera, hiru mila gizon galduz beraiek bakarrik (tarentoarren euren hildako kopurua ezin izan zen zenbatu). Hain zuzen ere, Mizythok, Anaxilaoren zerbitzaria izatez, Rhegioko gobernuaren kargu hartu zuen, eta bera izan zen, Rhegiotik egotzi zutenean, Tegeara bizitzen etorri zena eta Olympiako estatuarik gehienak sagaratu zituen.

171. Baina Rhegio eta Tarentoko biztanleek kontatu dudak hau nire historiaren haritik kanpo dago.

Kreta despopulaturik geratzean -presoarrak kontatzen dutenez-, biztanle berriak finkatu omen ziren bertan, gehienak heleniarrak; eta Minosen heriotzaz bi belaunaldira Troiako gerra gertatu zen, eta bertan, ezaguna denez, Menelaoren aliatu onenak

artean izan ziren kretarrak. Baina Troiatik itzultzerakoan goseak eta izurriteak jo zituen, bai eurak baita ganaduak, gerra hartan esku hartzeagatik; harik eta, Kreta berriro ere despopulaturik geratzean, etorkinen uhin berri batek okupatu zuen arte uhartea, eta horiexek osatzen dute -lehendik bizirik geratu zirenekin batera- gaur egungo Kretako biztanlegoa. Hortik, beraz, zorigaitz horiek guztiok gogoraraziz, heleniarrak sorostea bazterrera zezaten aholkatzea Pythiak, nahiz eta beraiek laguntzeko borondatea izan.

172. Thesaliarrei dagokienez, hasiera batean mediarrari atxiki zitzaizkion, baina derrigorrez izan zen, ez baitzituzten atsegin, geroago erakutsi zutenez argi eta garbi, Aleuaden azpijokoak. Izatez, Persiarra Europara igarotzeko zela jakin zutenean, mandatariak igorri zituzten Isthmora. Hementxe zeuden bildurik Heladerentzat asmo onenak zituzten hiriek izendaturiko mandatariak.

Eta hona hemen zer esan zieten, haien aurrera iritsitakoan, mandatari thesaliarrek: "Heleniarrok, Thesalia eta Helade osoa gerratik salbu izan dadin, Olympoko mehaka jagon beharra dago. Gu oso prest gaituzue hori egiteko zuen laguntzaz, baina nahitaezko da zuok armada indartsu bat bidaltzea hara; zeren, horrela ez bada, egon seguru Persiarrarekin berba egingo dugula. Izan ere, begi-bistakoa da, gainerako Heladetik hain iparrean bizi izateak ez du esan nahi zuok babestearren galdu beharra daukagunik geu bakarrik. Gainera, laguntzera etorri gura ez baduzue, ez daukazue eskubiderik guri inolako exigentziarik ezartzeko, zeren, ezinaren aurrean, exigitzeak ez baitu balio izan inoiz ezertarako. Ahaleginduko gara gu geure kabuz salbatzeko mediorene bat aurkitzen". Horixe thesaliarrek esan zutena.

173. Heleniarrek, orduan, haiek esandakoa entzunik, Thesaliara itsasoz lehor-indarrak bidaltzea erabaki zuten mehaka jagotera. Horretarako gudarosteak bildurik, Euripon zehar nabigatu zuten; eta, Akhaiako Alo hirira iritsitakoan, hantxe lehorreratu

eta, untziak bertan behera utziz, Thesaliarako bidea hartu zuten, harik eta Tempera heldu arte -Behe Mazedoniatik Thesaliara, Peneoko arroan gora, jotzen duen mehaka, Olympo eta Osa mendien artean-. Hantxe kanpatu zen ehun mila hoplita heleniar inguruko gudarostea, eta zaldieria thesaliarra bildu zitzaien. Lazedemondarren buruan Eueneto Karenorena zegoen, errege-odolekoa ez izan arren polemarkoen artean hautatua, eta, athenastarren buruan, Themistokles, Neoklesen semea. Leku horretan ez ziren egon egun askotan, zeren Mazedoniako Alexandro Amyntasenak bidaliriko mezulari batzuek handik erretiratzea eta mehaka hartan ez geratzea aholkatu baitzien, armada inbaditzaileak (zeinen soldadu eta untzi-kopuruaren berri ere eman zieten) handiek kolpatuko zituelako.

Mazedondarren aholkuok entzun ondoren, heleniarrek ohar haiei kasu egitea erabaki zuten, ohar zuhurrak iritzi baitzieten eta, gainera, mazedondarraren jokabideak beren kausa begiko zitzaiola erakusten baitzuen. Nire aburuz, orde, erretiratze hura izuak eragin zuen, Goi Mazedoniatik Thesaliara beste irispide bat zegoela enteratu zirelako (perreboen lurraldetik iragaten zena, Gono hiriaren inguruetatik), eta bide horixe izan zen gainera, hain zuzen ere, Xerxesen armadak erabili zuena. Heleniarrak, bada, beren untziak zeuden lekura jaitsi eta Isthmorako itzulbidea hartu zuten.

174. Horrextan geratu zen Thesaliako espedizioa, erregea jada Asiatik Europara igarotzeko prest Abydon aurkitzen zela. Thesaliarrei dagokienez, aliaturik gabe aurkitzean, mediarren kausari atxiki zitzaizkion behin-betiko, eta erabakitsu atxiki ere, geroztiko zalantzarik gabe, hain punturaino ezen gerrako operazioetan zehar zerbitzu aipagarriak egin zizkioten, dudarik gabe, erregeri.

175. Isthmora iritsitakoan, heleniarrek, Alexandrok emaniko informazioak kontuan hartuz, gerrarako estrategiaren eta

horretarako puntu egokien azterketa egin zuten. Nagusi atera zen tesia Thermopyletako mehaka jagotea izan zen, Thesaliarakoa baino meharragoa zelako, dudarik gabe, eta, gainera, beren baseetatik hurrago zegoelako. Aipagarria da, alegia, geroago heleniarrak ustekabea hartu eta harrapatu zituzten bidezidor hura zegoenik ere ez zekitela haiek, Thermopyletara bertara heldu arte eta trakistarrek bide horren berri eman zieten arte.

Beraz, mehaka hura jagotea erabaki zuten, barbaroa Heladen barna sar ez zedin eta beren flotari Histieako lurraldean den Artemisiora bidea irekitzeko asmoz, bazter biok bata bestetik hain hurbil baitira, batean gertatzen dena bestean jakin ahal izaten dela.

176. Inguru horien topografia azaltzera noakizue orain, eta Artemisiotik hasiko naiz. Thraziar itsasoaren zabalera Sziatho uhartea eta kontinentaldeko Magnesia banantzen dituen itsasarte bihurtzeraino mehartzen da gunee horretan; eta itsasarte hori gaingitu ondoren, jada Eubean, Artemisio aurkitzen da, Artemisen santutegi bat dagoen kostaz zirrinda, alegia.

Bestalde, Trakhisko lurraldetik Heladerako sarbideak pletro-erdiko zabalera¹³⁴ du bere puntu estuenean. Baina ez da aurkitzen hor, halere, eskualdeko mehararik estuena, baizik eta Thermopylen aurre eta atze aldean; Alpenos parean, Thermopylen atzean, guri bakar bat igarotzeko beste zabalera baino ez du, eta aurrean, Phenix ibaiaren parean -Anthela hiritik hurbil-, gauza bera, gurdibide tamainako mehaka. Thermopylen mendebaldera, berriz, mendikate igogaitz, malkartsu eta garaia, eta mendiraino iristen dena; eta ekialdera, azkenez, itsasoa eta padurak dira bide alboetan. Igarobidean bertan, ur termalen iturri batzuk dira, bertakoek Khytros¹³⁵ deritzenak, eta handik hurbil, Heraklesen izenean eraikitako aldare bat.

Mehakaren gunee horretan murrutik bat zegoen eraikita, antzina behintzat atetik batzuk zituena. Murrutik hura phozearrek eraiki

zuten thesaliarren beldurrez, azken hauek Thesprotiatik iritsi zirenean Eolia aldean, gaur egun okupatzen jarraitzen duten lurraldean, kokatzera. Beraz, thesaliarrek menpean hartu nahi izan zituztenez, phozearrek neurri hura hartu zuten badaezpada, eta ur beroak askatu zituzten igarobide gainera, haiek era guztietako neurriak hartzen baitzituzten thesaliarrak beren lurraldera iritsi ez zitezen. Esan dudanez, lehenbiziko murrua aspaldi eraikia zen eta gehientsua erorita zegoen zaharraren zaharrez; hala ere, heleniarrek hura berreraikitzea erabaki zuten, leku hartan barbaroari atzera eragin eta Heladetik alde egitera behartzeko asmoz. Gainera, bada ibilbide horren ondoan auzune bat, Alpenos, eta heleniarrek hortxe hornitzea pentsaturik zeukaten.

177. Horiexek izan ziren, bada, heleniarrek egokientzat jo zituzten posizioak, zeren, aldagai guztiak aurreikusi eta kontuan hartuz, barbaroek han ez zutela izango beren soldadu nagusitasunaz eta zaldieriaz baliatzerik iritzi baitzioten, eta Heladeren inbaditzaileari hantxe itxarotea erabaki zuten. Eta Persiarra Pierian aurkitzen zela jakin zutenean, Isthmoko batzarra bukatutzat eman eta gerrara abiatu ziren, batzuk lehorrez Thermopyletarantz eta beste batzuk itsasoz Artemisiorantz.

178. Heleniarrak, bada, ahalik lasterren abiatu ziren bakoitza bere bidetik. Delphostarrak, bitartean, izuikarak hartuta, beren zoriari eta Heladerenari buruz jainkoari kontsultatzen joan ziren eta erantzun haxe hartu zuten: haizeei erregutzeko, horiexek izango zirela-eta Heladeren aliaturik handienak. Iragarpen hori jasotakoan, iragarritako orakulu horren berri eman zieten, lehenik eta behin, aske nahi zuten heleniarrei, eta, horrela, barbaroari halako izuikara ziotenei informazio hura ematearren, betiko eskerronaren duin bihurtu ziren. Jarraian, delphostarrek aldare bat eraiki zuten haizeen izenean Thyian, Zephisoren alaba Thyiaren¹³⁶

temenosa aurkitzen den lekuan hain zuzen (hortik leku honen izena ere, haren oroimenez), eta beraren babesa eskatu zuten sakrifizioak eskainiz. Hain zuzen ere orakulu horrexegatik eskaintzen dizkiote medeapen opariak, oraindik gaur egun, delphostarrek haizeei.

179. Bitartean, Xerxesen itsas armada Therme hiritik irten eta, hamar untxi arinenekin, Sziathorantz itxasoratu zen, abangoardian zaintzen ari ziren hiru untxi heleniar, bata Trezengoa, beste Eginakoa eta hirugarrena Atikakoa, aurkitzen ziren lekura. Orduan, hiru untxiok barbaroen untziteria begibistan izan zutenean, ihesari eman zioten.

180. Horrela, barbaroak Praxino kapitain zuen Trezengo untziaren atzetik irten ziren abiadan eta harrapatu ere laster egin zuten. Jarraian, trezendarren tripulazioko kiderik lerdenea brankara eraman eta bertan lepamoztu zuten, harrapaturiko lehen heleniarra hain lerdena izatea augurio ontzat hartuz. Aipagarria da, gainera, lepamoztu zuten marinel haren izena Leon zela, eta baliteke izen horren kariaz egoki izana hari, hein batean bederen, bere patu gaizto hura¹³⁷.

181. Asonides kapitain zuen untxi eginarrari dagokionez, arazo gehiago eman zien, untziko soldaduen artean Pytheas Iskhenoorena baitzen bertan, egun hartan benetan bulartsu jardun zuena, ezen untzia harrapatuta gero ere borrokan jarraitu zuen, zauriz txiki-txiki eginda utzi zuten arte. Hala ere, erori ondoren oraindik arnasa zuenez, untzietako soldadu persiarrek ahalegin guztia jarri zuten haren bizia salbatzeko, erakutsi zuen adore hargatik, eta zaurietan mirra isuri eta liho-ehunezko bendak ipini zizkioten. Gero, beren basera itzuli zirenean, armada osoaren aurrean erakutsi zuten, mirespenez beterik, eta tratu ona eman zioten; oster, untxi hartan hartu zituzten gainerako espeak esklabo gisara tratatu zituzten.

182. Halaxe harrapatu zituzten, bada, hiru untzietariko bi; hirugarrenari dagokionez, Phormo athenastarra kapitain zeramanak,

ihes egitea lortu zuen, baina Peneo ibaiahoan jo zuen hondoa; eta, nahiz eta barbaroek untziaz jabetu, untzikoak ez zituzten harrapatu; hauek, izan ere, untziak hondoa jo bezain laster lehorrera jauzi egin eta Athenasera jo zuten Thesalian zehar.

183. Artemision ainguraturik zeuden heleniarrek, berriz, Sziathotik zuziez egin zizkieten seinaleen bidez jakin zuten gertatuaren berri; eta berri haien aurrean, izuturik, aingurak jaso eta Artemisiotik Kalziserak jarri zuten branka, hemendik Euripo zaintzeko asmoz, Eubeako tontorretan talaiariak utzi ondoren. Bitartean, barbaroen hamar untzietarik hiruk Sziatho eta Magnesia artean kokaturik dagoen eta Myrmex¹³⁸ izena duen uharrirantz jo zuten. Barbaroek aldean zeramaten zutarri bat jarri ondoren aipaturiko uhariaren gainean, itsas armada persiarrek, itsasbidea jada oztoporik gabe, Therme utzi zuen eta, hiri horretatik errege abiatu zenetik hamaika egunera, bere untzi guztiekin itsasora egin zuen. (Aipatzekoa da Szyroar Pamon delako bat izan zela uharri hura zehazki zein lekutan aurkitzen zen esan ziena). Barbaroek egun osoa eman zuten nabigatzen eta Magnesiako Sepiaseraino iritsi ziren, Kasthanea hiriaren eta Sepias lurmuturraren artean dagoen kosta zerrendara zehazki.

184. Halatan, leku hartara eta Thermopyletara heldu arte, persiar gudarosteek ez zuten izan gerra-hildakorik, eta beren soldaduak, nire kalkuluetatik atera ditudan ondorioen arabera, honako zifra hauetara iritsi ziren: batetik, Asiatik etorritako untzietan -mila berrehun eta zazpi untzi, alegia-, herri ezberdinek hasiera batean ekarritako soldaduak, orotara, berrehun eta berrogeita bat mila eta lauhun izango ziren, untziko berrehun gizon emanez; untzi horietan, gainera, herri bakoitzeko dotazioez gain, hogeita hamar gerlari persiar, mediar edo sakak zihoazen. Soldadukopuru gehigarri horrekin, hogeita hamasei mila eta berrehun gizon ditugu. Eta kopuru horri eta aurrekoari

pentekontereetako tripulazioa erantsi behar diot, halaber, untziko laurogei gizon gutxi gorabehera. Gorago esan dudanez, bildu ziren mota horretako untziak hiru mila ziren; beraz, untziotan berrehun mila eta berrogei gizon izango ziren. Horra hor, bada, Asiatik etorritako itsas armadako soldadu-kopurua, bostehun eta hamazazpi mila eta seiehun eta hamar gizon guztira.

Bestalde, oinezko soldaduak milioi eta zazpiehun milara iristen ziren, eta zaldizkoak laurogei milara, eta horiei guztioi, gainera, gamelu gainean zetozen arabiarrek eta orga gainean zetozen libyarrak erantsi behar dizkiet, hogeï mila gizon nire kalkuluen arabera. Beraz, itsas eta lehor-indarren guztizkoa bi milioi hirurehun eta hamazazpi mila eta seiehun eta hamar gizonera iristen zen. Diodan zenbateko hori, jakina, Asiatik bertatik etorritz itsasoa zeharkatu zuten gerlariei dagokie, horiekin batera zetozen mirabeak eta hazkurri-garraioko untziak eta horietako dotazioak barne sartu gabe.

185. Hortaz, zenbatu ditudan indar horiei guztiei European erreklutaturikoak gehitu behar zaizkie, nahiz eta puntu honetan aieruzko datuak besterik ezin ditudan eman. Horren arabera, Thraziako eta honen aldameneko uharteetako heleniarrek ehun eta hogeï untzi zekartzaten, eta untziotako dotazioek, beraz, hogeita lau mila gizon osatuko zituzten; eta thraziar, peoniar, eordiar,

botiatar, Khalzidikako jende, brygo, pieriar, mazedondar, perrebo, enienear, dolopear, magnesiar, akhear eta Thraziako kostaldean bizi diren herri guztiei dagokienez, herri horien ekarpena, diot, hirurehun mila gizonera iristen zelakoan nago. Beraz, hamarnaka mila gizon horiek Asiatik etorri zirenei gehituz gero, bi milioi seiehun eta berrogeita bat mila eta seiehun eta hamar gizon egingo lituzkete orotara, gerlariei dagokienez.

186. Orain, gerlarion kopuru horren hazia kontuan hartuta ere, horiekin batera zihoan mirabeen kopurua, hala nola hazkurri-garraioko zamauntzietan zein armadaren itsas euskarriko gainerako untzietan zihoazenena, ez dut uste nik gerrarien euren kopurua baino txikiagoa izango zenik, baizik eta handiagoa. Dena dela, gerrariena bezalakoxe kopurua zela emango dut -ez handiago, ez txikiagoa-; horrela, lagun multzo hori gerlarien guztizkoa bezainbestekoa izanik, haien kopurua ere hamarnaka mila gizon bertsuetara iritsiko zen. Beraz, Xerxes Dariorenak bost milioi berrehun eta laurogeita hiru mila eta berrehun eta hogeï gizon ekarri zituen Sepias lurmuturrera eta Thermopyletaraino.

187. Horra hor, bada, Xerxesen armada militarren guztizko zifra, ezen janaria prestatzeko emakumeen, ohaideen eta eunukoen kopuru doia ez bailezake inork ere zehazki esan; inork ere zehatz ez lezakeenez, hain kantitate handia izateagatik, mandoen eta beste zamari batzuen kopurua, hala nola armadarekin zihoazen zakur indiarrena. Horregatik, ez nau batere harritzen ibai batzuen emaria agortu izateak; gehien harritzen nauena, oster, hainbat hamarnaka mila lagunentzat nahikoa janari egotea da. Izan ere, nire kalkuluetatik ateratzen denaren arabera, lagun bakoitzak eguneko kenize bat gari soil-soilik jasota ere, ehun eta hamar mila eta hirurehun eta berrogei

medimno¹³⁹ kontsumitzen ziren egunero (eta hemen ez dut sartu emakumeen, eunukoen, zamarien eta txakurren anoa). Dena den, jendetza hura hainbat hamarnaka milara iristen bazen ere, haien guztien artean ez zen inortxo ere hain sotil eta gorpuzkera ederrekorik Xerxesek berak baino meritu gehiago ukan zezan armada haren guztiaren buru izateko.

188. Nioenez, itsasora egin ondoren, itsas armada hura bazihoan bere bidean eta, Kasthanea hiriaren eta Sepias lurmuturraren arteko kostaldera iristean, lehenbizi heldu ziren untziak itsasertzean bertan ainguratu zituzten eta gainerakoak, berriz, lehenbizikoen jarraian, zeren, hondartza zabalegia ez zenez, zortzinako ilaretan ainguratu behar izan zuten, brankak itsasaldera zituztela. Horrela igaro zuten gau hura, baina egunsentian, bezperan bare-bare egon ondoren, itsasoa zakartzen hasi zen eta sekulako denborale gogorak astindu zituen, iparraize-bolada bortitzekin batera, inguru haietako bizilagunek "Helespontoarrak" deritzeten haizeak, alegia. Orduan, haizearen indarra gehituz zihoala konturatu zirenek -eta hori egiteko moduan kokatuta zeudenek, jakina- untziak lehorrera atera zituzten ekaitza lehertu aurretik, eta, horrela, haiek eta beraien untziak salbu geratu ziren. Aldiz, ekaitzak itsas barnean harrapatu zituen untziei dagokienez, haizeak batzuk Ipnos¹⁴⁰ deitzen dioten Pelioko partera herrestatu zituen, eta beste batzuk kostaren kontra; batzuk Sepias lurmuturraren beraren inguruetako arroken kontra jota hondatu ziren, beste batzuk Melibea hiriaren pareko kostaldeko arroken kontra eta beste batzuk, azkenez, Kasthanearen parekoen kontra. Ez baitzen izan halako ekaitz bortitzari ihes egiteko modurik.

189. Zabal dabilen kondaira baten arabera, athenastarrek, orakulu baten aginduei jarraituz, Boreas jainkoa hel egin zuten, ezen bai omen zuten beste orakulu bat ere beren suhiaren babesera jo zezatela aholkatzen ziena.

Heleniar historien arabera, Boreas jainkoa Atikako emakume batekin ezkondua da, Orithyia Erekhtheoren alabarekin, alegia. Senidetasun horrexegatik, hain zuzen, athenastarrek, zabalduz etorri den bertsioaren arabera, Boreas suhia zutela ondorioztatu zuten eta, beren untzietan Kalzisen -Eubean- zain zeuden bitartean ekaitzaren bortitza areagotuz zihoala jabetu zirenean -edo agian gertakari hori baino lehenxeago ere-, Boreas eta Orithyari sakrifizioak eskaini zizkieten, sorostera etor zitezen eta barbaroen untziak suntsi zitzaizten, urte batzuk lehenago Athos inguruan egin zuten bezalaxe. Nik ezin dut baieztu, egiatan, hori izan zen ala ez Boreas ainguraturik zeuden barbaroen gainera jaustearren arrazoia; baina dena den, athenastarrek horixe diote: zenbait urte lehenago ere sorotsi zituen Boreas etorri zitzaizela oraingoan ere laguntza ematera; eta etxera itzulitakoan, haiek santutegi bat eraiki zioten Iliso ibaiertzean.

190. Kontatzen dutenez, hondamendi hartan suntsituriko untziak ez ziren izan lauhun baino gutxiago, behetik jota; hildakoak, berriz, kontaezinak izan ziren eta aberastasun pila handiak galdu ziren, hain handiak ezen han inguruetan lurrak zituen Magnesiako baserritar bati, Aminokles Kretinesenari, ezin onuragarriago gertatu zitzaion naufragio hura, zeren, handik denbora batera, olatuek kostara eramandako hainbat edalontzi eskuratu baitzituen, hala urrezkoak nola zilarrezkoak; horrez gain, persiarren altxorak ere aurkitu zituen eta beste urrezko objektu askoz jabetu zen. Halere, horiek guztiok aurkitu eta aberats bihurtu arren, gizon hark ez zuen izan zori handirik bere bizitzako beste alderdi batzuetan; izan ere, zorigaiztoko istripu bat gertatu zen, gizakume hura ere atsekabez bete zuena: bere semeetariko bat hil zuen.

191. Bestalde, ezin izan zen zehaztu hazkurri-garraiorako zamauntzietariko eta bestelako untzietariko zenbat hondoratu ziren. Galerak hain handiak izan ziren, non itsas armadako almiranteek, jasaniko ondiko hura aprobetxatuz thesaliarrek eraso egingo zieten beldurrez, defentsarako oholesi altu bat eraikitzeko agindu zuten untzi-hondakinekin.

Denboraleak, konkretuki, hiru egunean zehar iraun zuen; azkenean, medeapen opariak sakrifikatuz eta haizeari zuzendutako salmodiak abestuz -Thetisi eta Nereidei ere sakrifizioak eskaintzeaz gain-, ekaitz hori laugarren egunera baretzea lortu zuten magoek (haizea beste arrazoiren batez berez-berez baretzea gertatu ez bazen). Eta Thetisi sakrifizioak eskaini bazizkioten, joniarrengandik jakin zuten tradizio honegatik izan zen: Thetis jainkosa Peleok bahitu zuela lurralde hartan eta Sepias lurmuturra, beraz, jainkosarena eta gainerako Nereidena zela oso-osorik.

192. Ekaitza, bada, laugarren egunera baretu zen.

Bestalde, hura hasi eta hurrengo egunean, Eubeako tontorretan kokaturik zeuden barrandariak handik arrapaladan jaitsi eta naufragioaren tamainaz informatu zituzten heleniarrak. Gertaturikoaren berri izatean, helendarrak, Posidon Salbatzaileari errekuak zuzendu eta libazioak eskaini ondoren, Artemisiora itzuli ziren aurki, denborarik galdu gabe, unti etsai gutxi batzuk baino aurkituko ez zituztelakoan.

Artemisio ingurura joan ziren heleniarrak, bada, bigarren aldiz, eta hantxe geratu ziren beren untzietan zain. Eta orduz geroztik -eta gaur egunera arte iraun du horrela- "Salbatzailea" deitura erantsi diote Posidoni.

193. Bien bitartean barbaroek, haizea baretu eta olatua apaldu bezain laster, beren untziak itsasoratu eta, kontinenteko kostan zehar nabigatuz, Magnesiako muturra igaro zuten Pagasaseraino iristen den golkorantz zuzentzeko. Bada golko horretan bazter bat, Magnesian, Jasonek eta beronekin Argo untzian Kolkidako Eara urrezko ardilaruaren bila zihoazenek Herakles uretan bidali eta bertan behera utzi zutena, kontatzen dutenez (urez hornitu ondoren handik berriro itsaso zabalera abiatzeko asmoa baitzuten), eta hortik inguru horri Aphetak¹⁴¹ deitzea. Bada, hantxe bota zuen aingura Xerxesen untziteriak.

194. Hala ere, untziteria hori osatzen zutenetariko hamabost unti atzeratxoago geratu ziren, kostatik urrutixeago nabigatzearen, eta Artemision ainguraturiko unti heleniarrak begiztatu zituzten. Eta untziok beretarikoak zirela uste izanik dirudenez, etsaiaren eskuetara erortzera joan ziren. Untzi horien buru Eolian Zymeko gobernadore zena zihoan, Sandozes Thamasiorena, behinola, gertakari hauek baino lehenago, Dario erregek gurutziltzarazi zuena, erret epailetariko bat zela epai injustu bat eman omen zuelako diru truke. Horrela ba, morroi hura gurutzean zintzilik zegoela jada, Dariok gogoetari eman zion eta zera ondorioztatu: gizon hark errege-etxeari egindako zerbitzuak haren hutsak baino handiagoak zirela. Eta Dariok, konbentzimendu horretara iritsita, zentzuz baino arinkeria gehiago jokatu zuela aitortuz, gizon hura aska zezatela agindu zuen. Halaxe itzuri zitzaion, bada, Dario erregeren zigorrari, eta bizia kontserbatu; baina oraingo honetan, heleniar untziekin topo egitean, ez zuen lortuko, ez, bigarrenez heriotzari itzurtzerik: heleniarrak barbaroen untziak hurbiltzen ikusi zituztenean, hauen errakuntzaz ohartu ziren eta bila irten zitzaizkien, eta erraz menpe hartzea lortu.

195. Untzi horietariko batean harrapatu zuten Aridolis, Alabandako tiranoa Karian, eta beste batean Demonooen seme Penthylor jeneral paphoarra, Paphotik hamabi unti ekarri eta horietako hamaika galdu berri zituena Sepiasko ekaitza lehertzerakoan, eta hortik, geratzen zitzaion unti bakar hartan Artemisiorantz zihoala, hura harrapatzea. Heleniarrak, atxiloen ahotik Xerxesen armadari buruz jakin gura zuten guztia jakin ondoren, Korinthoko istmora eramanez zituzten kateaz loturik.

196. Hala, bada, barbaroen untziteria -Sandozes kapitainaren agindupeko hamabostak izan ezik, esan dudana bezala- Aphetetara iritsi zen.

Bitartean, Xerxesek zeharkatuak zituen jada Thesalia eta Akhaia bere lehor-gudarosteekin, eta bi egun ziren Melidera iritsi zela. Thesalian zaldi-lasterketa bat ere

antolatu zuen bere zaldieria eta thesaliarrena probatzeko, azken hau Heladeko onena zela entzuna baitzuen; eta, lehiaketa hartan, behor heleniarrak oso atzean

geratu ziren. Bestalde, Thesaliako ibaietan Onokhono izan zen armadaren premiei erantzuteko aina emari ukan ez zuena, eta Akhaia ureztatzen duten ibaien artean, berriz, Epidano bera ere, hango ibaietarik handiena, ozta-ozta baino ez zen iritsi horretara.

197. Xerxes erregea Akhaiako Alo hirira heldu zenean, espedizioako gidariek, hura zertzelada guztiez informatu nahian, Zeus Laphystioren¹⁴² santutegiari buruzko herri-tradizio baten berri eman zioten. Athamasek, Eoloren semeak, Inorekin ados jarrita Phrixoren heriotza nola antolatu zuen kontatu zioten, eta gertakarion ondorioz, akhearrek, orakulu baten aginduei jarraiki, proba hauek ezartzen dizkietela Phrixoren ondorengoei: familia horretako zaharrenari, Leitoan¹⁴³ (honelaxe deitzen diote-eta akhearrek prytaneoari) ez sartzeko agindua ematen diote eta herritarrak eurak arduratzen dira sarrera zaintzeaz; baina edifizioan sartzea lortzen baldin badu, ezein arrazoigatik ere ezin irten daiteke sakrifikatua izango den unera arte. Eta beste hau ere gaineratzen zuten gidariek, hots, sakrifikatuak izateko ziren askok, sarritan, ihes egiten zutela handik, izuturik, eta beste herriren batera alde egiten zutela; baina, hala eta guzti, gerorantz itzultzen baziren eta prytaneoan harrapatzen bazituzten, lege-hauslea -jarraitzen zuten kontatzen gidariek- xingolaz estalirik sakrifikatzen zutela eta prozesioan eramaten aldarera. Eta Zytisoro Phrixorenaren ondorengoei tratu hori ematearen arrazoa haxe zela: akhearrek, orakulu baten esanei kasu eginez, Athamas Eolorena izendatu zutenean beren lurraldea arazteko medeapenezko biktima eta berori sakrifikatzera zihoazenean, Zytosoro hark, Kolkidako Eatik etorritik, salbatu egin zuela, eta ekintza horrekin jainkoen haserrea erakarri bere ondorengoen gainera.

Hori guztiori entzuten oihan sakratutik hurbil zegoela, Xerxesek ez zuen sartu nahi izan leku hartan, eta ez sartzeko agindua eman zien bere armadako guztiei ere, begirune bera

adieraziz, baita, Athamasen ondorengoen etxearekiko eta haren temenosarekiko¹⁴⁴.

198. Honarte Thesalian eta Akhaian gertaturikoa. Herrialdeetatik irten ondoren, Xerxes Melidera iritsi zen, egunero itsasgora eta itsasbehera izaten den golko bat inguratuz. Golko horren ertzean lautada bat da, zenbait gunetan zabala eta beste zenbaitetan meharra, eta lautadaren ertzean, berriz, Melide osoa inguratzen duten mendi garai eta igogaitzak, Trakhiniar Harkaitzak deritzetenak. Horrela, Akhaiatik etortzean golkoko lehenengo hiria Antizyra da, hiri honen ondoan itsasoratzen delarik enianearren lurraldetik datorren Sperkheo ibaia. Sperkheotik hogeit bat estadiora beste ibai bat da, Dyras izenekoa, Herakles sorosteko sortu omen zena zorutik, hura su eta gar zegoenean. Eta Dyrastik beste hogeit bat estadiora, beste ibai bat, Melas izena duena.

199. Melas honetatik bost estadiora aurkitzen da Trakhis hiria. Puntu honexetan dago hain zuzen ere -Trakhis aurkitzen den muinoetatik itsasoraino- eskualde osoko gunerik zabalena, lautadak hogeita bi mila pletroko¹⁴⁵ azalera baitu hemen. Eta Trakhisko lurraldea inguratzen duen mendizerran bada, gainera, mehaka bat, hiriaren hegoaldean, Asopo ibaia jaisten dena mendi barrenetatik.

200. Asoporen hegoaldera bada beste ibai bat, ez hain handia, Phenix izenekoa, aipaturiko mendizerra horretatik jaisten dena eta Asoporen ibaiadar duguna. Gunerik meharrena Phenix horren alboan dagoena da, gurdi bakar bat igarotzeko beste zabalera baino ez duen galtzada bat baitago han. Phenix ibaitik Thermopyletara hamabost estadio ditugu, eta, Phenix ibaiaren eta Thermopylen artean

auzune bat dago, Anthele izenekoa, honen ingurumaritik itsasoratzen delarik, hain zuzen ere, Asopo ibaia. Anthele inguruan zalai zabal bat dago, eta bertan aurkitzen da Demeter Amphiktyonidearen omenez eraikitako santutegia, baita Amphiktyonen batzarlekua¹⁴⁶ eta Amphiktyoni berari sagaraturiko santutegi bat.

201. Orduan, Xerxes erregek Trakhisko eskualdean, Meliden, kanpatu zuen, eta heleniarrek, berriz, igarobidean. Leku honi dagokionez, "Thermopylak" izenaz ezagutzen dute heleniar gehienek, nahiz eta bertakoek eta inguruetakoz bizilagunek "Pylak" esaten dioten¹⁴⁷.

Esan bezala, posizio horiexetan zeuden kanpaturik bi aurkariak, monarkak iparralde osoa zeukalarik bere kontrolpean Trakhiseraino, eta heleniarrek, aldiz, hegoaldera dagoen kontinentearen partea.

202. Hona hemen leku horretan Persiarraren erasoaren zain zeuden heleniarrak: hirurehun hoplita spartarrak; Tegea eta Mantineako mila, hiri bakoitzeko bostehun; Arkadiako Orkhomeno hiriko ehun eta hogeitaz, eta gainera Arkadiako mila hoplita. Arkadiako horiez gain, laurehun gizon ziren Korinthokoak, berrehun Phliuntekoak eta laurogei Myzenaskoak. Horiexek ziren Peloponesotik etorritakoak, eta Beoziatikoak, berriz, zazpiehun thespiar eta laurehun thebassar ziren.

203. Gudaroste horiei laguntzera lokro opuntetarrak etorri ziren beren soldadu guztiekin, hala nola mila phozear. Horiei heleniarrek eurek eskatu zieten laguntza, beraiek armada handitik aurreraturikoak zirela baina laster gehituko zitzaizkiela gainerako aliatuak esanez, mezularien bidez; gainera, itsasoa oso ondo kontrolatuta zeukatela, hantxe zirelako zaintzen athenastarrak, eginarrak eta itsas armada osatzen zutenak, eta hortik ez zutela izan behar, beraz, ezelako beldurrik; izan ere -gaineratu zuten- ez zen jainkoa Heladeri erasora zetorkiona, baizik eta gizakia; eta gizakietan ez da izan inortxo, ezta izango ere, jaiotza egunetik bertatik zorigaitza lagun ez duenik; eta gizakia zenbat eta ospetsuago, hainbat handiagoak haren zorigaitzak. Beraz -mezularien konklusioa- inbaditzailea gizakia zenez, ondikoren bat jasan beharra zeukan hark ere bere ospe irrikan. Lokridar eta phozearrak, bada, xehetasunon berri jakin ondoren, Trakhisera joan ziren soros-indarrekin.

204. Heleniar gudaroste guztiek zituzten, jakina, beren jeneralak, bakoitzak bere hiriarri zegozkionak, baina denetarik miretsiena eta armada osoa agindupean zeukana Leonidas lazedemondarra zen (Anaxandridesen seme, Leonen iloba eta Eurykratides, Anaxandro, Eurykrates, Polydoro, Alkamenes, Teleklo, Arkhelao, Hegesileo, Doryso, Leobotes, Ekkestrato, Agis, Eurysthenes, Aristodemo, Aristomakho, Kleodeo, Hylo eta Heraklesen ondorengoa), Spartako tronua ustekabea egokitu zitzaiona.

205. Izan ere, bi anaia nagusi zituenez, ez zitzaion inoiz bururatu errege izan zitekeenik. Baina Kleomenes gizonezko oinordekorik gabe hil zen eta Dorieo ere zendua zen jada -honek Sizilian aurkitu zuen heriotza-, beraz, tronua Leonidasi egokitu zitzaion, Kleombroto (Anaxandridesen seme gazteena) baino zaharragoa zelako eta, gainera, Kleomenesen alabarekin ezkontuta zegoelako.

Huraxe joan zen orduan Thermopyletara, semedunen artean legearen arabera aukeratu zituen hirurehun gizonekin. Eta thebastarrak ere lagun zituela aurkeztu zen -esana dut hauen kopurua, heleniar gudarostean zenbaketa egitean- berauen buruan Leontiades Eurymakorena zetorrela. Leonidasek aldameneko laguntzat heleniar guztien artean thebastarrak soilik hautatu bazituen, hauek mediar zale porrokatutzat zeuzkalako izan zen. Eta horrexegatik egin zien gerran esku hartzeko eskaria ere, ea haiek heleniar koalizioari laguntzeko tropak bidaltzeko prest ote zeuden ala, aitzitik, eskabide horri uko garbia egingo ote zioten jakin guran. Orduan thebastarrek, bestelako asmoak zituzten arren, tropak bidaltzeari baiezkota eman zioten.

206. Spartarrek Leonidas eta bere gizonak bidali zituzten aurretik, gainerako aliatuak ere, tropa horiek ikustean, kanpainan sar zitezen eta, spartarrak atzeratu egiten zirela entzunik, mediarren alde lerroka ez zitezen. Baina geroago, ospakizunak amaitu ondoren (Karnea jaiek eragozten baitzieten hori lehenago egitea), bazuten asmoa Thermopyletara ibili ahalean joateko beren gudaroste guztiekin, Spartan goarnizio bat utzita. Halaber, gainerako aliatuek ere gauza bera erabaki zuten, aipagai ditugun operazio militarren data berberetan Joko Olympikoak baitziren. Eta, ez zutenez uste Thermopyletako kanpaina hain azkar erabakiko zenik, hortik aitzintropak bidaltzearena.

207. Horixe egiteko asmoa zuten, beraz.

Bitartean, Persiarra mehaka inguruetara hurbiltzean, Thermopyletan ziren heleniarrak izuak hartu zituen eta atzera egitearen aukera eztabaidatzen hasi ziren. Hortaz, peloponesoar gehientsuak Peloponesora erretiratu eta istmoa jagotearen aldekoak ziren; baina proposamen horren aurrean phohear eta lokridarrek haserre bizian iharduki zutenez, Leonidasek zeuden lekuan geratzea ebatzi zuen eta mezulariak bidaltzea hirietara laguntza eske, soldadu gutxi zirela-eta mediarren armadari aurre egiteko.

208. Heleniarrak proposamen hori eztabaidatzen ari ziren bitartean, Xerxesek zaldizko bat bidali zuen barrandari, ea heleniarrak zenbat ziren eta zertan ziharduten barrenda zezan, zeren, oraindik Thesalian aurkitzen zela, inguru hartara gudarostetxo bat bildu zela entzun baitzuen, eta hauen buruan lazedemonarrak aurkitzen zirela, eta euron artean Leonidas, Heraklesen ondorengo bat.

Zaldizkoa kanpamendu ingurura hurbildu zenean, bera zegoen lekutik ezin izan zuen zelatatu kanpamendu osoa, ezinezko zitzaion-eta heleniarrak berreraiki berri zuten eta orain jagoten ari ziren murruaren barrualdean zeudenak ikustea. Halere, bai ikusi ahal izan zituela murrutik kanpo kanpaturik zeudenak, beren armak

murruaren kanpoko aldean barreiatuta (lazedemondarrak ziren, hain zortez, une hartan kanpoan zeudenak). Eta haxe ikusi zuen zaldizkoak: soldadu talde batek ariketa atletikoak egiten zituen bitartean, gainerakoak adatzak orrazten ari zirela. Zur eta lur geratu zen, jakina, ikuskizun haren aurrean, baina soldadu-kopuruaz bai ohartu zen. Eta era guztietako xehetasunei arreta osoz erreparatu ondoren, lasai-lasai itzuli zen -inork ere ez baitzuen jazarri eta axolagabetasun orokor hartaz egoki baliatu baitzen-, eta, itzulitakoan, Xerxesi kontatu zion ikusitako guztia.

209. Hura entzutean, Xerxesek ezin zion antzik eman errealitateari, hots, lazedemondarrak, bai hiltzeko baita, beren ahalean, erailtzeko prestatzen ari zirela. Eta haien jarduerari barregarri irizten zionez, une hartan kanpamenduan aurkitzen zen Demarato Aristonena deitarazi zuen. Eta hura aurkeztean, jasotako informearen xehetasunez galderak egiten hasi zitzaion, lazedemondarren jarrera hura ulertu nahian. Demaratok, orduan, haxe esan zion: "Beste behin ere -Heladeren aurkako espedizio honetara abiatu ginenean- entzun zenidan gizon horiei buruz, baina nire berbak entzutean, honi guztiari zein azken aurreikusten nion egiaz adieraztean, adarra jo zenidan. Izan ere, maiestate, zure aurrean egiari lotzea baita nire xede gorena. Entzun ezazu, bada, orain esatera noakizuna. Igarobidearen kontrolagatik gure aurka borrokatzeko dituzu hor gizon horiek, eta helburu horretarako paratzen ari dira. Izan ere, honako arau haxe dute horiek: beren bizia arriskatzera doazen bakoitzean, burua apaindu ohi dute. Eta jakin ezazu hau: gizon horiek eta Spartan geratu direnak menperatzea lortzen baduzu, ez da izango munduan beste herririk, maiestate, zure aurka jaikitzen ausartuko denik. Zeren, une honetan, Heladeko erreinu eta hiri loriatsuena eta gudari adoretuenak baitituzu aurrez aurre".

Xerxesek, jakina, zeharo sinesgaitz iritzi zion hark esandako guztiari, eta, berriro hitza hartuz, ea heleniarrek, hain soldadu

gutxi izanez, bere armadari aurre egiteko zein taktika erabil zezaketen galdetu zion. "Maiestate -erantzun zion Demaratok-, har nazazu gezurtizat, operaziook nik diodan bezala ez baldin badira garatzen".

210. Esandakook esan arren, ez zuen lortu Xerxes konbentzitzerik. Monarkak hiru egun utzi zituen pasatzen, lehenik, heleniarrek edozein momentutan alde egingo zutelakoan. Baina laugarren egunera, haiek hantxe jarraitzen zutenez erretiratu gabe beren posizioetan (neure iritzirako, harrokeria eta zuhurtzigabetasuna erakusten zuten horretan), biziki haserretu zen eta gudaroste mediar eta zisiarrak bidali zizkien erasora, haiek bizirik harrapatu eta bere aurrera ekartzeko aginduarekin. Alabaina, mediarrek heleniarren kontrako erasora jo zutenean, hildako ugari izan zituzten, nahiz eta hildakoen ordeztatu batzuk sartu eta berriro ekiten zioten, galera itzelak jasan arren. Horrekin argi utzi zuten denen aurrean, eta batik bat erregeren beraren aurrean, gizon asko zirela baina soldadu gutxi. Eta halaxe iraun zuen borrokaldi hark egun osoan zehar.

211. Halako ezbehar handia jasan ondoren, mediarrek borrokatik erretiratu egin ziren azkenean, eta haien ordeztatu persiarrak etorri ziren erasora, erregek "Hilezkorrak" esaten zienak, Hydarnes buru zutela, beraiek bai lortuko zutelakoan garaipena erraz-erraz. Alabaina, gudaroste berriok heleniarrekin borrokan ekitean, ez zuten lortu mediarrek baino emaitza hoberik, baizik eta zori bera jasan zuten, zeren, leku meharrean borrokatu behar zutenez eta heleniarrenak baino lantza laburragoak erabiliz, ezin baitzioten beren kopuru-nagusitasunari etekinik atera.

Lazedemondarrei dagokienez, adre goresgarritz borrokatu ziren eta, taktika ezberdinak erabiliz, oso ongi borrokatzen zekitela erakutsi zuten -etsaiek erakutsi ez zutena-. Adibidez, bizkar ematen zuten bakoitzean ihesi zihoazelakoa egiten zuten, baina lerroa hautsi gabe mantenduz, eta barbaroek, etsaia ihesean ikusiz, oihu eta zalaparta batean irteten ziren haien atzetik; baina halako batean, harrapatuta zeudela ematen zuenean, bueltatu eta barbaroei aurre egiten zieten, eta maniobra horrekin hainbat eta hainbat persiar botatzen zituzten. Spartarren euren artean ere izan ziren galera batzuk borrokaldian zehar. Azkenean persiarrak, dela lerro trinkoz dela beste hamaika modutara eraso egiten saiatu arren, mehakagune bat ere ezin zutenez eskuratu, beren posizioetara itzuli ziren.

212. Kontatzen dutenez, borrokaldi hartako aurkaketo ikusten zetzan erregek hiru bider egin omen zuen jauzi tronutik, bere tropen zoriaz aztoratuta. Halaxe burutu ziren borrokaldiok egun hartan.

Eta biharamunean ere barbaroek ez zuten lortu arrakasta hoberik. Etsaiak hain gutxi zirenez, asaltora oldartu zitzaizkien, zauriz sarraskituta eta jarki ahal izateko egoera txarrean egongo zirelakoan. Baina heleniarrak sailka eta nazioka lerrokatuak zeuden eta bakoitzak bere postuan jardun zuen borrokan, phozearrek izan ezik -hauek mendietan jarri baitzituzten bidea zaintzen-. Horrela, bezperako egoera beraren aurrean aurkitzen zirela ikusiz, persiarrak atzera egin zuten.

213. Arazo haren aurrean zer egin ez zekiela aurkitzen zelarik monarka, Melideko bat, Epialtes Eurydemorena, aurkeztu zitzaion eta, Xerxesengandik sari mardulen bat lortuko zutelakoan edo, mendian zehar Thermopyletaraino doan bidezidorraren berri eman zion, eta berau zaintzen zeuden heleniarren hondamena eragin horrela.

Gerorantz, Epialtesek Thesaliara egin zuen ihes lazedemondarren beldurrez, baina, erbesterratu zen arren ere, Pylagorok, Anfiktioniako kideek Thermopyletan egindako batzar batean, haren buruari prezioa jarri zioten. Geroago Antizyrara itzuli zen eta Trakisko batek, Athenadesek, erahil zuen azkenean beste arrazoi bategatik (azalduko dut arrazoi hori hurrengo kapituluren batean), baina, hala ere, lazedemondarrek ez zuten saririk gabe utzi hiltzailea.

214. Horrelaxe hil zen Epialtes, azkenean, aipagai ditugun gertakarion ondoren; baina bada, halere, beste bertsio bat, nahikoa zabal dabilena hau ere, zeinen arabera Karystoko Onetes Phanagorasena eta Antizyrako Korydalo ziratekeen erregeri informazio hura eman eta persiarrei mendia inguratu ahal izatea ahalbidetu ziena. Hala ere, neure iritzirako, bertsio horrek ez du merezi inolako sinesgarritasunik. Lehenik eta behin, kontuan hartzekoa delako Pylagorok ez zietela jarri prezioa Heladen Onetes eta Korydaloren buruei, baizik Trakisko Epialtesenari, eta haiek xehetasun osoz informatuta zeudekeen, zalantzarik gabe. Bestalde, badakigu Epialtesek, salaketa zela-eta, ihes egin zuela.

Egia da Onetesek, jatorriz Melidekoa ez izan arren, ezagut zezakeela zidor hura, inguru hartatik sarritan ibilia baldin bazen, baina, Epialtes izan zenez mendia inguratzen duen zidor hartatik persiarrak gidatu zituen, berari egozten diot erantzukizuna.

215. Xerxes zeharo poztu zuen Epialtesek hura egiteko konpromezua hartzeak; eta, pozik baino pozago, denborarik galdu gabe abiatzeko agindu zion Hydarnesi, beronen agindupeko gizonekin batera; eta, zuziak irazekitzen diren orduan, kanpamendutik abiatuak ziren.

Izatez, zidor hura bertako melidetarrek aurkitu zuten eta haiek thesaliarrei jakinarazi, thesaliarrok phozearrei eraso ziezaieten, azken hauek, mehaka murru batez itxi ondoren, gerratik salbu aurkitzen ziren garaian; baina, harrezkero, zidor horrek ez zuen izan inolako garrantzirik melidetarrentzat.

216. Hona hemen aipagai dudan zidor horren topografia: Asopo ibaiak mendizerra mehakan barna zeharkatzen duen lekutik abiatzen da (hala mendi hark nola zidorrak berak ere Anopea izena hartzen dute). Anopea zidorra mendibizkarretik doa eta Alpenos parean amaitzen da -Melideko mugatik hurbilen dagoen Lokrideko lehen hiria-, Melampygoren harkaitzetik eta Zerkopeen¹⁴⁸ egoitzetatik hurbil, hementxe duelarik, hain zuzen ere, mehargunerik estuena.

217. Halakoxe topografia duen zidor horri jarraitu zioten persiarrek, Asopo zeharkatu ondoren, gau osoan zehar, eskuinetara Eta mendizerra eta ezkerretara Trakisko mendikatea zutela; eta, eguna argitzear zela, gailurrera iritsi ziren. Lehen esan bezala, hegi horretan zeuden goardian mila hoplita phozear, zidor hura beren aberriaren defentsan jagoten; ezen mendi barreneko mehaka lehen aipatu ditudanek zaintzen baitzuten, phozear hauek mendia zeharkatzen duen zidorra jagoteko ardura hartu zuten bitartean, beren borondatez, Leonidasen aurrean.

218. Phozearrak konturatu ziren, azkenean, etsaia mendi gainean zela; izan ere, baso osoa artadiz estalita egonik, ez ziren ohartu persiarrak mendian gora zetozenik. Baina, haizea bare zegoenez, soldaduek zarata handia ateratzen zuten zoruan barreiatutako hostotza zapaltzean, eta, horri esker ohartaraziz, phozearrak jalgi eta armak jantzi zituzten barbaroak aurkeztzen ziren une berean. Persiarrak nahasita gelditu ziren armak ipintzen ari ziren soldadu haiek ikustean, bidean oztoporik aurkitzerik espero ez eta gudaroste armatu batekin egin baitzuten topo.

Orduan Hydarnesek, phozear haiek lazedemondarrak ote ziren beldurrez, ea gudarosteok zein naziotakoak ziren galdetu zion Epialtesi, eta, horren berri zehatza jaso ondoren, borroka-lerroan jarri zituen persiarrak. Eta phozearrek, erasotzaileek jaurtikitzen zituzten gezi erauntsi haien aurrean, mendigailurrerantz egin zuten ihes eta, eraso hura beren-beregi euren kontra zihoalakoan, hantxe hiltzera prestatu ziren. Horixe baitzen, izan ere, phozearrek uste zutena. Halere, Epialtes eta Hydarnesekin zihoazen persiarrak ez zituzten phozearrok aintzakotzat ere hartu eta mendian behera abiatu ziren abiada bizian.

219. Thermopyletan ziren heleniarrei Megistias igarleak auresan zien, beste inork baino lehen -halaxe ikusi baitzuen oparigaien erraietan-, egunsentian gertatuko zitzaiela heriotza;

geroxeago, zenbait desertorek ere jakinarazi zien persiarren maniobra inguratzaila. Horiek oraindik gaua zela etorri zitzaizkien berriarekin, eta, azkenez, zaindariak iritsi ziren mendian behera arrapaladan, eguna argitzen zegoela.

Heleniarrek orduan, egoera aztertu ondoren, iritzi desberdinak azaldu zituzten: batzuk ez zeuden posizio hura uztera, eta beste batzuk, ordea, iritzi horren kontrakoak ziren. Azkenean, gudaroste heleniarrak banandu egin ziren eta, batzuek handik alde egin eta bakoitza bere herrirantz barreiatzen ziren bitartean, besteak Leonidasekin bertan gelditzeko prest azaldu ziren.

220. Badiote, baita ere, Leonidasek berak bidali zituela haiek etxera, bizia gal ez zezaten arduraz; baina berari, ordea, eta berekin ziren spartarrei, ohoreak ez zien baimentzen beren-beregi defendatzera joan ziren posizio hura uztea. Eta nik neuk ere bertsio horrixe ematen diot fede, beste ezeini baino gehiago; hots, Leonidasek aliatuengan etsipena eta lazedemondarrekin batera arriskuari aurre egiteko gogorik eza hauteman zituenean, erretiratzeko agindua eman zien, laidogarri iritziz, ordea, berak alde egiteari; gainera, bere postuan tinko eutsiz, ospe loriatsua erdietsiko zuen beretzat, eta Spartaren oparotasuna ez zen gainbehera etorriko.

Izan ere, gerra hura hasi bezain laster spartarrek hari buruz egindako kontsulta bati erantzunez, Pythiaren ahotik honako erantzun hau jaso zuten, hots, edo barbaroek Lazedemon suntsitu edo berauen erregea hil egingo zela. Erantzun hori ondoko bertso hexametro hauetan eman zuen:

Entzun, Sparta zabaleko bizilagunak,
daitekeena da zuen hiri handi eta ahaltsua Perseoren
ondorengoek suntsitzea edo ez,
baina, suntsitua ez izatekotan,
Lazedemongo lurraldeak Heraklesen leinuko errege baten
heriotza deitoratu behar.

Inbaditzailea ez baitu geldiaraziko zezen edo lehoien indarrak,
Zeusen indarra dauka eta berak.

Ez dela geldituko diotsuet, beraz,
alderik alde sarraskitu arte bietariko bat.

Leonidasek, bada, orakulu horren hitzak gogora ekarriz eta loria spartarrena soil-soilik zedin, aliatuei alde egiteko baimena eman ziela uste dut nik neuk, eta ez, ordea, iritzi kontrajarriengatik eta tamainako indisziplinaz erretiratu zirenik.

221. Bada horren froga bat, gainera, nire iritzirako behintzat nahikoa erabakiorra. Hara zein: ezagun da Leonidasek espedizio hartan beraiekin zen Akarnaniako Megistias igarleari ere -Melamporen ondorengoa omen zena eta, oparigaien erraiak aztertu ondoren, zein zori izango zuten iragarri ziena- alde egiteko eskatu ziola, beraiekin batera hil ez zedin. Hala eta guzti ere, hark, alde egiteko baimena ukan arren, berak ez zituela bertan behera utziko erantzun zien, nahiz eta espedizionarioen artean zen bere seme bakarrari alde egiteko eskatu zion.

222. Alde egitera baimenduriko aliatuek, bada, etxerako bidea hartu zuten Leonidasen aginduei jarraikiz, thespiar eta thebastarrak izan zirelarik lazedemonдарren ondoan geratu ziren bakarrak. Bi gudarosteotatik bata, thebastarrak alegia, derrigorrez geratu ziren (hau da, beren borondarearen kontra), Leonidasek bahi gisan zeuzkalako ondoan; thespiarrak, oster, askatasun osoz geratu ziren, hau da, ez zuten gura izan Leonidas eta bere gizonak bertan behera utzi eta erretiratzerik eta, ondorioz, beren postuan iraun zuten spartarrekin batera hil arte. Demophilo Diadromesena zen, hain zuzen ere, berauen jenerala.

223. Bitartean, Xerxesek, eguzkia irteteen libazioak egin ondoren eta agora jendez bete ohi den ordu ingururarte itxaron eta gero, erasoari ekin zion azkenean; hain zuzen ere halaxe jardutea aholkatu baitzion Epialtesek, menditik jaisteko denbora gutxiago behar zutelako eta, gorantzean egindako itzulinguruaren aldean, beherantzko bidea laburragoa zelako.

Beraz, Xerxesen barbaroak asaltora oldartu ziren, eta Leonidasen heleniarrak une hartan, heriotzara zihoazela jakinik, lehen borrokaldietan baino askoz ausartago irten ziren mehakaren zabalgunera. Ezen aurreko egunetan, posizioa babesten zuen murrua defendatzea zenez helburua, irteera laburtxoak egin eta gunee meharrenetan borrokatzera mugatzen baitziren. Baina oraingo honetan igarobidetik kanpo borrokatu zuten eta barbaroen artean hildako ugari eragin; izan ere, konpainien atzean kokaturiko ofizialek zartailu kolpez bultzatzen baitzuten mundu guztia, etengabe aurrerantz jarraiaraziz beren soldaduei. Hortik soldadu ugari itsasora erori eta bertan itotzea, eta askoz gehiago oraindik beren lagunek bizirik zapalduta hiltzea; baina inork ere ez zeukan hiltzen zenaren ardurarik. Heleniarrak, berriz, bazekitenez persiarrek menditik egindako maniobra inguratzaile haren kariaz hil beharra zutena, geratzen zitzaizkien indar guztiak hustu zituzten barbaroen aurka, oldar benetan ozarrez.

224. Eta haietariko gehienek jada lantzak hautsita zituztenean, beren ezpatekin jarraitu zuten persiarrak hiltzen. Haiek egitandi horretan zihardutela erori zen Leonidas, heroi gisan ihardun ondoren, baita beste spartar entzutetsu batzuk ere berarekin batera, eta nik lortu dut haien izenak jakitea, pertsonaia gogoangarriak baitira, eta lortu dut, halaber, hirurehun izenak jakitea ere¹⁴⁹.

Hantxe galdu zuten bizia, baita, izen handiko persiar askok ere, hauen artean Darioren semeetariko bik, Abrokomesek eta Hyperanthesek, monarkak Artanesen alabarekin, Phratagunekin, izan zituenak. Artanes hori Darioren anaia eta Hystaspesen seme eta Arsamesen iloba zen; eta Dariori bere alaba eman zionean ezkontzan, zeukan ondare osoa eman zion halaber, neska huraxe baitzen bere oinordeko bakarra.

225. Beraz, hantxe erori ziren, borrokan, Xerxesen bi anaiok. Leonidasen gorpuari dagokionez, lehia amorratua izan zen persiarren eta lazedemondarren artean, harik eta heleniarrek, beren adoreari esker, gorpua eskuratu zuten arte, lau biderrez atzera egitera behartuz etsaia.

Borrokaldiaren fase honek Epialtesekin zetozen persiarrak aurkeztu arte iraun zuen. Zeren heleniarrak gudarosteon etorreraz ohartu zirenean, goitik behera aldatu zen borrokaren traza: heleniarrak atzerantz jo zuten, igarobideko leku meharragorantz, eta, murruren beste aldera iraganez, muinoaren gainaldean kokatzera joan ziren guztiak batera, thebastarrak izan ezik. Muinoa mehakaren sarreran bertan dago, gaur egun marmorezko lehoia Leonidasen omenez eraikita dagoen lekuan. Leku hartantxe jarraitu zuten beren buruak dagaz defendatzen, oraindik daga eskuan edukitzeko zortea zutenek, hala nola eskuez eta hortzez ere, harik eta barbaroek, heleniarren posizioa babesten zuen murrua eraitsi ondoren atzetik jazarri eta orain aurrez zetozkielarik batzuk, eta maniobra inguratzailea eginez alde guztietatik oldartzen zitzaizkielarik beste batzuk, gezi erauntsi zarratu baten azpian estali zituzten arte.

226. Lazedemondarrak eta thespiarrek oro horrela portatu baziren ere, gudaririk gailenena, diotenez, Dienezes spartarra izan omen zen. Gizon horrek honako ahapaldia bota omen zuen heleniarrak mediarrekin borrokan sartu aurretixe: barbaroek beren uztaietz jaurtikitako gezien kopuru horren handiaz eguzkia estaltzen zutela entzun zionean esaten trakistar bati, berak, horregatik ikararik egin gabe eta mediarren potentzial izugarriari inolako garrantzirik eman gabe, zera erantzun omen zuen ziplo: trakistar adiskideak zerkakien berria zeharo ona zela, zeren mediarrek eguzkia estaltzen baldin bazuten, etsaiarekin gerizpetan borrokatuko zirela behintzat, eta ez eguzki galdatan. Ahapaldi

hori eta tenore horretako beste zenbait utzi zituen Dienezesek, kontatzen dutenez, bere nortasunaren adierazgarri.

227. Haren ondoren gehien nabarmendu zirenak Alpheo eta Maron anaia lazedemondarrak, Orsiphantoren semeak, izan omen ziren. Eta thespiarren artean ospe handiena lortu zuena Dithyrambo izeneko bat izan zen, Harmatidesen semea.

228. Heleniarrak, erori ziren lekuan bertan lurperatuak izan ziren, Leonidasek erretiratzeko baimena eman aurretik hil zirenak bezalaxe, eta honako inskripzio hau dago zizelaturik haien hilobien gainean:

Hementxe borrokatu ziren behinola hiru milioiren aurka

Peloponesotik etorritako lau mila gizon.

Inskripzio hori eroritako guztiei dagokiena da, beste hauxe delarik spartarrei bereziki dagokiena:

Esan, bidaztiok, lazedemondarrei

haieneko manamenduak zintzo betetzearren

gautzala hemen.

Hori lazedemondarrei dagokiena, eta beste hau, berriz, igarleari dagokiona:

Hona hemen Megistias ospetsuaren hilobia,

mediarrek Sperkheo ibaia zeharkatu eta hil zutena behinola;

igarlea hura, une hartan Kereak¹⁵⁰ zelatan zeudela jakin
[arren,

Spartako buruzagia bertan behera utzi nahi izan ez zuena.

Erorien omenezko epitafioak eta estelak -igarlearen omenezko epitafioa salbu- Anfiktioniakoen kontura eraiki ziren, Megistias igarlearena, berriz, Simonides Leoprepesenak bere kontura zizelatu zuen, harekin zituen abegi-lokarriengatik.

229. Kontatzen dutenez, hirurehun spartarretatik bi, Euryto eta Aristodemo -horretarako biak ados jarri balira-, salba zitezkeen biak batera Spartara itzuliz (izan ere, begietako gaixotasun larri batez Alpenosen aurkitzen zirelarik, Leonidasek kanpamendua uzteko baimena eman baitzien), ala -aberrira itzultzerik nahi ez izatekotan- beren burkideekin batera hil. Bi gizonok, beraz, erabaki bata ala bestea har zezaketen, baina ez ziren ez bata ez besterako ados jarri; aitzitik, haien erabakia zeharo desberdina izan zen: Eurytok, persiarren maniobra inguratzailearen berri jakitean, bere armak eskatu eta jantzi eta bere hilotari guduzelaira eramane zezala eskatu zion bitartean (honek, Euryto hara eramane ondoren, ihes egin zuen, baina Euryto bera borrokara oldartu eta bizia galdu zuen), Aristodemo, ordean, beldurtu egin zen eta zegoen lekuan geratu.

Hortaz, neure iritzirako, Aristodemo hura bere gaixotasunagatik Spartara itzuli balitz bera bakarrik, edota biak batera itzuli balira, spartarrek ez zieketen inolako haserterik egingo. Baina orain, bietariko bat hil egin zenez, eta besteak -nahiz eta egoera berean aurkitu- bizia galtzerik nahi izan ez zuenez, spartarrak biziki haserretu zitzaizkion Aristodemori.

230. Zeren, batzuen ustez, Aristodemo gaixotasun hura aitzakiatzat hartuz salbatu baitzen Spartara itzuliz. Beste batzuen ustez, aldiz, mezu bat kanpamendutik kanpora eramateko agindua eman ei zioten eta, une hartan burutzen zegoen borrokaldian esku hartzeko aukera izan arren, parte hartu gura ez eta bidean denbora ematen ibili omen zen bizia salbatzearren, bere laguna borrokaldira garaiz iritsi eta bizia galtzen zuen bitartean.

231. Lazedemonera itzultzean, Aristodemok desondra eta mesprezua jaso zituen. Hara zelako erdeinuak jasan behar izan zituen: spartarrak batek ere ez zion ematen sua, ezta hitzik zuzentzen ere, eta Aristodemo "Dardarti" gaitzizena ezarri zioten iraingarritzat. Hala ere, Plateako borrokaldian erabat garbitu zuen egozten zioten hutsa.

232. Kontatzen dutenez, beste spartar bat ere izan zen hirurehuneko gudaroste hartan, Pantites izenekoa, Thesaliara mezu bat eramateko mandatua hartu eta bizirik gelditu zena.

Baina Spartara itzultakoan jasan behar izan zituen mesprezuen aurrean, bere burua urkatu zuen.

233. Leontiades buru zuten thebasterrei dagokienez, heleniarren artean lerroturik egon ziren bitartean bai borrokatu zirela -nahiz eta praktikan derrigorrez ihardun- erregeren gudarosteen aurka; baina egoerak garbiro persiarren aldeko jitea hartzen zuela hauteman zutenean, orduan haiek, Leonidasekin egondako heleniarrak muinorantz arin-arinka atzera egiten zuten une huraxe aprobetxatuz, hauengandik banandu eta barbaroengana jo zuten eskuak luzatuz eta egia hutsa zena oihukatuz, hots, mediarren aldekoak zirela, erregeri lurra eta ura eman zioten lehenengoak zirela, Thermopyletara derrigortuta etorri behar izan zutela eta beraiek ez zirela monarkak jasandako ezbeharraren errudun. Azalpen horiei esker salbatu ahal izan ziren, hantxe zeudelako thesaliarrak ere haiek zioten guztiaren lekuko. Hala ere ez zitzaien den-dena ondo atera, ezta gutxiagorik ere: etsaiengana pasatzean barbaroen esku geratu zirenean, hauek hil egin zituzten zenbaitzuk, berenganantz hurbildu ahala, eta errege-estigmez markatu zituzten gehienak Xerxesen aginduz, Leontiades jenerala bera aurrenen. Leontidas horrexen semea izan zen -Eurymakho- handik gerora platearrek erahil zutena, laurehun thebastarren buruan Plateako gotorlekuaz jabetu zenean.

234. Halaxe borrokatu ziren, bada, heleniarrak Thermopyletan. Orduan Xerxesek Demarato deitarazi eta honako galdera hau egin zion lehenbizi: "Demarato, gizon ona eta zintzoa zara. Ikustea baino ez dago gertaturiko guztia zeuk esan bezalaxe gertatu dela. Esaidazu orain, bada, zenbat lazedemonдар geratzen diren eta, geratzen direnen artean, zenbatek duten hor eroritakoen prestaera militarra, ala denak ote diren horiek bezalakoak".

"Maiestate -erantzun zion Demaratok-, lazedemonдарren kopurua nahiko hazia da guztira, baita haien hiri-kopurua ere; baina orain jakin gura duzuna esatera noakizu. Lazedemonen bada hiri bat -Sparta- zortzi mila gizon inguru dituen, eta

denok dira hemen borrokatu diren bezalakoak. Gainerako lazedemondarrei dagokienez, ez dira horiekin konparatzekoak, noski, baina kementsuak dira haiek ere".

"Baina Demarato -ihardetsi zion Xerxesek erantzun hura entzun ondoren-, zein eratara lor dezakegu gizon horiei ahalik errazen gaintitza? Tira, esaidazu! Izan ere zuk, haien errege izan zinen horrek, derrigor ezagutu behar dituzu euren egitasmoen ildo nagusiak".

235. Orduan haxe erantzun zion Demaratok: "Maiestate, horren interes handiaz eskatzen didazunez iritzia, bidezko deritzot estrategia egokiena zuri jakinarazteari: hara, zure itsas armadako hirurehun unti bidali beharko zenuke Lakoniaren kontra. Bada hango kostatik hurbil uharte bat, Zythera izenekoa, zeini buruz Khilonek -gure herrian izan den pertsonaiarik jakintsuenetako bat- zera esan baitzuen: hobe litzatekeela spartarentzat uharte hori ur azpian balego eta ez gainean, ezen beti izan baitzen beldur orain adieraziko dizudan gisako operazio bat burutzeko balia zitezen uharte hartaz (ez, jakina, zure espedizio hau aurreikusi zuelako, baizik eta etsaien edozein espediziori zion beldurragatik, etsaia dena delakoa izan). Bada, uharte hori operazio-basetzat hartuz, zure indarrek lazedemondarrak kezkaraztea daukate. Zeren orduan, lazedemondarrak beren aberria mehatxatzen duen gerrarekin aurkitzean beren lurraldearen aurrean, zuk ez duzu izan beharko, zeure lehor-indarrekin gainerako Helade konkistatzen duzunean, haiek inor sorostera etor daitezen beldur. Eta, behin gainerako Helade menperatu eta gero, Lakonia bakar-bakarrik eta gerran jarraitzeko indarge geldituko da. Aldiz, esan dizudan hori ez baduzu egiten, hurrengo honekin aurkituko zara: Peloponeson isthmo mehar bat da; bada, peloponesoak guztiak zure kontra bat egiten direnean, presta zaitezke leku hartan borrokaldi berriei, orain burututakoak baino askoz gogorragoei, aurre egiteko. Ostera, esan dizudana egiten baduzu, bai istmo hura, baita hiriak ere, borrokan jardun beharrik gabe errendatuko zaizkizu".

236. Jarraian, Xerxesen anaia eta itsas armadaren buru zen Akhemenesek hartu zuen hitza; hau, izan ere, aurreko solasaren lekuko izan baitzen eta, Xerxes aholku hura jarraitzea konbentzituko ote zuten beldurrez, zera esan zuen: "Maiestate, dakusadanez, zure garaipenen bekaitza duen gizon baten iradokizunei jartzen diezu arreta, edo zeure interesei traizio egin liezakeenari agian, zeren heleniarrei jarrera horixe baitagokie: inoren arrakastari inbidia eta gailentzen denari gorroto izatea. Jasan ditugun ezbeharrengatik laurehun unti hondoratzeaz gain, beste hirurehun kentzen badizkiozu untzidiari Peloponesoko kostalderantz bidaltzeko, gure etsaiak aurre egiteko egoeran izango dituzu. Ordea, itsas armada bilduta mantenduz gero, haiei oso zail izango zaie erasotzea eta ez dira aurkituko, ez horixe, zuri aurre egiteko egoeran; gainera, elkar hartuta aurrera eginez gero, untziteria osoak armadari lagundu ahal izango dio eta armadak untziteriari; alabaina, zure indarrak banantzen badituzu, zuk ezingo diozu lagundu itsas armada horri, ezta itsas armadak ere zure lehor-armadari. Jar iezaiozu arreta, bada -haxe nire aholkua-, zeure planei, eta etzazu horrenbeste kezkarik etsaien egoeraz, hau da, zein lekutan erasotzeko asmoa duten, zein estrategia erabiliko duten edota zenbat soldadu ote duten. Haiek oso gai baitira beren arazoez beraien kabuz arduratzeko, gu ere geurez arduratzeko gai garenez. Bestalde, lazedemondarrak persiarrei guduzelaian aurre egitera irteten bazaizkie, ez dute lortuko oraingo ausiabantza baino gauza hoberik".

237. Xerxesek, berriz, berba hauekin ihardetsi zion: "Akhemenes, arrazoi duala uste diat eta heuk esan bezala egingo diat. Baina, hire aburua harenari nagusitu bazaiok ere, Demaratok bere aburuz niretzako onena dena adierazi baizik ez dik egiten. Dena den, ezin onar dezaket inola ere hark nire interesen alde ez diharduelakoa, aditza besterik ez baitago berak orain arte azaldutako iritzia, hala nola errealitatean gertatu ohi dena: hots, baliteke batek bere herikidearen garaitzei inbidia izatea eta bere etsaigo hori isiltasunaren bidez adieraztea; are gehiago, herikideak iritzia eskatuko balio, hark ez lioke emanen egokiena zeritzokeen aholkua

(zuzentasunaren erpina erdietsia ez badu behintzat, eta hori gutxi batzuek baino ez dute erdietsi). Ostera, lagun bati oso begiko zaizkio berarekin abegi-lokarriak dituenaren arrakastak, eta, azken honek iritzia eskatzen badio, deritzon aholkurik onena emango dio. Beraz, zera agintzen dut: aurrerantzean ez dezala inortxok ere kalumniatu arrotz adiskide dudan Demarato hau".

238. Hori esanik, Xerxes gorpuen artetik igaro zen eta, Leonidas lazedemondarren errege eta buruzagia erakutsi ziotelarik, hura lepamoztu eta burua paldoan tinkatzeko agindua eman zuen. Niretzat argi dago, beste froga askoren artean honexegatik batik bat, gizakume guztien artean Leonidas izan zela bizirik zegoenean errege gehien sumindu zuena, bestela honek ez zukeen aginduko inondik ere haren gorpua modu horretara laidotzea, izan ere persiarrak baitira, nik dakidanez behintzat, soldadu adoretsuak gehien ohoratu ohi dituztenak. Agindu hura hartu zutenek, jakina, beren egitekoa bete egin zuten.

239. Nire historiaren harian zertzelada bat esan gabe utzi dudan puntura itzuliko naiz orain.

Lazedemondarrek jakin zuten, beste ezeinek baino lehen, erregek Heladeri eraso egiteko asmoa zeukala, eta hortik aholku- eskatzaileak Delphosera bidaltzea eta lehenxeago aipatu dudan iragarpena jasotzea bertan; eta jakin ere, era bitxi batez jakin ahal izan zuten guztia. Izan ere, Demaratok, Aristonek semeak, mediarrenean erbesteratua izanik, ez zituen begiko izango lazedemondarrak -hala uste dut nik behintzat, eta logikak ere nire uste hori berresten du-, eta jakiteko dago egin zuen hura begikotasunez ala asmo eztenkariz egin ote zuen.

Dena den, Xerxesek Heladeren kontrako espedizioa burutzea erabaki zuenean, Demaratok, une hartan Susan egonik asmo haren berri izan zuelarik, lazedemondarrak jakinaren gainean jartzea nahi izan zuen. Baina edonola ezin zenez jakinarazi - harrapatu egin zezaketen eta-, honako ideia hau bururatu zitzaion: orri bikoizdun tauleta bat hartu eta argizaria karraskatu ondoren,

monarkaren planak idatzi zituen tauletaren zurezko azalera; gero, tauletaren gainera argizari urtua berriro isuriz, bere mezua estali zuen, tauleta hura zuriz zeramanak inolako oztoporik aurki ez zezan bideko goarnizioen aldetik. Tauleta azkenean Lazedemonera heldu zenean, lazedemondarrek ez zekiten zer pentsa hartaz, harik eta azkenean -halaxe esan didate niri- Kleomenesen alaba eta Leonidasen emazte zen Gorgok bere kabuz asmatu zuen arte trikimailua, eta argizaria karraska zezatela iradoki zien, hantxe aurkituko zutela-eta mezua oholean idatzita. Gorgok ziotsena egin zuten eta, mezua desestali eta irakurri ondoren, gainerako heleniarrei jakinarazi zieten edukia. Halaxe gertatu ziren, bada, kontatzen dutenez, gertakariok.

VIII. LIBURUA

1. Hona hemen, bada, itsas armada osatzen zuten heleniarrak: lehenengo eta behin athenastarrak, ehun eta hogeita zazpi untxi zekartzatela; platearrak ere untxi athenastar horietan zihoazen, adoretu eta gartsu, itsasgizon trebeak ez izan arren. Korinthoarren, beren aldetik, berrogei untxi zekartzaten, eta megararren hogeia. Khalzistarrek ere hogeia untxi hornitu zituzten (untxiak eurak athenastarrek eman zizkieten); eginarren hamazortzi, sizyondarren hamabi, lazedemonarren hamar, epidauroarren zortzi, eretriarren zazpi, trezendarrek bost, styarren bi, eta zeotarren bi triere eta bi pentekontere. Gainera, lokro opuntetarrak ere bildu zitzaizkien zazpi pentekonterekin.

2. Horiexek ziren, beraz, Artemision zeuden gerrauntxiak (goian azaldu dut bakoitzak zekarren untxi-kopurua), han bilduriko untxiak guztira, pentekontereak aparte, berrehun eta hirurogeita hamaika izanik. Bestalde, spartarren ipini zuten aginte goreneko jenerala, Eurybiades, Euryklidesen semea; izan ere, lakoniarrek agintaritza hartu ezean, athenastarren agindupean ez zirela jarriko eta prestatzen ari ziren espedizio hartan ez zutela parterik hartuko adierazi baitzuten aliatuek.

3. Izatez, hasiera batean, laguntza militarren eske Siziliara mandatariak bidali baino lehenago ere, flotaren zuzendaritza athenastarren esku uztea komeniko zela aipatu zen. Baina, aliatuak horrekin konforme ez zeudela ikusirik, athenastarrek amore eman zuten, hauen xede nagusia Helade salbatzea zelako, eta agintaritzaz liskarra sortzeak Heladeren hondamendia ekarriko zuela uste zutelako, eta arrazoiz uste ere; zeren barne-liskarra, izan, xede komuneko gerra baino okerrago baita, gerra bera bakea baino okerrago den bezala.

Uste horretan irmo, bada, ez ziren aurka jarri, baizik eta amore eman zuten, baina aliatuen ezinbesteko beharra zuten bitartean soilik, gerora argi geratu zenez; izan ere, Persiarrari atzera eragin ondoren, ordudanik beren dominioen kontrolerako borrokara igaro zirenean, nagusigo hori kendu egin zieten lazedemonarrei, Pausaniasen gehiegikeriak aitzakiatzat jarritz. Baina hori geroago gertatu zen.

4. Orain, ordea, Artemisiora une hartan iritsiak ziren heleniarrak Afetasen hainbat gerrauntxi bildurik eta soldadu ugari nonahi ikusi zituztenean, izutu egin ziren (orduan zekusatenaz oso bestelakoa uste baitzuten barbaroen egoera) eta Artemisiotik Helade barnerantz ihes egitea pentsatu zuten. Orduan, eubearrek, haien asmoen berri izatean, une batez bederen gera zitezela erregutu zioten Eurybiadesi, beren haurrak eta senideak handik atera arte behintzat. Baina ez zutenez lortzen hura konbentzitzerik, Themistoklesengana jo zuten, athenastarren jeneralarengana, eta bertan geratzera eta itsas borroka Eubeako iparraldean egitera konbentzitu zuten hogeita hamar talenturen truke.

5. Eta hara nola lortu zuen Themistoklesek heleniarrak han gelditzea: diru-kopuru hartatik Eurybiadesi bost talentu eman zizkion, bere poltsikotik ematen zizkiolakoan. Eurybiades era horretan limurtu ondoren, Adimanto jeneral korinthoarra (Ozytoren semea) zenez amore ematera ez zegoen estrategoa bakarra, bera Artemisiotik bazihoala eta ez zeukala han geratzeko asmorik esanez, Themistoklesek haxe esan zion, orduan, zin eginez: "Zuk ez gaituzu

alabaina utziko, zeren aliatuengandik alde egitearren mediarren erregek berak bidal ziezazkizukeen baino opari gehiago emanen baitizkizut nik neronek". Eta berbok ziotsozelarik, zilarrezko hiru talentu ekartzeko agindu zuen Adimantoren untzira. Biak konbentzitu ziren, beraz, opari haiez limurturik, eta eubearrak ere pozik geratu ziren, baina Themistoklesek berak irabazi zuen gehien, beronek poltsikoratu zuelako gainerako diru guztia, horretaz inor ohartu gabe; are gehiago, diru horren zati bat jaso zutenek xede horrekin Athenastik bidalitakotzat hartu zuten.

6. Beraz, halaxe gertatu zen heleniarrak Eubea geratu eta itsas borrokari heltzea, eta hona hemen nola burutu zen borrokaldi hura: arratsaldeko lehen orduetan Aphetasera iritsi ondoren, barbaroak, Artemiso inguruan heleniar untzi-kopuru txiki bat zain zegoela jakinean alde zurratik eta untziok begibistan zituztela une horretan, eraso egin eta untzi horiek harrapatzen saiatzeko irrikitan zeuden. Baina une hartan ez zela komeni uste zuten untziok aurrez aurre aborjatzerik, heleniarrak hura ikustean ihesari eman eta gauaren babesera erretiratzea lortuko zutelakoan; eta azken batean ihes egitea lortuko zutelakoan horrela, su-eramaileak berak ere ez zukeenean ihesik egin behar, haien esanetan.

7. Horregatik, ondoko neurri hauek hartu zituzten xede horrekin: untziteria guztitik berrehun untzi hautatu zituzten eta, Kaphereoren kostaldetik zehar Geresto gainditzen etsaiek ikus ez zitzaten, Euriporanzko norabidean Sziatho iparretik iragatera bidali zituzten, Eubea inguratuz, era horretan heleniarrak erdian harrapatzeko asmoz: bide horretatik zetozen untziek erretirada eragozten zieten bitartean, gainerakoek aurrez eraso egin eta jazarriko zituzten. Plan hori erabaki ondoren, zeregin horretarako untziak itsasorarazi zituzten soilik, zeren gainerako flotak ez baitzuen heleniarrei eraso egiteko asmorik egun horretan ez hurrengoan,

harik eta untzi inguratzailleak etorrera seinalea ematera iritsi arteino. Beraz, untziok Eubea inguratzera bidali zituzten eta gainerako untziteria zenbatzeari ekin zioten Aphetasen.

8. Orain, bada, persiarrek untziak zenbatzen ziharduten bitartean, Szylis Szionekoa zegoen kanpamenduan, munduko urpekaririk onena orduan (gizon honek, Pelio parean gertatu zen hondoratze haren ostean, altxor ugari atereak zituen persiarrentzat, nahiz eta berarentzat ere beste hainbestez jabetu) eta, antza denez, heleniarrengana pasatzeko asmoa zuen aspalditik, baina ordurarte ez zuen izan horretarako aukerarik. Nik ez dakit zehazki esaten zelan lortu zuen azkenean hark heleniarren aldera iristea, baina kontatzen dutena egia ote daitekeen zalantzak ditut nik, zeren, diotenez, Aphetasen urperatu eta Artemisiora iritsi arte ez baitzen urgaineratu, batetik bestera dagoen tarte, laurogei estadio gutxi gorabehera, urpetik zeharkatu ondoren. Gizon honi buruzko beste balentria batzuk ere kontatu ohi dira gezurrezkoak diruditenak, eta beste zenbait egiazkoak direnak; baina pasadizo honi buruz zera esan behar dut, nire iritziz Szylis txalupa batean iritsi zela Artemisiora. Eta hona etorri bezain laster, untzi hondatzearena eta Eubea inguratzera bidalitako untziena jakinarazi zien estrategoei.

9. Adierazpen horiek entzunik, heleniarrak elkarrekin eztabaidatzera bildu ziren. Hitzartze ugari izan zen, baina iritzi hauxe nagusitu zen azkenean, hots, egun hartan ainguratuta zeuden lekuan bertan geldituko zirela eta jarraian, gauerdia ondoren, uhartea inguratuz zetozkien untziei aurre egitera itsasoratuko zirela. Hala ere, inor ez zitzaenez hurreratzen erasora, arratsalde erdira

arte itxaron eta barbaroei eraso egitera irten ziren, hauen borrokatzeko eta untziartetik maniobratzeko modua neurtzearren.

10. Hain untzi gutxirekin erasora zetozkiela ikustean, heleniarrok burutik eginda zeudela pentsatu bide zuten Xerxesen soldaduek eta jeneralek eurek ere, eta berauen untziak ere itsaso zabalera atera zituzten, erraz-erraz garaituko zituztela uste izanik, eta uste zeharo logikoa, ezen untzi heleniarrak horren gutxi zirela baitzekusaten eta berenak, ostera, askoz gehiago eta nabigatzeko azkarragoak. Uste horretan, bada, zirkulu bat osatu eta haiek inguratzen saiatu ziren.

Hortaz, heleniarrenganako begikotasuna zuten espedizio persiarreko joniar guztiek nahigabe handia sentitzen zuten haiengatik, horrela inguratuak izateko puntuan ikustean eta batek berak ere ez zuelakoan lortuko handik itzultzerik, hain larria iruditzen baitzitzairen, iruditu ere, heleniarren egoera. Aldiz, gertatzen ari zenaz pozik zeuden guztiak untzi atikar bat harrapatzen lehenak izateko lehian zebiltzan, erregerengandik saria jasotzeko asmoz; itzela baitzen, izan ere, athenastarren entzutea persiar flotakoen artean.

11. Heleniarrek, seinalea hartzean, brankak barbaroengana zuzendu eta popak elkarturik zirkulu bat osatu zuten lehenik eta behin. Jarraian, bigarren seinalea jasotzean, erasora atera ziren, nahiz eta, tarte estu batean inguraturik aurkitzean, aurrez aurre eraso egitera beharturik zeuden. Handik gutxira, hogeita hamar untzi harrapatu zizkieten barbaroei, baita ere persiar flotan ospe handia zuen Philaon ere, Khersisen semea, Salaminako errege zen Gorgoren anaia. Athenasko Lykomedes, Eskhreoren semea, izan zen untzi etsai bat harrapatu zuen lehena, eta gizon honek kemenaren saria jaso zuen horregatik. Azkenez, iluntzeak erabaki zuen ebatzi gabeko itsas borroka horretan zihardutenak erretiratu

beharra; beraz, heleniarrek Artemisiorantz jo zuten eta barbaroek Aphetaserantz, azken hauek aurreikusitakoaz oso bestelako emaitza haren ondoren. Itsas borrokaldi horretan, Antidoro lemnoarra izan zen helendarrengana pasatu zen erregeren zerbitzuko heleniar bakarra, eta athenastarrek Salaminaren jabetza eman zioten gero jokabide horregatik.

12. Ilunabarra zen eta, oraindik uda erdia izan arren¹⁵¹, euria bota ahala hasi zuen, Pelio aldetik jotzen zuten trumoi-burrunbaz gau osoan zehar iraunez eurijesak; eta gorpuak eta untzi-hondakinak Aphetaserantz korronteak zeramatzala, untzien brankan pilatzen ziren eta arraun-palak oztopatzen. Bestalde, han aurkitzen ziren untzietako soldaduak, burrunba hura guztia entzutean, izuak hartu zituen, egoera gaizto hartan erremediorik gabe galduak zirelakoan; izan ere, naufragioaren eta Pelio inguruan gertatu zitzaizen ekaitz bortitzaren ondorioetatik burua altxatu orduko, itsas borrokaldi basa hura jasan behar izan zuten eta, hori burutu eta batera, urjasa izugarri hark harrapaturik aurkitzen ziren, itsasora bortxa eutsiezinez zetozen uholdeen eta trumoi burrunbatsuen artean.

13. Eta soldadu persiar horientzat halako gaua izan bazen, Eubea inguratzen zihardutenentzat are izugarriagoa gertatu zen gau hura, itsaso zabalean ezustean harrapatu eta azken zorigaiztokoa izan baitzuten: ekaitza eta eurijasa hastean Eubeako Badien parean aurkitzen zirela, zeharkaldiaren erdi-erdian, haizeak herrestan eraman zituen beraientzat ezezaguna zen alderdirantz, arroken kontra jo zuten arte bete-betean. Hori guztia jainkoen borondatez gertatzen zen, persiar untziteria heleniarrarekin pareka zedin eta kopuruz hain nagusitasun nabarmena izan ez zezan.

14. Horra, beraz, nola hondatu zen untziteria hura Eubeako Badietan. Aphetasen aurkitzen ziren barbaroei dagokienez,

azkenean ere -beraien zorionerako- eguna argitu zuenean, untziak geldi ukan zituzten, zoritxar haien guztien erdian zain mantentzeaz konformatzen baitziren, momentuz. Bitartean, berrogeita hamahiru untzi atikar iritsi ziren heleniarrei laguntzera. Hauen etorrerak eta, aldi berean, Eubea inguratzen ari ziren barbaroak oro ekaitzak harrapatu eta hondatu zituela jakiteak kemen berria eman zien heleniarrei. Beraz, bezperako ordu berdinera arte itxaron zuten eta ordu horretantxe abiatu ziren untzi ziliziarrei eraso egitera. Eta haiek suntsitu ondoren, iluntzea ere bazetorrela-eta, berriro ere Artemisiora itzuli ziren.

15. Hirugarren egunean, alabaina, almirante barbaroek jasanezina zeritzotela hain untzi-kopuru murrizak halako arazo handiak sortzeari, eta Xerxesen jarreraren beldur ere zirela halaber, ez zuten jada itxaron heleniarrak erasora irten arte, baizik, zegozkien prestaketak burutu ondoren, beren untziak itsaso zabalera zuzendu zituzten eguerdi bueltan. Eta itsas borrokaldi horiekin batera suertatu ziren, hain zuzen, egun horietan beraietan Thermopyletan lehorrez buruturikoak ere. Itsas armadaren xede nagusia Euripo defendatzea zen, Leonidas eta beronen gudarien xedea mehaka zaintzea zen bezalaxe. Beraz, heleniarrak elkarri adorea emanez ziharduten, barbaroei Heladera sartzen ez uzteko, eta azken hauek, beren aldetik, untziteria heleniarra suntsitu eta Itsasartearen kontrolaz jabetzeko lehian ziharduten.

16. Horrela, Xerxesen gudarosteak borrokarako lerroturik erasora etorri zitzaizkienean, heleniarrak zain geratu ziren Artemisio inguruetan. Baina barbaroak, beren untziak ilargierdi formako lerroetan hedatuz, inguratze-mugimendua egiten saiatu zirenean, heleniarrak ere itsaso zabalera irten zitzaizkien eta borrokan sartu ziren. Itsas borrokaldi horretan zori berdintsua izan zuten bi alderdiek. Izan ere, Xerxesen untziteria horren ugaria izatean, untziok elkarri oztopo eta kalte egiten zioten,

bata bestearen kontra trabatuz; hala ere, persiarrek ez zuten atzera egin gura, untzi gutxi batzuen aurrean ihes egiteari laidogarri irizten zioten-eta. Horrela, heleniarrek galera asko izan zituzten bai untzitan baita gizonetan, baina oraindik galera askoz gehiago jasan zituzten barbaroek. Azkenez, borrokaldiaren emaitza horrekin, untzidi bakoitza bere lekura itzuli zen.

17. Itsas borrokaldi hartan Xerxesen gudarosteetan gehien nabarmendu zirenak egyptoarrak izan ziren, beste egitandi batzuen artean bost untzi heleniar atzeman baitzituzten tripulazio eta guzti. Heleniarren aldetik, berriz, egun horretan athenastarrak nabarmendu ziren, eta bereziki Klinias, Alzibiadesen semea, zeinek bere jabetzako untzian borrokatzen baitzuen, beraren poltsikotik ordaintzen zuen berrehun gizoneko tripulazioarekin.

18. Beraz, bi aldetakoek handik alde egin eta bakoitza bere ditxora zihoan azkar eta pozik. Heleniarrak, borrokalekutik urruntzean, lerro irekian erretiratu ziren eta gorpuak eta untzi-hondakinak jaso ahal izan zituzten; baina kalte larriak zituztenez (batik bat athenastarrek, untziteriaren erdia matxuraturik baitzuten), Helade barnealderantz atzera egitea erabaki zuten.

19. Halere, Themistokles konturatu zen, Barbaroari joniar eta kariar arrazako gerrariak kenduz gero, heleniarrak gai izango zirela gainerakoei garaitzeko; eta eubearrek beren saldoak itsasertzerantz zekartzaten bitartean, jeneralak inguru horretan bildu eta plan bat zeukala uste zuela esan zien, beraren iritziz erregeren aliatu onenen defekzioa eragingo zuena. Hark ez zien jakinarazi plan horren

xehetasun gehiagorik, baina une hartan honako hau egin beharko zutela adierazi zien: eubearren ganadutik jatea (hobe baitzen ganadu horretaz beren gudarosteak baliatzea, ezen ez etsaienak) eta jeneral bakoitzak bere gizona sutzarrak piz zitzatela agintzea; flotaren erretiratzeari buruz -esan zien, azkenez- bera arduratuko zela horretarako ordua jartzeaz, Heladera seguru eta onik irits zitezen. Jeneralek haren iradokizunei jarraitzea erabaki zuten eta, denborarik galdu gabe, sutzarrak pizteko eta ganaduaz jabetzeko agindua eman zieten beren gizona.

20. Eubearrei dagokienez, ez zioten kasurik egin Bazisen orakuluari, aintzakotzat hartzerik merezi ez bailuen, eta ez zuten ebakatu ezertxo ere, ezta gainera zetorkien gerlaren aurrean hornitu ere, beren hondamendia ereinez horrela. Hona hemen zer zioen horri buruzko Bazisen orakuluak:

Begira, hizkuntza arrotzeko norbaitek papirozkotz zutarria

[jaurti dezanean kresalera,

etengabeko bekerekez diharduten ahuntzok eraman itzazu

[Eubeatik urrunera.

Eta bertso horiek orduan batere aintzakotzat ez hartzearen, orain gainez zituzten eta laster gaineratuko zitzaizkien zorigaitz haien lazeria handiena aintzakotzat hartu beharra baino ez zuten izan.

21. Orduan, heleniarrek zeregin haietan zihardutenean, Trakhistik zetorren zelatari bat aurkeztu zen. Izan ere, Artemision zelatari bat zegoen -Polyas, Antizyrako gizon bat-, flotaren porrotaren kasuan Thermopyletan zeudenei abisua pasatzeko agindua zeukana, horretarako unti apropos batekin; era berean, Leonidasen gudarosteek ere bazuten zelatari bat -Abronikho athenastarra, Lysiklesen semea-, lehorreko armadari ezbeharren bat gertatuz gero, trikontere batean etorri eta Artemision zeudenei jakinaraz ziezaian. Beraz, Abronikho hura etorri eta Leonidasi eta beronen gudarosteei

gertaturikoa jakinarazi zien. Horren berri izatean, heleniarrek ez zuten gehiagorik atzeratu erretreta eta itsasora irten ziren, bakoitzari zegokion ordenan: buruan korinthoarrak eta atzeko aldean athenastarrak.

22. Orduan, Themistoklesek athenastar untzi azkarrenak aukeratu eta, edateko ura zegoen lekuetara joanez, zenbait inskripzio grabarazi zituen, hurrengo egunean Artemisiora iristerakoan joniarrak irakur zitzaten. Hona hemen zer zioten inskripziook: "Joniarrok, ez duzue zuzen jokatzeko zeuon arbasoei eraso eginez eta Helade morrontzara eramanez. Beraz, iragan zaitezte ausarki gure aldera; eta hori egitea ezinezko bazaizue, mantene zaitezte behintzat gerratik at, eta eska iezaizue bide batez kariarrei ere gauza bera egiteko. Baina gauza bata ez bestea egiteko aukerarik ez baduzue, matxinatu ahal izateko hertsatuegi zaituztelako, jardun ezazue berariaz geldo borrokan sartzen garenean, gure jatorri berekoak zaretela kontuan hartuz eta zeuengatik sartu ginela gu Barbaroarekin liskarrean".

Nire ustez, Themistoklesek helburu bikoitzarekin idaztarazi zituen letrok: joniarrak beren jarrera aldatu eta, erregeek mezu horren berririk ez balu, heleniarren aldera iragan zitezen, edota, mezu horren edukia Xerxesi maltzurki jakinarazi ondoren, joniarrak susmagarri bihurtu eta itsas borroketatik at utz zitzan.

23. Horixe idaztarazi zuen, bada, Themistoklesek. Handik gutxira, Histieako bat aurkeztu zitzaion barbaroei txalupa batean, heleniarrek Artemisiotik alde eginak zirela jakinaraztera. Barbaroek orduan, sinesgogor, informatzailea zainpean mantendu eta zenbait untzi azkar bidali zituzten berri hura egiaztatzerako; eta untziotako

tripulatzaleek hala zela egiaztatu zutenean, untziteria guztia Artemisiorantz abiatu zen eguna argitzean. Leku horretan eguerdira arteko geldialdia egin eta Histiearantz itsasoratu ziren jarraian. Hara iritsitakoan, hiri hori hartu eta Elopia eskualdeko itsas herriska guztiei oldartu zitzaizkien Histieako lurraldean.

24. Horiek hor zebiltzan bitartean, Xerxesek, hildakoei buruz zenbait neurri hartu ondoren, heraldo bat bidali zion untziteriari, lehenbizi honako neurriok hartu zituelarik: bere armadak Thermopyletan izandako hildako guztietatik (konkretuki hoge mila) mila gorpu inguru utzi zituen ehortzi gabe, eta hartarako egindako hobietan lurperarazi zituen gainerakoak, eta hostoez estali eta lurra berdintzeko agindu zuen gero, itsas armadako soldaduek ikus ez zitzen. Heraldoa Histieara iragan zenean, untzidiko guztiei deitu eta honako hauxe esan zien: "Aliatuok, Xerxes erregek baimena ematen dizue gura duzuen guztioi, postua utzi eta ikustera joan zaitezten hark nola borrokatzen duen erregeren botereari gailen zekizkiokeela uste izan duten burugabeko gizakumeen kontra".

25. Aldarri horren ostean, untzi guztiak ere gutxi izan ziren ikuskizun hura begiesteko eskari hain ugariari erantzun ahal izateko. Beste itsasertzera igaro eta gorpuen artetik ibili ziren, hauei begira; eta denek uste zuten hildako haiek guztiak lazedemonدارrak eta thespiaستarrak zirela, nahiz eta begien aurrean zituztenen artean hilotak ere izan. Hala ere, itsasarte zeharkatuta etorri ziren haiek ez zuten utzi antzeman gabe, ezta gutxiagorik ere, Xerxesek bere soldaduen gorpuekin egindakoari; are gehiago, egoera hura barregarria zen benetan ere: soldadu persiarren mila gorpu ikus zitezkeen zelaian, heleniarren lau mila gorpuak denak batera leku berean bildurik zeuden bitartean. Egun hura ikuskizunari begira eman zuten persiarrek, eta hurrengo egunean batzuk Histiearantz itsasoratu ziren, Xerxes eta bere gudarosteak barrurantz abiatzen ziren bitartean.

26. Orduan hauei iheslari batzuk aurkeztu zitzaizkien, bizibiderik ez eta lanen bat gura zuten arkadiar gutxi batzuk. Persiarrek erregeren aurrera eraman zituzten eta ea heleniarrak zertan zebiltzan galdetu (bozeramaile persiar bakar bat izan zen galdera hori egin ziena). Arkadiarrek erantzun zieten haiek Joko Olympikoetan ari zirela, hau da, lehiaketa atletikoak eta zaldi lehiaketak ikusten bide zirela. Eta ea lehiaketa horietan zer sari ematen zen galdetzean Persiarrak, garaileari olibondo-adarrezko korroa bat eman ohi zitzaiola erantzun zioten arkadiarrek. Eta orduantxe izan zen Tritantekhmesek, Artabanoren semeak, bere iritzia zintzotasun osoz adierazi eta erregek hargatik koldar deitu ziona. Izan ere, saritzat korroa bat ematen zela aditzean, eta ez dirua, ezin geratu ahal izan zen isilik eta haxe esan zuen denen aurrean: "Ai ene, Mardonio, zein jende motaren aurka ekarri gaituzu borrokatzera! Ez baitute diruagatik lehiatzen, baizik eta bikaintasunagatik¹⁵²!"

27. Horra, bada, Tritantekhmesek esan zuena.

Bien bitartean, Thermopyletako hondamendia gertatu bezain laster, thesaliarrek heraldo bat bidali zieten phozearrei, zeren aspaldidanik zieten gorrotoa areagotu egin baitzen orain, azken hondamendiaren ondorioz. Izan ere, erregeren espedizio hau baino ez urte asko lehenago, thesaliarrak eta berauen aliatuak Phozeara sartu ziren indarrez beren gudaroste guztiekin, baina phozearrak garaitu zitzaizkien eta porrot larria izan zuten.

Phozearrak, eta euren artean Elideko Telias aztia, Parnason inguraturik zituztela, Telias hark honako amarru honen bidez salbatu zituen: seiehun soldadu phozear kementsuenen hala

gorputza nola armak igeltsaztuarazi ondoren, thesaliarren aurka bidali zituen gaez, zuriz pintaturik aurkitzen ez zuten oro hil zezatela agindu ondoren. Hortaz, zentinelak tesaliarrak izan ziren haiek lehenengo ikusi eta, naturaz gaindiko mirariren bat zelakoan, izuz beterik ihesari eman ziotenak; eta, zentinelan ondoren, armadak ere gauza bera egin zuen, eta phozearrak horrela lau mila hilotzez eta beste horrenbeste ezkutuz jabetu ziren, hauen erdia Abasen eta beste erdia Delphosen sagaratu zutelarik gero; borrokaldi hartan eskuraturiko harrapakinaren hamarrenaz baliatu ziren, hain zuzen, Delphosko tenpluaren aurreko tripode inguruan dauden estatua handiak, baita Abasen sagaraturik dauden beste antzeko batzuk ere, zizelatzeko.

28. Bada, horixe egin zuten phozearrek oinezko soldadu thesaliarrekin, azken hauek setioa ezartzen zietela; eta beren lurraldera sartutako zaldieriari ere jipoi itzela eman zioten: Hyampolis inguruan dagoen mehaka barren-barrenean luebaki zabal bat egin eta anfora huts batzuk ipini zituzten barruan, eta, luebakiok lurrez estali eta inguruko lurrak berdindu ondoren, thesaliarren erasoaren zain geratu ziren. Eta hauek erasora irten zirenean abiadan, aurrean zituzten phozearrak behingoan akabatuko zituztelakoan, anforetara erori ziren. Eta zaldiek hantxe hautsi zituzten hankak.

29. Bi amarru horien egileenganako herra oraindik itzali gabe, heraldo bat bidali zieten mezu honekin: "Phozearrok, hobe duzue behingoz aitortzea ez daukazuela gurekin konparatzerik. Orain arte, Heladeren xedeek erakartzen gintuzten bitartean, heleniarren artean beti izan gatzazkizue nagusi; eta une honetan, hain eragin handia dugu Barbaroaren aurrean, non geure esku baitago zuei zeuon lurrok kendu eta agian esklabo egin zaitzaten ere. Baina, hori guztia geure esku dagoen arren, ez dizuegu herrarik, ez pentsa; emaguzue zilarrezko berrogeita hamar talentu

kalte-ordaintzat eta zuon herrialdearen gainean duzuen mehatxu hori aldentzeko konpromezua hartuko dugu".

30. Horixe, beraz, thesaliarren exigentzia. Hara non, phozearrak ziren, izan ere, mediarren kausari atxiki ez zitzaion herri bakarra zona hartan, eta horren arrazoi bakarra, nire dedukzioen emaitzen arabera, haiek thesaliarrei zioten gorrotoa besterik ez zen izan; nire iritzian, thesaliarrak heleniarrekin lerrokatu balira, phozearrak mediarrekin ziratekeen. Thesaliarren ezkakizun haren aurrean, dirurik ez zietela emango erantzun zieten phozearrek, zeren, bestelako asmorik izatekotan, beraiek ere mediarren aldera igarotzea zeukatela -thesaliarrek eurek egin zuten bezala-, baina ez zutela nahi beren borondatez Heladeri traizioa egiterik.

31. Erantzun hori jakinarazi zietenean, thesaliarrek, phozearrekin suminduta, Barbaroa bidean barna gidatzea erabaki zuten. Horrela, Trakhisaldetik Doridera jo zuten; eskualde horretatik Dorideko lur-zerrenda mehar bat hedatzen da -hogeita hamar estadio zabalerakoa gutxi gorabehera-, Melide eta Phozide lurraldeen artean Dryopida osatzen zuena antzina, eta horixe zen, hain zuzen ere, Peloponesoko doriarren sortetia. Hortaz, Doridera oldartzean, barbaroek ez zuten lurralde hura arpilatu, bertako bizilagunak mediarrei atxiki zitzaizkielako eta, gainera, thesaliarrei ez zitzaielako egoki irudit.

32. Doridetik Phozidera oldartu ziren jarraian, baina phozearrak berak ezin izan zituzten harrapatu: haietariko batzuk Parnaso gainetara igo baitziren (izan ere, Parnasoko gaina, Neon hiriaren inguruan isolatuki altxatzen dena eta Tithorea deritzotena, leku ezin hobe da jende ugari gordetzeko, eta horregatik phozearrek beren ondasunak lehenbizi hara eramatea eta ondoren beraiek ere bertara igotzea), haietariko gehienak Lokridako ozoliarren lurraldean, Krisako lautadaren iparraldean, dagoen Amphisa hirira zihoazen bitartean.

Barbaroek Phozide osoan zehar burutu zituzten erasoaldiak, thesaliarrek xede horrexekin gidatzen baitzuten haren armada; eta okupatuz joan ziren eskualde guztiei su eman zieten eta zuhaitzak moztu, bai hiriak baita santutegiak erre eta kiskaliz.

33. Zephisso ibaibideari jarraituz Phoziden barna aitzina eginez, den-dena suntsitu zuten, Drymo hiria erraustuz, baita Kharadra, Erokho, Tethronio, Amphizea, Neon, Pediea, Triteas, Elatea, Hyampolis, Parapotamios eta Abas ere, zeinetan Apoloren santutegi aberats bat zegoen orduan, altxor ganbarez eta eskaintzari ugariz hornitua; eta bazen orduan han -eta bada oraindik ere- orakulu bat. Bada, santutegi hori ere arpilatu egin zuten lehenbizi eta erre gero. Halaber, phozear batzuk jazarri eta mendi inguruetan harrapatu zituzten, eta zenbait emakumeren heriotza ere eragin zuten, bortxaketa ugariren ondorioz.

34. Parapotamiosetik iragan ondoren, barbaroek Panopeara iritsi ziren. Handik aurrera, armada persiarra bi taldetan banandu zen eta bi ibilbide desberdin jarraitu zituzten aurrerantzean. Armadaren zatirik handiena eta sendoena, Xerxes bera ere barne, Athenaserantz abiatu eta Beozian sartu zen, Orkomeno lurraldean hain zuzen. Izatez, Beoziko populazio osoa mediarren aldekoa zen, eta hortik, beraz, Alexandrok bidalitako soldadu mazedondarrek haien hirietan banatu eta hiriok babestea; horrexetan zetzan babesa, beoziarrek mediarren aldekoak zirela Xerxesi ageriro adieraztean.

35. Armada barbaroaren gudaroste horiek ibilbide horretan antzina egiten zuten bitartean, besteek Delphosko santutegiaren aurka jo zuten, Parnaso eskuinetara utziz, zenbait gidariren laguntzaz. Eta hauek ere Phoziden okupatzen zituzten eskualdeak oro suntsituz jardun zuten; eta konkretuki Panopea, Daulis eta Eolidari eman zieten su. Gainerako armadatik banandu eta ibilbide horretatik

joatearen xedea Delphosko santutegia arpilatzea zen, bertako altxorrak Xerxes erregeren aurrera ekartzearen. Izan ere, nik entzun izan dudanez, Xerxes horrek, jende askok behin eta berriz ziotsonari adituz, gehiago zekien santutegi hartan ziren objektu sakratu garrantzitsu guztiez -batik bat Kreso, Alyatesen semearen eskaintzariez- berak bere jauregian utzitakoez baino.

36. Asmo horien berri izatean, delphostarrak erabat izutu ziren eta, izuak barreneraino hartuta, altxor sakratuei buruz aholku eskatzera jo zuten orakuluarengana, ea altxorrok lurperatu ala beste herriren batera eraman behar ote zituzten jakiteko. Baina jainkoak debekatu egin zien haiek lekualdatzea, bere ondasunak berak berenez babesteko gai zela adieraziz. Delphostarrek orduan, erantzun hori jasotzean, beren buruak salbu jartzearen ardura hartu eta golkoaren handiko itsasertzera -Akaiako leku ezberdinetara- iragan zituzten beren ume eta emazteak, beraietariko gehienak Parnaso gainetara zihoazen bitartean, ondasunak Koryziar harpean utziz, eta gainerakoak Lokridako Amphisa hirian aterbetzen ziren bitartean. Beraz, delphostar guzti-guztiek alde egin zuten hiritik, hirurogei gizonek eta profetak¹⁵³ izan ezik.

37. Barbaroak beren ibilbidean handik hur aurkitzen zirenean, eta santutegia begibistan zutelarik, orduantxe hain zuzen ikusi zituen profetak, Azerato zeritzonak, arma sakratuak tenpluaren aurrean pilaturik, ezein gizakumek ezin uki zitzakeenak sakrilegioan erori gabe eta megaron¹⁵⁴ barrutik hara kanpora ekarriak. Hura, bada, mirari horren berri ematera joan zitzaien berekin ziren delphostarrei; eta bitartean, ziztu bizian zetozen barbaroak Athenea Pronaren santutegi parean aurkitzen zirenean, gertatu berri hori baino mirari are harrigarriagoak gertatu zitzaizkien. Benetan ere aski harrigarria baita, izatez, gerrako arma batzuk berez eta berenez tenplutik kanpo agertzea pilaturik; baina jarraian gertatu ziren fenomenoak beste ezin agerkari baino harrigarriagoak dira, dudarik gabe. Izan ere,

barbaroak beren bidean barna Athenea Pronearen santutegi parean aurkitzen zirenean, ortzitik zetozen tximista batzuk erori zitzaizkien bat-batean, Parnasotik bi harkaitz askatu eta dunborts izugarritz jausten ziren bitartean haien gainera, soldadu pila zapalduz, eta Pronearen santutegitik aldarria eta gerra irrintzia sortzen zen bitartean.

38. Mirari horien guztion aldiberekotasunak barbaroen izua eragin zuen. Gainera, delphostarrak, etsaiak ihesari ematen ziola konturatzean, haiek jazartzera jaitsi eta arerio mordoa hil zuten. Eta bizirik geratu zirenek Beoziantz egin zuten ihes. Handik itzuli ziren barbaroek haxe kontatu zuten, entzun izan dudanez: aipaturiko horiez gain, naturaz gaindiko beste fenomeno batzuk ere hauteman zituztela; alegia, gizagoitiko garaiera zuten bi hoplita oldartu omen zitzaizkiela eta jo eta hiltzen eta jazarrika jarraitu zitetela atzetik.

39. Hortaz, delphostarren esanetan, bi hoplita horiek Philako eta Autonoo izan omen ziren, beren temenosak santutegiaren inguru haietan dituzten lurralde hartako heroiak; Phylakorena bide ondoan bertan, Pronearen santutegiaren goialdean, eta Autonoorena Kastalia ondoan, Hyampea haitzaren barrenean. Bestalde, Parnasotik erori ziren harkaitzak hantxe zeuden oraindik ere oso-osorik nire garaian, Athenea Pronearen jaureslekuan, barbaroei gainera jausi zitzaizkien leku hartan. Beraz, era horretantxe gertatu zen gudaroste haiek santutegitik alde egitea.

40. Bien bitartean, itsas armada heleniarrak, Artemisiotik alde egin ondoren, Salaminara ekarri zituen untziak, athenastarren eskabidez. Eta athenastarrek aliatuei Salaminara untziak ekartzeko eskatzeak beren ume eta emazteak Atikatik beraiek pertsonalki ebakatu ahal izatea zuen ziotzat, eta, bide batez, aurrera begirako estrategiaren plana egitea. Izan ere, alde zurretik espero zutena ustel gertatu zitzaenez gero, egoerari buruz berriro

eztabaidatu beharra zekusaten une hartan. Zeren, peloponesoarrak berauen gudaroste osoarekin Barbaroaren zain Beozian aurkituko zituztela espero zutenean, han ez zuten aurkitu soldadu arrastorik ere, aitzitik, Peloponeso salbatzeaz eta ondo babestuta edukitzeaz arduratuta batik bat, Isthmoan murre bat eraikitzen ari zirela jakin zuten, gainerako Heladeren ardurarik gabe. Eta horren berri izatean eskatu zieten athenastarrek aliatuei untiak Salaminan ainguratzeko.

41. Horrela ba, aliatuak oro Salaminaratzen ziren bitartean, athenastarrak beren hirira abiatu ziren. Eta hona iritsitakoan, bando bat atera zuten athenastar bakoitzak bere seme-alaba eta etxeokak ahal zezan lekuan salbu jar zitzala aginduz. Horregatik gehienek Trezenara bidaltzea beren etxeokak, beste zenbaitek Eginara eta beste batzuek Salaminara. Ebakuatu ere azkar ebakuatu zituzten, orakuluari obeditzearen eta, batez ere, honako arrazoi honegatik: athenastarrek diotenez, sugetzar¹⁵⁵ bat bizi da tenpluan, Akropoliaren zaindari; horixe baieztatu dute eta, are gehiago, hilero eskaintzari bat egiten diote, benetan existituko bailitzan (hileroko eskaintzari hori ezti-opil bat izan ohi da). Hortaz, ordurarte sugetzarrak beti jaten omen zuen ezti-opil hori, orduan ukitu ere egin gabe geratu zen. Sazerdotesak horren berri eman zuenean, athenastarrak oraindik askoz gehiago ahalegindu ziren hiritik alde egiten, jainkosa bera ere Akropolitik alde egina zela uste izanez. Eta dena salbu utzi ondoren, itsas armadarekin biltzera itsasoratu ziren.

42. Artemisiotik zetozen gerrauntziak Salaminara iritsi zirenean, gainerako untzidi heleniarrak ere, horren berri izatean, gauza bera egin zuen eta Trezendik etorri zen oso-osorik, Trezengo portuan, Pogonen, biltzeko agindua hartu baitzuen aurretiaz. Halatan, Artemision borrokatu zuena baino askoz unti-kopuru haziagoa bildu zen eta, gainera, hiri gehiagotakoa.

Untzidi horren buruzagitza zuen almiranteburua, hain zuzen, Artemision izandakoa bera zen: Eurybiades, Euryklidesen semea, izatez spartarra, nahiz eta ez errege-odolekoa; hala ere, athenastarrak ziren, askozaz, gerrauntzi ugarien eta egokienak zekartzatenak.

43. Honako hauek osatzen zuten untziteria: Peloponesotik, hasteko, lazedemondarrak zetozen hamasei untzirekin, korinthoarren Artemisiora eramandako kopuru bera zekartzaten bitartean. Sizyondarren, beren aldetik, hamabost untzi zekartzaten, epidauroarren hamar, eta hermionearrek hiru; herri horiek guztiok, hermionearrak izan ezik, doriar eta mazedondar herrikoak dira, eta, azken batean, Erineo, Pindo eta Dryopidetiko etorkinak; hermionearrei dagokionez, gaur egun Doride deritzon lurraldetik Heraklesekin eta melidetarrek egotzitako dryopearrak dira.

44. Horiexek, beraz, itsas armada osatzen zuten peloponesoarrak, eta ondoko hauek Peloponesoz iparrera dagoen kontinentetik etorriak: lehenik eta behin athenastarrak, beste heleniar guztiek batera adinako untzi-kopuru ekarri, ehun eta laurogei, eta hori berak bakarrik; zeren platearren ez baitzuten borrokatu athenastarren ondoan Salaminan, beharbada honako arrazoi honegatik: heleniarrak Artemisiotik erretiratzean Khalzis parean zirenean, platearrak beste itsasertzean lehorreratu -Beoziako lurraldean- eta etxeak ebakutzeari ekin ziotelako. Halatan, haiek salbu jartzearren, atzeratu egin ziren.

Athenastarrei dagokienez, egun Helade deritzona pelasgiarren zutenean, beraiek ere pelasgiarrak ziren, kranaotarrak¹⁵⁶ leinu-izenarekin, eta Zekrope errege zela zekropetar izena hartu zuten, eta Erekhtheo erregetzara heldu zenean, berriz, athenastarrak¹⁵⁷ deitzera igaro ziren, eta, azkenez, Jon Xuthorena buruzagi izan zutenean, joniarrak izena hartu zuten haren oroimenez.

45. Megararren, berriz, Artemisiora eramane zuten untzi-kopuru bera zekartzaten orain ere, Ampraziakoek zazpi untzirekin zetozen bitartean heleniarrei laguntzera, eta Leukadakoek

hirurekin (azken hiru herriok jatorri korinthoarreko doriar jatorrikoak dira).

46. Uharteetakoei dagokienez, eginarrek hogeita hamar untzi zekartzaten. Eginarrek bazituzten, ukan, untzi ekipatu gehiago, baina beren lurraldea gordetzeko zerabiltzaten eta Salaminan hogeita hamar untzi azkarrenekin borrokatu zuten. Eginar horiek jatorri epidauroarreko doriarrak dira, izatez, eta beren uharteak Enone zuen izena antzina.

Eginarren ondoren khalzistarrak zeuden, Artemisioko hogeitazekartzelarik, eta eretriarrak beren zazpi unziekin (bi herri horiek joniarrak dira). Jarraian zeotarrak zeuden, jatorri athenastarreko joniar herria, lehen adina untzi zekartela. Naxoarrak, beren aldetik, lau untzi zekartzaten, ezen herikideengandik mediarrei atxikitzeko mandatua hartu zuten arren -uhartetako gainerakoek bezala-, ez zieten jaramonik egin haien aginduei eta, Demokritoren ekimenez, herikideen artean prestigio handia zuena eta triere baten kapitaina zena orduan, heleniarren aldera pasatu ziren (naxoar horiek, izatez, athenastar jatorriko joniarrak dira). Styriakoek Artemisiora adina untzi zekartzaten, eta zythnoarrak triere bat eta pentekontere bat (bi herri hauek dryopearrak dira). Untziteria osatzen zutenen artean Seripho, Siphno eta Melo uharteetakoak zeuden, Barbaroari lurra eta ura eman ez zizkioten uhartetar bakarrak.

47. Untziteria osatzen zuten herri horiek guztiok Thesprotiaren eta Akheronte ibaiaren ekialdera daude, ezen thesprotiarrak ampraziarren eta leukadarren, mendebal urrutienetik zetozen aliatuen, auzoak baitira. Muga horiez mendebaldera diren herriei dagokienez, krotondarrak izan ziren arrisku honen aurrean Heladeri laguntzera etorri zitzaizkion bakarrak, eta etorri ere Joko Phytikoetan hiru bider garaipena lorturiko Phailo hura kapitain zuen untzi bakar batekin. Krotondar hauek akhear arrazakoak dira, izatez.

48. Beraz, untziteria osatzen zuten herri guztiek zekartzaten triereak, meloarrak, siphnoarrak eta seriphoarrak izan ezik, hauek pentekontereak baitzekartzaten. Melostarrek (lazedemonдар jatorrikoak berauek) bi zekartzaten, eta siphnostar eta seriphoarrek, berriz (jatorri athenastarreko joniarrak, izatez), bakoitzak bana.

Gerrauntzien kopurua guztira, zifra honetan pentekontereak sartu gabe, hirurehun eta hirurogeita hamazortzira iristen zen.

49. Goian aipaturiko hirietako jeneralak Salaminan bildu zirenean, egoera aztertzeari heldu zioten, izan ere Eurybiadesek iritzia eskatu zien ea beren eskuko zein lekuri zeritzoten itsas borrokarako egokiena (dagoeneko Atika abandonatua zenez, Heladeko gainerako lekuei buruz eskatzen zien iritzia). Orduan, hitza hartu zutenen iritzi gehienak Isthmorantz itsasoratu eta han borrokatzearen aldekoak izan ziren, honako arrazoi hau ekarriz: borrokaldian garaituak izanez gero, Salaminan uharte batean isolaturik aurkituko zirela, sorotsiak izateko aukerarik gabe, eta Isthmo inguruetan, ostera, beren eskuko lurraldeetara hel zitezkeela.

50. Peloponesotik zetozen jeneralek gogoeta horiek egiten zituzten bitartean, mezulari athenastar bat etorri zitzaaien Barbaroa Atikara iritsia zela eta lurralde osoa su eta gar zegoela jakinaraztera. Halatan, Xerxes eta bere gudarosteak, Beozia zeharkatu ondoren eta hor hala thespiarren hiriari (zeinek hiri hori ebakatu eta Peloponesorantz abiatu baitziren) nola platearrenari su eman ondoren, Athenasera iritsi eta dena suntsitzen ari ziren. Eta Thespiari eta Plateari su eman bazieten, hiri horiek mediarrei ez atxiki izana thebastarrek jakinarazi zitelako izan zen.

51. Helespontoa zeharkatu eta hortik abiatuz -inguru hartan hilabete egon ondoren Europara iragateko prestakizunetan-,

persiarrak beste hiru hilabeteren buruan iritsi ziren Atikara, Kaliades arkonte zela Athenasen. Eta hemengo hiri hustuaz jabetu ziren, athenastar gutxi batzuk besterik ez zituztelarik aurkitu bertan (santutegiko altxorzainak eta zenbait jende behartsu); hauek akropolia zurezko ate eta enborren bidez gotortu zuten, erasotzaileari horrela aurre egiteko asmotan, eta Salaminara ez baziren joan, batetik behartsuak zirelako eta, bestetik, Pythiak iragarritako orakuluaren esangura -zurezko murrua hartuezina izango zela- beraiek bakarrik ulertu zutela uste zutelako izan zen; hau da, orakuluak iragarritako babes hura oholesia zelakoan, eta ez untziak.

52. Persiarrak, beren aldetik, akropoliaren aurrez aurre dagoen muinoan, athenastarrek Areopagoa deritzoten hartan, kokatu ziren, eta honako era honetara ezarri zuten setioa: iztupa matazan bildu eta su emandako geziak jaurtikitzen zituzten batik bat barrikadarantz. Hala eta guzti ere, kinka horretan, setiaturiko athenastar haiek erasoari eusten ziharduten, egoera etsi-etsian aurkitu arren eta barrikadak huts egin arren; are gehiago, Pisistratidengandiko kapitulazio eskaintzei ere ezezkoa eman zieten eta, erasotzaileei aurre egiteko asmatu zituzten gauzen artean, barbaroek ateetara hurbiltzen zirenean harribolak goitik behera askatzen zituzten, Xerxes zer egin ez zekiela aurkitu zelarik denbora luzez, ez zuelako lortzen haiek menperatzerik.

53. Harik eta barbaroek, azkenean, ateka hartatik irteteko modua aurkitu zuten arte; izan ere, iragarpenaren arabera, Atika osoak erori behar baitzuen persiarren menpean. Akropoliaren aurretik bertatik igo ziren zenbait soldadu, pendiz malkartsua gorabehera (konkretuki, ateen eta sarbide-arlanparen atzetik), inork zaintzen ez zuen leku bakarra, hain justu, ezta burutik pasatu ere leku hartatik -Aglauro, Zekroperen alabaren santutegi ingurutik- inoiz gizakumerik igo zitekeenik. Athenastarrek,

orduan, etsaiak akropoli gainera igo zirela ikustean, batzuek harresietatik behera bota zuten burua eta beste batzuk tenpluan aterbetu ziren. Goraino igo ziren persiarrak, berriz, ateetara joan ziren lehenengo eta behin, ateok ireki eta arrenkariak erail zituzten; eta den-denak hil ondoren, santutegia arpilatu eta akropoli osoari su eman zioten.

54. Athenasen jaun eta jabe egin ondoren, Xerxesek zaldizko mezulari bat bidali zuen Susara, bere arrakasta haren berri Artabanori emateko. Eta, heraldoa bidali eta hurrengo egunean, berarekin zihoazen erbesteratu athenastarrei deitu eta akropolira igo zitezela agindu zien, beren erritoen arabera sakrifizioak eskaini zituzten (dela ametsetan irudipenen bat izan zuelako, dela santutegiari su emanaren aladura sentitu zuelako, baina horixe izan zen hark eman zuen agindua). Erbesteratu athenastarrek agindu hori bete egin zuten.

55. Eta azaltzera noa zer dela-eta aipatu ditudan zertzeladok. Bada Athenasko akropolian Erekhtheoren (Lurretik sortu omen zenaren) tenplu bat, eta olibondo bat eta ur gazia duen putzu bat bertan, tradizio athenastar baten arabera Posidonek eta Atheneak utzi zituztenak lurralde horren babesgoazko eztabaidaren lekukotzat¹⁵⁸. Baina hara non, olibondo hori ere, gainerako santutegiarekin batera, erre egin zen barbaroek eragindako sute hartan. Halarik ere, sutearen biharamunean, athenastar haiek erregeren mandatu sakrifizioak eskaintzera santutegira igo zirenean, enborretik ukondo bat inguruko luzerako aldaska bat sortua zela ikusi zuten. Eta gauza horren berri eman zuten haiek.

56. Bien bitartean, Salaminan aurkitzen ziren heleniarrak hain turditurik utzi zituen Athenasko akropoliari gertaturikoaren berriak, non jeneral batzuek ez zuten itxaron eztabaidagaia ebatzi arte ere,

baizik eta untzietara igo eta belak jasoarazi zituzten handik alde egiteko asmoz. Lehorrean geratu ziren jeneralek, berriz, Isthmoaren aurrean borrokatzeko erabakia hartu zuten.

Bitartean gautu egin zuen eta, batzarraldi hura amaitutzat emanez, bakoitza bere untzira joan zen.

57. Hortaz, Themistokles berera untziratu zenean, Mnesiphilo delako batek, izatez athenastarra, ea zer erabaki hartu zuten galdetu zion. Eta untziteria Isthmora lekualdatu eta han borrokatzea erabaki zela jakinarazi zionean Themistoklesek, zera esan zuen: "Hara, heleniarrek Salaminatik mugitzen baldin badituzte beren untziok, ezin izango duzu inolako itsas borrokaldirik egin ezein aberriengatik, zeren bakoitza bere hirira abiatuko baita, eta ez Eurybiadesek ez beste inork ere ez du lortuko jendeari geldiarazterik untziteria sakabana ez dadin; eta horrela egingo du heleniarrenak, erabaki oker baten erruz. Haatik, aukeraren bat baldin bada, itzul zaitez eta saia erabaki hori atzera botatzen, ea lortzen duzun Eurybiades iritziz aldatu eta hemen geratzea".

58. Themistoklesek ezin zuzenagoa iritzi zion iradokizun horri eta, berboi ezer erantzun gabe, Eurybiadesen untzira jo zuen. Eta hara iristerakoan, denen intereseko zerbaitez hitz egin nahi ziola adierazi zion Eurybiadesi. Eta honek, berriz, untzira igo eta nahi zuena esatera gonbidatu zuen. Orduan Themistokles haren ondoan jezarri eta Mnesiphilori entzundako gogoeta guztiak errepikatu zizkion, gogoetok bere eginez eta beste asko ere erantsiz, harik eta, ekinaren ekinez, untzitik lehorreratu eta jeneralak bilerara deitzeko konbentzitu zuen arte.

59. Haiek bildu zirenean, eta -diotenez- Eurybiadesek zertarako bildu zituen azaldu baino lehen, Themistokles luze

mintzatzen hasi omen zen, eskariaren garrantziak hartara behartuz; eta hura mintzatzen zegoen bitartean, Adimanto jeneral korinthoarrak, Ozytoren semeak, honela hots egin omen zuen: "Themistokles, lehia atletikoetan behar baino lehenago irteten direnak makilaka hartzen dituzte". "Hala da -ihardetsi zion Themistoklesek, desenkusatzuz-, baina atzean geratzen direnek ez dute lortzen koroa".

60. Une hartan Themistoklesek lasaiki erantzun zion Korinthokoari, eta, Eurybiadesengana itzuliz, ez zizkion berriro errepikatu lehenxeago esanak -hots, Salaminatik itsasoratu bezain laster heleniarrak ihesari eman eta sakabanatu egingo zirela-, iritzi ere guztiz desagokia baitzeritzon haiek salatzen hasteari; aitzitik, beste ideia batzuk nabarmenduz, berba hauek esan zituen:

"Zeure esku dago une honetan Helade salbatzea, niri kasu egin eta borrokarako gauden lekuan jarraitzen baduzu, hemen direnen argumentuei amore eman eta untziok Isthmorantz zuzendu beharrean. Hara, entzun iezadazu, bada, eta aldera itzazu plan biok: Isthmo inguruetan planteatzen baduzu borroka, itsaso zabalean borrokatu beharko duzu, inola ere komeni ez zaiguna, gure untziak astunagoak baitira eta kopuruz gutxiago; gainera, zortea orokorrean alde izango dugula emanda ere, Salamina, Megara eta Egina galduko dituzu. Bestalde, etsaiaren lehorreko gudarosteek haien untziteriarekin batera eginen dute aurrera, eta, ondorioz, zerorrek eramanen dituzu azkenean Peloponesoren aurka, Helade osoa arriskuan jarritz. Aldiz, nik proposatzen dudan planari jarraitzen badiozu, abantaila guztiak izango dituzu: lehenik eta behin, untzi gutxiarekin itsasartean untziteria ugariaren aurka borroka planteatu eta aurkaketa horren emaitza espero daitekeena baldin bada, erabateko garaipena lortuko dugu, ezen guretzat onuragarri baita itsasartean borroka planteatzea, haientzat onuragarri den heinean itsaso zabalean borrokatzea. Gainera, Salamina ere, gure ume eta emazteak ebakuatu ditugun lurraldea, salbu

geratzen da horrela. Are gehiago, bada beste gako hau ere nire planaren barne, zuoi gehien interesatzen zaizuen hain zuzen: hemen geldituz, Isthmoaren inguruetan bazeunde bezalaxe borroka dezakezu Peloponesoren defentsan, eta benetan zuhur jokatzeko baduzu, etsaia ez duzu Peloponesora bertara eramango. Izan ere, nik uste dudana gertatzen bada eta gure itsas armada honekin garaipena lortzen badugu, barbaroak ez zaizkizue Isthmora joango, ezta Atikan barna aurrera egingo, baizik eta anabasan erretiratuko dira eta Megara, Egina eta Salaminaren salbamenaz baliatuko gara, zeinetan gainera, orakulu baten arabera, gure etsaiei gailentzekoak garen. Arrakastak, azken batez, zentzuz jokatzeko dutenei laguntzen die sarrien; aldiz, erabakiak zentzuzkoak ez direnean, dibinitateak berak ere ez ditu babesten gizakumeen egitasmoak".

61. Themistokles oraindik berbetan zegoela, Adimanto Korinthokoak berriro ere iharduki eta aberrigabe hura isil zedila exigitu zuen, dagoeneko hiririk ez zuen pertsona baten proposamena Eurybiadesek bozketara eramatea eragotzi nahian; Themistoklesek bere iritzia azal zezan -ihardukitzearen zuzen hark- hiriren baten ordezkari izan behar zukeen. Eta horrela, Athenas jada hartua eta etsaiaren esku egotea aurpegiratzen zion.

Orduan Themistoklesek, jakina, luze eta gordinki erantzun zien Adimanto eta korinthoarren, argi eta garbi aditzera emanez ezen beraiek -athenastarrek- bazutela hiria, baita lurraldea ere, korinthoarren euren baina haziagoa, ez baitzituzten alferrik berrehun gerrauntzi, tripulazio eta guzti; eta halatan, Heladeko ezein herrik ere ezingo ziela eutsi, eraso egitea balitz.

62. Xehetasun horien ostean, Eurybiadesi zuzendu zion berriro ere hitza, lehen baino enfasi handiagoz berba eginez: "Zuri dagokizunez, hemen gelditzeko prest bazaude, gizon jatorra izango zara hori egitean; osterantzean, Heladeren hondamendia eragingo duzu, zeren kanpainaren arrakasta, guretzat, untziteriak egiten duenaren arabera dago. Egidazu, bada, kasu. Hala ez baduzu egiten, ordea,

gure etxeok berehala hartu eta Italiako Sirisera abiatuko gara, leku hori aspalditik gurea baita, eta gainera, orakuluek diotenez, han kolonia bat fundatzekoak gara. Zuek, anartean, gu bezalako aliatuak galtzean, gogoratuko dituzue, bai, nire berbok".

63. Themistoklesen adierazpenon aurrean, Eurybiadesek aldatu egin zuen iritzia; hori egin bazuen, nire ustez, untiak Isthmorantz itsasoratzeko aginduaren aurrean athenastarrek alde egingo zieten beldurrez izan zen batik bat, zeren, athenastarren laguntzarik gabe, gainerako heleniarrak ez baitziren aurkituko jada etsaiari borrokatzeko egoera onean. Haren planaren alde makurtu zen, beraz: Salaminan geratu eta itsaso horretan borrokaldi erabakiorra burutzearen alde, alegia.

64. Hitzezko liskar horren ondoren, bada, Salaminan aurkitzen ziren heleniarrak, Eurybiadesen erabakiari jarraiki, itsas borroka leku hartan bertan egiteko paratu ziren. Bitartean, eguna argitu eta eguzkia irtetean, lurrikara eta itsasikara gertatu ziren aldi berean, eta jainkoei erreguak egitea erabaki zuten, eta Eazidei laguntza eskatzea. Erabaki eta egin: jainko guztiei erregu egin ondoren, Ajax eta Telamonen laguntza eskatu zuten Salaminatik bertatik, eta unti bat bidali zuten Eginara, Eako bera eta gainerako Eazidak ekar zitzaizkion.

65. Eta Dizeoren esanetan -mediarren artean entzutea lortu zuen erbesteratu athenastar bat, Theozidesen semea-, une hartan hain zuzen ere, Atika athenastarrek laga ondoren Xerxesen lehorreko gudarosteek suntsitzen zuten unean, Dizeo bera Thriasian lautadan aurkitzen zela Demarato lazedemondarrekin, Eleusistik hauts-zurrumbilo bat zetorrela ikusi zuen, hogeita hamar mila gizon inguruk atera zezaketen adina hauts. Zer pentsatu ez zekitela zeuden biak, hautsaldi hura zeinek atera zezakeen elkarri galdezka, bat-batean aldarria hauteman zutenean, misterioetan Iakoren ohoretan oihukatu ohi den errito aldarria¹⁵⁹ iruditu zitzaiona Dizeori. Orduan Demaratok, honek ez baitzituen ezagutzen

Eleusisen ospatzen ziren erritoak, ea murmurio hura zer ote zen galdetu zion. Eta berak honela erantzun: "Demarato, erregeren gudarosteek hondamendi handiren bat izateko zorian dira halabeharrez, zeren, Atika bizilagunik gabe dagoela kontuan hartuz, begibistakoa baita entzuten dugun murmurio hori naturaz gaindiko zerbait dela, athenastarrak eta berauen aliatuak sorostera Eleusistik datorrena. Eta zalantzarik gabe, Peleponesora badoa, erregea bera eta lehorreko gudarostea izanen dira arriskuan; aldiz, Salaminan dauden untzietarantz badoa, errege bere untziteria galtzeko arriskuan izanen da. Jai hori, izan ere, athenastarrek urtero ospatzen dutena baita Amaren eta Alabaren¹⁶⁰ ohoretan, athenastar oro eta beste edozein heleniar sarbida daitekeelarik, hala nahi izanez gero; eta dantzuzun aldarri hori jaiari zehar Iakori zuzentzen dioten erregua da".

"Isil zaitez -erantzun omen zion Demaratok, berba horiek entzutean- eta ez iezaiozu konta inori gehiago gertaera hau, ezen, berbok erregeri jakinarazten baldin badizkiote, galdua izanen baitzara, eta ez nik ez beste inortxok ere ezin salbatu izango zaitugu. Hara, zaude isilik eta jainkoak ardura daitezela gudarosteokin".

Horixe, bada, Demaratok eman zion aholkua; eta bitartean, aldarria baretu ondoren, hauts zurrumbilo hura hodei bihurtu zen eta, zerurantz igonez, Salaminarantz abiatu zen, untziteria heleniarra zegoen lekurantz. Eta horrelaxe aditu zuten Xerxesen untziteria hondatuko zena. Horra hor Dizeok, Theozydesen semeak, kontatzen zuena, Demarato eta beste zenbait aipatuz lekukotzat.

66. Xerxesen itsas armadakoak, berriz, lazedemonдарrei emandako jipoia beren begiez ikusi ondoren, Trakhistik Histieara iragan ziren, eta han hiru eguneko geldialdia egin eta Euripon zehar

nabigatu zuten, beste hiru egunen buruan Phalerora iritsiz. Nire aburuz, Athenas lehorrez eta itsasoz inbaditu zuten barbaroak ez ziren, izatez, Sepias lurmuturrera eta Thermopyletara joan zirenak baino gutxiago kopuruz; izan ere, Thermopyletan eta Artemisioko itsas borrokaldian izan zituzten galerak berdindutzat emango ditut erregeri ordurarte laguntzen ez zioten gudaroste berriokin, hots, Melide, Doride, Lokride eta Beoziakoak -zeinek, Thespia eta Plateakoak salbu, beren gudaroste guztiekin bildu baitzitzaizkien inbaditzaileei-, hala nola Karysto, Andros, Teno eta gainerako uharteetakoak, gorago izendatu nituen bost estatuetakoak izan ezik. Izan ere, Persiarra Heladen barna sartu ahala, hainbat herri gehiago zihoakion bilduz.

67. Hortaz, gudaroste persiar guztiak, paroarrak izan ezik, Athenasera heldu zirenean (paroarrak zain geratu baitziren Zythnon, ea gerrak noren aldera egiten zuen antzeman arte), hau da, untziteria Phalerora porturatu zenean, hain justu orduantxe jaitsi zen untzietaraino Xerxes bera, tripulazioburuekin hitz egin eta haien iritzia ezagutzera. Hara iristerakoan, tronu batean jazarri zen eta, Inperioko herrietako tiranoak eta untzietako komandanteak bertaratuz haren deira, monarkak haietariko bakoitzari esleituriko hierarkiaren arabera eseri ziren haiek ere: Sidongo erregea lehenengo, Tyrokoa gero, eta gainerakoak ondoren. Protokoloaren arabera bata bestearen ondoan jezarrita, bakoitzaren iritzia hazta zezala agindu zion Xerxesek Mardoniori, ea itsasoan borrokatu behar ote zuten galdetuz.

68. Mardoniok banan-banan, Sidongoarengandik hasita, aurkeztu zien galdera-txanda hartan denak azaldu ziren bat, itsas borrokaren alde, baina Artemisiak, ordea, ondoko hau esan zuen: "Mardonio, esaiozu erregeri nire izenean hauxe, nik, Eubea

inguruan eginiko itsas borrokaldietan koldarki ihardun ez nuen eta egitandi ez horren kaskarrak burutu nituen honek, honako haxe diotsodala: “Jauna, bidezkoa da nik Berorri neure iritzi zintzoena adieraztea, hots, Berorren interesetarako onuragarrien deritzodana hain zuzen. Horra, bada: gorde bitza hurrengorako Berorren untziak eta ez beza itsas borrokarik aurkez, zeren eta gure etsaiak, itsasoz, gizonezkoak emakumezkoei nagusitzen zaizkien bezainbeste nagusitzen baitzaizkie Berorren gudarosteei¹⁶¹. Gainera, zertarako arriskatu Berori nahitaez itsas borroketan? Ez al du eskuratu jada Athenas, Berorrek espedizio honen xedetzat hasieran jarritakoa? Ez al da, halaber, gainerako Heladeren jabe? Inor ere ez zaio Berorri jarkitzen, eta jarki izan zaizkionak merezitakoa hartu dute. Eta esango diot orain Berorri zein zori jasango duten etsaiek, nire iritzian: itsas borrokan aurkatzeko presaz jardun beharrean, hemen berton, kostatik hurbil, mantentzen baditu Berorren untziak, erraz izango du, Jauna, Berorren kanpainaren xedetzat jarritakoa lortzea, dela zain geratzea erabaki, dela Peloponesorantz aurrera jo. Egiatan, heleniarrak ez daude Berorri denbora luzez aurre egiteko egoeran, eta laster lortuko du, beraz, haiek sakabanatzea, bakoitzak bere hirira alde egingo duelarik. Ezen uharte horretan¹⁶² ez baitute jatekorik ere, aditu izan dudanez, eta, gainera, Berorrek lehorreko gudarosteak Peloponesoren aurka bidaltzen baditu, pentsatzekoa da handik etorritako heleniarrak ez direla sorgor geratuko eta ez dutela gura izango Athenasen aurrean itsasoz borrokatzen iharduterik. Ordea, itsas borrokara berehala jotzen badu Berorrek, beldur naiz itsas armadaren porrotaldi batek kalte larriak eragingo ote dizkion lehorreko armadari ere. Bestalde, Maiestate, har beza kontuan beste hau ere: balio handiko lagunak esklabo mesprezagarriak izan ohi dituzte, eta gizaki mesprezagarriek, aldiz, lagun baliozkoak. Hargatik, Berorrek, munduko gizonik goren horrek, aliatutzat agertu

nahi diren esklabo mesprezagarri ugari ditu, hots, egyptoarrak, zyproarrak, ziliziarrak eta pamphiliarrak, ezertarako ere gauza ez den jendea".

69. Artemisiak Mardoniori hori ziotson bitartean, hura begiko zuten guztiak penaturik zeuden haren hitzez, erregek zigorren bat ezarriko ziolakoan itsas borrokaren kontra agertzearren; aldiz, aliatu guztien artean Xerxesek estimu gehien zion lagunetariko bat izatearren gorroto eta bekaitz ziotenak, pozik zeuden haren hitzez, biziaz ordainduko zuela-eta. Alabaina, batzartuen iritziak jakinarazi zizkiotenean, Xerxesek oso atsegin izan zuen Artemisiarena, eta dagoeneko emakume baliozkotzat bazuen ere aspalditik, une hartan estimu askoz handiagotan hartu zuen. Hala ere, gehiengoaren irizpenari jarraitzea ebatzi zuen, zeharo konbentziturik baitzegoen Eubeako itsasaldean bere gizonak borrokarako uzkur azaldu baziren, bera han presente ez egoteagatik izan zela; baina borrokaldi honetan berbera egoteko asmoa zeukan oraingoan.

70. Itsasoratzeko agindua eman zenean, persiarrek Salaminarantz zuzendu zuten branka eta jasotako manuen arabera lerrokatu ziren aise borrokararako. Halere, eguna nahikoa aurrera zihoanez, une hartan ezin izan zuten borrokan sartu; gaua gainean baitzuten; beraz, hurrengo egunean erasotzeko prestakizunei ekin zieten.

Bitartean, beldurak hezurretaraino hartu zituen heleniarrak, batez ere peloponesoarrak; eta hona hemen beldur horren arrazoia, alegia, Salaminan zeudela, athenastarren lurraldearen defentsan jardungo zutela borrokan eta, garaituak gertatuz gero, uharte hartan isolaturik eta setiaturik geratuko zirela, beren aberria defentsarik gabe utziz horrela.

71. Gainera, barbaroen lehor-armada ere gau hartan bertan abiatu zen Peloponesori eraso egitera.

Dena dela, har zitezkeen neurri guztiak hartu ziren lurralde hura barbaroek lehorrez inbadi ez zezaten; izatez, Leonidas eta

bere gizonak Thermopyletan hondatuak zirela jakin bezain laster, peloponesoarrak beren hirietatik ahalik arinen Isthmora joan eta hantxe kokatu ziren, Kleombroto, Anaxandridesen seme eta Leonidasen anaia, buruzagi zutela. Isthmoan kokatzeaz gain, Szirongo bidea moztu zuten eta, jarraian, bileran iritziak entzun ondoren erabakitakoaren arabera, Isthmoan zehar murru bat eraikitzeari ekin zioten. Eta, hamar milaka asko izanik eta mundu guztiak lan eginez, eraikuntza hura aurrera zihoan: ekarri ere, harriak, adreiluak, enborrak eta harea otzarakadak zekartzaten, eta hara lanean joandakoek ez zuten atsedenik hartzen, ez gauez ez egunez.

72. Hona hemen nongoak ziren Isthmora auzolan egitera joandako jendetzak: lazedemondarrak, arkadiar guztiak, elidarrak, korinthoarrak, sizyondarrak, epidauroarrak, phliuntetarrak, trezendarrak eta hermionetarrak. Horiexek izan ziren, beraz, Helade arriskuan ikusteaz estu eta larri, beren lankidetza eskaintzera joan zirenak; gainerako peloponesoarren bost axola izan zien, eta hori Joko Olympikoak eta Karneo Jaiak bukatuak zirela.

73. Izan ere, Peloponeson zazpi herri bizi dira. Horietariko bi, arkadiarrak eta zynuriarrak, bertakoak dira eta antzina okupatzen zuten lurraldean bertan bizi dira gaur egun ere. Beste herri hau, Akhaiakoa, Peloponesotik irten ez den bakarra da, nahiz eta bere jatorrizko lurraldea utzi eta inorenera bizitzera joandakoa den¹⁶³. Zazpi horietatik beste lauak etorkinak dira, hots, doriarrak, elearrak, dryopidarrak eta lemnoarrak. Doriarrek hiri asko eta ospetsuak dituzte, eta etoliarrek bat bakarra, Elide; dryopidarrek, berriz, Hermione eta Asine dituzte, Kardamyle ondoan aurkitzen direnak, Lakonian; eta lemnoarrek, azkenez,

hiri paroreatar guztiak. Dirudienez Zynuriakoak dira (esan bezala autoktonoak) joniarrak arrazako bakarrak, nahiz eta, argostarren nagusitasunaren eta denbora joanaren eraginez, dorio bihurtu diren: orneatak hain zuzen, hango perieko batzuk.

Horrela ba, zazpi herriotatik aipatu ditudanak izan ezik, neutral mantentzen ziren; eta egia esatea zilegi bazait, neutraltasun horrekin mediarren kausa aldeztu zuten.

74. Beraz, Isthmoan aurkitzen ziren heleniarrek zeregin hartan jardun zuten, une hartan den-dena zegoela jokoan baitzekusaten eta untziteriaren aldetik ere ez baitzuten espero garaipen garbirik.

Salaminan aurkitzen ziren heleniarrak, beren aldetik, gotortze lan haien jakinean egon arren, ikararuta zeuden, ez horrenbeste beren bizia galtzeko beldur zirelako, baizik eta Peloponesogatik. Aldi batez, soldaduak elkarrekin bildu eta isilean marmarka ekiten zioten, Eurybiadesen zentzugabekeriak zurtuta; baina azkenean ezinegon hura agerira ateratu zen. Hortik bilera bat egitea gai horren gainean luze mintzatuz: batzuek zioten Peloponesorantz itsasoratu eta hura salbatzeko arriskuei aurre eman beharra zegoela, etsaiak jadanik konkistaturik zeukan eskualde baten alde borrokatzen geratu beharrean; athenastar, eginar eta megararrek, ordea, zeuden lekuan geratu eta defendatu behar zutela zioten.

75. Orduan Themistokles, bere tesia peloponesoarrenaren aurrean galtzaile aterako zela ikusirik, bileratik ezkutuan irteten eta gizon bat bidali zuen txalupaz mediarren kanpamendura, han zer esan behar zuen zehazki azalduz. Gizon horren izena Sizino zen, Themistoklesen morroi bat, haren seme-alaben tutorea konkretuki. Hain zuzen ere gertaera hauen ondoren, thespiarrek hiritar berriak hartu zituztenean, Themistoklesek Thespiako hiritar egin zuen eta aberastasunez bete.

Gizon horrek, bada, txalupaz hara heldu zenean, haxe esan zien barbaroen jeneralei: "Athenastarren jeneralak bidali nau, gainerako heleniarrek jakin gabe -izan ere, hura erregeren aldekoa baita eta nahiago baitu zuen kausa garai dadin, eta ez heleniarrena-, hauek beldurrez dar-dar eta ihes egiteko asmotan daudela jakinaraz diezazuedan, eta une honetan duzuela aukera, baldin ihes egitea eragozten badiezue, gerra honetako egitandi garrantzitsuena burutzeko. Izatez, adostasun eza da nagusi haien artean eta dagoeneko ez zaizkizue jarkiko, aitzitik, beraien untziekin elkarren artean borrokan ikusiko dituzue: aldeko dituzuenak etsai dituzuenen aurka".

76. Haiei hori jakinarazi bezain laster, Sizinok handik alde egin zuen; eta haiek, mezua sinesgarritzat jo zutenez, gudatalde trinko bat lehorreratu zuten, lehenengo eta behin, Salaminaren eta kontinentearen artean dagoen Psytalea uhartetxoan; jarraian, gauerdia iristean, mendebaldeko hegala Salaminarantz hurreratu zuten, maniobra inguratzaile bati hasiera emanez, eta gauza bera egin zuten Zeo eta Zynosura inguruetan kokaturiko untzi-lerroekin, Itsasartea oro zarratuz Munikhiaraino beren untziekin.

Persiar untziteriaren mugimenduok heleniarrei ihes egiteko aukerarik txikiena ere eragozteko zuten xedetzat, hantxe Salaminan setiaturik, haien larruaz ordain zitzaten Artemisioko balentriak. Eta Psytalea deritzon uhartetxoan soldadu persiarrak lehorreratzearen xedea haxe zen, alegia, borrokaldia hasi ondoren haraxe joango zirenez bai gizonak baita untzi-hondakinak (zeren uharte hura borrokalekuaren erdi-erdian izango baitzen), beraien lagunak salbatu eta etsaiak suntsitzea. Eta maniobra horiek isilgordean

egin zituzten, arerioak kontura ez zitezen. Beraz, persiarrek maniobra horiek burutzen jardun zuten gau osoan zehar, atsedetik gabe.

77. Orakuluei dagokienez, nik ezin dut benetan ere haien egiazkotasuna ukatu, ezen, ondoko kasu hau bezalakok aditzean, ez baitago haien erabateko argitasuna eztabaidatzerik:

Hara, urrezko ezpatadun Artemisaren hondartza, eta itsasoak bainaturiko Zynosaura untzi-zubi baten bidez lotzen dituztenean, Athenas distiratsua arpilatu eta gero desioz ero, orduantxe jo eta suntsituko du Justizia zerutiarrak dena irentsiko duelakoan irrikaz mozkor dabilen Koros boteretsua, Hybrisen kumea¹⁶⁴.

Brontzeak brontzearen kontra talka egingo du eta Aresek itsasoa odolez tindatuko, alajaina. Baina Kronida¹⁶⁵ begirada sarkorrekoak eta Nike ahaltzuak une horrexetan ekarriko diote Helasi askatasuna.

Horrelako kasuen aurrean, beraz, eta Bazis zein argi mintzo den ikusirik, ni neu ez naiz behintzat ausartzen orakulu horiei objektzioak jartzen, eta beste batzuek jartzea ere ez dut onartzen.

78. Bien bitartean, Salaminan zeuden jeneralek eztabaida liskartsuan jarraitzen zuten, oraindik ez baitzekiten, jakin ere, barbaroek beren untziekin inguratzeaz zituztenik; aitzitik, egunez lerrokaturik ikusi zituzten posizio berean jarraitzen zutela uste zuten.

79. Jeneralek eztabaidan ziharduten bitartean, Aristides Lysimakhorena iritsi zen Eginatik, herriak ostrazismora kondenatu zuen athenastar bat, izatez; hala ere nik, haren jokabideari buruz jaso ditudan informazioen arabera, Athenasen bizi zen gizonik gailen eta zintzoentzat daukat hura.

Gizon hori bilera egiten ziharduten lekura joan zen eta Themistoklesi mesedez irteteko eskatu zion, nahiz eta azken hau ez zuen laguna, baizik eta arerio okerrena; baina egoera hain larria izanik, beraien arteko gorabeherak bazterrera utzi zituen eta berarekin mintzatzeraz irten zedila eskatu zion, jadanik bazekielako peloponesoarren untziteria Isthmora lekualdatu gura zutela kosta ahala kosta.

Eta Themistokles irten zenean, honako haxe esan zion: "Gu biok norgehiagoka jardun beharra daukagu, eta inoiz baino gehiago orain, aberriaren alde zeinek zerbitzu handiagoak egin. Horregatik, berdin dela diotsut peloponesoarren hemendik joatearen alde berba asko ala gutxi egitea; zeren, neure begiez ikusi dudalako esan behar dizut, une honetan ezingo baitute Salaminatik irten, nahiz eta korinthoarren eta Eurybiadesek berak ere hori nahi, etsaiak guztiz inguraturik gauzkatelako. Sartu eta jakinaraz iezaiezu, bada".

80. Themistoklesek, orduan, honela erantzun zion: "Zure iradokizuna oso egokia da, eta ekarri didazun notizia ezin hobea, berriz, zeure begiez ikusi baituzu nik gertatzea gura nuena. Jakizu ni neu naizela mediarrek egiten ari direnaren eragile; izan ere, heleniarrek ez zuten nahi berenez borrokan sartu, haiek horretara derrigortzea beste erremediorik ez zegoen. Orain ba, notizia bikain hori zeuk dakarkiguzunez, jakinaraz iezaiezu horiei ere zuk zeuk. Izan ere, nik esaten badiet, neure asmakizuntzat joko dute eta ezingo ditut konbentzitu, zeren ez baitute sinetsiko barbaroek hori egin dutenik. Zoazkie, bada, eta azal iezaiezu zuk zeuk egoera. Eta azaldu ondoren sinesten baldin badizute, askoz hobea; baina zure hitzei federik ez badiete ematen ere berdin izanen da, zeren, alde guztietatik inguratuta bagaude diozun bezala, honezkero ez baitute izango ihes egiterik".

81. Batzarrera aurkeztu eta egoeraren berri eman zuen Aristidesek: Eginatik zetorrela esan zien, eta ozta-ozta lortu zuela ikusia izan gabe etsaiaren itsas blokeoa gainditzea; ezen untziteria heleniarra oro setiaturik zeukatela Xerxesen untziek; eta honen erasoari aurre egiteko presta zitezela aholkatzen ziela, beraz. Hori esan eta batzarretik irten egin zen, baina berriro ere batzartuen arteko eztabaida piztu zen, jeneral gehienek ez baitzuten sinesten berri hura.

82. Jeneralek mesfidati jarraitzen zuten hartan, desertore tenoarren triere bat iritsi zen, Panetio Tenokoa, Sosimenesen semea, kapitain zutela, eta egia osoa jakinarazi zieten azkenean. Ekintza horregatik, tenoarren izena Delphosko tripodean zizelaturik geratu zen, barbaroa bentzutu zutenen zerrendan.

Beraz, Salaminan desertatu zuen untzi honekin eta lehenago Artemision desertatu zuen Lemnokoarekin, untziteria heleniarra hirurehun eta laurogeira iritsi zen, ordurarte bi falta baitzitzaizkion zifra hori biribiltzeko.

83. Tenoarrek esandakoa egiazkotzat hartuz, heleniarrek borrokarako prestatu ziren, azkenean.

Egunsentia zela, jeneralek itsas armadako soldaduak bildu zituzten eta Themistoklesek inoizko hitzaldi sutuena egin zuen: giza izaeran eta jokaeran benetako orduan gerta daitekeen bikainena eta doilorrena kontrajarri zituen; eta, bi aukeretatik hoberena hautatzera animatu ondoren, untziratzeko agindua eman zien. Soldaduak horretan zeudela, Eaziden bila joandako trierea iritsi zen Eginatik. Heleniarrak, orduan, beren untzi guztiekin itsasoratu ziren, baina, horretan zihardutela, barbaroak erasora etorri zitzaizkien ustekabea.

84. Kinka horretan, heleniar gehientsuenak atzeraka arraunean hasi ziren, untziak kostalderantz bultzatuz, baina athenastar batek, Aminias Palenekoak, aurrerantz jarraitu eta untzi etsai bati tunkatu zion; eta, haren untzia trabaturik geratu zenez eta bi untzi etsaiok estekaturik, orduantxe etorri ziren gainerako heleniarrak Aminias sorostera, borrokaldiari hasiera emanez. Horrelaxe trabatu omen ziren borrokan, athenastarren esanetan; hala ere, eginarren esanetan, Eginara Eaziden bila joaniko untzia izan omen zen borrokaldiari hasiera eman ziona.

Honako jazoera hau ere kontatu ohi da, alegia: heleniarrei emakume baten irudia agertu zitzaizela eta agerkari hori adore ematen hasi zela untzietako heleniar orok entzuteko moduan, aldeztu aurretik honako hau aurpegira bota zielarik: "Dohakabeok! Noiz arte ihardun behar duzue atzeraka arraunean?"

85. Harira etorri, athenastarren aurrez aurre pheniziarrek zeuden lerrokaturik, azken hauek mendebaldeko hegala, Eleusis aldera zena, osatzen baitzuten, eta lazedemondarren aurrez aurre joniarrak ziren ekialdeko hegalean, Pireo aldera. Azken horien artean gutxi batzuk baino ez ziren izan Themistoklesen aholkuei jarraitu eta borrokan berariaz geldo ihardun zutenak, gehienek ez baitzuten horrela ihardun. Zentzu honetan, heleniar untiak harrapatu zituzten triereburu joniar askoren izenak aipa nitzake hemen, baina bi besterik ez ditut izendatuko: Theomestor, Androdamasen semea, eta Philako, Histieoren semea, biok samostarrak. Eta bi horiek bakarrik aipatzen baditut, persiarrek Theomestor Samosko tirano izendatu zutelako da, eta Philakori dagokionez, erregeren ongileen zerrendan sartu eta lurralde zabalen jabetzaz saritu zutelako. Erregeren ongileei orosangak deitzen diete persieraz, hain zuzen.

86. Horixe gertatu zen, beraz, bi horiekin; hala ere, unti persiar gehienak hondatuta geratu ziren, batzuk athenastarrek eta beste batzuk eginarrek suntsitu baitzituzten. Izatez, heleniarrek disziplinaz eta lerroan borrokatzen zutenaz eta barbaroek, ordea, lerroa mantendu gabe eta maniobretan koordinaziorik gabe, halabeharrezkoa izan zen gertatu zitzaiena gertatzea. Nahiz eta egun hartan, zalantzarik gabe, Eubean baino askoz finago eta adoretuago jardun zuten, zeren mundu guztiak jartzen zuten aparteko ahalegina Xerxes beldurrez, monarka so zegokiola uste izanik bakoitzak.

87. Horrela, gainerako borrokalariak ez dakit xeheki esaten nola borrokatu zuten barbaroetariko edo heleniarretariko bakoitzak. Baina Artemisiari dagokionez, erregek lehendik zion estimua areagotu zuten zerbait gertatu zitzaion. Erregeren aldekoak nahas-mahas hartan aurkitzen ziren unean hain zuzen, Artemisiaren untiari Atikako unti bat zetorkion jazarrika; eta honi ezin ziolarik ihes egin

-izan ere, zenbait untzi aliatu zituen aurrean enbarazuan, eta berea zen etsaiarengandik hurbilen zegoena-, honako hau egitea erabaki zuen eta emaitza ona eman zion: Atikako untzia atzetik zetorkiolarik, untzi aliatu bati tunkatu zion bortizki, untzi honetan tripulazio kalyndarra eta Damasithymo, Kalyndako erregea bera zihoazelarik. Alabaina, nik ezin dut zehaztu Artemisiak Damasithymo horrekin auziren bat izan zuen lehenago, oraindik Helesponton zeudenean, ezta ere nahita tunkatu zion ala Kalyndako untziak eta bereak bidean ausaz gurutzatzean elkar jo zuten. Dena dela, untzi hura jo eta hondoratzeak onura bikoitza ekarri zion Artemisiari: batetik, untzi atikarreko triereburuak, Artemisiaren untzia barbaroen untzi bati erasotzen ikustean, heleniartzat hartu zuen edo barbaroen flotatik desertatu eta heleniarrei laguntzera zetorren untzizat, eta, beraz, norabidea aldatzeko agindu eta beste batzuei erasotzera joan zen.

88. Eta halaxe lortu zuen ihes egitea eta heriotza ekiditea Artemisiak, lehenengo eta behin; baina, gainera, berak eragindako istripu hari esker, Xerxesen aurrean lehendik zuen ospea are nabarmenago bihurtu zen. Kontatzen dutenez, borrokaldiari begira zegoen erregek bere untzi bat beste bati oldartzen hauteman zuen eta aldamenean zegoenetariko batek hots egin: "Jauna, ikusten zein ondo diharduen Artemisiak borrokan eta zelan hondoratu duen untzi etsaia?" Egitandi hura benetan ere Artemisiarena ote zen galdetu omen zuen Xerxesek, eta aldamenekoek baietz erantzun zioten, ongi ezagutzen zutelako haren untziaren ezaugarria eta suntsitutako untzia etsaitzat hartu zutelako. Eta emakume hark, esan bezala, alde izan zituen zirkunstantzia guztiei beste hau ere gehitu zitzaien, hots, Kalyndako untziko bat bera ere ez zela bizirik atera hura salatzeko. Eta, kontatzen dutenez, Xerxesek hura entzutean, zera esan omen zuen: "Gizonak emakume bihurtu zaizkit, eta emakumeak gizon". Horra hor Xerxesek esan omen zuena.

89. Borrokaldi gogor hartan Ariabignes almirantea hil zen, Darioren seme eta Xerxesen anaia, baita entzute handiko beste

persiar, mediar eta aliatu asko ere, hala nola heleniarrak, baina azken hauek ez ziren izan asko; izan ere, igeri zekitenez, untzia hondoratu eta buruz buruko borrokatik salbu irtetea lortzen zutenak Salaminara igeri iristen ziren. Barbaroetariko gehienak, oster, igeri ez zekitenez, itsasoan galdu ziren.

Lehen lerroko gerrauntziek ihesari eman ziotenean, orduantxe galdu zituzten hain zuzen ere untzi gehien barbaroek; zeren bigarren lerroan zetozenek, beren untziekin aurrera jotzean eurak ere egitandiren bat burutzeko asmotan erregeren aurrean, ihesi zihoazen beraien flotako untziak abordatu zituzten.

90. Nahaste haren erdian beste gorabehera bat ere izan zen: beren untziak suntsitu zizkieten zenbait pheniziar erregeren aurrera aurkeztu eta joniarrak salatzen hasi ziren, hauen traizioarengatik galdu zituztela-eta beren untziak. Kontua da ezen, jeneral joniarrak ez zutela bizia galdu, baina gezurrez salatzen ziharduten pheniziarrek, ordea, honako era honetara jaso zutela merezitakoa: oraindik horretaz mintzo ziren bitartean, Samothraziako untzi batek Atikako bati egin zion eraso. Azken hau hondoratzear zegoenean, hara non untzi eginar bat Samothraziakoari oldartu eta hondoratu egin zuen. Baina samothraziarrek, txabalinarekin abilak direnez, hondora bota zituen untzikoak abaildu zituzten txabalinaz, eta untzira igo eta beronen jabe egin ziren. Jazoera honexek salbatu zituen joniarrak; izan ere, samothraziarrek egin berri zuten egitandi hura ikustean Xerxesek, haserrearen haserrez eta mundu guztiari errua leporatzeko gogoz, pheniziar haien aurka bihurtu eta lepoa motz ziezaietela agindu zuen, beraiek inor baino koldarragoak izanik gizon adoretsuagoak aurrerantzean gezurrez sala ez zitzaten. Izan ere, Xerxesek (Salamina aurrean dagoen eta Egaleo deritzon mendi barrenean jezarrita zegoelarik aulkian), beretarikoren batek borrokaldian zehar egitandiren bat burutzen zuela ikustean, hura zeinek egin zuen galdetu eta triereburuaren izena, baita honen aitarena eta

hiriarena ere, idaztarazten zien idazkariei. Bestalde, joniarren laguna zen Ariaramnes persiarra han egoteak ere izan zuen eragina, hein batean behintzat, pheniziar haien azken zorigaiztokoan. Halaxe bihurtu ziren, beraz, persiarrak pheniziarren aurka.

91. Barbaroak Phalerora iritsi nahian ihesi zihoazenean, Itsasartean zain zituzten eginarrek egitandi aipagarriak burutu zituzten. Izan ere, athenastarrek nahaspila hartan aurrez zetozkien nahiz ihesi zihoazen untziak suntsitzen zituzten bitartean, eginarrek ere gauza bera egiten zuten erretiradan zetozenekin. Horrela, untziren batek athenastarren eskutik ihes egitea lortzen zuenean, eginarrekin egiten zuen topo berehala.

92. Orduantxe egin zuten enkontru, hain zuzen ere, untzi etsai bati jazarrika zetorren Themistoklesen untziak eta Sidongo bati oldartu berri zitzaion Eginako Polykrito, Krioren semearenak (Sidongo untzi hori zen, hain zuzen, Sziathon goardian zegoen untzi eginarra harrapatu zuena, eta untzi horretan zihoan Phyteas, Iskhenoooren semea ere, zeina, larriki zaurituta egon arren, persiarrek barruan zeramaten bizirik, haren adoreaz mira eginda. Azkenean, beraz, persiar soldaduez gain Phyteas ere barruan zeraman untzi sidondar hori orduantxe harrapatu zuten eta Phyteas askatu, Eginara salbu itzuli ahal izan zelarik). Polykritok untzi atikarra ikusi zuenean, almirante untziaren ezaugarriari erreparatu zion eta Themistoklesi oihu batean aldarrika hasi zitzaion, mediarrenganako eginarren atxikipenarena isekaz eta irainez aurpegiaratu. Horra hor, bada, untzi etsai bati oldartu ondoren Polykritok Themistoklesi aurpegiaratu ziona.

Bestalde, suntsitu gabe atera ziren untzietako barbaroak Phalerora iritsi ziren ihesi eta hementxe geratu ziren lehorreko armadaren babespean.

93. Itsas borroka horretan laudorio gehien jaso zutenak eginarrak izan ziren, eta horien ondoren athenastarrak; gerlarien artean, berriz, Polykrito eginarra batetik eta Eumenes Anagyruntekoa eta Aminias Palenekoa bestetik, azken hau Artemisiari jazarri ziona, hain zuzen. Eta jakin izan balu untzi hartan Artemisia zihoala, ez zukeen amorerik emango hura harrapatu arte ala bera gatibu erori arte, horixe baitzen athenastar triereburuek hartutako agindua; are gehiago, hamar mila drakmako saria zegoen hura bizirik harrapatzen zuenarentzat, onartezina baitzeritzoten emakume batek Athenasi gerra egitea¹⁶⁶. Dena dela, lehenxeago esan bezala, Artemisiak ere ihes egitea lortu zuen; eta Phaleron zeuden, halaber, suntsitu gabe geratu ziren gainerako untziak.

94. Adimanto jeneral korinthoarrari dagokionez, athenastarren esanetan, borrokaldia hasi zen unean bertan galdu omen zuen burua, izuak hezurretaraino hartuta, eta belak jasotzeko agindu eta ihesari eman; eta Korinthokoek, almirante-untzia ihesi zihoala ikustean, beste horrenbeste egin zuten. Alabaina, Salaminako lurraldean den Athenea Sziraderen santutegi parera iritsi zirenean ihesi, jainkoek hala nahi eta, txalupa batekin egin omen zuten topo (inork ez daki txalupa hura zeinek bidali zuen, eta bidera irten zitzaienean, gainera, korinthoarren ez zeukaten untziteria heleniarraren zoriari buruzko inongo berririk). Eta gertaera hura naturaz gaindikotzat hartzen da, zeren, untzi korinthoarretatik hur zeudenean, honako haxe esan baitzuten txalupakoek: "Adimanto, zure untzion norabidea aldatu eta ihesari ematean, heleniarrei traizioa egin diezu; haiek, ordea, beraien erreguetan eskatzen zuten hein-heinean ari zaizkie gailentzen etsaiei". Txalupakoek ziotena Adimantok zalantzan jartzen zuenez, beren buruak bahitzat eskaintzeko prest zeudela erantsi zuten, baita bizia galtzeko ere, heleniarraren garaipena egia ez balitz; hortik Adimantok branka biratzeko agindua ematea eta gainerako korinthoarrekin batera itsas armadara biltzea, dena bukatuta zegoenean. Horra hor korinthoarren buruz athenastarrek zabaltu duten esamesa, baina korinthoarren euren, jakina, horrekin ados egotetik urrun, itsas borrokaldi hartan lehenengo lerroan borrokatu zutela esango dizute; eta gainerako Helade ere horren lekuko dute.

95. Aristides, Lysimakhoren semea dagokionez, lehenxeago gizon athenastar gailentzat aipatu dudana, hara zer egin zuen

horrek Salaminako nahaspila haren erdian: Salaminako kostaldean zain utzitako athenastar hoplitetariko mordo bat untzian hartu eta Psytalean lehorreratu zen haiekin, eta uhartetxo horretan ziren persiar guztiak hil zituzten.

96. Itsas borrokaldi hura bukatu ondoren, heleniarrek Salaminara eraman zituzten oraindik inguru hartan aurkitzen ziren untzi-hondakinak eta beste borrokaldi baterako prestatzen hasi ziren, erregek berriro erabiliko zituela uste baitzuten geratzen zitzaizkion untziak.

Halatan, bat-batean sortu zen mendebaleko haize batek untzi-hondakin mordoan eraman zuen Kolias deritzon Atikako kostaldera, eta horrela, borrokaldi hartaz Bazisek eta Museok egindako iragarpenez gain, aipu dugun garai hori baino urte asko lehenago Lysistrato zeritzon igarle athenastarrak herrestan iritsitako untzi-hondakin horiei buruzko iragarpen bat egin zuen, zeinen esangurari ez zion heleniarretariko inork antzeman:

Koliasko emakumeek arraunekin ihardungo dute xigorketan¹⁶⁷.

Eta halaxe gertatu zen erregek handik alde egin eta gero.

97. Gertatu zitzaion hondamenaz jabetzean eta joniarren batek heleniarrei Helespontora joan eta zubiak eraistea iradokiko ote zien beldurrez (edota heleniarrek eurek erabaki hori hartuko zuten beldurrez), Europan blokeaturik eta bizia galtzeko arriskuan gera zitekeelarik horrela, Xerxes ihesean pentsatzen hasi zen. Baina ez zuenez nahi bere asmo hori ez heleniarrei ez bere gudarosteei ere adierazterik, Itsasartean zehar morru bat Salaminarantz erakitzen saiatzeko agindua eman zuen, gaulo pheniziarrak elkarlotuz pontoi eta kareltzat, eta gerra prestakizunetan jardun zezatela, beste itsas erasoaldi bat burutzeko asmoa bailuen.

Jarduera hori zekusaten gainerako guztiek uste zuten, uste osoz, Xerxesek han geratzeko eta gerran jarraitzeko asmo irmoa zuela; baina neurri horietariko batek ere ez zuen engainatu ostera Mardonio, honek inork baino hobeto ezagutzen baitzituen erregeren asmoak.

98. Neurri horiek hartzeaz gain, Xerxesek mezulari bat bidali zuen Persiara, gertaturiko ezbeharraren berri eman zezan. Hortaz, ez da gizakumerik mezulari horiek baino azkarrago hel daitekeenik jomugara, hain da eraginkorra persiarrek asmatu duten prozedura. Diotenez, ibilbide osoak dituen bidaiegunen arabera, bidaiegun bakoitzeko zaldi bat eta zaldizko bat daude prest, tarterik tarte; eta ez elurrak, ez euriak, ez beroak, ez gauak eragozten diete bakoitzari dagokion tarte abiada biziz korritzea. Lehenengo postariak, bere ibilaldia burutu ondoren, bigarrenari ematen dizkio mezuak, eta bigarrenak hirugarrenari, eta horrela jarraian postaz posta, ibilbide osoa bete arte, Hephestoren ohorez Heladen egiten den zuzi-lasterketaren antzera. Posta-sistema honi angareion deitzen diote persiarrek.

99. Horrela, Xerxes Athenasen jabe zela zioen mezua heldu zenean Susara, hain poz zoragarria eragin zuen herrian geratutako persiarrengan, non mitre abarrez kaleak estali, gai lurrintsuak erre eta ospakizun eta jaialdiei ekin zien jendeak. Aldiz, horren jarraian heldu zitzairen bigarren mezuak halako durduzadura eragin zuen, non bizilagun guztiek jantziak urratu zituzten eta amaigabeko oihi eta lanturutan hustu ziren, Mardoniori errua leporatuz. Eta persiarren jarrera hura ez zen batik bat untziak galtzearen nahigabeturik zeudelako, baizik eta Xerxesi berari gerta zekiokkeenaren kezkaz.

100. Aldarte horrexek iraun zuen Persian luzaro batean, harik eta Xerxesen beraren etorrerak menpekoak lasaitu zituen arte.

Bien bitartean Mardoniok, itsas borrokaldiaren emaitzarengatik Xerxes hain jota ikustean eta Athenastik ihes egiteko asmotan zebilela susmatuz, zigorra jasotzear zela pentsatu zuen bere baitan, Heladeren aurka espedizio hura antolatzena bultzatzearen errege, eta hobe izango zuela arrisku berriei aurre egitea, dela Helade menperatuz, dela helburu garrantzitsuen izenean bizia ohorez galduz (hala ere, Helade menperatzea lortuko zuelakoan zegoen gehiago); gogoeta horien guztion ondorioz, honako proposamena luzatu zion Xerxesi: "Jauna, ez daukazu zertan nahigabetu ez horrenbeste atsekabe hartu, ezta gutxiagorik ere, gertatu denagatik. Gure kanpainaren azken zoria ez baitago zur batzuen menpe, gizonen eta zaldien menpe baizik. Gainera, jadanik dena lortu dutelakoan dauden horietariko inor ere ez da untzietatik lehorreratuko zuri oldartzen saiatzeko, ezta kontinente honetako inor ere ez da horretan saiatuko; oldartu zaizkigunak hartu baitute dagoeneko merezitakoa. Beraz, egoki baderitzozu, eraso diezaiozun luzagabe Peloponesori; edota oraindik itxaron beharra badakusazu, itxaron ere egin dezakegu. Ez zaitez gogogabe, dena den. Heleniarrek ez dute inolako aukerarik zure esklabo izatea ekiditeko, oraingo eta lehengo ekintzengatik kontuak eman ondoren. Hobe duzu, beraz, esan dizudana egitea; halere, zure gudarosteen buruan erretiratzea erabaki baldin baduzu, nik badut beste plan bat ere. Ez bezate, oi errege, heleniar horiek persiarrez trufarik egin; gertatu zaizuna ez baita inondik ere persiarren erruz izan, aitzitik, ezingo duzu kasu bat ere aipatu koldarki jardun izan dugunik. Pheniziarrek, edota egiptoar, zyproar edo ziliziarrek horrela jardun badute, ondiko hau ez dago inola ere persiarrei leporatzerik. Hitz batez, persiarrak ez dituzunez erantzule, egidazu

kasu: Heladen geratzeko asmorik ez baduzu, gudaroste gehienak hartu eta aberrira itzul zaitezke, eta nire esku gera dadila Helade esklabo egin eta zure menpe jartzea, baldin eta zure armadako hirurehun mila gizon hautatzerik badut".

101. Hitzok entzun ondoren, Xerxes, arazoez aske sentituz, biziki poztu zen eta zera erantzun zion Mardoniori, gai horretaz deliberatu eta gero jakinaraziko ziola bi aukeratariko zeinetara makurtzen zen. Eta persiar aholkulariekin deliberatzen ari zela, Artemisiari ere aholku ematera deitzea erabaki zuen, aurrekoan berak bakarrik jakin zuelako asmatzen, zalantzarik gabe, zer zen egokiena. Hura heldzean, Xerxesek beste guztiei irteteko agindu zien, hala Kontseiluko aholkulari persiarrei nola errege-guardiari, eta honako hauxe esan zion Artemisiari: "Hemen geratu eta Peloponesori eraso egitera aholkatu nau Mardonio, persiarrei eta lehorreko armadari ezelako hondamendirik ezin lepora diezaiedala argudiatuz eta atsegin izango luketela hori frogatu ahal izatea. Niri horixe egitea iradokitzen dit, beraz; baina osterantzean, bera prest legokeela diost Helade esklabo egin eta nire menpe jartzeko, baldin eta nire armadako hirurehun mila gizon hautatzerik balu, eta niri dagokidanez, berri, gudaroste gehienarekin aberrira itzultzeraz aholkatzen nau. Beraz, eta burutu berri den itsas borrokaldiari buruz hain ondo aholkatu ninduzenez hura ez egitera bultzatuz, emaidazu orain ere aholku, ea zein aukerari atxiki beharko niokeen erabaki zuzena har dezadan".

102. Horrela aholku eskatu ziolarik, emakumeak hauxe erantzun zion: "Maiestate, ez da erraza aholku eskatzen duen bati egokiena zer datekeen esatea, baina hala eta guzti ere, oraingo egoera honetan eta Berorri dagokionez, Berorrek aberrira itzuli beharko lukeela uste dut, eta Mardonio utzi hemen -berak hala nahi badu eta hitz eman duena betetzeko konpromezua hartzen badu-, berak hauta ditzan soldaduekin. Izan ere, menpean jarri nahi duena menpera ekartzea lortzen badu eta berak dioen plana ondo ateratzen bazaio, arrakasta hori, jauna, Berorri dagokio, Berorren esklaboek lortuko baitute. Baina, gainera, Mardonio uste duenaz beste gertatzen bada ere, ez da izango horren hondamendi handia, ezen Berori salbu izango baita, hala nola Berorren dinastiari dagokion guztia. Izatez, bai Berori baita Berorren dinastia salbu izanez gero, heleniarrek beste kanpaina askori eutsi beharko diete bizia salbatzeko. Eta Mardoniori dagokionez, ezer gertatzekotan ere, ez da izanen garrantzitsua, zeren, heleniarrek garaitzen badute ere, garrantzirik gabeko garaipena izanen baita, Berorren esklabo bat besterik ez baitute hilko. Berori, ordea, espedizioaren helburutzat jarritakoa bete eta gero itzuliko da, alegia, Athenasi su eman eta gero".

103. Xerxesek atsegin izan zuen, jakina, Artemisiaren aholkua; honek ziotsona eta berak pentsatzen zuena guztiz bat zetozelako (nire aburuz, mundu guztiak -gizon ala emakume izan- geratzera aholkatu balu ere, erregek ez ziokeen egingo kasurik; hain zegoen izuak hartuta). Artemisia laudorioz bete zuen, bada, eta bere semeak Ephesora eramatera joateko agindua eman zion; izan ere, errege zenbait ume sasikorekin etorri baitzen.

104. Semeok zaintzeko, Hermotimo bidali zuen, izatez Pedasakoa eta erregek bigarren mailako eunukotzat ez zeukana. (Pedasarrei dagokienez, Halikarnasoren iparrera bizi dira; eta herri horretan honako fenomeno hau gertatzen da: hiri horren inguruetako herriei zerbait gertatzera dihoakienean, hain justu orduantxe, Athenearen bertako sazerdotesari bizar sarria irteten zaio. Eta hori birritan gertatu zaie jadanik.

105. Pedasa horretakoa zen, bada, Hermotimo hura.)¹⁶⁸

Eta berau izan da, nik ezagutzen dudanetik behintzat, jasandako laido batez mendeku hartu dutenetatik beste ezein baino gupidagabeago, zalantzarik gabe. Bada, etsaiak gatibu hartu eta salgai jarri zuelarik, Kiosko Panjoniok erosi zuen, lanbide guztietarik nardagarriena zuena bizibidetzat, hots, mutil gazte lerdenak erosten zituen eta, irendu ondoren, Sardes eta Ephesora eraman eta oso

garesti saltzen zituen, zeren barbaroen artean eunukoak, konfiantza osokoak izatearren, giza atributu osodun esklaboak baino garestiagoak baitira. Horrela ba, lanbide horretatik bizi zen Panjonio hark irendu zituen gazte askoen artean, gure Hermotimo zegoen. Baina ez pentsa hau gizagaixo bat izan zenik bere bizitzako arlo guztietan: Sardestik erregerenera eramán zuten beste opari batzuen artean eta, denbora joan ahala, Xerxesen eunuko kutun bihurtu zen.

106. Errege bere gudaroste persiarrarekin Athenasen aurka etorrita Sardesen zegoela, Hermotimo zenbait arazo konpontzera jaitsi zen Atarneo deritzon eta khiotarrek okupatzen duten Mysiako eskualdera, eta han Panjoniorekin egin zuen topo. Hura ezagutzean, luze eta adeitsu mintzatu zitzaion: lehenik eta behin, berari esker zituen pribilegio ugarien aipamena egin zuen, eta, jarraian, horien guztion ordainetan berari ere zenbait mesede egingo ziola agindu ziolarik, baldin lurralde hartara baletor bizitzera bere etxekoekin, Panjoniok gogoz onartu zion proposamena eta haraxe aldatu zen bere seme-alaba eta emaztearekin. Alabaina, Hermotimok bere esku izan zuenean etxeko guztiekin batera, honako hau esan zion: "Zalantzarik gabe munduan den lanbide nardagarrienaz baliatuz bizitzan gora egin duzun merkatari hori! Zer kalte egin nizun nik, bada, zuri edo zure etxekoren bati?, egin al zizun kalterik nire arbasoetarikoren batek, ni nintzen gizonetik gauzeztan bat bihur nintzazun? Jainkoek ez zirela ohartuko uste al zenuen zure orduko gaiztakeriaz? Beraiek dira beren jokalege zuzenez nire esku jarri zaituztenak zure bidegabekeriengatik, eta zu ez zara deskontentu geratuko, alajaina, ezarriko dizudan zigorrak".

Gaizkiok aurpegiratu zizkionean, Panjonioren semeei etorrazazi zien, lau baitziren, eta beraren semeak eurak irentzera behartu zuten hura, horrela egitera derrigorturik; eta hark hori egin ondoren, bere semeak ere derrigortu egin zituzten hura irentzera. Eta halaxe iritsi zitzaion Panjonioren mendekua Hermotimoren bidez.

107. Xerxesek bere semeak Artemisiaren kargu utzi ondoren Ephesora eraman zitzaion, Mardoniori deitu eta beronek nahi zituen soldaduak aukeratzeko agindu zion, emaitzak hitzen arabera izan zitezkeen ahalegin zedila esanez. Horixe dena, eta ez besterik, gertatu zen egun hartan.

Gaua iristean, almiranteek, monarkak hartaratu, untiak Phalerotik aterarazi zituzten, ahalik abiadura handienez Helespontora itzul zitezkeen zubi flotagarriak zaintzera, erregeek zeharkatu ahal zitzaion. Halatan, itsasoan zehar zihoazelarik Zoster parean, kostalde horretan txuntxur txiki batzuk itsasora sarturik direnez, barbaroek untzizat hartu zituzten eta ihesean jardun zuten tarte aski luzez; harik eta, azkenean, untiak barik txuntxur batzuk besterik ez zirela konturatu eta denak bildurik zeharkaldiari berriro ekin zioten arte.

108. Heleniarrek, berriz, lehorreko armada etsaia bere posizioetan zetzala ikustean egunsentian, untziteria ere Phalero inguruan ibiliko zela uste izan zuten, eta barbaroak untziekin erasora etorriko zitzaizkielakoan, eraso horri aurre egiteko prestatu ziren. Baina untziteria hark alde egin zuela jakitean, jazartzera irtetea erabaki zuten, denborarik galdu gabe. Eta halaxe oldartu ziren, oldartu ere, Xerxesen untziei jazartzera Andoraino, baina ez zituztenez begibistan, uharte horretan lehorreratu eta iritzia hartzeko bildu ziren.

Horrela, Themistokles unti etsaiei jazartzen jarraitzearen alde agertu zen, jarraian Helespontorantz branka jarri eta hango zubiak suntsitzeko. Baina Eurybiades plan horren aurka azaldu zen, zubi flotagarriok suntsituz gero, Heladeri sekulako kaltea etorriko zitzaiola argudiatuz: "izan ere -erantsi zuen-, Persiarrak blokeatuta aurkitzeagatik Europan geratu beharra badu, geldi ez geratzeko ahalegin guztia egingo du, ezen geldi geratzeak ez bailioke batere lagunduko egoera hobetzen eta, aberrira itzultzeko aukerarik gabe, gudarosteak gosez hilko litzazkioke. Aldiz, inizatiba hartzea erabakiko balu erabaki irmoz, baliteke Europa osoa, hiriz hiri eta nazioz nazio, haren aldera igarotzea, batzuk konkistatu egingo dituelako dudarik gabe, eta beste batzuk, berriz, konkista ditzan baino lehen, harekin itunduko direlako; eta, gainera, tropari jaten emateko, Heladeko urteroko uztaz baliatu ahal izango dira aldiro. Baina ni konbentziturik nago, ordea, Persiarrak, itsas borrokan garaitua izan ondoren, ez duela Europan geratzeko asmorik; utz diezaiogun ihes egiten, bada, bere aberriraino erretira dadin arte; eta ordutik aurrera beraren jabetzako lurak izan daitezela guduzelai". Horixe iradoki zien, bada, eta gainerako peloponesoarren jeneralak ere iritzi berekoak ziren.

109. Themistoklesek, konturatu zenean ezin izango zuela gehiengo konbentzitu Helespontorantz itsasoratzeko, jarreraz aldatu eta honako haxe esan zien athenastarrei (berauek baitziren barbaroen ihesak gehien sumintzen zituenak eta Helespontorantz itsasoratzeko prest zeudenak, nahiz eta beren kabuz eta arriskuz izan, gainerakoek joaterik nahi ez baldin bazuten ere): "Nik neuk ikusi dut sarritan, eta entzun ere egin dut halaxe gertatu izan dela maiz, soldadu garaituek egoera etsian aurkitzean borrokara jotzen dutela berriz ere, eta lehengo ahulezia gainditu egiten dutela. Horregatik, eta hala guk geuk nola Heladek horren ustekabeko arrakasta izan dugunez hain soldadu-kopuru ugariari aurka egitean, ez dezagun jazarri ihesari eman dion etsaia. Zeren egitandi hori ez baitugu guk geurez burutu, baizik jainkoek eta heroiek, zeinek oso gaizki baitzekusaten Asian eta Europan gizon bakar bat izatea nagusi, gizon sakrilego eta ankerra gainera,

berdin ziona santutegi zein bizitegi, eta jainkoen imajinak idulkietatik erauzi zituena, eta itsasoa bera ere zigortu eta girgiluz atxilotu zuena. Horrela ba, une honetan egoera onean garenez, gera gaitezen oraingoz Heladen eta har dezagun geure buruen eta etxekoen ardura: berreraiki beza, bada, guretariko bakoitzak bere etxea eta ekin biezaio soroan ereiteari, Barbaroa behin-betiko egotzi dugunez. Eta udaberria heltzean, joan gaitezen orduan Helespontora eta Joniara!"

Horixe esan zuen hark, Persiarraren aurrean eskerrona irabazteko asmoz eta, inoiz athenastarrendik ezbeharren bat baletorkio, aterbea izan zezan, gertatu ere gertatuko zen moduan.

110. Themistoklesek berba horiekin athenastarrak engainatu nahi zituen, eta hauek sinestu egin zioten; izan ere, lehenago maltzurtzat bazuten, orain maltzurra bezain zuhurra zela erakustean argi eta garbi, hari sinestera makurturik zeuden, zioena zioela. Athenastarrak limurtu bezain laster, bada, Themistoklesek bere konfiantzazko gizon batzuk bidali zituen txalupa batean (eta horien artean berriro ere Sizino, bere morroia), edozelako tormentuak ezarrita ere ez zuketena ezagutzera emango, ziur zegoen horretaz, erregeri esateko berak pertsonalki agindutakoa. Mezulariok Atikara iritsi zirenean, Sizino izan ezik beste guztiak txalupan geratu ziren, eta hark Xerxesengana igon eta honako hauxe esan zion: "Noeklesen seme den Themistoklesek bidali nau, athenastarren jenerala eta aliatu guztietarik ausartena eta zuhurrena, hauxe esateko mandatuz: berak, Athenasko Themistoklesek, Berorri mesede bat egitearren, untziteriari jazarri eta Helespontoko zubiak suntsitu gura zituzten heleniarrak geldiarazi dituela. Eta orain, beraz, lasaitasun osoz abiada daitekeela Berori".

111. Mezu hau ezagutzera eman ondoren, mezulariak beren txalupan itzuli ziren; heleniarrek, bitartean, barbaroen untziteria itsasoan barna jazartzen jarraitzeari eta Helespontora zubiak eraisten joateari amore eman ondoren, Andro setiatu zuten, hura suntsitzeko asmoz. Androkoak izan baitziren, izan ere, Themistoklesek exigitu zien dirua emateari uko egin zioten lehen uhartetarrek. Are gehiago, Themistoklesek gogoeta gisa eranstea bi dibinitate boteretsuren laguntzaz zetoze, Limurne eta Beharne¹⁶⁹ alegia, eta derrigorrez eman beharko zutela beraz diru hura, androarrek beste hau erantzun zioten, hots, arrazoiz zela bai Athenas hiri boteretsua eta narea, halako dibinitate lagunkoiak baitzituen; androarrei zegokienez, oster, hain neurri larriraino izanik lurgabeak, eta, uharte sekula ere utzi gabe beti bertan zirauten eta horren lagunkoi ez ziren bi dibinitate zituztenez patroitzat, Larderia eta Ezina, ez zioten dirurik emango; zeren athenastarren ahalmena ez zatekeen sekula ere beren ezina baino handiagoa.

112. Androarrek horrela erantzun eta dirurik ez zuten eman, beraz, setiatu egin zituzten. Eta Themistoklesek, bere dirugose aseegin harekin, gainerako uharteei ere mehatxuzko mezuak igorri zituzten, lehenago erregeri mezua bidaltzeko erabili zituen mezulari berberen bidez, eta dirua exigitu zien, eskatzen ziena ez bazioten ematen, untziteria heleniarraren buruan joango zitzaizela adieraziz, uharteok setiatu eta suntsitzera. Mehatxu horien bidez, diru-kopuru handiak jaso zituen Karystoko eta Parokoengandik, hauek, izan ere, Androkoak mediarren aldekoak izatearren setiatu zeudela eta Themistokles zela izen handieneko jenerala jakitean, gauza guztiongatik beldurtu egin ziren eta dirua bidali zioten. Egia esan, nik ez dakit zehazki esaten beste uhartetarren batzuek

dirurik eman ote zioten, baina uste dut bai eman ziotela beste batzuek ere, goian aipatu ditudanez gain. Dena dela, karystoarren ez zuten lortu hala ere beren zoritxarra atzeratzerik; aldiz, parostarren bai lortu zutela diruaren truke Themistokles baretzea eta untzien erasoa ekiditea. Horrela, beraz, Themistoklesek Andro operazio basetzat hartu eta uhartetarren lepotik dirutan ziharduen, gainerako jeneralek jakin gabe.

113. Bitartean, Xerxes eta bere gudarosteak, itsas borrokaldia burutu eta gero egun batzuk itxaron ondoren, Atika utzi eta Beoziantz abiatu ziren etorri ziren bide beretik. Hortaz, Mardoniok ere egoki iritzi zion monarkari laguntzea, eta, gainera, urtesasoi hura operazio militarretarako desegokia zela kontuan hartuz, hobe zelako negua Thesalian igarotzea eta geroago joatea -hurrengo udaberrian- Peloponesoren aurka.

Thesaliara iristean hautatu zituen Mardoniok, lehenengo eta behin, "Hilezkorrak" deritzeten soldadu persiar guztiak, Hydarnes salbu (honek uko egin baitzion erregea uzteari), eta jarraian, gainerako persiarren artetik korazaz horniturik zeudenak aukeratu zituen, hala nola mila zaldizkoren eskoadroi bat, eta horren ondoren Media, Saka, Baktra eta Indiako tropak, hala oinezkoak nola zaldizkoak. Herri horietako gudarosteak beren osotasunean hartu zituen, eta gainerako aliatuen artetik gudaroste bakoitzeko gutxi batzuk baino ez: gorpuzkera onekoak eta egitandiren batean parte hartu zutela zekienak. Gainerako herrietatik gehien hobetsi zuena hautaketan persiarrena izan zen, idunekoez eta besokoez apainduriko soldaduak, eta ondoren mediarrena; azken hauek ez ziren persiarrak baino gutxiago kopuruz, nahiz eta bai borroka ahalmenean. Horrela, guztizkoa, zaldieria barne, hirurehun mila gizonera iristen zen.

114. Bien bitartean, Mardoniok bere gudarosteak hautatzen ziharduela eta Xerxes Thesalian zegoela, lazedemondarrei orakulu bat heldu zitzaien Delphostik, zeinen arabera ordain bat exigitu beharko ziokeeten Xerxesi Leonidasen heriotzarengatik,

eta hark eman ziezaiena onartu. Spartarrarek, noski, heraldo bat bidali zuten behingoan, eta honek, oraindik bere osotasunean zegoen armada aurkitzean Thesalian, Xerxesengana aurkeztu eta haxe esan zion: "Mediarren errege hori, Spartako lazedemondarrek eta Heraklidek heriotza baten ordaina exigitzen dizute, haien errege hil baitzenuen, Helade defendatzen ari zela". Xerxesek orduan barre egin zuen, eta, isilune luze baten ondoren, hain suertez ere alboan zeukan Mardonio seinalatuz, honela egin zuen hots: "Ados! Hemen aurrean daukagun Mardoniok emango die merezi duten ordaina!"

115. Normala denez, heraldoak erantzuna jasotzera mugatu eta bueltako bidea hartu zuen. Xerxes, bere aldetik, Mardonio Thesalian utzi eta Helespontora abiatu zen ahalik azkarren, berrogeita bost egunen buruan iritsi zelarik, ezerezero murritzuriko gudaroste baten buruan -zeozelan deitzearren-, itsaso hura etorreran zeharkatu zuen lekura. Aurrera egin ahala eta aurkitzen ziren herrian aurkitzen zirela, bertako lurretako fruituez jabetzen ziren eta dena jaten zuten, eta fruiturik aurkitzen ez bazuten, landetako belarra hartzen zuten jateko, edota zuhaitzen azala edo hostoak erauzi -hala frutarbolenak nola basa zuhaitzenak- eta dena irensten zuten, ezertxo ere utzi gabe; hartara bultzatzen zituen eta goseak. Gainera, soldaduen artean sortu zen izurri batek, eta disenteriak, bidean joan ahala bakanarazten zuen gudarostea. Gaixotzen zirenak atzean uzten zituen Xerxesek, erretiratzean iragaten zituen hiriei gaixook zaindu eta mantentzeko agindua emanez: batzuk Thesalian utzi zituen, beste batzuk Peoniako Sirisen, eta beste batzuk Mazedonian. Etorreran, Heladeren aurka zetorrela, hantxe Sirisen utzi zuen, hain zuzen ere, Zeusi¹⁷⁰ sagaraturiko zalgurdia, baina itzultzerakoan ezin izan zuen hura berreskuratu, zeren Peoniarrek thraziarrei eman baitzieten, eta Xerxesek erreklamatzerakoan, zera esan zioten, Strymonen iturburuen inguruetan bizi diren Iparraldeko thraziarrek lapurtu zituztela behorrak, larrean bazkatzen ari zirenean.

116. Eta inguru horretan gertatu zen, hain zuzen ere, Bisaltia eta Krestonia lurraldeetako erregek burutu zuen ekintza hastangarria. Berak ez zuela sekula ere gogoz jasango adierazi zuen Xerxesen esklabo bihurtzea eta, horregatik, iparralderantz abiatu zen, Rhodope mendirantz, eta debekatu egin zien bere semeei Heladeren aurkako espedizioan parte hartzea. Hauek ordea, debeku hori aintzakotzat hartu gabe, edota kanpaina haren sogile izan nahi zutelako besterik gabe, persiarren espedizioari bildu zitzaizkion. Eta horregatik, salbu eta kaltegabe itzuli zirenean seiak (sei baitziren), aitak begiak aterarazi zizkien.

117. Zigor horixe jaso zuten, beraz, haiek.

Bitartean persiarrek, Thrazia zeharkatu ondoren Itsasartera heldu zirenean, beren untzietan Helesponto presaka iragateari ekin zioten Abydorantz; izan ere, ez zituzten aurkitu zubi flotagarriak han jarrita, baizik eta ekaitz batek apurtuta. Leku hartan gelditu egon ziren bitartean, ibilbidean zehar baino jateko gehiago izan zuten, baina neurri gabeko betekaden ondorioz, eta edateko uren aldaketarengatik, gudaroste hondakin hartako soldadu asko hil zen. Gainerakoak Sardesera iritsi ziren Xerxesekin batera.

118. Bada hala ere beste bertsio bat, honako hauxe: Xerxes, Athenastik itzultzean, Strymon ertzeko Eionera iritsi zenean, hiri honetatik aurrera ez omen zuen lehorrez jarraitu, baizik eta bere gudarosteak Hydarnesen esku utzi ondoren, untzi pheniziar batean untziratu omen zen Asiara joateko. Baina zeharkaldi erdian, Strymon aldetiko haize zakar batek eragindako itsaskiak harrapatu zituen ustekabean. Eta ekaitza txarrerantz zihoanez eta untzia ere gainkargaturik Xerxesekin batera zihoazen soldadu persiar ugariz, errege kinka hartan izuak hartu omen zuen, ea salbatzeko aukerarik ote zegoen galdetuz oihuka pilotuari. "Jauna -erantzun zion pilotuak-, pasaiari gehiegizko horiez libratu ezean, ez dugu inongo aukerarik". Eta hitzok

entzun ondoren, honela oihu egin omen zuen Xerxesek: "Persiarrok! Erakuts beza kinka honetan zuetariko bakoitzak erregeri dion atxikimendua, zeren dirudienez zuon esku baitago ni salbu ateratzea!" Horixe esan zuen Xerxesek, eta, orduan, persiarrek haren aurrean ahozpeztu eta itsasora egin zuten jauzi, eta untzia horrela pisuz arindu ondoren, salbu lehorreratu omen zen Asian. Eta lehorreratu bezain laster, honako hau egin omen zuen Xerxesek: pilotu hari urrezko koroa bat erregalatu, erregeren bizia salbatzearren; baina jarraian lepoa moztarazi, hainbeste persiarren heriotza eragitearren.

119. Horra hor, bada, Xerxesen itzulerari buruzko beste bertsioa, nahiz eta niretzat zeharo sinestezina den, batez ere persiarren heriotzari buruzkoa; zeren pilotuak benetan ere goian aipatu dudana Xerxesi erantzun balio, bil litezkeen hamar mila aburuetarik batek berak ere ez luke utziko aipatu gabe erregek honako hau egin zukeela: untzigaineko persiar haiei arraungelara jaisteko agindu (persiarrak baitziren, eta etxe onenetako persiarrak gainera), eta persiarrok adina ziren arraunlari pheniziarrek itsasora jaurti. Hargatik, lehenago esan dudan bezala, Xerxes lehorrez itzuli zen Asiara, geratzen zitzaion gudarostearekin.

120. Hona hemen, gainera, horren froga argi eta garbia: gauza ziurra da Xerxes bere itzulerako bidaia horretan Abderara iritsi zela eta hango bizilagunekin adiskidetasun itun bat egin zuela, urrezko alfanje bat eta metal beraren hariz gainloraturiko tiara bat oparitut. Eta abderarren beraien esanetan -nahiz eta dioten hau nire iritziz batere sinesgarri ez den-, Xerxesek hantxe nasaitu omen zuen gerrikoa lehen aldiz Athenastik ihes egin ondoren aberrira zihoala, jada salbu zelakoan. Horrela, beraz,

Abdera hori errege itsasoratu omen zen Strymon eta Eion baino hurrago dago Helespontotik.

121. Bien bitartean heleniarrak, Andro hartzerik lortzen ez zutenez, Karystorantz abiatu ziren eta, lurralde hura suntsitu ondoren, Salaminara itzuli ziren. Hortaz, lehenik eta behin, beste hasikin batzuen artean hiru triere pheniziar bereizi zituzten jainkoentzat, bata Isthmoan sagaratzeko (hantxe zen untzi hori oraindik ere nire garaian), bigarrena Sunion eta hirugarrena Salaminan bertan Aiaksi oparitan eskaintzeko. Gero harrapakina banatu zuten eta hasikinak Delphosera bidali; hauekin hamabi ukondo luzerako estatua bat eraiki zuten, eskuan untzi-ezproi bat zuela, eta estatua hori, hain zuzen ere, Mazedoniako Alexandroren urregorritzko estatua dagoen leku berean aurkitzen da.

122. Hasikin horiek Delphosera bidali ondoren, heleniarrak ados jarri ziren ea jasotako hasikinok nahikoa ziren eta gustukoak ote zituen galdetzeko jainkoari. Honek heleniar guztien opariak jaso zituela erantzun zien, baina ez eginarrenak, eta hauen oparigaiak eskatzen zituela, Salaminako itsas borrokaldian izan zuten jardun nabarmenarengatik. Eginarrek, erantzun honen berri izan zutenean, egun brontzezko masta baten gainean, Kresoren krateraren ondo-ondoan, angeluan, ikus daitezkeen urrezko hiru izar sagaratu zizkioten.

123. Harrapakina banatu ondoren, heleniarrak Isthmorantz itsasoratu ziren, kanpaina honetan zehar erakutsitako kemenarengatik saritzea gehien merezi zukeen heleniarrari sari bat emateko. Hara iritsitakoan, jeneralek euren guztien artean lehen eta bigarren postuetarako izendatzeko botoak Posidonen aldare gainean utzi zituztenean, zeinek bere buruari eman zion botoa, bakoitzak bere burua zeukalako gailenentzat, baina gehienak bat etorri ziren bigarren postua Themistoklesi esleitzean. Horregatik gainerako jeneralek boto bakarra lortzea, bigarren posturako Themistoklesek gehiengo zabala lortzen zuen bitartean.

124. Hortaz, heleniarrek horri buruz ez zuten arren ezer ebatzi, bekaitzez, eta bakoitzak bere hirira alde egin zuten arren denek, erabakirik hartu gabe, Themistoklesen ospea Helade osoan zehar zabaldu zen eta Heladeko gizonik zuhurrentzat jo zuten, inongo zalantzarik gabe. Baina Salaminan borrokatu zutenek ez zizkiotenez merituak ezagutu, nahiz eta bera izan garaipenaren egile, Lazedemonen aurkeztu zen denborarik galdu gabe merituok ezagut ziezaizkioten, eta lazedemonдарrek harrera adiskidetsua egin zioten eta ohore handiak eskaini. Zentzu honetan, Eurybiadesi olibondo koroa bat eman zioten adorearen saritzat, eta sari hori bera eman zioten Themistoklesi ere honen zuhurtasuna eta abilezia saritzeko, Spartan zen orgarik ederrena ere eman ziotelarik. Eta gorespenez bete ondoren, eliteko hirurehun soldadu spartarrek eskoltatu zuten handik abiatzean - "zaldunak" deritzenak, alegia- Tegeako mugaraino. Hain zuzen ere Themistokles izan da, guk dakigula behintzat, spartarrek eskolta hori eman dioten munduko lagun bakarra.

125. Baina Lazedemondik Athenasera iristerakoan, Aphidnasko Timodemo -hiritar gailena izan ez arren, etsai zuena- bekaitzaren bekaitzez iraintzen hasi zitzaion, Lazedemonera egin zuen bidaia aurpegiratu, lazedemonдарrek eman zizkioten sari haiek Athenas ordezkatzearren, eta ez bere meritu pertsonalengatik, eman zizkiotela argudiatuz. Themistoklesek orduan, Timodemok ekin eta ekin ziharduenez, haxe esan zion: "Begira, hori egia da. Ni Belbinakoa¹⁷¹ banintz, ez nituzkeen hainbeste ohore jasoko spartarrendik; baina zuk ere ez, lagun, athenastarra zaren arren".

126. Halaxe bukatu zen, bada, gorabehera hura. Bitartean Artabazok, Pharnazesen semeak -lehendik ere persiarren artean entzute handia bazuen, are entsutetsuago bihurtu zena orain, Plateako kanpainaren ondoren-, Mardoniok hautaturiko

gudarosteetako hirurogei mila gizonekin eskoltatu zuen errege Itsasarteraino. Hortaz, errege jada Asiara iritsia zela eta Artabazo Heladera bueltan Palene parean zetorrela, Potideakoak matxinatu egin zirela aurkitzean -eta Mardonio negua pasatzen Thesalia eta Mazedonia inguruan egonik, gainerako armadari biltzeko presa handirik ez zuenez oraindik-, haiek menperatu beharra zeukala iritzi zion. Potidearrak, izan ere, monarkak atzean utzi zituen eta Salaminatik ihesi zihoan untziteria persiarra erretiratzerakoan, ageriro matxinatu zitzaizkien barbaroei; eta beste horrenbeste egin zuten gainerako palanetarrek ere.

127. Hortik, beraz, Artabazok Potidea setiatzea. Eta Olynthokoak ere erregeren aurka matxinatzeko asmotan zebiltzala susmatzean, hiri hori ere setiatu egin zuen. Mazedondarrek Thermeko golkotik egotziriko botiatarrek okupatzen zuten Olyntho. Setioaren bidez hiriaz jabetu ondoren, hango bizilagunak aintzira batera eraman eta lepamoz zitzatela agindu zuen Artabazok, eta jarraian Khalzidikakoei eman zien hiria, Kritobulo toronetarra izendatuz gobernadore; eta horrelaxe jabetu ziren Olynthoz Khalzidikakoek.

128. Olyntho konkistatu ondoren, Artabazok Potidea setiatzeari ekin zion; horretan buru-belarri ziharduela, Timoxenok, szionetarren jeneralak, hiria entregatzeko tratua egin zion. Nik neuk ezin zehatz dezaket harremanok zelan hasi zituzten (ez baitago horri buruzko berririk), baina hona hemen nola amaitu zen hura: Timoxenok edo Artabazok gutun bat idazten ziotenean elkarri, gezi baten kosken inguruan biltzen zuten, eta, gutun hori lumaz estali ondoren, aurretiaz hitzarturiko leku jakin batera jaurtikitzen zuten.

Baina Timoxeno Potidearen kontra burutzen ari zen traizio hura agerian gelditu zen azkenean; izan ere, Artabazok leku jakin hartarantz gezia jaurtitzean huts egin zuen eta potidear bat

sorbaldan zauritu; orduan, gerra denboran maiz gertatzen denez, zaurituaren ingurura lagun ugari bildu eta berehala atera zioten gezia, eta gutunari erreparatzean, jeneralei eraman zieten; Potidean, izan ere, Paleneko gainerako hirietatik etorritako gudaroste aliatuak baitziren. Beraz, jeneralok gutun hura irakurri eta traizioaren egilea identifikatu zuten, baina Timoxemo traizioz ageriro ez salatzea erabaki zuten hala ere, Szione hiriaren begirunez, Szionekoak aurrerantzean traizio-famarekin gera ez zitezen betiko.

129. Era horretara harrapatu zuten, bada, Timoxeno.

Hiru hilabete luze zeraman Artabazok hiria setiatzen, iraupen luzeko itsasbehera handi bat gertatu zenean. Eta barbaroek, padura sortu zela ikustean, handixe iragaten hasi ziren Palenerantz. Baina ibilbide haren bostetik hiru ibiliak zituztenean (eta beste hiru geratzen, beraz, Palenera iristeko), itsasgora itzel batek harrapatu zituen ustekabean, bertakoen esanetan ordurarte inoiz gertatu ez bezalakoak, nahiz eta zona hartan fenomeno hori sarritan gertatu. Horrela ba, igeri ez zekiten barbaroak bertan ito ziren, eta igeri zekitenei potidearrek txalupeaz eraso egin eta hil zituzten. Hortaz, potidearrek diotenez, itsasgora haren eta persiarren hondamenaren zioa ondoko hauxe izan omen zen, hots, itsasoaren eraginez galdu ziren soldadu persiar horiexek izan zirela, hain zuzen, Posidonen tenplua eta aldirian eraikirik dagoen jainkoaren imajina profanatu zutenak; eta nire ustez arrazoi dute gertaera horren ziotzat hura hartzean.

Artabazok, orduan, bizirik geraturikoak Thesaliara eraman zituen eta hantxe bildu zen Mardoniorekin.

130. Horra, bada, errege eskoltatu zuten gudarosteen zoria.

Xerxesen gainerako untziteriari dagokionez, Salaminatik ihesi Asiara iritsi ondoren eta hala errege nola tropak Khersonesotik Abydora eraman eta gero, Zymen igaro zuen negua.

Udaberria oraindik hasi berri, itsas armada Samosen bildu zen, hemen ere igaro baitzuten negua zenbait untzik; esan beharra dago untziotako soldadu gehienak persiarrak eta mediarrek zirela.

Itsas armada horren agintea hartzera Mardontes Bageorena, eta Artayntes Artakheesena etorriak ziren; eta horiekin batera Ithamitresen ere bazuen agintea, izatez Artayntesen iloba eta kargu horretarako azken honek pertsonalki izendatua. Jasandako hondamendi itzelaren ondorioz, berriz, ez zuten nahi izan mendebalderantzago egiterik (eta inork ere ez zituen behartzen, gainera, horretara), baizik eta Samosen geratu ziren beren hirurehun untzirekin (joniarrenak eurenak barne) Jonia zaintzen, berau matxina ez zedin. Bestalde, ez zuten espero heleniarrak Joniara joango zitzaizkienik, aitzitik, euren lurraldea zaintzera mugatuko zirela uste zuten, Salaminatik ihesi zihoazela atzetik jazarri beharrean beraien baseetara itzultzeaz konformatu zirela kontuan hartuz. Dena den, itsasoz garaituak sentitzen ziren arren, lehorrez Mardonio argi eta garbi nagusituko zen uste osoa zuten.

Beraz, Samosen zeuden bitartean, etsaiari kalteren bat egin ahal izateko planak asmatzeaz gain, adi-adi zegozkien Mardonioaren kanpainaren berriei.

131. Bien bitartean, udaberriaren etorrerak eta Mardonio Thesalian ikusteak berriro ere mugimenduan jarri zituen heleniarrak. Lehorreko indarrak garai hartan oraindik biltzen hasi gabe zirela, itsas armada, ehun eta hamar untziz osatua, Eginara iritsi zen. Eta armada horren jeneral eta almirante gorena Leutykhides zen, bigarren errege-familiakoa zena hain zuzen ere, Menaresen seme, Hegesilaoren iloba eta Hipokratides, Leutykhides, Anaxilao, Arkhidemo, Anaxandrides, Theopompo, Nikandro, Kharilao,

Eunomo, Polydektes, Prytanis, Euryphonte, Prokles, Aristodemo, Aristomakho, Kleodeo, Hylo eta Heraklesen ondorengoa. Horiek guztiok, Leutykhidesen beraren ondoren aipatu ditudan zazpi lehenengoak izan ezik, Spartako errege izanak ziren. Eta athenastarren buruan Xanthipo zegoen, Aripironen semea.

132. Untzi guztiak Eginan bilduak zirela, heleniarren kanpamendura mezulari joniarrak batzuk heldu ziren (eta hauen artean Herodoto¹⁷², Basileidesen semea), aipu ditugun gertaerok baino lehenxeago Spartan aurkeztu zirenak, Jonia aska zezatela eskatzera lazedemondarrei. Gizon horiek, hasiera batean zazpi, Stratis, Khioko tiranoa hiltzeko isilka elkar harturik ziharduten, baina euren arteko batek egitasmoak salatzeagatik konspirazioa agerian geratu zenean, beste seiak Khiontik ezkutuan alde egin eta Spartara abiatu ziren; eta orain Eginara iritsi ziren, itsas armada Joniara eramane zezatela eskatzera heleniarrei; baina ozta-ozta lortu zuten helendarrak Deloraino joatea, zeren ekialderantzago zegoen zona hark guztiak izua sartzen baitzien, inguru haiek ez zituztelako ezagutzen eta soldadu etsaiez josita zeudela uste zutelako; are gehiago, Samos uhartea Heraklesen Zutabeak bezain urruti zegoela uste zuten beren baitan. Halaxe gertatu zen, beraz, barbaroek hain izuturik egonez itsaso zabalera sartzen ez ausartzea Samostik mendebalderantz, ezta ere heleniarrek Delotik ekialderantz, khiontarren eskabideak gorabehera; eta, horrela, elkarren beldurra bihurtu zen bata bestearengandik banantzen zituen tarte haren jagole.

133. Heleniarrek Delorantz jotzen zuten bitartean, bada, Thesalian negua pasatzen zegoen Mardonio. Eta handik alde

egiteko prest zegoenean, Mys zeritzon gizon bat, izatez Europokoa, bidali zuen orakulu ezberdinengana, persiarrek aholku eska ziezaieketen orakulu guztiak galdekatzeko aginduarekin. Ez daukat zehazki esaterik (ezen ez baita horri buruzko berririk) zer jakin gura ote zuen orakuluengandik, gizon horri zeregin hura agindu zionean; baina nik neuk zera uste dut, une hartan bertan zituen aukerei buruzko informazioen bila bidali zuela, ez ez beste ezertara.

134. Mys hura Lebadeara joan zen, jakina denez, eta bertako bat konbentzitu zuen Trophonionera¹⁷³ jaits zedin; eta Phozealdeko Abasera ere joan zen, hango orakuluari galdetzeraz; dena den, hark bisitatu zuen lehen lekua Thebas izan zen eta hango Apolo Ismenoarrari kontsultatu zion lehenik eta behin (orakulu horri biktimen erraien bidez kontsulta diezaioke, Olympian egin ohi den bezala), eta, jarraian, thebastarra ez zen kanpotar bat konbentzitu zuen -diruz erosiz- Amphiaraoren santutegira lo egitera joan zedin. Izan ere, ezein thebatarrek ere ezin eska diezaioke iragarpenik orakulu horri, honako honegatik: Amphiaraok, iragarpenen bidez, bi aukerotariko bata hautatzera bultzatu zituen -iragarletzat ala aliatutzat aukera zezatela-, beste aukerak bertan behera utziz; eta haiek, orduan, nahiago izan zuten aliatutzat hartzea. Hortik ezein thebatarrek ere santutegi barruan gaua ezin igarotzea.

135. Eta une hartan, ni behintzat erabat harritzen nauen mirari bat gertatu zen: Europoko Mys hura, orakulu guztiengana egiten zebilen ibilaldi hartan, Apolo Ptoarraren jaureslekura ere aurkeztu zen. "Ptooa" deritzon santutegi hori thebastarra da eta Kopais lakuaren iparrera dago, mendi baten magalean, Akrephia hiritik oso hur.

Bada, Mys delako hura santutegi horretan sartu zenean, ofizialki izendaturiko hiru herritarrekin batera, jainkoa diktatzera

zihoakion iragarpena idatziz jasotzera, apaiza erdaraz profetizatzen hasi zitzaion. Mysekin batera zihoazen thebastarrak, berriz, heladera barik hizkera arrotza entzutean, zur eta lur geratu ziren, gertatzen zenaren aurrean zer egin ez zekitela. Europoko Mysek, orduan, zeramatzaten oholtxoak eskutik kendu eta profetak zioena jasotzeari ekin zion, kariaz iragartzen ari zela adieraziz. Eta erantzuna jaso ondoren, handik alde egin eta Thesaliara itzuli zen.

136. Mardoniok orakulu haiek ziotena irakurri zuen eta Mazedoniako Alexandro, Amyntasen semea, bidali zuen jarraian Athenasera mandatari gisa; eta bi arrazoi hauengatik bidali zuen: batetik, persiarrek harekin ahaideturik zirelako (Bubares persiarra Gygearekin ezkondu zegoen -Alexandroren arreba eta Amyntasen alaba- eta harengandik Amyntas Asiakoa izan zuen, amaren aldeko aitona bezala deitua, zeini erregek Alabandako gobernu eman zion, Phrygiako hiri garrantzitsua berau), eta bestetik, Alexandro athenastarren proxenos eta ongile¹⁷⁴ zela jakin zuelako. Horixe izango zela uste zuen hark, uste ere, athenastarrak bereganatzeko modurik onena, benetan ere herri ugari eta kementsua, entzuna zuenez, eta persiarrek itsasoz jasan zituzten ezbeharren eragile nagusienetariko bat, berak ondo zekienez. Horrela, berriz, haien atxikimendua lortuz gero, erraz zeukala uste zuen itsasoaz jabetzea (eta halaxe gertatuko zen gertatu ere), eta erabat nagusi litzatekeela lehorrez, eta horrela, baldintza horietan, bere gudarosteak heleniarrenei nagusituko zitzaizkiekeela. Baliteke, baita ere, orakuluek gai horri buruz ohartaraztea, herri athenastarraren ituna lortzen saia zedila aholkatuz; eta hortik, aholku horri jarraiki, Alexandro mezulari bidaltzea.

137. Perdikas izan zen, Alexandro horren seigarren arbasoa hain zuzen ere, Mazedoniako erreinuaz jabetu zena, eta

honela lortu zuen: Temenoren leinuko hiru anaia -Gauanes, Aeropo eta Perdikas-, Argostik Ilyriara ihesi zihoazela, Goi Mazedoniara iragan ziren eta Lebea hirira iritsi. Herri horretan erregeren zerbitzura ziharduten alogerean lan eginez, batak zaldiak, besteak idiak, eta hiruretarik gazteenak ahuntz-ardiak zaintzen. Eta erregeren emazteak berak prestatzen zien otordua, izan ere antzina, herria ez ezik, errege- etxeak eurak ere pobreak baitziren. Halatan, ogia egosten ipintzen zuen bakoitzean, alogereko gazteenaren opila bi bider handiago egiten zen berez, eta, fenomeno hori behin eta berriro errepikatzen zenez, emazteak bere senarrari jakinarazi zion. Honek hura entzutean, zerbait larria iragartzen zuen miraritzat hartu zuen berehala. Horregatik, alogerekoei deitu eta bere lurretatik alde egiteko agindu zien. Haiek, ordea, alde egin aurretik soldata jasotzeko eskubidea zeukatela erantzun zioten. Erregek, orduan, soldataz mintzatzen entzutean -eta une hartan eguzki izpi bat tximinizulotik gelaraino sartzen zela-, dibinitateren batek lausoturik, honako hau esan zuen, eguzki izpia seinalatuz: "Horra hor zuek merezi duzuen soldata, horixe damaizuet!"

Anaia nagusiak, Gauanes eta Aeropo, aho zabalik geratu ziren hori entzutean; txikiak, ordea, ausaz laban bat aldean zuenak, honako hau esan, "Maiestate, onartzen dugu damaiguzuna", eta zirkulu bat marratu zuen bere labanaz eguzkiak egongelako zoruan proiektatzen zuen printzaren inguruan; ondoren, eguzkiaren printza zirkulutik atera eta bere tunikaren tolesean sartzen zuelakoa egin zuen hiru bider, eta jarraian bere anaiekin batera alde egin zuen.

138. Hiru anaiok joan ziren, bada, joan, baina erregeren kontseilari batek argitu zion zer egin berri zuen eta anaia txikiak zein asmoz jaso zuen ordainsari hura. Orduan monarka, azalpen hori entzutean, sutan jarri zen eta zaldizko batzuk bidali zituen haien atzetik, hil zitzaten aginduz. Hala ere, lurralde hartan bada ibai bat (Argostik joandakoon ondorengoek sakrifizioak eskaini ohi dizkiotena, haiek salbatzearen), zeinek, temenoarrek zeharkatu ondoren, horren goraldi handia izan zuen, non zaldizkoek ezin igaro izan zuten. Hiru anaiak, berriz, Mazedoniako beste eskualde batera joan ziren bizitzera, eta Midas, Gordiasen semearenak izan omen ziren lorategi batzuen ondoan geratu ziren bizitzen, lorategiotan bakoitzak hirurogei petalodun astalarrosak, beste ezein larrosa baino usain gozoagoakoak, hazten direlarik. Mazedondarrek diotenez, lorategi horiexetan atxilotu omen zuten Sileno¹⁷⁵. Eta lorategi horien gainaldean mendi bat da, Bermio deritzona, hotzagatik iristezina.

Lurralde horrez jabetu ondoren, temenoarrek beren operazio basetzat erabili zuten, gainerako Mazedonia ere konkistatu arte.

139. Horrela ba, Perdikas horren ondorengoa zen Alexandro, genealogia honen arabera: Alexandro bera Amyntasen semea zen, eta hau, bere aldetik, Alzetesena. Alzetasen aita Aeropos izan zen, eta azken honena Philipos, Philiporena berriz Argeos, eta honena Perdikas, tronua eskuratu zuen hura.

140. Horra, beraz, Alexandro Amyntasenaren genealogia.

Mardonios bidali eta Athenasera iritsi zenean, Alexandrok honela hitz egin zuen: "Hona hemen, athenastarrok, Mardonios dioena: "Erregeren mezu bat iritsi zait eta haxe dio: 'Egin dizkidaten laidoak oro barkatzen dizkiet athenastarrei. Horregatik, Mardonios, honako haxe egin behar duzu: lehenik eta behin, itzul iezaiezu beren lurraldea, eta eskura bezate, jarraian, beren kontura eskuratu nahi duten beste edozein herri, eta jarrai bezate beren autonomiarekin¹⁷⁶. Gainera, benetan ere prest baldin

badaude nirekin hitzartzeko, berreraiki itzazu nik haienean su emanarazi nien santutegi guztiak'. Nik, bada, agindu hauek hartu ditudalarik, betetzea besterik ez daukat, zuen aldetik eragozpenen bat izan ezean. Nik neure aldetik hauxe diotsuet: zer dela-eta horren burugogorki jardutea orain erregeren kontrako gerra zentzugabea?

Argi dago ez duzuela lortuko hura garaitzerik, eta, bestalde, ez zaudete beti horrela jarkitzen irauteko egoeran. Ikusi baituzue Xerxesen gudarosteen kopuru itzela eta orain arte izan dituzten arrakastak, baita jakinean zaudete une honetan bertan nire esku ditudanez ere, hala ezen, guri nagusitu eta garaipena erdiesten duzuela emanik ere -eta hori, senean bazaudete bederen, ezingo duzue inola ere espero-, beste gudaroste are boteretsuago bat etorriko zaizue. Ez ezazue jokoan jarri, bada, erregerekin indarrak neurtzearren, zuen lurraldea, ezta zuen bizia bera ere etengabeki arriskuan jar, baizik eta sina ezazue bakea; ohore osoz egin dezakezuena da, horixe baita erregeren borondatea. Izan zaitezte aske, gure aliatu izanik iruzurrik ez engainurik gabe!"

Horra hor, bada, Mardoniok zuei esateko eskatu zidana. Niri dagokidanez, berriz, ez natzaizue mintzatuko zuenganako dudan begikotasunez -izatez, ez litzateke oraingoa horri buruz zeneukaketeen lehen froga-, baina entzun ezazue, arren, Mardoniok diotsuena, zeren ez baitzaituztet ikusten Xerxesen aurka etengabe borrokan jardun ahal izateko egoeran (horretarako gai ikusiko bazintuzket, ez nintzaizueke etorriko benetan ere halako proposamenekin), erregeren boterea gizakiaz gaindikoa baita, izan ere, eta haren besoa bazter guztietara iristen baita. Hitz batez, beraz, persiarrek zuekin ituna burutu nahian eskaintzen dizkizuen baldintza abantailatsuotan ez baldin baduzue haiekin berehala hitzartzen, zuen zoriaren beldur naiz, zeren inbaditzaileen bide erdian aurkitzen baitzarete beste ezein aliatu baino erdirago, eta zuen lurralde hau guduzelai izateko lur aproposa delako, uneoro kaltetuak aterako zareten bakarrak baitzarete. Egidazue kasu, bada, zuentzat ohore handia baita, benetan, Errege Handia zuengana berariaz etortzea, iraganeko

laidoengatik Helade osoan zeui soilik barkamena eskaintzera eta adiskide izatera".

141. Horratx Alexandrok esana.

Baina lazedemondarrek, beren aldetik, Alexandro Athenasera etorri zela jakitean athenastarrak Barbaroarekin ituna sinatzera bultzatzeko, orakuluak etorri zitzaizkien gogora, bai beraiek baita gainerako doriarrak ere Peloponesotik mediarren eta athenastarren eskuz egotziak izango zirela iragartzen zuten orakuluak, alegia, eta athenastarrek Persiarrarekin ituna sinatuko zuten beldur larriak hartuta, mandatariak berehalaxe bidaltzea erabaki zuten. Eta zera suertatu zen, Alexandrori eta spartarrei aldi berean eman zietela audientzia; izan ere, athenastarrek batzarraldi hura geroratu eta atzeratu egin zuten apropos, konbentziturik baitzeuden lazedemondarrek laster jakingo zutela Barbaroak akordioa proposatzera bidalitako mandatari haren etorreraz, eta, horren berri izatean, haiek ere mandatariak igorriko zituztela berehalaxe. Beraz, athenastarren jarrera alde aurretik pentsaturikoa zen, beren asmoak argi eta garbi azaltzearren lazedemondarrei.

142. Alexandrok bere hitzartzeari amaiera eman zionean, mandatari spartarrek hartu zuten hitza: "Lazedemondarrek bidali gaituzte -esan zuten- Heladeren kontrako atentaturik ez dezazuen egin eta Barbaroak luzaturiko proposamenik ez dezazuen onar, doilorkeria itzela litzatekeelako eta edozein herri heleniarrentzat ere desohore galanta, baina batez ere zeuontzat, arrazoi askorengatik. Izatez, zeuok izan baitzineten gerra hau eragin zenutenak, guk horrelakorik nahi ez genuenean, eta orain Helade osora hedatu den gatazka hau zeuon aberria defendatzearren piztu zen hasiera batean. Zeharo jasanezina litzateke, bestalde, athenastarrok, egoera honen guztiaren erantzule izateaz gain, Heladeren morrontzaren errudun ere bihurtzea, uneoro eta aspaldi-aspalditik jende askoren askatzailatzat zaudetenok. Zuen nahigabeekin bat egitera gatoz, beraz, bai dagoeneko galduak dituzuen bi uzta

horiengatik, baita aspalditik jasaten duzuen ekonomi hondamenagatik. Are gehiago, ezbeharrok arintzeko, lazedemondarrek eta beren aliatuek beraien kargu hartuko dutela agintzen dizute zuen emakumeen eta gerrarako gai ez diren senitarteko guztien mantenua, gerra honek irauten duen bitartean. Baina ez zaitzatela konbentzi Mazedoniako Alexandrok, Mardonioaren eskaintzari ñabardura asko erantsi arren! Horrelaxe jokatzeari baita horren eginbeharra: bera ere tirano denez, tirano batekin lankidetzan dihardu. Zuek, aldiz, benetan zentzudunak baldin bazarete, ez duzue egin behar horrek dioenik, ongi baitakizue, jakin, barbaroen artean ez dela leialtasunik ez zintzotasunik". Horixe esan zuten mandatarari haiek.

143. Athenastarrek, orduan, ondoko erantzun hau eman zioten Alexandrori: "Guk badakigu, ondo jakin ere, mediarraren boterea gurea baino askoz handiagoa dela, eta sobera dago, beraz, gutxiagotasun hori aurpegira diezaguzun. Baina dena dela, askatasuna hain estimutan dugunez, ahal dugun bezala defendatuko gara. Horregatik, ez zaitez saia Barbaroarekin akordiora irits gaitezen gu konbentzitzen, ez dizugu kasurik egingo-eta. Hortaz, jakinaraz iezaiozu Mardoniori lehenbailehen athenastarren erantzuna: "Eguzkiak egun dabilen ibilbide berari darraion artean, ez dugu Xerxesekin itunik eginen; aitzitik, jainkoen eta heroien laguntzaz, zeinen santutegiei hark su emanarazi zien batere errespeturik gabe, aurre eginen diegu geure buruen defentsan." Eta zuri dagokizunez, aurrerantzean ez zaitez etor Athenasera honelako proposamenekin eta ez gaitzazu zirika doilorkerietara, mesede bat egitera zatozkigulakoan, ezen ez baitugu nahi, babesle eta lagun zaitugularik, kalte txikerrenik jaso dezazun gure eskutik".

144. Horra, bada, Alexandrori eman zioten erantzuna, eta hona hemen Spartako mandatariei eman zieten: "Erabat gizalegezkoa zen gu Barbaroarekin akordioaren batera hel gintezen beldur izatea lazedemondarrok; baina horregatik izutzeari,

athenastarren pentsaera ezagutzen duzuen moduan ezagututa, lotsagarria deritzogu benetan ere, ezen ez baita lur osoan nahikoa urrerik, ezta lurralde apart, eder eta emankorrik ere, mediarren kausa besarkatzera eta Helade esklabotzera makur gaitezen horien truke. Izatez, hala nahi bagenu ere, arrazoi anitz eta indartsuek eragozten digute horrelakorik egitea. Lehena eta nagusiena, jainkoen imajinak eta tenpluak erre eta suntsitu dizkigutela, eta horrek, sakrilegio horien egileekin itunera jo beharrean, kupidagabe mendeku hartzea exigitzen digula; eta beste alde batetik hortxe da heleniar guztion kidetasuna arrazaz eta hizkuntzaz, hortxe amankomunean ditugun santutegiak eta jainkoei sakrifizioak, baita antzeko usadio eta ohiturak ere, eta hori guztia saltzea laidoa litzateke athenastarrontzat.

Jakin ezazue, bada -aldeaz aurretik jakin ez baldin baduzue-, athenastar bat bera bizirik geratzen den artean ez dugula inoiz itunik eginen Xerxesekin. Eskertzen dizuegu, jakina, gureganako erakusten duzuen jarrera on hori, jasaten dugun ekonomi hondamenaz arduratzea, gure etxekoen mantenua zuen bizkar hartzeraino. Zuen eskuzabaltasun hori txundigarria da benetan; guk, hala ere, ahal bezala eutsiko diogu, zuentzat inolako zama izan gabe. Hala eta guzti ere, oraingoz behintzat -gauzak zelan dauden ikusita-, bidal ezazue lehenbailehen gudaroste bat, zeren, susmatzen dugunez, Barbaroa laster izango baitugu hemen, gure aberria inbaditzen: eskatzen zigun ezer ez goazela egiten jakin bezain laster ekingo baitio erasoari. Horregatik, aukera ona dugu orain, Atikara aurkez dadin baino lehen, aurea hartu eta Beozia defendatzera joateko". Athenastarrengandik erantzun hori jaso ondoren, mandatari haiek Spartara itzuli ziren.

IX. LIBURUA

1. Mardoniok orduan, Alexandrok athenastarren erabakia jakinarazi zionean itzultzean, Thesalia utzi eta Athenasen aurka gidatu zuen armada, ibili ahalean. Herrialde ezberdinetatik iragan ahala, jendea bilduz zihoan. Thesaliako buruzagiei dagokienez, arestiko jokabideaz inolako damurik gabe, oraindik ere ihardun biziagoz zirikatzen zuten Persiarra, eta konkretuki Larisasko Thorax izan zen, Xerxesi ihesean lagundu zion huraxe, une hartan Mardoniori Heladerako bidea zabaldu ziona betere arrangurarik gabe.

2. Lehorreko armada aurrerantz bidean Beoziara iritsi zenean, thebastarrek bertan geldiarazi nahi izan zioten Mardoniori zenbait gomendioren bidez, ez zuela aurkituko leku hura baino egokiagorik kanpamendua jartzeko esanez, eta, beste inora joan beharrik gabe, hantxe gelditu eta ekin ziezaiokeela Helade osoa borrokarik gabe menperatzeari. Izan ere, heleniarrek aurreko kanpainetan bezala jarraitzen baldin bazuten elkartuta, zaila izango zitzaiolako edozeini ere haiek armen indarrez menpera ekartzea; "aitzitik -jarraitu zuten esaten- guk iradokitzen dizugun hau egiten baduzu, haien plan guztiak kontrolatu ahal izango dituzu arazorik gabe: bidal iezaiezu dirua haien hirietako handi-mandiei eta horrelaxe lortuko duzu Helade banatzea; eta jarraian, zure aldekoen laguntzaz, erraz-erraz menperatuko dituzu aldeko ez dituzunak".

3. Aholku horixe eman zioten thebastarrek, baina hark ez zien kasurik egin; aitzitik, Athenas bigarren aldiz hartzeko gurari gaindiezinak zirikatzen zuen barren-barrenean, dela harrokeria hutsez, dela une hartan Sardesen aurkitzen zen erregeri komunikatu nahi ziolako, uhartez uharte bidalitako su-seinaleen bidez, Athenasez jabetu zela. Baina oraingoan ere ez zuen aurkitu athenastarrak Atikara iristean, aitzitik, gehienak Salaminan zeudela jakin zuen, euren untzietan, hala ezen hiri hutsa besterik ez zuen hartu.

Hortaz, hiri hau erregek lehenbizi hartu zuenetik Mardonioaren oraingo inbasio honetara bederatzi hilabete igaro ziren.

4. Athenasera sartu ondoren, Mardoniok Helespontoko gizon bat bidali zuen Salaminara, Murykhides, lehenago Alexandro Mazedoniakoak athenastarrei eskainitako proposamen beraiekin. Eta mezu hau bigarren aldiz igorri zuen, jakin bazekien arren athenastarrek zioten gaitziritzizkoa, haiek omen zuten egosgogorkeria ergela bazterrera zezaten itxaropenez, dagoeneko Atika osoa eskuratu eta kontrolpean zeukala kontuan hartu ondoren.

5. Arrazoi horregatik bidali zuen, bada, Murykhides Salaminara; eta honek, Kontseiluaren aurrera aurkeztu ondoren, Mardonioaren mezu hura komunikatu zien. Orduan kontseilukide batek, Lyzidasek, zera esan zuen, Murykhidesek zekarkien eskaintza onartzea eta Biltzarrari¹⁷⁷ aurkeztea izango zela onena, bere aburuz. Horra hor, beraz, Lyzidasek azaldu zuen iritzia, dela egiatan Mardoniorengandik dirua jaso zuelako, dela, besterik gabe, irtenbide hari egoki zeritzolako; athenastarrak, ordea, sutan jarri ziren berehalakoan -bai kontseilukideak, baita, horren berri izan bezain laster, kanpoan aurkitzen zirenak ere- eta Lyzidas inguratu eta harrika hil zuten; Murykhides helespontiarrari, aldiz, kalterik egin gabe utzi zioten itzultzen.

Lyzidasena zela-eta iskanbila handia sortu zen Salaminan, eta athenastarren emazteek zer gertatzen zen jakitean, batak bestea berotu eta elkar hartuz, Lyzidasen egotetxera joan ziren eta hala haren emaztea nola haurrak harrikatu zituzten.

6. Athenastarrek Salaminara alde egin bazuten, honako honegatik izan zen, alegia: Peloponesotik laguntzera etorri behar zitzaaien gudarostearen zain egon ziren bitartean, Atikan iraun zuten; baina aliatuek atzerapen eta axolagabekeria gehiegiz zihardutenaz gero, eta inbaditzailea dagoeneko Beozian bertan zela ziotenez, beren ondasun guztiak seguru jartzea eta beraiek ere Salaminara igarotzea erabaki zuten. Halaber, mandatariak bidali zituzten Lazedemonera, Barbaroari euren gudarosteekin Beozian aurre egin beharrean Atika inbaditzen uztea aurpegiratzeko lazedemondarrei, eta, bide batez, bandoz aldatzeagatik Persiarrak egin zizkieten promes haiek guztiak gogorarazteko, eta beste hau ere jakinarazteko, hots, Athenas sorostera ez baletoz, beraiek arduratuko zirela beren buruak babesteko beste medioren bat aurkitzen.

7. Lazedemondarrei dagokienez, une hartan hain zuzen ere jai bat ospatzen ari ziren, Hyazinthiak¹⁷⁸ konkretuki, eta haiek garrantzi gorena ematen zioten beren erlijio betebeharre; gainera, haien murruri -Isthmoan eraikitzen ari zirenen- almenak ezartzen ziharduten.

Athenasek bidalitako mandatariak Lazedemonera iritsi zirenean Megara eta Plateako ordezkariekin batera, eforoen aurrera aurkeztu eta honako hau esan zuten: "Athenastarrek bidalita gatzkizue zera jakinaraztera, mediarrek, gure aberria bihurtu ezezik, beren aliatu egin nahi gaituztela berdintasun osoz, iruzurrik ez engainurik gabe, eta gure lurraldeaz gain, geuk aukera dezagun beste lurralde bat ere eman gura digutela halaber. Guk, ordea, Zeus Helendarraren begirunez, eta Heladeri traizioa egitea laidogarritzat dugulako, ez diegu baiezkorik eman, baizik eta ezezko biribila, heleniarren aldetik iraina eta babesik eza besterik ez dugun arren, eta askoz abantailatsuagoa dugun arren Persiarrarekin akordiora iristea harekin gerran ihardutea baino; dena dela,

ez dugu etsaiarekin itunik egingo geure borondatez. Horren irmoa baita, izan ere, heleniarrenganako dugun jarrera!

Zuek, aldiz, garai batean halako izuak hartu zintuztenok gu Persiarrarekin akordio batera irits gintezkeelakoan, gure asmoak (Heladeri inoiz trazioa ez egitekoak) argi eta garbi hauteman ondoren, eta Isthmoan zehar eraikitzen ari zareten murrua ia amaitzear duzuenez, ez diezue jada kasurik ere egiten athenastarrei, baizik eta, Persiarrari gurekin batera Beozian aurre egitea onartu zenuten arren, hitza jan eta Barbaroari Atikan barna sartzen utzi diozue. Athenastarrak orain haserre dituzue, jakina; izan ere, zuen jokabidea ez da izan bidezkoa. Horregatik, une honetan zera exigitzen dizuete, gudaroste bat bidal dezazuela gurekin, luzamendurik gabe, Barbaroari Atikan aurre egin diezaiogun; zeren, Beozian kale egin dugunez, Thriasiar lautada baitugu, zalantzarik gabe, gure lurraldeen barruan borrokara irteteko lekurik egokiena".

8. Hitzok entzun bai, baina eforoek hurrengo egunera arte atzeratu zuten erantzuna, eta hurrengoan hurrengora arte, eta halaxe egin zuten hamar egunean zehar, egunetik egunera geroratuz erantzuna. Bien bitartean, peloponesoar guztiek ziharduten, lehia biziz, ia amaitzear zeukaten Isthmoko murrua eraikitzen.

Hortaz, nik ezin zehaz nezake egiatan zein zio izan ote zuten Alexandro Mazedoniakoa Athenasera etorri zenean athenastarrak mediarren aldera pasa ez zitezen horrenbesteko ahalegina jartzeko, eta gero, oster, une hartan batere ardurarik ez erakusteko, zera ez bada, Isthmoa harresiturik zeukatenez, jada ez zutela ezertarako ere athenastarren beharrik zinez uste izatea; izan ere, Alexandro Atikara etorri zenean, murrua eraiki gabe zegoen oraindik, eta horretan ziharduten buru-belarri, persiarrek sortarazten zieten neurrigabeko izuaren izuz.

9. Azkenez, hona hemen nola gertatu zen spartarren erantzuna eta armadaren irteera: azkena izateko zen audientziaren

bezperan, Tegeako Khileok, itzal handieneko atzerritarra Lazedemonen, athenastarrek zioten guztiaren berri izan zuen zehatz-mehatz eforoen bidez; eta entzutekoak entzun ondoren, ondoko hauxe esan zien Khileo hark: "Eforook, hara zertan datzan egoera: athenastarrek gurekin harreman onak ez badituzte eta Barbaroarekin bat egiten badute, orduan, nahiz eta murru sendoena eraikita egon Isthmoan zehar, persiarrek sarbide garrantzitsuak dituzte Peloponesora iristeko. Beraz, egiezue kasu athenastarroi, Heladeri zorigaiztoa lekarkiokeen neurriren bat har dezaten baino lehen".

10. Aholku horixe eman zien hark eforoei; eta hauek, berbok berehala aintzakotzat hartuz eta hirietatik etorritako mandatariei ezer esan gabe, bost mila spartar (eta hauetariko bakoitzaren zerbitzutan zazpina hilota) bidali zituzten eguna argitu baino lehen, Pausanias Kleombrotoren semearen esku utziz buruzagitza. Buruzagitza hori Plistarkho Leonidasenari zegokion berez, baina hau mutiko bat zen oraindik eta Pausanias zen haren tutore, hala nola lehengusu ere. Zeren Kleombroto, Pausaniasen aita eta Anaxandridesen semea, ez baitzegoen jada bizirik: murraren eraikuntzan lanean ziharduten soldaduei itzularazteko agindua eman eta handik gutxira hil zen. (Kleombrotok soldaduei Isthmotik itzularaztearen arrazoia zera izan zen, hots, Persiarrarekiko guduari buruzko sakrifizio bat eskaintzen ari zelarik, eguzkia ilundu egin zela ortzian¹⁷⁹). Pausaniasek bere familiako zuen Euryanax Dorieorena izendatu zuen berarekin batera buruzagitza jarduteko.

11. Halaxe abiatu zen Pausaniasen armada, beraz, Sparta atzean utziz; bitartean, mandataria, gudarosteen irteeraren berri ez zutelarik, eforoen aurrera azaldu ziren egunsentian, eurak ere

handik bakoitza bere herrira abiatzeko asmo tinkoz; eta eforoen aurrera etorriz, hauxe esan zuten: "Zuek lazedemondarrok geratu bai hementxe lasai Hiazinthiak pozez eta algaraz ospatzen, zuen aliatuei kale egin ondoren, eta ikusiko duzue athenastarrek zelan sinatzen duten bakea ahal duten moduan Persiarrarekin, zuen aldetik laidoa jaso ondoren eta aliatuak gabe aurkitzean; eta bake hori sinatu eta gero erregeren aliatu bihurtuko garenez, jakina, haren gudarosteen artean aurkituko gara, beraiek adierazten diguten lurraldeari erasotzen. Orduantxe igarriko dituzue gure erabakiak ekar diezazkizuekeen ondorioak".

Mandatarien hitzon aurrean, eforoek zin egin zuten gudarosteak ordurako Orestheon izango zirela uste zutela, atzerritarren aurka bidean (barbaroei "atzerritarrak" deitzen baitzieten). Mandatariek beren aldetik, ezeren berririk ez zuten, esaten ari zirena argitzeko eskatu zieten eforoei, eta galderen bidez egia osoa jakin zutenean, txundituta, ahalik lasterren irten ziren armadaren atzetik; eta haiekin batera, eliteko bost mila lazedemondar periekoek ere gauza bera egin zuten.

12. Mandatari eta perieko, Isthmorantz abiatu ziren ahalik arinen. Argostarrek ordea, Pausanias eta bere gizonak Spartatik irten zirela jakin bezain laster, aurkitu ahal izan zuten posta-gizonik onena bidali zuten heraldo Atikara, alde aurretik Mardoniori hitz emanda baitzeuden beraiek eragotziko zirela spartarrei berauen lurraldetik irtetea. Athenasera iristean, heraldoak hauxe esan zuen: "Mardonio, argostarrek bidalita natorkio Berorri, armada lazedemondarren onena bere herrialdetik irten dela jakin dezan, eta argostarrek ezin dutela ezer ere egin hori eragotzeko. Eta horren aurrean dagokion erabakia har dezan Berorrek".

13. Berbok esan eta heraldoa bere herrira itzuli zen; Mardoniok bere aldetik, mezu hori jaso ondoren, ez zeukan jada arean ere Atikan gelditzeko gogorik. Izan ere, berria jaso aurretik zain egon zen ea athenastarrek zer erabaki hartzen zuten

itxaroten, eta horrexegatik ez zion ekin Atika suntsitu eta arpilatzeari ere, atzerago edo aurrerago haiekin akordioaren batera iritsiko zelakoan; baina haiek konbentzitzerik lortzen ez zuenez, eta gertaturiko guztiaren jakinean jadanik, atzera egitea erabaki zuen, Pausanias eta bere gudarosteak Isthmora sartu baino lehen; baina lehenago, ordea, Athenas erretzea agindu zuen, eta zutik geratzen ziren harresi-hondakin, etxe eta santutegiak oro eraitsi eta erauztea. Atzeraegite haren arrazoia honetan zetzan, Atika ez zela leku egokia zaldieria erabiltzeko eta, borrokan sartu eta garaitua izanez gero, ez zegoelako ihes egiteko biderik, etsai gutxi batzuek blokea zitzaketen iraganbide meharretatik izan ezik. Beraz, Thebaserantz erretiratzea erabaki zuen eta lagun zuen hiri baten ondoan aurpegi ematea, zaldieria ere erabiltzeko leku egokian.

14. Halatan, Mardoniok atzera egiteari ekin zion; baina jada bidean zihoala, mila soldadu lazedemondarrez osaturiko beste armada bat iritsi zela Megarara jakin zuen, aitzin-gudaroste gisan; eta horren berri izatean, lehenbizi haiekin amaitu ahal izateko estrategia aztertu zuen. Horregatik berriz itzuli eta Megararen aurka gudarosteak zuzentzea, eta zaldieria aurrean zela Megaridetik oldarraldiak egitea. Horixe izan zen, hain zuzen ere, armada persiar honek iritsi zuen Europako punturik mendebalekoena.

15. Gero heleniarrak Isthmoan bildurik zirela jakinarazi zioten Mardoniori, eta hortik Dezelian zehar atzera egitea. Izan ere, magistratu beoziarrek inguru hartako asopoarrei etorrarazi zieten eta azken hauek gidatu zuten hura Sphendaleraino, eta hemendik Tanagrara. Hiri horretan gaua pasa ondoren, hurrengo egunean Skolora abiatu zen, lurralde thebastarrera iritsiz. Leku honetan, thebastarrak mediarren aldekoak izan arren, basoak mozteko agindua eman zuen, ez haienganako etsaitasunez, baizik eta

behar-beharrezko zuelako kanpamendua defentsa-hesi sendoz hornitzeko, borrokaldiaren emaitza nahi zuen bezalakoa ez bazen, babeslekua izan zezan. Haren kanpamendua Erythrasen hasi eta Hysian zehar hedatzen zen, platearren lurralderaino iritsiz Asopo ibaiari jarraiki. Honekin ez dut esan nahi hesiak berak horrelako hedadura zuenik: alde bakoitzak hamar estadio inguru zituen gutxi gorabehera, gehien jota ere.

16. Barbaroek lan horretan ziharduten bitartean, Thebasko Atagino Phrynonen semeak, ospakizun arranditsuak prestatu zituen eta Mardonio berbera eta berrogeita hamar persiar handi-mandienak gonbidatu zituen abegi-oturuntz batera, eta hauek baiezkoa eman zioten. Oturuntza Thebasen izan zen.

Eta ondoren esatera noana Orkomenoko Thersandrori entzun nion, bere herrian ospe ezin hobia zuen gizonari. Thersandrok kontatu zidanez, berak ere jaso omen zuen Ataginorengandik oturuntz hartarako gonbitea, beste berrogeita hamar thebasterrekin batera, eta bi herriotako gonbidatuak elkarrengandik banan etzan beharrean, etzanleku bakoitzean gonbidatu persiar bat eta thebaster bat etzan omen ziren. Oturuntza amaitu eta gero edanean zeudenean, etzanlekuan berarekin zegoen persiarrak ea nongoa zen galdetu omen zion heladeraz, eta Thersandrok Orkomenokoa zela. "Bada, begira -esan omen zion orduan persiarrak-, elkarrekin jatea eta topa egitea egokitu zaigunez gero, buruan darabildan arrangura baten berri eman nahi dizut, aurretiaz jakitun jarri eta komenigarriena zaizuna erabaki dezazun. Ikusten oturuntz honetan diren persiar hauek eta ibaiertzean kanpaturik utzi dugun armada? Horietatik guztietatik gutxi batzuk baino ez direla bizirik geldituko ikusi ahal izango duzu denbora oso gutxi barru". Eta berbok esatean,

persiarra negar batean omen zegoen. Orduan Thersandrok, entzundakoaz zer pentsa ez zekiela, zera esan omen zion: "Baina ez al dago arrangura horiek Mardoniori eta beronen ondorengo aginpidea duten persiarrei azaltzerik?". "Lagun -erantzun omen zion persiarrak-, jainkoen borondatez bete behar dena ezin du ekidin ezein gizakumek; horregatik da inork ere entzun gura ez izatea gertakari sinesgarrienak aldarrikatzen dituztenei ere. Eta diotsudan hau persiar askok dakigun arren, aurrera jarraitzen dugu, halabeharraren gatibu. Eta horixe da, hain zuzen, gizaki ororen angustiarik okerreina, gauza askoez kargutu, baina horiekiko ezer egin ahal ez izatea". Horra hor Orkomenoko Thersandroren ahotik entzun nuena; eta gehiago ere esan zidan: berak pasadizo hura berehala jakinarazi ziola -Plateako borrokaldia gertatu baino lehen- lagun bati baino gehiagori.

17. Mardonio Beozian kanpaturik zegoen bitartean, mediarren aldekoak ziren inguru hartako heleniar guztiek eman zizkioten soldaduak eta lagundu zioten Athenasi erasotzen; erasoaldian parte hartu ez zuten bakarrak phozidetarrak izan ziren, zeren, eurak ere mediarren aldekoak izan arren buru-bihotzez, ez zihoazen borondatez, baizik behartuta. Hain zortez, Mardonio Thebasera heldu eta gutxira, mila hoplita phozidetar aurkeztu ziren Harmozydesen agindupean, ospe handienetariko hiritar bat berau. Eta soldadu horiek ere Thebasera bildu zirenean, Mardoniok zaldizko batzuk bidali zizkien, besteengandik aparte koka zitezen ordekan. Hori egin bezain laster, zaldieria guztia hurbildu zitzaien. Hori zela-eta, zurrumurru bat zabaldu zen mediarren aldeko gudaroste heleniarren kanpamenduan, phozidetarrak geziz hiltzeko agindua zegoela, eta zurrumurru hori phozidetarren euren artean ere zabaldu zen. Kinka horretan, Harmozydes buruzagiak harenga hau zuzendu zien: "Phozidetarrok, itxura guztien arabera morroi horien asmoa gu garbitzea denez gero, eta hau

thesaliarren kalumnien eraginez dela uste dut, nahitaezko da une honetan zuetariko bakoitzak eta denok adoretzu eta bihoztun jokatzera horren aurrean; hobe dugu, izan ere, geure buruak jo eta su defendatzen bizitza ematea, halako heriotza laidogarri bat jasatea baino. Hortaz, erakuts diezaiegun horiei -barbarooi- akabatu gura dituztenak soldadu heleniarrak direla!".

18. Halakoxe harenga egin zien Harmozydesek; zaldizko persiarrak, berriz, phozidetarrak inguratu ondoren, haien kontra abiatu ziren erasoan, benetan sarraskitu gura balituzte bezala, eta uztaiak tenkatu zituzten jaurtikitzera bailihoazen, eta baliteke baten batek jaurtiki ere egitea. Phozidetarrak, ordea, elkarrengana bildu eta lerroa ahalik sendoen osatuz, lerro osoan zehar egin zien aurre. Zaldieriak orduan buelta eman eta atzera egin zuen.

Orain, nik ezin esan dezaket ziur zaldizko persiarrek benetan ere phozidetarrak sarraskitzeko asmoz egin ote zuten eraso, thesaliarren eskabidez, eta haiek jarki zitzaizkienean atzera egitea erabaki ote zuten porrotaren beldur (Mardoniok agindu hori eman zielako), ala azken honek phozidetarrak jende porrokatua zela egiaztatu gura ote zuen. Baina zaldieriak atzera egin ondoren, honako hauxe esan zien Mardoniok heraldo baten bidez: "Ez izan beldurrik, phozidetarrok, porrokatuak zaretela erakutsi baituzue, norbaitzuei entzun diedanaren kontra. Egiozue aurre, bada, gerra honi lehiatsu, eskuzabaltasunean ez baitiguzue behintzat gaindituko ez errege ez ni neu". Eta halaxe bukatu zen phozidetarren kasua.

19. Bitartean lazedemondarrek, Isthmora iritsi zirenean, hantxe jarri zuten kanpamendua. Eta horren berri izatean, kausa jatorrenaren aldekoak ziren peloponesoar guztiek lazedemondarren espedizio hartatik at ez geratzeari iritzi zioten bidezko (spartarrak kanpainan sartu zirela ikusi ondoren, hori bai). Guztiek, beraz, zantzuak alde ageri zirela ikusiz, Isthmoa utzi eta Eleusisera iritsi ziren. Han beste sakrifizio batzuk burutu zituzten eta, zantzuak alde

jarraitzen zitzaizkienez, aurrera jo zuten, Salaminatik kontinentera iragan eta Eleusisen bildu zitzaizkien athenastarrek batera. Beoziako Erythrasera iritsi bide zirenean, barbaroak Asoporen ertzean kanpaturik zeudela jakin zuten eta, hori kontuan hartuz, Zitheron barrenean kokatu ziren haien aurrez aurre.

20. Mardoniok, berriz, heleniarrak lautadara jaisten ez zirenez, zaldieria guztia bidali zien erasora, Masistio (heleniarrek Mazistio zeritzotena¹⁸⁰) buruan zela, persiarren artean ospe handiko gizona, urregorritzko balaztaz eta oro har ere oso ederki apaindurik zerañan neseaz zaldi baten gainean. Heleniarren aurka oldartzean une hartan, zaldizkoek eskoadroika egin zuten eraso, kalte handiak eragiten eta emakume izatea aurpegiratzen zitelarik.

21. Hain zortez ere, fronte osoaren puntu ahulenean megararrak zeuden kokatuta, eta handiek oldartzen zuen oldar handienez zaldieriak. Horrela, zaldizkoen erasoan aurrean estu aurkitzean, megararrek mezulari bat bidali zieten jeneral heleniarrei, eta hauengana iristerakoan zera esan zien: "Hona hemen megararren mezua: "Aliatuok, guk bakarrik ezin diogu eutsi zaldieria persiarrari, hasiera batetik egokitu zaigun posizio hau defendatzen. Egia da orain arte tinko eta adoretu eutsi diogula, zailtasunak zailtasun; baina gure postuan txanda hartzera ez badituzue bidaltzen berehala beste batzuk, jakin ezazue postu hori utzi egingo dugula"". Horra hor heraldoak jakinarazi ziena.

Orduan Pausaniasek ea beste gudatalderen bat gune hartara borondatez lekualdatu eta megararrak txandakatzeko prest ote zegoen jakin nahi izan zuen heleniarrengandik. Gainerakoen ezetzaren aurrean, athenastarrek eskaini zuten beren burua, konkretuki Olympiodoro, Lampeonen semea, buru zuten eliteko hirurehun gudariek.

22. Soldadu horiek izan ziren hartara engaiatu zirenak eta, arkularien laguntza lortu ondoren, Erythrasen kokatu ziren, han zeuden gainerako heleniarren abangoardian.

Aldi luzez jardun zuten aurkari biek buruz buru, baina azkenean honela bukatu zen borroka: zaldieriak eskoadroika burutzen zituen erasoetariko batean, denen buruan nabarmentzen zen Masistioren zaldiak gezi-kolpe bat jaso zuen aldakan, eta minaren minez zutitu eta zaldizkoa lurrera jaurti zuen; eta Masistio erori bezain laster, athenastarrak haren gainera etorri ziren. Haren zaldiaz jabetu ziren, noski, eta bera ere hil egin zuten, hasieran batere erraz izan ez arren. Horra hor zelakoa zen, izan ere, haren armadura: urrezko laminadun koraza zeraman soinean, eta purpura koloreko tunika bat korazaren gainean. Alferrik jardun zuten athenastarrek korazari kolpeka, harik eta baten bat gertatzen zenaz jabetu eta begia zartatu zion arte. Orduantxe erori zen hura gorpu. Jazoera hau gainerako zaldizkoek hauteman gabe gertatu zen, antza: ez zuten ikusi hura zaldi gainetik erortzen ez hiltzen, eta atzerantz gibelatzean ez zuten antzeman zer gertatzen zen. Iso egin eta buelta ematean konturatu ziren bat-batean hura ez zegoela, inork ez baitzien ematen agindurik. Orduan, gertatu zenaz jabetzean, elkarri animoak eman eta guztiek ezproiatu zituzten zaldiak, gutxienez haren gorpua eskuratzen saiatzeko.

23. Athenastarrei dagokienez, zaldizko persiarrak dagoeneko eskoadroika barik denak batera zetozkiela erasora ikusirik, gainerako armadari egin zioten laguntza deia. Eta infanteria laguntzera zetorkien bitartean, borroka basatia burutu zen gorpua inguruan. Horrela, hirurehun gudariak beraiek bakarrik borrokatzen ari ziren bitartean, garbiki gaindituak izan ziren eta Masistioren gorpua laga behar izan zuten bertan behera; baina gainerako gudarosteak laguntzera iristean, zaldizkoak izan ziren erasoari aurre egin ezin eta gorpua berreskuratzea ezinezko izan zutenak; aitzitik, Masistioz gain, haietariko beste batzuk ere lurrean geratu

ziren. Handik bi estadio ingurura urrundu ziren, beraz, ea zer egin pentsatzeko; baina buruzagirik ez zutenez, Mardoniorengana itzultzea erabaki zuten.

24. Zaldieria kanpamendura heldu zenean, armada osoak eta Mardoniok berak ere dolu handia egin zioten Masistiori, beren ilea moztuz, baita beren zaldien eta mandoen zurdak ere, eta Beozia osoan oihartzuna izan zuten amaigabeko lanturuei ekin zieten, hil ere persiarren eta monarkaren beraren aurrean ospe handieneko pertsonaia - Mardonioen ondoren, hori bai- hil berri baitzen.

25. Halaxe ondratu zuten, bada, barbaroek, beren erara, Masistioren heriotza; heleniarrek, aldiz, zaldieriaren erasoei eutsi zieten, eta ondoren aurka egin ere, adore berria hartu zuten. Lehenengo eta behin, gorpu hura orga baten gainean ipini zuten eta soldadu lerroen artetik igaroarazi; gorpu hura ikusgarria zen, izan ere, bere garaiera eta edertasunagatik; hortik soldaduek beren lerroak ere haustea Masistio hura ikustera hurbiltzearren. Ondoren, jarraian, Plateara jaistea erabaki zuten, Platealdeari Erythraeri baino leku egokiagoa irizten baitzioten, hango ur ugariagatik batik bat, bertan kanpamendua jartzeko. Eskualde hartara iritsi beharra zegoela erabaki zuten, beraz, leku hartan aurkitzen den Gargaphia iturriraino, borroka-lerroetan antolaturik bertan kanpatzeko; horrela ba, beren armak hartu eta Zitheron inguruko mendiak inguratuz, Hysiatik hurbil igaro ziren Platealdera. Eta hara iristean, herrika lerrokatu ziren, Gargaphia iturburutik eta Androkates heroiairen temenosetik hurbil, goiera txikiko zenbait montorren artean zegoen lautada batean.

26. Une hartantxe gertatu zen hain zuzen, posizio ezberdinak esleitzean, tegearren eta athenastarren arteko sesio bortitz

bat, zeren bai batzuek eta bai besteek uste baitzuten beren eskubide, oraintsuko eta antzinako egitandien izenean, gudarosteak bi hegaletariko batean kokatzea. Hona hemen tegearrek horri buruz ziotena: "Peloponesoarren orain arte egindako espedizio komun guztietan, bai antzinako denboretan baita oraintsukoetan, posizio horretan jartzeko merezimendua aitortu digute beti-beti aliatu guztiek, heraklidak Eurystheoren heriotzaren ostean Peloponesora itzultzen saiatu ziren garai haietatik honantz. Eta hona hemen eskubide horren merezimendua eman zigun egitandia: oraindik garai haietan Peloponeson zeuden akhearrekin eta joniarrekin batera Isthmoa defendatzera joan ginenean, inbaditzaileen aurrez aurre jarri ginen; halatan, kontatzen dutenez, egoera horren aurrean Hylok zera esan omen zuen, ez zeritzola beharrezko gudaroste biek elkarren aurka jardutearen arriskuari; borroka zezala berarekin, ordea, zenbait araupean garatuko zen buruz buruko borrokan, peloponesoarren beren gudarosteetatik txapeldun izenda zezaten gudari peloponesoarrak. Peloponesoarrak proposamen hura onartzearen alde makurtu ziren eta alderdi biek hurrengo akordio hau adostu zuten solemneki: Hylok txapeldun peloponesoarra garaituz gero, heraklidek beren arbasoen aberrira itzuli beharko zuten; aitzitik, Hylo garaitua gertatuz gero, heraklidek beren gudarosteekin atzerantz itzuli eta ehun urtean zehar ez zuten egin beharko Peloponesora itzultzeko saiorik. Horrela, aliatu guztien artetik Ekemo hautatu zuten (Eeroporen seme eta Phegeoren iloba), hain zortez ere geure buruzagi eta errege genuena, bere burua boluntario eskaini ondoren; eta Hylorekin buruz buru borrokatu eta hura hiltzea lortu zuen. Egitandi horri esker, eta garai hartako peloponesoarren ebatziz, espedizio komun bat antolatzen den guztietan armadaren hegaletariko batean kokatzeko pribilegioa aitortu zitzaigun, oraindik gaur egun ere gozatzen dihardugun beste pribilegio batzuen artean. Zuekin, lazedemondarrokin, ez gara sartzen auzitan, noski; aitzitik, gustuko duzuen hegala

eskaintzen dizuegu hautatzeko eta zuen erabakia onesten dugu; baina bestearen buruan egotea geuri dagokigula nabarmendu gura dugu, iraganean bezala. Eta kontatu dizuegun egitandi horrez gain, athenastarrek baino meritu gehiago ditugu guk postu horretan kokatzeko. Egiaz, spartarrok, zuekin borrokaldi anitz burutu dugu -eta arrakastaz, gainera-, eta gauza bera beste aurkari batzuekin ere. Hortik bidezko izatea bi hegaletariko bata guk okupa dezagun, eta ez athenastarrek, zeren hauek ez baitute burutu, ez oraintsu ez antzina, guk buruturikoen antzeko egitandirik".

27. Horixe alegatu zuten haiek, bada, eta berboi honela erantzun athenastarrek: "Uste dugu armada hau Barbaroaren aurka borrokatzeko atera dela, eta ez diskurtoetarako; baina Tegeako ordezkariak zabaldu duenez eztabaida bi herriotariko bakoitzak geure bizitzan zehar buruturiko antzinako zein oraintsuko egitandiez, ezinbesteko dugu zuen aurrean azaltzea zer dela-eta daukagun guk, arkadiarrekiko lehentasunez, gure kemen iraunkorrarengatik pribilegiozko postuetan egoteko aspaldi-aspaldiko eskubidea. heraklidei dagokienez (zeinen buruzagia Isthmoan hiltzeaz tegearrak harro ageri diren), Myzenaskoen uztarpetik ihesi ate-joka etorri eta ordurarte heleniar guztiek ezezkoa ematen zietenean, geu izan ginen gurean hartu genituen bakarrak, eta ondoren, haien laguntzaz buruturiko borrokaldi batean, garai hartan Peloponesoren jabe zirenak garaitu eta Eurystheoren harrokeriarekin bukatu genuenak. Gogoratu, bestalde, Polynizesekin batera Thebasen aurka zihoazen argostarrak bizia galdu eta lurra eman gabe zeuden hartan, kadmearren aurka espedizio bat antolatu eta gorpuok berreskuratu ondoren geure lurraldean -Eleusisen- lurra eman geniela. Eta hortxe dugu gure alde Thermodon ibaitik etorri eta garai hartan Atikako lurraldean sartu ziren amazonen aurkako egitandi ospetsu hura; eta Troiako egun latzetan besteak baino gutxiago ez izatea. Baina hori guztia gogoratzeak, egiatan, ez du balio ezertarako, zeren eta baliteke antzinako denboretan kementsu ziren herriak gaur egun koldarrak izatea, eta

antzina koldar zirenak gaur egun kementsuak izatea. Aski bedi, beraz, egitandiez mintzatzeaz. Dena dela, beste ezein balentriarik ez dugula burutu emanda ere (egia bestelakoa denean, noski, egitandi anitz bezain arrakastatsuak burutu baititugu), Marathongo egitandiarengatik bai merezi dugula bederen pribilegio hori eta beste zenbaitzuk, geu izan baikiñen Persiarrarekin buruz buru neurtu ginen heleniar bakarrak, eta gure bizkar harturiko ekintza itzel horretan garaipena lortu genuen, berrogeita sei herriri gaina hartuz. Ez al da bidezko, beraz, parerik gabeko egitandi horren izenean, ezbaian dagoen postu hori geure dezagun? Hala eta guztiz ere, honelako kinka batean postu batengatik liskarrean ibiltzea lekutik kanpo dagoenez, prest gaituzue, lazedemondarrok, zuek diozuenera makurtzeko eta egokien deritzozen lekuan eta dena delako aurkariaren aurrez aurre kokatzeko, kemenez jokatzen saiatuko baikara gauden lekuan gaudela. Esan zeintzuk diren zuen aginduak eta obedituko dizuegu".

28. Horrelaxe erantzun zuten athenastarrek, eta orduan armada lazedemondar osoak onartu zuen aho batez haiek arkadiarrek baino meritu gehiago zutela hegalean kokatzeko. Eta halaxe kokatu ziren azkenean athenastarrak postu horretan, tegearrekiko lehentasunez. Jarraian, kanpainara bildu berriak ziren heleniarrak eta hasiera batetik parte hartu zutenak honako era honetara lerrokatu ziren: eskuineko hegalean hamar mila soldadu lazedemondar zeuden; horietarik, bost mila soldadu spartarrarrek arma arinez armaturiko hogeita hamabost mila hilotaz osatutako goardia zuten, hoplita bakoitzeko zazpi. Spartarrek mila eta bostehun hoplitaz osaturiko gudaroste tegearra aukeratu zuten euren aldamenean koka zedin, bai haiek ohoratzeko baita adoretsuak zirelako. Haien ondoan bost mila hoplita korinthoar zeuden, eta hauek Pausaniasen baimena jaso zuten Platean ziren Paleneko hirurehun soldadu potidearrak euren aldamenean koka zitezen. Azken hauen ondoan Orkhomenoko seiehun soldadu arkadiarrak kokatu ziren, eta hiru mila

sizyondarrak ondoren. Jarraian zortziehun epidauroarrak zeuden, eta hauen aldamenean mila trezendarrak, eta ondoren berrehun lepreotarrak, Myzenas eta Tirynthoko laurehun eta Phliunteko mila. Hauen aldamenean Hermioneko hirurehun, jarraian Eretria eta Styrako seihun soldadu, Kalzisko laurehun eta Ampraziako bostehun. Ondoren Leukadeko eta Anaktorioko zortziehun soldadu kokatu ziren, eta aldamenean Zephaleniatik etorritako berrehun palearrak. Jarraian bostehun eginarrak lerrokatu ziren, eta hauen aldamenean hiru mila megararrak eta seihun platearrak. Azkenak, baina lerroaren aurrealdean¹⁸¹, Aristides Lysimakhorenaren agindupean ezkerreko hegala okupatzen zuten zortzi mila soldadu athenastarrak zeuden.

29. Gudaroste horiek, spartarrei esleituriko gizonak izan ezik (hoplita bakoitzeko bost), hoplitaz osaturik zeuden eta kopurua, guztira, hogeita hamazortzi mila eta zazpiehunera iristen zen. Horra hor Barbaroaren aurka bildutako hopliten guztizko kopurua. Bestalde, arma arinez armaturiko soldaduen kopurua honako hauxe zen: gudaroste spartarrean hogeita hamabost mila ziren (hoplita bakoitzeko zazpi baitziren), eta borrokatzeko moduan armatuta horiek denok; gainerako lazedemondarren eta helendarren infanteria arina hogeita hamalau mila eta bostehunera iristen zen, hoplita bakoitzeko bat. Beraz, borrokan sartzeko gai ziren infanteria arineko soldaduen kopurua, guztira, hirurogeita bederatzi mila eta bostehunera iristen zen.

30. Hortaz, Platean bilduriko gudaroste heleniarren guztizkoa, hoplitak eta borrokan sartzeko gai ziren infanteria arineko tropak barne sartuz, ehun eta zortzi mila eta berrehun gizonera

iristen zen; baina han ziren thespiarrek zenbatuz gero, ehun eta hamar milatan biribiltzen zen zifra; izan ere, bizirik geraturiko thespiarrek, guztira mila eta zortziehun, hantxe zeuden armadaren barne, nahiz eta haiek ere ez zuten arma astunik.

31. Gudaroste heleniarrak, beraz, borroka lerroak horrela osatu ondoren, Asopo ibaiertzean kanpaturik gelditu ziren. Mardonioaren barbaroak, bitartean, gudaroste heleniarrak Platealdean zeudela jakin ondoren, lurralde horretatik jaisten den Asopo ibaiertzera aurkeztu ziren beraiek ere. Eta hara iritsitakoan, Mardoniok honako formazio hau osarazi zien heleniarren aurrez aurre: lazedemondarren aurrean soldadu persiarrak kokatu zituen, eta hauek beren aurkariak baino soldadu askoz gehiago zituztenez, barrenerantz hedatu zituen lerroak, eta tegearren aurrez aurre ere kokarazi zituen. Eta hona hemen zelan lerrokatu zituen: gudaroste persiarretatik soldadu onenak aukeratu eta lazedemondarren aurrez aurre lerrokatu zituen, tegearren aurrean, aldiz, tropa ahulenak kokaraziz. Eta neurri hori thebastarren iradokizunez eta eskabidez hartu zuen. Persiarren ondoren Mediakoak kokatu zituen, aurrez aurre Korinthokoak, Potideakoak, Orkhomenokoak eta Sizyongoak zituztelarik. Mediarren aldamenean soldadu baktrarrak lerrokarazi zituen, Epidaurokoak, Trezengoak, Lepreokoak, Tirynthokoak, Myzenaskoak eta Phliuntekoak zituztelarik aurrean. Baktrarren ondoren Indiakoak kokatu zituen, aurrez aurre Hermionekoak, Eretriakoak, Styrakoak eta Kalziskoak zituztela. Indiarren jarraian sakak, aurrez aurre Ampraziakoak, Anaktoriokoak, Leukadekoak, Palekoak eta Eginakoak zituztela. Saken ondoren, athenastarren, platearren eta megararren aurrez aurre, Beozia, Lokride, Melide eta Thesaliakoak eta mila soldadu phozidetarrak kokatu zituen (izan ere,

Phozeako guztiak ez ziren mediarren alderdikoak, baizik eta zenbaitzuek Heladeren alde ziharduten -Parnason blokeaturik aurkitu arren-, eta, zona hau operazio-basetzat hartuz, Mardonioen gudarosteak eta horiekin zihoazen heleniarrak arpilatu eta lapurtzen zituzten). Horiez gain, Mardonioek gudaroste mazedondarrak eta Thesalia inguruetan bizi diren herritarrek ere lerrokatu zituen athenastarren aurrez aurre.

32. Aipatutako herriok ziren Mardonioen agindupean zeuden garrantzitsuenak, eta entzute eta ospe handiena zutenak, gainera; baina baziren beste herri batzuetakoak ere haren armadan: Phrygia, Thrazia, Mysia, Peonia eta abarretakoak; eta baziren ethiopiarrak eta egiptoarrak ere, konkretuki hermotybiak eta kalasiriak deritzen soldaduak, dagaz armatuak, Egypton dagoen gerlari kasta bakarra. Hauek epibata¹⁸² gisara zeuden lehenago (ez baitziren egon Xerxesekin Athenasera iritsi zen lehor-armadan), Mardonioek untzietatik jaisteko agindu zien arte oraindik Phaleron aurkitzen zela.

Beraz, gorago esan dudanez, barbaroak hirurehun mila ziren. Mardonioen aliatu heleniarrei dagokienez, inork ez daki haien kopurua zein zen, zenbaketarik ere ez baitzen egin; baina usteari leku emanez, berrogeita hamar milara heltzen zirela joko dut. Borroka formazioan lerrokaturiko gudarosteok infanteriakoak ziren, zaldieria aparte kokaturik baitzegoen.

33. Gudaroste guztiok nazioka eta batailoika lerrokatu eta gero -hurrengo egunean, hain zuzen ere-, alde batekoek zein bestekoek sakrifizioak burutu zituzten. Heleniarren aldetik horren ardura zuena Tisameno zen, Antiokhoren semea, pertsonaia hauxe baitzen (izatez elidarra, jamiden leinuko Klytiade bat, baina lazedemondarrek hiritartasuna eman ziotena) armada heleniarrean igarle-kargua zuena.

Hortaz, Tisamenok bere ondorengoari buruz Delphosen galdetzen ari zela, Pythiak zera erantzun zion, bost bider lortuko

zuela garaipena lehiaketa garrantzitsuenetan. Horrela, Tisamenok, orakuluaren esangura ulertzeraz heldu gabe, lehiaketa atletikoetan jardun zuen, bere garaipenok lehiaketa horietan lortuko zituela uste izanik; baina pentathloan parte hartu zuenean, bost lehiatariko bategatik ez zuen lortu sari olympikoa, Androsko Hieronymo aurkari zuela borrokan galtzean. Lazedemondarrak orduan egiaz jabetu ziren, Tisamenori zuzendutako iragarpena ez zela lehiaketa atletikoei buruzkoa, baizik eta guda aurkaketei buruzkoa, eta dirua aurretik jarri eta gizon hura konbentzitzen saiatu ziren, Heraklesen leinuko beraien erregeekin batera operazio militarretan parte har zezan. Orduan, Tisamenok, bere adiskidetasuna lortzen lazedemondarrak horrenbeste saiatzen zirela ikusiz, egia hauteman zuen berak ere eta eskakizunetan gorago jo zuen: ez zuela ezein sariren truke onartuko proposamena, hiritartasun osoaren eta horren barne diren hiritar eskubideen truke izan ezean. Hori entzutean, spartarrak haserretu egin zitzaizkion lehenengotan, lehen asmoak erabat bazterreraz utziz; baina azkenean, persiarren espedizio honek ematen zien izugarritzko ikarak eraginda, bila joan zitzaizkion eta eskatzen zienari amore eman. Baina Tisamenok, lazedemondarrak horrela iritziz aldaturik ikustean, lehengoarekin soilik jada ez zela konformatzen esan zien, orain gainera Hegias bere anaia ere bera bezala egin beharko zutela espartarrak.

34. Era horretara mintzatuz, hark Melampo imitatzen zuen, erreinu bat eskatzen dutenak eta hiritar izendatzea besterik ez dutenak eskatzen aldera daitezkeen neurrian behintzat.

Melampok, hain zuzen, Argosko emakumeak erotu zirenean¹⁸³ eta argostarrek hura Pylostik etorri eta beren emakumeak eritasun hartatik senda zitzan kontratatatu nahi izan zutenean, erreinuaren erdia eskatu zien bere lanaren truke. Argostarrek ezetz esan eta alde egin zuten, baina erotzen ziren emakumeen kopurua haziz zihoalarik, Melamporen exigentziei azkenean amore eman eta hark eskatzen ziena emateko prest itzuli zitzaizkion. Melampok, ordea, argostarrak iritziz

aldatuta ikustean, lehen baino gehiago eskatu zien zera esanez, Biante bere anaiari ere erreinuaren hiruren bat eman ezean, ez zuela egingo eskatzen ziotena. Eta orduan argostarrek, halako estuasunean aurkituz, eskakizun horri ere amore eman zioten.

35. Horren antzera spartarrek ere, Tisamenoren hain premia larrian zeuden, non haren eskakizun guztiei eman zieten amore. Eta eskakizun berriei ere baiezkua eman ondoren, Tisameno elidarrak orduan bai, spartarrar izaera lortu eta gero, bost borrokaldi oso garrantzitsutan lagundu zien garaitzen bere igarle trebetasunez baliatuz. (Aipagarria da bera eta bere anaia izan direla spartarrar hititartasuna lortu duten munduko pertsona bakarrak). Hona hemen zeintzuk izan ziren bost borrokaldiok: bata -hauxe izan zen, gainera, lehenengoa-, Platean buruturiko hau; hurrengoa, Tegean egin zutena tegearren eta argostarren aurka; ondoren Dipeakoa, Mantineakoak izan ezik arkadiar guztien kontra buruturikoa; geroago Ithomekoa, Mesenian; eta azkenez Tanagran burutu zutena athenastarren eta argostarren aurka. Tanagrako borrokaldia izan zen, beraz, bostetarik azkena.

36. Spartarrek berekin ekarri zuten Tisameno huraxe zen, beraz, heleniarrek igarletzat zeukatena Platealdean. Hortaz, defentsiban egonez gero, sakrifizioek aldeko zantzuak ematen zizkieten; baina ez, ordea, Asopo ibaia zeharkatu eta borrokari hasiera emanez gero.

37. Baina Mardoniori ere, erasoari ekiteko gogo bizia zuen arren, sakrifizioek ez zioten ematen aldeko zantzurik erasorako; eta bai, ordea, defentsiban irauteko. Izan ere, Mardonioek berak ere errito heleniarrei jarraitzen zien sakrifizioetan, eta Elidako Hegesistrato, Teliadetariko ospetsuena zeukaten igarletzat, orain mintzagai ditugun gertakariak baino lehenago spartarrek, haren erruz kalte anitz jasan zutela-eta, atxilotu eta espetxeratu zutena heriotza ezartzeko asmoz. Baina orduan Hegesistratok, egoera latz hartan aurkitzean eta bere bizia arriskuan ikusita edozein gauza egiteko prest heriotza ekiditearren, hitzez nekez azal daitekeen egintza bat burutu zuen. Burdinaz osaturiko oholezko zepo batean loturik utzi zutelarik, nola edo hala eskuratu ahal izan zuen aitzo batez baliatuz, eta luzaro pentsatzen egon gabe, sekula entzuterik izan dugun ekintzarik gogorrena asmatu zuen: zepotik atera zezakeen oin zatia kalkulatu eta oinbularren paretik ebaki zuen. Jarraian, zaindariak baitzeuden inguruan, horman zulo bat egin eta Tegearantz jo zuen ihesi; gauez ibili eta egunez basoetan ezkutatzzen zen eta atsedean hartu, hirugarren gauean Tegeara iritsi zen arte, nahiz eta lazedemonдар guztiak zebilzkion bila; hauek, izan ere, Hegesistratoren bila hasi eta oin erdia lurrean ikusi zutenean, harri eta zur geratu ziren haren ausardiaz.

Halaxe lortu zuen orduan lazedemonдарren eskuetatik ihes egitea eta azken hauekin garai hartan harreman onik ez zeukan Tegean babesa aurkitzea; geroago, zauria osatu ondoren, egurrezko oin bat egin zuen hankaondoari eranstea eta lazedemonдарren etsai sutsu bilakatu zen. Baina, azken batean, haienganako gorroto horrek ez zion gauza onik ekarri, berriz ere haien eskuetan erori baitzen Zazynton, igarle-lana egiten zuen tokian, eta heriotza ezarri baitzioten.

38. Dena den, Hegesistratoren heriotza Plateako borrokaldiaren ondoren gertatu zen; garai hartan oraindik, Mardonioek prezio ez hain merke kontrataturik ziharduen Asopo ibaiertzean sakrifizioen arduradun, eta ahal zuen lehia handienaz ziharduen, gainera, bai lazedemonдарrei zien gorroto hargatik baita diruzaltetasunagatik. Eta ez persiarrek eurek ez berauekin batera zeuden heleniarrek (hauek ere beren igarlea baitzuten: Leukadeko Hipomakho) ez zutenez lortzen zantzu onik erasora irteteko, eta armada heleniarraren kopurua haziz zihoanez errefortzuak etengabe biltzen zitzaizkiola, Thebasko Timegenides Herpysenak Zitherongo igarobideak zaintzeko agindua ematea aholkatu

zian Mardoniori, handixe zetozeela egunero-egunero heleniarrak etengabe, eta horrela haietariko asko harrapa zezakeela-eta.

39. Zortzi egun igaroak ziren jada armada biak aurrez aurre lerrokatu zirenetik, Timegenidasek Mardoniori aholku

hori eman zionean. Orduan azken honek, iradokizun hura egokitzen hartuz, arrats-beheran zaldieria bidali zuen Plateara eramaten duten Zitherongo igarobideetara, zeinei beoziarrek "Hiruburueta" eta athenastarrek "Arteburueta" deitzen dieten. Zaldizko persiarren irteera ez zen izan antzua: armadarentzat Peloponesotik bidalitako hazkurriekin lautadan sartzen ari ziren bostehun zamari, baita gurdiekin zetozen gizonak harrapatu zituzten. Harrapakin horretaz jabetu ondoren, persiarrek errukirik gabeko hilketa burutu zuten, ez abere ez gizonenganako begirunerik gabe. Eta hilketa odoltsu hartaz asetu ondoren, gainerako konboia erdian hartu eta kanpamendura eramane zuten Mardoniori entregatzeko.

40. Jazoera horren ondoren, beste zortzi egun igaro zituzten hantxe armada biek, ez bata eta besteak erasoari ekitea erabaki gabe, zeren, persiarrak Asoporaino hurreratzen ziren arren armada heleniarra probokatzera, ez bata ez besteak ez zuen ibaia zeharkatzen. Dena dela, Mardonioen zaldieriak etengabe ziharduen gudaroste heleniarrak zirikatu eta asperrarazten: thebastarrak arduratzen ziren, mediarren alderdiari txit atxikita gerrari buru-belarri emanak, gainerako zaldizkoak behin eta berriz gidatzeaz erasoak hasi arte, eta une horretan zaldizko persiar eta mediarrek hartzen zuten txanda, eta hauek ziren kemena erakusten zutenak.

41. Beraz, hamar egun horietan zehar ez zen gertatu beste ezer, kontatu berri dudanaz gain; baina alderdi biak Platean aurrez aurre lerrokatu zirenetik hamaikagarren egunean, armada heleniarra kopuruz haziz zihoanez eta Mardonio urduri baino urduriago zegoenez geldi egote hartaz, hizketaldi bat izan zuten Mardonio berak (Gobryasen semeak) eta Artabazok (Pharnazesen semeak), Xerxesek ezin gutxi bezala estimatzen zuena azken hau. Eta elkarriketa hartan honako iritzi hauek azaldu zituzten: Artabazoren aburuz, kanpamendua ahalik eta lasterren jaso eta

gudarosteak Thebasko esparru harresitura eraman beharra zegoen (han hazkurri ugari sartu baitzuten elikadurarako, baita bazka ugari zamabereentzat), eta, leku hartan lasai kokatu ondoren, honako estrategia hau hartu: urrea erruz zeukatenez gero, txanpondua zein txanpondu gabea, baita zilarra eta zilar-lanezko edalontzi ugari, altxor horiek banatzeari ekin behar zitzaion eskuzabaltasun osoz heleniarren artean -zioen Artabazok-, eta batez ere hirietan esku handia zeukatenen artean, hauek berehala utziko baitzuten bazterrera beren askatasuna eta persiarrek ez omen zuketeen orduan borrokan sartzeko arriskuari aurre egin beharrik. Artabazoren tesi hori bat zetorren thebastarren aburuarekin, haren aurreikuspenak, azken hauenak bezala, Mardoniorenak baino xederatuagoak baitziren; Mardoniorena tesia, ostera, suhar eta ausartegia zen, eta erabat atzeraezina: bere armada heleniarrena baino askoz bikainagoa zela konbentziturik, lehenbailehen erasoari ekiteko gogo bizia zeukan, dagoeneko bildurik zeuden baino etsai gehiago bildu aurretik; eta Hegesistratoren zantzuei dagokienez, uste zuen ez zitzaizela jaramon handirik egin behar, ezta horretan gehiegi ekin ere, eta ohitura persiarraren arabera atera behar zutela borrokara.

42. Mardoniorena aburu horren aurrean inork ez zuen ihardetsi eta beraren tesia atera zen garaile, izan ere bera baitzen, eta ez Artabazo, armadaren aginte gorena zuena erregeren erabakiz. Beraz, gudaroste ezberdinen buruzagiak, hala nola bere armada osatzen zuten tropa heleniarren jeneralak deitarazi zituen eta ea persiarrak Heladen suntsituko zirela iragartzen zuen orakuluren bat ezagutzen ote zuten galdetu zien. Eta deiarazitako haiek isilik zeudenez gero -batzuek iragarpenen berririk ez zutelako eta beste batzuek, iragarpenen berri izan arren, zuhurtzigabetasun erizten ziotelako berba egiteari-, Mardonio bera izan zen hitz egin zuena: "Hortaz, zuek ezeren berririk ez duzuenez edota berba egitera ausartzen ez zaretenez, ni neu mintzatuko natzaizue ongi ezagutzen dudana. Bada orakulu bat persiarrek Heladera iristean Delphosko santutegia arpilatuko dutela dioena eta horrek

haien guztien suntsipena ekarriko duela. Horregatik, zertzelada honetaz jakitun gaudelarik, ez diogu santutegi horri erasorik egingo ez hura arpilatzen saiatuko. Zaudete, bada, baikor, kausa persiarra benetan begiko duzuenok, heleniarrei garaituko gatzazkien uste osoan". Horrela berba egin eta gero, zegozkion neurriak hartu eta dena prest edukitzeko agindu zien jarraian, eguna argitzean ekingo ziotela borrokari-eta.

43. Halarik, nik badakit Mardoniok persiarrei buruzkotzat zeukan iragarpen hura gudaroste ilyriar eta enkheleei buruzkoa zela, eta ez gudaroste persiarrei buruzkoa. Baina bai zegokiola, ordea, aipagai dugun borrokaldi honi Bazisek egindako iragarpena: Thermodon ibaiertzean eta Asoporen ibar belartsuan, heleniarren bilkura eta Barbaro izutuaren garrasia, hantxe amilduko dira sinuaren leizera uztaz armaturiko [mediar

mordoa, beren azken eguna iristen zaienean.

Beraz, nik badakit iragarpen hori eta horren antzeko Museoren beste batzuk persiarrei buruzkoak zirela. (Aipaturiko Thermodon ibai hori Tanagra eta Glisasen artetik jaisten da).

44. Orakuluei buruzko galdeketaren eta Mardonioren burubidearen ondoren, gaua heldu zen eta zentinelak beren postuetara joan ziren. Eta gauerdian, bi kanpamenduetan dena lasai zirudienean eta tropak lozorroan zeudenean, orduantxe hain zuzen igo zen zaldi gainera Alexandro, Mazedondarren buruzagi eta errege zen Amyntasen semea, eta athenastar zaingo-postuetara jo zuen haien jeneralekin hitz egitera. Zentinelak gehienek beren postuetan jarraitu zuten, baina haietariko batzuk jeneralengana joan ziren segituan eta zera esan zieten heldu eta batera: kanpamendu mediarretik zetorren zaldizko bat aurkeztu zitzaizela eta jeneralekin

berba egin nahi zuela zioela, beste inolako azalpenik eman gabe eta jeneralen izenak aipatuz.

45. Jeneralak orduan, berri hori entzutean, zentinelekin joan ziren berehala zaingo-postuetara; eta hara iritsitakoan, haxe esan zien Alexandrok: "Athenastarrok, esatera noakizuen sekretu handia da eta Pausaniasi izan ezik beste inori ez jakinarazteko erregutzen dizuet, neure hondamendia ere eragin ez dezazuen. Nik ez nizueke ezer jakinaraziko, noski, Helade osoaren zoriak hain sakonki kezkatuko ez banindu, zeren ni antzinako leinuko heleniarra bainaiz eta ez nuke ikusi nahi Helade bere askatasuna galdu eta esklabo bihurturik. Horrexegatik jakinarazten dizuet Mardoniok eta bere gudarosteek ez dutela lortzen aldeko zantzurik, ezen bestela aspaldi izango zineten gerran. Halarik ere, une honetan zantzuei jaramonik ez egitea eta eguna argitu bezain laster erasora irtetea erabaki du, beldur handia baitu -hori da nire susmoa- gudari gehiago bil zaitezten. Har itzazue, beraz, dagozkion neurriak. Dena den, Mardoniok eraso atzeratu eta borrokara ez bada irteten ere, jarrai ezazue zaudeten lekuan, egun gutxitarako hazkurriak baizik ez baititu. Eta gerra hau zuen nahierara amaitzen bada, norbaitek gogoratu beharko du ni askatzeaz ere¹⁸⁴, Mardonioren egitasmoen berri zuei ematean horren egiteko arriskutsua burutzearen, Heladeren kausari diodan atxikimenduarengatik, barbaroen erasoak ustekabeen harrapa ez zaitzaten. Mazedoniako Alexandro nauzue". Hori esan eta berriro itzuli zen hura bere kanpamendura eta bertan zegoen postura.

46. Orduan, jeneral athenastarrak eskuineko hegalerara joan eta Pausaniasi jakinarazi zioten Alexandrori entzundakoa. Berri hori entzutean, persiarren beldurrez, ondoko haxe esan zien Pausaniasek: "Beraz, borrokaldia egunsentian izango denez, behar-

beharrezkoa da zuek, athenastarrok, persiarren aurrez aurre jartzea, eta gu, aldiz, beoziarren eta orain aurrean dituzuen gudaroste heleniarren aurrez aurre. Hona hemen zergatik: zuek, Marathonen haien aurka borrokatu zenutenez, ezagutzen dituzue dagoeneko mediarrek eta haien borrokatzeko modua; guk, ordea, ez daukagu esperientzia hori eta ez dakigu ezer jende horiei buruz, guretariko inork ere ez baititu neurtu indarrak mediarrekin, eta bai oster a beoziar eta thesaliarrekin. Beraz, zuen armak hartu eta hegal honetara etorri behar duzue, eta gu ezkerreko hegalera lekualdatuko gara". Horren aurrean, hona zer erantzun zuten athenastarrek: "Aspalditik geunden gu geu ere orain proposatzen diguzun gauza bera zuri esateko -persiarrak zuen aurrez aurre lerrokatzen zirela ikusi genuen une beretik-, baina beldur ginen halako proposamena zure gustukoa ez ote zen. Halere, zuek zeuok atera duzuen zuzia eta zuen hitzok pozez betetzen gaituztenez, diozuen egiteko prest gaude".

47. Neurri hori bien gustukoa izanik, beraz, athenastarrek eta lazedemondarrek posizioak trukatzeari ekin zioten egunsentian. Baina beoziarrek hartaz jabetzean, Mardoniori jakinarazi zioten, eta honek, hura entzuteaz batera, bere armadaren formazioa ere aldatzen saiatu zen, persiarrei lazedemondarren aurrez aurre kokaraziz. Horrela, Pausanias maniobra horretaz konturatu zenean, bere estrategiak ez zituela oharkabean harrapatuko ikusirik, eskuineko hegalera itzultzeko agindu zien spartarrei; eta Mardonio ere ezker aldean lerrokatu zituen persiarrak era berean.

48. Batzuk eta besteak beren lehengo posizioetara etorri zirenean, Mardonio heraldo bat bidali zien spartarrei honako mezu honekin: "Zuek, lazedemondarrok, gizon oso kementsutzat zaituzte inguru honetako jendeak, borrokari ez zatzaizkiotela itzurtzen uste dute, eta zuen postua ez duzuela bertan behera uzten, baizik eta bertan irauten dakizuela etsaia suntsitu ala zeuen bizia galdu arte. Baina dirudienez gezur hutsa da hori guztia; izatez,

borrokan sartu eta elkarren aurka hasi baino lehen ikusi zaituztegu ihesi, zuen posizioa bertan behera laga eta athenastarren bizkar utziz zuen orde z gurekin indarrak neur ditzaten, zeuek gure esklaboen aurrez aurre kokatzen zineten bitartean. Jokabide hori ez da, inola ere, kementsuei dagokiena; etsipen handia izan da guretzat, bada, zuen portaera. Egiatan zera espero genuen, zuen ospeari erantzunez heraldo bat bidaliko zenigutela, persiarrekin buruz buruko borrokan aurpegi emateko desafio egitera, baina, erronka hori onartzeko prest geunden arren, horrelakorik proposatzetik urrun ikusi zaituztegu, aitzitik, gure aurrean kilil samar. Horrela ba, zuengandik halako erronkarik jaso ez dugunez, geuk egingo dizuegu desafio. Zergatik ez gara biok biotara borrokatzen, soldadu-kopuru berdinez, zuek heleniarren izenean (guztietarik adoretuenak izatearen ospea baituzue) eta gu barbaroen izenean? Eta gainerako gudarosteak ere elkarrekin borrokatzeari baderitzozue, hala bedi, gure ostean borroka daitezela; aitzitik, iritzi horretakoak ez bazarete, baizik eta aski baderitzozue guk biok soilik borrokatzeari, hiltzeraino egingen dugu borroka. Eta alde biotarik garaipena lortzen duenak, bere armada guztiaren izenean lor dezala garaipena".

49. Heraldoak berbok esan eta une batez zain geratu ondoren inork ere ez zionez erantzun modukorik ematen, etorritako lekura itzuli zen, eta, itzulitakoan, Mardoniori jakinarazi gertaturikoa. Honek orduan, bozkarioz zoratzen garaipen hutsal horregatik, zaldieria jaulki zien erasora heleniarrei. Zaldizkoen erasoak, azkonak eta geziak jaurtikiz, hildakoak eragin zituen armada helendar osoan, ez baitzen erraza zaldi gaineko arkulari haiengana hurbiltzea. Horrez gainera, soldadu heleniar guztiak ura hartzeko zerabilten Gargaphia iturburu uhertu eta butxatu zuten. Izatez, iturburu haren ondoan zeuden bakarrak lazedemondarrak ziren, gainerako heleniarren

kokaguneetatik nahikoa urrun baitzegoen iturburua, eta nahikoa hur, oster, Asopo; baina Asopora hurbildu ezin zirenez (zaldizkoek eta geziek oztopatzen baitzieten bidea) beti joaten ziren iturrira.

50. Egoera honen aurrean, gudarosteak urik gabe eta zaldieriaren erasopean, jeneral heleniarrak Pausaniasekin bildu ziren arazo hori eta beste zenbait aztertzeko, eta horretarako eskuin hegalaria joan ziren. Izan ere, bazen beste arazo bat goian deskribatu dudana egoera horrek baino oraindik gehiago kezkatzen zituena: jada ez zeukaten jatekorik, eta hazkurri bila Peloponesora bidalitako hornitzaileak zaldieriak blokeaturik zeuden, kanpamendura iritsi ezinik.

51. Eta bilera hartan zera erabaki zuten jeneralek, armada persiarrak egun hartan ere erasorik ez bazien egiten, "uhartera" abiatuko zirela, Asopo eta Gargaphiatik hamar estadiora dagoen lekura, une hartan kanpaturik zeuden tokitik hurbil, Platea hiriaren aurrean. Hona hemen lehorrean uharte bat aurkitzearen arrazoia: Zitheron gainetik jaisten den eta lautadarantz doan ibaia (Oeroe du izena eta, bertakoek diotenez, Asoporen alaba zen), bi adarretan banantzen da eta, hiru estadio inguruko tartez banan jaitsi ondoren, berriro ere ibilgu berera biltzen. Beraz, leku hartara lekualdatzea erabaki zuten, edateko ur ugari izan zezaten eta zaldizkoek hildakorik eragin ez ziezaieten aurrez aurre zituztenean bezala; eta gaueko bigarren txanda goardian zegoen unea aukeratu zuten atzera egiteko une egokientzat, persiarrak ohartu eta zaldieria atzetik erasora bidal ez ziezaieten. Beste hau ere erabaki zuten gainera: leku hartara iritsitakoan (hots, Asoporen alaba den Oeroe ibaiak

Zitherondik jaitsi eta adar bitan banantzerakoan eratzen duen lekura), armada erdia bidaltzea Zitheronera, hazkurri bila joan eta mendian harrapaturik aurkitzen ziren hornitzaileak askatzera.

52. Erabaki horiek hartu ondoren, zaldieriaren etengabeko erasoak jasan behar izan zuten egun osoan zehar; baina azkenean, eguna bukatu eta zaldieriak erasook eten zituenen, gehienak kanpamendua jaso eta atzera egiteko erabakitako une hartantxe, gauerdian, abiatu ziren; halere, ez ziren abiatu erabakitako leku hartara joateko asmoz, baizik eta abian jarri bezain laster, zaldieriari itzurtzeaz pozik, ihesari eman zioten Platea hirirantz; eta, ihesi zihoazela, hiri horren aurrean aurkitzen den Hereora heldu ziren, Gargaphia iturburutik hogeit hamar estadiora. Eta hara iristerakoan, tenpluaren aurrean jarri zuten kanpamendua.

53. Gudaroste horiek Hereoaren aurrean kanpatzen ziren bitartean, Pausaniasek -haiek kanpamendutik abiatzen ikusi zituenen, erabakitako lekura zihoazela uste baitzuen honek- lazedemoniarrei ere armak hartu eta abiatuakoen atzetik irteteko agindu zien. Halarik ere, gainerako ofizial guztiak horretarako prest zeudenean, pitana batailoien buruan zegoen Amomphareto Poliadesenak atzeritarrengandik borondatez ihes egiteko asmorik ez zeukala esan zuen, eta berak behintzat ez zuela desohoratuko Sparta (Amomphareto zur eta lur zegoen gertatzen zena ikusteaz, ez baitzuen parte hartu jeneralen bilkuran). Pausaniasek eta Euryanaxek onartezintzat jotzen zuten, aldiz, Amompharetok beraien aginduei men ez egite hura, baina are onartezinago zeritzoten buruzagi hark hartutako erabakia zela eta pitana batailoia bertan behera lagatzeari, izan ere, gainerako heleniarrek adostutakoari lotzearren hori eginez gero, bai Amomphareto eta bai bere gizonak, bakarrik gelditzean, suntsitu egingo zituztelako. Arrazoi horregatik, gudaroste lakoniarrek hantxe geldi iraunarazi

zituzten eta halakorik egin ez zezan Amomphareto konbentzitzen saiatu ziren.

54. Haiek Amomphareto, gudaroste lazedemondar eta tegearretatik bertan gelditzea erabaki zuen bakarra, konbentzitu nahian ziharduten bitartean, hara zer egin zuten athenastarrek: lazedemondarren izaera ezagutuz -era batera pentsatu eta bestera jokatzeko omen dutenak, haien esanetan- zeuden postuetan geratu ziren. Baina armada bere lekutik higitu zenean, zaldizko bat bidali zuten ea spartarrak gauza bera egitera zihoazen ala atzera egiteko asmorik ez zuten egiazta zezan, eta azken kasu honetan zer egin behar zen galde ziezaion Pausaniasi.

55. Gudaroste lazedemondarrena iritsi zenean, hauek beren postuetan lerrokaturik eta buruzagi nagusiak elkarren artean eztabaidan ikusi zituen mezulariak. Izan ere, Euryanax eta Pausanias Amomphareto konbentzitu guran jarraitzen zutenaz lazedemondarrak han bakarrik gerarazi eta arriskuan jar ez zitzaizkion, baina hura konbentzitzerik lortzen ez zutenaz, azkenean berotu egin zen eztabaida, eta une hartantxe heldu zen hain zuzen ere kanpamendura mezulari athenastarra. Eta eztabaidaren berotasunean, Amompharetok esku biek harri handi bat hartu eta Pausaniasen oinen aurrean uzten du, boto¹⁸⁵ harekin atzeritarrengandik (barbaroez hitz eginez) ihes ez egitearen kontra botatzen duela adierazteko. Pausaniasek orduan, Amompharetoari ero eta burugabe izatea egotziz, galdezka ari zaion heraldo athenastarrengana zuzendu eta honako agindu hau damaio: une horretan lazedemondarrak zein egoeratan aurkitu dituen jakinaraz diezaiela athenastarrei, eta lazedemondarren lerroetara hurbiltzeko eska diezaiela, atzera egiteari buruz beraiek bezala jardun dezaten.

56. Mezularia, bada, athenastarren posizioetara itzuli zen. Eta egunsentia lazedemondarrak elkarren artean eztabaidan harrapatu zituenez, Pausaniasek -denbora horretan guztian atzera egin gabe zirauen-, beste lazedemondar guztiak erretiratzen baziren, Amomphareto bakarrik ez zelakoan geratuko (eta halaxe

gertatu zen, gertatu ere), handik abiatzeko agindua eman zuen eta, tegearrak ere berarekin zihoazela, mendisketan zehar eramane zituen gainerako guztiak. Athenastarrei dagokienez, hartutako aginduei jarraiki, beste norabide baterantz abiatu ziren: lazedemondarrak zaldieriaren beldurrez muinoetara eta Zitheron mendi-saihetsetara itsatsirik zihoazen bitartean, athenastarrak lautadarantz jaitsi ziren.

57. Bitartean Amompharetok, beraiek bertan behera lagatzera Pausanias inola ere ez zela ausartuko uste izanik hasiera batean, hantxe geratuko zela bere gizonekin eta ez zuela posizioa utziko esan eta berresaten zuen; baina Pausanias eta honen gudarosteak urrundu zirenean, benetan ere bertan behera utziko zutela ikusirik, bere batailoikoei armak hartzeko agindu eta igarobidera eramane zituen gainerako armadarekin biltzera, hauek hantxe zeudelarik haien zain, hamar estadio inguru urrunduta, Molunte ibaiaren inguruan gorderik, Argiopio deritzon eta Demeter Eleusistarraren santutegi bat ere aurkitzen den bazterrean. Armadaren zati handiena haien zain geratzearen xedea Amomphareto eta honen batailoiko soldaduei laguntzera itzuli ahal izatea zen, hauek, berauen posizioak utzi barik, bertan geratzeko erabakia hartu izan balute. Amomphareto eta bere gizonak bildu zitzaizkieneko, barbaroen zaldieria guztia oldartu zitzaien, zaldizko persiarrek betiko taktikari jarraitu baitzioten eta, heleniarrak aurreko egunetan lerrokaturik egon ziren lekua hutsik ikustean, zaldiei ezproiez jo eta aitzina egin zuten lazedemondarrak aurkitu eta haien gainera oldartu arte.

58. Heleniarrak gauaren babesera erretiratu zirela jakin zuenean Mardoniok, eta haien posizioak hutsik ikustean, Torax larisastarrari eta honen anaia Eurypylo eta Thrasydeiori deitarazi eta honako hau esan zien: "Zer esango duzue orain, Aleuasen umeok, posizio horiek hutsik ikusiz? Guduzelaitik inoiz ez

dutela ihes egiten eta arlo militarrean munduko gerlaririk oldartsuenak direla diozue haien auzo zaretenok; baina posizioz aldatzen zelan saiatu diren ikusi duzue lehenengo, eta bart gainera ihesari emen diotela dakusagu denok. Egiaz munduko gerlaririk onenak direnekin guduzelaian indarrak neurtzeko ordua iristean, beren adorea hutsaren parekoa dela erakutsi dute, eta gainerako heleniar guztiek ere beste horrenbeste. Persiarrez ezer ez zenekitenez, nik ulertzen nuen zuek morroi haien laudoriotan aritzea, bazitekeelako haien merituren baten berri izatea; askoz gehiago harritzen ninduen, ordea, Artabazok lazedemonдарrei zien beldurra, eta beldur horrexegatik iritsi zen plan erabat koldarra proposatzera, hots, kanpamendua jaso behar genuela eta Thebas hirira joan, han setia gintzaten; eta plan horren berri izango du, bai, erregek nire ahotik, garaia iristen denean. Baina izango dugu astia beste uneren batean gai honetaz berba egiteko. Orain, berriz, ezin diegu utzi heleniarrei egiten ari direna egiten: azkenerraino jazarri behar ditugu, haiek harrapatu eta persiarrei eragin dieten kalte guztia ordain dezaten arte".

59. Hori esanik, persiarrei Asopo zeharkarazi zien eta heleniarren atzetik lasterka eramane zituen, haiek ihesi zihoazela uste izanez bete-betean; eta lazedemonдарren eta tegearren aurka soilik oldarrarazi zituen bere gizonak, muinoek ez baitzioten utzi ikusten athenastarrak lautadara joanak zirela. Eta, soldadu persiarrak heleniarren ondotik zihoazela ikustean, gainerako batailoi barbaroen buruzagi guztiek banderak berehala jasotzeko agindu zuten eta ibili ahalean abiatu ziren, abasberuan, heleniarrak jazartzera.

60. Halaxe jauzi ziren erasora barbaroak beraz, oihuka eta trumilka, heleniarrak suntsitzeko ordua iritsi zela uste izanik; bitartean Pausaniasek, zaldieriaren erasopean, zaldizko mezulari bat bidali zien athenastarrei honako hau esatera: "Athenastarrok, Helade aske ala esklabo izatea ekarriko digun kinka ezin larriago

honetan, gure aliatuek bart engainatu egin gaituzte, bai gu eta bai zuok, eta ihesari eman diote. Begien bistakoa da, beraz, zer egin behar dugun: elkarri laguntza eman ahalik ondoen defenda gaitzen. Izan ere, zaldieriak zuei egin balizue eraso lehenengo, bistan da geuri eta gure ondoan Heladeri traiziorik egin gabe dauden tegearrei zegokigukeela zuek sorostea. Baina orain, geu garenez zaldieria osoa gainean dugunak, bidezkoa da zuek etortzea kinka honetan egoera larrienean aurkitzen diren gudarosteak sorostera. Halere, gure laguntzan etortzea eragozten dizuen ezustekoren bat gertatu bazaizue, bidaliezazkiguzue mesedez zuen arkulariak. Badakigu gerra honetan zeuok zaretela, askozaz, ahalegin gehien jartzen ari zaretenak eta, beraz, eskari honi erantzuna emango diozuela".

61. Lazedemondarren egoeraren berri izatean, athenastarrak haiek sorosteko eta ahal zuten laguntza guztia emateko prestatu ziren; baina dagoeneko bidean zirela, monarkaren gudarosteetan haien aurrez aurre lerrokarazitako gudaroste heleniarrak oldartu zitzaizkien eta, eraso horrek sortu zizkien arazoengatik, ezin izan zuten jada Pausaniasi laguntza ematera joan. Horrela, orduan, lazedemondarrak eta tegearrak, isolatuta aurkitzean (lehenengoak berrogeita hamar mila gizon ziren, arma arineko soldaduak barne, eta tegearrak -lazedemondarrengandik une batez ere banandu gabe iraun zutenak- hiru mila), sakrifizioak burutzen hasi ziren, Mardoniori eta aurrean zituzten gudarosteei eraso egiteko prest. Baina lortzen zituzten zantzuak aldekoak ez zirenez, eta bitartean beretariko asko hilik edo zauriturik erortzen zenez (izan ere, persiarrek beren mihimenezko ezkutuez barrikada bat osatu eta gezi multzoak jaurtikitzen baitzituzten etengabe), egoera horretan, spartarrak zein larri aurkitzen ziren eta zantzuak kontrakoak izaten irauten zutela ikusirik, Pausaniasek Plateako Hereora so egin eta jainkosari egin zion erregu, bere gizonen itxaropenak ez zitezela, arren, ezegatik ere zapuztu.

62. Oraindik Pausaniasek erregu horretan ziharduela, tegearrak izan ziren beren lerrotik irten eta barbaroei oldartu zitzaizkien lehenak; eta, Pausaniasen erregua bukatu bezain laster, lazedemondarrek aldeko zantzuak lortu zituzten beren sakrifizioetan; eta azkenean ere hori gertatzean, lazedemondarrak ere persiarren aurka jauzi ziren, eta hauek beren arkuak utzi eta aurpegi eman behar izan zuten.

Lehenbizi ezkutuz osaturiko barrikadaren inguruan borrokatu zen. Ondoren, hura eraitsi eta gero, luzaro iraun zuen borroka anker bat burutu zuten, Demeterren tenpluaren beraren inguruetan, buruz buruko borrokara heldu ziren arte, zeren barbaroek arerioen lantzak oratu eta hautsi egiten baitzituzten. Beraz, soldadu persiarrak ez ziren heleniarrak baino makalagoak ez adorean ez bulkadan, baina, babes-armarik ez edukitzeaz gain, ez zuten trebetasun militarrik, eta ahalmen taktikoan ere ezin ziren arerioekin alderatu: banaka edo hamarnaka (edo talde gutxi-asko handietan) oldartzen zitzaizkien spartarrei, eta suntsiturik amaitzen zuten.

63. Zaldi zuri baten gainean eta mila gudari persiar adoretueneren elite-gorputz trinkoz inguraturik zegoen Mardonio bera aurkitzen zen gunean bulkatu zuten gehien, hain zuzen ere, persiarrek. Eta egiatan, Mardonio bizirik zegoen bitartean, haren tropak ongi jarki eta defendatu ziren, lazedemondar ugari eraitsiz. Baina Mardonio hiltzean eta haren inguruko soldaduak -armadako porrokatuenak- erortzean, gainerako gudarosteek ihesari eman zioten, lazedemondarren aurrean amore emanez. Haien desabantailarik handiena, izatez, babes-armarik ezean zetzan, arma arinez armaturik borrokatzen baitzuten hopliten aurka.

64. Egun hartan, spartarrei orakuluak adierazitakoaren arabera, Mardonio bere biziarekin ordaindu zuen Leonidasen heriotza; eta Pausaniasek, oster, Kleombrotoren seme eta Anaxandridesen ilobak (aipatu ditut jada, Leonidasez mintzatzean, haren

arbaso urrutikoenen izenak, zeren eta berberak baitira bi pertsonaiontzat), guk dakigula behintzat inork inoiz lortu izan duen garaipenik loriatsuena erdietsi zuen.

Mardoniori dagokionez, Arimnestoren eskutik etorri zitzaion heriotza, Spartan entzutea zeukan laguna berau eta, Gerra mediararak bukatu eta gero, Meseniarren aurkako gerra batean parte hartu zuena hirurehun gizonen buruan Stenyklerin, bai berak eta bere soldaduak bertan bizia galduz.

65. Bitartean, Platean, persiarrak batere ordenarik gabe zihoazen ihesi lazedemondarren aurrean beren kanpamendurantz eta Thebasko lurraldean eraiki zuten oholezko gotorlekurantz. Eta hona hemen zeharo harritzen nauena, borrokaldia Demeterren santutegiaren inguruetan burutu zen arren, persiar bat bera ere ez zela ikusi eremu sakratuan gordetzen edo bertan hilda, baizik eta gehienak tenpluaren ingurumarian erori zirela, eremu ez sakratuan. Horregatik uste dut -jainkoekiko gauzetan iritzirik adierazterik baldin badago- jainkosa bera izan zela persiarrak babesteari uko egin ziona, Eleusisko santutegiari su eman ziotelako.

66. Horra hor, labur azalduta, borrokaldi haren emaitza. Artabazo Pharnazesen semea dagokionez, hasiera-hasieratik ezetsi zuen Mardonio Heladen uztea erregek erabakitzea; eta geroago ere, eraso egitearen aurka azaldu zenean, ez zuen lortu inongo oihartzunik, behin eta berriz objekzioak jarri arren. Horregatik, Mardonio hartzen zituen neurriak ez zituen onartzen, honako jarrera pertsonala hartu zuen: borrokaldia hasi eta gutxira, ondo baino hobeto zekienez hura guztia zertan amaituko zen, bere agindupean zeuden tropen buruan jarri zen (berrogei mila gizon ingurura iristen zen gudaroste ez horren gutxiesgarria baitzuen) eta, lerro ezin hobean eraturik, zera nabarmendu zien: berak jartzen zuen ahalegin berarekin jo zezatela berariaz seinalatuko zien itura, eta ez beste ezeineta. Instrukzio horiek eman ondoren, bere tropak borrokara gidatzen zituelakoa egin zuen, baina bera denen aurrean zihoanez, soldadu persiarrak jadanik ihesari emanda ikusi zituen eta orduan ez zituen jada lehengo ordena berean gidatu bere gizonak: handik ahalik

lasterren ihes egiteko agindua eman zuen, ez oholezko gotorlekurantz edo Thebasko esparru harresiturantz, baizik eta Phozealderantz, Helespontora ahalik arinen iristeko xedeaz.

67. Norabide horixe hartu zuten, beraz, tropa haiek.

Erregeren armadan ziren gainerako gudaroste heleniarrak berariaz uzkur azaltzen ziren bitartean, beoziarrek luze borrokatu ziren athenastarren aurka. Izan ere, berariaz uzkur azaltzetik urrun, ez zen izan makala thebasko mediarzaleek borrokkaldi hartan erakutsi zuten lehia, athenastarrek egun hartan haietariko hirurehun bat eraitsi arte, guztietarik ospetsu eta adoretuenak. Eta haiek ere azkenean ihesari eman ziotenean, Thebaserantz jo zuten, persiarrei eta inorekin ere bortizki borrokatu ez ziren eta ezer nabarmenik burutu ez zuten gainerako aliatuz osaturiko aldrari jarraitu gabe ihesbidean.

68. Nire iritziz, zera erakusten du horrek, barbaroen botere militar osoa persiarrengan zegoela, zeren gudaroste haiek etsaiekin borrokan sartu aurretik ere ihesari eman bazioten, persiarrak ere ihesi ikusi zituztelako izan baitzen.

Beraz, haiek denek eman zioten ihesari, zaldieriak izan ezik, bereziki beoziarrenak, zeinek estaldura garrantzitsua eman baitzuen iheslariei, uneoro haien ondo-ondoan iraunez eta ihesi zihoazen kideak heleniarren erasoetatik babestuz. Dena dela, garaileek Xerxesen gudarosteak jazartzen ziharduten, hildako asko eraginez.

69. Barbaroen ihesaldi hori gertatzen zen bitartean, Hereoaren inguruetan kokaturik borrokan esku hartu gabe zeuden gainerako gudaroste heleniarrei ere guduzelaiko berriak iritsi zitzaizkien, jada borrokan zihardutela eta Pausanias eta bereak gailentzen ari zirela. Hori entzutean, inolako lerrotan antolatu gabe, korinthoarren sektorea guduzelairantz abiatu zen Zitheron inguruko mendiska eta muinoetan zehar, Demeterren santutegira zuzen igoten duen bideari jarraiki, eta Megara eta Phliuntekoen sektorea, berriz, lautadan zehar, bide leunenari jarraituz. Megara eta Phliuntekoak etsaiarengandik hurbil zirenean, zaldizko thebastarrek (Asopodoro Timandrorena buruan zela), haiek ibili ahalean eta batere ordenarik gabe zelan zetozen ikustean, zaldiak ezproiatu zituzten erasora. Eta, eraso horen ondorioz, haietariko seiehun eraitsi zituzten eta gainerakoei atzera eragin, Zitheroneraino jazarriz.

70. Horrela hondatu ziren haiek, beraz, batere ganorarik gabe.

Bitartean, oholezko gotorlekuan babestu bezain laster, persiarrak eta gainerako soldaduak dorreetara igo ziren aurki, lazedemondarrak heldu baino lehen, eta, jada han barruan zirela, gotorlekua ahalik ondoen sendotu zuten; horregatik, lazedemondarrak iristerakoan, borroka nahiko bizia burutu zuten batzuek eta besteek gotorlekuaz jabetzeko. Izatez, athenastarrak heldu arte persiarrak nagusitasun garbiz defendatu ziren lazedemondarrengandik, azken hauek ez baitzuten esperientziarik gotorlekuak eraiste kontuan; baina athenastarrak bildu zitzaizkienean, gotorlekuaz jabetzeko borroka hura basati bihurtu zen, denbora luzez iraunez. Azkenean, eskerrak euron adoreari eta irmotasunari, athenastarrak horman gora igo eta harresian zuloa ireki zuten, eta handixe sartu ziren berehala heleniarrak. Gotorlekuan lehenen sartu zirenak tegearrak izan ziren eta eurek arpilatu zuten Mardonioaren denda ere, beste gauza batzuen artean zaldi-aska, oso-osorik brontzezkoa zen pieza bikaina, eraman zutelarik. Hain zuzen ere, Mardonioaren aska hori Athenea Babeslearen tenpluan sagaratu zuten tegearrek, baina gainerako euren harrapakina beste heleniarrek berena utzi zuten leku berera eraman zuten haiek ere.

Barbaroei dagokienez, gotorlekua eroriz geroztik ez ziren berriro lerrokatu eta haietariko bati ere ez zitzaion bururatu defendatzen jarraitzea: esparru hain estuaren barruan hamarka mila asko aurkitzean hertsirik, batetik bestera korrika zebiltzan izuz beterik. Horregatik, heleniarrek hain hildako ugari eragin zuten, non, hirurehun mila gizoneko armadatik hiru mila soldadu ere ez ziren bizirik gelditu, Artabazorekin ihes

egindako berrogei milak aparte. Borrokaldian zehar, Spartako soldadu lazedemondarretatik¹⁸⁶ laurogeita hamaika gizon hil ziren guztira; tegearretatik, hamasei; eta athenastarretatik, berrogeita hamabi.

71. Barbaroen artean infanteria persiarra nabarmendu zen, hala nola saken zaldieria eta, banako mailan -diotenez- Mardonio. Heleniarren artean, hala tegearrak nola athenastarrak adore handiz portatu baziren ere, lazedemondarrak izan ziren ausardia gehien erakutsi zutenak. Hori baieztatzeko daukadan irizpide bakarra hauxe da, egia esan (guztiak atera baitziren garaile, bakoitzak bere arerioa gaindituz), etsaiaren gune gogorrenari aurre egin eta garaitu zitzaizkiola.

Nire iritziz gudaririk bihoztunena, askozaz, Aristodemo izan zen, hirurehun soldadu lazedemondarretarik Thermopyletan bizirik gelditu zen bakarra izatearren mesprezuz eta laidoz hartu zutena; eta haren ondoren Posidonio, Philozyon eta Amomphareto spartarrarrak nabarmendu ziren. Halere, horietarik adoretuena zein izan ote zen ezbaia sortu zelarik behinola, borrokaldian parte hartu zuten spartarrarrak bat etorri ziren zera esatean, Aristodemok lerroetatik ausarkeriaz irten eta balentria handiak egin bazituen, salatzen ziotenagatik bizia galdu gura zuelako izan zela, eta Posidoniok, oster, bizia galtzeko guraririk gabe jokatu zuela kemenez, eta horregatik meritu gehiago zeukala. Dena den, horrela mintzatzea bekaizkeriaz izatea ere litekeena da; baina borrokaldi hartan hil ziren spartar horiei guztioi -eman dut goian kopurua- egin zizkieten ohoreak Aristodemori izan ezik, izan ere azken honi ez baitzioten ohorerik egin, lehen esandako arrazoiagatik bizia galdu nahi zuelako.

72. Horiexek izan ziren Platean loria handiena erdietsi zuten spartarrak. Izan ere, Heladeko armadan abiatutako Kalikrates, bere garaiko heleniarren artean gerlari segailena¹⁸⁷ -ez lazedemondarren euren artean soilik, baizik eta Helade osoan-, borrokaldian parte hartu gabe hil zen. Hura hantxe zegoen bere postuan kokoriko, Pausanias sakrifizioak burutzen ari zen bitartean,

gezi batek saihetsean zauritu zuenean. Eta bere burkideek borrokaldi erdian zihardutela eta bera formaziotik at zeramatelarik, hauxe esan zion hil-hurren Plateako Arimnestori: berak ez zuela Heladegatik hiltzearen damurik, baina bai bere besoaren indarra erakutsi gabe eta berari zegokion eta hain biziki irrikatzen zuen egitandiren bat burutu ahal izan gabe hiltzearena.

73. Athenastarren aldetik Sophanes Eutykhidesena nabarmendu omen zen, izatez Dezeliakoa, behinola -athenastarren esanetan- sekulako onura ekarri zien egintza burutu omen zuten bizilagunen herri-barrutia, alegia: izan ere, antzinako denboretan tyndaridek gudaroste ugari batekin Atika inbaditu zutenean Helena erreskatatzeko, eta herri-barrutietako bizilagunak kanporarazten zituztelarik (ez baitzekiten Helena non ezkutatzen zuten), kinka horretan dezeliarrek edo -beste batzuen arabera- Dezelok berak, Theseoren gehiegikeriaz sumindurik eta athenastar lurralde guztiak paira zezakeenaren beldur, tyndaridei dena jakinarazi eta Aphidnasera eramanez omen zituzten, hiri hori Titakok, eskualde hartako batek, maltzurki entregatu zuelarik. Zerbitzu horregatik Dezeliaok betidanik gozatu izan dute Spartan -eta gaur egun ere oraindik gozatzen dute- atelía eta proedría zerga-salbuespenez; hain neurriraino ezen, aipagai ditugun gertaerez hainbat urte gerora athenastarren eta peloponesoarren artean piztu zen gerran, lazedemonдарrek, gainerako Atika osoa arpilatu arren, Dezelia errespetatu egin baitzuten.

74. Herri-barruti horretakoa izan eta gudaroste athenastarrean une hartan horrela nabarmendu zen Sophanesi buruz, bi bertsio dira zabal; bataren arabera, burdinazko aingura bat omen zeraman brontzezko katea batez bere korazatik zintzilik eta, borroka erdian etsaiengana hurbiltzen zen bakoitzean, lurrean tinkatzen omen zuen, etsaion erasoek beraren lekua utzaraztera behar ez zezaten; eta etsaiak ihesari ematen bazion, aingura jaso eta horrekin haien atzetik oldartzea omen zuen taktikatzat. Horra hor

lehenengo bertsioa; bigarrenaren arabera, ordea -kontatu berri dudanetik desberdina-, Sophanesez zeramana ikur gisako ainguratxo bat omen zen bere ezkutuan (etengabe mugimenduan zegoena, une batez ere gelditu gabe), eta ez burdinazko aingura bat korazan itsatsia.

75. Sophanesez burututako beste berebiziko egitandi bat, halaber, Argosko Eurybates, pentathloan garaipena lortu zuen bat hiltzea izan zen, desafio bat medio, athenastarrak Egina setiatzen ari zirela. Baina handik denboragarrenera, Sophanes bera ere edoniarren eskutik hil zen adore handiz Daton, Leagro Glaukonenarekin batera athenastar gudarosteen buru zela, urregorritzko meategien jabetzagatik borrokan ziharduenean.

76. Barbaroek heleniarren eskutik Platean jasan zuten porrotaren ondoren, etsaien bandotik ihesi zetorren emakume bat aurkeztu zitzaizen azken horiei; emakume hau Persiako Pharandates Teaspisenaren ohaide zen eta, persiarrak suntsitu eta heleniarrak garaile zirela jakitean, urrezko bitxi ugariz apaindu -bai bera eta bai neskameak-, zeuzkan arropa dotoreenez jantzi eta, bere karrozatik jaitsiz, lazedemondarrengana abiatu zen, hauek oraindik etsaiak sarraskitzen ari zirela. Eta operazio guztien buru Pausanias ikustean, emakume hark, haren izena eta aberria sarritan aipatzen entzunak izatearren jadanik aski ezagunak zituelarik, bera zela hauteman zuen eta, haren belaunei tinko atxikiz, honako hau esan zion: "Oi Spartako errege, aska nazazu, arrenkari natorkizu-eta, gatibuei dagokien esklabotzatik. Egia esan, dagoeneko egin didazu mesede bat morroi horiek suntsitzeaz, ez baitute begirunerik ez jainko-izakiez ez jainkoez. Gainera, jatorriz Kos uhartekoa nauzu, Hegetoridesen alaba eta Antagorasen iloba; menpean nindukan persiarrak Kostik bahitu ninduen indarrez". Orduan Pausaniasek berba hauekin erantzun zion: "Lasai zaitez, emakume, ez soilik arrenkari zatozkidalako, baizik eta batez ere diostazuna egia bada eta benetan ere

Kosko Hegetoridesen alaba bazara; izan ere, lurralde haietan bizi diren guztietarik hareekin baititut abegi-harremanik estuenak". Hori esanik, Pausaniasek han bertan zeuden eforoen kargura utzi zuen behin-behinekoz eta Eginara bidali zuen ondoren, emakumeak berak joan nahi zuen lekura, alegia.

77. Emakume hura aurkeztu eta jarraian iritsi ziren Mantineakoak, dena bukatuta zegoenean; eta borrokan parte hartzeko beranduegi etorri zirela ikustean, zeharo atsekabeturik azaldu ziren, norbaitek zigorra ezartzea merezi zutela esanez. Dena dela, Artabazo eta bere mediarrek ihesi zihoazela jakitean, Thesaliaraino jazarri nahi izan zituzten; halere, lazedemondarrek ez zieten ez utzi iheslariak jazartzen, beren aberrira itzuli ziren eta armadako buruzagiak erbesterarazi zituzten handik. Mantinearren ondoren elidarrak heldu ziren, eta hauek ere nahigabeturik bueltatu ziren etxera mantinearrek bezala, eta gudarosteen buruzagiak erbesteratu zituzten, eurek ere, aberrira itzultzean. Horra hor mantinearrei eta elidarrei buruz esan beharrekoa.

78. Horiek horrela, bazen Platean zegoen gudaroste eginarrean Lampon delako bat, Pytheasen semea, Eginako pertsona printzipalenetariko bat; morroi hori, bada, asmo erabat dongea buruan zuela joan zitzaion presaka Pausaniasi eta, honen aurrera iristean, honako haxe esan zion hitzetik hortzera: "Izugarrizko egitandi garrantzitsu eta distiratsua burutu berri duzu, Kleombrotoren seme hori, eta dibinitateak Helade salbatzea eta, guk dakigula behintzat, beste ezein heleniarrek baino askoz loria handiagoa erdiestea eman dizu. Zure egitandi hori burutzea duzu, beraz, ospe are handiagoa jaso dezazun eta ezein barbaro ere ez dadin ausart aurrerantzean heleniarren aurkako egintza erorik burutzen. Thermopyletan Leonidas hil zenean Mardoniok eta Xerxesek hura lepamoztea eta paldoan jartzea agindu zuten gero, zeuk ere lehenengoarekin gauza bera egiten baduzu, gorespenak jasoko dituzu spartarrar guztiengandik lehenik eta behin,

baina baita gainerako heleniarrengandik ere, zeren eta Mardonio paldoan jartzeko agintzen baduzu, aitaren aldeko osaba zenuen Leonidas mendekatuko baituzu".

79. Horra hor Lamponek esan zuena, bere iradokizun hori Pausaniasi laket izango zitzaiolakoan; baina honek zera erantzun zion: "Eginar atzerritar hori, eskertzen dizut nireganako duzun begirunea eta ardura, baina proposatzen didazuna ez da zentzuzkoa; izan ere, lehenengo goraino jaso nauzu, nire aberriarekin eta egitandiarekin batera, eta gero ezerezeroa beheititu nauzu gorpu bat laidoztatzea aholkatzean eta, hori eginez gero, ospe gehiago izango dudala iradokitzean: baina egintza hori barbaroei dagokiena da heleniarrei baino gehiago, eta haiek egitea ere gaitzesten duguna. Ez dut gura nik, horren truke izatekotan, ez eginarren ez halako gehiegikeriak laket dituztenen onespénik; aski bekit spartarren onespénaz legezkoa burutzea, hitzez eta egitez. Eta mendekatzea iradokitzen didazun Leonidasi dagokionez, aski mendekatua izan dela aldarrikatzen dut: aski mendekatua bai hura, bai harekin batera Thermopyletan bizia galdu zuten gainerakoak ere, hemen erorita dakuskizunen arima kontaezinen omenaldiaz. Zuri dagokizunez, zera ohartaraztea, ez diezadazula niri berriro aholkurik eman; are gehiago, eskerrak eman behar dizkidazula zigorrik ez ezartzearren".

80. Erantzun hori entzunik, Lamponek alde egin zuen. Jarraian, Pausaniasek bando bat atera zuen harrapakina inortxok ere uki ez zezan, eta aberastasunak biltzeko agindua eman zien hilotei. Orduan haiek kanpamendu persiarretik barreiatu ziren eta denetik aurkitu zuten: urrez eta zilarrez brodatuak dendak, urre eta zilarrezko inkrustazioak zituzten dibanak, baita urrezko kraterak, edalontziak eta bestelako ontzi batzuk ere; zakuak ere aurkitu zituzten gurdi batzuen gainean, urrezko eta zilarrezko pertzak agertu zirelarik barruan; eta lurrean zeutzan gorpuei besokoak, idunekoak eta alfanjeak kendu zizkieten, denak urrezkoak, baina haien arropak bertan behera utziz, brodatu finak zituzten arren. Egiteko hori burutzen zuten bitartean, hilotek

objektu pila lapurtu zuten, baina aurkeztu ere bai beste pila bat (ezkutatu ezin izan zuten guztia), eta lapurturikoak eginarrei saldu zizkieten, eta hortik azken hauen ondasun handien jatorria, zeren eginarrok brontzea bailitzan erosten baitzieten urrea hilotei.

81. Aberastasunak metatu eta gero, hamarren bat apartatu zuten Delphosko jainkoarentzat (brontzezko buru hirukoizdun sugearen gainean, aldaretik oso hurbil, aurkitzen den urrezko tripodea eskaini zen horrekin), hala nola Zeus Olympoarrarentzat (horrekin Zeusen brontzezko estatua eskaini zuten heleniarrek, hamar ukondo garaia) eta Isthmoko jainkoarentzat (horrekin Posidonen brontzezko estatua eraiki zen, zazpi ukondo garaia); eta hori bereizi ondoren, gainerako harrapakinaren banaketa egin zuten, gudaroste bakoitzak persiarren ohaideez, urre, zilar eta beste aberastasunez (zamariak barne) merezi zituztenak jasoz. Egia esan, inon ez da ageri zein sari eman zizkieten bereziki Platean nabarmendu ziren heleniarrei, baina nire ustez haiek ere hartu zituzten bereak. Pausaniasi dagokionez, emakume, zaldi, orga, gamelu eta gainerako ondasunen aparteko sail bat bereizi zuten harentzat.

82. Eta honako hau ere gertatu zela kontatzen dute. Heladetik ihes egitean, Xerxesek Mardoniori utzi zizkion bere altzariak; horrela, Mardonioaren altzariak urrezko eta zilarrezko piezez eta zamau brodatuz gainezka zeudela ikustean Pausaniasek, oturuntz bat prestatzeko eta Mardoniori berari zerbitzatzen zioten moduan zerbitzatzeko agindua eman zien okin eta sukaldariei. Eta zerbitzariok haren aginduak bete zituztenean, hain ederki tapizaturiko urrezko eta zilarrezko dibanak, mahaiak ere urre eta zilarrezkoak, eta oturuntz haren itzelezko arrandia ikusiz, Pausanias txundituta geratu omen zen begien bistan zeukan luxuarekin eta,

jostatzeko aldartez, lakoniar erako oturuntz bat¹⁸⁸ presta zezatela agindu zien bere zerbitzariari. Bazkaria prestaturik, eta bi oturuntzen aldea horren nabarmena zelarik, Pausaniasek barre algara egin eta jeneral heleniarrei etortzeko deitu zien; eta bildu zirenean, honako hauxe esan zien Pausaniasek, oturuntz bata eta bestearen aurkezpena adieraziz: "Heleniarrok, mediarren buruzagiaren burugabekeria erakutsi nahi dizuedalako bildu zaituztet, hemen aurrean dakuskizuen moduko bizibideak eduki eta gure hain eskas eta urriak eskuratzearen etorri baita gurera". Horixe esan omen zien Pausaniasek heleniarren jeneralei.

83. Dena dela, handik denboragarrenera, urrez, zilarrez eta bestelako aberastasunez beterik zeuden kutzak ere aurkitu zituzten platear askok. Eta gertakarion ostean ere, gorpuk hezur hutsean geratu zirenean eta platearrak hezurrok metatzen ari zirela, batere suturarik gabeko burezur bat aurkitu zuten, hezur bakar batez osatua; eta honako hauek ere agertu ziren: pieza bakar batez osaturiko masailezur bat -goiko baraila konkretuki-, hala hortzak eurak nola haginak hezur bakar batez osatuak, eta bost ukondo garai zen giza eskeleto bat.

84. Mardonioaren gorpua borrokaldiaren hurrengo egunean desagertu zen arren, desagertu, ezin dut esan ziur nor izan zen desagerrarazi zuena, nahiz eta herri anitzetako pertsona askotxori buruz entzun dudana esaten beraiek izan zirela Mardoniori lur eman ziotenak, eta ezagutu ere bat eta bi baino gehiago ezagutzen ditudan hori egin omen zutelako sari gizenak jaso dituztenak Mardonioaren seme Artontesengandik. Halere, ezin jakin izan dut ziurtasunez horietariko zeinek bereganatu eta ehortzi zuen Mardonioaren gorpua, nahiz eta Ephesoko Dionysophanesek egin ote zuen zurrumurrua zabal dabilen.

85. Dena dela, halaxe ehortzi zuten hura. Heleniarrek, beren aldetik, harrapakina banatu ondoren, beren hildakoak Platean ehortzi zituzten, herrialde bakoitzak bereak bereiz.

Lazedemondarrek hiru hilobi egin zituzten, horietariko batean irenak¹⁸⁹ ehortziz, eta hauekin batera Posidonio, Amomphareto, Philozyon eta Kalikrates ere. Horrela, bada, hilobietariko batean irenak zeutzan, bestean gainerako spartarrak, eta hirugarrenean hilotak. Horrelaxe hilobiratu zituzten lazedemondarrek beren hildakoak; tegearrek bereak beste hilobi batean lurperatu zituzten, berriz, denak batera; eta beste horrenbeste egin zuten athenastarrek beren hildakoekin, baita megararrek eta phliuntearrek ere zaldieriaren erasoengatik izan zituzten hildakoekin. Aipaturiko herrialde guztion hilobietan ziren, beraz, gorpuzkinak; baina gainerako laterri guztiek, zeinen hilobiak ere egun Platean ikus daitezkeen, lotsa sentitu zuten borrokan esku hartu ez izanagatik eta, neronek jakin izan dudanez, tumulu hutsak eraiki zituzten etorkizuneko belaunaldietan pentsatuz. Adibidez, bada Platean "eginarren hilobia" deritzon tumulu bat, zeina, nik entzun dudanez, aipagai ditugun jazoerak gertatu eta hamar urtera eraiki zuen, eginarren eskabidez, hauen proxenos zen Plateako Kleades Autodikok.

86. Beren hildakoak Platean hilobiratu bezain laster, heleniarrek batzarra egin zuten eta Thebasen kontra abiatzea erabaki, mediarren kausaren alde lerrokatu zirenak (batez ere Timegenidas eta Atagino, buru nagusiak) entrega ziezazkieten exigitzeko, ezpere ez zuketeela hiriari jarritako setioa jasoko-eta, harik eta hura errautsi arte. Erabaki hori hartu eta Thebasera heldu zirenean, borrokaldia izan eta hamar egunera doi-doi, hiria setiatu zuten, pertsona haiek entrega ziezazkietela eskatuz

hiritarrei; baina thebastarrak horretara ez zeudenez, haien lurraldea deboilatzen eta harresia erasotzen ihardun zuten.

87. Eta setiatzaileek arpilatzeari uzten ez ziotenez, hogeigarren egunean hauxe esan zien Timegenidesek thebastarrei: "Thebastarrok, heleniarrek setioari amaierarik ez ematea erabaki dutenez Thebas suntsitu ala gu beren eskuetan jar gaitzazuen arte, ez beza jarrai Beoziak guregatik hondamen gehiago jasaten: horiek gura dutena dirua baldin bada, eta gu bahi entregatzearen exigentzia aitzakia hutsa bada, eman diezaiegun dirua herriko altxorretik (herriaren oneritsiz, eta ez geure kabuz, lerrokatu baikinena mediarrekin); baina horien setioa benetan ere gu nahi gaituztelako baldin bada, prest gaituzue auzitara gaitzaten". Thebastarrei guztiz bidezko eta egokiak iritzi zitzaizkien hitzok eta berehalaxe jakinarazi zioten Pausaniasi, mezulari baten bidez, prest zeudela eskatzen zizkien pertsonok bahi emateko.

88. Baldintza horiexek hitzartu zituzten, beraz; baina Ataginok hiritik hanka egin zuen, eta haren umeak Pausaniasen aurrera eramanez bazituzten ere, honek ez zien errurik egotzi, umeei inola ere ezin ziezaiekeela-eta lepora mediarrekin kooperatzea. Thebastarrek entregatu zizkieten beste pertsonen dagokienez, hauek bete-betean uste zuten auzipetu egingo zituztela eta absolbitu diruaren truke. Baina Pausaniasek bere eskuetan izan zituenean, haien asmoak susmatuz, armada aliatu osoa lizentziatu zuen eta presoak Korinthora eramanez eta hantxe exekutarazi. Honarte Platean eta Thebasen gertatu zena.

89. Ordurako Artabazo Pharnazesena, Plateatik alde egin ondoren ihesi, nahikoa urruti zihoan. Eta Thesaliara iristean, lurralde hartako biztanleek ongietorriko oturuntz batekin hartu zuten eta gainerako armadaz galde egin zioten, ez baitzekiten ezertxo ere Platean gertaturikoaz. Artabazok orduan, kanpainan gertatutakoaren

egia hutsa esanez gero bizia galtzeko arriskuan jar zitezkeela pentsatuz bera eta bere armada (gertatutakoa jakitean jende hark eraso egingo ziolakoan), lehenago ere horrexegatik ez baitzien ezer jakinarazi phozidetarrei, honako hau diotse thesaliarrei: "Dakusazuenez, thesaliarrok, Thraziarako bidean noa azkar eta ibili ahalean, haraxe bidali bainaute kanpamendutik, nirekin datozen hauekin batera, zeregin jakin bat burutzera; baina laster izango duzue hemen, nire atzetik baitator, Mardonio eta bere armada boteretsua ere. Egiozue hari ere abegi on eta har ezazue ondo, luzera ez baitzaizue damutuko horrela jokatu izana". Hori esan eta berriro ere bideari ekin zion aurki bere gudarosteekin batera, Thesalia eta Mazedonia zeharkatu eta Thraziara joz, presa handiz benetan ere eta lehorreko ibilbide laburrenetik. Eta azkenean Byzanziora iritsi zen gudarosteko soldadu asko atzean utziz, bidean zehar thraziarren eskuetan hilda edo goseak eta nekeak jota. Eta Byzanziotik itsasarte zeharkatu zuten zenbait untzitan. Halaxe itzuli zen Asiara Artabazo.

90. Eta hara non, Platean izan zuten hondamendiaren egun berean gertatu zitzairen persiarrei Joniako Mykalan ere porrota jasatea. Izan ere, itsas armada helendarra, Leutykhides lazedemondarrarekin Delora iritsia zena, uharte horretan ainguraturik zetzanean, Samoko mezulari batzuk aurkeztu zitzaizkien aliatuei -Lampon Thrasyklesena, Athenagoras Arkestratidasena eta Hegesistrato Aristagorasena-, samoarrek bidalita, ez persiarrek ezta berauek Samoko tirano izendaturiko Theomestor Androdamanterenak ere horren berri izan gabe.

Haiek jeneralen aurrera iristerakoan, Hegesistratok diskurtso luzea bezain nabarra bota zuen, "joniarrak zuek ikusteaz batera matxinatuko dira" esanez, eta "barbaroak ez dira irtengo borrokara, eta horrela egin balezate, aliatuek ezin aurkitu izanen dute harrapakin errazagorik". Eta jainko komunen izenean eskatu zien gero, behin eta berriz, helendarrak ziren herriak morrontzatik aska eta Barbaroa egotz zezatela, ekintza hori ezin errazagoa gertatuko zitzaiela esanez, ziur, ezen unti persiarrak ez baitziren horren arinak eta ez omen zeuden berenekin lehian jarduteko kondizioetan; "eta segadaren batera erakarri nahi zaituztedan susmo txikerrenik baldin baduzue -erantsi zuen-, prest gaituzue hirurok zuen untietara igotzeko bahi gisan".

91. Eta atzerritar samoarrak bere eskaera horri behin eta berriz ekiten zionez, Leutykhidesek (dela haren izena benetan jakin nahi zuelako zantzuren bat lortzearen, dela jainkoek horretara bultzatu zutelako hain zortez) zera galdetzen dio: "Samoar adiskide, zelan duzu izena?". Eta hark "Hegesistrato" erantzuten. Leutykhidesek, orduan, Hegesistrato hitza ahoan duela uzten du, honako haxe baitiotso hura beste ezer esaten hasi orduko: "Onartzen dut Hegesistratoren zantzua¹⁹⁰, samoar atzerritar hori. Baina, berriro itsasora zaitezten baino lehen, emaiguzue hitza, bai zerorrek eta bai zurekin etorri direnok, samoarrak aliatu borondatetsu izango ditugula".

92. Leutykhidesek hori esateaz batera burutu zen hitz-ematea, samoarrek behingoan zinpetu baitzuten heleniarren aliantzarekiko leialtasuna. Eta hori burutu ondoren, samoarrek itsasora egin zuten, zeren Leutykhidesek Hegesistrato ere haiekin joan zedila ebatzi baitzuen, berorren izena zantzutzat hartuz. Heleniarrek egun hura igarotzen utzi eta biharamunean medeapen opari bat eskaini zuten, Deiphono Eueniorenak, izatez

Apoloniakoa (joniar golko Apoloniakoa, alegia), ihardun zuelarik igarle gisan. Deiphonoren aita horri, hain zuzen, orain kontatzera noan hau gertatu zitzaien.

93. Aipaturiko Apolonia horretan badira eguzkiari sagaraturiko saldo batzuk, egunean zehar ibai baten ertzean bazkatzen direnak (Lakmon menditik jaitsi eta Apoloniako eskualdea zeharkatu ondoren Oriko portu inguruan itsasoratzen den ibaia) eta gauean zehar, berriz, horretarako urtero izendaturiko lagunek zaintzen dituzte, aberastasunez eta leinuz etxe printzipalenetakoak direnetarik hautatuak, urtean pertsona batek; izan ere apoloniarrak, orakulu baten eraginez, garrantzi itzela ematen diete halako saldo horiei; eta saldook hiritik urrun samar dagoen harpe batean pasatzen dute gaua. Hortaz, hortxe gordetzen zituen saldoak urte hartan zeregin horretarako hautatu zuten Euenio delako hark. Baina behin, jagole zegoela loak hartu zuen eta, harpean otsoak sartuz, hirurogei buru inguru hil zituzten. Eueniok, sarraski hura ikustean, isilean gorde zuen, inori ezer esan gabe, beste abere batzuk erosteko asmoa baitzuen hildakoen ordeztu saldoan sartzeko. Halere, Apoloniakoak gertaturikoaz ohartu zirenean -nola edo hala, baina ohartu egin baitziren-, Euenio auzitaratu egin zuten, jagole zela lo geratzearren, eta ikusmena galtzera kondenatu. Baina hara non, hura itsuarazi bezain laster, ez ganaduak ezta lurrak ere ez zien fruiturik ematen. Eta zorigaitz horren zergatiaz galdetzean jaso zuten erantzuna, bai Dodonan baita Delphosen, saldo sagaratuon Euenio jagolea itzuarazteaz bidegabekeria egin zutela izan zen, jainkoak eurak izan zirela-eta otsoak bidali zituztenak, eta jainkook ez ziotela utziko mendeku hartzeari, harik eta apoloniarrak Eueniori beronek egoki zeritzon kalteordaina eman arte; eta haren gurariak bete ondoren, jainkoek ere beren aldetik dohain handi bat

emango ziotela Eueniori, hain handia ezen askok eta askok zoritsutzat joko baitzuten dohain hori edukitzearren.

94. Orakuluok jaso zituztelarik, apoloniarrak isilean gorde zituzten eta beren herkide batzuen esku utzi zuten arazoaren konponbidea. Eta konpondu ere ederki asko konpondu zien arazoa, hona hemen zelan: Euenio etxaurreko bankuan jezarrita zegoela, haren aldamenean eseri eta hontaz eta hartaz berbetan ekin zioten, Euenioren zoritxarra ere mintzagai hartu eta harenganako errukia adierazi zuten arte; eta orduan, berba haren guztiaren xedea ezkutatzuz, ea berak zein kalteordain aukeratuko ote lukeen galdetzen diote, egindakoaren ordainetan zerbait emateko prest baldin baleude apoloniarrak. Orduan Eueniok, orakuluen erantzunaren berririk jakin gabe, zera diotse: zenbait lursail emango baliote (eta Apoloniako bi lursailik hoberenak omen zituzten herritarren izenak aipatu zituen) eta, horrez gain, hirian dagoen etxerik ederrena (esan ziotenez), orduan -adierazten die Eueniok-, jabetza horien ugazaba bihurtuz gero, aurrerantzean ez lieke herrarik izango, zeren kalteordain horrekin pozik geratuko bailitzateke. Eta bere gurariak horrela azaldu orduko, aldamenean eserita zituenek zera bota zioten: "Horixe da, Euenio, Apoloniakoek itsu egin zaituztelako ordaintzen dizuten kalteordaina, jaso dituzten orakuluen arabera". Berba horien aurrean, jakina, Euenio biziki sumindu zitzaion, orduantxe ezagutu baitzuen historia osoa, ziria sartu ziotela konturatzean; halere, berberak hautaturiko jabetza haiek lur-jabeei erosi eta berari eman zizkioten apoloniarrak. Eta handik gutxira, aparteko igarmen-dohainez horniturik aurkitu zen bat-batean, ospetsu egitera iristeraino.

95. Horrela ba, Deiphono zen, Euenio haren semea, itsas armada helendarraren igarle ziharduena, korinthoarrak hona ekarri zuten zerez geroztik. Baina beste hau ere entzun dut nik, halere, Deiphonori buruz, hots, Euenioren izena gezurrez bereganatuz zebilela igarle Heladen zehar, haren semea benetan izan gabe.

96. Zantzu onak lortu ondoren, heleniarrak Delo utzi eta Samorantz itsasoratu ziren. Eta Samoko lurraldean Kalamos ingurura iritsi zirenean, hantxe ainguratu zuten, leku hartan dagoen Hereoaren parean, eta itsas borroka baterako prestaketak egiteari ekin zioten. Heleniarrak aitzina egin zutela jakitean, persiarrak ere kontinenterantz itsasoratu zituzten beren untziak -geratzen zitzaizkien untziak, alegia, ezen untziteria pheniziarrari zonatik alde egiten utzi baitzioten-. Eta egoera aztertu ondoren, borrokara ez irtetea erabaki zuten, beren itsas armada etsaiarenaren parekoa ez zela ikusirik. Ostera, kontinenterantz atzera eginez gero, Xerxesen aginduz Jonia zaintzeko armadaren zati handienetik Mykalara etorria zen lehorreko armadaren babespean jarriko ziren. Armada hori hirurogei mila soldadura iristen zen eta Tigranesen agindupean zegoen, persiarren artean lerdentasunez eta gorpuzkeraz gailenena. Beraz, untziteria persiarraren buruzagiek armada horren babesera jotzea erabaki zuten eta han untziak hondartzaratu eta hesi bat eraikitzea, untziak babesteko eta beraiek gordetzeko baliagarri zitekeena.

97. Erabakiok hartu ondoren, itsasora jo zuten. Eta, Mykalan Potnien¹⁹¹ tenplua iragan eta gero, Geson eta Skolopuntera iritsitakoan -hementxe da Demeter Eleusisen omenez Philisto Pasiklesenak eraiki zuen tenplua, Nileo Kodrorenarekin batera joan zenean Mileto fundatzera-, leku horretan lehorreratu zituzten untziak eta harriz eta enborrez osaturiko hesiz inguratu (enborrak fruta-arboletatik atera zituzten), eta inguru osoan hesolak sartu. Halaxe prestatu ziren setioari aurre egiteko edota garaipena lortzeko, zeren prestakizunok xede bikoitz hori baitzuten.

98. Barbaroak kontinenterantz erretiratu zirela hautematean, heleniarrak zapuztuta geratu ziren, etsaiak ihes egin zielakoan, eta zer erabaki ez zekitela aurkitu ziren: etorri ziren lekura itzuli ala Helespontorantz abiatu. Azkenean ez bata ez bestea ez egitea ebatzi zuten, baizik

eta kontinenterantz itsasoratzea. Hortaz, abordatzeko eskailerez eta itsas borrokarako behar den material guztiaz hornitu eta

itsasora irten ziren Mykalarantz. Persiarren kanpamendu ingurura hurbildu arren inork ez zeukanez, antza, aurka ateratzeko asmorik, eta untzi etsaiak gotorleku barruan lehorreratuta eta infanteriako tropa ugari kostan zehar borrokarako lerrokatuak ikustean, Leutykhidesek honako hauxe egin zuen lehenbizi, bere untzian itsasertzetik ahalik hurbilen iraganez mezu hauxe igorri zien joniarrei heraldo baten bidez: "Joniarrak, entzun ondo esatera noakizuen, zuok, aditu ahal didazuenok -zeren persiarrek ez baitute tutik ere ulertuko eman nahi dizuedan mandatuaz-: borrokan sartzerakoan, ekar beza gogora orok bere askatasuna lehenbizi eta, jarraian, gure kontrazeinua: Hera. Eta entzun ez didanak jakin beza zer esan dizuedan entzun ahal izan didan bategandik". Izan ere, Leutykhidesen jokabide horren xedea Themistoklesek Artemision izan zuen berbera baitzen, hots: barbaroek ez zituzten hitzok adituko eta joniarrak konbentzitzea lortuko zuten, edota haiek laster jarriko zituzten jakinaren gainean eta aliatu heleniarrenganako mesfidantza sorraraziko zuten.

99. Leutykhidesen mandatu horren ondoren, helendarrek honako hau egin zuten: untziak atrakatu eta itsasbazterrean lehorreratu. Eta hantxe ari ziren borrokarako lerrokatzen, persiarrek, haien prestaketok ikusirik eta joniarrei zuzenduriko mandatuaz jabeturik, samoarrak desarmatzeari ekin ziotenean, azken hauek heleniarren aldera igaroko ziren susmoz. Samoarrek, izan ere, barbaroen untzietan zetozen gerra-presoa athenastar guztien askatasuna erosi baitzuten -Atikan geratzearren Xerxesen soldaduek atxilotu zituztenak, hain zuzen- eta geroxeago Athenasera bidali zituzten bidaiarako hazkurri eta guzti. Horrexek pizten zuen

batik bat persiarren haienganako mesfidantza, Xerxesen kontrako bostehun pertsona jaregin baitzituzten. Persiarrek jarraian, zona hura oso ongi ezagutzen zuten aitzakiaz, Mykalako mendateetara zihoazen bideak zaintzeko agindua eman zieten miletoarrei; baina agindu horren xedea, izatez, miletoarrak kanpamendutik urrutiratzea zen. Halakoxe neurriak hartu zituzten, bada, persiarrek joaniarrekiko, azken hauek traizioa buru zezaketeelakoan, horretarako aukera izanez gero; eta persiarrek berek zumezko ezkutuak elkartu zituzten barrikada bat osatzeko.

100. Beren prestakuntzak burutu ondoren, heleniarrak barbaroengana oldartu ziren. Eta aurrera zetoze, zurrumurru batek zeharkatu zuen gudalerro osoa eta suge-zigorra¹⁹² ikusi zuten hondartzako itsas marran zetzala: heleniar gudalerroetan zehar hedatu zen zurrumurrak zera zioen, helendarrak Mardonioaren armadari gailentzen ari zitzaizkiola Beozian hasitako borrokaldi batean. Adierazgarri ugari dira, beraz, giza gertakarietan jainkoen esku hartzea agerian uzten dutenak; eta hona hemen bat, zeren, oraingo kasu honetan persiarrek Platean izan zuten porrota eta Mykalan izango zutena egun berebean gertatu ziren arren, lehenengoaren albisteaz azken leku honetan zeuden heleniarrenganaino iritsi baitzen, eta horrela gudaroste horiek adore berria hartu eta arriskuari gogo beroagoz aurre egiteko prestatu ziren.

101. Beste kointzidentzia hau ere eman zen: guduzelai bion inguruetan Demeter Eleusisi sagaraturiko santutegi bana zegoela; izan ere Platean, lehenxeago esan bezala, borrokaldia Demeterren tenpluaren beraren aldamenean burutu zen, eta beste horrenbeste gertatzear zegoen Mykalan ere. Eta iritsi zitzairen berria, beraz -Pausaniasek gidaturiko heleniarrak garaipena lortu berri zutela-, egiazkoa zen, zeren Plateako borrokaldia egunaren goiz partean burutu baitzen eta Mykalakoa, berriz, arratsalde partean (borrokaldi biok hain zuzen hil beraren egun berean gertatu zirela argi geratu zen, handik gutxira, gai horri buruz heleniarrak egindako ikerketei esker). Albiste hura iritsi aurretik, estu eta larri zeuden,

beren buruengatik baino gehiago helendar guztien zoriarengatik, Helade Mardonioeren eskuetan eroriko zen beldurrez. Baina zurrumurru hura gudarosteen artean hedatu zenean, ordea, bi bider erabakitsuago eta azkarrago irten ziren erasora. Beraz, bai heleniarrek baita barbaroek ere bihotz osoz ekin ziotela borrokari, uharteen kontrola eta Helespontoren etorkizuna zituztelako jokoan bi bandoek.

102. Halatan, athenastarrek eta berauen aldamenean, gutxi gorabehera formazio erdiraino edo, lerrokaturik zeuden gudarosteek hondartzatik aitzina egin zuten aurrera, leku zelaitik; lazedemonдарrek eta berauen aldameneko gudarosteek, aldiz, trokan gora jo zuten aurrera, leku malkartsutik. Eta azken hauek oraindik inguratze-mugimendua gauzatzen ziharduten bitartean, beste hegaleko tropak borrokan ziren jadanik. Egia esan, beren ezkutuzko barrikadari tinko eutsi zioten bitartean, persiarrak inolako gutxiagotasunik erakutsi gabe defendatu ziren borroka hartan; baina tropa athenastarrek eta beren aldamenekoek, egitandi hura beraiek eta ez lazedemonдарrek egina zedin elkarri animoak eman eta gero, kemen berriz ekin ziotenean erasoari, egoera zeharo aldatu zen: ezkutuzko barrikada hautsi eta trumilka oldartu ziren persiarren kontra, eta hauek oldar hari aurre eginez nahikoa denbora luzez eutsi bazioten ere, azkenean gotorlekurantz ihes egin behar izan zuten. Athenastarrak orduan, korinthoar, sizyondar eta trezendarrekin batera (ordena horrexen arabera baitzeuden lerrokaturik), persiarren atzetik irten ziren azkar beren gudaroste guztiekin eta gotorleku barruraino sartu ziren haiekin batera. Posizio hori ere galduta ikusirik, barbaroek aurre egiten jarraitzeari utzi eta ihesari eman zioten, baina ez horrela persiarrek, zeinek gotorlekura sartu ahala zetozen heleniarrakin borrokan jarraitu baitzuten talde txikitan. Jeneral persiarrei dagokienez, haietariko bik ihes egitea lortu zuten eta beste bik heriotza aurkitu: Artayntesek eta Ithamitresek, itsas armadaren almiranteak biak, ihes egitea lortu

zuten, baina Mardontes eta lehor-armadaren buruzagi zen Tigranes, ordea, borrokaldian bertan hil ziren.

103. Oraindik persiarrek borrokan zihardutela, lazedemondarrak eta beren kideak iritsi ziren eta azken erresistentzi fokuei bukaera ematen lagundu zuten. Heleniarrek eurek ere hildako ugari izan zituzten borrokaldi hartan, batez ere sizyondarrak, Perilao euron jenerala barne. Mediar armadan ziren samoarrei dagokienez -desarmatuta egon arren haien kanpamenduan baitzeuden-, hasiera batean borrokaren emaitza zalantzan zegoela ikusirik, ahal izan zuten guztia egin zuten heleniarrei laguntzeko. Eta samoarren ereduari jarraituz, gainerako joniarrak ere persiarren kontra matxinatzea eta barbaroei eraso egitea erabaki zuten.

104. Bestalde, persiarrek, beren segurtasunean pentsatuz, miletoarrak jarri zituzten bideak zaintzen, badaezpada ere -azkenean gertatu ere gertatu zitzaiena aurreikusita-gidarien laguntza izan zezaten Mykalako mendietan babesa aurkitzeko. Halatan, bada, egiteko hori burutzeko aginduarekin bidali zituzten miletoarrak, hala aipaturiko arrazoi horregatik, nola traizio egitea burura ez ziezaieten kanpamenduan zeudela. Miletoarrek, ordea, agindu zitzaienaz guztiz alderantzizkoa egin zuten: ihesi zetozen barbaroak beste bide batzuetatik eraman zituzten, etsaiarengana zuzen zihoazen bideetatik alegia, eta miletoarrek berek izan ziren gero amorru handiena erakutsi zutena haiek suntsitzen. Halaxe altxatu zen Jonia bigarren aldiz persiarren aurka.

105. Borrokaldi honetan zehar, heleniarren aldetik athenastarrak nabarmendu ziren, eta azken hauen artean Hermolyko Euthenorena, pankrazioa¹⁹³ praktikatu zuena. Hain zuzen ere, mintzagai ditugun gertakarion ondoren, Athenas eta Karystoren arteko gerra batean, Hermolyko hura Zyrnon borrokatzen ari zela hil zen, eta haren hilobia Gereston dago. Athenastarren ondoren, korinthoarrak, trezendarrak eta sizyondarrak nabarmendu ziren.

106. Barbaro gehienekin bukatu ondoren -dela borrokaldian bertan, dela ihesaldian-, heleniarrek, aldeztu aurretik harrapakina hondartzara atera eta gero (altxorrez beteriko zenbait kutxa ere aurkitu zuten), etsaien untziei eta gotorleku guztiei su eman zieten; eta gotorlekuok eta untziak erre ondoren, handik itsasora egin zuten. Halatan, Samora iristerakoan, Joniaren ebakuazioa egin ala ez eztabaidatzeko bildu ziren, eta kontrolpean zuten Heladeko zein lekutara komeni ote zen joniarrak ekartzea -euron lurraldea barbaroen esku utzi behar izatekotan-, guztiz ezinezko baitzeritzoten joniarrak babesteko zaintza etengabea antolatzeari; eta babes hori eman ezean, ez zuten, arean ere, haiek persiarren mehatxupetik salbu irten zitezkeen esperantzarik. Egoera horren aurrean, buruzagi peloponesoarren iritzia hauxe zen: mediarren alde lerrokatu ziren laterri heleniarren enporioak hustu behar zirela eta joniarrei eman bertan egon zitezen. Athenastarrek, aldiz, ezezko biribilez erantzun zieten Jonia ebakuatzeari eta beren kolonien zoria Peloponesoko jendeak ebazteari; eta ezezko biribil honen aurrean, peloponesoarrek amore eman zuten. Eta halaxe izan zen orduz geroztik heleniarrek beren koalizioan samoar, khiotar, lesboar eta operazio militarretan kide zituzten gainerako uhartetarrak onartzea, Ligarekiko leial iraungo zutela eta ez zutela desertatuko zin eginaraziz solemneki. Horrela zin eginarazi ondoren, heleniarrak berriro itsasoratu ziren zubiak eraisteko asmoz, oraindik zutik aurkituko zituztelakoan.

107. Beraz, heleniarrak Helespontorantz itsasoratu ziren.

Bitartean, Mykalako mendietan barrena bizirik ihes egitea lortu zuten barbaro aleak Sardesera itzultzen ari ziren. Eta bidean zihoazela, Masistes Dariorenak, gertatu berri zen hondamendiaren

lekuko, Artayntes jenerala biziki iraintzeari ekin zion, emakumeak baino txarragoa zela aurpegiratuz, beste gauza batzuen artean, agintea erabili zuen moduan erabiltzeagatik, eta era guztietako zigorrak merezi zituela erregeren interesei halako kaltea eragitearren. Esan beharra dago persiarren artean irain gordinena dela norbait emakumeak baino txarragotzat jotzea. Artayntes orduan, hainbeste irainez kokoteraino, sutan jarri eta alfanjea zorrotik ateratzera doa Masistes bertan jo eta hiltzeko asmoz. Baina hura Masistesen gainera datorrela ikustean, Halikarnasoko Xenagoras Prexileoren semeak, une horretan Artayntesen atzean dagoenak, gerri-gerritik oratzen dio eta gora jaso, gero lurrera brausta jaurtikiz; eta bitartean Masistesen jagoleak datoz berau babestera. Xenagorasek horrela jokatu bazuen, bai Masistesen beraren baina baita Xerxesen eskerrona irabaztearren jokatu zuen, monarkaren anaiaren bizia salbatuz; eta egintza horri esker, Xenagorasek Zilizia osoko gobernuja jaso zuen erregeren dohain. Eta halaxe jarraitu zioten haiek beren bideari, hemen kontatu dudana gain beste ezer gertatu gabe, Sardesera iritsi ziren arte. Hiri honetan zegoen hain zuzen ere errege, itsas borrokan jasandako porrotaren ondoren Athenastik ihesi heldu zenetik.

108. Bada, bitarte horretan Sardesen zegoela, erregea Masistesen emazteaz maitemindu zen, hau ere Sardesen baitzen. Baina mezuak igorri arren emakume hura limurtzerik lortzen ez zuenez eta bortxaz ere ihardun nahi ez zuelarik Masistes anaiari zion begiruneagatik (hortik emakumearen jarrera tinkoa ere, bai baitzekien ez zutela gogoz kontra behartuko), orduan Xerxesek ez zuen beste bide hoberik asmatu Dario bere semea eta emakume haren eta Masistesen alaba elkarrekin ezkonaraztea baino, ezkontza hori burutuz errazago izango zitzaiolakoan amarengana heltzea. Ezkontza hura atondu eta beharrezko formalitateak bete ondoren, Xerxes Susara itzuli zen. Baina behin Susan, eta Darioren andre gaztea gortera ekarri zueneko, erabat desagertu zitzaion Masistesen emaztearenganako grina: bat-batean

Darioren emazte eta Masistesen alaba zen emakume hartaz liluraturik geratu zen eta bere egin zuen; emakume honek Artaynte zuen izena.

109. Baina kontu hura denborarekin agerian geratu zen, hona hemen nola: Amastrisek, Xerxesen emazteak, mantu eder bat ehundu zuen, kolore politetakoa eta benetan deigarria, eta erregeri oparitu zion, baita honek pozik jantzi ere Artaynteri bisita egitera joaterakoan. Eta neskarekin ere pozik, nahi duen edozein gauza eskatzera animatzen du egiten dizkion faboreen truke, eska diezaion zernahi emango diola-eta; baina patu gaiztoak haren familia osoaren hondamena bilbatua duenez, honako hauxe diotso Xerxesi: "Nahi dudana emango didazu benetan?". Orduan monarkak, hura ez beste edozer eskatuko diolakoan, baietz diotso eta zin dagio; eta zin egin bezain laster, neskak mantua eskatu dio deblauki. Xerxesek eginahalak egin zituen mantu hura eman behar ez izateko, ez beste ezergatik Amastrisen beldurrez baizik, honek aspalditik susmatzen zuena, senarraren desleialtasuna, deskubrituko zuen beldurrez. Horrela, beste edozein gauza emateko prest zegoen: hiriak, nahi adina urre, eta Artayntek berak soil-soilik aginduko zuen gudaroste bat (persiar opari tipikoa baita gudarostea); baina neska konbentzitzerik ez zegoenez, mantua eman zion azkenean. Eta hark, opariak kontent eta fier, harro-harro erakutsi, gainera, soinean ipinita.

110. Baina Amastrisek aurki jakin zuen mantua Artayntek zeukala; eta gertatzen zenaz jabetzeaz, gorrotoa andre gazte honengana zuzendu beharrean, beronen ama jo zuen denaren errudun eta zirikatzailetzat, eta Masistesen emaztea suntsitzea erabaki zuen. Xerxes bere senarrak hurrengo erret oturuntza eman arte itxaron zuen -oturuntz hori urtean behin egiten da, erregeren urtebetetzeaz, eta oturuntz hori persieraz tyktá deritza,

heladeraz "burutzapena"¹⁹⁴ esan nahi duena, egun horretan bakarrik olioztatzen duelarik burua eta persiarrei opariak banatzen dizkielarik erregek-; Amastrisek, bada, egun horretara arte itxaron zuen, eta egun horretan Masistesek emaztea opari ziezaiola eskatu zion Xerxesi. Xerxes hasiera batean biziki haserretu zitzaion, aberrazio izugarria zeritzolarik bere anaiaren emaztea oparitzea pentsatzeari -eta gainera honek ezertan zerikusirik izan gabe-, eskaera horren xedeari antzematen baitzion.

111. Hala eta guztiz ere, Amastrisen tema zegoela alde batetik eta berak ere ohiturari egokitu beharra bestetik -Persian erret oturuntza batean eskaria egiten duenari ezin zaiola erdeinurik egin, alegia-, Xerxesek amore eman zuen azkenean, guztiz gogoz kontra izan arren. Eta Amastrisek eskatzen zuena eman ziezaiotela agindu ondoren, honako hau egin zuen: batetik, bere emazteari nahi zuena egiteko baimena eman zion, eta, bestetik, bere anaiari deiarazi eta hauxe diotso: "Masistes, Darioren seme eta nire anaia haiz, eta horrez gainera, borondate oneko gizona. Beraz, etzak jarrai bizitzen orain bizi haizen emakume horrekin: nire alaba emango diat haren orde. Bizi hadi berarekin, bada, eta etzak jarrai gaur egungo emaztearekin ezkondu, ez zeritzoat egoki eta". Orduan Masistesek, berba horren aurrean harri eta zur: "Jauna -diotso-, zer zentzugabeko proposamen egiten didazu? Berarekin dagoeneko seme-alaba haziak ditudan (eta horietariko bat, gainera, zerorrek hautatua zeure semearen emaztetzat) eta atsegin osoko dudan emaztea zapuz dezadala agintzen didazu? Hura zapuztu eta zure alabarekin ezkon nadila? Maiestate, ohore handi deritzot benetan ere zure alabaren duintzat ni hartzea, baina ez dut egingo ez bata ez bestea. Ez nazazu, bada, horretara hertsia; zure

alabarentzat aurkituko duzu ni bezain lainik, ziur, eta niri dagokidanez, utz nazazu nire emaztearekin bizitzen". Horra hor Masistesen erantzuna. Eta orduan Xerxesek zera diotso, minduta: "Heuk gura izan duk, Masistes. Ezergatik ere ez niake utziko orain nire alabarekin ezkontzen, baina heure emaztearekin ere ez haiz jada gehiago biziko, eskaintzen zaiana onartzen ikas dezaan!". Hori entzun eta "Jauna -ihardesten dio Masistesek-, begira gero ez nauzula oraindik suntsitu!", eta badoa kanpora.

112. Baina bitartean, Xerxesek bere anaiarekin hizketan ziharduen artean, Amastrisek Xerxesen goardiei deitu eta Masistesen emaztea izugarriro mutilarazi zuen: bularrak moztarazi eta txakurrei jaurtitzeko agindu zuen, eta sudurra, belarriak, ezpainak eta mihia ere motz ziezaiotela, eta halaxe bidali zuen etxera, izugarriro mutilatuta.

113. Bitartean Masistes, gertaturiko ezeren berri ez zekien arren zoritxarren bat jasantzear zegoela susmatuz, bere etxera joan zen arin-arinka, eta, emaztea horren desgisaturik ikusirik, seme-alabekin bildu zen berehala arazoaz hitz egiteko eta semeotariko batzuekin batera (eta bere aldeko beste batzuekin ere ziur aski) Baktrarantz irten zen, probintzia hori altxatzera eta erregeri ahalik min handiena egitera; eta burutu ere burutuko zuen asmo hori, nik uste, baktrarren eta saken herrialdeetara igotzea lortu izan balu, hango bizilagunek estimu handitan zutelako, izan ere, eta Masistes, gainera, Baktrako gobernadorea zelako. Baina Xerxesek haren asmoen berri izan zuen eta zenbait tropa bidali zion bidera, eta hantxe hil zuten, bidean zihoala, beraren semeekin eta laguntzen zioten soldaduekin batera. Horra hor Xerxesen amorioez eta Masistesen heriotzaz gertatu zen guztia.

114. Bestalde, Mykalan itsasoratu eta Helespontorako bidean zihoazen heleniarrei dagokienez, Lekto inguruetan ainguratu behar izan zuten lehenik, kontrako haizeak horretara behartuta, eta leku horretatik Abydora porturatu ziren, eta hemen dagoeneko eraitsiak aurkitu zituzten oraindik zutik aurkitzea espero zituzten

zubiak, Helespontora etortzeko erabakiaren xede nagusia. Orduan, Leutykhidesen peloponesoarren Heladera itzultzea erabaki zuten bitartean, Xanthiporen agindupeko athenastarrek bertan geratu eta Khersonesori oldartzea ebatzi zuten. Lehenengoak etxerantz itsasoratzen ziren bitartean, beraz, athenastarrek Abydotik Khersonesorako itsasarte zeharkatu eta Sesto setiatu zuten.

115. Heleniarrak Helesponton zirela jakin ondoren, Sesto horretara bildu ziren, gotor-hiri seguruentzat baitzuten hura, inguruetako hirietatik etorritako tropak, eta horien artean zegoen zubietan erabilitako kableak Sestora ekarrarazi zituen Eobazo persiarra ere, Kardia hiritik etorrita. Azken herri honetan eskualde hartako eoliarrak bizi ziren, baina baita baziren persiarrak ere, eta berauen gainerako aliatuetariko kopuru hazi bat.

116. Xerxesek gobernadore izendaturiko Artayktes persiarra zen, hain zuzen ere, probintzia honen gainean aginte absolutua zeukana, erregea bera ere engainatu zuen morroi dongo eta gaiztoa, alegia, hura Athenasi erasotzera zihoala Protesilao Iphikloren altxorak bereganatu zituenean Eleunten. Izan ere, bada hemen, Khersonesoko Eleunten, Protesilaoren omenezko¹⁹⁵ hilobi bat, eta inguruan temenos bat, aberastasun ugari zituen (urrezko eta zilarrezko edalontziak, brontzezko objektuak, jantziak eta gainerako eskaintzariak), zeinak Artayktesek erregeren baimenaz arpilatu zituen. Xerxes engainatzeko erabili zuen argudioa honako hauxe izan zen: "Jauna -esan zion-, bada lurralde honetan zure dominioei eraso egin eta horregatik merezitako heriotza aurkitu zuen heleniar baten etxea. Emaidazu, arren, morroi horren etxea, zure lurrei erasorik ez egiten ikas dezan mundu guztiak". Ziur zegoen argudio horrekin Xerxes erraz konbentzituko zuela partikular soil baten etxea erregala ziezaion, monarkak haren asmoen susmo txikienik ere izan gabe, zeren, Protesilaok erregeren dominioei eraso egin ziela esatean,

persiarrek Asia osoa beren jabetzakoa eta beraien erregerena dela uste izateaz baliatzen baitzen. Baiezkoa lortutakoan, Artayktesek Eleuntetik Sestora eramane zituen altxorrak eta Protesilaoren temenosa soro eta larre bihurtzeko agindua eman zuen, eta berak, gainera, Eleuntera etortzen zen bakoitzean, emakumeekin sexu-harremanak izaten zituen santutegian. Orain, ordea, Artayktes hura heleniarren setiopean aurkitzen zen setio bati aurre egiteko neurririk aldeztu aurretik hartu gabe, ez baitzuen espero heleniarrak haraino etorriko zirenik; hauen erasoak ustekabean harrapatu zuen, antzadenez.

117. Udazkena heldu eta setiatuek eusten jarraitzen zutelarik, athenastarrak neke handiz zeuden aberritik kanpo aurkitzeaz eta hiri hura ezin hartu izateaz, eta berriro Atikara eramane zitzatela eskatu zieten beren jeneralei; baina hauek ezetz esane zuten, ez behintzat Sesto hartu aurretik edo athenastar Biltzarrak itzultzea agindu ezean, eta soldaduek hartara etsi behar izane zuten.

118. Baina harresi barrukoak ere egoera ezin txarragoan zeuden, ohe-uhelak egosi eta jatera heltzeraino. Eta hori ere falta izan zitzaizenean, kinka horretan persiarrek, Artayktesek eta Eobazok euren artean, murrailaren atzeko aldetik jaitsi ondoren etsai gutxien zegoen lekutik, ihesari eman zioten gauaren babesera. Alabaina, eguna argitzean, khersonesotarrek gertaturikoaren berri eman zieten athenastarrei dorreetatik, eta hiriko ateak zabaldu zituzten. Orduan athenastarrik gehienak persiarren atzetik ateraz ziren, gainerakoek hiria hartzen zuten bitartean.

119. Horrela, bada, Eobazori dagokionez, thraziar apsinthioek harrapatu zuten, Thraziara jo baitzuen ihesi, eta haiek beren herriko Plistoro jainkoari sakrifikatu zioten euren erritoen arabera, Eobazoren persiar lagunak beste era batera hil zituztelarik. Artayktes eta beronen lagunei dagokienez, berriz, ihes egiterakoan irten ziren azkenak, Egospotamos baino zertxobait harantzago aurkitzen zirela harrapatu zituzten eta, beraien buruak luzaro defendatu ondoren, batzuk hil eta gainerakoak

bizirik hartu zituzten. Heleniarrek azken hauek kateaz lotu eta Sestora eraman zituzten, eta hantxe ziren presoan artean Artayktes eta honen semea, kateaz loturik hauek ere.

120. Eta, khersonesoarrek diotenez, haren zaintzaileetariko bati gauza harrigarri hau gertatu omen zitzaion arrain gazituak erretzen ari zela: arrain gazituak sutan jarrita zeudela, jauzika eta gora-goraka hasi omen ziren, orduantxe uretatik atereak bailiren. Inguruan bildutako guztiak harri eta zur omen zeuden, baina Artayktesek, mirari hura ikustean, arrainak erretzen ziharduen soldaduari deitu eta badiotso: "Athenastar atzerritar hori, ez zaitez mirari horren beldur, ez da gertatu zuregatik eta; Eleunteko Protesilao ari zait jakinarazi nahian baduela, hilik eta momifikaturik egon arren, irain egin zionari zigorra ezartzeko ahalmena jainkoen borondatez. Beraz, prest nauzue une honetan diru-kopuru hauek neure buruari erreskate gisan ezartzeko: santutegitik hartu nituen aberastasunen truke ehun talentu ordainduko dizkiot jainkoari, eta athenastarroi berrehun talentu, neugatik eta nire semeagatik, bizirik ateratzen banaiz". Halere, agintzari horiek ez zioten zirkinik eragin Xanthipo estrategoari, zeren Eleunteko bizilagunek Artayktesen heriotza eskatzen baitzuten Protesilao mendekatzeko, eta estrategoa bera ere iritzi berekoa zen. Horrela, Xerxesek zubiak luzatu zituen txuntxurrera eraman zuten (beste batzuek diote Madyto hiriaren goialdean dagoen muino gainera eraman zutela) eta ohol batean josi iltzez, hantxe utziz gurutziltzaturik; haren semeari dagokionez, Artayktesen aurrean harrikatu zuten.

121. Hori egin ondoren, athenastarrak Heladerantz itsasoratu ziren, balioko beste gauza batzuen artean zubietako kableak eraman zituztelarik euren santutegietan sagartzeko. Eta urte honetan zehar¹⁹⁶ ez zen beste ezer gehiago gertatu, hemen azaldutakoaz landa.

122. Aipagarria da gurutziltzatu zuten Artayktes haren aitagoietariko bat izan zela, Artambares hain zuzen ere, persiarrei hurrengo ideia hau iradoki ziena, azken hauek gero berena balitz bezala Zyrori aurkeztu zioten ideia: "Astyages eraitsi ondoren Zeusek¹⁹⁷ hegemonia persiarrei eman dienez, eta gizaki guztion artetik zeuri damaizunez, oi Zyro -esan zioten haiek-, alda gaitezen orain daukagun lurralde murriz eta malkarretik, beraz, beste hobe bat geureganatuz. Halako asko ditugu inguruan hurbil, eta beste batzuk urrutixeago; bat bera eskuratzen dugunerako, oraindik ere mirespen handiagoa izango digute, arrazoizkoa baita inperio batek horrela jokatzea. Gainera, noiz izango dugu orain baino une egokiagorik horretarako, hainbeste gizakume eta Asia osoa menpeko ditugularik?". Berbok entzutean, Zyrok ez zuen harriturik erakutsi ideia horren aurrean. "Egizue, nahi baduzue -esan zien-, baina orduan presta zaitezte aurrerantzean aginduak ematen barik hartzen jarduteko, zeren lurralde hotzepeletan gizakume makalak hazten baitira, ezinezko da eta lurralde berak fruitu harriarriak eta gerrarako gizakume suharrak ematea aldi berean". Persiarrak, orduan, Zyroren arrazoiak oharturik, beren errakuntzaz konturatu ziren eta haren aurretik urrundu, nahiago izan baitzuten lurralde antzuan bizi eta inperio bat edukitzea, haran emankorrak landuz beste batzuen esklabo izatea baino.

Abas (fr. Abes, ing. Abae, esp. Abas,
gr. ">Abai, wn).
abanteak (fr., ing., esp. Abantes,
gr. ">>>Abante").
Abaris (fr., ing., esp. Abaris,
gr. ">Abari", ido").
Abdera (fr. Abdère, ing. Abdera,
gr. ">Abdhra, wn).
abderarrak.
Abrokomas (gr. ?Abrokovma" (jon. -h", ou).
Abronikho.
Abydo (fr., ing. Abydos, gr. ">Abudo", ou).
abydoarrak.
abydoarren lautadak.
agathyrsoak.
Agathyrso Heraklesena
(Heraklesen (seme)a, gr. ov ÔHraktevo").
Ageo (esp. Ageo, fr. Agaeo, ing. Agaeus,
gr. ?Agai'o", ou).
agamemnondarra
(gr. ?Agamemnonivdh", ou).
Agamemnon.
Agariste Hipokratesena.
Agariste Klisthenesena.
Agasikles.
Agbalo.
Mediako Agbatana (gr. ?Agbavtana, wn).
Syriako Agbatana.
Angites (fr. Angitès, ing. Angites,
gr. ?Aggivth", ou).
Angro.
Agenor.
Ageto.
Agis.
Aglauro.
Aglomakho.
Agora.
agriandarrak.
Agrianes.
Agron.
agylarrak.
ankhimolioak.
Adimanto.
Adikran.

Adrasto Gordiasena.
 Adrasto Talaorena.
 Adrias (Adriasko itsasoa edo Adriatiko itsasoa).
 adyrmakhidak.
 Aimnesto v. Arimnesto.
 Aeropo Temenoren ondorengoa.
 Aeropo Philiporena.
 Azanes.
 azaniarra.
 Aziris.
 Azoto.
 Athamas (fr., ing. Athamas, esp. Atamante gr. ?Aqavma", anto").
 Athenagoras.
 Athenades.
 Athenas (fr. Athènes, ing. Athens, esp. Atenas, gr. ?Aqh'nai, wn).
 athenastarrak.
 Athenea (fr. Athèna, ing. Athene, esp. Atenea gr. ?Aqhna' (-h') < ?Aqhnaiva (qeav)).
 Alea (Zaindaria: ?Aleva, a").
 Asesia (Asesokoa: ?Asshsivh, h").
 Iliade (Iliongoa: ?Iliav", avdo").
 Krathia (Krathiskoa: Kraqivh, h").
 Palas (Dontzeila: Pallav", avdo").
 Palenide (Palenekoa: Pallhniv", ivdo").
 Poliade (Hiri-Zaindaria: Poliav", avdo").
 Poliukhoa (Hiri-Zaindaria: Poliou'co", ou).
 Pronea (Elizaurrekoa: Pronaiva, a").
 Szirade (Szirongoa: Skirav", avdo").
 Tritogenia (Tritonkumea edo Zeusen Alaba: Tritogevneia, a").
 Atheneoa (Athenearen santutegia: to; ?Aqhnaï'on iJerovn).
 Athribisko nomoa.
 Atrys.
 Athos.
 Kolkhideko Ea.
 Eazes Polykratesen aita.
 Eazes Sylosonterena.

eazidak (eakoarrak, gr. ?Aiaki'dai).
Eako (gr. Aijakov", ou').
Aias eazida (esp. Eante, fr. Ajax, ing. Aias gr. Ai[a", anto").
Aias Phileoren aita.
Egas.
Egeas.
Egeo (itsasoa).
Egeo (itsasoa).
Egaleo.
egidak (egeoarrak, fr. les Egéides,
ing. Aegidae, gr. Aijgei'dai,
sing. Aijgeivdh").
Egira.
Egeo Eolykorena.
Egeo Pandionena.
Ege.
pelasgiar (fr. Pelasges, ing. Pelasgian).
egialeok.
sizyondarrak.
Egialeo.
egikoreok (gr. ?Aigikorei'", ahuntz-zainak; Egikoreo (?Aigikoreuv") dute arbaso).
Egilia.
Egilia (irla).
Egina Asoporen alaba.
Egina (irla).
Egina.
eginarrak.
Egio.
Egiroesa.
Eglia v. Egilia.
egloak.
Egospotamos (Ahuntzibaieta).
Egypto (fr. Aegyptos, ing. Egypt,
gr. Ai[gupto").
Egyptoko lurraldea.
egyptoarrak.
Egyptoko lautada.
Egyptoko itsasoa.
Egyptoko herrialdea.
Egyptoko heroia (Herakles).
Hades.

ethiopiarrak (fr. Éthiopiens, ing. Ethiopians,
esp. etíopes, gr. Aijqivope").

troglydytak.

Ethiopia.

ethiopiar harri.

Hemo.

Enea.

Enesidemo.

enieneak.

Eno.

Enyra.

eoliarrak (fr. Eoliens, ing. Aeolians,

esp. eolios gr. Aijoleve").

Eolia (lur).

eoliar hiriak.

Eolo (fr. Aeolos (Eole), ing. Aeolus,

gr. Ai[olo", ou, Jonen seme, eta

Sisyphoren eta eoliarren arbasoa).

Esanias.

Eskhines.

Eskhreo.

eskhroniar leinua.

Eskhylo.

Esopo.

etoliarrak.

Etolia lurraldea.

Akantho.

akanthoarrak.

Akarnania.

Azerato.

Aze.

agrigentoarrak.

Akrephia.

Akrisio.

Akrothoo.

Alabanda Kariako hiria.

Alabanda Phrygiako hiria.

Alazir (fr. alazeir / alazir; ing. alazir).

alazondarrak v. alizondarrak.

Alalia.

alarodioak.
 Alea v. Athenea.
 Alexandro Amyntasena.
 Alexandro Priamorena.
 aleuastarrak.
 Aleuasen umeak.
 Aleiango lautada.
 Haliakmon.
 haliarrak.
 alizondarrak.
 Halikarnaso.
 halikarnasoarrak.
 Alilat.
 Alzeo Heraklesena.
 Alzeo poeta.
 Alkamenes.
 Alzides.
 Alzetes (fr. Alkètés, ing. Alcetes).
 Alzenor (fr. Alkenôr, ing. Alcenor).
 Alzibiades (fr. Alkibiadès (Alcibiade),
 ing. Alcibiades).
 Alzimakho.
 Alkmeon.
 alkmeonidak (alkmeondarrak)
 (fr. les Alkmaeonides,
 gr. ?Alkmewnivdai).
 Alkmena (fr. Alcmène, ing. Alcmena,
 esp. Alcmena, gr. ?Alkmhvnh, h").
 Alkon.
 Alo.
 Alpenos (hiria).
 Alpenos (fr. Alpènes,
 ing. Alpeni or Alpenus,
 gr. ?Alphnoiv, w'n).
 Alpis.
 Alyates.
 Halys.
 Alpheo.
 Alopekas.
 amazonak (gr. ?Amazovne").
 amazonak (gr. ?Amazonivde").
 Amathunte (fr. Amathunte, ing. Amathus, esp. Amatunte, gr. ?Amaqou", ou'nto").
 amathuntetarrak (Amathuntekoak)
 Amasis Egyptoko erregea.
 Amasis persiarren gudalburua.
 Aminias (fr. Ameinias, ing. Aminias,
 gr. ?Ameiniva", ou).

Aminokles.
Amestris.
Amianto (fr. Amiantos, ing. Amiantus).
Amilkas (fr. Amilcar, ing. Amilkas,
gr. ?Amivlka").
Amon (fr. Ammon, ing. Ammon,
gr.> "Ammwn, wno").
amondarrak.
Amomphareto.
Amorges.
Amon (ing. Ammon (or Amoun)).
Ampelo.
Ampe.
ampraziarrak.
Amytheon.
Amyntas Alzetesena
Amyntas Bubaresena (fr. Boubares,
ing. Bubares).
amyrgiarrak.
Amyris.
Amyrteo.
Amphiarao.
Amphizea (fr. Amphikaea, ing. Amphicaea).
Amphikrates.
Amphiktyonak.
Amphiktyon.
Amphilokho.
Amphilyto.
Amphimnesto.
Amphisa (gr. "Amfissa, h").
Amphitryon.
Amphion.
Anagyrunteko Eumenes.
Anakreonte (Hiz. Elhuyar. Anakreon,
fr. Anakréon, ing. Anacreon,
esp. Anacreonte, gr. Anakrevwn, onto").
anaktoriarrak.
Anaxandrides Theopomporena
Anaxandrides Leonena (fr. Leôn,
ing. Leon, esp. Leonte (Leon),
gr. Levwn, onto").
Anaxandro.
Anaxilao Arkhidemorena.
Anaxilao Kretinesena.

Anaua.
Anaphes.
Anaphlysto.
Anakharsis.
Andreas.
Androbulo.
Androdamas (fr., ing. Androdamas,
esp, Androdamante,
gr. "Androdavma", anto").
Androkrates.
Andromeda (fr. Andromede,
ing. Andromeda, gr. "Andromevda (-h)).
Andro.
androarrak.
androphagoak (gizajaleak).
Aneristo Sperthiasena.
Aneristo Sperthiasen aita.
Anthemunte (fr. Anthémunte,
ing. Anthemus, Antemunte,
gr. "Anqemou'", ou'nto").
Anthele herrixka.
Anthele hiria.
Anthyla.
Anon.
Anopea.
Antagoras.
Antandro.
Antidoro.
Antizyra (fr. Antikyra (Anticyre),
ing. Anticyra, gr. "Antivkura, a").
Antiokho.
Antipatro.
Antiphemo.
Antikhares.
Anysis erregea.
Anysis hiria.
Anyso.
Anysisko nomoa.
Axio.
aparytak.
Apaturiak.
Api.
Apidano.
Apis jainkoa.
Apis hiria.
Apolophanes.

Apolo (fr. Apollon, ing. Apollo, esp. Apolo, gr. ?Apovllwn, wno").
 Ismenoarra.
 Loxias (Bihurria: Loxiva", ou).
 Ptoarra.
 Triopiarra.
 Phebo (Distiratsua: Foi'bo", ou).
 v. Goitosyro, Orus.
 Ponto Euxinoko Apolonia.
 Joniar golkoko Apolonia.
 apoloniarrak.
 Apries.
 arabiararak
 Arabia (lurrealdea).
 arabiar mendia.
 (arabiar) lurrealdea.
 Arabiar golkoa.
 aradoarrak
 Araxes.
 Araro.
 argadeoak (gr. ?Argadei\$, laborariak)
 Argeo.
 Arganthonio.
 Argea (fr. Argeia, ing. Argea, esp. Argia, gr. ?Argeiva, a").
 Arge.
 Argilo.
 Argimpasa.
 Argiopio.
 argipeoak.
 Argos hiria.
 argostarrak.
 argostar emakumeak.
 Argolide (lurrealdea).
 Argoren santutegia.
 Argo (itsasuntzia).
 Arderika (Asyriako herrixka).
 Ardys.
 arioak (nobleak: Areioi, III 93;
 Ario, VII 66).
 Areopago (fr. Aréopage, ing. Areopagus, gr. "Areio" pavgo": Aresen muinoa).
 Ares.
 Ariabignes.
 Ariazo.
 Ariantas.

Ariapithes.
Ariaramnes persiarra.
Ariaramnes Teispesena
Aridolis.
arizantoak.
poema arimaspoak..
arimaspoak.
Arimnesto spartarra.
Arimnesto platearra.
arioak.
Ariomardo Artabanorena.
Ariomardo Dariorena.
Arisba.
Aristagoras Hegesistratoren aita.
Aristagoras zyzikoarra.
Aristagoras Zymekoa.
Aristagoras Molpagorasena.
Aristeas.
Aristeas.
Aristides (fr. Aristeidès (Aristide),
ing. Aristides)
Aristogiton (fr. Aristogeitôn (Aristogiton)).
Aristodemo Aristomakhorena.
Aristodemo spartarra.
Aristodiko.
Aristokrates.
Aristozypro (fr. Aristokypros.
ing. Aristozyprus)
Aristolaides.
Aristomakho.
Aristonize (fr. Aristonikè, ing. Aristonice).
Aristophanto.
Aristophilides.
Ariston Bizanziokoa.
Ariston Spartako erregea.
Aristonymo.
Ariphron.
Arion.

arkadiarrak
Arkadia.
(Arkadiako) pelasgiarrak.
Arzesilao Zyreneko erregea
(fr. Arkésilaos (Arcésilas),
ing. Arcesilaus).
Arzesilao Batorena.
Arzesilao Batorena.
Arzesilao Batorena.
Harmamithres.
Harmatides.
armeniarrek
Armenia.
Armeniako mendia.
Harmodio.
Harmozydes.
Harpago mediarra.
Harpago persiarra.
Arpoxais.
Arsamenes.
Arsames Ariaramnesena.
Arsames Dariorena.
Artabazo persiarra.
Artabazo Pharnazesena.
Artabano.
Artabates.
arteoak.
Arteo Azanesen aita.
Arteo Artakheesen aita.
Artaze.
Artanes ibaia.
Artanes Hystaspesena.
Artayktes.
Artaynte.
Artayntes Artakheesenena.
Artayntes Ithamitresena
Artaphrenes Artaphrenesenena.
Artaphrenes Hystaspesena.
Artakhees Arteorena.

Artakhees Artayntesen aita.
Artakhees Otaspesen aita.
Artembares Artayktesen arbasoa
Artembares mediarra.
Artemis (fr. Artémis, ing. Artemis,
esp. Ártemis, Artemisa,
gr. "Artemi", ido").
• Erregina (gr. basilhi?h).
• Orthosia (gr. ?Orqwsivh).
Artemisioa (Artemisen santutegia).
Artemisia.
Artemisio (lurmuturra).
Artesko.
Artobazanes.
Artozostra.
Artontes Bageoren aita.
Artontes Mardoniorena.
Artoxerxes.
Artokhmes.
Artybio.
Artystone.
Artyphio.
Aryandes.
ariandikoa (Aryandesen diru-zilarra).
Aryenis.
Arkhandro.
Arkhandropolis (Arkhandroren hiria).
arkhelaoak (herri jaunak).
Arkhelao.
Arkhestratides.
Arkhidemo Anaxandridesena.
Arkhidemo Zeuxidemorena.
Arkhidize (fr. Arkhidike, ing. Arkhidice).
Arkhias Samoarra.
Arkhias Samoarraren aita.
Arkhilokho Parokoa.
asbystak.

Asias leinua.
Asia.
Asia Prometheoren emaztea.
Asias.
Asine.
Askalon.
Asmakh.
Aspathines.
Asa.
Asesia v. Athenea.
Aseso.
asyriarrak.
Asyria.
Astako.
Aster.
Astrabako.
Astyages.
Asykhis.
Asonides.
asopoarrak.
Asopodoro.
Asopo Beoziako ibaia.
Asopo Trakhiniako ibaia.
ataranteak.
Atarbekhis.
Atarneo (fr. Atarnée, ing. Atarneus,
gr. "Atarneuv", evw").
Atarneoko lurraldea
atlanteak (ing. Atlantes, gr. "Atlante", wn).
Atlantiko itsasoa (gr. "Atlantiv", ivdo").
Atlas mendia (gr. "Atla", nto").
Atlas ibaia.
Atosa.
Atramytio (gr. "Atramuvtteion, ou).

atreidak (atreotarrak).
Atagino.
Atikako herria.
Atikako jendea.
Atys Kresorena.
Atys Manesena.
Atys Pythioren aita.
Augila.
Auxesia.
Auras.
auseak.
auskhisak.
Autesion.
Autodiko.
Autonoo.
aukhatak.
Aphetas.
Aphthiteko nomoa.
Aphidnas (gr. "Afidnai, w'n).
Aphrodisias irla.
Aphrodita (fr. Aphrodîtè, ing. Aphrodite, esp. Afrodita, gr. ?Afrodivth, h").
Atzerritarra (gr. xeivnh, h").
Urania (gr. oujranivh, h").
v. Alilat, Argimpasa, Mitra, Mylita.
Aphytis.
Akhemenes Dariorena.
Akhemenes Teispesen aita.
akhemenidak (akhemenestarrak).
akhearrak (fr. Achéens, ing. Achaeans).
phthiotidekoak.
Akhaia (fr. Achaïe, ing. Achaea).
Akhaiaiko herria.
Akheo.
Akheloo.
Akheronte (fr. Akhérôn (Achéron),
ing. Acheron, esp. Aqueronte,
gr. ?Acevrwn, onto").
Akhileio.
Akhileodromoa.
apsinthioak.
Babylon (hiriburua).
Babylonia (lurraldea).
Asyriako zatia.
babylondarrak edo babyloniarrak.
Babylongo hiria.

zilar babyloniarra.
talentu babyloniarra.
pisu babyloniarra.
Bageo Artontesena.
Bageo Mardontesen aita.
Badres pasargada.
Badres Hystanesena.
bakalak
Bazis (fr. Bakis, ing. Bacis).
Baktra (fr. Baktres, ing. Baktra.
gr. Bavktra, wn).
baktrarrak.
baktrarrak.
Baktra lurraldea.
Baktrako herria.
Baktrako herrialdea.
Bakkhoarra v. Dionyso.
bakkhistarrak.
(errito) bakkhikoak.
Barka herriska.
Barka hiria.
Barka (lurraldea).
barkarrak.
Basileides (gr. Basilhi?dh", ou).
Basazes.
batoarrak.
Batoak Zyreneko erregeak.
Bato Polymnestorena.
Bato Arzesilaorena Zoriontsua.
Bato Arzesilaorena.
Belbinite.
Bermio mendia.
Beloren ateak.
Belo jainkoa.
Belo Alzeorena.
besoarrak.
Bias Melamporen anaia (fr., ing. Bias, esp. Biante edo Bias, gr. Biva", anto").
Bias Prienekoa.
Thraziako bithyniarrak.
bisaltiarak.
Bisaltia (lurraldea).
Bisaltes.
Bisanthe.
bistoniarrak.

Bistoniar lakua.
Biton (gr. Bivtwn, wno").
Boges.
Bebetar lakua.
beoziarrak.
Beozia (lurraldea): Elhuy. Beozia,
fr. Béotie, ing. Boeotia,
gr. Boiwtiva, a").
Niloren aho Bolbitinarra.
Boreas (iparraize jainkotua).
Borysthenes hiria.
borysthenestarrak.
Borysthenes ibaia.
Bosporo Thraziarra.
Bosporo Zimeriarra.
Botia (lurra).
botiatarrak.
Bubares.
Bubastis (Artemis).
Bubastis hiria.
Bubastisko nomoa.
budinoak.
budioak.
Niloren aho Bukolikoa.
Bulis.
Bura.
busak.
Busiris.
Busirisko nomoa.
Butazides.
Buto.
brankhidak (brankhoarrak).
brankhidak (brankhoarrak).
Brauron.
Brentesio.
Briantika lurraldea.
brigeak.
Brongo.
brygoak.
Bybasoko (Khersoneso edo penintsula).
Byzanzio (fr. Byzance, ing. Bizantium, esp. Bizancio, gr. Buzavntion, ou).
byzanziarrak.
Gadira (fr. Gadeires, ing., esp. Gadira,
gr. Gavdeira, wn).

Geson.
Galepso.
Galaika (lurrealdea).
gandariarrak.
garamanteak.
Gargaphia (iturria).
Gauanes.
Gebeleizis.
Geleonte (fr. Géléon, ing. Geleon,
gr. Gelevwn, onto": geleonteen
(nobleen) arbasa).
Gela.
gelarrak.
Gelón.
gelonoak.
Gelono Heraklesena.
Gelono hiria.
Geresto.
gergitheak.
Gergis.
germaniarak.
Gerro ibaia.
Gerro lurrealdea.
gerroarrak.
getak.
gephyrrak.
Gea.
Gadira.
Geryones.
Gigono.
giligamak.
Gilo.
gindaneak.
Glauko Epizydesena.
Glauko Hipolokhorena.
Glauko Khiokoa.
Glaukon.
Glisas.
Gnuro.
Gobryas.
Getosyro (Apolo).
Gono.
Gorgo.
Gorgona.
Gorgo Kleomenesena (alaba).

Gordias Midasena.
Gordias Midasen aita.
Grino.
Grynia.
Gygea Amyntesena.
Gygesena lakua.
Gyges Daszylorena (fr. Daskylos,
ing. Dascylus, esp. Dascilo,
gr. Davskulo", ou).
Gygesena urrea.
Gyges Myrsoren aita.
gyzanteak.
Gyndes.
Gobryas Dariorena.
Gobryas Mardoniorena aita.
dadikak.
Dedalo.
Damasithymo kalyndarren erregea.
Damasithymo Kandaulesena.
Damaso.
Damia (jainkosa).
Danae.
Danao.
daotarrak.
dardaniarrak.
Dardano.
Dario Xerxesena.
Dario Hystaspesena.
daritak.
Daszyleo.
Daszylo.

Datis.
Dato.
dauliarren hiria
Daurises.
Daphnas Pelusiarra.
Daphnis.
Dinomenes (fr. Deinoménès,
ing. Dinomenes).
Dezelia.
dezeliarrak.
Dezelo (Dezeliako heroia).
Delta.
Delphos.
delphostarrak.
derseak.
Deukalion.
Deiozes.
Deiphono.
Delio.
Delo.
deloarrak.
Demarato.
Demarmeno Prinetaresen aita.
Demarmeno Khilonen aita.
Demeter (fr. Dèmèter, ing. Demeter,
gr. Dhmvthr, tro").
Amphiktyonidea.
Akhearra.
Eleusistarra.
Demetrioa (Demeterren santutegia).
Ama (gr. mvthr).

Demozedes.
 Demokrito.
 Demonoo.
 Demophilo.
 Demonax (fr. Dèmônax, ing. Demonax, esp. Demonacte, gr. Dhmw'nax, akto").
 derusiarrak.
 Diadromes.
 Diaktorides Kranondarra.
 Diaktorides Spartarra.
 Didyma.
 Dieneses (fr. Diènékès, ing. Dieneces).
 Dithyrambo.
 Dizea (fr. Dikaea, ing. Dicaea, gr. Divkaia, a").
 Dizeo.
 Dike.
 Diktyna.
 Dindymongo Ama.
 Diomedes.
 Dio.
 Dionysio.
 Dionyso (fr. Dionysos, Dionysus, esp. Dioniso, gr. Diovnuso", ou).
 Bakkhoarra (gr. Bavkceio" < Bavkco").
 v. Orotalt, Osiris.
 Dionysophanes.
 Dioskuroak.
 dipearrak.
 dobereak.
 dolonkoak.
 dolopearrak.
 Dorisko.
 Doryso.
 dropikoak.
 Drymo.
 dryopeak.
 Dryopide (gr. Druopiv", ivdo").
 Dryoscephalas (ing. Dryoscephalae, gr. Druo;" , kefalai;: Arteburueta).
 dymanatak.
 Dyme.
 Dyras.
 Dysoro.
 Dodona.
 dodonarrak.
 Dodonako apaizemeak.
 doriarrak (fr. Doriens, ing. Dorians, esp. dorios, gr. Dwrieve", sing. Dwrieuv", evw").
 Epidaurokoak (epidauroarrak).

Lazedemongoak (lazedemondarrak).

doriar jatorria.
 (lazedemonдар) herria.
 Doride (lurraldea).
 Dorieo Anaxandridesena.
 Dorieo Eurianaxen aita.
 Doro Helenen (seme)a: doriarren arbasoa.
 Doto.
 Hebro.
 egestarrak.
 enkheleak.
 Ilithyia.
 Hekateo.
 Hekatonesoak (Ehun Irlak).
 Hektor.
 Eleunte (fr. Eléonte, ing. Elaeus,
 esp. Eleunte gr. "Elaiou", ou'nto").
 eleuntetarrak.
 Elatea (fr. Elateia (Elatée), ing. Elatea,
 gr. "Elavteia, a").
 Elbo.
 Helena (fr. Hélenè, ing. Helen, esp. Helena, gr. "Elhnh).
 Eleusis (fr. Eleusis, ing. Eleusis,
 gr. "Eleusiv", ivno").
 Elephantina (fr. Éléphantine,
 ing. Elephantine, esp. Elefantina,
 gr. "Elefantivnh, h").
 eleondarra.
 Helize.
 elisykoak.
 Helade (fr. Hellade, ing. Hellas,
 esp. Hélade, gr. "Ellav", avdo").
 heladera (Heladeko hizkuntza).
 heleniarrak (fr. les Hellènes,
 ing. Hellenes, esp. los helenos,
 gr. oiJ "Ellhne").
 heleniarra ("Ellhn, hno").
 heleniar (herri)a (gr. to; "Ellhnnikovn).
 (heleniar) herria (gr. gevno").
 (heleniar) herriak.
 (heleniar) izena.
 (heleniar) mintzaira.
 Heleniar itsasoa.
 heleniarren herri-jaibilkurak.
 heleniar jainkoak.
 heleniarren jainkoak.
 heleniar temenosa.
 Heleniar itsasoa.
 Hele (fr. Hellè, ing. Helle, gr. "Ellh, h").
 Helen Dororen aita.
 Helespontoko haizea.

Helesponto.

helespontoarrak.
Elopiā.
Eloro.
enareak.
enetoak.
enieneak.
Enipeo (gr. "Enipeuv", evw").
Eneakruno (Bederatziturrieta,
fr. la fontaine à neuf sources,
ing. Enneacrūnus "Nine Springs": "Enneavkrouno").
Enea Hodoi (Bederatzibideta,
fr. les Neuf routes,
ing. Ennea Hodoi "Nine Ways":
"Enneva ovdoi;").
Exampeo.
eordiarrak.
Epapho.
Epialtes.
Homeroren Epigonoak.
epidamnoarrak.
Epidauro.
epidauroarrak (Epidaurokoak).
lokro epizephiroak.
Epizelo.
Epizydesen (seme)a
Epizydes.
Epio.
Epistropho.
Erasino.
Eretria.
eretriarrak.
Eretriako lurraldea.
Erekhtheo (fr. Erechthée,
ing. Erectheus, gr. Erecqeuv", evw").
Erineo.
Erinyak.
Hermes.
Hermopolis.
Hermipo.
Hermione.
hermionetarrak.
Hermolyko.
Hermo.
Hermotimo.
hermotybiak.
Hermophanto.
Erxandro.

Herpys.
Erythia irla.
Erythras Beojiako hiria.
Erythrasko lurraldea.
Erythras Joniako hiria.
erythrastarrak.
Erythrebolo (Lurgorrieta,
fr. Erythré Bolos (Terre Rouge),
ing. Erythre bolos "Red Earth": ?Eruqrh; bw'lo").
Erythre itsasoa (Itsaso Gorria).
Eryx.
Eryxko lurraldea.
Eryxo.
Erokho.
Etearkho amondarren erregea.
Etearkho Oaxoko erregea.
Eteokles.
Euagoras (fr. Euagoras (Evagoras),
ing. Evagoras, esp. Evágoras).
Eueneto (fr. Euaenétos, ing. Evaenetus).
Eualzides (fr. Eualkidès, ing. Evalcides).
Eubea (fr. Euboea (Eubée), ing. Euboea, gr. ?Eu[boia, a"]).
eubearrak.
Siziliako (eubearr)ak.
eubear minak.
Eubeako gainak.
eubear zilarra.
eubear talentua.
Euelthon (fr. Euelthôn, ing. Evelthon,
esp. Eveltón, gr. ?Eujevlqwn, onto").
Euesperides (fr. Euespérides,
ing. Euhesperides, esp. Evesperidas).
euesperidestarrak.
Euenio (fr. Euhénios, ing. Evenius,
esp. Evenio).
Eutheno.
Euklides.
Eumenes.
Eunomo.
Ponto Euxino (Itsaso Abegitsua).
Eupalino.
Euripo.
Euryanax (fr. Euryanax, ing. Euryanax,
esp. Eurianactes, gr. ?Euruavnax, akto").

Eurybates.
Eurybiades.
Eurydama (fr. Eurydamè, ing. Eurydame, esp. Euridama).
Eurydemo.
Euryklides.
Eurykrates.
Eurykratides.
Euryleon (fr., ing. esp. Eurileon, gr. ?Eurulevwn, onto").
Eurymakho Leontiadesena.
Eurymakho Leontiadesen aita.
Eurypylo.
Eurysthenes.
Eurysteo (fr. Eurysthée, ing. Eurystheus).
Euryto.
Euryphonte (fr. Euryphôn, ing. Euryphon, esp. Eurifonte, gr. Eujrufw'n, w'nto").
europarra (Europokoa).
Europa (fr. Eurôpè (Europe), ing. Europa, gr. ?Eurwvph, h").
europarrak.
Europa Agenorrena.
Eutykhides.
Euphemides.
euphemoar (sendia).
Euphorbo.
Euphorion azaniarra.
Euphorion athenastarra.
Euphrates.
Epheso (hiria).
Ephesia (Ephesoko lurraldea).
ephesoarrak.
Ekhidoro.
Ekhekrates.
Ekhemo.
Ekhestrato.
Ekhinar (irlak)
Zabato.
Zankle.
zankletarrak.

Zazyntho (fr. Zakynthos, ing. Zacynthus).
zazynthoarrak.
zauekeak.
Zeuxidemo.
Zeus.
plaza-zaindaria (ajgorai'o").
Eleutherio (Askatzailea: ejleuqevrio").
Heleniarra (ÔEllhvnio").
Sendi-zaindaria (ejpivstio").
etxe-zaindaria (eJrkei'o").
adiskidetasun-zaindaria (eJtarhvio").
Thebaskoa (Qhbaieuv").
araztailea (kaqavrsio").
Kariarra (Kavrio").
Kronida (Kronoarra: Kronivdh").
Lazedemondarra (Lakedaivmwn).
Laphystio (Irenslea: Lafuvstio").
Lyzeo (Lukai'o").
Olympoarra (?Oluvmpio").
zerutarra (oujrvnio").
gerra-zaindaria (stravtio").
Zone.
Zopyro Megabyxorena.
Zopyro Megabyxorena (bestea).
Zoster.
Hebe.
Hegesandro.
Hegesikles.
Hegesilao Dorysorena.
Hegesilao Hipokratidesena.
Hegesipyle.
Hegesistrato Aristagorasena.
Hegesistrato Elearra.
Hegesistrato Pisistratorena.
Hegetorides.
Hegias.
Agis.
edonoak.
Eeropo.
Eetion.
eetiondarra.
Eion.

Helio egyptoarren jainkoa.
Heliopolis.
heliopolistarrak (Heliopoliskoak).
Elide (fr. Elide, ing. Elis, gr. "Hli", ido).
elear lurraldea (Elide).
elearrak.
Epidano.
Hereo hiria (fr. Hèraeon, ing. Heraeum, gr. "Hraion povli").
Heraklesen Zutabeak.
Herakles.
• Tasoarra.
• Olymposarra.
Heraklio (Heraklesen santutegia).
heraklidak (heraklestarrak).
Heraklides Aristagoraren aita.
Heraklea (fr. Hèracleia, ing. Heraclea).
Hera.
Hereoa (Heraren santutegia).
Eridano.
Herodoto Halikarnasokoa.
Herodoto Basileidesena.
Herophanto.
Hesiodo.
hephestiarrek.
Hephestopolis.
Hephesto.
Hephestio (Ephestoren santutegia).
Thagimasadas.
Thales.
thamaneak.
Thamasio.
Thanyras.
Thaso irla.
thasoarrak.
Thaso pheniziarra.

Theasides.
Themis.
Themiszyra.
Themistokles.
Themison.
Theodoro.
Theozydes (fr. Théokides, ing. Theocydes).
Theomestor.
Theopompo.
Delphosko Theophania.
Therambo.
Therapne.
Therme.
Thermeko golkoa.
Thermopylak
(Urbero-atakak: Qermopuvlai).
Thermodonte Beoziako ibaia
(fr. Thermòdôn, ing. Thermodon,
esp. Termodonte,
gr. Qermwvdwn, onto").
Thermodonte Kapadoziako ibaia.
Thersandro Polynizesena.
Thersandro Orkhomenoarra.
Thesmophoriak.
ephesoarren (Thesmophori)ak.
Thespia.
thespiarrak.
thesprotiarrak (fr. Thesprôtie,
ing. Thesprotians)
thesaliarrak.
Thesalia.
Thesaliotide (fr. Thessaliôtide,
ing. Thessaly).
Thesaliako mendiak.
Thesalo.
Theste iturria.
Thetis.
Thebas egyptoarra (fr., ing. Thèbes,
gr. Qh'bai, w'n).

thebastarrak.
Thebasko nomoa.
Thebasko nomoa.
Thebaskoa.
Thebas beoziarra.
thebastarrak.
Thebasko partea.
Thebe.
Thebeko lautada.
Theras.
Thera.
theratarrak.
Theron.
Theseo.
Thmuisko nomoa.
Thoas (esp. Toante, fr., ing. Thoas,
gr. Qova", anto").
Atikako Thoriko demoa.
Thornax.
Thrasybulo.
Thrasydeio.
Thrasykles.
Thrasylo.
thraziarrak.
(Thraziako) thyniarrak.
(Thraziako) bithyniarrak.
(Thraziako) nipseoak.
(Thraziako) szyrmiadak.
Thrazia (fr., ing. Thrace < Qra;kh,
jon. Qrhvkh).
Thraziako itsasoa.
Thriasiar lautada.
Thyia Zephisorena.
Thyia Delphosko lurraldea.
Thraziako thyniarrak.
Thyrea.
thysagetak.
Thyso.
Thon.
Thonis.
Thorax.
Jadmon (eusk. ja- [ya-], esp. Yadmon,
fr. Iadmôn, ing. Iadmon,
gr. ?Iavdmwn, ono").

jamidak (jamoarrak).
Jardano.
Ibanolis.
iberiarrak.
Iberia.
Idanthyrso.
Ida mendia.
Idriade lurraldea.
Hieron.
Hieronymo.
Jalyso.
Janyso.
japygiarrak.
Japygia.
Jason.
Jatragoras.
Ithamitres Artayntesen aita.
Ithamitres.
Ithome.
Ikaroar itsasoa.
Ikaro.
Homeroren Iliada.
Ilion.
Iliongo lurraldea.
Iliso ibaia.
ilyriarrak (Ilyriakoak).
Imbro.
Himera.
Inaro.
Inakho.
indiarrek.
(indiar) kalantiak.
kalatiak.
India(r lurraldea).
Indo.
Intaphrenes.
Inyx.
Ino.
Joniar golkoa.
Joniar itsasoa.
Ipnos (Labeeta: "Ipnoiv, w'n).
Hiparkho.
Hipias.

Hipoklides.
Hipoklo Lampsakokoa
Hipokoonte (fr. Hippokoôn,
ing. Hippocoön, esp. Hipocoonte,
gr. Ἰπποκρόων, ὄντωντο").
Hipokrates Megaklesena.
Hipokrates Pantaresena.
Hipokrates Pisistratoren aita.
Hipokrates Smindyridesena.
Hipokratides.
Hipolaoko tontorra.
Hipolokho.
Hipomakho.
Hiponiko Kaliasena.
Hiponiko Kaliasen aita.
Irasa.
Hirai Hodoi (lat. Viae Sacrae:
Bide Sakratuak).
Hira Hodos (lat. Via Sacra:
Bide Sakratua).
Is hiria.
Is ibaia.
Isagoras.
Isthmoa (Korinthokoa).
Isis.
Ismaride (Ismaroko) lakua.
Ismenoarra (Apolo).
isedonak.
Histiea.
histiearrak.
Histieotide (Iurra).
Histieo Lysagorasena.
Histieo Tymnesena.
Histieo Phylakoren aita.
Histieotide Iurraldeia.
Histia.
Istria.
istriar emakumea.

Istro (= Danubio ibaia).

Iskhenoo.

Italia.

italiarrak (Italiakoak).

Itano.

jyrkak.

Iphigenia.

Iphiklo.

ikhthyophagoak (arrainjaleak).

Ikhnas.

Io.

Jolko.

Jon Xuthorena.

joniarrak (fr. d' Ionie, ioniens, l' une des quatre tribus principales des Hellènes, particul. les Ioniens, en Asie Mineure; ing. Ionians, esp. jonios, gr. "Iwne", sing. "Iwn).

Jonia.

joniarrak jatorria.

joniarrak herria.

joniarrak arraza.

joniarrak herrialdea.

kabaliarrak.

kabiroak.

kabale meoniarrak.

kadmearrak.

kadmear garaitzapena.

kadmear idazkunak.

Kadmo Agenorrena.

Kadmo Szytharena.

Kadytis.

Kaiko.

kaikoar lautada.

Zeneotar Eetion.

Kalamos.

kalasiriak.

Kaleakte (Kostaeder).
indiar kalantiak.
Kalatebo.
indiar kalatiak.
Kaliades.
Kalias Elearra.
Kalias Hiponikorena.
Kalias Pheniporena.
Kalikrates.
Kalimakho.
kalipolistarrak.
kalipidak.
Kaliste.
Kaliphonte (fr. Kalliphôn, ing. Calliphon, esp. Califonte, gr. Kallifw'n, w'nto").
kalydniarrak.
kalyndarrak.
Kalkhas (fr. Kalkhas (Calchas), ing. Calchas, esp. Calcante, gr. Kavlca", anto").
khalzedondarrak (Khalzedon hiriburukoak).
Khalzedonia (lurralde).
Kamarina.
kamarinarrak.
Kambyses Zyrorena.
Kambyses Teispesena.
Kamiko.
Kamiro.
Kampsas.
Kanastrongo lurmuturra.
Kandaules lydiarren erregea.
Kandaules Damathytimoren aita
Kanes mendia.
Kanobo.
Niloren Kanoboko ahoa.
kapadoziarrak.
Kapadozia.
Kar.
Kardamyle.
Kardia.
kariarrak.
Karia.
kariar hizkuntza.
kariar gudarostea.
kariar ohiturak.

kariar herria.
kariar arraza.
kariar emakumeak.
kariar soinekoa.
Karene.
Kareno.
Karzinitis hiria.
Karneak.
Karpatho.
Karpis.
Karysto.
karystoarrak.
Karystoko lurraldea.
Karkhedon (Karthago).
karkhedondarrak (karthagoarrak).
Kasambo.
Kasthanea.
Kasio mendia.
Kasmena.
Kaspatyro.
Kaspiar itsasoa.
kaspiarrek.
Kasandane.
Kasiterideak.
Kastalia.
Katadupak (Kataraktak).
Katarraktes.
katiaroak.
Kaukasa.
Kaukaso.
Kaukaso mendia.
Kaukasoar mendia.
kaukonak.
Kauno.
kaunoarrak.
kaunoar herria.
Kaustrio.
Kaustrobio.
Kaphereo.
Zekrope (fr. Cécrops, ing. Cecrops,
esp. Cécrope, gr. Kevkroy, opo").
zekropetarrak (= athenastarrak).
Zelenas.
Zeelas.

zeltak (fr. Celtes, ing. Celti, esp. celtas,
gr. Keltoiv / Keltaiv).
Zeo.
Zeramiko golkoa.
Zerkasoro.
Zerzyra (fr. Kerkyra (Corcyre),
ing. Cercyra (Corzyra),
gr. Kevrkura, a").
zerzyrarrak (korzyrarrak).
Zerkopeen egoitzak.
Zephalenia.
zeotarrak.
Kereak.
Zepheo.
zepheoarrak.
Zephisso.
Zitheron.
Zitherongo iraganbideak.
zikonak.
ziliziarrak.
Zilizia (fr. Cilicie, ing. Cilicia,
gr. Kilikiia, a").
ziliziar untziak.
Ziliziako mugak.
Zilix Agenorrena.
Zila.
zimeriarrak.
Zimeria (lurra, lurraldea).
zimeriar harresiak.
Zimon Miltiadesena (fr, Kimôn (Cimon),
ing. Cimon).
Zimon Stesagorasena.
Zindyar Pixodaro.
Zineas (fr. Kinéas (Cinéas), ing. Cineas, gr. Kineva", evou).
Zinye lurra (fr. Kinyps, ing. Cinyps,
esp. Cínipe. gr. Ki'nuy upo").
Zinye ibaia.
Zio Mysiako.
[Zio ibaia]
zisiarrak.
Zisia (lurra, lurraldea).
Zisiako ateak.
Klazomenas.

klazomenastarrak.
Kleades.
Kleandro Autodikorena.
Kleandro Pantaresena.
Klinias.
Klisthenes Aristonymorena.
Klisthenes Megaklesena.
Kleobis.
Kleodeo.
Kleombroto.
Kleomenes.
Kleonas.
Kleideak (Giltzak).
klyziarra.
Knido.
knidoarrak edo knidiarrak.
Knidia.
Knetho.
knosoar Minos.
Kobon.
Kodro.
Eubeako Badiak.
Khio lurraldeko Badiak.
Atikako Zele.
Zenyra.
Kolaxais.
Kolosas.
Kolophon.
kolophondarrak.
Kolkhide.
kolkhoak
kolkhoen linoa.
Kompsato.
koniarra.
Kontadesdo.
Alaba (Ama Demeterrena).
Koreso.
Korintho.
korinthoarrak.
korinthoar neskameak.
korinthoar soinekoa.
korinthoar kaskoa.

Koros (Asemena).
Korydalo.
Korys.
Korobio.
koronearrak (Koroneakoak).
Kotys.
Kurio
kuriarrak.
Kuphagoras.
Krathia. v. Athenea.
Krathis Egaskoa.
Sybariskoa.
kranaotarrak.
Kranaspes.
Kranondar Diaktorides.
Kremnos (Malkartegi).
Kreston (hiriburua).
krestoniarrek.
krestondarrak edo krestoniarrek.
Krestonia (lurraldea).
Kreta.
kretarrak.
Kretines Aminoklesen aita.
Kretines Anaxilaoren aita.
Krinipo.
Krio.
Krisako lautada.
Kritala.
Kritobulo zyrenetarra.
Kritobulo toronetarra.
krobyzoak.
Kreso.
Krokodilopolis (Krokodilo-hiria).
Kronida (Kronoarra).
Krosako lurraldea.
Kroton.
krotondarrak.
Krotongo lurra.
Krophia.
Zyaneak (irlak: Ilunak).
Zyaxares.
Zybernisko.

Zybebe.
Zydipe.
Zydrara.
Zydonia.
Zyziko.
zyzikoarrak.
Zythera.
Zytherako irla.
Zythno.
zythnoarrak.
Zykladeak (fr. Cyclades, ing. Cyclades, esp. Cíclades (-as), Elh. Kikladeak (sic), gr. Kuklavde" (nh'soi)).
zylyrioak.
Zylon.
Zyme.
zymetarrak.
Zynegiro.
Zyneas.
zynesioak.
zyneteak.
Zynisko.
Zynosarges.
Zynosura.
zynuriarrak.
Zyno.
Zyproar Kantuak.
Zypro (Zypre edo Txipre).
zyproarrak.
Zyrauis.
Zyrene.
zyrenetarrak.
zyrenetar lurraldea.
zyrenetar lotoa.
zyrmianak v. szyrmiadak.
Zyrno heroia.
Zyrno irla.
zyrnoarrak.
Zyrno karystoar lurraldekoa.
Zyro Kambysesen aita.
Zyro Kambysesena.

Zytisoro.
Zypselo Eetionena.
zypseloarrak.
Zypselo Miltiadesen aita
Koes.
Koleo.
Kolias (fr. Kôlias, ing. Colias, esp. Colíade, gr. Kwliav", avdo").
Koliasko emakumeak.
Kombrea.
Kopais lakua.
Koryziar harpea.
Kos.
kostarrak.
Labda.
Labdako.
Labraunda.
Labyneto babyloniarra.
Labyneto Labynetorena.
Lade.
Ladize.
Laio.
Lazedemon (hiriburua (= Sparta) edota lurraldea (= Lakonia)).
lazedemonarrak.
lazedemonar periekoak.
Lakonia lurraldea.
lakoniar neskameak.
Lakonia.
lakoniar laurdena.
Zeus Lazedemonarra.
Lakmon.
Lakrines.
Lampito.
Lampon Thrasyklesena.
Lampon Olympiodororen aita.
Lampon Pytheasena.
Lamponio.
Lampsako.
lampsakoarrak.
Laodamas Eteoklesena (fr., ing. Laodamas, esp. Laodamante, gr. Laodavma", anto").
Laodamas Sostratoren aita.

Laodamas Phozeakoa.
Laodize.
Lao.
Eetion lapitha.
Iasoniarrak.
Laso.
Laurio.
Laphanes.
Leagro.
Learkho.
Lebadea.
Lebea.
Lebedo.
Lipsydrion.
Lekto.
lelegeak.
Leontiades.
Leontinos.
Lepreo.
lepreotarrak.
Lero.
Lesbo.
lesboarrak.
(lesboar) kraterak.
leukadetarrak.
Leukastelas (Zutabezurieta).
Leukakte (Kostazuri).
Leukontikhos (Gatzelzuri).
Leukon.
Leutykhides Anaxilaorena.
Leutykhides Menaresena.
Leobotes.
Leozedes.
Leon Spartako erregea.
Leon trezendarra (Trezengoa).
Leonidas.
Leoprepes Theasidesen aita.
Leoprepes Simonidesen aita.
Lemno.
lemnoarrak.
lemnoar egintzak.
Larisas.
larisastarrak.

Leto.
libyarrak.
Libya.
Libyako kontakizunak.
Libyako mendia.
Libyako lurraldea.
libyar emakumeak.
Asiako ligureak.
Masaliaz goitikoak.
Lide.
Limeneo.
Lindo.
lindoarrak.
Lino abestia
Lipaxo.
Lipoxais.
Lisas.
Liso.
Likhes.
lokroak.
epizephyriarrak.
ozolak.
opuntetarrak.
Lokrideko hiriak.
Loxias v. Apolo.
Lygdamis Artemisiaren aita.
Lygdamis naxoarra.
Lynzeo.
Lydias.
lydiarrak.
lydiarra.
Lydia (lurra).
Lydiako aginterria.
lydiar herria.
lydiar herrialdea.
Lydo erregea (lydiarren arbasoa).
Lykareto.
Lyzidas.

lyziarrak.
Lyzia (fr. Lycie, ing. Lycia,
esp. Licia, gr. Lukiva, a").
Lykomedes.
Lyko Pandionena.
Lyko Spargapithesena.
Lyko thysageten ibaia.
Lyko Phrygiako ibaia.
Lykurgo athenastarra.
Lykurgo Amiantoren aita.
Lykurgo spartarra.
Lykophron.
Lykopas
Lysagoras Histieoren aita.
Lysagoras Tisiasena.
Lysanias.
Lysikles.
Lysimakho.
Lysistrato.
lotophagoak (lotojaleak).
Magdolo.
magnesiarrak
Magnesia (lurra).
Asiako magnesiarrak.
Magnesia.
magoak.
Madyes.
Madyto.
Mazares.
Meandrio Meandriorena.
Meandro.
Meandro zelaia.
meatarrak.
meatar ibaia (= Tanais)
meatar lakua: Meatide lakua (= Azor
itsasoa)
makak.
Makároon nêsoi (Zorionekoen irlak)
mazedondar herria.
mazedondarrak.
Mazedonia.

Mazedoniako mendia
Mazedonide (Mazedoniako) lurra.
Mazistio.
Mazisto.
makronak.
Maktorio.
Malea.
Malea.
Malene.
Males.
Mandane.
Mandrokles.
Maneros.
Manes.
Mantinea.
mantinearrak.
maxyak.
Marathon.
maraphioak.
mardoak.
Mardonio.
Mardontes.
Marea.
mareak.
mariandynoak.
Maris.
Marsyas ibaia.
Marsyas silenoa.
Maron.
Maronea (fr. Marôneia, ing. esp. Maronea,
gr. Marwvneia, a").
Masistes.
Masistio.
Maskames.
Maskamesen ondorengoak.
maspioak.
masagetak.
Masages.
Masalia (egungo Marseillea).
Mastyes.

matienoak.
matienoen lurra.
Maten.
Mausolo.
makhlyak.
Megabazo Megabatesena.
Megabazo persiarra.
Megabates.
Megabyxo Zopyrorena.
Megabyxo Zopyroren aita.
Megabyxo persiarra.
Megadostes.
Megakles Alkmeonena.
Megakles Alkmeonen aita.
Megakles Hipokratesena.
Megakreonte (fr. Mégakréôn,
ing. Megacreon, esp. Megacreonte, gr. Megakrevwn, onto").
Megapano.
Megara.
megararrak.
Megaride (Megarako) lurraldea.
Siziliako megararrak.
Megasidres.
Megistias.
melankhlenoak.
Melampo (fr. Mélampus, ing. Melampus, esp. Melampo, gr. Melavmpou", odo").
Melampygoren harkaitza.
Melanthio.
Melantho Kodroren aita.
Melanipo Astakorena.
Melanipo mytilenetarra.
Melas golkoa.
Melas Thraziako ibaia.
Melas Melideko ibaia.
Melibea.
Melisa.
Membliarao.
Memnon.
Memnonen hiria.

Memnonen jauregiak.
Susa.
Memphis.
Menares.
Mende.
Mendes.
mendestarrak.
Niloren Mendesko ahoa.
Mendesko nomoa.
Menelao portua.
Menelao.
Menio.
Merbalo.
mermnadak (mermnatarrak).
Meroe.
Thraziako Mesambria.
Ponto Euxinoko Mesambria.
mesapiarrak.
Mesene.
meseniarrak (Meseniakoak).
Metapontio.
metapontiarrak.
Medea.
mediarrak.
mediarra.
Mediako aginterria.
Media (-ko lurra, lurralde).
Mediako herria.
methymnarrak.
meiondarrak.
meiondar herria.
Mezisteo.
Mezyberna.
Meles.
melidetarrak.
Melide (lurra).

Melideko golkoa.
meloarrak (Melokoak).
Ama (Demeter).
Jainkoen Ama.
Metiokho.
Metrodoro Prokonesokoa.
Midas.
Mizytho.
Mileto.
miletoarrak.
Miletoko lurraldea.
Miletoren Konkista, Phrynikhorena.
Miltiades Zimonena.
Miltiades Zypselorena.
milyak.
Milyade (lurra).
Milon.
Min.
minyarrak.
Orkhomenoko minyarrak.
Minoa.
Minos.
Mitra.
Mitradates.
Mitrobates.
Mnesarkho.
Mnesiphilo.
Moirak.
Meris Egyptoko erregea.
Meris lakua.
Molunte (fr. Moloeis, ing. Moloïs,
esp. Molunte, gr. Molovei", ovento").
molosoak.
Molpagoras.
mosynekoak.

moskhoak.
Munikhia.
Murykhides.
Museo.
Mygdonia.
Myekphorisko nomoa.
myuntetarrak. v. Myunte.
Mykale.
Myzerino.
Myzenaskoak (myzenastarrak).
mykoak.
Mykono.
Mylasa.
mylasarra.
Mylita.
myndoar Szylax.
Myunte (fr. Myunte, esp. Miunte, ing. Myus, gr. Muou'", ou'nto").
myuntetarrak.
Myriandoko golkoa.
Myrina.
myrinarrak.
Myrzino.
Myrmex.
Myrsilo.
Myrso Gygesena.
Myrso Kandaulesen aita.
Myron.
Mys.
mysiarrak.
Mysia (lurra).
Myso (mysiarren arbasoa).
Mytilene.
mytilenetarrak.
Momemphis.
Mophi.
Nathos nomoa.
Naxo.
naxoarrak.
Siziliako naxoarrak.
Napolis.
nasamonak.
Naukratis.
Nauplia.

Naustropho.
Neapolis Egyptokoa.
Neapolis Palenekoa.
Nileo.
Nilo.
Neko Psametikhorena.
Neko Psametikhoren aita.
Neokles.
Neontikhos (Gazteluberri).
Nesto.
Nestor.
neuroak.
Neuride (Iurra).
Neon.
Neleidak (Neleoren ondorengoak).
Nereidak (Nereoren alabak).
nesear zaldiak.
nesear lautada.
Nikandra.
Nikandro.
Nike (Garaipena).
Nikodromo.
Nikolao Bulisena.
Nikolao Bulisen aita.
Nino erregea.
Nino hiria (Ninive).
Ninoarren ateak.
Nisea.
nisyroarrak.
Nitetis.
Nitokris egiptoarra.
Nitokris babylondarra.
nipseoak.
Noes.
Nothon.
hegoaldeko itsasoa.
Notio.
Nudio.
Nymphodoro.
Ethiopiako Nysa.
Nysa sakratua.
Nonakris.
Xanthes.
Xanthipo.

Xantho.
xanthoar.
Xanthoko lautada.
Xenagoras.
Xerxes (fr. Xerxès, ing. Xerxes, esp. Jerjes, gr. Xevrxh", ou).
Xutho.
Oaxo.
Oarizo.
Oaro.
Oasis.
odomantoak.
odrysas.
Odyssea.
ozolak v. lokroak.
Othryades.
Othrys.
Ebares Darioren zaldizaina.
Ebares Megabazorena.
Edipo (fr. Oedipe, ing. Oedipus, esp. Edipo, gr. Oijdivpou", odo" (-ou)).
Ediporen (Eryni)ak.
Edipo.
Ea.
Enoe.
Enusa irlak (Ardo-irlak).
Enone.
Enotria.
Eobazo persiarra.
Eobazo persiarra.
Eobazo Siromitresen aita.
Eolyko.
Etako mendiak.
Eta.
Oktamasades.
olbiopolitak.
Oliato.
Oloro.
Olophyxo.
Joko Olympikoak.
Joko Olympikoa.
olympionikoa (garailea).
Olympia.
Olympiodoro.
Olympo Thesaliako mendia.
Olympoko iraganbidea.
Mysiako Olympo.

olympianoak.
Olyntho.
olynthoarrak.
ombriarrak.
Homero (fr. Homère, ing. Homer,
gr. "Omhro", ou).
Homeroren bertsoak.
oneatak.
Onesilo.
Onetes (fr. Orestès (Oreste), ing. Orestes).
Onomakrito.
Onomasto.
Onuphisko nomoa.
Onokhono.
Hoples (gr. "Oplh", hto", hopleteen
(armadunen) arbasoa.
Opea.
opuntetarrak.
Orbelo.
Orgeo.
Ordeso.
Orestheo.
Orestes.
orthokorybantioak.
Oriko.
Horko (Zina).
orneatak.
Oretes.
Orotalt.
Orsiphanto.
(errito) orphikoak.
Orkhomeno Arkadiakoa.
Orkhomenoko arkadiarrak.
Orkhomeno Beoziakoa.
Orkhomenoko beoziarrak.
Osiris.
Osa.
Otanés Amestrisen aita.
Otanés Sisamnesena.
Otanés Pharnaspesena.
Otaspes.
Urania v. Aphrodita.
utioak.
Ophryneo.
Pagasas.
Pangeo (mendia).

padeak.
Atikako peaniar demoa.
Peon.
peoniararak.
peoniar emakumeak.
Peonia.
Peonia.
Atikako Peonia.
peoplak.
Peso.
petoak.
paktykarrak.
Paktyka (lurraldea).
(paktykarren) janzkera.
Paktya.
Paktyas.
Paktolo.
Palestina, palestinarrak v. syriarrak.
paletarrak.
paladioak.
Palas v. Athenea.
Palenetar Aminias.
Palene.
palenetarrak.
Palenide v. Athenea.
Pamiso.
Pamon.
pamphyliarrak.
pamphyliarrak doriarren leinua.
Pan v. Mendes.
panatheneak.
Panetio.
Pandion.
panthialeok.
Panites.
Panjonia.
Panjonioa (Joniar Oorena).
Panjonio.
panopeok.
Panormo.
Pantagnoto.
Pantaleon.
Pantares.
Pantikapes.
pantimathok.
Pantites.
Papeo.
Papremis.

Papremisko nomoa.
Parebates.
paralatak.
Parapotamios (fr. Parapotamies,
ing. Parapotamii,
gr. Parapotavmioi, wn: Ibaiondo).
paretazenoak.
Parthenio mendia.
Parthenio (ibaia).
parthoak.
parikanioak.
Pario.
Pariokoa (pariarra).
Parmys.
Parnaso.
Paro.
paroarrak.
Paroko harria.
paroreatak.
paroreatak.
pasargadak.
Pasikles.
pheniziar patekoak.
Pateko.
Lyziako Pataras.
Patarbemis.
Patizithes.
Patiramphes.
Patumo.
Patras.
Pausanias.
pausikak.
Pausiris.
paphlagoniarrak.
Papho.
pediearrak.
Pithagoras (fr. Peitagorès, ing. Pithagoras, gr. Peiqagovrh", ew).
Pireo (fr. le Pirée, ing. Piraeus,
gr. Peiraieuv", aievw").
Pirene (fr. Peirènè, ing. Pirene,
gr. Peirhvvnh, h").
Piro (fr. Peiros, ing. Pirus, gr. Pei'ro", ou).
pisistratidak (pisistratoarrak,
fr, les Pisistratides, ing. Pisistratidae, gr. Peisistrativdai).
Pisistrato Hipokratesena.
Pisistrato Nestorrena.
Pelargiar harresia.

pelasgiarrak:
egialeak.
Arkadiakoak.
pelasgiar emakumeak.
pelasgiar emakumeak.
Pelasgia.
pelasgiar jatorria.
pelasgiar hirixkak.
Pela.
Pelene.
Peloponeso.
peloponesoarrak.
Pelope (fr. Pélops, ing. Pelops, esp. Pelope, gr. Pevloy, opo").
pelopida (pelopetarra, fr. ing. Pelopides, esp. pelópida, gr. Pelopivdh", ou).
Penthylo.
Priamoren Pergamoa (= Troiako
gotorlekua).
Pergamo pieriarren gotorlekua.
Perdikas.
Perialo.
Periandro.
Perikles.
Perilao.
Perintho.
perinthoarrak.
Perkalo.
Perkote.
perreboak.
persiarrak (fr.perses (persans), ing. persians, esp. persas, gr. Pevrsai, wn).
Persia.
persiar jatorria.
persiar emakumeak.
persiar hizkuntza (persiera).
(persiar) lurraldea (lurra).
perseotarrak (perseidak,
fr descendant de Persée, (Perseides), ing. Persides, gr. Perseiðai, w'n).
perseidak (perseotarrak).
Perseoren talaia.
Perseo (fr. Persée, ing. Perseus,
gr. Perseuv", evw").
Perses.
perpheresak.
Petra.
Pedaso.

Pedasa.
pedasarrak.
Peleo.
Pelio (mendia).
Pelusio.
Pelusiar gazitegiak.
Niloren Pelusioko ahoa.
Peneo.
Penelope Panen ama.
Pigres peoniarra.
Pigres Hyseldomorena.
pieriarrak.
Pieria.
pieriar bikea.
Piloro.
Pindaro.
Pindo mendia.
Pindo hiria.
Pixodaro.
Pisa.
Pistyro.
Pitana eoliarra.
Pitana Spartako.
Pitana Spartako demoa.
pitanarrak.
pitanar gudaritaldea.
Pitako.
Plazia.
plaziarrak.
Platea.
Platea.
platearrak.
Plateako lurra.
Plateako lurraldea.
Plateako gudaldia.
Platea irla.
Plistarkho.
Plistoro.
Plinthinako golkoa.
Plyno portua.
Peziles.
Poliades.
Polikhna.
polikhnarrak.
Polyas.
Polybo.

Polydamna.
 Polydektes.
 Polydoro Alkamenesena.
 Polydoro Kadmorena.
 Polykrates.
 Polykrito Kriorena.
 Polykrito Krioren aita.
 Polymnesto.
 Polynizes.
 pontoar emporioak.
 Ponto v. Ponto Euxino.
 Porata.
 zimeriar itsasartea.
 Posidon (fr. Poseidôn, ing. Poseidon, esp. Posidon, gr. Poseidw'n, w'no").
 Helikondarra.
 Soter (Salbatzailea).
 v. Thagimasadas.
 posidoniarra (Posidoniakoa).
 Posidonio.
 Thraziako Posideoa (Posidonen santutegia).
 Ziliziako Posideo (hiria).
 Potidea.
 potidearrak.
 Potniak (Andereak).
 presoarrak.
 Prasiade (lakua).
 Prexaspes Aspathinesena.
 Prexaspes persiarra.
 Prexilao.
 Prexino.
 Priamo.
 Priene.
 prienetarrak.
 Prinetales.
 Prokles Aristodemorena.
 Prokles Epidauroko tyranoa.
 Prokoneso.
 Promenea.
 Prometheo (fr. Prométhée, ing. Prometheus, gr. Promhqeuv", evw").
 Pronea v. Athenea.
 Propontide (fr. Propontide, ing. Propontis, esp. Propóntide, gr. Propontiv", ivdo").
 Prosopitide (fr. Prosôpitis, ing. Prosopitis).

Protothyes.
Prytanis.
Protesilao.
Proteo (fr. Protée, ing. Proteus,
gr. Prwteuv", evw").
Pteria.
Pteriakoak (pteriarrak).
Ptooa (Apoloren santutegia).
Ptooarra v. Apolo.
(errito) pythagorikoak.
Pythagoras miletoarra (Miletokoa).
Pythagoras Mnesarkhorena.
Pytheas abderarra.
Pytheas Iskhenooarena.
Pytheas Lamponen aita.
Pythermo.
[(Joko) Pythikoak]
Pythia.
pythiarrak.
Pythio.
Pythogenes.
Pytho hiria (= Delphos).
pylagoroak.
Pylak (Atakak = Thermopylak).
Pylea (Pyletako Batzarrea).
pyloarrak (Pylokoak).
(pyloar) kaukonak.
Pylo Elidekoa.
Pylo Lakoniakoa.
Pyrgo.
Pyreto.
Pyrene.
Pogon portua.
Rhampsinito.
Rhegio
rhegiarrak.
Rhenea.
Rhodope.
Rhodo (= Rhodas).
Rhodopis.
Rheko.
Rheteo.
Rhypes.
Sabako.
Sabylo.

sagartioak.
Sadyates Ardysena.
Sais.
saistarrak.
saistar (Saisko) nomoa.
Niloren Saisko ahoa.
sakak.
(saka) amyrgiarrak.
Salamina Zyprokoa.
salaminarrak.
Salaminako zelaia.
Salamina irla.
Salaminako lurraldea.
Sale.
Salmoxis.
Salmydeso.
Samio Arkhiasena (Samoarra).
Samothrazia (fr., ing. Samothrace,
gr. Samoqrav/kh, h").
samothraziarrak.
Samothraziako gotorlekuak.
Samo.
samoarrak.
samoar besoa (luzera neurria).
Sanakharibo.
Sandanis.
Sandozes.
Sane.
sapeoak.
Sappho.
sarangak.
Sardes (fr. Sardes, ing. Sardis,
gr. Savrdei", ewn).
Sardesko hiria.
Sardo irla (= Sardinia).

sardoarrak (sardiniarrak).
Sardoar itsasoa (Sardiniako itsasoa).
lino sardonikoa.
Sarpedoniar lurmuturra.
Sarpedon.
Sarte.
saspireak.
Sataspes.
satrak.
satagydak.
Saulio.
sauromatak.
sauromaten lurraldea.
Sebenyteko nomoa.
Niloren Sebenyteko ahoa.
Setho.
Selene.
Selinunte (fr. Sélinunte, ing. Selinus,
gr. Selinou", ou'nto").
selinuntetarrak.
Semele.
Semiramis.
Serbonide lakua (fr. le lac Serbônîs,
ing. Serbonian marsh,
gr. Serbwniv" (-ido") livmnh).
seriphoarrak.
Sermyle.
Serreo lurmuturra.
Sesostris.
Selymbria.
Sepea.
Sepias lurmuturra.
Sesto.
Singo.
Troadeko Sigeo.

sigynak.
Sidon.
sidondarrak.
sidondar emakumeak.
Sithonia.
Sikania (= Sizilia).
Sikas.
siziliarrak.
Sizilia (fr. Sicile, ing. Sicily,
gr. Sikeliva, a").
Sizino.
Sizyon.
sizyondarrak
Silenos.
Marsyas (silenos).
Simonides Zeokoa.
sindikarrak.
Sindika.
Sindo.
Sinope.
Siuph.
siriopeoniarrak.
Siris Italiakoa.
siristarra.
Peoniako Siris.
Siromitres.
Siromo Euelthonena.
Siromo Matenen aita.
Sisamnes Otanesen aita.
Sisamnes Hydarnesena.
Sisimazes.
Sitalzes.
Siphno.
siphnoarrak.
Szeo.
Skamandro.
Skamandronymo.
Skaptesyle (Meategi-baso:
urre-meategia).
Szironide bidea (Szirongo bidea).
Sziatho.
Szidro.
Szio ibaia.
Szirade v. Athenea.

Sziton.
Szione.
szionetarrak.
Skolopunte (fr. Skolopoente, ing. Scolopoïs, gr. Skolopovei", ovento").
skolotoak.
skopadak.
szythiarrak (fr. Scythes, ing. Scythians, esp. escitas, gr. Skuvqai, w'n) .
(szythiar) heleniartuak.
Szythia.
Szythia(ko lurraldea).
szythiar sorterria.
szythiar herria.
Szytha Heraklesena (szythiarren arbasoa).
Szytha Kadmoren aita.
Szylaze.
Karyandako Szylax.
Szylax myndoarra.
Szyles.
Szylias.
Szyroar Pamon.
szyrmiadak.
Skolo.
Skopasis.
Smerdis Zyrorena.
Smerdis magoa.
Smerdomenes.
Smila.
Smindyrides.
Smyrna.
smyrnarrak.
sogdianarrak.
Solunte lurmuturra (fr., esp. Solunte,
ing. Soloïs, gr. Solovei", ovento").
Solos.
solostarrak (Soloskoak).
solymoak.
Solon.
Sunio.
Sunioko tontorra.
Susa.
Spako.

Spargapithes agathyrsoen erregea.
Spargapithes szythiarren erregea.
Spargapises.
Sparta.
spartarrak.
Sperthias.
Sperkheo.
Stagirol.
Stentoride lakua (fr. le lac Stentoris,
ing. Stentorid lake).
Stenyklero.
Stesagoras.
Stesenor.
Stesilao.
Stratopeda (Kanpamenduak).
Khioko Stratis.
strukhateak.
Stryme.
Strymongo haizea.
strymondar bithyniarrek.
Strymon.
Stygeko ura (fr., ing. Styx,
esp. Estige (Estigia), gr. Stuvx, Stugov").
Stymphalis lakua.
styrarrak.
Syagro.
Sybaris.
sybaritak (Sybariskoak).
Syenesis.
Syene.
Syleo lautada.
Sylosonte (fr. Sylosôn, ing. Syloson,
esp. Silosonte, gr. Sulosw'n, w'nto").
Syme.
Syrgis.
Syrakusa.
syrakusarrak.
syriarrak.
asyriarrak.
(syriar) palestinarrak.
Syria.
Syria Palestina edo Palestina.
syriar gerragurdia.

Syrte (fr., esp. Syrte, ing. Syrtis,
gr. Suvrti", ido").
sphendaletarrak (Atikako Sphendale
demokoak).
Sokles.
Sosimenes.
Sostrato.
Sophanes.
Tabalo.
Tabiti.
Tenaro.
Talao.
Talthybio.
talthibiadak (talthibiararak).
Tamynas.
Tanagra.
tanagrarrak.
Tanagrako zatia.
Tanais (= Don ibaia).
Tanisko nomoa.
Taxazis.
Tarento (fr. Tarente, ing. Taras (Tarentum), gr. Tavra", anto").
tarentoarrak.
Targitao.
Tarikheas.
Tarteso.
tartesoarrak.
tartesoar erbinudeak.
Taurika.
Tauroar mendiak.
tauroar herria.
tauroarrak.
Taukhira.
Takhompso.
Tearo.
Teaspis.
Tegea.
tegearrak.
Tegeako mugak.
Tethronio.
Tisameno Antiokhorena.
Tisameno Thebaskoa.

Tisandro Hipoklidesen aita.
Tisandro Isagorasen aita.
Tisias.
Teispes Akhemenesena.
Teispes Zyrorena.
Telamon.
Telesarkho.
Teliadak.
Telias.
Telo.
telmesoarrak.
Tempe.
Tenedo.
tenedoarrak.
Termerako (termerar) Histieo.
termilak.
Tetramnesto.
Teuthrania.
teukroak.
teukroen lurra (= Troade).
Alexandro teukroa.
Teo.
teotarrak.
teleboak.
Telekles.
Teleklo.
Telemakho.
Telines.
Telo.
Telys.
Temeno.
temenoarrak.
Temno.
Teno.
tenoarrak.
Teres.
Terilo.
Taygeto.
Tiaranto.
tibarenoak.
Tibisis.
Tigranes.
Tigris.
Titheo.
Tithorea.
Timagoras.
Timandro.
Timarete.
Timegenides.
Timesitheo.

klazomenastar Timesio.
Timodemo.
Timoxeno.

Timo.
Timon.
Timonax (fr. Timônax, ing. Timonax,
esp Timonacte, gr. Timw'nax, akto").
Tiryntho (fr. Tirynthe, ing. Tiryns,
esp. Tirinto, gr. Tivrun", unqo").
tirynthoarrak.
Tirynthoko lurralde.
Titako.
Titormo.
Tmolo.
Tomyris.
Torone.
Toroneko lurmuturra.
Trapezunte (fr. Trapézonte, ing. Trapezus
esp. Trapezunte,
gr. Trapezou'", ou'nto").
traspisak.
Trauo (fr. Trauos, ing. Travus, esp. Travo,
gr. Trau'o", ou).
trausoak.
Zitherongo Trizephalas (Hiruburueta).
Trakhis.
(Trakhis) hiria.
trakhiniarrak.
Trakhinia (lurra).
Trakhiniar Harkaitzak.
Tribaloarren lautada.
Triopio.
Triopioko eliza.
Triopiarra v. Apolo.
tritearrak.
Tritantekhmes Artabazorena.
Tritantekhmes Artabanorena.
Triteas.
Tritogenia v. Athenea.
Triton.
Triton ibaia.
Tritonide lakua (fr. le lac Tritônis,
gr. Tritwniv" (-ido") livmnh).
Trezen (fr. Troèzene, ing. Troezen,
gr. Troizhvn, h'no").
trezendarrak.
Troia (fr. Troie, ing. Troy, esp. Troya,
gr. Troiva, a").
troiarrak.
Troade (lurra).
Troiaiko (gertakizun)ak.
Troiaiko nekeak.
Trophonio.

trogldytak.
Tydeo.
Tymnes

Ariapithesen

administratzailea.

Tymnes Histieoren aita.
Tyndareo.
tyndaridak (tyndaroarrak).
Tyres (= Dniester ibaia).
tyrestarrak
Tyrodiza.
Tyro (fr. Tyr, ing. Tyre, esp. Tiro,
gr. Tuvro", ou).
tyroarrak.
tyrreniarrak.
Tyrrenia.
Tyrreno.
Typhon
Typho (= Typhon).
Hyazinthiak.
Hyampea.
Hyampolis.
hyatak.
Hyble.
Hybris (Harrokeria).
Hydarnes persiarra.
Hydarnes Hydarnesena.
Hydrea.
Hyele.
Hylea (lurra).
hyleak.
Hylo Heraklesena.
Hylo ibaia.
Hymeas
Hymeso.
Hypazyris.
Hypanis.
hypakheoak.
Hyperanthes.
hyperboreoak.
Hyperokhe.
Hyrgis.
Hyria.
hyrkaniarrak.
Hyreades.
Hysias.
Hyseldomo.
Hystanes.
Hystaspes Arsamenesena.
Hystaspes Dariorena.

hytenesak.
Phagres pieriarren gotorlekua.
Phedymia.
Phenipo.
Phalero.
phaleroarrak.
Phanagoras.
Phanes.
Pharandates.
Pharbethisko nomoa.
Pharas.
Pharnazathres.
Pharnazes.
Pharnaspes.
Pharnukhes.
Phaselis.
Phasis.
Phaulo.
Phaylo.
Phidipides v. Philipides.
Phidon (fr. Pheidòn, ing. Phidon,
esp. Fidón, gr. Feivdwn, wno").
Pheneo.
Pherendates.
Pheretima.
Phero.
Phegeo.
Phthio.
Phthiotideko akhearrak.
Phthiotide (lurra).
Phigaleako Kleandro.
Philagro.
Phileo.
Philaon.
Philes.
Philipides.
Philipo Argeorena.
Philipo Butazidesena.
Philisto.
Philitis.
Philozypro.
Philozyon.
Phla.

Phlegra.
 Phliunte (fr. Phliunte, esp. Fliunte,
 ing. Phlius, gr. Fliu'', ou'nto").
 phliuntetarrak.
 Phebo v. Apolo.
 Pheboren santutegia (Phebeoa).
 pheniziarak (fr. phéniciens, ing. Poenicians, esp. fenicios, gr. Foivnike'', wn).
 (Pheniziako) tyroarrak.
 Phenizia (fr. Phénicie, gr. Foinivkh, h").
 pheniziar patekoak.
 letra pheniziarak.
 Phenix ibaia.
 Phormo.
 Phraortes mediarra.
 Phraortes mediarren erregea.
 Phratagune.
 Phrikongo hiria
 Phrikonide.
 Phrixas.
 Phrixo.
 Phronime.
 phrygiarrak (fr. Phrygiens, ing. Phrygians, esp. frigios, gr. Fruvge'', w'n).
 Phrygia (gr. Frugiva, a").
 phrygiar herrialdea.
 Phrynikho.
 Phrynon.
 Phya.
 Phylako heroia.
 Phylako Histieorena.
 Phylide.
 Phoea (fr. Phôkaea (Phocée), ing. Phocaea, esp. Focaea, gr. Fwvkaia, a").
 phozearrak.
 Phozidekoak (phozidetarrak).
 Phozide (lurraldea).
 khaldearrak.
 Khaldearren atearak.

Khalestra.
Khalzis (fr. Khalkis (Chalcis), ing. Chalcis, gr. Calkiv", ivdo").
khalzistarrak.
Thraziako (khalzistarr)ak.
Khalzidikako jendea.
khalibeak.
Kharadra.
Kharaxo.
Kharilao Eunomorena
Kharilao Meandrioren (anai)a.
Khariteak.
Khariteen muinoa.
Kharopino.
Khemis irla.
Khemis hiria.
khemistarrak.
Khemisko nomoa.
Kheops.
Kherasmis.
Khersis.
Bibasoko Khersoneso (penintsula).
Khersoneso Helespontokoa.
khersonesoarrak.
Khephren.
Khileo.
Khilon spartarra.
Khilon Demarmenorena.
Khio.
khiotarrak.
Khioko lurraldea.
Khoaspes.
Khereas.
khereatak (gr. Coireavtai, w'n: txerrizainak).
Khero.
khorasmiarrak.
Khromio.
Khytros (Ontziak).
Psamenito.
Psametikhon Inaroren aita.

Psametikhō Nekorena.

Psamis.

psyloak.

Psytalea.

Oeroe.

Ozeano.

Ozyto.

Oleno.

Olen.

Opis hīria.

Opis hyperborea.
Orithyia.
Oriko portua.
Oromedonte (fr. Oromèdon,
ing. Oromedon, esp. Oromedonte,
gr. ?Wromevdwn, onto").
Orus (ing. Orus, gr. "Wro" (codd.) /
fr. Horos, esp. Horus, gr. "Wro").
Oropo.

Lasarte-Oria,
1997ko Martxoaren 17an
Euskaratzailea
Iñaki USABIAGA SUKIA
Grekoko kathedraduna

Oharrak

¹ Peana, garaipena ospatzeko edo eskatzeko Apolo jainkoari batik bat zuzentzen zioten abestia edo himnoa zen. Himno horretan "Iê Paiôn" oihukatzen zuten lelo gisa, peoniarren izenaz ("Paión") bat etorritz. Hortik orakuluaren interpretazioa.

² Seguraski "Przewalski zaldiaz" ari da (*Equus ferus*), Kantauri aldeko kobazuloetan marraztuta ageri dena eta paleolitos aroan Europako mendebaldean bizi zena. Beraz, K.a. v. mendean, zaldi hori Eki Europara emigratua zen jada.

³ Bederatzi edo hamar kidez osaturiko epaimahaia zen, Elide hiriko etxe onenetakoetatik hautatuak, Joko Olympiadak antolatu eta presiditzeko ardura zutenak.

⁴ Hots, herritarren eskubide zibil eta politikoen berdintasuna, "demokrazia" hitza zabaltu aurretiko kontzeptua.

⁵ "Estratego" hauek ez ziren tiranoen erregimenekoak bezalakoak, baizik epe jakin baterako hautaturiko magistratuak, botere zibil eta militarrez hornituak.

⁶ Narrazio osoan zehar nabari denez, Herodotok ez du Aristagorasi buruzko iritzi onik. Lehenxeago "tirania abolitzen zuelakoa" egin zuela esan du, eta aurrerantzean ere "Miletoko tiranoa" deitzen dio, nahiz eta bera izan erregimen demokratikoa ezarri zuena.

⁷ Praka bonbatxoak. "Barbaro" hitzari dagokionez, jatorriz "greziarra ez dena" adierazten du, berba total egitea esan nahi duen onomatopeia motako hitza delarik. Herodotok ez dio ematen, bestalde, gutxiespeneko zentzurik.

⁸ Asia.

⁹ Jarrera horrek arrenkari gisa zetorrela esan nahi zuen. Horrela, jainkoen babespean zegoen eta ukiezin ezko zen. Kleomenesek bere etxetik ere ezin zuen jaurti.

¹⁰ Postaleku horiek zalditegiak zituzten, baita ostatu gelak ere. Hasi gela arruntetatik eta funtzionario nagusientzako areto ederretaraino.

¹¹ Herodotok guztira emandako zifrari egokitze (111 postaleku eta 450 parasanga), hogeita hamalau parasanga izan beharko luke hemen.

¹² Hots, "Doloretako Demeter", Hadesek bere alaba Persephone bahitzeagatik sentitzen zuen minagatik, alegia.

¹³ Sakrilegoa izateagatik. Beste itzulpen posible bat "eta zu, ordea, harrikatzaile" izan daiteke, Klisthenesek bere kontrako politikoak erahiltzearen.

¹⁴ Etimologiaz, "Herri-buruzagiak".

¹⁵ Etimologiaz, "tribuburuak".

¹⁶ Hau da, tribu bakoitzeko zenbait "demos" edo herri-barruti.

¹⁷ Gobernu-organo hau bostehun kidez osaturik zegoen, hamar tribuetariko bakoitzeko berrogeita hamar.

¹⁸ Tribu bakoitza osatzen zuten "demos" edo barrutiak.

¹⁹ Tindareoren seme hauek Kastor eta Polux dira, eta horien imajina sakratuak (normalean zurezkoak) eramaten eta inbokatzen zituzten gerran.

²⁰ "Klerukoak" lurralde menperatuetan bertako bizilagunei konfiskaturiko lursail bat (klêros) hartzen zuten herritar pobreak ziren. Horren truke "hoplita" edo infanteriako soldadu-lanak egin behar zituzten.

²¹ Testualki, adierazpen askatasuna edo "hitza plazaratzeko eskubide berdina" (isêgoria), berdintasun politikoa esan nahi zuena.

²² Hots, Eako, Zeus eta Eginaren semearen imajina edo estatuak.

- 23 Elkarri irain lizunak esatea eta gordinkeria erritualak burutzea ugalmenarekin zerikusia zuten jainkosa-jainkoen kultuarekin loturik dago. Damia eta Auxesia jainkosen kultuari dagokionez, non emakumezkoak ageri diren protagonista, Demeterren kultuarekin lotua egon daiteke.
- 24 Herodotoren garaiko greziarrentzat ulertezina zen antzinako jainkosen belauniko edo kokoriko egote hura (belauniko egoteari umiliagarria erizten baitzioten) eta hori esplikatzeke legenda bat dugu hemen. Kokoriko jarrera hura (seguraski emakumeek erditzean hartzen zuten gorputz-jarrera) ugalmenarekin zerikusia duten jainkosena zatekeen.
- 25 Hauek ez dira besteak bezalako orakuluak, baizik K.a. VI. mendetik aurrera oso maiz azaltzen diren izaera politikozko orakuluak.
- 26 "Isokrazia", erregimen aristokratikoen ordezkari hauen ahotan, tiraniari aurkatzen zaion kontzeptua litzateke, eskubide-berdintasuna askorentzat galdatzen duena, baina ez horratio hiritar guztientzat edo gehienentzat.
- 27 Periandrok bere emazte hau nahi gabe hil zuen, antza.
- 28 Hots, herria batzarturik edo herri-batzarre erabakitzailea. Bertan hiritar guztiek hartzen zuten parte eta oinarrizko botere subiranoa zuen. Athenasen, Kontseiluak (bulé) deitzen zuen Batzarrera.
- 29 Zifra hori orduko Athenasko biztanleriari dagokio, baina Batzarrean, eta bozketan beraz, bost mila inguruk baino ez zuten parte hartzen normalean (quoruma sei mila zen). Bestalde, Herodotok Aristagoras iruzurtitzat jotzen du behin eta berri.
- 30 Ama Jainkosa hau Zibele dugu, naturaren indar sortzailea pertsonifikatzen zuena. Jainkosa honen kultua zen oraindino ere lurralde haietan (Anatolian) hedapen handiena zuen kultua. Ama Jainkosaren kultua K.a. III. mendean aurkitzen dugu, baina indoeuroparren aurreko Jainkosa Handian sustraiturik dago, honek Paleolitos aroko "Venus" haietan duela jatorria. Gure artean Mari litzateke jainkosa preindoeuropar haren aztarna (Marija GIMBUTAS: Civilization of the Goddess 1993).
- 31 Ahuramazdah, munduaren sortzaile eta zeruetako jainkoa, da hemen Dariok dei egiten duena.
- 32 Hots, persiar jatorrizko gudariak. Gainerako armada osatzen zuten soldaduak enda askotakoak ohi baitziren.
- 33 Zeus gerra-zaindaria.
- 34 Esaldi hau atsotitz bihurtu zen Antzinatean.
- 35 Hau da, Susatik ihes egitearren albaramendua eragitea.
- 36 Demeter jainkosaren izenean ospatzen ziren jaiak. Demeterri nekazaritzaren sorrera esleitzen zitzaion eta Thesmoforiak udazkenean ospatzen ziren Grezia osoan zehar, emakumeak soilik parte hartzen zutelarik.
- 37 Zamauntzi pheniziarak.
- 38 Hogei unti soilik bidaltzea eta haiek ere erretiratzea kritikatzeko zitzaielako politikoei, seguraski Alkmeondarrei.
- 39 Gaur egungo Mesina. K.a. VIII. mendean eraiki zuten greziarrek, eta igitai formako portuagatik deitzen zioten Zankle.
- 40 Kaleakte, etimologiaz "Hondartza ederra".
- 41 Hots, itsasarte horretako gunerik meharrenean.
- 42 Horrela, thraziarren laguntzaz balia zitekeen (mertzenarioak ere thraziarrak zitezkeen), tiraniarik nahi ez zuten inguruko herrien aurka iharduteko.
- 43 K.a. 493an.

- 44 Parasanga batek 5,32 km zituen. Etimologiaz (pertsieraz), "zaldizko ordubeteko ibilaldia".
- 45 Mazedoniaren ekialdekoak.
- 46 Europako kontinentera.
- 47 K.a. 491ean.
- 48 "Krio"-k, grekoz, "arito" esan nahi du.
- 49 Genealogia eta poema epikoen egileak. Poesia mota hori oso hedaturik zegoen garai hartan, nahiz eta literatura ugari horretatik oso gutxi baino ez den kontserbatu.
- 50 Zeus izan omen zen Perseoren aita, Danaez maitemindu eta urrezko euri itxuran ernalarazi zuelarik.
- 51 "Medimno" lakoniarrak 74 kilo zituen, eta "pinterdi" lakoniarrak 6,5 litro inguru.
- 52 Kasu honetan, atzerriko mandatariei eta bisitari garrantzitsuei harrera ofiziala egiteko ardura zeukan funtzionarioa. Zentzu orokorrean, "proxenos"-ek gaur egungo kontsulen eginkizuna zuen: herri baten interesak defendatu eta hango hiritarrak babestea atzerrian.
- 53 Soldadutza adinean ziren spartar guztiek (hogei urtetik gorakoek, beraz) elkarrekin egin behar zituzten otorduak.
- 54 Bi kenike 2,16 kilo zen, eta kotila bat 0,27 litro.
- 55 "Gerusia" hirurogei urtetik gorako 28 kidez osaturik zegoen Spartan, pertsonaia entzutetsuen artetik hautatuak biziarteko karguz. Herri-batzarrera aurkezteko ziren proposamenak alde zurretik eztabaidatzea eta erahilketa zein traizio kasuetan justizia administratzea zuen eginkizuntzat. Geroago, eforoengana igaro ziren eginkizunok.
- 56 "Periekoak" herri aurrekariaren ondorengoak ziren, askeak izan arren, spartarrak baino maila beheragokoak, eskulangintza eta merkataritza zutelarik bizibide. "Hilotak", aldiz, spartarren lurak lantzen zituzten baserritar jopuak ziren, ankerki jazarri eta sarraskitzen zituztenak aldioro.
- 57 Legegile greziarrek hamar ilargi-hilabete jotzen zituzten haurdunaldirako, legezko seme-alabatasunaren frogatzat.
- 58 "Demarato", etimologiaz "herriak desiratua".
- 59 "Mutil biluzien jaialdiak" urtero ospatzen ziren udaldian, Tirean hildako gudarien omenez. Gizonez osatutako koru batek eta mutil biluziz osatutako beste batek kanta eta dantza egiten zuten plazako antzokian eta Agoran, Apolo, Artemis eta Letoren estatuen aurrean.
- 60 Atsekabea adieraziz.
- 61 Zeus Herzeo, etxearen eta etxekoen babeslea. Etxeetako patioan ukan ohi zuen aldarea.
- 62 "Txakurkumea" esan nahi du.
- 63 Styigia, Arkadiako ibaia, gandu artean ur hotzezko meandro istiltsuz, ifernuko ibai garrantzitsuentzat zegoen. Stygia, hasiera batean, iturburu baten ondoko koba batean bizi zen ninfa bat zen.
- 64 Demeter eta Persephone. Jainkosa horiek misterio eleusiarrak ospatzen ziren santutegia zeukaten Eleusisen.
- 65 Sugea, Argos hiriaren ezaugarria. Sugea zen, halaber, zibilizazio preindoeuroparraren ezaugarri nagusienetariko bat, eta azkona, ordea, zibilizazio indoeuropar gerrariaren ezaugarria.
- 66 Horrela, greziarren ikuspegi legalistaren arabera, hilotei leporatzen zaie ekintzaren erantzukizun materiala.

- 67 Hau da, ura nahasi gabeko ardoa.
- 68 Ezaugarri horiek (symbola) objektu jakin baten bi erdiak izan ohi ziren.
- 69 Laido hori eginarrek alde zaurreko gerra deklaraziorik gabe Atikari K.a. VI. mendean eraso egitean zetzan. Egina erasotzailatzat jotzen duen ikuspegiari atxiki zaio Herodoto.
- 70 "Teoroak" festa erlijioso batean hiria ordezkatzeko zuten mandatari ofizialak ziren.
- 71 "Tesmoforo" hitzak "legegile" edo "fundatzaile" esan gura du, Demeter baitzen nekazaritza ekarri zuena gizakien artera.
- 72 Bost lehia atletikoz osaturik zegoen: lasterketa, luzera-jauzia, disko eta txabalina jaurtiketa, eta borroka.
- 73 Hau da, Sardesen aurka joniarrak emaniko laguntzagatik Atenas eta Eretria zigortzea.
- 74 Apolo eta Artemis. Leto, Zeusen seigarren emaztea, bi anaia horiek erditzeaz zegoela inork ere hartu nahi ez zuelarik (Hera jeloskoraren beldurrez), uharteño erratu batek hartu zuen azkenean, eta horregatik Delos ("Argitsua") izeneko uharte bihurtu zen.
- 75 Atenastar pisuen arabera, 11.100 kilo inguru.
- 76 "Hemerodromo": egunero tarte luzeak pausu arinez ibiltzeko gai ziren posta-gizon ofizialak.
- 77 Horren arabera, Athenas eta Spartaren arteko 202,5 kilometro egin zituen hogeita lau ordutan, bide malkartsu eta zailetatik.
- 78 "Polemakoa", antzinako erregeen eskumen militarrek hereditatuz, armadaburu zen oraindik. Geroago, estrategoei esleitu zitzaizkien eskumen horiek.
- 79 Agintea tokatzen zitzaien eguna.
- 80 Eskhylo poetaren anaia. Heriotza hori goren punturaino edertu zuen gerorantz legendak: lehenengo esku bataz, gero bestiaz, eta gero hortzez oratzen baitzion untziari, azkenean burua moztu behar izan ziotelarik.
- 81 Petrolioa oraintxe aipatzen da lehen aldiz Antzinatean.
- 82 Ondoko pasarte hau ez da Herodotorena.
- 83 Demeter eta Persefone. Demeter, landareen bizia sortzen den Lur jainkosaren adierazpena izatearren. Eta Persephone, Hades ifernuetako jainkoak bahitu eta emaztetzat hartzearren.
- 84 Salaketa hau herri batzarraren aurrean aurkeztu zen zuzenean, eta honek bozketa sekretuz erabaki zuen, salaketa eta defentsa entzun ondoren.
- 85 Egeo itsasoan udaldian ipar-ekialdetik jotzen duten "urteroko" haizeak.
- 86 Mardoniok bere hitzartzeari bukaera emateko dioen hau greziarren esakia zahar bat da.
- 87 Peloponesoarrak eta Peloponeso, hurrenez hurren.
- 88 Estadio batek 177,6 m ditu; istmo horrek, beraz, 2.100 m pasatxo.
- 89 Marsyas silenoa (zaldiantzeko gorpuzkera zuen dibinitatea) tutu bikoitzeko flautaren asmatzailea izan zen, legenda batzuen arabera. Apolori (liraren jainkoari) erronka egin eta galtzaile atera zelarik, jainko nagusiak larrutu egin zuen.
- 90 Urregorritzko estatara persiarrak (dariko ere deitzen zitzaiona) 8,40 kg pisatzen zituen.
- 91 Hilda gero ordezkoa ziurtatuta zeukaten goardiak.
- 92 K.a. 480ko apirilaren hasieran.
- 93 Gaitzaren printzipioaren garaile den Mithra (Ahriman) dibinitateari sagaraturikoak.
- 94 Hots, Ahuramazdari.

- 95 Bidaia luzeetarako erabiltzen zen orga estalia.
- 96 Puntaz gora.
- 97 Hele urrezko iletximadun ahari hegalaria baten bizkar gainean abiatu zen ihesi, Frixo nebatxoarekin batera, Ino amaorde gaiztoarengandik ihesi. Aharia Kolkiderantz zihoala, Hele zorabiatu egin zen eta itsasora erori. Hortik "Helesponto" itsasoaren izena.
- 98 Emakume thraziar bakozaile batzuek hantxe egin zutelako zati-zati Orfeo, emazte zuen Euridize galdu ondoren sexu-harremanik nahi ez izatearren beste ezein emakumerekin.
- 99 Hau da, "nobleak", "zintzoak".
- 100 Sanskritoko ârya hitzetik datorren herri-izen honek "noble" edo "aitonen seme" esan nahi du. Hasiera batean tribu iraniarrei esaten zitzaien, kanpotarrengandik bereizteko.
- 101 Bi ahoko aizkora, tradizioaren arabera amazonek eta nomadek erabiltzen zutena batik bat.
- 102 Mimenezko ezkutua, ertz gabekoa eta ahuntz- edo ardi-larruz forratua.
- 103 Hau da, interpretatio graecak Aresekin lotzen duen jainko gerlariren bat.
- 104 Hurrenez hurren, mila gudariren buru (kiliarka), hamar milaren buru (miriarka), ehun gudariren buru (hekatonarka) eta hamar soldaduko gudataldearen buru (dekarka).
- 105 Ziproko hiriek jaraunspenezko monarkiak zituzten.
- 106 Tiarak.
- 107 "Hegoako akhearrak".
- 108 Erdi mailako tonelajeko untziak, buztan itxurako popadunak.
- 109 120 metro ingurura.
- 110 Hau da, greziarren pentsamenduan hain garrantzi handia duen areté. Edozein izaki zein ekintzari aplika dakioke, baina gizakiari dagokionean bikaintasun fisikoa zein moralala adierazi nahi du.
- 111 Dionysoren pareko dibinitate thraziar bat, kultu orgiastikoarekin lotua, beharbada Sabazio zeritzon dibinitatea.
- 112 Hau da, sazerdotesa honen orakuluak ez zirela Delphoskoak baino zailago edo ilunagoak.
- 113 Hau da, Artakeasek 2,42 metroko garaiera zuela.
- 114 Hots, 10.368 kg zilar, gutxi gorabehera.
- 115 Uro izenez ere ezagutua, egungo behien aurrekoa da, gorpuzkera sendago eta adarkera garatuagoa zuelarik. Azkenak oraintsu (XVII. mendean) desagertu ziren European. Euskal Herrian aurkitutako arrastorik zaharrenak Brontze Arokoak dira.
- 116 Hiri ondoko harrobi abandonatu batean zegoen putzu bat, heriotza-zigorraz hildako batzuk jaurtitzen zituztena.
- 117 Spartarren herri batzarra, hiritartasun eskubide osoak zituzten hogeita hamar urtetik gorako gizonak oro parte har zezaketena.
- 118 Persiarrari jarki ala errendatu.
- 119 Orakuluak bertso hexametroan ematen ziren. Alexandro Handiaren ondoren hasi ziren prosaz ematen.
- 120 Athenasko gizarte-klaseez ari da.
- 121 Athenearen beste deitura bat.
- 122 Dela ereintza, dela uzta sasoian.

- 123 Batzarrean bildutako herriari, eskubide politiko osoak zituen edozein herritarrek parte har zezakeen batzarra (Ekklesia).
- 124 Gizarte-klaseez ari da. Klase nagusiak arazoak zituen Argosen klase xehearekin.
- 125 Herri-batzarraren (edo, gobernu aristokratikoetan, nobleen) batzorde aholkularia greziar hirietan.
- 126 Izan ere, Myzenasko errege Agamenonek Troiako gerra garaietan izan zuen hegemoniaren oinordekotzat zegoen Argos.
- 127 Demeter eta Persephone jainkosa ktonikoen apaiz gorenak. Jainkosa horien "misterio sakratuen erakusleak".
- 128 Gamoroak ("lursaila jaso dutenak") Sirakusaren fundatzaileak ziren, boterea zeukaten lurjabeak. Zylyrioak, aldiz, bertako nekazari azpiproletarioak, hiritartasunez gabetuak konkistaz.
- 129 Zenbait eskuizkributan ez dira ageri athenastarrak.
- 130 Menesteo, Erekteoren birloba, Iliadak Nestorrekin alderatzen duena estrategia kontuetan.
- 131 Salaminako borrokaldia K.a. 480ko irailaren azken astean izan zen.
- 132 Kretarrek lauhun untzirekin parte hartu zuten Troiako gerran, Idomeneo buruzagi zutela.
- 133 Tarento eta Brindisi artean.
- 134 Hamabost metro baino zertxobait gutxiago.
- 135 Hau da, "Ontziak".
- 136 Thyia hau Delphos lurraldeko ninfa bat da, Apolorekin Delphos izan zuena. Dionysoren kultuari atxiki zitzaion lehena Parnaso maldetan. Thyia "ekaiztsua" esaten zioten.
- 137 Harrapakin zati baten eskaintzaria denez, lehoiak lepo egiteko ohituraz ari da Herodoto.
- 138 "Inurria", uharriaren formagatik seguraski.
- 139 Kenize bat 1,08 litroren baliokidea da eta medimno bat 51,84 litrorena.
- 140 "Labeak".
- 141 "Irteera". Artemisio lurmuturraren aurrez aurre zegoen, 12 km inguruko tartea zelarik batetik bestera.
- 142 Zeus "Irenslea", giza sakrifizioen oroitzapenez seguraski.
- 143 "Herriko (Etxea)"
- 144 Lehensemearen sakrifizioa ekialdeko kultu anitzetan ageri da, baina giza oparigaiaren ordeaz aharitza sakrifikatzea ezarri zuten. Halere, lehensemearak lurraldetik alde egin beharra mantentzen zen.
- 145 25,5 km inguru.
- 146 Anfiktioniakoek ("inguruko auzoek") liga bat osatzen zuten, urtean birritan egiten zen batzarrera ordezkariak (Pylagoroak) bidaliz.
- 147 "Ateak".
- 148 Zerkopeak bidaztiei lapurretan ekiten zioten bi nano ziren. Amak kontuz ibiltzeko esan zien gizon ipurbeltz (melampygo) batekin topo egiterakoan. Herakles zen gizon hori eta, nanoek armak lapurtu nahian zebilzkionean, harrapatu eta buruz behera eseki zituen makila banatan. Makilok bizkarrean zeramatzala, nanoek garbi aski ikusi ahal

izan zuten huraxe zela benetan Ipurbeltz, eta barreari eman zioten. Heraklesi ere grazia egin zion nanoen aldarteak eta aske utzi zituen, azkenean.

149 Hirurehun horien izenak Leonidasen hilobiaren gaineko estelan jarri zituzten idatzita, Spartan.

150 Guduzelaian eroriei akabera ematen zieten naturaz gaindiko izpirituak.

151 K.a.-ko 480ko abuztuaren azkenetan.

152 Antzinateko gizarte aristokratoak "areté" hori goraltzen zuen diruaren aurrez aurre. "Areté"-ak bikaintasun fisikoa zein moralak hartzen zuen barne.

153 Hau da, Apolo jainkoaren izenean mintzatzen zen apaiza. Delphosko Apolo Pythioren santutegian -hantxe akabatu baitzuen Apolok Python sugea- Pythiak estasi-egoeran egiten zituen iragarpenei hizkuntz koherentzia eman behar zien "profeta" horrek.

154 Apolo jainkoak Pythiari iragarpenak erasaten zizkion lekua. Hortxe zegoen Apoloren urrezko imajina, Pythia jezartzen zen tripodea eta munduaren "zilborra" (omphalós) adierazten zuen harri sakratua, aurreko guztitik gaur egunera arte kontserbatu den objektu bakarra.

155 Suge honek Erekteo pertsonifikatzen zuen, Athenea bortxatu nahian Hephestok Lurrean isuritako hazitik jaioa. Sugea, horregatik, Athenearen (hiria babesten zuen jainkosa gergelariaren) sinbolo ktonikoa zen. Lehenago, ordeak, kultura minostarrean, etxea babesten zuen jainkosaren atributua zen sugea.

156 Etimologiaz, "goiko biztanleak", Akropolian bizi zirela adieraziz agian.

157 Athenea izan baitzen Erekteo hazi zuena.

158 Atheneak eta Posidonek hiriaren babesgorako izan zuten norgehiagoka. Posidonek ur gazia sortu zuen bere tridenteaz harkaitz bat kolpatzean, Atheneak olibondo bat ernearazten zuen bitartean.

159 Misterio-erritoei nekazari-jainkosekin zuten zerikusia. Lurraren emankortasuna eta landareriaren urteroko ernaberritzea ziurtatzen zuten indarrek gizakia ere babestuko zutelakoan heriotzaren ondoren.

160 Demeter eta Persephone.

161 Artemisiak, Halikarnasoko emakume tiranoak, gizon-kemena erakutsi nahi du.

162 Salaminan.

163 Akeoak lehenago Lakonian eta Argolidan bizi ziren, baina handik Akaiara egotzi zituzten, eta hortik lurralde honen izena.

164 Kóros ("asebetea") Xerxesen pertsonifikazioa da, eta Hybris ("gehiegikeria") pertsar espansionismoarena.

165 Kronida hau Zeus da, eta Niké, berriz, Garaipenaren pertsonifikazioa.

166 Gizarte greziar honen emakumearekiko bereizkeriaz gain, Artemisiak amazonak gogorarazten zizkien agian, Theseo heroi athenastarraren aurkariak, alegia.

167 Garagar aleak eho aurretik parriletan xigortzea.

168 Gako arteko testu hau ez da seguraski Herodotorena.

169 Maiz gertatzen zen garai hartako pentsamenduan kontzeptu abstraktoen jainkoespena.

170 Ahuramazda, Pertsiarren jainko gorenari.

171 Sunio muturretik 20 km ingurura dagoen uhartetxo harkaitzua.

172 Izenkide duelako aipatzen du beharbada, ez baitago haren bestelako aztarnarik.

173 Trophonioren kobara. Trophonio dibinitate ktoniko prehelenikoa zen, baina geroztik kondairetako herri heroï bihurtuz joan zen, "lapur maltzuraren" rola hartuz. Aholku eskatzera zihoazkionak ikararazi egiten zituen, hortik Mys hirugarren batez baliatzea.

174 Proxenosak gaur egungo kontsularen eginkizuna zuen gutxi gorabehera. Euergétes (ongile) titulua Estatuari zerbitzu nabarmenak egindako atzerritarrari eman ohi zitzaion.

175 Satiro zaharren eta jakintsuena, agure gordin eta hordi samarra, zaldi hazpegiz, musika trebetasunez eta profezia dohainez hornitua mozkor zegoenean. Midasen morroiek horrela aurkitu zuten eta erregeren aurrera eraman. Honek adeitasun handiz hartu zuen, eta Silenok, eskerronez, ukitzen zuen guztia urre bihurtzeko dohaina eman zion.

176 Hots, gobernu demokratikoarekin, tiraniaren berrezarpena baztertuz.

177 Hiritar guztiez osaturiko Biltzar honetan zetzan oinarritzko botere subiranoa. Biltzar hau Kontseiluak deitzen zuen, eguneko aztergaien zerrenda aurkeztuz.

178 Nekazari-izaerako jai predoriarra, Apolo eta Jazinthoren omenez (azken hau landaretzaren pertsonifikazioa). Normalean maiatzean ospatzen zen, hiru egun iraunez. Hasiera batean, hartarako sakrifikaturiko nerabe baten odola isurtzen zen, lurra ernalarazteko asmoz.

179 K.a. 480ko urriaren 2an izan zen eguzki-eklipse ez-oso.

180 Persiar izena grekora egokituz, mékistos superlatiboak "oso garaia" esan nahi baitu.

181 Armada greziarraren noranzkoari dagokionez, aurrealdean.

182 Gerrauntzien abordajea esku hartzen zuen itsas armadako infanteria.

183 Antzinako mitoaren arabera, Argosko erregeren alabek Hera jainkosa iraindu zuten eta honek eroarazi egin zituen, beren buruak behitzat hartuz (behia baitzen jainkosaren irudi zoomorfikoa) eta larruazaleko eritasun batez eriaraziz, Melampok sendatu zituen arte.

184 Mazedonia Persiaren menpean baitzegoen K.a. 512az geroztik.

185 Greziarrek hartxintxarrak erabiltzen zituzten botazioetan, baina Amonpharetok harri handi bat jasotzen du bere erabakiaren tinkotasuna adierazteko.

186 Hau da, periekoak eta hilotak kontuan hartu gabe.

187 Gorputz edertasuna koalitate moralen parekotzat jotzen zen Greziako garai arkaikoan.

188 Espartar oturuntzako janari nagusia (hogeitaz geroztik gorako espartar guztiek parte hartu beharreko otordu komunetako) txerri-odolarekin egositako eta gatzez eta ozpinez apailaturiko "zopa beltz" bat zen.

189 Hogeitaz geroztik gorako baina hogeita hamarretik beherako gazte espartarrak.

- 190 Hegesistrato hitz konposatuak "gudalburu" esan nahi du.
- 191 Demeter eta Persephone Andereen (Potniak) tenplua.
- 192 Suge bik inguraturiko zigor mehe biribila, Hermesen ikurra.
- 193 Borroka eta boxeo arteko lehia atletiko txit gogorra, hatzak begietan sartzea izan ezik, beste guztia libre zena.
- 194 Erregek beste urtebetetze bat gehiago burutu izana ospatzeko.
- 195 Troiako gerran hil zen lehen greziarra.
- 196 K.a. 479-478.
- 197 Ahuramazda. Herodotok "interpretatio graeca"-z Zeustzat hartua.